


BERTAN BILBO

Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia



Aitor Zuberogoitia - Pedro Zuberogoitia

AITOR ZÜBEROGOITIA
PEDRO ZÜBEROGOITIA

Bertan Bilbo

**Bizkaiko hiriburua eta euskara:
XX. mendeko historia**

Bilbo
2008

ZÜBEROGOITIA, Aitor / ZÜBEROGOITIA, Pedro
BERTAN BILBO,
Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia
Bilbao: Udala, Euskara Saila
2008

347 or. : il.; 25,5 zm.

L.G.: BI-228-08
ISBN: 978-84-88714-95-4

BERTAN BILBO
Bizkaiko hiriburua eta euskara: XX. mendeko historia

Argitalpena
1.a, 2008ko apirila

Argitaratzailea:
Bilboko Udala. Euskara Saila

Azala:
Adur Larrea

Diseinu grafikoa eta maketa:
IKUR, S.A.

Inprimaketa:
BASTER, S.L.L.

ISBN: 978-84-88714-95-4
LG: BI-228-08

Aurkibidea

Zinegotziaren aurkezpena	9
0. Esker ematea	11
I. Atarikoa	15
II. 1894, Abando: La Roblako trenak ikatza baino gehiago dakar ...	25
1. Inguruko errepublikak: Abando, Begoña eta Deustu	30
2. Hiru gizon, hiru ahots: Arana, Azkue eta Unamuno	36
3. Autogorrotaz	42
4. Lehenengo euskal aldizkariak	45
III. 1915, Artxanda: ihesbide erosoak kilkerretan joateko	51
1. <i>Gora gora arseniko-lejia!</i> Sabindarrak euskalduntze bidean	57
2. Euzkeltzale Bazkunaren lan isila	59
3. <i>Euzko-Deya</i> eta <i>Euzkadi</i>	65
4. Ekimen integratzaileak: <i>Hermes</i> aldizkaria, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia	70
IV. 1922, Errekalde Zumardia: taxi berde ezin politagoak	75
1. Euskara katedraren bilakaera	81
2. Andrazkoen indarra: Emakume Abertzale Batza	87
3. Diktaduratik <i>Dictablanda</i> -ra	93
V. 1932, Deustuibarra: Norvegiara bi minututan	97
1. Hezkuntzaren gaineko eztabaida	102
2. Lehenengo ikastolak	106
3. Udal eskoletako euskara klaseak eta euskara katedra	110
4. Emakumeen eta gazteen bultzada berriro ere	114
5. Tintontzi, luma eta errotatiba artean	119
6. 1936ko gerra: basakeria eta heriotza	123

VI.	1940, Kale Nagusia: trolebus berriak garai zaharretarako	127
	1. Esfera publikotik kanpo	133
	2. Pragmatismoaren bideak: barrutik eragiten	139
	3. Herri usaineko Bilbo	142
	4. Eskola, euskaldunen autoestimuaeren etsai	146
VII.	1949, Cantalojas zubia: Talgo = hazkundera	151
	1. Heriotzak, ihesak eta susperraldiak	156
	2. Folkloretik modernitatera	161
	3. Euskara gizarteratzen: bertsolari txapelketak	166
	4. Kristau ikasbidetik ikastoletara	171
	5. Hedabideen aroa abian	174
VIII.	1964, Atxuri: tranbiak ez du bizitza modernorako balio	177
	1. Etxez etxe Elkano kalera arte	182
	2. Lehiak, jaialdiak eta San Antongo gotorlekua	186
	3. Cinsa: diskoak, liburuak eta jaialdiak	190
	4. Kriselu: Bilbon argia egin guran	195
	5. Aresti, dohakabe guztien habian	196
	6. <i>Anaitasuna</i> , garai berrien atarian	203
IX.	1971, Artunduaga: bilbotar mikrobusak aldirietan	207
	1. Bilbotarrak hiztegitintzan	211
	2. Gabriel Arestiren oskorria	215
	3. Bilbo, ikasle-hiri	218
	4. <i>Anaitasuna</i> , eskuz esku	223
	5. Bizkaiera eta batuaren ahari-topeka	230
	6. Aro politiko berriaren eragina	235
	7. Gau-eskoletatik euskaltegiara	239
X.	1983, Matiko: gabarra eta funikularren itzulera	243
	1. Sinboloetatik kanpainetara, kanpainetatik errealitatera	249
	2. <i>Anaitasuna</i> -ren nahi eta ezina	252
	3. Maskarada: euskara hutsaren profesionalak	254
	4. Santutxuko bertsolari fabrika	262
	5. Xabier Gereño eta euskaldunen afariak	264
	6. Udalaren hizkuntza politika eta euskaltegiak	265
	7. Polo bien dinamika	270
	8. Siadecoren ikerketa	273
	9. Txepetx-en diagnosia	276

XI.	1995, Zazpikaleak: munduko euskaldun berri zaharrenak metroan dabilta	279
	1. Txepetxen ekarpena	282
	2. Udaleko Euskara Zerbitzua eta Bilbo Euskalduntzen	286
	3. Irala, Otxarkoaga eta Zorrotzako euskal txokoak	290
	4. Bilbon ez dela euskararik entzuten? Zenbat Gara elkarte eta Bilboko Kafe Antzokia	294
	5. Deustuari Euskara Dariola eta <i>Hitza Hartu</i> aldizkaria	301
	6. Begoñako errepublika	305
	7. Lizardi euskaltegia: Zazpikaleetan euskara barra-barra	307
	8. Hau Pittu Hau eta Hor dago! konpartsak	310
	9. Hezkuntza ereduen datuak eta Uztarri Kultur Taldea	314
	10. Labayru Ikastegia eta Deustuko Euskal Irakaslegoa	316
	11. XXI. mendeari begira	320
XII.	Azken berbak. <i>Edo geuk edo inok ez</i>	325
XIII.	Bibliografia	329
XIV.	Webgune interesgarrien zerrenda	333
XV.	Elkarrizketatutako pertsonen zerrenda	335
XVI.	Aurkibide onomastikoa	337

Badira urte batzuk *Jakin* aldizkariak Xabier Gereñori egindako elkarrizketa argitaratu zuela. Bilbon euskal kulturak eta hizkuntzak azken hamarkadetan izandako zenbait gorabeheren berri ematen zigun bilbotar idazle beteranoak bide batez, Aitor Zuberogoiaren galderei esker. Entrebista orekatua, oinarrian egileak egindako dokumentazio lan handiak elikatua.

Orduantxe pentsatu nuen Bilboren historia idatziak falta zuela euskararen testigantza neurri handi batean. Badira sona handiko euskal idazle eta gramatikari bilbotarrak letra handiz izkiriatu den Uriko historian aitortuak; baina hizkuntzaren bilakaeraren oinarrian izan diren euskaldunen nondik norakoak ez dira bat ere ezagun gure artean. Larriagoa oraindik, hainbaten ustez euskaldunon hizkuntza kontu berria da Bizkaiko hiriburuan.

Eta hara non Zuberogoitia anaiek, Aitor eta Pedro oraingoan, aurkeztu egin ziguten lan horixe egiteko asmoa. Ez nuen bitan pentsatu, eta hiru urte luzez egindako ahaleginaren ondorioa duzu liburu hau. Azken mende luzean Bilbon euskarak izan duen bilakaeraren azalpen ederra, hamarkadaz hamarkada egin da eta garraiobidearen irudi urbanoa gidari. Bete-beteko imajina gure errealitatea hizkuntzaren ikuspegitik aztertzeke.

Udalaren hizkuntza politikaren ildoak markatzen duen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak (EBPN) garrantzi handia ematen dio ondarea berreskuratzeari. Eta ondarea ez da museoaren sinonimoa. Hizkuntza biziaren iragana eta oraina duzu esku artean. Izan dadila geroa ziurtatuko duen altxor bizia.

Ana de Castro Rubalkaba
EUSKARA ZINEGOTZIA

O. Esker ematea

Jende askorekin gara zorretan. Eskerrak, hasteko, Imanol Agirre, Patxi Alaña, Ibone Altuna, Ander Altuna, Imanol Alvarez, Amaia Andonegi, Iñaki Antiguada, Asier Arrate, Txus Arrieta, Itziar Arrutza, Txomin Aurrekoetxea, Joseba Bastera, Edurne Brouard, Koldo Celestino, Lutxo Egia, Agurtzane Elordui, Teo Etxaburu, Jose Ramon Etxebarria, Fermin Etxegoien, Benito Fiz, Craig Gallacher, Karlos Gonzalez, Mikel Gorrotxategi, Patri Gutierrez, Joseba Irazabal, Iñaki Irigoien, Xabier Kintana, Jose Llerandi, Mertxe Luzuriaga, Txema Luzuriaga, Ander Manterola, Ismael Manterola, Ainhoa Markinez, Mikel Martinez, Hektor Ortega, Igor Quincoces, Ana Reka, Aitor Romeo, Bittor Rueda, Arantza Uribe, Joseba Verdes, Javier Viar, Anjel Zelaieta eta Koldo Zuazori, emaniko informazio guztiagatik.

Eskerrak, era berean, Euskaltzaindiko, Bidebarrietako eta Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegietako beharginei, Bilboko Euskal Museokoei eta Josejoa Gallastegi Bilboko Udaleko euskara teknikariari eta Ana de Castro Euskara zinegotziari, eskainitako laguntzagatik.

Atzen baina ez hutsen, Bilboko ura atera eta topa egiteko garaia: topa, bai, mendez mende euskararen hari meheari eten barik eutsi dioten bilbotar(tu) guzti-guztien gorazarrez: biba zuek!

Gurasoei, euskararekin batera
mundu oso bat ere transmititu
zigutelako.

Atalburuetan ageri diren autore bilbotarren margo guztiak Javier Viarren *Bilbao en el arte* obratik (obra horren 2. eta 3. liburukietatik, hain zuzen) hartu ditugu, egilearen baimenarekin.

Argazki guztien jatorria, berriz, argazki-oinetan dago aipaturik, atalburuko erretratuena salbu. Horiek leku hauetatik hartu ditugu, baimena eskatu ostean:

Azala: Adur Larrea

1900eko hamarkada: www.iespana.es webgunetik.

1910ekoa: *Bilbao* aldizkaritik.

1920koa: www.galeria.elcocheclasico.com webgunetik.

1930ekoa: Txema Luzuriagak emana.

1940koa: *Vida Vasca* aldizkaritik.

1950ekoa: www.talgo.de webgunetik.

1960koa: *Vida Vasca* aldizkaritik.

1970ekoa: <http://www.flickr.com/photos/karramarro/72437287> helbidetik.

1980koa: Athletic Club-en artxibotik.

1990ekoa: Natalia Poblacionek emana.

Eskerrik beroenak euren argazkiak gure esku jarri dituzten guztiei: Gregorio Arrien, Elkar disko etxea, *El Mundo del País Vasco*, Bilboko Udala, AEK, *Argia* eta *Euskaldunon Egunkaria* kazetak, Euskomedia Fundazioa, Auñamendi argitaldaria, Durangoko Azoka, Labayru Ikastegia, Begoñazpi ikastola, *Vía libre* aldizkaria, Athletic Club, Euskaltzaindia, Bilboko Konpartsen Koordinadora, Maskarada antzerki taldea, Zenbat Gara, Asapala eta Berbaizu euskara elkarteak, Lizardi Mintza Taldea, Deustuko Euskal Irakaslegoa, Txema Luzuriaga, Luis Amann, Roman Alonso, Natalia Poblacion, Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx*, Joan Mari Torrealdai, Altuna, Markinez, Verdes eta Aldatz familiak, Bilboko Euskal Museoa, Hau Pittu Hau eta Hor Dago!–*Abante* konpartsak, Uztarri Kultur Taldea, Artez Euskara Zerbitzua, Zorrotza eta Iralako Euskal Txokoak, Ibaizabal-Bilbo Berbetan, Ruth Toledano, Luis de Guezala eta Iñaki Camino, *Bidegileak* bilduma, www.erabili.com, eta www.blancamaria.com webguneak eta Sabino Arana Kultur Elkargoa. Eskerrak, halaber, Bilboko metroari, argazkiak ateratzen uzteagatik.

I. Atarikoa

Bada dioenik erdal hiria dela Bilbo, euskara elementu arrotza dela berton. Hori da, halaber, bazterrotan bizi diren batzuen ustea. Gauza jakina da, ordea, usteek, baita zabalduen daudenek ere, batzuetan ez dutela oinarri sendorik izaten. Hizpide dugun gaiari dagokionez, zera zioen *Bilbao* udal hilabetekariak 2004ko urtarrileko zenbakian: “Bilboko bizilagunen %15 -53.051, hain zuzen-euskalduna da, eta ia %26 -91.000 pertsona inguru- izateko bidean dago.” Bi zifrok batuta, kuantitatiboki behinik behin eta euskarari buruz ari garela betiere, ez dago horrenbesteko potentzialik daukan beste hiri bakar bat ere (arakatu bestela Eustat-en, Gaindegia-ren eta enparauen datutegiak). Erdal hiria izateko, bistan denez, handi samarra da bilbotar euskaldunen kopurua (jakin badakigu, dena dela, aukeran zaku zabalegia den *ia euskaldun* kategoriapean denetarik sartu ohi dela); ez alferrik, euskararen hiri buruzagi izateko ezaugarri guztiak baitauzka Bizkaiko hiriburuak.

Azken urteotako historiari erreparatuta ere, bestalde, Bilbo eta euskara kidetzen dituzten faktore garrantzitsuak daude: Bizkaiko Foru Aldundiak Euskara Katedra sortu zuen 1888an bertoko *Instituto Vizcaíno*-n; urte batzuk geroago, XIX. mende hondarrean, Resurreccion Maria Azkuek *Euskalzale*, Euskal Herriko euskara hutsezko lehenengo astekaria eratu zuen hirian; bilbotarra zen, halaber, euskal olerkigintza erabat eraldatu zuen gizona, euskara batuaren sustatzaile nagusienetarikoa izan zen Gabriel Aresti; horrez gain, non eta Bilboko San Nikolas elizaren lokaletan zabaldu zituen ateak, 1957an, 1936ko gerraz geroztik etxebizitza partikularretatik at eraturiko Euskal Herriko lehen ikastolak; era berean, gerraoste horretan bertan, Bilboko Areatzan hasi zen suspertzen bertsolari-tza, Euskaltzaindiak antolaturiko txapelketak zirela kausa.

Euskaltzaindia aipatu dugunez, esan dezagun euskararen akademia bera ere frankismorik gordinenean Bilboko Erribera kaleko lokalean arnasberritu zela, Krutwig, Azkue eta Irigoienek lanari esker batik bat; bilbotarra da Maskarada ere, euskara hutsez jardun zuen lehen antzerki talde profesionala, eta Bilbon suspertu ziren euskal hiztegigintza eta testuliburugintza modernoak, eta Bilbon

asmaturikoa da *euskaltegi* berba, eta bertokoak dira lehen euskaltegi profesionalak, eta berton amaitu zen Korrikaren estreinako ekitaldia (AEK-k beste inon baino indar handiagoa baitauka Bizkaiko hiriburuan), eta berton antolatu zuen Euskaltzaindiak *Bai Euskarari* jaialdia, eta Bilbon urratu zituzten abangoardiaren bideak *Pott* bandakoek, eta Bilbon sortu ziren *Kili-Kili*, *Anaitasuna*, *Idatz&Mintz*, *Agur*, *Aizul* eta euskarazko beste aldizkari batzuk, eta Bilbon dauka egoitza nagusia Euskaltzaindiak, eta hor daude halaber Kafe Antzokia, eta Kalderapeko, eta Bizkaia Irratia eta Bilbo Hiria Irratia, eta auzoetako euskara elkarteak eta euren aldizkariak, eta Labayru, eta bidean datozen komunikazio egitasmoak, eta...


... baina erdal hiria ei da Bilbo, hala ere, lur arrotza euskararentzat.

Alfer-alferrik izaten da batzuetan aurreusteen kontra borrokatzea, are gehiago sakon erroturikoak badira. Besterik ezean, beraz, has gaitezen aurreusteen sustraietan aztarrika, zer edo zer gehiago ulertu guran.

Auziari ekonomiaren ikuspegitik erreparatuz gero, begi-bistakoa da urteak joan eta urteak etorri nortasun-ikur nagusi bi izan dituela Bilbok bere sorreraz

geroztik: burdinaren inguruan sortutako industria, batetik, eta portualdeko merkataritza-jardun bizia, bestetik. Bi ardatzoi esker bizi-bizi garatu eta aberastu zen Botxoa; aberastasun hori zaintzeko, berriz, gaur egun San Anton eliza dagoen lekuan gotorleku bat egon zen garai batean, eta hiriaren sorleku nagusi izan ziren Zazpikaleak eurak ere harresiz inguraturik zeuden.

XV. mende erdirako jada, hiribildua alde guztietatik zarratuta zegoen, eta bertara sartzeko modu bakarra puntu jakin batzuetan ezarritako ateetatik igarotzea zen (gaur egungo Zamudioko Atea zen horietako bat); itsasadarrera begira zegoen alderdia zen salbuespena, hor ez baitzegoen harresirik. Horregatik hain zuzen, alde hori babesteko zazpi dorretxe paratu zituzten (bat kale bakoitzeko): Legizamon, Guemes, Arbolantxa, Markina, Arbieto, Novia eta Larrinaga dorretxeak. Egitura hori XVII. mende amaierara arte izan zen indarrean.



Rafael Mikoletak XVII. mendearen erdialdean Bilbon ondu zuen euskal gramatika hau AEK-k berrargitaratu zuen hiru mende geroago.

Iturria: AEK.

Merkataritza ugaltu eta populazioa handitu ahala, ordea, hiria zabaltzen eta aldatzen joan zen, horrenbeste non harresi eta dorretxeak desagertu egin ziren eta Europa mendebalde guztiko merkataria eta itsasgizonen bilgune bihurtu zen Bilbo: euskaldunak, gaztelauak, andaluziarrak, flandestarrak, holandarrak, katalanak, ingelesak, irlandarrak, okzitaniarrak, bretoiak, frantsesak, juduak... hainbat eta hainbat bazterretako lagunak bildu ziren hirira, gune haren dinamikotasunak erakarrita.

Dirua, merkataritza, dinamikotasuna, kultura desberdinen ekarria... Horiek ziren, besteak beste, eten barik hazten ari zen Bilboren ezaugarri nagusiak. Aldameneko hiribildu eta errepublikaren ekonomia, aldiz, baserri-mundukoa zen gehienbat, eta ia guztiz euskaldunak ziren. Lur Zabaletakoek (Deustu, Begoña eta Abandokoek batez ere) mesfidantzaz begiratzen ei zioten euren ondoan hazi eta hazi ari zen hirixkari, dela haren ekonomia-jarduera eta izaera desberdinak zirela bide, dela beronen handitze-gose itzelagatik; bilbotarrek, berriz, erdeinuz erreparatzen omen zieten albo-herri atzerakoi baserritarrei. Hori da behintzat saldu diguten irudia; dena dela, batzuen eta besteen arteko tirabirak izan zirela ukatu barik (epaitegietara heldutako auzi ugariei erreparatzea baino ez dago hori egiaztatzeko), auzoen artean jendetasuna ere gailendu zen beste aldikada askotan; bilbotarrek, berbarako, Begoñako *Amatxu*-ren irudia Zazpikaleetara jaisteko eskatzen zieten begoñarrei uholde-arriskua antzematen zuten bakoitzean, eta albo-herrietako erromerietara ere pozarren joaten ziren.

Albo-herri horiek, inguruko errepublikak, ia erabat euskaldunak zirela esan dugu arestian. Ander Ros Cubas-ek, berbarako, Abandoren kasua aipatzen digu:

“(...) udaletako artxiboetan gorderiko hainbat komunikazio eta bandotan ikus daitekeenaren bidez, argi azaltzen zaigu Diputazioak euskarazko harremanak zituela euskal aldean zeuden udalerriekin, eta holakotzat hartzen du Abando 1932 urte horretan, letreroa euskaraz ere jartzeko baldintza herri euskaldunetan aplikatzekoa baitzuen Diputazioak.”

Ros Cubasen arabera, albo-herrietan ez ezik Bilbo bertan ere jende asko mintzo zen euskaraz:

“Badirudi Bilbo euskaldunean bazirela gizatalde batzuk, herri xehea eta nekazal mundukoak bereziki, jakina, erdara jakin ere ez zekitenak (...) Esku artean erabilitako gaia, bando nahi auzi, errenta nahi enkante, herri osoak jakitekoa zenean, gaiaz denak jabe zitezen euskaraz eman behar izaten ziren azalpenak, gaztelaniaz irakurri eta gero. (...)”

Lekukotza horiek gorabehera, lehen aipatu ditugun estereotipoak dira azken mende eta erdi inguruan indartu direnak: hots, Bilbo = hiri kosmopolita aurrerazale gaztelania-hiztuna; albo-errepublikak = jendarte atzerakoi baserritar euskal-

hiztunak. Gauza jakina da estereotipoak baliagarri izan daitezkeela errealitate batera hurreratzeko lehen urrats modura. Haatik, arriskugarri ere izan daitezke baldin eta azaleko kontu horietatik harago joatea eragozten badute, errealitate-aren ikuspegi murriztailea eskaintzeaz gain, ikuspegi hori hedatzen eta errotzen laguntzen dutelako. Eta horrelako zer edo zer ez ote den jazo Bilboren irudiarekin, horixe begitantzen zaigu. Hots, tradizio jakin bat, irudi jakin bat ez ote den bistaratu batik bat, hiriaren kultura-ondare eta beronen izaeraren osagai funtsezko diren beste alderdi batzuk erdi-ezkutuan geratu diren bitartean (horregatik, besteak beste, hiri izaera bakarrekoaren kontzeptuari baino egokiago deritzogu Pedro Ugarte bilbotarrak iradokitako ideari: hiri bakarrean gainjarritako hirien kontzeptuari, alegia).

Erdi-ezkutuan geratu esan dugu, baina, agerian geratu direnean ere, maiz (maizegi) karikaturizatuta agertu dira beste errealitate horiek, *selebridadez* betetako Bilbo kostunbrista eta –euskararen ikuspegitik behintzat– folklorizatzailearen ohiko margoan: bai, *Pescuesito*, *Pitolerdo*, *Fracagorri* eta enparauen Bilbo *chirene* eta gaztelania-hiztun elebakar horretan, euskalduna, agertu izan denean (salbuespen ohoragarriak salbu), euskaldun barregarri, euskaldun folklorizatu, ia beti beste hizkuntza baten neurriaren arabera neurturiko euskaldun bufoia izan da.¹

Isekak iseka, euskararen presentzia hirian ukaezina da; Unamunok berak, esate baterako, zera aitortzen du: “(...) el castellano no ha sido lengua indígena en mi tierra, y aun los que lo hemos hablado desde la cuna hémoslo hablado siempre como lengua pegadiza. Ha sido un castellano pobre.” Hori, batetik; bestetik, Unamunok berak, Emiliano Arriagari idatzitako gutunean, zera dio: “Está, y ha estado aún más, rodeado Bilbao de pueblos que hablan vascuence (...) En las siete calles hay mucha gente –aun nacida en Bilbao– que habla vascuence, poco o mucho, mal o bien, y mucho aldeano establecido (...)”. Gutunak 1897ko Gabon zahar eguneko data dauka.

Iruzur intelektuala litzateke, beraz, Bilbon euskararen presentzia ukatzea, iruzur intelektuala litzatekeen moduan hirian erdara oso-oso aspaldidanik sakonki erroturik dagoela ukatzea. Izan ere, merkataritza-harremanak eta hiriaren hazkundera bera erdararen erabilerarekin batera bizkortu ziren. Koldo Mitxelena

³ Gabriel Arestik bere garaian gogor salatu zuen joera hori, Isidro Varelaren parodiak hizpide hartuta: “Isidro Varela nos demuestra cómo se puede llevar el *chapela* en el *cabesa*, vestir larga *burrusa*, calzar *abarkas* y hablar (o querer hacerlo) con acento vasco, y, a pesar de ello, no llegar a ser vasco. Varela (...) marmujea astracanadas a precio de premio payasil; intentando (sólo intentando) parodiar al aldeano vasco, con infeliz fortuna, sin enjundia alguna. Y aunque no sea más que por trabajador, el aldeano vasco se merece otro respeto. Varela (...) nos asegura que desde hace quince años no actuaba para el público de Bilbao. Con ello el público de Bilbao ha podido ser feliz durante quince años. Ojalá vuelva a serlo durante otro tanto tiempo.”

arabera, oso aspaldidanik da elebidun Bilbo. Mitxelenak, horrez gain, zera ere badiosku Rafael Mikoleta bilbotarrak 1653an idatziriko *Modo breve de aprender la lengua vizcayna* lanean ageri den euskarari buruz: “(...) no escaseaba en términos tomados a diario del romance.” Juan Antonio Moglek, bestalde, zera utzi zigun idatzirik erdararen eta euskararen arteko elkarreragin horretaz:

“Nada quiero hablar sobre la pureza de la lengua. Es preciso confesar ingenuamente, que está menos alterada en lo común de Vizcaya (no hablo de Bilbao, por que parece que aquí se esmeran en sacar un *tertiumquid* de la lengua castellana, y la bascongada, como allá algunos Israelitas con la hebrea, y la babilónica)”.

Xabier Kaltzakortak iradokitzen duenez, berriz, hemeretzigarren mende erdi-tutan, Bilboko hiri barruan erdarak gaina hartu zion euskarari. Javier Corcueraren ustez ere XIX. mende horretan gauzatu zen etena eta beronen eragile nagusia gizarte tradizionaletik ekoizpen-modu kapitalistara emaniko jauzia izan zen, aldaketa horrek kultura, bizimodu eta balore zaharrak (eta berauen isla nagusienetarik bat zen euskara) bazter utzi zituelako. Kataluniako *Renaixença*-n ez bezala, Bilbon euskarak ez zuen burgesia lagun izan, are gutxiago botere politikoa, eta hori larrutik ordaindu zuen hurrengo urteetan.

Izan zen, hala ere, laguntza-keinu bakanen bat edo beste Bilboko burgesia-aren aldetik (Epalza eta Sotarenak, barbarako), baina keinuok sekula ez zioten salbuespen izateari utzi. Administrazioaren eta hezkuntza sistemaren jokabideari gagozkiola, berriz, guztiok ditugu gogoan eraztun, zigor, isun eta enparauak. Azkue berak, esate baterako, aginte politikotik ezarritako trabak zirela eta utzi behar izan zion Bilbon sorturiko *Euskalzale* (Euskal Herrian euskara hutsez kale-raturiko lehen astekaria) ateratzeari, laster ikusiko dugun moduan. Horiek horrela, Bilboko Ingeniaritza Eskolan irakasle izaniko Pompeu Fabra hizkuntzalari katalana gisa honetan mintzo zen 1906an:

“Bilbao es una ciutat de llengua castellana; (...). Els bilbains, a casa llur, volen managars-s’ho tot ells sols. Fora ingerencies de gent estrany! Els maquetos que no a fiquin alli aoun no’ls demanen! Vet-aquí l llur regionalisme...! Enamorats de Bilbao, satisfets hiperbolicament del seu engrandiment, en el design de fer-se ls superiors s’arrapen adhuc a la llengua: l’euskara es antiquissim, no ve de capt altra llengua, es més llengua que l castellá que al cap de vall no es més que un dialecte llatí (i aquí está la cosa: l’euskar per damunt dels castellá...!), però no l parlen! Ni l’entenent!! Un dia he estat al Centro Vasco, vaig veure-hi retorls en Bascuense. No hi vaig sentir enraonar sinó en castellá. Molts que es deixen dir biscaitarres ignoren completament el Bascuense; es tant difícil! La seva gran dificultat (?): una altra prova de superioritat.”

Bilbotarrek, hortaz, euskara utzi eta erdara hobetsi zuten garai horretan, baina, aldi berean, galera jasangarriago egiteko edo nortasun-ikurrei eusteko edo

batek daki zergatik, Bilboko erdararen berezitasunak azpimarratzeari ekin zioten. Ez da kasualitatea Unamuno eta Arriagak gai horri eskainitako lanak ordukoak izatea. Horiek ez ezik, euskara eta erdara nahasten zituzten berba, esamolde eta kantua ere ugalduz joan ziren. Berehala datoz akordura “los bilbainitos en el verano / oh, qué moscorras suelen coger / bajo las parras de Puente Nuevo / *chacolí gorri* suelen beber...” edo “*ené*, qué risas *hisimos* al pasar por *el Sen-deja*” modukoak...

Gainerakoan, Emiliano Arriagaren *Lexicón* ospetsura jo barik ere, Bilbori buruzko izkribuak edota bilbotarrek idatzitako testuak irakurrita, aise ondoriozta daiteke *lingua vasconum*-a nongura ageri dela: bateko “*barriquetear*, “un *atal* de naranja”, “un *cuscurso* de pan” zein “porciones de *bustiña*”, besteko “las *calderapecos*”, “las *goitiberas*”, “el *saramero*”, “los *talos* y el *morokil*”, “los *sapaburus* y los *saguzarrak*”, “los *gautxoris* y las *piserrekadas*”, eta hango *alperron*, eta hemengo *arribolas*, eta horko *bisi-bisi*, eta haragoko *babalasto*...

Arriagaren *Lexicón* ospetsua aipatu berri dugu. Lan horren egileak zera dio *txinbo*-en berbetari buruz: “El que se ha usado en Bilbao hasta que el estrambótico y necio cultiparlismo lo ha invadido por completo, era una peregrina combinación del antiguo euskera con el castellano viejo.” Puntuan eransten duenez, berak jasotako berben %45 euskal jatorrikoak dira, beste horrenbeste gaztelau jatorrikoak, eta %10, azkenik, beste mintzaira batzuetatik eratorriak. Mende bat geroago Maitena Etxebarriak eginiko ikerketan ageri denaren arabera, aztertutako 33.578 unitate lexikoetatik, 3.486 (%10,38, beraz) euskarazko berbak dira, eta beste 3.776 (%11,24) euskararen eta gaztelaniaren nahasketaren ondorio.

Ahultzen ari zen hizkuntza batek hirian nagusitzen ari zen berbetari erantsitako adabakiak dira horiek guztiak, bistan denez. Euskararen presentziak hor jarraitzen zuen, baina presentzia ahuldua, makaldua zen, eta presentzia horrekin harreman berezia zeukan bilbotar asko eta askok (konplexu ezkuturen baten adierazgarri, beharbada). Unamunok dioskunez, adibidez, aratusteetan ere “lo más socorrido era disfrazarse de aldeano, en especial de *chorierrico*”.

Zer dela-eta horrenbesteko arrakasta baserritar-mozorroak? Baserritarra karikatura modura zekusatelako, ez bere logika eta kultura propioak zeuzkan pertsona modura. Baserritarra ez zen euren hizkuntzan mintzo, euskaraz baizik, eta euren hizkuntzan mintzo zenean, baldar egiten zuen berba, totelka (eta hala ere, argi dago, haien euskara baino askoz hobe zen baserritarraren gaztelania). Eman diezaiogun hitza berriro Unamunori: “El desmaño y la torpeza del aldeano llegaban a proverbio; la imitación de su chapurrado del castellano, una de nuestras fuentes de regocijo. (...) Hablaba otra lengua, una lengua milenaria, la de nuestros abuelos.”

Lengua milenaria zela esan bai, baina garai hartako bilbotar *intelligentsia*-ko kide askok ez zuen ahalegin handirik egin hura ulertu eta ikasteko; are gehiago:

barre egiten zieten bai baserritarrari bai bere berbetari. Eta ezagutzen ez duzuna estimatzea benetan zaila denez, badakigu honezkero zeintzuk izan ziren hurrengo kate-maila logikoak: gaztelaniaz ganoraz moldatzen ez zen euskaldunari *jebo*, *bato* edo *borono* deitzea, *Txomin del Regato*-k bere *sabidurensia*-rekin barre errazak eragitea... eta horrela joan ziren sendotzen hiriko euskaldun barreiatuen (uste baino askoz gehiago hala ere) konplexuak eta betiko estereotipoak (euskara = bazter-hizkuntza, besteen barre-algaren biktima izatera kondenatzen zaituen mintzaira...).

Ederto batean ezagutzen ditugu irudi estereotipatu horiek, berba asko egin baita euren gainean; haatik, apur bat sakondu eta azaleko irudi karikaturizatuetatik harago jo gura izanez gero, ezer gutxi dakigu Euzko Gaztedijakoen euskara ikastaro arrakastatsuez, ezer gutxi Azkueren Bilboko ibilerez, ezer gutxi hala-ber Joseba Altuna edo Xabier Peñari buruz, ez dugu Julia Berrojalbiz ezagutzen, ez dakigu nortzuk ziren Soroak edo Oñarriak, ez dakigu Txinpartak eta Kriselu izan zirenik ere, ez dugu inoiz Mikel Arrutza edo Karmele Goñiren izenik aditu... Euskaratik bertatik, euskarari arrotz ez zaion ikuspegitik eginiko kontakizuna falta genuela, berba batean.

Argi utzi gura genuke, dena dela, saiakera honen asmoa ez dela historia berrasmatzea edo ideologia jakinen baten menpeko berrirakurketa egitea. Badakigu, adibidez, 1375eko Bilbo irudikatzen zuen mapan ageri zen ibaiaren izena *Ibaizabal* zela eta euskaldun-jendeak horrela deitu izan diola aspaldidanik (bartzuen gaur egungo amnesia gorabehera), baina, edozelan ere, kontua ez da *Los cinco bilbainos*-ekin haserretzea haiek kantuan *por el río Nervión* abesten dutelako; Bilbo hori guztia ere bada, dudarik ez (irudikatzen ote du inork gaur egun *bilbainada* gabeko Botxorik?): *Los cinco bilbainos*, *chirene*-ak, El Sitio elkarteak, Unamuno, Bilbo liberala eta gainerako guztia... Hiria hori guztia da, bai... baina ez hori bakarrik. Hau da, liburu, jardunaldi eta enparauetan horrenbeste famatu gabeko Bilbo euskalduna ere (bezeroentzako amu modura *¿Biserra quendu? Bai seguru* kartela zerabilen Atxuriko bizartegi hura, barbarako) hiriaren funtsezko oinarri dela, orain artean egitate hori nekez bistaratu den arren.

Hiriaren ahalik eta ikuspegirik osatuena edukitzea izan behar litzateke azken xedea, eta, horri dagokionez, bada gogoetarako bide ematen duen puntu bat: hiriko irakurzale euskaldunak, konparazio baterako, irakurri ditu Unamuno, Blas Otero edo Pedro Ugarteren lanak; euskararik ez dakienak, aldiz, ez ditu ezagutzen Gabriel Aresti, Alfonso Irigoien edo Andolin Eguzkitzarenak. Eta jakina, hiri euskaldunaren barne-ezagutzarik ezean, arestian aipatutako estereotipoak dira maiz ezagutza-bide bakar.

Lan honen helburua, beraz, azaleko begirada murriztaile / folklorizatzaileak gainditu eta begirada osatuago bat eskaintzea da, mendetan euskaraz bizi izan diren lagunen jardunak ehundutako kulturak industria-gizartera eginiko sarrera

bistaratzea, horren ikuspegi osatua eskaintzea, ikuspegi hori ere ezinbesteko delako Bilboren iragana eta oraina ulertzeko, behar baino dezente gutxiago eza-gutzen den arren. Azken hamarraldiotan hiriaren historia eta izatea bera aldatu dituen euskalduntze-alfabetatze oldeak, besteak beste, ahalegin hori, euskararen baitako begirada propio hori eskatzen digu.

Gure hau ez da, bestalde, lan akademikoa: kontakizun atsegin eta irakurte-rraza osatu gura izan dugu, eta, horregatik hain zuzen, irakurlea erreferentzien eta xehetasunen zurrunbiloan zorabia ez zedin, horiek guztiak saihestea erabaki dugu. Lanean zehar ageri diren aipuen iturrien berri izan gura duenak, beraz, jo beza liburu amaieran jarri dugun bibliografiara (aipu batzuk, dena dela, ez ditu-gu jaso bibliografiako liburuetatik, komunikazio pertsonaletatik baizik; bibliogra-fiaren ostean paratu dugu elkarriketaturiko lagunen zerrenda).

Horrez gain, irakurleak antzemango zion honezkero beste ñabardura txiki baina esanguratsu bati ere: *Bilbo* forma baliatu dugu, zenbait lagunek euskara-rako ere *Bilbao* terminoa hobesten duen arren. *Bilbo* ala *Bilbao*, ez dago argi izen horren jatorria. Etimologia zaleek hipotesi ugari haizatu dituzte (Emiliano Arria-ga eta Sabino Aranarenak gogora ekartzea baino ez dago esanikoa egiaztatze-ko). Resurreccion Maria Azkuek zera idatzi zuen auzi honi buruz:

“Bilbao tiene una letra más de lo que por su origen le corresponde. BILBO es su nombre tradicional, que hoy mismo lo decimos todos cuando hablamos nuestra lengua vitalicia. Por ejemplo en ‘*Bilbotik nator*’ –vengo de Bilbao– y ‘*Bilbora etorri dira*’ –han venido a Bilbao–. Nadie dice: ‘*Bilbaotik, Bilbaora, Bilbaon*’, sino ‘*Bilbon*’. ‘*Bilbotarra izan ezarren, poz pozük bizi naiz Bilbo maite onetan*’.”

Xabier Kaltzakortak, berriz, zera utzi digu idatzirik: “Bizkaiko herri txikietako-
ok ikusmira eder bat badaukagu begien aurrean, edo handikeria zein handita-
sun, dotorekeria zein dotoretasun baten aurrean agertzen bagara, *bertan Bilbo!*
esan ohi dugu harriduraz.” Geu ere uste horretakoak gara: giro euskaldunean
haziak izaki, beti *Bilbo* entzun izan dugu euskarazko jardunean, eta gaur egun
ere, nola jendearen ahotan hala hedabideetan, horixe dugu formarik zabaldue-
na. Horregatik egin dugu beraren aldeko hautua, nahiz eta *Bilbao*-ren kontra ere
ezer ez daukagun. Bilboko kale eta toponimoak izendatzeko, bestalde, Euskal-
tzaindiak landutako izendegia baliatu dugu.

Komeni da zehaztea, era berean, irakurleak garraiobide bati buruzko errefe-
rentziarekin egingo duela topo atal bakoitzaren hasieran. Asmo bikoitz bati
jarraiki sartu ditugu erreferentziok: batetik, euskara bera ere garraiobide dela
adierazteko, ideia, sentipen eta pentsamenduen eroale delako bera ere, eta bera
ere, gainerako garraiobideak bezala, urtetan zehar aldatzen joan arren, beti pre-
sente izan delako, beti hortxe, komunikazioa bermatzen, gehienetan hari haus-
kor, gaur egun soka potolo samar (baikorregi gara beharbada) bihurtzeko bide-

an; bestetik, garraibideen aldaketarekin batera, hiriaren aldaketa bera ilustratzea eta kontakizunean fresko historikoa txertatzea ere bazen gure asmoa.

Kontuak kontu, liburuak frogatzen du haria, izan lodiago (gaur egun), izan meheago (frankismo garaian batik bat, Elguera ibaiaren antzera hiria lurpetik, erdi-ezkutuan zeharkatzen zuen sasoieta),² haria, genion, sekula ez dela eten, euskara ahoz aho, belaunez belaun, aldaketaz aldaketa, guganaino ailegatu dela eta une oro asmatu duela garai berrietara egokitzen.

Etorkizunean zer traza hartuko duen, hori inork ez daki, baina gauza bat dago argi: euskara txinboek gura dutena izango da aurrerantzean ere (hala izan behar luke behinik behin). Honi loturik, zera bota zuen behin Unamunok, Erromantizismoan asmatutako euskal mitologia eta kondaira sortu berri guztiak biluztu ostean: “Nuestra leyenda genuina está en el porvenir.”

Berarekin bat gatoz: komeni da iragana gogoratzea eta bertatik ikastea, bai, baina etorkizuna da benetan axola diguna, etorkizuna da eginkizun daukaguna. Eta etorkizunera begira jarrita, Bilbo hiri kulturantzun izatea gura dugu aurrerantzean ere, gaztelania zein *caló*-aren tradizio aberatsak ukatu barik (zelan ukatu, bestalde, begi-bistako dena?) eta gurera datozen gainerako kultura geroz eta ugariagoen ekarria ere beso zabalik hartuta. Hiri kulturantzuna, bai, baina bere baitan euskarari zentraltasuna bermatuko dion zirku oso bat ziurtatuta; Sanchez Carrionek duela urte batzuk proposaturiko *colingüismo*-aren tankerako zer edo zer: “Reponer”, zioen berak, “el uso natural en las capitales donde el uso cultural se encuentra en proceso de implantación, para que la comunidad lingüística euskaldun que habita en ellas pueda desenvolverse en Euskera con la misma normalidad con que lo hace la comunidad lingüística erdaldun (colingüismo).”

Zorionez, puntu horretara iristen ari gara apurka-apurka; gaur egun, esate baterako, ia-ia gauza normala da hiriko edozein barruti-zentrora, liburutegira edo udal-leihatilara joan eta euskaraz aritzea, iragan garaietako oztopoak gaindituz doazen seinale. Baina, hala ere, inozoak ginateke pentsatuko bagenu beste belaunaldi bat igarota ia bilbotar denak gai izango direla euskaraz berba egiteko edo euskara ulertzeko. Prozesu historikoak mantso joan ohi dira, astiro gorpuzten dira aldaketak, eta kasu hau ez da salbuespena izango, inertiaren eta ohituren indarra zinez handia baita.

² Paralelismo polita egin daiteke ibai horren eta Bilbon euskarak frankismo garaian jasanikoaren artean: Iñaki Antiguadadek dioskunez, Bilboko zabalkundeari ekin ziotenean (aspaldi batean, beraz) estali egin zuten Elguera ibaia eta haren gainean eraiki zituzten gaur egungo Zabalgunearen zati batzuk. Estali, estali zuten, bai, baina hura desagerraraztea lortu ez: egoskorra izan nonbait ibaia, eta gaur egun ere, Errekalde eta Arraitz aldetik ur ugari datorrenetan, azaleratu egiten ei da Abando eta Indautxu aldean...


Gorabeherak gorabehera, ordea, euskara ibili badabil hirian, sekula baino airoso eta erosoago gainera, eta apurka-apurka iraganeko lotsa eta atomizazioak gaindituz doa. Bide luzea du oraindik egiteko, baina ematen du bilbotarrak bidai-de eta lagun izango dituela. Behin puntu honetara helduta, errepika dezagun berriro lehen aipaturikoa: arrazoi du Unamunok, etorkizuna da axola diguna, etorkizunera begira egon den hiria izan da beti Bilbo, eta jendearen borondateak markatu behar du etorkizun-bide hori (orain artean bezala, bilbotarrek eurek erabakitakoaren ildotik abiatuko baita hiria aurrerantzean ere). Horri gagozkiola, azken boladan argi geratzen ari da euskara dela bilbotarren etorkizun-apustu nagusienetako bat. Ez inoren kontra eginez, gura dutenaren alde jardunez baino, bilbotarrak euskararen errepidearen aldeko hautua egiten ari dira. Hori nahi lukete, hain zuzen, lan honen egileek, aurrerantzean ere ikusmira harrigarrien aurrean euskaldun jendeak *bertan Bilbo!* esaten segi dezan: denontzako bide eroso den errepi-dea, euskararen bide zabala, hiriko bizilagunen arteko komunikazio-modu eta nortasun-ikur nagusi dena, ziutateko gainerako hizkuntzen bidezidor eta estratak ere ukatzen ez dituen; lan hau, bistan denez, galtzada-harri bat gehiago izateko asmoz jaio da, bide zabal horren eraikuntza-lanetan lagundu guran.

Bilbo, 2007ko udaberria

II. 1894, Abando: La Roblako trenak ikatza baino gehiago dakar

“Ez alean guk galdu
herriko legea
eta antxinatik dogun
geure euskerea”

(*Antxinako euskaldunen alabantzak*,
XIX. mende hasiera, Juan Mateo Zabala)






El puente del Arenal. Dario Regoyos, 1910.

XIX. mendeko hondar urteak ziren. Goizero egin ohi zuen bezala, Resurreccion M^a Azkue kalerantz zihoan eguneko eskolak amaituta. Institutuko patioan, udaberriko eguzki goxoa lagun, umetxo bat euskaraz ari zitzaion txakur jostalari bati. Lekeitioko irakaslea tximistak baino azkarrago hurbildu zitzaien.

- Txotxo, nungua haiz hi?
- Ni hemengoa jauna, bilbotarra.
- Bilbotar ume sostorra izan eta euskaraz dakik?
- Bai jauna, gurasoak euskaldunak ditut.

Haurra Mikel Arrutza zen, gerora euskaltzale sutsu eta kazetari trebe izango zena. Bere aita, Luis Arrutza mungiarra, Mallonako bidarrien hasieran zegoen Bigarren Mailako Institutuko atezaina zen eta semeak bertako etxartea zuen eguneroko olgetaleku. Ama, Eustanasia Egia, gatikarra zen. Azkueren harridura eta poza, berriz, guztiz ulergarriak dira: ikastetxe horretan bertan ikasia zen eta ederto zekien zein zen euskararen egoera Bilbon. Urte batzuk geroago, 1898an hain zuzen, Bizkaiko hiriburuan lautik batek dakiela esango digu (datu baikorregia, ziurrenik). Baina datu hutsek ez digute argibide handirik ematen; izan ere, beste bi ñabardura falta zaizkie. Lehenengoa: zekiten milaka horietatik (15.000-17.000) oso gutxik zeukaten ardura edo aginterik gizarte, politika, kultura edota ekonomiaren esparruetan; hau da, gehienak neskame, dendari txiki, behargin, morroi edo artisauak zirela; bigarrena: gaztelaniaren itzala zela-eta, gutxik erabiltzen zuten euskara eguneroko bizitzan.

Bilbo eta euskara, euskara eta Bilbo. Zenbat buru, hainbat aburu. Gainbehera tamalgarria edo eusteko gaitasun harrigarria; begiradak zeri erreparatzen dion, horrek eramango du balantza alde batera edo bestera. Azken batean, horri dagokionez, ez gara lar aldatu. Afera honen gainean iritzia edota testigantza eman duten guztiak bat datoz abiapuntuan: Erdi Aroan Bilbo euskalduna zela eztabaidatik kanpo dago. Aro Modernoarekin batera hasten dira argi-ilunak eta iritzi desberdinak. Dirudienez, Bilbori ez zitzaion musu-truk atera Kantauriko por-



Itsasontziak hiriaren bihotzearaino sartu izan dira
XX. mende hasierara arte. *Cargadoras*.
Dario Regoyos, 1908. **Iturria:** *Bilbao en el arte II*.

turik garrantzitsuena izatea; izan ere, XVII. mendetik aurrera, nasetako pertso-
nen eta merkantzien mugimendu biziak gaztelaniaren sustraitzea ekarri zuen.

Jakina denez, Gaztelako hainbat produktuk Ibaizabalgo kaietan zeukaten
penintsulako azken geltokia, bertan ontziratzen baitzituzten Europarantz. Jar-
duera horiek bertatik bertara jarraitu nahian, Gaztelako zein Europako merkata-
ri asko Zazpikaleetan finkatu ziren. Harrigarria egin ahal zaigun arren, XVIII.
mende bukaeran 300dik gora ingeles, flandestar, alemaniar, irlandar eta abar
bizi ziren Bilbon. Bistakoa denez, kopuru nabarmena sasoi hartan 10.000 biztan-
lera heltzen ez zen hiritxoarentzat. Burgosko lautadetatik etorritakoak ez ziren
gutxiago, eta bilbotarrek bai batzuekin bai besteekin izaten zituzten hartu-ema-
nak gaztelaniaz zirela esan beharrik ez dago.

Halere, bazegoen salbuespenik. Kontinentetik gurera etorritakoen artean bat
eta bi baino gehiago lapurtarrak ziren (Joanes Olabaraz, Nikolas Irigoiti, Joanes
Etxepare, Petriko Bidau, Joan Araneder eta Pedro Bereau kasurako; lapurtar

hauek guztiak Zazpikaleetan bizi ziren XVII. mendean), eta horiekiko harremana sarritan euskaraz izaten zen. Zorionez, badugu salerosketa horien konstantzia idatzia, Bilboko Fermin Basauiuasok Donibane Lohizuneko Joanes Callori bidalitako gutuna heldu baitzaigu.

“ Viluao y nobre. xxx³ de 1683

Juanes de Callo. Or bidalsen dugo (sic) / Jonac (sic) eta biok 60 millar sardina eta / enea da erdia etac (sic) suri comenda / sen disut daguisula salseco deli / encia albaitic lasterre ena eta bi / dalesadasu orren Balioa

aguardien / ta eta 10 opil brea eta abisanasaau / ser balio duen sardinac eta egorri / co duct (sic) onic badator. esta etorri bate / ereuna. falta dela diote. ori freskoa da / Bañan garestia da. pagatu dugu emen / Bere liseniarequin 16 real sillar eta / eguisu egunala eta egor Bereala / sure seuisari orayn eta beti.

Fermin Basauiuasok. “

Erabilitako euskara, agerian dago, ez da bizkaiera, ziurrenik bizkaitarrek merkatarri lapurtarrekin jardutearen ondorioz garatutakoa baizik.

Gutunak gutun, argi dago XVIII. eta XIX. mendeetan zehar gure hizkuntza atzeraka joan zela apurka-apurka. Badugu 1765eko testigantza bat, urte horretan Bilbon predikuan jardun zuen Aita Palaciosen biografoek honako hau utzi baitzuten idatzirik: “Predicó también algunos sermones en vascuence. En pueblos de igual naturaleza, donde podía haber oyentes vascongados y castellanos, predicaba en ambas lenguas”. Larramendiren ustez, berriz “aunque en Bilbao se habla mal, pero no así en sus cercanías (...) Esto no quiere decir que no haya en Bilbao quien no sepa su dialecto, pues se hallan algunos.” Apologistaren aipua 1753koa da. Urte batzuk lehenago Arabako Okondon jaio eta Abandon albaitari ibili zen Juan Paulo Ulibarri (1775-1847) suharra haserreago ageri zaitzugu, “uri hau da gure galtzaillea” esanez. Mitxelenak, berriz, ondoko hau idatzi zuen Arriagaren *Lexicon*-en bigarren argitaraldiaren (lehenengoa 1896koa da) hitzaurrean: “Bilbao viene siendo una población bilingüe, en proporciones difíciles de calcular, desde época ya lejana. Su vascuence no ha sido muy celebrado, por razones fáciles de comprender, por los buenos hablistas y escritores vascos”.

Berba batean, hiriko azaleran nagusi zen gaztelanian apur bat karraskatuz gero, euskararen presentzia edonon agertzen zen. Izan ere, bilbotarrek zerabilten (eta darabilten) gaztelanian bertan hamaika arrasto utzi ditu euskarak bai lexikoan bai joskeran. Horiek, dena dela, aurrerago aztertuko ditugu.

³ Ez da argi irakurtzen. Gutun hau ikusi nahi duenak, begira dezala Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkariaren XXII. zenbakian A. Irigoienek idatzitako “Bilbo eta Euskera” separata.

Inguruko errepublikak: Abando, Begoña eta Deustu

Badago ahazterik komeni ez zaigun datu bat: goiko aipuetako Bilbo, Atxuritik Volantinera luzatzen zen hirigunera mugatzen zen. XX. mendera arte hiriburua inguratu duten hiru errepublikek, hau da, Abando, Begoña eta Deustuk, askoz hobeto gorde zuten euskara eta bertako biztanle asko eta asko barra-barra mintzatzen ziren bizkaiera garbian. Bilbon bezala hiru herri hauetan ere, jauntxoek eta karguren bat zeukatenek gaztelania zuten estimatuen; halere, biztanleriaren zatirik handienak ortua, landa eta soroa zituen lantoki eta, jakina, erromantzeak ez zeukan leku handirik baserritarren eguneroko bizitzan.



Bizenta Mogel (1782-1854) Abandoko Eleuterio Basozabalekin ezkondu zen 1817an. Urtero abesten ziren Gabonetako kantetan asko berak idatziak dira. *Iturria: Bidegileak- Bizenta Mogel.*

Abandok Ibaizabalgo ezkerralde osoa hartzen zuen, Abusutik hasi eta Basurtuko azken baserrietaraino. Albia ingurua zen bere bihotza; bertan kokatzen ziren udaletxea, aurrean makina bat erromeria hartu zituen landa ederra eta, Ibaizabalera begira, Done Bikendi parrokia. Elizpe horretara bildu ziren inguruko baserriarrak mendetan zehar mantendu zen ohiturari eutsiz. Aldaketa handien arian, 1866an, Nicomedes Egiluz obra-maisuak elizaren itxuraldaketa bat baliatu zuen elizpe hori kentzeko. Gaur egun Zabalguneak estaltzen dituen lur-sailak emankorrak ziren, inguruetako onenetarikoak: XIX. mendeko erdialdera 10.000 litro txakolin hartzen ziren bertako mahastietan.

Baina ardogintza ez zen abandotarren zeregin bakarra, ez horixe; beraiei zegokien, deustuarrei, begoñarrei edota txorierritarrei beste, Bilboko sukalde eta janaritegiak barazkiz eta ortuariz hornitzea. Nekazaritzan trebeak beraz, baina baita abeltzaintzan ere. Hona hemen Iñaki Gaminde errekaldearrak jasotako pasadizo harrigarria:

“Behingo batean, munduan asko ez legez, Markina inguruko Barinagan gizon zahar batek hala zidan kontatu. Gaztea zela, hamalau urtetan edo, gurasoek, gaur baino askozaz asago zegoen Bilbora bidali zuten erdara apur bat ikas zezan. San Mames zumardian, alondegi zaharraren ondoan zegoen baserri baten ekandu zen gizona morroi. Bere beharra Barinagakoaren aldean, hasikeran behintzat ez zen sano desberdina izan; ardiak erabili, ardiak jagon, betikoa. Ingurua ez zen bera baina. Orain Casilla, Errekalde, Indautxu. Zuen gizon horri itaundu diot halako baten, ia erdara ikasi duen ala ez. Eta lehengo antzean Barinagara itzuli dela esan dit. San Mames zumardiko baserrian euskaldunak izan dira eta euskara izan da bere eguneroko jardunaren berbeta.”

Indautxu aldeko baserri horrek ez zuen luzaro iraun. 1870ean Zazpikaleetakoek lehenengo haginkada eman zioten Abandori Albia eta Abandoibarreko lurak irentsita. Bilbotarrek mendeak zeramatzaten ibaiaren beste aldea euren-ganatu naharik. Lurrun makinak, arrabioa altzairu bihurtzen zuten *bessemer* bihurgailuak eta trenak Ingalaterran abiarazi zuten iraultza heldua zen Bizkaira. Hiritxoa ez zen sartzen muga historikoen barruan eta, nahitaez, hazi beharra zeukan.



Abandoko lurak 1870ean (gaur egun Indautxu auzoa): eskumatara Kale Nagusia; argazkiaren hondoan, berriz, Misericordia Etxea.

Urte gutxi batzuk geroago, bigarren gerrate karlista amaitu bezain laster, bilbotarrek kale zabalak taxutzeari eta etxetzarrak eta jauregiak eraikitzeari ekin zioten *Zabalgunek Plana*-ri jarraituz. Pablo Alzola eta Ernesto Hoffmeyer ingeniariak eta Severino Atxukarro arkitektoak marraztutako planak Moyua plazarainoko lurren urbanizazioa ekarri zuen. Bilbo berriko ardatza izango zena ere orduantxe taxutu zuten: Kale Nagusiaren 1.600 metroek bitan banatu zuten arestian hain oparoa izan zen lurra. Aldi berean, gunek berriak barregarriak legez ugaltu zituzten: aldraka zetozen beharginentzako auzoak eraiki zituzten Iralan, Urribarrin, Ollerietan-Atxurin, San Frantziskon eta Mallonako Gurutze auzunean; burgesiak, berriz, gurago zituzten Indautxuko landak eta Campo Volantino ibaiertza.

1890ean Abandok udalerri izateari utzi zion gainontzeko auzoak (Indautxu, Etxetua, Errekalde eta Basurtu) Bilbo bilakatu zirenean. Bizkaia *sakonetik* bilboratu zen artzaina hamarkada batzuk geroago bueltatu izan balitz Santimami zumarkalera badakigu ez lukeela topatuko gaztetxotan hain harrera ona egin zion baserriaren aztarnarik.

Ez gaitezen nahas baina, Abandon dena ez baitzen abarka eta akuilu kontua. Bilboko modernitaterantz begira bizi zirenen adibide hona dugu Gabino Aresti, Gabriel Arestiren aita. Umetan euskalduna izanagatik ez zerion korta usainik, ez horixe. Semearen esanetan “euskaldun galdua” zen Gabino, bere belaunaldiko ia guztiak bezalaxe. Horrez gain, politikari dagokionez, monarkiko porrokatua genuen Abandoko semea eta Bilboko zinegotzi izatera ere heldu zen.

Proletariorik ere bazegoen baina. Done Bikendi azpian zeuden ontzioletako beharginek belztuta zituzten eskuak, baina ez eskribauen tintaz, koipe likitsez baizik. Huraxe zen, zalantza barik, Abandoko industriarik handiena. Hala ere, ezin zien itzalik egin itsasadarraz bestaldean Olabeagan edo Deustuibarrean (bi izenok erabili izan dira aspaldidanik) zeudenei.

Nahiz eta itsasadarrik ez egon Deustu eta Bilboren artean, *tomatezaleen* errepublika Abando baino nabarmenago bereizten zen hiriburutik. Campo Volantino-Salbe ingurua eremu bakartia izan zen urte luzez eta, ondorioz, Deustura joatea beste herri batera joatea zen bilbotarrentzat; Unamunok, bere haurtzaroaz ari dela, honako hau dio Deusturekin muga egiten duen Asuari buruz: “En un tiempo un paseo a Asúa, (...) me parecía expedición de novela de Julio Verne”. Abando eta Begoña, aldiz, auzokoago sentitzen zituzten; izan ere, Zazpikaleek bat egiten zuten fisikoki batarekin zein bestearekin.

Industrializazioa hasi zen garaian bi ziren Deustuko gunek nagusiak: goiko aldean Done Petri elizaren inguruan zeuden udaletxea, eskolak eta hainbat etxe eta baserri; Ibaizabalgo ertzean, berriz, Deustuibarrak bizitasun handia zuen eta goiko landa-giroan baino errazago sartu zen gaztelania bertan. Bilbora zetozen itsasontzi handienak ezin ziren Areatzako kaltetara hurbildu sakonera urria zela medio; horregatik, bertan lehorreratzen zituzten euren produktuak. Zazpikalee-



Ezkerraldean, Deustuibarra; erdian, Abandoko lur oparoak; hondoan, Zazpikaleak.
Vista de la ría. 1857, P. Gonzalbo. **Iturria:** *Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco*.

tan legez, hemen ere erraz egin ahal zen topo Ipar Itsaso ingurutik etorritako marinelekin. Hala ere, kontinentekoak ez ziren kanpotar bakarrak, galiziarrek, portugaldarrek eta beste leku askotatik etorritakoek ere bat egiten baitzuten paraje honetako ostatu eta tabernetan.

Kronika zaharrek bertako txiriboga eta putetxeetan poliglota samarrak zirela diote. Ez da harritzekoa, beharra bezalako maisurik ez baita oraindik asmatu. Dena den, argi utzi behar da Babelgo ibaiertz hartan bertakoen ama hizkuntza, hau da, deustuar guztiek zekitena, euskara zela. Are gehiago: Goierriko batzuek ez zekiten besterik. Era berean, egia da XIX. mendean zehar familia barruko transmisioa eteten hasi zela, abiadura bizian gainera. Hala ere, mende hasierako hainbat pasadizok herri xeheak euskarari eusten ziola erakusten digute. Gaur egun legez, orduan ere, irain eta liskarretan nahastutakoek hainbatetan epaitegietara jotzen zuten. Auzitegien hizkuntza, gaur egun legez, gaztelania zen eta, beraz, hizkuntza horretan jasotzen ziren testigantza eta aitorpen guztiak. Euskara zirrikituetatik irristatzen zen ordea; horren froga, han eta hemen zipriztintzen zituela erdarazko agiriak. Hona hemen Deustualdeko *Prest* herri aldizkaritik jasotako zenbait ale:

“1796ko azaroak 23 egun zituen. Iluntzeko zazpiak aldera, zamaketa lanak amaitutakoan, bederatzi deustuar Teresa Llanoren etxera joan ziren ardoa edatera (...). Gizon koadrila horrek ardoa eskatu zuen –bakoitzarentzat koartilo bana, litro erdi baino gehiago alegia, kontu egin–. Beste erronda bat eskatzekotan zeudenean emakume baten aldarriak eta aieneak entzun zituzten goiko pisuan. Teresa zen, sabeleko minez kexaka (...). Gizonetako batek, Ramon Peñak, “expresó, *ené, que lloros tiene Teresa*, a que el articulante (Ignacio Uriondo) respondió que no tenían que atender aquello y sacase vino nuevamente pues si estaba llorando sería *porque el coño se le habrá abierto*.”

Hori izan zen auzia piztu zuen esaldia. Lekuko batetik bestera, Uriondok esandakoa aldatu egiten da. (...). Benetan, zer esan zuen Uriondok? Bada, solasaldia euskaraz izan zen. Seguruenez, Ramon Peñak, “ene, horiek dira negarrak Teresarenak” edo antzeko esaldi bat bota zuen eta, Ramonek berak epailearen aurrean deklaratu zuenez, Ignazio Uriondok, “respondió las palabras siguientes: alue urretu icengo deutsie; que en castellano quiere decir que le habran roto el coño, sin que el testigo pueda graduar lo que quiso decir”.

Hurrengo gertaerak ere ardoaren zaporea dakarkigu:

“1807ko apirileko arrats batean Josefa Bidaurrezagaren ama Gomez Ugaldere-nera joan zen ardo bila. Gero Gomez Ugalde familiako andre zaharrena –Manuela Urresti– etxean agertu zitzaion ardoaren zorra kobratzeko asmoz eta “en altas boces decía que ella era una mujer mui fina y que Bidaurrezaga hera al contrario porque sabía negar lo que debía a otros y que la madre de la citada hera una mala mujer”. Salaketan jasotako hitzei erreparatuta, idazki ofizialak itzulpen hutsa direla antze-man daiteke. Eta batzuetan, zorte apur batez, esan ere egiten digute. (...) Lekuko guztien deklarazioetan ez dagoen xehetasun bat dakar Angela Martikorenenak: “dichas espreciones vertió en lengua bascongada a ecepción de que la madre de la querellante (Bidaurrezaga) era una bruja y una mala mujer”. Horregatik ez gara harrituko beste lekuko batzuek aipatzen dituzten irainen artean *marikoipe* badago.”

Azkenengo aferak kutsu garaikidea dauka; izan ere, 1816ko apirilean Juan Bautista Erkinigo zirujaua hil zenean piztu zen.

“Hil eta berehala deustuarrak kontzejuan elkartu ziren. Batzar hartan lanposturako deialdia egitea erabaki zuten. (...) Aste bi beranduago, maiatzaren 12an, herri-tarrak osterara ere batu ziren, oraingoan hautagaien idatziak aztertzeko asmoz. (...) Eztabaida luze baten ondoren zirujaurik ez hartzea erabaki zuten: inork ekartzen bazuen bere sakelako diruez ordain diezaiola.

Erabaki horren aurka Joxe Joakin Tellaetxek auzitara jo zuen. (...) Tellaetxeren esanetan, kalte handiak datozkie deustuarrei, zeren eta, “*muchos de ellos, especialmente en la Ribera, son pobres*”. (...) Baina bazuen kezka gehiagorik. Hautagaietako batek, Domingo Martinezek, “*carece higuamente de la lengua bascongada, cosa tan necesaria a los facultativos de cirugía en las aldeas, particularmente en esta*”. (...) Tellaetxek egun batzuk beranduago beste idatzi bat aurkeztu zuen Corregidorearen aurrean, oraingoan hogeitaz sinadura gehiagorekin. Erkinigo euskalduna zela gogoratu ostean, maiatzeko batzarrean barberuaren aukeraketaz jardun zutenean “*los más vecinos clamaban por un vascongado (que a la verdad combiene en esta*



Olabeaga eta Deustuibarraren artean harreman estuak zeuden, biek ala biek baitzeukaten portu-giroa. Hondoan ageri den Elexalde ingurua, berriz, nekazari munduari lotuago zegoen.
Argazkia: Txema Luzuriaga.

república porque muchos vecinos carecen de lengua castellana". (...) Lekukotasun honen arabera, beraz, deustuar asko euskaldun hutsak ziren 1816an. Egia hori begi bistakoa izango zen, inork ez baitzion kontra egin. Azkenean lortu zuten eskatutakoa eta 1816tik aurrera –1832 arte, behintzat– Antonio Jose Urkiola, Arabako Aramaioko semea, Deustuko barberua (lanpostuaren betebeharretakoa bat bizar egiten aritzea zen) izan zen."

Hirugarren errepublika *Mahatserria* dugu, Begoña alegia. Euskararen atzera-kada jasaten Deustu lehena izan bazen, Begoña beste muturrean dugu. Artagan muiñoaren gainean egoteak kokagune deseroso bihurtzen zuen industrialari eta merkataria handientzat; gainera, itsasadarraren azken zatia baino ez zen sartzen bere lurretan (Bolueta ingurua) eta, hain zuzen ere, horixe izan zen lehenengo aldatu zen ingurua. Baina, oro har, Begoñak baserritar jarraitu zuen XX. mendeko hasierako urteetan ere eta, beraz, euskarari eutsi zion. Horren frogak han eta hemen aurki daitezke: familia barruko transmisioan, toponimiaren erabateko euskaltasunean, idatziz jasotako testigantzetan, etab. Hona hemen *Kirikiño*-k 1916an idatzi zuena *Euzkadi* egunkarian, Begoñako elizara egindako elizbira zela-eta:

"Izkaldi hau (euskarazkoa) izan zen eleizatik at edo kanpoan. Eleiza barruan, goiz ta arratsalde erderaz esan zan Jaunaren itza.

Onak ez gaitu bape ikaratzen, aspalditik dakigu ba gure euskereari *despatxua* emon jakola Begoñako eleizatik, euskaldunak izan arren eleiza hori irasi ebenak eta bertan Ama Neskutsaganako eraspen edo deboziñoa asi ebenak; euskalduna dan arren *ondiño* Begoña erria; ta atzo lez, iñoz eltzen diran arren bertara euskaldun talde ikaragarriak Goiko Amaren oiñetara”.



Zazpikaleetatik metro gutxira egon arren, baserri giroa nagusi zen Begoñako lurretan.
Argazkia: Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin. Argazkiak. Fotografías. Photos.

Laurogeita hamar urte geroago, elizkizun horietan izan ziren begoñar gutxi batzuen bilobek etxean ikasitako euskaran egiten dute berba. Hizkuntzarekiko atxikimenduaren adibide argiagorik izango da bazterretan; guk ez dugu horren berririk ordea...

Hiru gizon, hiru ahots: Arana, Azkue eta Unamuno

Bitxia da historia. Bere erraietan murgildu den edonork badaki kointzidentzia harrigarri albaindutako tapiza dela. 1860ko hamarkadan Bilboko, Bizkaiko eta Euskal Herriko etorkizunean pisu erabakigarria izango zuten hiru gizaseme bost hilabeteko tarte laburrean jaio ziren: Resurrección M^a Azkue Aberasturi Lekei-

tion munduratu zuten 1864ko abuztuaren 5ean; hurrengo hileko 29an, Mikel Deuna egunean, Miguel Unamuno Jugo jaio zen Bilbon; 1865eko urtarrilaren 10ean, berriz, Pascuala Goiri Sabino Arana Goiriz erditu zen Abandon. Hogeitazak urte geroago Historiaren apeta batek elkartu zituen hiru bizkaitar hauek: 1888an Bizkaiko Diputazioak Bilboko Institutuan eratu nahi zuen Euskal Kate-drarako lehiara aurkeztu ziren hirurak. Jakina denez, Azkuek eskuratu zuen eus-kara irakasle postua. Baina, jarraitu aurretik, koka ditzagun gizon handi hauen ibilbideak testuinguru politiko eta sozialean; XIX. mendeko azken laurdenekoak urte mugituak izan ziren, garai hartan aldaketak arrapaladan heldu baitziren bata bestearen atzetik.

Bigarren gerra karlistaren amaierarekin batera Madrilgo gobernuak bizkortu egin zuen Borboiekin hasitako zentralizazio-prozesua. Foru-abolizioa 1876ko uztailaren 21eko legearen bitartez gauzatu zen. Madrilen hartutako erabakiak errotik ezabatu zituen salbuespen fiskalak, soldadutza egin behar ez izana eta beste hainbat eskumen. Hala ere, hurrengo urteetan izan ziren negoziazioei esker, galera ez zen izan erabatekoa. Bai, Euskal Herriko burgesia liberalaren zati bat (foruzale posibilistak) kontzertu ekonomikoa ziurtatzeko ahaleginari lotu zitzaion temati, eta baita lortu ere: 1878ko otsailean aldundiek eta Espainiako gobernuak herrialde bakoitzak ordaindu beharreko kupoa zehaztu zuten.

Baina, kontzertuak kontzertu, eragindako zauria ez zen hain erraz itxiko. Ezi-negona handia zen bai galtzaileen artean (karlismoaren oinarri soziala herrieta-ko burgesia txikiak eta nekazariak osatzen zuten gehienbat) bai zenbait liberalen artean. Azken horiek antolatzeari ekin zioten, foruen aldarria eta euskal kultura eta hizkuntzaren aldeko lana uztartuta. Berbak ekintzei lotuz, 1876an Euskale-rria Elkartea sortu zuten Bilbon, Fidel Sagarminaga diputatua buru zela. Nafa-rron ere egonezinak bere fruitua eman zuen 1878an Arturo Kanpionek, Juan Iturralde Suitek eta beste nafar batzuek Asociación Euskara de Navarra sortu zutenean.

Euskaltasunaren berpizte honen atzean, foruen galeraz gain, bazeuden beste akuilu batzuk. Garrantzitsuena kanpotik zetorren: Islandiako izotzetatik Kretako hondartzetara erromantizismoaren haizeak Europako bazter guztiak astindu zituen XIX. mendean. Kontinente zaharreko herri guztiek (handiek zein txikiek, estatua zeukatenek zein egitura bakoek) barrurantz zuzendu zuten begirada, arreta berezia jarritz euren historian, literaturan, hizkuntzan eta folkloean. Penin-tsulari dagokionez, Herrialde Katalanetako Renai-xençak oihartzun handia izan zuen gure artean. 1833an Aribaren *Aberria* odarekin hasitako mugimendu honek katalanaren aldeko bultzada handia eragin zuen. Kantari-ek, poetek, kaze-tari-ek eta enparauek euren hizkuntzan sortze-ari ekin zioten. Galizian ere antze-ko mugimendua eratu zen eta, uzkurrago izan bazen ere, hemen ere jendea hasi zen euskara orri zurira ekartzen.

Pizkunde giro honetan berebiziko garrantzia izan zuten Lore Jokoek. Lore Jokoak Okzitaniar berpiztu ziren Erdi Aroan, Tolosako gortearen ekimenez (jatorria Erroman zeukaten; Inperioa hautsi zenean desagertu egin ziren). Dantza, kantu eta abarrak falta ez baziren ere, funtsean poesia lehiaketak ziren. Aro Modernoan desagertuz joan ziren eta Erromantizismoaren haizeek jarri zituzten berriro boladan. Gurean Antoine Abbadia zuberotarrak antolatu zituen lehenengoak Urruñan 1853an. Hegoaldean 1879an egin ziren lehenengo biderrez; Elizondon, hain zuzen ere. Abaddia eta Iruñeko *euskaroen* artean antolatutako joko hauetan Felipe Arrese Beitiak eroan zuen lehenengo saria “Ama euskeriari azken agurrak” olerkiarekin. Izenburuak agerian uzten duenez, ez zuen begi baikorrez ikusten otxandioarrak euskararen etorkizuna. Inguruan ikusten zuena ikusita, ez da harritzekoa.

Foruen galerarekin batera gizarte tradizionala, hau da, euskararen habitat naturala, hankaz gora jarriko zuen prozesua abiatu zen. Industri iraultzaren bizkortzeaz ari gara, jakina. Karlisten porrotaren ondoren desagertu egin ziren foru araudiak industrializazioari jarritako oztopoak. Siderurgiaren eta ontzigintzaren hazkunde bizkorrek eskulanaren premia larria eragin zuen; ondorioz, Bilbo eta inguruak kanpotarrez betetzen hasi ziren erritmo bizi-bizian. 1860an 18.000 biztanle baino ez zituen Bizkaiko hiriburuak; 1887rako 54.780 dira, eta mende amaieran, berriz, 83.300. Heldu berrietako batzuk euskaldunak ziren arren, gehiengo zabala Espainiako lurretatik heldu zen, gehienak Gaztelako nekazari eremuetatik.

Industria astunak kapital kopuru handiak eskatzen zituen, eta, ondorioz, banketxeen unea iritsia zen. Banco de Bilbao eta Banco del Comercio izan ziren Bilbon sortu ziren lehenengoak. Bankuekin batera, gero eta ausartagoak ziren enpresa-asmoak ere ugaritu izana ez da harritzekoa. Horien artean zeresan gehien eman zuenetako bat La Roblako trenbidearena izan zen. 1890ean zenbait negozio-gizonek Compañía del Ferrocarril Hullero de la Robla sortu zuten Leongo harrikatza Bizkaira trenez ekartzeko asmoarekin (era horretan Ingalaterratik inportatzen zen ikatzari ordezkioa bilatu nahi zioten). Proiektuak bazituen zailtasunak: ibilbide luze-ari (284 km) gainditu beharreko hamaika oztopo orografiko gehitzen zitzaizkion. Hala ere, sasoi hartan nagusi zen euforia-giroa lagun, ekin egin zioten lanari.

Trenbidea 1894ko abuztuan inauguratu zen, hasierako aurrekontua txiki utzi eta gero; atera kontuak, goian aipaturiko banku biek elkarrekin zeukaten kapitala baino gehiago behar izan zuten ezustean agertu ziren eragozpenei aurre egiteko: kolera izurritea, pezetaren erorketak eragindako finantza-krisia, 1892 eta 1893ko elurte handiak, etab. Enpresaburuen atsekaberako, trenak urteko kalkulatzeko zituzten 200.000 tona metrikoen erdia baino ez zuen garraiatu lehenengo urteetan. Hori bai, burdinazko zaldiak erruz ekarri zituen bestelako merkantziak eta lan bila zetorren jendea. Ez da batere harritzekoa, bada, egungo bilbotar askoren jatorria Leon, Palencia eta Burgosko eskualde menditsuetan egotea.

Burdin koloreko Bilbo berrian gero eta zailagoa zen euskarazko solasik aditzea. Horiek horrela, mamitzen hasia zen abertzaletasunaren inguruan zebiltzanez larritasunez bizi zuten euskal izaeraren desegitea. Baina bazegoen inongo tristurarik sentitzen ez zuenik ere; esate baterako, Unamuno bera.

1901ean Bilboko udalak Lore Jokoak antolatu zituen El Sitio elkartearekin batera. Abuztuaren 26an literatur lehiaketa, dantza ikuskizun eta abarrei amaiera emateko ekitaldi bat antolatu zuten Arriaga antzokian. Gurutze kaleko idazlea hizlarien artean zegoen. Gustuko zuen bere iritzia plazaratzea eta ez zuen aukerarik galdu. Hona egun hartan botatako pasarte batzuk:

“El vascuence se extingue, sin que haya fuerza humana que pueda impedir su extinción. Muere por ley de vida... y yo estoy convencido de que la principal causa es de origen intrínseco, y se basa en la inaptitud del euskera para convertirse en lengua culta. Al vascuence le mata lo que más han admirado muchos: su embarazosa complejidad, su sintetismo y su carácter aglutinante.

Enterrémosle santamente, con dignos funerales, embalsamado en ciencia; leguemos a los estudiosos tan entrañable reliquia...

Porque el vascuence tiene que desaparecer por ser impropio de los actuales tiempos y recordar una época de barbarie, ignorancia y fanatismo...”

Garaiko kronikek diotenez gora-goraka jarri zuen oilategia errektore jaunak; behe aldeko batzuek, Ramiro Maeztu arabarra tartean, txaloka hartu zuten hilkanpai hotsa. Anfiteatroan, aldiz, gehiago izan ziren amorru biziz erantzuten zutenak. Handik gutxira honako gutun hau idatzi zion Azkuek Unamunori:

“Muy señor mío: Hace algún tiempo me habló P. Larrañaga de haber prestado o no sé si cedido en propiedad un libro baskongado impreso en Inglaterra; y me prometió que sin pérdida de tiempo le escribiría a V. pidiéndole que me lo enviase por una temporada. Es de creer que al bueno de Perico se le haya olvidado el asunto. Supongo que ya, después de su descabellada declaración de Bilbao, no le harán falta semejantes libros; y por lo mismo espero tener pronto en mis manos éste de que le he hablado. – Con gracias anticipadas se le ofrece para servirle, Resurrección María Azkue”.

Lekeitiarra ez zen izan Unamunorekin haserretu zen bakarra, jakina. Arana-
ren inguruan biltzen ziren jeltxideek, adibidez, aberriaren aurkako traidoretzat hartu zuten. Baina lehenengo urteetako Sabinok Azkue ere begitan hartua zeukan. Abandoko bizarduna jo eta su ari zen 1892tik abertzaletasunaren hazia zabaltzen; pausoz pauso, diskurtso teorikoa eta sinbologia finkatu ostean, alderdiaren eraketari ekin zion. Testuinguru honetan, Euskalerrria elkarte-
ko foruzale erradikalak aliatutzat baino, etsaitzat hartu zituen; burkide zuen Angel Zabala *Kondaño*-ri honela ziotson 1897ko ekainean idatzitako gutunean, “Como habrás visto ya está declarada la guerra a los fenicios. ¡Cuánto daño nos ha hecho Azkue con el dinero de Sota! De aquí al 21 de julio la campaña será terrible”.



Arana eta Azkue *Vizcaytik Bizkaira* zarzuela antzeztu zuten aktoreetako batzuekin. Bien artean dagoen umea, Felix Landaburu, diputatu izan zen 20ko hamarkadan.

Argazkia: Euskaltzaindiaren
Azkue Biblioteka.

Azkue eta beste euskaltzale batzuek egindako mina aipatzen du Aranak. Argi dezagun, bada, zeren gainean diharduen.

Euskalerrria-koen lehenengo ekintza aipagarria 1882ko uztailean Bilbon antolatu zituzten Lore Jokoak izan ziren. Euskaltzaletasuna modan jarri zela aprobetxatuz hainbat ekimen burutu zituzten: Gernikako arbolaren margoen edizioa, Iparragirrerren aldeko diru laguntzak, historia eta politikan sakontzen zuten lanak, etab. Sagarminagak sortutako gune horrek Azkue, Telesforo Aranzadi edo Arrese Beitia bezalako euskaldunak erakarri zituen. Lekeitiarrak ez zekien egonean egoten eta, ikusita dirua zegoela (zuzen zebilen Arana: Ramon Sota eta goi burgesiako beste kide batzuek kontuan hartzeko moduko diru ekarpenak egin zituzten Sagarminagak sortutako elkartearen alde) proiektu ausartagoetan murgildu zen: 90eko hamarkadaren erdialdera euskara hutsezko aldizkaria sortzeko lanari lotu zitzaion.

Ordurako, bere lanbide eta zaletasun ugariak baliatuta, harreman-sare zabalaren egina: katedrako eskolek hiriburuko burges askoren semeak ezagutzeko parada eskaini zioten; abade zen aldetik, ordena askotako kideekin izan zituen hartu-emanak, bereziki Deustuko jesuitekin; Deustun bertan, Julio Urkixo hizkuntzalariaren ezagutua zuen haren izeko Rafaela Ibarrarenean kapilau hasi zenean; horrez gain, 1891n *Euskal Izkindea* gramatika argitaratu zuen; aurrerantzean, euskara irakasle izateaz gain hizkuntzalari ere izango zen eta Europako aditu

askok aintzat hartuko zuten; azkenik, arlo politikoan mugitzen ziren *euskalerriako* eta jeltzale gehienek ere bertatik bertara ezagutu zuten.

Hala ere, inork gutxik sinesten zuen Azkue-ren asmoetan; izan ere, gauza bat zen hizkuntza zientifikoki ikertzea (Julio Urkixok egiten zuen legez) edota bitxikeria bezala ikastea (katedra-ko eskoletara hurbildu ziren askoren kasua) eta beste bat euskara gizarteko arlo guztietara zabaltzea eta Bilboko eguneroko bizitzarako gaitzea. Arana zen asmo bera zuen bakanetako bat, baina, ikusi dugunez, helburu hori gauzatzeko orduan bi ikuspegi desberdin sumatzen ziren. Goazen, bada, aztertzeraz zertan zeutzan ikuspegiok.

Arana gaztearentzat hizkuntzak, arrazarekin batera, berebiziko garrantzia zeukan, berak bereizten baikintuen besteengandik; hala ere, odola hizkuntzaren gainetik zegoen. Hona hemen zer zioen 1897an:



Aranak gaztetan ikasi zuen euskara. **Argazkia:** SAKE-AA.

“¿Son vascos todos los que hablan el euzkera?

No todos, hay quienes hablan el euzkera y no son vascos. (...). Algunas familias exóticas, penetrando en nuestro pueblo, han aprendido el euzkera, y sus hijos son euzkeldunes, o sea, hablan el euzkera, no obstante no tener en sus venas una gota de sangre vasca.”.

Beste behin goian bezain suhar agertu zen, honako hau botata: “Asko dira euzkerea ez takijen euzkotarrak. Au txarra da. Batzuk dira euzkerea dakijen maketuak. Au txarragua da”.

Pentsaera horrek proiektu politikoa lehenestera zeraman abandoarra, hau da, Euzkadiren independentzia (espainolengandik bereiztea, alegia) premiaz desiratzera. Logika berari eutsiz, euskarak ez zuen gaztelaniaren inongo kutsurik erakutsi behar, eta, beraz, maileguen ordeaz berba berriak sortu behar ziren. Azkuerentzat, aldiz, hizkuntzak egitura politikoak edota arrazak baino garrantzi handiagoa zeukan. Hau da, barrurantz begira eratzen zuela diskurtsoa: ez zeukan espainolekiko edo frantsesekiko aurkakotasuna etengabe azaleratu beharrik euskaldun jokatzeko. Urteak geroago honako hau esan zuen:

“Mi Patria no es Euzkadi. Mi Patria se llama Euskalerria (...). que nadie que me conozca se permita dudar de mi patriotismo. (...) Restitúyase a nuestra Patria su nombre sagrado, secular, con el que hoy mismo la designan todos los vascos euskaldunes, a quienes no se da el patrón hecho: Euskalerria “el país del vascence”, del euskera si os empeñáis”.

Kezka bera iturburuan eta ikuspuntu desberdinak lanari ekiterakoan, horra hor bi gizon hauen kokalekua. Baina, aldeak alde, elkarri eragin zioten. Adibidez, Azkue foruzale izatetik abertzale izatera pasatu zela ukaezina da, eta jauzi horretan Sabinok izan zuen zerikusirik; honela zioen Zazpikaleetako apaizak lagun karlista bati bidalitako gutunean, “Soy en el fondo lo que me hizo Arana Goiri: nacionalista”. Abertzalea bazen, beraz; jeltzalea, orde, ez, eta hil arte eutsi zion bere independentziari. Sabinok, bere aldetik, mende berria hasi zenerako ulertu zuen modernitatea eta industria gizartea geldiezinak zirela eta euskarak praktikoa behar zuela izan beste ezer (hizkuntzarik perfektuena, etab.) baino gehiago:

“El aldeano sabe, de sobra, que el euskera de nada le sirve al hijo. El remedio está, pues, en fundar industrias, sostener navieras, sociedades de pesca, de agricultura, abrir vías de comunicación nacionalizando todas estas esferas de la vida, de suerte que el euskera *sirva de algo*, porque sea obligatorio para tener parte de ellas”.

Azkuek ordurako zenbait urte zeramatzan ildo horretan lanean. Horrela, euskararen aldeko bi ahotsek hurbiltze bat izan zuten. Hurbiltze hori Euskalerrria Elkarteko gehienak (Ramon Sota pragmatikoa buru zutela) EAJn sartuz gauzatu zen 1898an. Halere, aurrerantzean batzuek zein bestee bultzatu zituzten aldizkariak kutsu desberdinekoak izan ziran. Baina hori aurrerago ikusiko dugu.

Autogorrotaz

Egin dezagun atzera denboran eta buelta gaitezen hirugarren ahotsarengana. Unamunoren familia euskalduna izan arren (aita, Felix Unamuno, bergararra zen; Salome Jugo ama, berriz, bilbotarra, baina aita zeberioztarraren alaba), berak ez zuen hizkuntza jaso titiarekin batera. Halere, beste askoren antzera, nerabe garaian sukarraldi foruzale eta euskaltzalea izan zuen:

“Al poco de acabar mi primer año de bachillerato, en julio de 1876, siendo Cánovas presidente, se dictó la ley abolitoria de los fueros (...). De ahí mi exaltación patriótica de entonces (...). En aquel muelle del Arenal, frente a Ripa, ¿cuántas y cuántas veces no nos paseamos disertando de los males de la Euscalerrria y lamentando la cobardía presente! (...). Por el mismo tiempo se formaba, en el mismo ambiente, el espíritu de Sabino Arana”.

Euskarari ere ekin zion; hona hemen 1886an *Revista de Vizcaya*-n idatzi zutena: “Yo también lo uso (euskara) algunas veces (...). Individualmente cultivo el idioma vasco, no me empeño en propagarlo, porque tengo otras cosas que hacer y porque considero esta propaganda infructuosa e inútil”. Gurutze kaleko bere ataritik atera barik ere (Unamunok urtea betetzeko zuela familia Erronda



Moyano Legeak debekatu egin zuen 1857an euskararen erabilera Hego Euskal Herriko ikastetxeetan. **Argazkia:** *La generación del exilio*.

kaletik Gurutze kalera aldatu zen), ziurtzat eman ahal dugu euskara entzun zuela: batetik, Francisco Lekuona pintore tolosarrak azkeneko solairuan eukan atelieria eta Unamunok ganbara hartan pintura eskolak⁴ hartu zituen; bestetik, bere senide bergararrek (osaba Felix Aranzadi, izeko Valentina Unamuno, Telesforo lehengusua), bertan bizitzeaz gain, *La Vergaresa* gozotegia zeukaten etxabeaz; azkenik, Telesfororen lagun egingo zen Azkuek eskolak ematen zituen eraikin bereko akademia batean. Udak, berriz, Deustuko Olabeagan ematen zituen amama Benitarenean; han ere, nahitaez aditu beharko zituen auzokoen euskarazko jardunak. Badirudi On Migueli atzetik zihoakiola euskara... eta bera korrika batean ihesi. Idazle eta filosofoaren kasua ikerketarako aitzakia bezala hartuko dugu; izan ere, zerk bultzatzen zituen Bilboko burgesiako kideak euskara bigarren mailako hizkuntzatzat hartzera?

⁴ Ez zen bakarria izan: Anselmo Guinea, Alberto Arrue eta Adolfo Guiard pintoreek eta Francisco Durrio eskultoreak ere bertan ikasi zituzten artearen oinarritzko teknikak.

Bilboko euskaldunen artean autogorrotoa izan zela esaten badugu ez dugu bolbora asmatuko; izan ere, gauza bera gertatu zen Baionan, Iruñean edota Eibarren eta, apaldu den arren, gaur egun ere sentipen horrek bizirik dirau gutako askorengan. Horrela mintzo zaigu Unamuno *Paz en la Guerra* liburuan: “Metieron a Ignacio en el escritorio. (...) El odio al escritorio fuéese convirtiendo en odio a Bilbao. Quería ser de la última anteiglesia (...). En Bilbao se burlaban del aldeano los nietos de aldeanos”. *Recuerdos de niñez y de mocedad* autobiografikoan, berriz, berba argigarri hauek aurkitu ditugu:

“El aldeano –jebo o bato, que con estos dos nombres se le conocía en Bilbao entre nosotros– era un ser rodeado, como casi todos los seres a nuestros ojos infantiles, de un cierto nimbo y prestigio de misterio.

Tenía por un lado, algo de cómico y hasta de grotesco; era objeto de las más fáciles burlas. En Carnaval lo más socorrido era disfrazarse de aldeano, en especial de *chorierrico* (...). El desmaño y la torpeza del aldeano llegaban al proverbio; la imitación de su chapurrado del castellano, una de nuestras fuentes de regocijo.

Mas, por otra parte, era un ser que vivía otra vida, en medio de los campos (...). Hablaba otra lengua, una lengua milenaria, la de nuestros abuelos”.

Agerikoa da bigarren aurpegi hau ez zela nahiko mundu hori (eta, beraz, euskara) erakargarri bihurtzeko bilbotarrentzat. 1872an, bigarren gerra karlista hasi aurretxoan, Bilboko gazte liberal talde batek Bizkaian zehar (“a esas zonas donde no se encuentra más que ignorancia, apatía y fanatismo”) txangoak egiteko ohitura hartu zuen. Irteeren kronika jaso zuena Baldomero Goioaga dugu, bilbotar eta gernikar banaren semea; bere aitaita-amamak ere Bizkaiko bailaretan sortuak ziren. Leioan zeudela gertatu zitzaien pasadizo bat irakurriko dugu jarraian: “Mezié quedaba en conversación con el de la botella, pues aunque no habla vascuence, como se expresa perfectamente en el lenguaje de los perros no dudo que habrá conseguido entenderse con el rapaz aquel”.

Dirua eta itzala zeukatenek mespretxua erakusten zuten euskaldunekiko. Zergatik? Arazo konplexu baten aurrean gaude, zalantzarik ez. Guk mespretxu horren azpian dagoen matazatik hari bat aukeratuko dugu: Espainiako Erresumak euskararen aurka ateratako legeena, alegia. Hona lauzpabost ale esanguratsu:

“1772. El euskera, prohibido en los libros de contabilidad. Real Cédula del rey Carlos II.

1784. En la escuela, nunca hablen entre sí el vascuence. Escritura de Aya, Guipúzcoa.

1801. El teatro en euskera, prohibido. Instrucciones para el arreglo de teatros. Madrid.

1857. El euskera, excluido de la enseñanza pública. Artículo 88 de la Ley Moyano.

1902. Los maestros castigados si no enseñan castellano. Hezkuntzarako Errege Agiria.”

Berriro esango dugu: Estatuaren etenik gabeko presio bateratzailea ez zen izan atzerakadaren arrazoi bakarra, baina lege eta araudiek ia ezinezko bihurtu zuten euskarari eustea lan eta hezkuntza arloetan; ez da soziolinguista izan behar funtzio horien gabeziak dakarren zokoratzearen larritasunez jabetzeko... Javier Corcuera, bere aldetik, kapitalismoaren agerpenaren eraginari erreparatzen dio:

“La crisis que para la sociedad tradicional supondrá la aparición del capitalismo implicará, igualmente, la crisis de gran número de valores –también culturales– de aquella sociedad: el vascófono aparecerá como el marginado, el “borono”, y la no posesión correcta del castellano supondrá entonces, junto con el menosprecio por parte de los elementos urbanos, una dificultad para integrarse como trabajador mínimamente cualificado”.

Beraz, Bilboko burgesiak euskara zokoratu egin zuen; baina, aldi berean, ederto zekien euskaldunon izate berezia hizkuntzan zetzala (“una lengua milenaria, la lengua de nuestros abuelos”). Eta berezitasun hori, harrotasun-iturri hori, gorde beharra zegoen; non, ordea? Bada, eremu sinbolikoan: armarrietan, abestietan, abizenetan, etxe eta itsasontzien izenetan, etab. Hain izan zen gogorra erabilpen sinbolikoaren aldeko bolada, ezen abertzaleen aurkako batzuk ere bide horretatik abiatu baitziren (Victor Chavarri dinastiazaleak, adibidez, *Laurac bat* izena jarri zion anaiekin batera zeukan laketontziari).

Lehenengo euskal aldizkariak: *Euskalzale* eta *Ibaizabal*

1893ko ekainaren 8an *Bizkaitarra*-ren lehenengo alea kaleratu zuen Aranak; joanak ziren hilabete batzuk Larrazabalgo hitzaldi famatua bota zuenetik, baina oraindik mezu euzkotarrak lortutako oihartzuna ahula zen. Bozgorailu bat ezin bestekotzat jota, buru-belarri sartu zen eginkizunean Luis anaiarekin batera. Lehenengo lau zenbakiak maiztasun jakin barik atera zituzten; gainera, *orri egazegikorrak* (esku-orriak) ziren aldizkariak baino gehiago. 1894ko urtariletik aurrera hilabeteen behin atera zuten, hurrengo urteko irailean desagertu zen arte. Propaganda politikorako tresna zenez, euskararen lekua aldakorra izan ohi zen, baina betiere gaztelaniaren menpe.

Hasi bezain laster agertu ziren arazoak: batetik, erabat defizitariora zen; bestetik, Gobernu Zibilak oso gertutik jarraitzen zituen bertan idatzitakoak. Izan ere, amaiera gobernadorearen agindu batek eragin zuen (Engrazio Aranzadi *Kizkitza*-ren artikulua bat zela medio). Aranatarrak, baina, ez zeuden atzera egiteko. 1897an astekari batekin bueltatu ziren; politikaren garrantziari eta euskararen lekuari dagokienez, *Baserritarra*-k ez zuen aldaketarik ekarri. Iraun ere, ez zuen askorik egin: 18.a izan zen azken zenbakia.

Urte bereko urtarilaren 3a gogoan gordetzeko data dugu, egun horretan kaleratu zen eta Euskal Herrian euskara hutsean egindako lehenengo aldizkaria:



Kirikiño *Euskalzale*-n (1897-1899) trebatu zen kazetari legez. Hemen bere emaztearekin ageri zaigu.
Argazkia: Bidegileak-Kirikiño.

Azkueren ekimenez jaiotako *Euskalzale*, alegia. Astekaria zen eta, zeharka mezu politikoa zabaltzen zuen arren, kultura zuen berbabide nagusia. Neurri apalean bazen ere, informazio-iturri izaten ere ahalegindu zen; eta, agian garrantzitsuen, modernoa zen. Iritziak (hizkuntzaren gainekoak gehienak), irudiak, argazkiak eta komikiak aurki zitezkeen bere orrietan.

Idazle askoren testuak agertu ziren bertan: Bustintza, Campion, Madinabeitia, Urruzuno, Zamarripa, etab. Dirua, berriz, Tomas Epalzak eta bere lagun batzuek jarri zuten. Azkueren ikasle izateaz gain, gizon hau Banco de Bilbaoko kontseilari izan zen ia hogeitaz urtez. Astekaria Jardines kaleko egoitzan inprimatzen zuten. Leku berean beste egitasmo batzuk jarri zituen abian Azkuek aurreko urtean: batetik, pare bat ikasturte iraun zuen euskal eskola bat; bestetik antzerki-lantxoak edo ikuskizunak taularatzeko antzoki txiki bat. Hasiak ziren landatzen ondorengo suspertzea ekarriko zuten haziak.

1899ko irailaren 27an Bizkaiko gobernadoreak astekaria ele bitan atera behar zela agindu zuen. Horrez gain, urrian ehun pezetako isuna ezarri zion *Euskalzale*-ri. Azkuek ez zuen jarraitzeko baldintzarik ikusten eta gehiago ez ateratzea erabaki zuen. Etsipenari tarterik txikiena utzi barik, Ebaristo Bustintza *Kirikiño*-ri hurrengo aldizkariako zuzendaria izatea proposatu zion (ordurako buruan baitzeuzkan *Euskalzale*-ren lekukoa hartuko zuen aldizkariaren nondik norako-

ak). Mañariarrak ezetz erantzun arren, Azkuek temati jarraitu zuen. Azkenean onartu egin zuen kargua eta 1902ko urtarrilaren 5ean, domekarekin, *Ibaizabal* astekaria kalera atera zen.

Nahiz eta aurrekoa baino bizitza laburragokoa izan, aldizkari berriak *Euskalzale*-k irekitako bideetan sakondu zuen; izan ere, Azkuek oso argi zeukan zertan zebilen. Batetik, bere ekarpena egin nahi izan zion euskararen batasunari. 1901ean eta 1902an Ipar zein Hegoaldeko euskaltzale ezagunenek bilerak egin zituzten Hendaian eta Hondarribian erabili beharreko ortografia bateratua adostu nahian. Hainbat gorabehera zirela kausa (Aranak erakutsitako tema ez zen txikiena izan), azkenean ez zen lortu eredu komunik. Hala eta guztiz ere, hainbat konbentzio zabalduz zihoazen (*k* erabiltzea *c*-ren ordez, kasurako) eta Bilbon sortutako bi aldizkari hauek asko lagundu zuten hedatze horretan. Bestetik, lekeitiarrak euskaraz irakurri, idatzi eta pentsatuko zuen gunea eratu nahi zuen, bertoko hizkuntza eta kultura herri xehera barreiatuko zuen *intelligentsia*. Erronka zail baino zailagoa benetan.

Ibaizabal-en lorpenen artean zabalkundea aipatu behar dugu. *Euskalzale*-ren esparrua praktikan Bizkaira mugatu zen arren, aldizkari berriarekin ahalegin handia egin zuten Euskal Herri osora, eta bereziki Gipuzkoara, zabaltzeko. Asmo hori astekariaren azalean bertan argi asko adierazten zen, argibide hau baitzetorren *Ibaizabal* izenaren azpian: “Bizkaitarrez eta guipuzkoarrez eguiña”. Berrie-maile sarea finkatzea ere lortu zuten: 15 Gipuzkoan eta 7 Bizkaian. Salmenta handienak Bilbon izaten ziren, baina jarraian Gipuzkoako hainbat herri nabarmentzen ziren, eta Errenteria zen guztien buru (150-160 ale saltzen ziren Txirritaren herrian). Hortik ondorioztatu ahal dugu Bilbon bazegoela euskal irakurgaiak kontsumitzeko prest zegoen multzo esanguratsu bat. Bizkaiari dagokionez, *Ibaizabal* beste zazpi herritan saltzen zen: Bermeon, Durangon, Lekeition, Lemoan, Markinan, Mungian eta Plentzian.

Edukiei erreparatzen badiegu, igartzen zen informazio-iturri modura bere lekua egin nahiak aurrea hartu ziola kultura-ikuspegi hutsari. Itxuran ere izan zuen isla joera berriak: lau zutabetan maketaturik zetorren eta, *Euskalzale*-k ez bezala, ez zekarren irudirik. Garaiko egunkarien eredura hurreratu zen, beraz, bai kanpoko ezaugarriei, bai edukiei zegokienez. Proiektu honek, aurrekoak legez, Epalza, Sota eta beste batzuen laguntza izan zuen arren, ez zuen lortu zulo ekonomikotik ateratzerik eta, ondorioz, 1903ko abenduaren 27an azken zenbakia atera zuten. Bere bi urteko ibilbide laburrean (103 zenbaki kaleratu zituzten) euskarak behar-beharrezko zituen bideak urratu zituen.

Eta zertan zen bitartean jeltzale-jendea? *Baserritarra* desagertu eta gero eten bat egon zen prentsa nazionalistan. Ez luzea ordea. 1901ean *La Patria* aldizkaria argitaratzen hasi ziren. Izenez aldatu bazen ere (*Patria*, *Aberria*, *Aberrija*), 1908ra arte iraun zuen, baina ez zuen ekarri berrikuntzarik euskarari eskainita-

ko lekuari zegokionez. Jeltzaleek lehengo samatik burua, hau da, eurentzat propaganda politikoak erabateko lehentasuna zeukala eta euskara bigarren maila batean geratzen zela.

Hala ere, kazetaritzatik at, belaunaldi berria gogotsu zetorren hizkuntza kontuetan eta hasia zen ordurako ekintza interesgarrietan murgiltzen. Honaino helduta etentxo bat egitea dagokigu; izan ere, badago aipatu ez dugun kontu bat: Sabino Aranak, Azkuek ez bezala, ikasi egin behar izan zuen euskara; hau da, ez zen mugatu arbasoen hizkuntza goraipatzera edota euskara borroka politikora-ko tresna hutsa balitz legez erabiltzera (malda horretatik sarri irristatu zen arren). Ikasi eta ahal izan zuen guztietan erabili egin zuen, hots, eguneroko bizitzarako baliagarria zela frogatu zuen Bilbo erdaldundu hartan. Jarrera horrek sekulako eragina izan zuen 1904an sortu zen *Sociedad de Juventud Vasca*-ko kideen artean, eta eragin hori kontuan hartzeko modukoa da; egin kontu, erakunde horretan bildutako gazteak izan zirela hurrengo hamarraldietan euskararen aldeko ekintzailerik sutsuenak. Baina horiek hurrengo atalerako utziko ditugu.

III. 1915, Artxanda: ihesbide erosoia kilkerretan joateko



Hain pozik heldu nintzan
Bilboko ibaira
baina joan e'in behar
urezko zelaira.
Ugazabak bidaldu
gaitu Cardiff-era
zama hartuta joateko
Amerika aldera.

(J. B. Bilbao "Batxi")



El Arenal, 1912. Adolfo Guiard.

Zazpi muinoen artean (Ganguren, Artxanda, Elorriaga, Kastrexana, Arraitz, Arnotegi eta Pagasarri) sortutako hiri txiki eta jaso zaharren berriketaldietako kontua zen XX. mendearen hasierarako. Nekez jasaten ziren atsedeen hartu barik hazkunde demografikoak eragindako estutasunak, industrien zaratak eta keak eta autoen eta itsasontzien amaierarik bako joan-etorriak; hori dela eta, bilbotarrek, ahal zuten guztietan, inguruko mendietara egiten zuten ihes. Horretarako, baina, astia behar zen eta bizitza modernoak ez zuen ordu librerik oparitzen. 1915eko urriaren 7an, ordea, lehenengo bidaia egin zuen funikularrak aitzakia gabe utzi zituen lanpetuenak ere: sei minutu eskasetan eta bost txakur txikiren truke (pezeta erdi) 50 lagun igo ahal zituen osterako bakoitzean Artxandako bal-koi ederrera.

Ordurako bilbotar askok bazeukaten estresaren eta tentsioaren berri; dena dela, horiek uxatzeko orduan badirudi egungoak baino bide merkeago eta dibe-tigarriagoak aurkitu zituztela. Hona hemen, adibidez, *El Liberal* egunkarian agertu zen zutabea: “Ahora al menos hay más facilidades para ir a coger grillos. Antes era imposible por el tiempo que había de emplearse en ir al monte; pero ahora, aún los hombres de negocios más atareados pueden disponer de un par de horas para ir a grillos.”

Kronikari kutsu ezin xaloagoa darion arren, errealitatea bestelakoa zen; asko ziren landa berdeen ordeztu Artxandako kasinoko belusaren berdea nahiago zutenak; izan ere, dirua barra-barra zerabilten gerra urte haietan enpresa-gizonek eta zer edo zertan xahutu behar zen...

Dena dela, negozio-gizonak ez ziren prakak bete lan zebiltzan bakarrik, ez horixe. XIX. mende akabuan ereindako haziak fruitua ematen ari ziren Botxoan. Sabindarrek euskara eta abertzaletasuna uztartuz ehunka gazteren bihotzak berotu zituzten; Azkuek, berriz, hirugarren elementu bat gehitu zuen, kulturare-na hain zuzen ere, eta, horrez gain, herriarengandik hurbilago zegoen euskara eredu baten alde egin zuen. Baina mende berriko lehenengo urteetan biak falta ziren: Sabino 1903ko azaroaren 25ean hil zen Sukarrietan Addison gaixotasunak jota; azaro berean Azkuek (*Euskalzale* eta *Ibaizabal*-en esperientziek huts egin

Kirikiño katedrako
ikasleekin 1909an.
Argazkia:
Euskaltzaindiaren
Azkue Biblioteka.



eta gero) lan-utzialdia eskatu zuen institutuan eta urtarrilean Parisera abiatu zen musika ikasketak jarraitzera eta bere hiztegiaren argitalpena martxan jartzera (Tours-en egin nahi zuen). Ondorengo sei urteak Europako hainbat hiritan eman zituen.

Bi erraldoiak falta ziren arren, Bilboko euskaldunak ez ziren umezurtz geratu, ezta hurrik eman ere, bi *aita pontekoen* ezaguna zen Kirikiño gero eta ardur handiagoak ari baitzen hartzen hainbat esparrutan. *Ibaizabal*-en arituz kazetaritzan trebatu ondoren, 1904an iraskaskuntzan hasi zen Institutuan Azkueren orde. Hurrengo hogeita lau urteetan ehunka bilbotar euskaldundu eta euskaltzaletu zituen mañariarrak; antza denez, irakasle bikaina izateaz gain, oso gizon atsegina eta hurbilekoa zen. Euskara jator eta herrikoian ipuin laburrak, pasarteak eta olerkiak idazten ere eman zituen ordu batzuk (*Abarrak*, *Edo geuk edo inok ez*, etab.). Bere dohainak ez ziren hor agortzen: askoren ustez Bizkaian zegoen hizlaririk onena zen eta eroso eta solte jarduten zuen berdin herriko plazan jaietan zein agerraldi politiko batean. 1911ko otsailaren 8an Bilboko Euzko Gaztedijaren Bidebarrieta kaleko egoitzan eman zuen hitzaldia mugarriztat hartu ahal dugu; izan ere, hura izan zen aro garaikidean Bilbon euskara hutsean eman zen jendaurreko lehenengo berbaldia.

Egun hartan hiriburuko euskaldunak ohi baino pozago etxeratu ziren. Ebaristo Bustintza Kirikiñok botatako arrazoietan sartu barik, “Aberrija azkatuteko, gogua azkatu” hitzaldia luzaroan ez ahazteko modukoa izan zen bildu zen jende kopurua zela-eta. Nortzuk ziren, bada, Juventud Vasca-Euzko Gaztedijako haiek? Zertan zebiltzan, noiztik ari ziren? Jarraian argituko ditugu hiru hamarkadatan Bilboko euskalgintzaren bihotzetako bat izan zen gunen barne-muinak.


Aurrekari batzuk izan ziren arren, esan ahal dugu Euzko Gaztedija 1907ko San Jose egunean atera zela jendartera Bidebarrietako lokala zabaldu zutenean. Duda-mudazko urte batzuen ondoren, abertzaletasuna hedatzen hasia zen Bilbon. Lehenengo urratsak gaitzak izan ziren; zalapartak zalaparta, 1898ra arte EAJ Sabinok eta bere hurrekoek baino ez zuten osatzen, hau da, gizonezko dozena batzuek. Lagunarte murrizt harekin errazagoa zen mus txapelketa bat antolatzea mugimendu politiko indartsu bat eratzea baino. Baina, ezustean, urte hartan Sota eta Euskalerria elkarteko hainbat kide jeltzaleengana hurbildu ziren; giza baliabide berriekin dirua ere heldu zen, eta Aranek Batzar Nagusietarako jarlekua atera zuen udazken hartako hauteskundeetan hiriburuko barrutian ia 4.500 boto lortu ondoren. Hortik aurrera alderdiak ez zion hazteari utzi.

Ideologia berrira hurreratu ziren gazteek euren gunearen premia sentitu zuten; batzokietatik bereizitako lekuren bat nahi zuten, kosta ahala kosta. Hasierako taldea handitzen zihoan: Espainiako Gobernuak 1905ean Santa Maria kaleko egoitza itxi zuenerako (Sociedad de Juventud Vasca-ren egoitza) 400 bazkide inguru ziren. Kopuruaz gain, lanerako gaitasun handia zeukan jendea zegoen multzo hartan; ez da harritzekoa, hortaz, urtebeteren buruan Bidebarrietako lokala prest izatea aurrekoa ordezkatzeko.

Ideia berriek hauspo-lana egin zutela begi bistakoa da, baina Azkueren pragmatismoak ere emaitza ederrak ekarri zituen; izan ere, Euzko Gaztedijaren sortzaileetako askok lekeitiarraren katedrako eskoletan ezagutu zituzten euskara eta Euskal Herria. Euskararen aldeko giro hori igarritu egin zen 1908an elkartearen araudia idatzi zutenean. Gaztelaniaz idatzita zegoen arren, honako hauek jaso zituzten bertan: “ Es deber de los socios euzkeldunes hablar el euzkera en los locales de la sociedad”, edo “los empleados deberán hablar el euskera”. Ez da ahaztu behar ordurako katedrak hoguei urte zeramatzala martxan eta gero eta gehiago zirela gutxieneko ezagutza zeukaten bilbotarrak.

Beste alde batetik, EAJ indartu izanak euskal kulturaren suspertzea ere eragin zuen neurri batean. 1899ko udal hauteskundeetan jeltzaleek euren lehenengo zinegotziak lortu zituzten; 1903ko eta 1905eko emaitzak ere itxurosoak izan ziren haientzat. 1907an, berriz, Espainiako erregeak Gregorio Ibarretxe jeltzalea Bilboko alkate izendatu zuen. Alderdiaren jarrera gero eta leunagoa zen eta *Berezarpeneko* erregimenak ere malgutu egin zituen hainbat jokabide. Hiriburuko alkatetza eskuratu zuten urte berean, jeltzaleek 13 batzoki ireki zituzten Bizkaian eta beste lau Gipuzkoan. Baina *euzkotarren* egintzak ez ziren mugatzen arlo politikora. Sabinoren jarraitzaileek ederto zekiten jaiek eta ospakizunek ere izugarri laguntzen zutela herria egiterakoan, eta, gogoia sobera izanik, ez ziren gora begira geratu.

Mende berriarekin batera Bizkaiko eta Gipuzkoako patroia zen Inazio Deunaren eguna ospatzen hasi ziren. Zabalguneako Euskalduna kalean zegoen izen



Bidebarrietako lokalera biltzen zirenen artean asko euskaldunak ziren.
Argazkia: SAKE-AA.

bereko frontoia erabiltzen zuten horretarako eta, berez kultur ekitaldiekin osatutako emankizuna bazen ere, jeltzaleek indar erakustaldi modura baliatzen zuten eguna. Bazkaloste luze haietan denetarik ikusi eta entzun ahal zen; har dezagun, adibidez, 1905eko egitaraua: Abadiñoko dantzariak, Juventud Vascako abesbatza, aizkolariak, pala partida, zantzolariak eta orduko bertsolaririk ospetsuenak (Enbeita eta Txirrita, hain zuzen ere).

Gatozen berriro Kirikiñoren berbaldi famatu hartara. Badakigu, urte hartako memorian jaso baitzuten, jendetza bildu zela. Honela zioen abenduaren 25eko data daukan aktak:

“Euzkeltzale-Bazkuna

Esta comisión, quizá la más importante de todas, continúa haciendo una labor aunque callada muy patriótica e intensa, en orden al renacimiento y difusión de la lengua de nuestros mayores.

A petición suya organizó el Círculo de Estudios Vascos una conferencia en euzkera de la que salieron los oyentes, muy numerosos por cierto, complacidosísimos.”

Ez dakigu, ordea, nortzuk ziren bertan; ez dakigu baina zilegi zaigu asmatzea. Liburuaren hasieran ezagutu dugun Mikel Arrutzak 21 urte zituen une hartan, eta, beraz, ziurtzat eman ahal dugu bertan zegoela; Keperin Jemein abandoarra hiru urte zaharragoa zen eta 1910ean sortu zen Euzkeltzale Bazkunako kide iza-nik, han behar zuen; Manu Robles-Arangiz begoñarrak eta Manu Egileor aban-toarrak 27 urte zituzten eta badakigu adi eta erne jarraitu zutela mañariarraren

predikua; Manu Sota Ramon Sotaren seme gazteak 14 baino ez zituen arren, belarriak tente zeuzkala entzungo zituen euskara jorian botatako berbak; urteak geroago bere burkide izango zen Eli Gallastegi aulki batzuk aurrerago jarriko zen ziurrenik. Iturribidekoak 19 urte zeuzkan eta burua odola bezain bero; bat gutxiago zeukan Luis Gonzalez Etxebarri ubidearrak. Mugako bizkaitar hau, batxilergoa Gasteizen egin eta gero, Bilbo aldetik zebilen Jakintza eta Ederti eskolak jasotzen; aipatutako beste guztiak legez, lehenengo lerroan aurkituko dugu Luis ere hurrengo urteetan; Joseba Altunak, azkenik, 23 urte zituen eta lau zeramatzan euskararekin borrokan. Zalantza barik, Kirikiñok zituen ikasleen artean onenatarikoa zen gerora *Amilgain* ezizenaz baliatuko zen bilbotarra.

Gora gora arseniko-lejia! Sabindarrak euskalduntze bidean

Gazte hauek, beste askorekin batera Euzko Gaztedijako batzordeetan ari ziren jo eta tira. Elkartearen lehenengo helburua Bilbon abertzaletasuna zabaltzea zen eta, hori zela eta, propaganda politikoa eta borroka ideologikoa ohiko jardunbideak ziren gazteentzat. Baina, horrez gain, konpromiso sendoa zeukaten kulturarekin eta hizkuntzarekin, eta baita kirolarekin eta jai giroko ekitaldiekin ere. Ezaugarri horiekin, ez da harritzekoa elkartea oso erakargarria izatea hiriko gaztetxo askorentzat. Honela kontatzen zuen 1900ean jaiotako Sorne Untzueta abandoarrak bere lehenengo kontaktua mundu abertzalearekin:

“Atxuriko eskolan Abasolo izeneko neska bat zegoen. Nik ulertzen ez nuen hizkuntzan egiten zuen berba eta elkarre moduko bat zeukan lagunekin; hark abizenei begiratzen zien, euskal abizenen bila ibiltzen zen. Elkarre hartan sartzeko Untzueta abizenak balio zuela esan zidan. Elkarre hartakoek dominatxo bat eramaten genuen kateorraz batekin zintzilikatuta. Baina maistra ohartu zenean, ez zitzaion gustatu eta kendu egin zigun dominatxoa, oso espainolista zelako. Behin, festa izan genuen eskolan eta Espainiako bandera jarri nahi izan ziguten ileko begiztan (txorian), eta guk ez genuen nahi izan”.

Sasoi berean Eli Gallastegiren arreba ezagutu zuen eta, bere eraginez, euskara ikasten hasi zen:

“Garai hartan Consuelo Gallastegiren oso laguna egin nintzen. Gotasnek eragin handia izan zuen nigan. Hark erakutsi zidan Euzkadi bihotzez maitatzen. Hark euskal kantu asko zekizkien eta kantatu egiten zuen: ‘Gora-gora antzinako lagia...’, eta nik ‘arsenico-lejia’ ulertzen nuen. Nik ez nekien euskaraz deus... Larunbatetan ateratzen zen *Aberri* astekaria, eta behin zera irakurri nuen: ‘Abertzaletasun asko, eta gora JEL asko; Jaungoikoa eta Lagi Zaharra. Baina abertzaletasuna papel bustia da ez baduzue euskara ikasten’. Horrek bultzatu ninduen ni euskara ikastera”.

Euskara ikasi beharrak hamaika burukomin eragiten zien gazte adoretzu haiei; hala ere, Untzuetak dioskunez, batzuetan barre-algara galantak botatzeko



Sorne Untzueta Isuskizan. **Argazkia:**
Bidegileak – Sorne Untzueta.

aukerarik ere ez zen falta izaten: “Behin, Bustintzak galdetu zigun ea nola esaten zen euskaraz ‘camino’, eta gutako batek esan zuen ‘bidé’, eta klase osoa barrezka lehertu zen”.

Kontuak kontu, zortea izan zuen Sornek; izan ere, gizartea aldatzen ari zen, Europatik zetozen berrikuntzei poliki-poliki egokitzen. Aldaketa horiei esker ikasi ahal izan zuen berak gero olerkiak egiteko erabiliko zuen hizkuntza: 1913an Aldundiak ezin izan zuen entzungor egiten jarraitu eta, zegoen eskaeraz jabetuta, neskentzako lerroa ireki zuen Institutuko katedran. Gizonezkoen neurrira antolatutako mundu hartan emakume gazteak zirrikituak baliatzen hasi ziren hanhemenka, gizartean zeukaten lekua zabalitzeko. Mugimendu horien ondorioz, hurrengo hamarkadan berriro egingo dugu topo goian aipatutako neskekin; orain, ordea, goazen ezagutzera Gotasneren neba, Eli Gallastegi *Gudari*, alegia.

Eli Institutuan hasi zenean (1905ean) gutxi ziren oraindik euren burua abertzaletzat zeukaten ikasleak. Berak eta Joxemari Errazti lagun minak argi zuten zein zen euren aberria, etxean ezagututako giroa zela eta. Eskolan lantzen zituzten eduki eta erreferentzia guzti-guztiek zeukaten kutsu espainiarra; giro hartan, beraz, oso zaila zen euskalduntasunaren aldarria egitea. Behin, hamabost urte zituela, takigrafia irakasleak lan bat agindu zien oporraldirako. Gustuko gai baten gainean idatzi behar zuten eta gero maisuak berak irakurriko zuen idazlana denen aurrean, ikaslea aldamenean zeukala. Ikus dezagun zer egin zuen Elik:

“El trabajo que presenté fue la escena brutal de *El anillo*, de la novela *Blancos y negros* de Campion, en la que surgen vigorosamente los caracteres de *Martinico*, el maestro Balda y *Cuadrau* y como personaje mudo el infamante anillo que proporcionaba al desgraciado niño que lo llevara un castigo brutal por haber hablado en euzkera con sus propios compañeros euzkaldunes.

El profesor iba leyendo desde su sillón. Yo estaba de pie a su lado observándolo emocionado según iba describiendo la brutal escena en medio de un gran silencio (...). Volví a mi pupitre sintiendo la satisfacción de haber puesto allí en evidencia, ante los demás alumnos y ante el profesor español, el sistema de enseñanza que España enseñaba (con la *murder machine*, la máquina asesina de nuestro idioma nacional y de nuestro carácter)”.

Ikusi ahal dugunez, Eli abertzale sutsua zen 1907rako. Hurrengo urteetan Euzko Gaztedijakoekin batera aritu zen hamaika saltsatan. Mutiko hura bizkor-bizkorra zen eta alderdiko buruak berehala jabetu ziren honetaz; 1912an, hogei urteak bete berri zeuzkala, Euzkadi Buru Batzarrean nahi zutela jakinarazi zioten (Luis Aranaren idazkari izateko, hain zuzen). Horri esker alderdiko goi-mailetan zer egosten zen bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuen; horrez gain, bere burua euskalduntzeari ekin zion Azkue eta Kirikiñorekin. Azken honek zera bota zuen behin Eliri buruz: “Gazte honek zarata aterako dau”. Ebaristo ez zebilen batere oker, ez horixe.

Arana anaiek sortutako alderdia aldatzen ari zen. 1914an I Mundu Gerra piztu zenean Espainia ez zen lerrokatu inorekin edo, hobeto esanda, merkataritza etekinen aldera lerratu zen: merkataritza harremanei dagokienez, Estatuko burgesiak ez zuen bereizketarik egin eta ahal izan zuen guztia saltzeari ekin zion. EAJko negozio-gizonak ere ez ziren atzean geratu. Elik dioenez horrek ez zuen gauza onik ekarri:

“Nada más salir Luis Arana del PNV, comenzaron a aparecer medios económicos extraordinarios. La dirección del partido dispuso de millones de pesetas para sufragar los gastos de la campaña para diputados a Cortes, recurriéndose incluso a procedimientos repugnantes, pero eficaces, operantes... Y en efecto salieron varios, creo que media docena de diputados a Cortes y senadores, todos o casi todos pertenecientes a la clase social adinerada.”

Gallastegi 1918ko hauteskundeez ari da. Luis Arana, berriz, 1915ean egotzi zuten alderditik. Aparatuaren kontrola zeukan sektore autonomiazaleak haren mugimendu ilun bat baliatu zuen Arana alderditik kanporatzeko. Engrazio Aranazadi *Kizkitza* zen sektore autonomiazalearen buru eta, hauteskundeetako emaitza onek eman zioten indarra lagun, gero eta argiago hasi zen mintzatzen independentziaren aldeko aldarrien desegokitasunaz. Kizkitzaren aldekoek 1913an jaiotako egunkaria erabili zuten doktrina berria zabaltzeko; *Euzkadi*, alegia. Aldaketok alderdiaren izeneraino heldu ziren eta, horrela, 1916an PNV CNV (Comunión Nacionalista Vasca) bihurtu zen.

Euzkeltzale Bazkunaren lan isila

Bien bitartean, Bidebarrietan biltzen ziren gazteek gogotsu heltzen zieten propaganda lanei edota bilera eta enparauei; baina, edonongo eta edonoizko gazteen antzera, gustukoen zituzten jarduerak aisialdikoak ziren. Elkartearen bultzatzaileek hasiera-hasieratik zeukaten argi lan politiko eta kulturalarekin batera arlo ludikoak zentraltasuna izan behar zuela urteko plangintza prestatzerakoan. Kirolak, esate baterako, gizonezko gazte guztien oniritzia zeukan; hori zela eta, Bilbon baino aukera hobea eta merkeagoa zegoela baliatuta, elkartek futbol



Dantzariak Sondikako Kirolokietan 1914ko Ignazio Deuna egunean.

Argazkia: *Juventud y nacionalismo vasco: Bilbao (1901-1937).*

zelai bat erosi zuen Txorierrin; Sondikako Kirolokieta, hain justu.

Kirolerako ez ezik dantza erakustaldiak egiteko ere erabiltzen zuten zelai hura; izan ere, dantzek ere jarraitzaile ugari zeukaten Juventudeko gazteen artean. Folklorearen esparru horri dagokionez, ez ziren dantzan egitera mugatu; berreskuratu egin zituzten hilzorian zeuden hainbat dantza (Durangaldeko ezpatadantza, adibidez) eta lan eskerga egin zuten eurok gaztetxoei erakusten. Honela ematen digu jarduera horien berri Keperin Xemeinek:

“Lan gusti orrek gertetako, amaika batzorde ziran Euzko-Gastedijan, eta beti berberak gintzazan. Lekurik ba’neuko «*La Comision del Hiladillo*» zuberi aurkeztuko neutzuben, eta barre-algara egingo zenduben. Baiña bakarrik esango dautzuket batzorde orrek, Iñaki Deuna’reñ egun baten, *Bilbao’ko San Mames* landan, 240 ezpatadantzari-talde aurkeztu ebazala, 1.920 ezpatadantzarijekin.”

Ia antolaketa-premia barik zebilen kontua mendi-irteerena zen. Aspaldiko ohitura zen bilbotarren artean Bizkaiko mendi inguruetara irtetearena; gorago aipatu ditugu Baldomero eta bere lagunek igande eta jai egunetan egiten zituzten balentriak. Berrogei urte geroago, ohitura horrek inoiz baino indar handiagoa zeukan. Gaztediakoak talde naturaletan biltzen ziren txangoak egiterakoan; lagunarte horiek, gainera, bazeukaten izena ere. Badirudi lehenengo urte haietan lau izan zirela: Txakur Txiki, Ariñ Ariñ, Betikua eta Asartubak. Uda zein negu, hitzordua ez zen inoiz aldatzen: goizeko bostak eta erdietan lotzen ziren Areatzan, eta, Done Jakuen meza entzun ondoren, kantu eta ijui artean abiatzen ziren gazte-taldeak.

Mendigoizale talde hauek aisialdiaz harago zihoan eginbehar politikoa zeukaten: herri txikietan eta baserri inguruetan abertzaletasunaren hazia zabaltzea, bereziki karlismoa indartsua zen guneetan (Arratia, Durangaldea, etab.). Propaganda lan hori kantuen, esku-orrien eta berriketaldi ez-formalen bitartez egin ohi zuten. Azken bide hori hartzen zutenean hasten ziren komeriak, bilbotar gehienak ez baitziren gauza ganoraz moldatzeko mezu berria jaso behar zutenekin.

1908an lagun-taldeek bat egin zuten eta Mendigoizale Bazkuna osatu zuten. Hanka onak izateaz gain, beste baldintza bat bete behar zen partaide izateko: "Es obligatorio conocer los cantos nacionales vascos". Lehenengo irteera bate-ratua 25 kilometrokoa izan zen: goizeko sei eta erdietan Begoñatik abiatu ziren meza amaitu bezain laster eta Iturritxualde menditik zehar Lezamaraino iritsi ere bai; han, ia hirurogei laguneko gizaldrak Laudioko Ziriakorenean egin zuen zortzietakoa. Sabeleko zuloa ondo berdinduta eta txakolina sendo edanda, erraz igo zituzten Errigoitiko aldatsak eta eguerdirako Gernikan zeuden. Ohiko eginbehar-rak baino lehenago, kartzelara hurreratu ziren, bertan preso zeuden burkide bermeotarrak bisitatzerako. Gero, bazkaria, harremana gernikarrekin eta buelta etxera trenean. Egun biribila, berba batean. Biharamunean, alabaina, kazetari jeltzale batek bere kezka azaldu zuen: mendigoizaleek ezin izan ei zuten baserri-tarrekin euskaraz berba egin.

Edozelan ere, denek ez zioten erreteilarik ekiten zimentarri baina lehenago. Gazte haietako batzuek abertzalea, lehenengo eta behin, euskalduna dela sine-tsirik, euskaraz bizitzearen aldeko apustua egin zuten; erabaki horrek eragin zuen, hain zuzen ere, Euzkeltzale Bazkuna-ren sorrera 1910eko otsailean. Hona hemen Keperin Xemein-en testigantza:

"Gure «Euzkeltzale-Bazkuna» Bilbao'n jayo zan eta bere bazkide gustijak euzkel-ikasliak ixan ziran. *Instituto Vizcaino* eritxon Bizkai'ko Aldundijak irasitako Ikas-tetxe Nagusijan, Aldunak eurak euzkel-ikastola bat jarri eben, Azkue ta Bustintza jaunak irakasle zirala. Euzkel-ikastola onetara bilbaotar asko erduten ziran, mutil eta neskatil. Mutillen artian talde bat sortu zan, alkarrekin beti euzkeraz egiten ebe-nak, naiz-ta billin-boloka eginda be. Baita bata bestiarik euzkel-idazkijak bidaltzen eutsozan. Idazkijok asikerean barregarrijak ixaten ziran, baña iñor etzan lotsatuten. Obeto ekijenak gitxijago ekijenai uarpenak egiten eutsezan eta azkenez gustijok ederto idazten eldu ziran. Orduban, baten bateri euzkeltzale-bazkun bat eratutia otu yakon. Eta danok ontzat artu eben. Orretarako areto bat biar eben eta euzkeldun-barri arek «Bilbao'ko Euzko-Gaztedi»ko bazkidiak ixanik, Batzoki areri eskatu eutsoen eta onek emon. Mai aundi bat, aulki batzuk eta arasa luzia bai-ebazan areto begiko arek. Eta geyagorik бага aizkidiak lanian asi ziran."

Elkarteak ez zuen izan ez araurik ez bazkiderik; bai ordeak helburuak eta lane-rako asmoak. Bi xede zituzten: batetik, erabileraren bitartez euren euskara ho-betzea; bestetik, hizkuntza hedatzea eta garbitzea. Bata zein bestea gauzatzeko ezinbestekoa zen hiztunen multzoa handitzea. Jendea euskara ikasteko amorra-

tzen zegoen eta, beste irakaslerik ez zegoenez, Bazkunakoak eurak jarri ziren eskola-emaila. Azkue eta Kirikiñorekin euskaldundutako hamabi neska-mutil izan ziren ardura hori hartu zutenak. Xemeinek dioskunaren arabera, euretako batek berak ere ez zuen euskara etxean jaso; egin kontu, jatorrizko euskaldunek, oro har, ez zeukatela gramatikaren ezagutza-maila nahikorik. Ikasturte hasieretan izugarrizko jendetza biltzen zen Gaztedijako egoitzan, baina behin ikastaroa hasita beti izaten ziren gorabeherak; hara bestela zer dioskun Xemeinek:

“Ikastolaok 600 eta geyagokaz ikaslez asten ziran, danok adorez ta itxaropenez betiak. Euzkel-irakasliak esandako euzkeldunbarrijak ziran, mutillak eta anderañuak. Etzan euzkeldun jator bat be (ta bai-egozan), beronek euzkeraz irakasteko euzkel-iztija ezebelako ezautzen.

Diñodan lez, ba, ikastolaok adorez asten ziran: lerden eta txairo. Baiña, illabete bi edo iru igazita, urtian-urtian, auteskundiak iragarten ziran: ziñegotzi-auteskundiak edo bestalakuak. Eta orduban, auteskunde-langille-billa. Ezeutsien orduban euzkeldunak ziranez itanduten. Eta ikaslerik onenak eta irakasliak be, ara juaten ziran auteskundiak gertetan, ikastarua lagata.

Ikastoleak urrituten ziran, eta illabetetan —amabost egun aurrez auteskundia gertatzeko, ta amabost egun atzez ondoriak arakatuteko— auteskunde-langilliak bigurtzen ziran; baiña, oso atzeratuta. Barriro asi biar.”



1915eko otsaila. Euzko Gaztedijako euskara eskoletako ikasle batzuk Begoñako Karmelo elizaren atarian. **Argazkia:** *Juventud y Nacionalismo vasco: Bilbao (1901-1937).*

Hauteskundeak ez ziren izaten interferentzia bakarra, ez horixe. Bai alderdiak bai Euzko Gaztediak berak hamaika ekitaldi eta ospakizun egiten zituzten urtean zehar, eta egun horietan ere izaten zen dantzari, hizlari eta abarren premiarik. Eta zeintzuk ziren finenak eta prestuenak? Euskara ikasten eta irakasten zebiltzanak, jakina:

“Ikastoleak berrasita berialaxe, itxaldijak, itxeikixunak, norberaren irakaskintza, norberaren kultura eratu, zaindu, euzko-antzerkija ta edozelako euzko-jayak, bidez-kundiak, batzoki zabalgundiak-eta. Orretarako, izlarijak, abeslarijak, antzezlarijak, dantzarijak-eta, biar ziran. Eta, jakiña! izlari, antzezlari, abeslari ta dantzariarik one-nak euzkel-ikasliak ziran... eta euzkel-irakasliak mutil-anderañuak.”

Eskolok sustatze lanaren ezinbesteko habea ziren, baina ez bakarra. Euzkeltzale Bazkunakoek jakin bazekiten prakak bete lan zeukatela esku artean: izan ere, euskarak bizitzako esparru guztiak zeuzkan irabazteko. Non edo nondik hasi behar eta, bilbotar guztiengana heltzeko moduko ideiak gauzatu zituzten: 1913ko Gabonetan ateratako zorion-txartelek arrakasta itzela izan zuten; gauza bera gertatu zen 1915ean kaleratutako *Euzkel Abestijak* kantu-liburuxkarekin edota hurrengo urtean egiten hasi ziren hormarako egutegiarekin.

Gainontzeko batzordeekin ere aritzen ziren elkarlanean: Circulo de Estudios Vascos-ekin hitzaldiak antolatu zituzten (Kirikiñorena tarteko), Comisión Dramática-rekin antzerki-lanak (*Txomin Arrayo*, *Meza Barrija*, etab.), Kirol-ekin irteerak eta Comision del Hiladillo delakoarekin dantza emanaldiak; horrez gain, euskaraz edozein gauza egin gura zuen edonork gazte hauengana jotzen zuen laguntza eske. *Bazkunatarrak* beti zeuden laguntzeko prest eta berdin itzultzen zituzten denda bateko salgaien izen guztiak zein idazten zioten behar zuenari senidearentzako zorion-agurra.

Ohiturei eusten ere lan mardula egin zuten. Urte luzeen ostean, 1912ko Agate Deunaren egunean bi talde handi atera ziren Bidebarrietatik santa-eskean ari-tzeko. Kaleak girotu eta sakelak bete, biak egin zituzten osteraren berean; egin kon-tu, 1.075 pezeta lortu zituzten, dirutza handia garan hartan. Era honetan banatu zuten harrapakina: 500 pezeta Roperio Vasco elkarteari (behartsuenei arropa lortzeaz arduratzen zen erakundea), beste 500 euskal haur-eskolei eta gainon-tzekoa erremusinetarako. Hiru urte geroago Donibane gaueko abesbatzak eta Begoñako erromeria ere berreskuratu zituzten. Gazte haiek, bistakoa da, ez zebiltzan indar eta gogo faltan.

Baina, zalantza barik, euren ekarpen garrantzitsuenak letren arlotik etorri ziren. Sasoi hartarako baziren urte batzuk hainbat aditu buru-belarri sartu zire-netik euskararen gramatikaren lanketan eta ikerkuntzan; ardura horri esker libu-ru bat eta bi baino gehiago argitaratu ziren baina, hala ere, herri xeheak erabil-tzeko moduko gida praktikoa bat falta zen. Euzkeltzaleen Bazkunak bete zuen



Euzko Gaztediak lan handia egin zuen euskal ohiturak eta dantzak berreskuratzen.

Argazkia: *Juventud y nacionalismo vasco: Bilbao 1901-1937.*

hutsune handi hori *Metodo gradual para aprender el euzkera* atera zuenean. Hiru liburu ziren eta bakoitza maila bati zegokion; irarketa edo botaldiak ere hiru izan ziren. Ez ginateke gezurretan ibiliko metodo honek makina bat bilbotar euskal-duntzen lagundu zuela esango bagenu. Baina Jemein-ek dioenez, egon zen bes-telakorik ere: «Sei euzkel-ipuin argitaldu ebazan: «Zorijonaren jauregija», «Luki eskela ta Ander otzana», «Koldobika ta Jon», «Margarite'ren ames ixukorra», ta «Amesak».

«Euzkel-abestijak» ixenaz iru idazti argitaldu ebazan abestiz bakarrik, eta bi loreskin-ereskiz. Idazti bakotxak 25 abesti eukazan. Abestijak euzko-erki gustijeta-kuak ziran, bizkayeraz, gipuzkeraz, laburderaz, naparreraz, eta zubereraz, politenen artean autubak. Idazti onek be laster agortu ziran.

Ganera, beste idazki batzuk argitaldu ebazan: «Loyola'tar Iñaki Deuna», «Bijar Doniane'ra» (5.000 ijeki), «Oleskari bijak (batzoki askotan antzertuba)», «Santson», «Sobre la unificación del euzkera», «Ipuñak», «Lekobide», «A todos los vascos» (iru margotan, Primo de Rivera'ren Dictadura'n ixilpetasunez argitalduba), «Abertzale-aberri-saltzalliak», «Afijos, prefijos y sufijos». «Tratado etimológico de los apellidos euzkéricos» (Arana-Goiri'ren berrargitalpena). Onek gustijok be agortu ziran.”

Aipatutako guztiarekin ez zuten nahikorik baina. Alderdiak argitaratzen zuen *Euzkadi* elebiduna ez zen gazte euskaltzaleen gosea asetzeko gauza. Euren aurrekoei entzunda, bazekiten euskara hutsezko aldizkariak atera zirela iraganean Bilbon bertan; beraz, “lehen egin bazuten, orain ere egingo dugu” euren bostean esanez, lanari ekin zioten. Bilera luzeak eta prestaketa eta antolatze lan astunak ez ziren alferrikakoak izan: 1916ko otsailaren 15ean bilbotarrek *Euzko-Deya*-ren lehengo zenbakia irakurri ahal izan zuten.

Euzko-Deya eta *Euzkadi*

Lehenengo zenbaki hark albiste garrantz bat zekarren barrualdean; izan ere, Juan Bautista Bilbao *Batxi*-ren heriotzaren berri ematen zuen. Lehen Mundu Gerra hasi zenetik Europako lurrei kea eta garra zerizkien; itsasoak, berriz, urpeko germaniarrez josita zeuden eta, euren helburua Ingalaterra bakartzea zenez, itsasontzi guzti-guztiak ziren militarren helburu. Arratzuko semea mutil koskorra zela hasi zen zama-ontzietan beharrean; hil aurretxoan “hamazazpi urte daroaz ur gainean” esan zion Kirikiñori, hortik atera kontuak. Orduan hogeita bederatzai baino ez zituen, eta, bere denborarik gehiena kai arrotzetan eta itsaso zabalean eman bazuen ere, euskal irakurleak ondo ezagutzen zuen *Batxi*.



BATXI

Juan dan ilako Ugo, *miña* batek jota, berritu ta ondutu zuen Bilbaoko Bayo ixendun ontzia. Bere baraban joyazan lagunak, bat ixan-ezik, ito ziran, euren artian *Batxi* ixenordiaz geuk ezautu ta mate-matorik geukan idazle ta jeltzale bizkora.

Batxi-eriotzaren izpirak ikutu eban geure bijotza. Zifetsi be ezin ixan genduban, *Batxi* geure bizkide ta idazle ona, geuri aibeste bida, bafe eragin daukuna, bat baten il, itxaso zabulian eta ontzijaren zatjakatz naste eginda: [Ezin, ezin! Inok ikusiko ebaizan *Batxi*-ren gizon gaxiak, inok artuko ebaizan euralak... Baina egunak juan, egunak etori ta... *Batxi* ta bere lagunen bafirik, ez. Egija ete-zan geure jeltzide kutuma itxasuan il zanik. Egija ete...]

Geure begijak maikozen betuten ziran; geure bijotza, samiharen samihaz, estu-estuten zan. Jaun ori, ludi ta geure egilia zaran alorodun jaun ori! [Erali zakije *Batxi* ta bere lagunak! [Ez aizu, jaun ori, itxastat gixaso oretzaz!]

Egunak eta astiak juan dira. *Batxi*-ren gorputza itxasuan datza. Bere gogua jaun-goiko eskartsubak, euzkotarik geure Jaun bakaftzat daukagan Goiko Jaun erakutsu otek artuko al dau!

Geuk ezin-dogu geure gomutadik kendu *Batxi*-ren irudja. Gasta ta bizkora, jeltzale satsuba, bijotz-bijotzan sartu yakun lenengoz ikusi ta ezautu gendubantau.

Bere idazkai, barregati-mamintsubak, *enkarria* jamaika nare-egin dogu geuk!

Euzko-Deya hamabostekariak bi aro izan zituen (1916-1920 eta 1921-1923) Primo de Riveraren diktadurak isilarazi zuen arte. **Iturria:** Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

Juan Bautistak gerra hasi aurretik ekin zion kronikak bidaltzeari bai *Euzkadi* egunkarira bai beste zenbait aldizkaritara. Irakurleek estimu handitan zeukaten bere idazkera bizi eta zuzena; ulertzekoa da, bada, euskal herritar asko saminduta sentitu izana jakin zenean 1916ko urtarrilaren 16an *doistarrek* (horixe zen alemaniarrek izendatzeko sabindarrek erabiltzen zuten berba) arratzuar gaztea zeraman *Bayo* itsasontzia hondoratu zutela.

Euskal irakurlea aipatu dugu gorago, eta ez da izan akatsa, ez horixe. 1913an sortutako *Euzkadi*, funtsean, gaztelaniaz idatzitako egunkaria zen, baina bi atal zituen euskaraz: *Egunekoa*, Kirikiñok lehenengo orrialdean idazten zuen zutabea, eta laguntzaile askoren idazkiak biltzen zituen barrualdeko *Euzko Abendaren Elez*. Sailoi esker, euskarak leku bat zeukan lehenengo biderrez eguneroko prentsan. Jeltzaleek sostengatutako kazeta amen batean kokatu zen handien artean (*La Gaceta del Norte* katolikoa eta *El Liberal* sozialista, besteak beste) eta alderdiaren zabalkundeari esker hamar mila ale botatzera heldu zen unerik onenetan. Begi bistakoa da Kirikiñok eta enparauek inoizko bozgorailurik indartsuena zeukatela hizkuntzaren prestigioari bultzada nabarmena emateko.

Baina dena ez zen izan euskarari zegokion lekua berreskuratzearen aldeko lana; *Euzkadi*-n euskaraz idatzi zutenak euren hizkuntza-eredua zabaltzeaz ere arduratu ziren. Kazetaritza kontuetan Bustintza Azkuerekin trebatu bazen ere, urteak aurrera egin ahala gero eta gehiago hurreratu zen Aranaren hizkuntza-eredura. Mañariarrak behin eta berriro errepikatzen zuen herri-hizkeratik hur idaztearen garrantzia;⁵ sintaxiari eta esamoldeei dagokienez, argi dago betebeteen asmatu zuela. Lexikoarekin, aldiz, garbizalekeriarako joera antzematen da bere testuetan, nahiz eta, askotan, neologismoa ohiko berbarekin batera eman.⁶ Dena dela, hogeiko hamarkadatik aurrera agertuko diren hainbat testurekin alderatzen baditugu, Kirikiñoren idazkiei freskotasun handiagoa darie.

Kontuan hartzen badugu zein gutxi ziren orduko euskaldunen artean euskaraz irakurtzeko gauza zirenak, Kirikiñoren zutabeak arrakasta izan zuela esan dezakegu. Euskaldun alfabetatuen artean erreferentzia bihurtu zen, horrenbestearino non askorentzat kolaborazio hura irakurtzea baitzen goizeroko lehenengo lana. Ez alferrik, iritzi-sortzaile eta pasadizo-kontalari aparta zen Bustintza; horrez gain, eragile sena ere bazeukan. Horrela, behin eta berriro adoretu zituen irakurleak herrietatik *izparrak* (berri laburrak) bidal zitzen; badakigu jendeak erantzun egin zuela, batzuetan gehiegizko joranaekin erantzun ere, Bustintzak berak ohartarazi zuen moduan: “Erri batetik izparren orde z badator itzeikizuna

⁵ “Nik gura dot, itz egiten dodanean edo idazten dodanean, lenen-lenen ulertu daistiela”. *Euzkadi*, 1919-3-9.

⁶ “Ipuiñak edo edeskiak daukoz” *Euzkadi*, 1918-7-9, “Atzarriak edo balienteak”, *Euzkadi*, 1915-1-22.

edo *sermoia*, gogaikarri egiten da, ta iñok ez dau irakurten egileak berak eta bere etxeakoak izan ezik”.

Hala ere, ez zen mugatu herrietakoak adoretzera; Bilbon bertan ere makina bat gazte bultzatu zituen idaztera. Horietako bat Manu Ziarsolo *Abeletxe* izan zen; 1902ko lehen egunean jaiozako bilbotar honek 1913ko garaia gogoan zioenez, artean hamaika-hamabi urteko mutikoa zela, egunkari sortu berria irakurtzen hasi zen:

«Euskaldun nintzan arren, izkuntz-maitasuna lo egoan nere barrenean, ta “Kirikiño”-k, bere eguneroko euskal-yardun alayaren bitartez itxar-azi eustan. Bai pozik irakurten nebazala aren erri-esakerak! Arrezkero, egunero, maitaleak maita itxaro oi daun lez itxaroten neban aren “Euzkal-Atala”. Ta ezagutu bage, maitatzen asi nintzan. Amazortzi urte nebazanean, ezagutu-nai-ta, bere landolara yoan nintzan, apurtxo bat lotsati, bere irakurle nintzanezko “titulu” utsakin. Ark egin eustan arrerea! Besarkada ta guztiko arrera maitea. Ta ala be, len baño lotsatuago lotu nintzan. “Kirikiño” ez bai zan beste edozein gizonen tankerakua. Apostolu baten antza eban eta zan. Aretxa lez sendo ta lerdan. Bizar politez oso serioa. Betaurreko biribillen orde, ilgoran illargi erdiak izaten daben irudikoak eroazan. Gure korbatearen lekuan, lazo bat txori eginda. Soñez, yakituriz, izakeraz, bere bizikoa zan. Lotsatuko ez zan ba amazortzi urteko mutiko ez-yakina alako apostolu baten aurrean!».



Manu Ziarsolo (1902-1987) idazle bilbotarrak gehienbat kontakizun labur umoretsuak eta antzerki-lanak idatzi zituen. **Argazkia:** Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

Askoren iritziz, gizon jatorra eta, aldi berean, txundigarria izateaz gain, eraginkorra ere bazen. Komunikatzaile ona izanik, bazekien aurrean zuenari mezua helarazten. Honela kontatu zuen Manuk:

«Laster uxatu eustazan kezak eta lotsak, bere yardun atsegingarriarekin. Irakurtzen ikasi baneban, idazten be ikasi bear nebala esan eustan, errezago zala-ta. Adorez bete nindun eta zirriborro batzuk egiten asteko esan, berak orraztuko eustazala-ta. Bakotxak berak al dauan neurrian alegindu ezker, Euskera berpiztuko genula. Olantxe asi nintzan ta berari eskerrak nozu gaur nazan idazle apurtxo. Badakit, nirekin egin ebana beste eundazekin be egin ebala, beste ainbeste idazle sortuaz. Iñoiz ausnartu dot, bera izan ezipazan, bear bada, gure izkuntzari buruz ardurabako bat izango nintzala».

Adoretu bazuen, adoretu zuen; hurrengo urteetan Abeletxek idatzitakoak egunkari eta aldizkari hauetan jaso ziren: *Euzkadi*, *Ekin*, *Euzko*, *Erri*, *Jagi-Jagi*,



Euzkadi
Egunkari

Irribildia 1547/9 - Telefonoa 404.1527
IDAZKOKUTXA 204.9
AFATARIO DE CORREOS N.º 834

IRURTIA - AÑO I
9.º ZENBAKIA - NÚMERO 9
BILBAO 1913
Otsaila Febrero
9/na día 9
Igandia Domingo

LA FUERTE DEL AEROL Y DEL PAJARO—Ayer, un vendedor ambulante, de la feria municipal, se presentó en la plaza de San Juan, con un aerol y un pajarero. El aerol era un pequeño avión de madera, con un motor de gasolina. El pajarero era un pequeño animal, con un collar de hierro. El vendedor ambulante se presentó en la plaza de San Juan, con un aerol y un pajarero. El aerol era un pequeño avión de madera, con un motor de gasolina. El pajarero era un pequeño animal, con un collar de hierro.

LA FUERTE DEL AEROL Y DEL PAJARO—Ayer, un vendedor ambulante, de la feria municipal, se presentó en la plaza de San Juan, con un aerol y un pajarero. El aerol era un pequeño avión de madera, con un motor de gasolina. El pajarero era un pequeño animal, con un collar de hierro. El vendedor ambulante se presentó en la plaza de San Juan, con un aerol y un pajarero. El aerol era un pequeño avión de madera, con un motor de gasolina. El pajarero era un pequeño animal, con un collar de hierro.

LA FUERTE DEL AEROL Y DEL PAJARO—Ayer, un vendedor ambulante, de la feria municipal, se presentó en la plaza de San Juan, con un aerol y un pajarero. El aerol era un pequeño avión de madera, con un motor de gasolina. El pajarero era un pequeño animal, con un collar de hierro. El vendedor ambulante se presentó en la plaza de San Juan, con un aerol y un pajarero. El aerol era un pequeño avión de madera, con un motor de gasolina. El pajarero era un pequeño animal, con un collar de hierro.

Euzkadi egunkari jeltzalean gaztelania zen jaun eta jabe; halere, Kirikiñok idazten zuen euskarazko eguneroko kolaborazioak irakurle asko zeuzkan. Iturria: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

Gudari, Bizkaitarra, Tierra Vasca, Euzko-Deya, Anaitasuna, Euzko-Gogoa, Karmel, Olerti, Zeruko Argia eta abar. Are gehiago: hogeita hamarreko hamarkadan Euzko aldizkariako (Euzko-Deya-ren ordezkoa) zuzendaria izan zen eta hainbat antzerki-lan eta ipuintxo osatutako liburu bat (Gazi-gazak) ondu zuen. Garai onean astindu zituen lotsok soinetik...

Buelta gaitetzen baina euskara hutsezko kazetetara. Izan ere, Kirikiñoren atala mamitsua zen, baina Euzkadi-ko gainontzeko orriak gaztelaniaz eraiakiak ziren, tartean *Juventud Vasca*-ko Manuel Aznar Gudalgai-k (J.M. Aznar politikari espainiarraren aitona etxalartarra) izkiriatutako gerra-kronika famatuak. Euzko-Deya hamaboskarian ez zegoen horrelakorik. Bazkuna-koena zen haren hama-bi orrialdeak betetzearen ardura, eta era txukunean bete zuten zegokien lana aldizkariak iraun zuen zazpi urteetan. Hori bai, beti Abandoko maisuak erakutsi zuen bidetari eutsiz; aldizkariak ez zermanan alferrik Jaungoikua eta Lagi-Zarra leloa azpigituluan. Arsenio Beazkoetxeak eta Josu Telletxeak sortutako aldizkariak bi oroi izan zituen (1916-1920 eta 1921-1923), Primo de Riveraren diktadurak isilarazi zuen arte.

12
EUZKO-DEYA

Atxalandabaso'tar Eraimunda

Ledesma, 18-20 74'g. urutizk. — BILBAO

Ardak onak eta Bakio'ko txakolin ederrak, Atzerirako be saltzen dira.

EUKELDUNAKI

BARNA'TAR JOSEBA MIBENA'BEH DROGERIJAN

Ronda ta Somera kaleko 22'gn, Bilbao'n, gustitariko pintura ta koloreak anikuituko dozabez, bafa bapotentarako pinturak; eta bai-dagoz be azuñre, sublimado ta sulfatuak.

Drogerijako ganzaren bat bialko ba-dozu etxe an ez aizu!

IRISARI'TAR LON

Ronda, 18. — BILBAO'N

Leyaf ta portzelanazko ontzi-denda andija. Batez-be Batzokijetarako gustitariko ontzizak dagoz. Edontzi, ta pitxaraf gura-dan neufitakuak.

ALDZABAL'DAR PELL. — EIBAR

Eibara landutun alra galtzairu-urasa/tubon bantzeki kaitzokak.

Ikurdi, idazkun, zen-abizen, eta onetarikak, bala emalazko argazkizak be ezait al-tekijerata etxi onetan edotun txingiri.

ALVAREZ-ORMILUGE'TAR JOSU

Viuda de Epalza, 6. — BILBAO

Irarkolea, atiraarkolea, toleskolea.

Efti-lanak eta ostantzekuak.

ZEARA'TAR ERUPIN

Tenderia, 15 gn. dendan. — BILBAO

Eunak eta soñeko eginak.

Gortazar eta Goyarola

A. EREKALDE, 3. — BILBAO

Tximist-argi-olea. Ur-ikiñak (turbinas). Ondo ta merke jafien dira.

PERTIKA'TAR JON

BIDEBAIETA, 3. — BILBAO

Eibar'ko galtzairu-urezko idantzekizak.

Cabekatzak (erloyuak) eta su-izkilubak.

ARIOLA'TAR EBAISTA,

BIDEBAIETA, 15. — BILBAO

Bertoko ta atzeriko oyalak, janzkizak eta euri-tarako janzkizak.

EL ROPERO

Eunak, oyalak, janzkizak.

Tenderia, 20'gn. — BILBAO

LABURU TA LABURU

Zura landutako makina ez-barizak.

Burdin-Gayak. — Tore, 2. — BILBAO

Bilbao'ko Aurezki-kutxa Udaldara

Aurezki-kutxa Udaldat an Oubimintzen jautsian dago 1889'ko Bilbako 29'eko.

ARBELOA

Tximist-argi-makatzak, gustitariko tramanku-lu ta tximist-gauzeak. — Tximist-arijak jafien dira.

1.357'g. URUTIZKIRA. **BILBAO.** — LOTERIA KALEKO, 2'GN.

COMPANIA EUZKALDUNA

DE

CONSTRUCCION

Y

REPARACION DE BUQUES

BILBAO

GALDARAGIÑAK BIAÑAK DIRA

URIZAR ETA EMILI

Borne-lantagija. — (Gordaita 3. — 1826'g. urutizkiza)

Uger-geleak, berokin eta iroleak jafien dira.

Bata aibel eta berunezko estalgizak. Zembakiñak atonduten dira.

Hurtado de Ametzaga, 28'g. **BILBAO'N**

SILBA'TAR JULEN

Aberientzazo janarijak: baba, lazto, olo, garagar, zai ta biftzaya.

Mungia-Burtoki

Tarantak aloguan laurleko bat

albo-burdizak 0.40 laurleke

MUNGIA

EGILEOR'TAR JON G. — Autonomia, 24. — Bilbao

Igali edo fruta ta basoko zugatzak (arbolak).

Bazka, landa ta ortu-azizak, Zimaufak, kokuak iltzeko gayak eta abaf. Landara-gatzak kentzeko irakaskizunak. Ortu ta baratx-eredubak.

ZUBIRI'TAR BINGEN

Kortse-gayak. — Eun, gorantz-burdiñok, ugetituten ezitiranak, eta abaf.

ARTEKA'E, 51. — BILBAO

Josu'ren Bilatz deuna etxian jauresteko irudija

Ugarteki-tpaf-aldeko egille bakafak

:: URUTIA TA MADARIAGA ::

Buenos Aires kaleko 9 ta 11'gelan. — BILBAO

LAÑAKOETXEA,

Correo, 15. bis. — BILBAO

Baruko janzkizak ta eun zurizak.

Umintzako kapela ta janzkizak.

Koloniak, turbinak, abereentzako jakiak, galdarak, pinturak, konketak, ehunak... Merkatarik euskaldunek denetarik iragartzen zuten. **Iturria:** Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

Eduki zehatzeko atal batzuen ondoan (*Lugintza-gayak baserritarrentzat, Itxaskuntza-gayak, Goizparki edo ebanjeliua, Euzkadi'ko izparrak, Osasun-gayak*), atzerritarren itzulpenak, ipuinak eta kontakizunak tartekatzen ziren. Politika, *Jel-Azija* eta *Idazki aberkoyak* ataletan jorratzen zen, eta Kirikiñok berak ere bere ekarpena egiten zuen *Barriketak* sailean. Olerkiak idatzi zituzten artean andrazkoak ere bazeuden: Robustene Mujika *Tene* eta Irene Gorosabelen poemak Kepa Enbeitaren bertsoekin edota *Zarautz'tar Sabin-en* (Jose Mari Agirre Lizardi-k *Euzko Deya*-n argitaratu zituen bere lehenengo olerkiak) lirikarekin batera agertu ziren.

Baina *Euzko-Deya*-ren ekarpenik handiena arlo grafikoan gauzatu zen. Arlo horretan bazegoen hainbat berrikuntza: noizbehinka agertzen ziren argazkiak (gehienak erlijiosoak), *Teles eta Niko* komiki sorta⁷, eta, agian deigarriena, publizitate moduluak. Esparru horren lanketak argi erakusten digu bazegoela hizkuntza-komunitatea sortzeko nahia⁸, euskara gero eta garrantzitsuagoa zen kontsumoaren mundura ekartzeko gogoia, eta, aldi berean, iturri ekonomiko berriak bilatzeko asmoa.

Iragarkiok, gainera, orduko gizartean zabaltzen ari ziren joera berrien erakusle ezin hobia dira. *La Cervecera del Norte*-ren europar kutsuko iragarkiari esker, adibidez, badakigu edari horia betiko txakolinarekin lehian hasia zela. Honela zioen inoiz kale egin ez zuen propagandak:

*“La Cervecera del Norte”.- Bilbao.
Munich, Orija ta argija gararduak.*

Jeltzale gehienak aliatuzaleak izan arren (*Gudari* eta bere ingurukoak izan ezik; haiek nahiago zuten Alemania gailentzea Erresuma Batuaren porrotak irlandarrei independentzia lortzen lagunduko baitzien), badirudi ez zutela inongo arazorik gerra garai betean garagardo bavariarra edateko.

Ekimen integratzaileak: *Hermes* aldizkaria, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia

Euzko-Deya-ren garai berekoa dugu *Hermes* eklektikoa. Kredo politiko zorrotz eta hertsietan oinarritzen ziren elkarte eta komunikabidez jositako testuinguru hartan, atentzioa ematen du Bilboko kultura aldizkari honek. Zuzendaria bera ere ohiz kanpoko gizona zen: Habanan jaio arren, gaztetxo zela aita hil

⁷ 1907an Victoriano Iraola donostiarrak (1841-1919) *Baserritarra* aldizkarian ateratako komikiak ziren euskaraz zegoen aurrekari bakarra. Iraola, inprimatzaile, marrazkilaria eta euskaltzale izateaz gain, zinegotzi errepublikarra ere izan zen.

⁸ Iragarkien erdian honako lelo hau agertzen zen: “Euzkotarak: euzkotarakana jo edozein gauza erosten”.

zitzaiola eta, Algortara etorri zen Jesus Sarria; bertan hazi zen, euskal giroa eza-gutarazi zioten bi izekorekin. Deustun zuzenbidea ikasi ondoren, Ingalaterrara egin zuen; badirudi han Manu Sota ezagutu zuela, 1916an Bizkaira itzuli aurretik ezagutu ere. Bazuen Sarriak ordurako zelanbaiteko itzala, aldizkaria prestatzen ari zirenek zuzendaritza eskaini baitzioten.

Lehenengo zenbakia 1917ko Urteberri egunean agertu zen eta hurrengo bost urteetan maila handiko artikulu-sorta ederra plazaratu zuen. Euskaraz orri gutxi batzuk baino ez ziren agertu: Luis Gonzalez Etxabarri *Bingen Aizkibel*-en eta Joseba Altuna *Amilgain*-en artikuluak, zenbait poema eta gutxi gehiago; hala ere, *Hermes*-ek pentsaera desberdineko lumak bildu zituen (errepublikazaleak, abertzaleak eta baita erregetiarrek ere), eta han idatzi zutenek gutxieneko begirunea erakutsi zioten gure hizkuntzari. Hamabost urte lehenago pentsaezina zena, hau da, euskara goi-mailako argitalpen batean agertzea, errealitate zen orain.

Dena dela, *Hermes*-ek ez zuen bizitza luzerik izan: 1922ko uztailaren 27an Sarriak bere buruaz beste egin zuen Euzko-Argitaldaria (argitaletxe honek kaleratzen zuen *Hermes*) Posta kalean zeukan egoitzako balkoitik salto eginez; aldizkariaren motorra eta arima bera izanik, ez da harritzekoa azken zenbakia hilabete berekoa izatea. Bere suizidioa, neurri handi batean, misterioa da; berak amestu zuen proiektua garatzeko gero eta aukera murriztagoak izan arren, inork ez zuen susmatzen horrelako amaierarik.

Egia esan, orduko giroak ez zuen onartzen ezelako jarrera zabalik. 1920tik aurrera *Hermes*-en idatzi ohi zuten erregetiarrek boikota egin zioten aldizkariari; kazetak inguru naturalizat zeukan esparru abertzalea, berriz, bitan banatu zen (Comunion eta PNV-Aberri) eta *Hermes*-en ondo erroturik zeuden laikotasunak eta zuhurtziak batzuegandik zein besteengandik urrun kokatu zuten. Sarriak, hortaz, bere gordinean ezagutu zuen alderdikeriaren botere zatikatzailea.

Zatiketa horien ifrentzua Eusko Ikaskuntzaren sorrerak gorpuzten du beste edozein gertaerak baino hobeto. Dinastikoek Hego Euskal Herriko aldundi guztiak karlista-integristen eta jeltzaleen mesedetan galdu zituztela aprobetxatuz, hainbat zientzia-gizon aspaldiko asmoaren alde hasi ziren. Gogotsuen jardun zutenetako bat Anjel Apraiz gasteiztarra izan zen. Beste gauza batzuen artean Apraiz Gasteizko Ateneoko idazkaria eta Salamancako eta Bartzelonako unibertsitateetako katedradun genuen. Honela kontatu zuen Joxe Migel Barandiaranek orduko giroa:

«Eusko Ikaskuntza sortarazi beharko zuen batzar nagusi baten ideia Angel Apraizena izan zen, Bilbon eman zuen hitzaldi batean azalduz. Ideia zabaldu egin zen gero eta, euskal Aldundien laguntza zela bide eta erakunde zein partikular askoren atxikimendu beroari esker –Zuberoa eta Erronkaritik Karrantza eta Gobiarranaraino–, batzar handi hura egin ahal izan genuen».



Euskal Esnalea elkartearen bilera Bilbon 1916an. Ezkerretik hasita: Jesus Guridi, Adolfo Urkixo (ziurrenik), ezezaguna, Txomin Agirre, Karmelo Etxegarai, Resurreccion Azkue, Luis Eleizalde, ezezaguna. Lurrean jarrita, Telesforo Aranzadi.

Argazkia: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

Ataundarrak aipatzen duen bilera Oñatin izan zen,⁹ 1918ko irailean. Eusko Ikaskuntzaren I Kongresu hartara Bidasoaren bi aldeetatik heldutako dozenaka irakasle eta ikertzaile bildu ziren. Helburu generikoak honako hauek ziren: Euskal Herriko kultura maila garatzea, beharrezkoak ziren azpiegitura kulturalak eskuratzeko proposamenak lantzea eta ideia desberdinetako ikerlariak biltzea. Azken helburu hori bete egin zen Oñatin, kolore politiko guztiak ikusi izan ahal baitziren. Antolaketari dagokionez, partaideak jakintza sailetan bildu ziren; erakundea zuzentzearen ardura, berriz, Apraizi berari egokitu zitzaion.

Hizkuntza sailaren buru Txomin Agirrek, bestalde, euskararen akademia izango zenaren araudi-proiektua aurkeztu zuen; onartu egin zuten eta ondoren batzorde bat sortu zen arautegi hura lantzeko. Euskaltzaindiko lehenengo lau kideak ere bertan aukeratu zituzten: euretako bi kanpoan jaioak izan arren ordu-rako erabat bilbotartuak (Azkue lekeitiarra eta Luis Eleizalde¹⁰ *probintzianoa*), hirugarrena Urkixo deustuarra eta laugarrena Kanpion nafarra.

⁹ Eusko Ikaskuntzaren betebeharrak funtsezkoenetako bat Euskal Herriko unibertsitatearen alde egitea izan zen, sasoi hartan Deustuko jesuitena baino ez zen existitzen eta. Jakina denez, Oñati unibertsitate-egoitza izan zen 1901era arte.

¹⁰ Bergararra zen arren urte asko eman zituen Bilbon.

Hizkuntza estandarra finkatzea premiazkotzat jotzen zuten askok eta askok orduan; beraz, ez zuten astirik alferrik galdu. Horren lekuko, 1919ko udaberritik aurrera aldundiek akademia sortzeko arautegia onartzen hasi izana. Nafarroa-koa izan zen azkena, irailaren 3an. Hil bereko 21ean Donostian elkartu ziren Oñatin izendatutako euskaltzainak gehi hilabete haietan aukeraturiko beste zortzi lagun; hamabi gizonezko haiek bi asteren buruan bildu ziren osteraren ere erakundeko lehendakaria aukeratzeko: Olabidek boto bakarra lortu zuen, Kanpionek 3 eta Azkuek 7. Beraz, azken honek zuzendu zuen Euskaltzaindia 1951n hil zen arte.

Nola Eusko Ikaskuntza hala Euskaltzaindia politikaren gorabeheretatik eta, bereziki, alderdiek ezarritako ildo hertsietatik at jarduteko asmoarekin jaio ziren. Elkarre mailan ere bazegoen antzerakorik; adibidez, kultura munduko euskaldun franko biltzen zituen Euskal Etnalea elkarteak. Alderdiez haratago aritzeak, alabaina, ez du berez inoren begirada ulerkorragoa egiten. Ikus dezagun, bestela Barojaren kasua: bere kasa ibilitako intelektualik izan bada inoiz, Baroja dugu eredurik garbiena. Ikus dezagun Unamunoren berbaldi famatua baino hogeitaz geroago (1919an) zelakoak bota zituen donostiar erretxinak:

“Yo creo que este comienzo de cultura vasca hay que intentarlo a base del castellano, no a base del vascuence. Esa tesis que ha sostenido don Julio de Urquijo, afirmando la posibilidad de que el euskera sea lengua de civilización, me parece una fantasía de filólogo, pero no una realidad. Hay que aceptar el hecho consumado, y el hecho consumado es que nuestro idioma de cultura es el castellano, que poco a poco deja de ser castellano para ser español.”

Haatik, hurrengo atalean ikusiko dugun legez, zailtasunak zailtasun (Primo de Riveraren diktadura ez zen txikiarena izan), hogeiko hamarkadan euskararen alde zebiltzanen aurrerapausoak bata bestearen atzetik heldu ziren, baita Bilbon bertan ere.

IV. 1922, Errekalde zumardia: taxi berde ezin politagoak

“Jayotzetik euzkeldun diranak eztakije zelako ogasun ederra dauken Euzkerea jakitiaz; baña neronek bai-dakit ogasun ori lortuteko zelako alegiñak egin biar-ixan dodazan: oregatik maitago dot nik Euzkerea, amaren magalian ikasi eben batzuk baño geyago.”

(Karmele Errazti,
Emakume Abertzale Batza-ko buruzagia)





Vista de Deusto. Alberto Arrue, 1920-21.

Tamaina ertaineko hiriekin sarritan gertatu izan den legez, Bilbon ere herri txikiaren kutsua eta metropoliarena elkarrekin agertu izan dira hainbat zertzeldatan. XX. mendearekin lehenengo autoak heldu zirenean, adibidez, oraindik hiruzpalau korta zeuden hirigunean eta gurdien joan-etorriak tranbiaren irudierekin nahasten ziren. Odolean oinarritutako trakzio-indarrak, halere, jai zeukan: gizarte modernoak erosotasuna eta abiadura deiadarka eskatzen zituen eta berandu barik taxiari dei egiteko oihu eta keinuak ohiko bihurtu ziren Botxoan.

Europako hiri handien ereduari jarraituz, Bilbok 1922an estreinatu zituen bere lehenengo taxiak. *Citroën* markakoak ziren, berdeak, txukun-txukunak, eta *Arturo* konpainia zen guztien jabea. Egoitza eta garajea Abandon zituen, Errekalde zumardiak Colon Larreategirekin izkina egiten duen pabiloian hain zuzen ere. Bandera jaitsierak pezeta bat balio zuen eta gehigarri bereziak zeuden futbolera eta kartzelara joateko. Prezio horrekin ulertzekoa da bilbotar gehienek nahiago izatea abarketak higitzen jarraitzea. Bestalde, tranbia ere leporaino beteta zebilen goizez zein arratsalde. Hala ere, batzuetan poltsikoa arindu beharra izaten zen. Irudika dezagun hemen horrelako kasu bat.

1924ko urtarrilaren 11n eguna argitu zuenik ere ezin da esan. Goizean goizetik elur-bustia eta txingorra erauntsika ari ziren astintzen hiriko kale-bazterrak; haizea ere ezin zakarrago zebilen eta, egoera ikusita, hamarrak aldera udal arduradunek tranbia zerbitzua tarte batez etetea erabaki zuten. Eman dezagun, ordea, Abaunza andereak hamaiketarako egon behar zuela Larrinagako espetxean ordu horretan zeukalako senarrarekin asteroko bisita; beraz, taxi berde baten bila abiatu zen Iñaki Eukeni semea eskutik kolpeta. Egoitzan zegoen bakarra hartu zuten eta agindutako ordurako plantatu ziren kartzela atarian.

Eman dezagun, azkenik, egun horretan Iñakik hamahiru urte bete zituela; aitak, berriz, hirugarren hilabetea barruan. Egoera hau (aitaren espetxeratzea) asmatzen ari gara, baina asmatu izan ez bagenu ere Larizgoitia ez zatekeen negu gorri hartan giltzapean zegoen euskaltzale bakarra. Egin kontu 1923ko irailaren 23an Primo de Rivera jeneralak estatu kolpea eman zuela. Egia da sei urte iraun

zuen diktadura ez zela izugarri gogorra izan; gainera, 1927etik aurrera¹¹ agintariak biguntzen hasi ziren oposizioaren aurkako neurriak. Ankerkeria nabarmenagirik egin ez izanak, ordea, ezkutatu egiten du euskararen aurkako kanpaina ezin zorrotzagoa.

Diktadorearen gobernuak, analfabetismoaren kontrako neurriak aitzakiatzat harturik, hezkuntza ikuskatzaileak bidali zituen ikastola eta herri-eskola jaio berrietara euskararen aztarna guztiak desagerrarazteko aginduekin. Prentsari dagokionez, *Euzko-Deya* debekatu egin zuen eta, *Euzkadi* baimendu zuen arren, ez zituen onartu euskaraz egindako bi atalak. Erakunde politikoekin ere antzera jokatu zuen, hau da, selektiboki: PNV-Aberri legez kanpo utzi zuen bitartean, Comunion-en aurrean malgu samar jokatu zuen. Euskaltzale gehienen bilgune zen Euzko Gaztedijaren egoitza, berriz, itxi egin zuen.



Azkuek egindako eskaerei esker, XIX. mendearen amaieratik aurrera Zazpikaleetako Done Jakuen bilbotarrek meza euskaraz entzun ahal izan zuten. Iturria: *Euskaltzale*. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

Baina, nor zen Iñaki Eukeni Larizgoitia Abaunza? Bada, Bilboko bosgarren parrokiari,¹² Hurtado Amezagako San Frantzisko Asis-en alegia, izen euskaldunarekin bataiatu zuten lehenengo jaioberria. Datua pasadizo hutsa baino gehiago da; izan ere, eliza katolikoak euskara aintzat har zezan egindako borroka ez zen izan ahuntzaren eguerdiko doministikua.

Sabindarrak hasieratik ohartu ziren fronte horren garrantziaz eta jo eta su ari-tu ziren presioa egiten euren kargu politiko eta komunikabideen bitartez. Azkuek ere makina bat gutun eta gestio egin zituen bai Gasteizko apaiztegia euskaldun-

¹¹ Agintaldiaren azken tarte (1930eko urtarrean Primok dimisioa eman ondorengo) *dictablanda* deitu dute Espainiako hainbat historiagilek.

¹² Bilboko betiko parrokiak lau ziren: San Anton, Done Jakue (Santiago), San Nikolas eta Santos Juanes (Donibane). XIX. mende amaieran hiriaren hazkundeak ezinbesteko egin zuen bosgarren bat erai-kitzea. Bosgarren parrokiako lehenengo meza 1902an eman zen.

tzeko (han prestatzen ziren Euskal Herrian jardungo zuten abadeak) bai, Done Jakuen egiten zen bezala, San Nikolasen ere euskarazko mezak eman zitzen. Berba batean esanda, orduko euskaltzaleek soziolinguistika masterrik ez zeukaten arren, jakin bazekiten hizkuntzak irauteko ahalik eta esparru gehien irabazi behar zituela. Honela mintzo zen Cadena y Eleta Gasteizko gotzaina 1910ean, hots, Iñaki Eukeni bataiatu baino hilabete batzuk lehenago:

“Varias veces individuos de ese partido se han dirigido a Nos con descompuestos modales, hasta con cierta clase de amenazas, pidiéndonos que autorizáramos que sus hijos fueran bautizados en vascuence, porque de otro modo no consentirían que fueran bautizados, sin que, a pesar de nuestras paternales reflexiones para hacerlos desistir de sus depravados propósitos lo hayamos conseguido en la mayoría de los casos.”

Apurka-apurka arrakala gehiago ari ziren zabaltzen gaztelaniazko elebarkartasunaren harresian. Bilboko Abokatuen Elkargoak, adibidez, Nazario Oleaga euskaltzalea aukeratu zuen elkartearen dekanu 1918an. Gizon hau ez zen edonor: Bizkaiko Aldundiko Kultura batzordeko kidea, euskaltzain urgazlea 1919tik aurrera, makina bat euskal jairen eta ekimenen bultzatzailea, etab. Aurrerago ikusiko dugun moduan, Nazariok lan handia egin zuen euskararen alde; egin kontu gerra osteko urte zailenetan bera eta Azkue ibili zirela bide-urratzaile lanean. Merkataritza Ganberak, berriz, I Mundu Gerra garaian euskarazko komunikazio laburren bat atera zuen. Kontuan hartzen badugu ganbera hau, burtsarekin eta banketxeekin batera, burgesiaren erakunderik behinenetakoa dela, ez zen izan pauso makala. Hasita zegoen, beraz, itzalaren eta prestigioaren aldeko borroka gaitza.



Nazario Oleaga (ezkerra) eta Mikel Arrutza hirurogeiko hamarkadaren lehen urteetan. **Argazkia:** Markinez-Arrutza familia.

Garai hartako gizartean baziren borroka horretan pisu espezifikoko handia zeukaten ogibide eta postuak. Goian aipatutako guztiak (apaiza, enpresaburua, abokatua) multzo horretan sartuko lirатеke eta, eurekin batera, baita irakasleak eta medikuak ere. Azken horiek ederto zekiten komunikazio eraginkor batek aldrebeskeria asko konpondu ahal zituela; are gehiago: kasu larrienen, bizitza bera bermatu ahal zuela. Horrela gertatu zen, hain zuzen ere, 1918ko izurritearekin.

Urte horretan gripeak¹³ aurretik ezagutzen ez zitzaion indarrarekin kolpatu zituen munduko bazter guztiak. Datu zehatzik ematerik ez dagoen arren, hildakoen kopurua 20 eta 40 milioiren artekoa izan zela uste da. Espainiar estatuan ere ondorioak larriak izan ziren: 300.000 hildako, eurretatik milaka batzuk geure lurretan. Izurritearen indarra ikusita, Bilboko Academia de Ciencias Médicas-ek liburuxka elebidun bat zabaldu zuen jende artean oinarrizko aholkuak gogoraraziz. Liburuxka, hiriburuan ez ezik, Bizkai osoan ere banatu zen. Ezin dugu jakin inoren bizitza salbatzeko balio izan ote zuen; euskarari, ordea, mesede egin zion, batek baino gehiagok orduan ikusi baitzuen lehenengoz, modu grafikoan ikusi ere, bere ama hizkuntzak horrelako kontuen berri emateko ere balio zuela.

Bazegoen, hala ere, gripeak berak baino hildako gehiago utzi zuen gaitzik; horietako bat *izurrite zuria* deitu zuten garai hartan eta milaka lagun eroan zituen, asko eta asko sasoiko gizon eta emakumeak. Tuberkulosiaz ari gara, jakina. Bada, sendagile guztien sentsibilitatea berdina ez zela ikusteko, hona hemen Madinabeitia oñatiarrak 1919an bota zuen metafora beltza: “El vascuence es un enfermo tuberculoso en su último grado que irremisiblemente se muere”. Honakoak irakurrita, argi dago ezin izango dugula sendagile hori euskararen aldekoen artean sartu; hala ere, pentsaeraz sozialismorantz jotzen zuen gizon horrek (esan dezagun, bide batez, hori zela orduko sozialista gehienek euskararekiko zeukaten ustea), Eusko Ikaskuntzaren sorreran parte hartzeaz gain, lehenengo urteetan Medikuntza Sailaren ardura hartu zuen bere gain. Urteak aurrerago, gaixo larri batek jota, lanbidea (Eibarren aritu zen urte askotan pobreenen mediku legez) eta politika utzi eta Bilbon eman zituen bere azken urteak.

Ikusten dugunez, sarritan mugak lausotu egiten dira: sozialista erdaltzale oñatiarra Eusko Ikaskuntzaren bultzatzaile eta abokatu euskaltzale bilbotarra, berriz, bere elkargoko dekanok; badago bitxiagorik baina. Oraingoan Bilbotik Eibarrera egingo dugu salto. XX. mende hasieran Ego ibarreko hiritxoa zen, Donostiarekin batera, Euskal Herriko hiriguneen artean proportzionalki euskaldun kopuru handiena biltzen zuena. Bertan, jakina denez, sozialistak eta errepublikazaleak (hau da, garai hura objektiboki aztertuz, euskara ez sustatzearen aldekoak) ziren nagu-

¹³ *Espainiar gripea* deitu dioten arren, badirudi AEBetako Armadaren kanpamentu batean sortu zela. Tropek, Europako frontera etortzean, kontinente zaharrean zehar barreiatu zuten gaixotasuna.

si; Bada, 1922an ideologia horretako Etxeiña bertsolariak saioa egin zuen Urre-txindorreakin batera Eibarko Krutzeta aretoan milaka lagunuen aurrean. Kronikek diotenaren arabera batak zein besteak jaso zituzten txalo zaparradak Urko gaine-an ere entzun ziren. Honela kontatu zuen pasarteia Santi Onaindia zornotzarrak:

“Beste bein ere antzeko goratzea egin zioten Enbeitari, eta ango sozialistak ain zuzen. Astelena zan, lantegi bateko auzi-maizu ta ugazaba ta langilleen arteko aitu-ezi-ña zala-ta, batzar bat eratu zuten Kruzeta saloian, bertsolari eta guzti. Etxeiña, sosialis-ten bertsolari famatua ta Enbeita jarri zituzten aurrez aurre: Etxeiña sozialisten alderdi-ko agertuko zan eta Enbeita ugazaben alde. Biak bota zituzten botatekoak. Pitxer bete garagardo zala ta etzala, Enbeita'k trumoi antzeko txalo-zartada izan zuen. Eta azke-nez, millaka beso gaztek estutu ta bizkar gain atera zuten Enbeita saloi artatik.”

Esandakoa: errealtatea pentsatzen duguna baino konplexuagoa izan ohi da.

Euskara katedraren bilakaera

Hizkuntzaz ari garela, komeni da, zalantza barik, ahalik eta esparru sozio-ekonomiko gehien aztertzea. Mintzairak komunikazio tresna dira eta, beraz, ez dago euren eraginpetik ihes egingo duen ogibide edo jarduerarik. Hala ere, ida-tzizkoak daukan zentraltasuna ukaezina da eta, lehenago edo geroago, bertara bueltatu beharra dago. Ikus dezagun, bada, zertan zen 1918-19 ikasturtean 30 urte bete zituen Bilboko euskara katedra famatua.

Instituto Vizcaíno-ko euskara eskolek gorabehera nahikotxo jasan zituzten 1888ko urri urrun hartan abian jarri zirenetik. Hasierako urteak ez ziren errazak izan. Aitzindari izatea ez da inoiz lan samurra izan eta kasu honetan ere bidea ekinez egin zen. Izan ere, Bilboko katedrak hainbat arazori egin behar izan zion aurre. Batetik, ikasmaterialaren urritasunak eta metodologia eraginkorrenarekin asmatzeko probek ez zuten lagundu eskolak eurak behar zen osotasunarekin ematen; bestetik, ikasleek ez zeuzkaten guztiz barneratuta katedraren nondik norakoak eta batzuek sarri egiten zuten sasieskola; azkenik, ordutegia ere ez zen batere egokia, ordubeteko eskolok goizeko zazpi eta erdietan hasten baitziren. Oilarren orduan ibiltze horrek bazeukan bere azalpena. Euskara ikasleek erabil-tzen zuten ikasgela Institutuko mutikoek betetzen zuten haiek alde bezain laster. Horrek arazoak ekarri zituen, Alfredo Tabar lizentziatuak 1899ko urriaren 9an Azkueri igorritako gutun honetan ikusi ahal dugunez:

“(…) Le he expuesto que necesito del local, por lo menos, desde las 8 1/2 hora en la cual comienzan a entrar los niños, no habiéndolo hecho estos días por impe-dirlo su presencia de V. y la natural deferencia mía.

(…) También le ruego retire los ejemplares de su texto que deja V. en la mesa de mi escuela, pues, tra de estorbar, se expone V. a quedarse sin alguno, por las muchas personas que a todas horas entran en ella.”

Lekeitiarrak biharamunean erantzun zion:

“(...) Siento de veras no poder acceder a lo que con tanta finura me exige. Como V. puede figurarse no puedo mudar de hora de enseñanza sin que otra persona sobre mi autorizada (y la única en este asunto autorizada es el Sr. Presidente de la Diputación) me lo mande.

“(...) Manifiesta V. además que le estorban mis libros. No debe ser esta razón suficiente para que V. exija, aunque con tanta finura, que los retire; cuando yo, a quien pudieran acaso estorbar los suyos no he manifestado ni manifestaré probablemente deseos de que sean retirados.

“(...) Mi clase, como se lo manifesté al Sr. Presidente de la Diputación, comienza a las 7 1/2 de la mañana y dura una hora. La de V. comienza, según me dijo V. de palabra y es costumbre en Bilbao, a las 9. Procuraré que mis alumnos en nada estorben a los suyos.”

Bien arteko demak jarraitu egin zuen apur batean, baina azkenean Azkuek amore eman behar izan zuen. Arestian ikusi dugunez, Kirikiñok hartu zuen eskolaren ardura 1904tik aurrera. 1905-06 ikasturtea hasi orduko jardun epistolarrari ekin zion honek ere:



Bilboko Institutuan egon zen Euskara Katedra 1888an sortu zenetik 1926an ikastetxea Indautxuko eraikuntza berrira eroan zuten arte. **Argazkia:** *Bilbao en la memoria. Imágenes de antayer.*

“La causa de la poca asistencia de alumnos a la supradicha Cátedra es la hora a la que se viene dando de las siete y media de la mañana, habiendo manifestado la casi totalidad de los matriculados en el presente curso que les sería más conveniente que la hora de clase fuese al anochecer.”

Halako batean, Institutu Probintzialeko zuzendariak onartu egin zuen ordutegiaren aldaketa eta, ondorioz, ikasle kopurua nabarmen hazi zen. Hazkunde horrek beste aldaketa bat ekarri zuen: andrazkoak eta gizonezkoak gela bereizietan jarri zituzten 1909an. Horrenbestez, Frantziatik bueltatu berria zen Azkuek mutilen eskolak hartu zituen bere gain, eta neskenak Kirikiñoren esku utzi zituen. Horrela jaio zen, bada, bigarren euskara katedra.

Lansariarena ere aipatzeko modukoa da. Aldundiak, katedra sortu zenean, gainontzeko katedratikoen soldata 3.500 pezetatakoa izan arren, irakasleak 1.500 pezeta jasoko zituela erabaki zuen. Harrigarria bada ere, hogeita bost urte geroago euskara, irakasleek hasieran baino ehun pezeta gehiago irabazten zuten. Edonondik begiratuta ere, igoera kaskarra benetan. Azkuek luma hartu behar izan zuen osterara ere:

“El que suscribe, profesor de vascuence, por concurso, en el Instituto de Bilbao, a V.E. con el debido respeto suplica:

Que en atención 1ª a los 25 años ya cumplidos que lleva al frente de dicha cátedra, 2ª a las obras que con destino a ella ha producido en ese tiempo, como son

Euskal-izkindea,

Manual de conversación

Método y clave para aprender el vascuence bizkaino y guipuzkoano

Diccionario vasco-español-francés

se digne V.E. elevar su sueldo de 1.600 pesetas a 3.000.”

Badirudi eskari hori ere aintzat hartu zutela, 1920an lansaria 3.000 pezetakoa baitzen. Bestalde, soldatarena ez zen izan urte haietako aldaketa bakarra; eskolak ordu eta erdira luzatu ziren eta hirugarren maila bat ezartzea ere eztabaidagai bihurtu zen.

1920ko udan Azkue Aldundiko Euskal Kulturako Batzordeko aholkulari izendatu zuten. Bere plaza, hortaz, hutsik geratu zen; ez denbora luzez, ordea. Lanpostua betetzeko protokoloa berehala jarri baitzen martxan, eta, halatan, Luis Eleizalde hezkuntza-ikuskariak lehiaketarako deialdia egin zuen abuztuan. Lehiatzeko baldintzak aurreko deialdietakoak baino gogorragoak izan ziren: euskara irakasten bi urteko lan esperientzia izatea, lan didaktikoren bat plazaraturik izatea (bizkaieraz izatea lehenesten zen) eta ikerketa filologikoren bat argitaraturik izatea. Horrez gain, hogeita bost urtetik gorako gizonezkoak baino ezin ziren lehiatu.

Ez ziren asko baldintza horiek guztiak betetzen zituztenak, baina bai plazaren lorpena borroka gaitz bihurtzeko beste; azkenean, Instrukzio Publikorako Batzor-

deak irailaren 13an jakinarazi zuen erabakia: Joseba Altuna aukeratu zuten, dagoeneko ezagun dugun gizon bera. Eskatutako meritua guztiak betetzen zituen abandoarrak: urte bi zeramatzan euskara irakasten Erribera kaleko Mugika udal eskolan; aurreko urtean Instrukzio Batzordeak antolatzen zuen irakurketa-lanarekin lehiaketa irabazi zuen bi liburukiko *Ume euzkeldunen laguna* lanarekin eta, azkenik, *Afijos del euskera* ikerketa lanaren egilea zen. Deialdira aurkeztu zuen *Programa Razonado*-ak, gainera, epaimahaikideek izan zitzaizketen azken zalantzak uxatu zituen. Hona hemen programa horretako hainbat pasarte:

“No es posible presentar un programa exacto para la Cátedra que se pretende cubrir, porque siendo de distinta inteligencia los que a ella acuden, el profesor debe amoldarse a un término medio (...).

Sin embargo, para un cuerpo de alumnos de mediana inteligencia, el sistema más razonable hasta ahora parece el seguido por *Euskelzale Bazkuna* en su *Método gradual para aprender el idioma bizkaíno*, por los magníficos resultados que ha dado (...).

Mi opinión es que estas clases deberán ser esencialmente prácticas, haciendo porque de ellas salga el alumno todo lo euzkaldun que sea posible.

A este objeto hay que procurar no abusar de términos gramaticales y hacer que el alumno empiece a pensar y a hablar en Euzkera desde el primer momento.

Por muy reducidos que sean los conocimientos que tengan los ikasles, se puede muy bien llegar a esto. Por ejemplo, con la frase *gaur aratsaldeko lauretan zure txori gorija etxian ikusi dogu* se puede muy bien preguntar: zure txorija ¿noiz edo zein ordutan ikusi dogu? ¿zelako txoria ikusi dogu? ¿nun ikusi dogu? Zure txorija ¿nortzuk ikusi dogu? ¿noren txorija ikusi dogu? Y a frases mayores mayor número de preguntas.

Este ejercicio acostumbra al alumno a oír en Euzkera y a contestar en él, que no es poco. Además, para los alumnos es un gran estímulo el verse convertidos en euzkeldunes aunque sea de un léxico reducido (...).

El profesor debe poner un gran empeño en hacer agradable el tiempo de clase. Hay que instruir deleitando. Ni mucha gramática ni mucha rigidez. El éxito de una clase de Euzkera puede depender de ello.

Este ha sido el sistema implantando y seguido por el suscrito en las escuelas municipales de Bilbao y puede vanagloriarse del éxito obtenido.”

Programazioak argi erakusten duen legez, Altunaren asmoa hiztunak sortzea zen, hau da, gelatik kanpo ere euskaraz moldatzeko gauza izango ziren bilbotar euskaradunak.

1928ko ekainean Kirikiñok erretiroa hartu zuen. Urteetan aurrera zihoan eta, osasun aldetik larri ez bazebilen ere, zaharminek gero eta estuago hartzen zuten. Irailean jaioterriantza egin zuen eta ez zen gehiago bueltatuko Bilbora; 1929ko urtarilaren 31n hil zen Mañariko euskaltzale handia. Altunak, hortaz, 1928ko udan hutsik geratutako plaza eskatu zuen, bere plazan laguntzaile kategorian baitzegoen. Instrukzio Publikorako Batzordeak, ordea, ukatu egin zion eskaria. Abuztuan, Aldundian ziharduen Mikel Arrutzak plazaren berri izan zuenean, bere burua aurkeztu zuen. Une hartan behin-behineko lan utzialdian zegoen, bere



Joseba Altuna eskuma aldean dagoen gaztea da. Erdian, berriz, Kirikiño.
Argazkia: Altuna familia.

itzultzaile lanpostua desagertu egin baitzen diktadura hasi aurretxoan; aukera polita begitandu zitzaion, beraz, katedrarena. Baita Batzordeari ere, dirudienez, laguntzaile izaerarekin eman baitzioten plaza irailaren 19an.

Arrutzaren pozak ez zuen lar iraun baina, eta pozaren laburra ulertzeko Barakaldorainoko jauzia eman behar dugu. Garai hartan borborka ari zen Ezkerraldeko hiri hori: industriaren gorakadak milaka lagun erakarri zituen Labe Garaien itzalpera Euskal Herriko eta Gaztelako hamaika bazterretatik. Populazio gazte eta bizi-bizi hark ordu luzeak ematen zituen burdinaren inguruko lanei lotuta; dena dela, zenbait ekimen politiko, sozial eta kulturali heltzeko ere ateratzen zuen astirik, 1917ko irailean Barakaldoko hainbat bizilagunek Aldundira bidalitako gutuna dugu horren lekuko. Bertan, jarraian ikusiko dugunez, euskara katedra baten nahia agertu zuten:

“(...) Los suscritos acuden a esa alta Corporación en solicitud de la implantación en ésta de una clase de la lengua, y consecuente con esta demanda, mejor dicho, aprovechando la ocasión que se da a la vista de que la generalidad



Iturria: Markinez-Arrutza familia.



Abandoko euskaltzale askok gaztelaniaz egin behar zituzten ikasketak, Albian zeuden Barastegiko eskoletan. **Argazkia:** *Bilbao en la memoria. Imágenes de anteayer.*

de los vascos y particularmente los buenos bizcainos, tienen a gala admirar ya lo práctico y hacer que se encauce el amor al pueblo (...)"

Baiezko erantzuna berehala heldu zen (ez da ahaztu behar uda hartako bozketetan jeltzaleek Aldundia eskuratu zutela), eta, horrela, 1918an lehiaketa publikoa abiarazi zuten. Bost lagun aurkeztu ziren: Koldobika Arbeloa, Juan Luis Biziola (biak Bilboko Euzko Gaztedijako irakasleak), Martin Altuarana (Barakaldoko apaiza), Tomas Agirre (liburutegiko laguntzailea) eta Jose Gandariasbeitia (lehen hezkuntzako irakaslea Barakaldoko El Llanoko udal eskoletan). Abenduaren 4an azken hori izendatu zuten plazaren jabe.

Eskolak emateko leku eske Arte eta Ofizioetarako Eskolara jo zuten. Bertako arduradunek gogo onez utzi zizkieten behar ziren gelak, baina, hala ere, jendearen eskariak aurreikuspen guztiak gainditu zituen; berrogeita hamar ikasle espero zituzten eta ehun eta hirurogeita bik eman zuten izena. Ondorioz, eskolak Villalonga plazako haur-eskoletara lekualdatu zituzten.

Urak, beraz, euren bidetik joan ziren Primo de Riveraren kolpe militarra gertatu arte. Kolpea eta gero ere, diktadoreak hartutako neurriek hilabete batzuetako tartea behar izan zuten Ibaizabalen ezkerraldera heltzeko, baina iritsi, iritsi ziren: 1924ko urtarrilaren batean katedrako irakaslearen soldatarako esleitzen

zen dirua desagerrarazi egin zuten. Gandariasbeitiak, kobratu barik bazen ere, eskolak ematen jarraitu zuen. Hori bai, instantziak betetzeari ekin zion, zegokion lansaria eskatuz: 1924ko otsailean estreinakoa eta beste hiru 1925ean zehar. Ez zuen txakur txikirik lortu; are gehiago, bere aurrakako jazarpena zorroztu egin zen eta urte hartako azaroan kendu egin zioten kargua.

Irakasleak tinko jarraitu zuen ordea. Zor zizkioten soldatak jasotzeko eta beste lantoki batean zain egoteko zegokion eskubidea aldarrikatzen jarraitu zuen. Azkenean, 1929ko apirilean Instrukzio Publikoak Kirikiñoren erretiroa zela eta Bilbon hutsik geratutako plaza har zezala ebatzi zuen. Horrela galdu zuen, bada, Mikel Arrutzak hilabete batzuk lehenago lortutako lanpostua.

Andrazkoen indarra: Emakume Abertzale Batza

Katedraz aritu gara aurreko orrietan eta aipatu barik utzi dugu datu bat: alegia, Bilboko Institutuak izen eta egoitza berriak zituela 1926az geroztik. Udal agintariak Institutua Indautxu aldera eroatea eta Alfonso XIII izena jartzea erabaki zuten. Ikastetxearen lekualdaketa ez zen izan ia zazpi urte iraun zuen diktadura garaian hirian gertatu zen aldakuntza bakarra, ez horixe. Aurreko hamarkadetan gertatu zen bezalaxe, Bilboren hazkundeak eten barik jarraitzen zuen, bai biztanleriari bai hedadurari zegokienez.

Kontuan hartu behar da, bestalde, kinka politikoek sarritan ustekabeko onuradunak agerraraz ditzaketela. Primo de Riveraren estatu kolpeaz baliatu zirenen artean, adibidez, Bilboko Udala zegoen: urte luzeen ostean, Udalak aukera garbia ikusi zuen Deustu eta Begoñako errepublikak irensteko eta, jakina, ez zuen abagunea alferrik galdu. Horrela bada, 1925eko Urteberri egunetik aurrera, bi elizateek galdu egin zuten mendeetan zehar izandako berezko izaera administratibo eta politikoa.

Haztearekin batera hiriak egokitze lanei ekin behar izan ziren. Hogeiko hamarkadan udal teknikariak buru-belarri sartu ziren hirigintza-azpiegituren berritze lanetan. Eraitza batzuk erraz antzemateko modukoak izan ziren: argindarra auzo askotara heldu zen, eta ordura arteko gas bidezko argiztapena ordezkatu zuen; kaleetako lurrezko zoladurak urritzen hasi ziren, galipotaren eta espaloietako harlauzen mesedetan; eguneroko bizitzan hain funtsezkoak diren ur bizia eta zarama-bilketa ere nabarmen hedatu ziren. Aldaketok, horiez gain, beste hainbat ohitura ere zipriztindu zituzten; jankerak, esaterako. Hori zela eta, lehenengo biderrez ikusi ahal izan ziren prakadun andrazkoak Bilboko bazterretan.

Berrikuntzak berrikuntza, behargin auzo askotan gauzek betiko antzera jarraitzen zuten. Orduko gizartea oso klasista zen eta klase-banaketa hori bizitzako arlo guztietan, kontu materialetan zein usadioetan, igartzen zen. Horren adibide ezin hobea dugu domeketako pasealekuarena. Asteko azken eguneko arratsaldeetan bilbotarrek Kale Nagusira jotzen zuten elkarri kontuak esatera

hankak astindu bitartean. Adinekoek zein nerabeek, sasoiko gizon-emakumeek zein umeek, denek zuten gustuko kale zabal eta luzea. Baina gizarte-klaseak ez ziren nahasten, ezta deskuiduan ere. Herri xehea Mazarredo zumardiaren eta Arrese Gozotegiaren arteko berrehun metro eskasetan ibiltzen zen gora eta behera. Burgesiako kideek, berriz, kale-tarte berean aireratzen zituzten euren ele dotoreak txokor finen kearekin nahasturik; hori bai, hamabost bat metro harago, hau da, aurreko espaloian. Arrese aldean, beraz, ikasle, jostun, bulegari, umezain, neskame eta enparauak biltzen ziren. Ondoren datorren elkarriketa azken hauetako biren arteko berriketalditik jasotakoa da:

“ - Kaiso Mari, zer dion?
Oi, oi, Dolores, bien ¿y tu?
Aztu alzaiñ euskeraz?
Ezin pronunziatu diñat palabra bat tan siquiera en bascuence, del todo olvidado zaidan.
Ez dizkiñagu aditzeko guztiak aditu! Euskeraz aztu?
Qué quieres pues, necesidades ez diñ perdonatzen...”.

Aitortu beharrean gaude: bi neskameen solasa hogeita bost urte lehenago jaso zuen Azkuek,¹⁴ Kale Nagusikoa bezain klasista zen Areatzako pasealekuan. Egoerak, hala ere, bere horretan zirauen eta Bizkaiko herrietatik Bilbora mirabe joandako neska euskaldun askok galdu egiten zuten euskara *necesidadeak* bultzatuta. Egia esan, testuinguru hartan eta ezelako laguntza edota babes barik, gaitza zen benetan hizkuntzari eustea. Baziren, beti bezala, salbuespenak, hau da, hizkuntzari atxikimendu handia zioten neska gazteak. Horietako bat Mikel Arrutza euskaltzalearen etxean aritu zen neskame. Arrutzaren emazteak, Klotilde Sopelanak, ez zekien euskaraz, baina euren sei seme-alabek euskaraz egin zuten etxean ume-umetatik. Honelaxe kontatu digu euretako batek, Itziar Arrutzak alegia:

“Gure amak ez zekien euskaraz, eta Isabel Zuloaga neskamea, berriz, ez zen gauza ganorazko esaldi bat josteko gaztelaniaz. Horiek horrela, gurean egoera barregarriak sortzen ziren sarritan. Isabel hamasei urterekin etorri zen Zeanuriko Alzuste baserritik eta bai berak eta bai aitak euskaraz egiten euskuen beti. Gero Zamudioko neska bat etorri zen eta haregaz be beti egin gendun euskeraz”.

Baina, orokorrean, oso zaila egiten zen euskarari eustea. Are zailagoa اندrazkoen kasuan, ez baitzegoen hizkuntza landuz gainontzeko emakumeentzat eredu bezala jokatu zuen erakarpen-gunerik. Bilboko hainbat andre gazte oso ondo jabetzen ziren egoeraz eta buelta zelan eman pentsatzen ziharduten ordurako. Txinparta bat baino ez zen falta, eta 1922ko martxoan heldu zen pindar hori, Ambrose V. Martin abertzale irlandarraren bisitarekin batera. Martinek, gure arte-

¹⁴ 1898-1-13ko *Euskalzale* astekarian, *Elkar ikuste bat; bi nezkats miraberen artean* artikulutxoan.



Igandeetako paseoan klase sozial bakoitzak ondo zehaztuta zeukan zein zen bere espaloia.

Argazkia: *Bilbao en la memoria. Imágenes de anteayer.*

an egon zen asteetan, hainbat hitzaldi eman zituen Irlandako gorabeheren gaine-an. Jendea erruz bildu zen hitzaldiotara; ez da harritzekoa, uharte berdearen zati handi batek independentzia eskuratu zuelako urtebete lehenago eta, ondorioz, gaia puri-purian baitzegoen. Beste gauza askoren artean, bere herriko *Cumann na mBan* emakume elkartearen berri eman zien bilbotarrei. Hurrengo asteetan gogor egin zuten lan Euzko Gaztedija inguruan zebiltzan hainbat emakumek; bai fin ari-tu ere, ondorioak, jarraian kontatuko dugunez, berehala ikusi baitziren.

1922ko maiatzaren 7an, aste batzuk lehenago osatutako batzorde antolatzaileak eratze-bilera batera deitu zituen Bilboko emakumeak. Bilera hartan jaio zen, beraz, Emakume Abertzale Batza. Bere betebeharrak ere orduantxe zehaztu zituzten: propaganda (soilik gizonezkoaren jardunak hartzen ez zituen esparruetan), ongintza, zerbitzu *afektiboak* eta hezkuntza. Eginbehar horiei erreparatuta erraz ondoriozta daiteke sasoi hartan andrazkoak bigarren mailako biztanleak zirela; boto eskubidea, adibidez, 1931ra arte ukatu zieten Espainian. Baina hezkuntzaren esparruan, astiro baina atzerapausorik egin barik, gero eta pisu espe-zifikoa handiagoa hasi ziren irabazten.

Elkartearen egoitza Euzko Gaztedijaren berbera zen eta, urtero legez, 1922ko udazkenean bertan gazteen elkarteak eta emakumeenak, elkarlanean, euskara eskolak antolatu zituzten. Eskaintza ez zen alferrikakoa izan, ehun eta

hogeita hamalau umek zein helduk eman baitzuten izena. Ordutegia iluntzekoa zen, hots, arratsaldeko zazpietatik gaueko hamarretara, eta irakasle gehienak gizonezkoak ziren: lehenengo mailan Keperin Xemein, Manuel Iriondo eta Benito Escauriaga; bigarren mailan, berriz, Samuel Picaza eta Jose Errazti. Dena dela, emakumezkoak ere hasi ziren zegokien lekua hartzen; lehenengo mailako zazpietatik zortzietarako taldea, esate baterako, Petra Gandariasen eta Antonia Oxangurenen esku geratu zen.

Eskolena ez zen izan Emakume Abertzale Batzak eta Euzko Gaztedijak euskararen alde elkar harturik jorratu zuten arlo bakarra. Ohiko jarduerekin jarraitzeaz gain, ideia berriak ere etengabe mahairatzen ziren elkarte baten zein bestearen bileretan. Horietako bat euskaldunen orratzarena izan zen. Hiriak 120.000 biztanle baino gehiago zeuzkan ordurako eta, auzoetan jendeak betiko bizilagunak ezagutzen zituen arren, gero eta gehiago ziren bai hirira etorritako euskaldunak bai euskarara bildutako bilbotarrak. Beraz, *euzkeldun-orratza* nork bere burua euskaldun legez agerrarazteko tresna egokia bilakatu zen oso tarte laburrean.

Ikurrok Bidebarrietako lokaletan jarri ziren salgai 50 zentimoren truke eta baita berehala saldu ere; 1921eko urtarrilaren 20ko *Euzkadi*-n agertutako abisu batek zioen astebete baino ez zutela iraun. Albiste berean berriak egingo zituztela jakinarazten zen eta ez zen falta erosleentzako aholkurik: “Gaur bihar baino hobeto hasi zintek ez euskal-orratza erabiltzen. Baña erabillijaz bakarrik ez asetu: euskaldunakaz euskeraz baino ez itz egin beti”. Gerora EABn jardungo zuten hainbat emakume saltsa horren erdi-erdian ibili ziren, orratzok prestatzen, saltzen eta, jakina, erosten. Kale-girotze lanetan ere, batera aritu ziren zenbaitetan neska zein mutilak; 1922 eta 1923ko Agate Deuna eguneko abesbatzak, adibidez, oso jendetsuak izan ziren eta lortutako sosen zati bat euskararen aldeko kanpainetako gastuei aurre egiteko erabili zuten.

Izan ere, bi erakunde hauetako zuzendaritzetan euskaldunak nagusi ziren eta euren eragina nabarmena zen. Hona hemen datuak: Euzko Gaztedijan bederatzi lagunetik sei euskaldunak ziren; EABko zuzendaritzan, berriz, zazpitik bost. Zazpi horietako batek umetatik jasoa zeukan euskara, eta beste laurak hirian bertan ikasi zuten.

Gorago aipatu dugun Petra Gandarias zen horietako bat, eta, zuzendaritzako kide ziren Maria Jesus Ibaseta, Alike Aretxabaleta, Paulina Ramos eta Jesusa Fresnedo bezala, maistra ikasketak egin zituen Solokoetxeko Maistren Eskola Normalean. Zuzendaritzako gainontzeko bi kideak Pilar Egiraun eta Karmele Errazti *Etxakin* ziren. Azken horrek berba egin zuen 1922ko urriaren 15ean ikastaro eta eskolen hasiera ospatzeko Bidebarrietako lokalean egin zen ekitaldian. Karmelek bi multzotan aurkeztu zituen ikastaroak; batetik, prestakuntza profesionalari edo arlo artistikoaren lanketari begira antolatutakoak, hau da, meka-



Solokoetxeko Maistren Eskolatik andereño euskaltzale asko atera ziren. Euretako batzuk, adibidez ezkerretara ageri zaigun Sorne Untzueta, auzo-eskoletan aritu ziren beharrean.

Argazkia: Bidegileak- Sorne Untzueta.

nografia, takigrafia, eta musikakoak; bestetik, abertzaleen helburuak lortzeko bidea erraztuko zutenak: gorulari eta ezpata-dantzariak, nazionalismoari buruzko hitzaldiak, eta, bereziki, euskara eskolak. Jendea adoretzeko asmoz bere burua jarri zuen eredu bezala, Erraztik umetan ez baitzekien gaztelania baino. Hurrengo zapatuan *Aberri* astekariak oso-osorik argitaratu zuen euskara hutsan botatako berbaldia. Hona hemen pasarteetako bat:

“Ikastola honetarako zuben ixenak emon dozuenok, ez uste ixan urte erditan edo urtebetian erdutiaz bakarrik naikua dozubela Euzkerea ikasteko. Ori baño gehiago balio dau Euzkerek, ain eraz ikasteko. Ez jaramonik egin, ba, Euzkerea ikasteraza dala esango dautzubenai.

Jayotzetik euzkeldun diranak eztakije zelako ogasun ederra dauken Euzkerea jakitiaz; baña neronek bai-dakit ogasun ori lortuteko zelako alegiñak egin biar-ixan dodazan: oregatik maitago dot nik Euzkerea, amaren magalian ikasi eben batzuk baño geyago.

(...) Ostera, baña, ez uste ixan Euzkerea ikasi-eziña dala, askok esaten daben lez. Euzkerea ikasteko abertzaletasuna bakarrik biar-da.”

Jendea adoretzen lan mardula egin zuten EABko kideek. Baina ikasi nahi zutenak gero eta gehiago ziren eta irakasleak ez zeuden sobera. Gainera, Bidebarrietako euskara ikastaroena ez zen bete beharreko zulo bakarra. Izan ere,

hogeiko hamarkadaren hasieran herri erakundeak euskararen aldeko neurriak hartzen hasi ziren: Udalak arratseko euskara eskolak jarri zituen abian Erribera kaleko eta Indautxuko udal eskoletan, eta Aldundiak, bere aldetik, Auzuneetako Eskolak eratu zituen.

Eskola horiek landa inguruetan kokatzen ziren eta, horrenbestez, inguru euskaldunetara joan behar ziren irakasleei euskararen ezagutza eskatzen hasi zitzaizkien.¹⁵ Auzuneetako eskolak, neurri handi batean, 1902an sortutako Maistren Eskolak hornitu zituen irakaslez. Maistrak behar bezala prestatzeko hutsune handia zegoen baina: eskola gehienak inguru euskaldunetan zeuden arren,¹⁶ Solokoetxeko Eskolaren programazioan euskarak ez zeukan ezelako lekurik. Hutsuneaz jabetuta, Aldundiko Erri Irakaskintzearen Bazkintzeak (Heziketa Publikorako Batzordeak) 1918ko apirilaren 30ean Maistren Eskolan euskara katedra bat sortzea erabaki zuen. Plaza betetzeko lehiaketara bi abade baino ez ziren aurkeztu: Manuel Ortuzar eta Pablo Zamarripa. Epaimahaikoek Ortuzar aukeratu zuten eta abenduan borondatezko bertaratzea zeukaten eskolak ematen hasi zen.

1919-1920 ikasturte hasieran Ortuzarrek, osasun arrazoiak zirela-eta, lau hilabeteko lanuztea eskatu zuen. Nieves Gomeza Etxebarriak egin zion ordezkioa. Manuelen osasunak ez zuen hoberantz egin, eta, azkenean, 1920an uko egin zion plazari “gaitz fisiko batek ezgaiturik”. Beraz, Batzordekoek beste deialdi bat egin behar izan zuten gainean zeukaten ikasturteari aurre egiteko. Nieves Gomeza bera eta Dolores Naberan (frantses irakaslea Maistren Eskolan) aurkeztu ziren. Naberan jabetu zen plazaz 1920ko urriaren 15ean. Zorionekoa izan zen, urte horretan Aldundiak irakasleen soldata 2.500 pezetatik 3.000 pezetara igo baitzuen.

Geldo baina etenik gabe, matrikulatuen kopurua gorantz joan zen urterik urte. Lehenengo bi ikasturteetan 34 ikaslek eman zuten izena; 1920-21ean, berriz, 38 izan ziren, eta hurrengo ikasturtean 47. Goi-mailetakoko datuak azken urtean baino ez ditugu aurkituko, hots, 1922-23an: 1. mailan 56 ikasle zeuden, 21 2.ean, 34 3.ean eta 23 4.ean. 134 neska gazte denetara; kontuan hartzeko moduko kopurua, inondik ere.

Diktaturak, behinik behin, gogoan izan zuen, eta baita neurriak hartu ere. Kataluniako Maistra Eskoletako katalan katedrekin egin zuen bezala, Bilbokoa ere galarazi egin zuen. 1923ko abenduan plazaratutako errege agiri batek debekatu egin zuen ikasketa planean ez zeuden ikasgaien irakaskuntza. Ondorioz, frantseseko eskolek salbatu zuten Dolores Naberan langabeziatik.

¹⁵ Je1tzaleek Aldundiaren kontrola galdu zutenean atzerapausoak gertatu ziren alor honetan.

¹⁶ Euretako asko Bilbotik oso hurrar: Basaurin Ariz, Kareagagoikoa eta Etxerre; Barakaldon Kastrexana; Galdakaon Bengoetxe eta Erletxe; Sondikan Izarza; Loiun, azkenik, Elotxelerrri eta Leuros.

Diktaduratik *dictablanda*-ra

Gorago esan dugun bezala, diktadurak errotik moztu zituen euskararen aldeko hainbat egitasmo: Madrilgo agintariek *Euzko-Deya* aldizkariari eta *Euzkadi*-ren euskara sailari debekua ezarri zieten, Barakaldoko eta Maistren Eskolako euskara katedrak desagerrarazi egin zituzten, Euzko Gaztedija legez kanpo utzi zuten, eta, ondorioz, hainbat euskaltzaleren bilgune zen Euzkeltzale Bazkuna biltzeko toki barik geratu zen, etab. Neurri horiek euskararen lurperatzea ekarri zuten hein handi batean. Ez, ordea, erabatekoa.

Bilboko euskaltzaleek agerian eta kale giroan egiten ziren ekintza asko baztertu egin behar izan zituzten halabeharrez; zenbait euskaltzalek hanka egin behar izan zuen (Luis Gonzalez Etxebarri *Bingen Aizkibel*-ek, kasurako, Argentinan hartu zuen babesa; beste batzuek Mexiko edo Frantzia aldera egin zuten); baina jarduna ez zen eten, ez horixe. Mozorrotu egin zen, zelanbait esateko, eta mozorrotu ezin zenean estali egin zen, ezkutatu. Militar espainiarren jazarraldia hasi aurretik, adibidez, Bilboko hiru liburu-dendatan aurkitu ahal zen 1923ko ekainean argitaratutako *Miren Itziar* liburua. Tene Mujikaren 19 artikulua eta 23 poesia batzen zituen lan hori ez zuten konfiskatu; hori bai, dendariak, badaezpa-



Euskaltzainak 1927an. Zutik, ezkerretik eskuinera: Orixé, Landerretxe, Altube, Urkixo eta Olabide. Jesarrita: Eguzkitza, Etxegarai, Azkue eta Lacombe. **Argazkia:** *Bidegileak*- Julio Urkixo.

da, erakusleihoetatik erretiratu eta salmahaiaren barrunbeetan gorde zituzten haizea beste alde batetik jotzen hasi bitartean.

Dena dela, katedren kasuarekin ikusi dugunez, hainbat gune mantendu ahal izan ziren. Euskaltzaindia izan zen horietako bat. Akademiaren bulegoan, zarata handirik atera barik, lanean jarraitu zuten Azkuek, Aita Olabidek, Urkixok, Eguzkitzak, Altubek, Intzak eta abarrek; hori bai, euskararen alde, baina euren artean ia beti gaztelaniaz jardunez. Egungo ikuspegitik harrigarria egiten zaigun arren, datu horrek ezin hobeto erakusten digu zein urruti zegoen euskara egoterra normalizatu batetik. Euskaltzainek eurek, gurago zuten, badaezpada ere, primeran ezagutzen zuten *beste hizkuntza* erabiltzea, eztabaidak eta erabakiak behar ziren doitasunarekin eta zehaztasunarekin gauza zitezen. Ez da ahaztu behar, bestalde, euskalki desberdinak erabiltzen zituztela eta batzuen euskara mintzatua (Kampionena eta Urkixorena bai behinik behin) kaskar samarra zela.

Hizkuntzak hizkuntza, Akademiak sortu orduko zehaztu zuen euskararen ortografia; 1920ko urtarilaren 8an, hain zuzen. Hona hemen euskaltzainek plazaratu zuten proposamena, *Euskera* aldizkaritik jaso:

a, e, i, o, u, ü

a, e, i, o, u, ü (Suduñ-aboskientzat, euskalkiren baten bea balira, izki orien gainean maña txikibat jafi.)

b, d, ð, f, g, h, j, k, l, ð, m, n, ñ, p, r, s, x, t, z, ts, tx, tz, y, z.

Sabindarren proposamenak, bai ortografia arloan bai lexikoan, Euskaltzaindiaren proposamenetatik oso urruti zeuden artean. Hain urruti, non malgu samar jokatzeko jarrera zuen Kirikiñok berak ere, 1920an uko egin zion eskaini zioten euskaltzain postuari. Aranek aurkeztu zuen ortografiaren aldekoak *Euzko-Deyan* biltzen ziren eta ez zuten aukerarik txikiena galtzen garbizale ez zen jarrera orori kritika zorrotza egiteko (urte batzuk geroago Kirikiñoren aurka ere jardun zuten, hortik atera kontuak). Aurrerago ikusiko dugunez, afera honek ez zen hobera egingo hurrengo hamarkadan.

Azkuek, bitartean, beharrean jarraitzen zuen jo eta su. Akademiaren buru zen aldetik, berak hartu zuen *Euskera* buletinaren ardura; horrez gain, hizkuntzalaritza lanean segitzen zuen. 1923an *Morfologia Vasca* liburukotea argitaratu zuen: 930 orrialde, besterik ez. Hala ere, lekeitiarraren lanerako gaitasun harrigarriak ez zukeen hainbeste fruitu emango beste dohain bat ere lagun izan ez balu; izan ere, jendea bere ingurura biltzeko erraztasun handia zeukan. Tolosa aldeko Orexan jaiotako Nikolas Ormaetxea *Orix*e bere aldamenera ekarri izana dugu horren lekuko.



Erriberako Azoka Primo de Rivera diktadoreak inauguratu zuen 1929ko udan, agintea utzi baino hilabete batzuk lehenago. **Argazkia:** *Bilbao en la memoria*.

Orixe-k, jesuita bihurtzeko zorian zegoela, utzi egin zuen Jesusen Lagundia 1923an. Azkuek bazuen bere ezagutza ordurako eta Euskaltzaindiaren idazkari plaza eskaini zion. Ormaetxeak baiezkoa eman zion eta hantxe eman zituen hurrengo lau urteak. Bere lana, funtsean, euskal hitz eta esaerak biltzea izan zen. Ez dakigu gauza handirik hirian egin zuen bizitzaren gainean; bai, ordea, xehetasun txikiren bat: hilean behin sei euskaldun elkartzen ziren Zazpikaleetan afa-ri legea egiteko. Bilboko udalak urte hartan egin zuen erroldari erreparatuz gero,¹⁷ zera esan dezakegu: Orixek bazuela non aukeratu mahaikideak.

Honela jaso zuen albistea *Euzko-Deya*-k:

“Zinegotzi abertzale baten asmoz, Bilbao’ko Udalak erabagi eban bertoko biztanle gustijai edo dana-dalako ori bananduko yakenian, ia euzkeldunak ete-ziran bertan itandutia, Bilbao’n zenbat euzkeldun egozan jakiteko. Asmo polita eta txalogarria berau.

Orixek dala-ta Udalak berak egin daun estadistikak auxe diño: Bilbaok, bere hamar alderdijetan (distrituetan) 19.979 euzkeldun dankaz, onetara: Consistoriale-s’en 2.673; Santiago’n 2.717; Atxuri’n 2.450; Bilbao La Vieja’n 1.236; San Francis-

¹⁷ Kontuan izan behar da Deustuko eta Begoñako euskaldunak falta zirela errolda horretan.

co'n 884; Cortes'en 1.389; Estación'en, 1.87; Gran Via'n 2.291; San Vicente'n 2.679 ta Hospital'en 1,782. Gustiz 19.979. Euzkeldun oretatik 7.901 gixonezkuak dira, ta 12.078 anderazkuak. Bilbaoko seme-alabeak dira 6.100; Bizkai-enpara-kuak 9.886; Araba'kuak 701; Gipuzkoa'kuak 2.634; Napara'kuak 264 eta beste erijetakuak (Bidaso'z andikuak eta Ameriketa'kuak geyenak) 394.

Bilbao'k 120.000 biztanle inguru daukaz-ta, sei biztanletik euskeldun bat dago, estadistika orek diñonez. Baña geuk uste-dogu emen euzkeldun geyago dagozala. Askok, edo otuta eztagozalako edo zertzelada ori uzkeritzat artu dabelako, eztabe bete utsunia”.

Diktadurak, asko jota, izozmendiaren tontorra kolpatu ahal zuen, ageri-age-rian zebilena, besterik ez. Horrelakoetan atzean zegoen multzoak pausoa motel-du egingo zuen, apurtxo bat kikilduko zen, besterik ez. Eta aukera berria sortu orduko plazara jalgiko zen indar handiagoarekin. Izan ere, 1929rako non-nahi sumatzen ziren Errepublikarekin batera helduko zen bigarren pizkundearen estreinako zantzuak: Euzkeltzale Bazkunakoek *Euzko* hilabetekariaren lehenen-go zenbakia atera zuten urtarrilean; Gaztedijakoak, berriz, buru-belarri ari ziren kultur ekintzak antolatzen (dantzak, antzezlanak, etab.) *Pizkundera* izenaren moxorropean; *Euzkadi*-ko euskal atala berriro agertzen hasi zen...

Urte hartako Aste Nagusian diktadoreak Bilbo bisitatu zuen. Egia esan, aitzakia ederra zeukan: Erriberako Azokaren inaugurazioa. Primok ez zion errepara-tu Ibaizabal ibaian gora zetorren haizetxoaren usain berriari; adi egon izan balitz, menturaz, itsasoaren freskotasunarekin batera, bere agintaldiaren bukaera eta aro berri baten hasiera ere antzemango zituzkeen.

V. 1932: Deustuibarretik Norvegiara bi minututan



“Señor Maestro
Txori ha visto
harria ha tirao
hankan ha parao
y saltuka saltuka
sasi artera escapao”.

(Lamiakoko eskolako ikasleak,
gerra-aurrea)



Puerto de Bilbao. Remolcador. Ricardo Arrue, 1935.

Jakina denez, leku-izenek beti daukate atzean arrazoiren bat; batzuetan deskriptibo hutsak dira; bestetan, ostera, pasadizoren bat jasotzen dute. Ibaizabalen kasuan, izena ondo merezia daukala esan dezakegu, bereziki Deustutik aurrera. Izan ere, Abrara hurreratu ahala, errekaeren ertzak gero eta urrunago geratzen dira bata bestearengandik. Tarte geografiko hori soziala eta ekonomikoa ere bada: eskuma aldean klase sozial ertaina eta goi-ertaina dira nagusi eta ezker aldean, aldiz, langile klasea.

Hala ere, lehenengo kilometroetan auzoek izen eta izaera bera dute bi aldeetan. Abandoko Olabeaga eta Deustuko Olabeaga edo Deustuibarra, biek biatera ere portu-giroko auzoak ditugu; Erandioko Desertu eta Lutxana eta Barakaldoko izen bereko auzoak, berriz, industria guneak izan dira azken mendean zehar. Eskuma aldetik jarraituz eta Astrabudua pasatu ondoren, Leioako itsasadarra helduko gara, Lamiako auzora alegia. Bertako Otsobarrene baserrian jaio zen Segundo Jauregizuria 1915 urtean. Aitaita-amama baserritarrek zeuzkan arren, bazuten beste paraje batzuetako nekazariak ez zeukaten diru-iturri osagarri bat. Honela kontatzen ditu Segundok bere aurrekoen ibilerak:

“Gure aittite-amamak naufragioetatik bizi ziren, asko. Orduko denboran Bilboko dikea ez zen egon eginda, eta Bilboko sarrera izaten zen oso txarra gero! (...) Orain zubi esekia dagoen lekuan, han berton, hondartza egiten zen hor azpian, mendi hondar bat (...). Denboralea izaten zenean, aittittek uztartu ganaduak eta hara joaten zen. Guretik hara, ordu laurdeneko bidea zen. Joaten ziren eta hartzen zuten agertzen zena. Zer zen ez zekitena ere bai! Gogoratzen naiz, laranjak ere hartu zituztela. Lehenagotik, naufragioen ostean, kokoak eta bananak ere hartuta zeuden, jakin barik zer ziren edo zelan jaten ziren, eta txerriei ematen zizkieten. Horiek jateko gozoak zirela jakin zuten arte!”.

Segundok eta bere auzoko baserritarrek barrurago bizi zirenak baino kontak-tu zuzenagoa izan zuten umetatik gaztelaniarekin. Komeni zitzairen Cervantesen hizkuntzan ondo moldatzea zeren eta itsasontzietako maiordomoak genero bila hurbiltzen baitzitzaizkien ibai ondoko baserritarrei. Buru ona dauka Segundok, ontzien izenak ere gogoratzeko adinekoa:

“Inguru hartan dozena bat baserri zeuden. Haietan zainzuriak, letxuak, tomateak eta horietakoak hazten zituzten. Eta ondo saltzen ziren. Itsasontziak etortzen ziren, *Correo, La Habana...* eta bertako maiordomoek erosi egiten zuten hango ortuetako berdura. Hango berdura dena zen ona.”

Algortarako errepidea eta tranbia ere eginda zeuden ordurako, eta, beraz, lamiakotarrek bertatik bertara jasotzen zituzten hiri handiko eraginak. Hainbat eskola-kideren egoera, ordea, bestelakoa zen; Segundok dioenez, “barrualdetik zetozen mutikoek ez zekiten erderaz eta ahal zuten bezala egiten zuten berba. Euskaldunak ginen arren, burla egiten genien, *arlote* esaten genien; ordukoa da *Señor Maestro*-rena”.

Arlote giroko baserri batean jaio zen Eduarda esne-partitzailea, Lamiakotik hurran dagoen Erandioko Axpe auzoan hain zuzen. Goizero-goizero hartzen zituen astoa eta gurditxoa eta Deustu aldera abiatzen zen ibai ertzari jarraituz. Teresa Arteaga deustuarra, Segundo baino pare bat urte zaharragoa bera, ederto gogoratzen du esnearekin zetorren emakume hura. Ordurako Deustuibarra erabat erdaldunduta zegoen eta ez zen erraza euskararen arrastorik aurkitzea bertan.

Teresaren kasua beste hamaika biderrez errepikatu den kasu bera da: ama, Juliana Arrizabalaga, hamabi urterekin heldu zen Azpeititik. Neskame hasi zenean euskaraz baino ez zekien, baina beharra baino maisu hoberik ez dagoenez, berehala trebatu zen gaztelaniaz. Urte batzuk geroago, Carmelo Arteagarekin ezkondu zen; Erandioko gabarrari honek, berriz, emazteak gaztelania ikasi zuen abiadura berean galdu zuen umetan jasotako euskara. Alaba, ondorioz, espainolez hazi zuten.

Errepublikara garaian Teresa *Galletas Artiach* lantegian hasi zen beharrean; bera bezala, dozenaka emakume gazte,¹⁸ asko eta asko ibaiak bestaldekoak. Artean ez zegoen zubirik (Deustuko zubia 1939an eraiki zuten) eta ertz batetik besterako tartea txalupan egin behar izaten zen, *bote*-an. Txalupa lau tokitan hartu ahal zen: El Cambio-n, Toldos-en, Juan Cruz-enean eta penintsularen azken muturrean, Zorrotzaurren.¹⁹ Lanbide gogorra zen batelariarena, udako eguzki erre guztietara eta neguko haize jelatu orotara halabeharrez lotua. Ez da harritzekoa, hortaz, jenderik ez zeukaten uneetan batelariak tabernan aterpe hartu izana; El Estanco-n, adibidez.

Olabeagara pasatzea bost zentimo kostatzen zen eta zazpi-zortzi lagun joaten ziren osterako bakoitzean. Baina ekaitz bortitza edo uholdeak zirenean zerbitzua eten egiten zuten; horrelakoetan itsasadarra fiordo gaindiezin bihurtzen zen

¹⁸ Abesti herrikoi batek honako hau dio: “Qué bonito ser de Deusto y vivir en la Ribera, para ver pasar los barcos y también a las *galleteras*”.

¹⁹ Zorrotzaurre akabuko zati hori baita, Zorrotza eta Elorrieta artean dagoena. Beraz, ez dagokio, inondik ere Deustuibarra osoari (*aurre*-ren bat izatekotan Olabeagaurre bailitzateke).



Txorierrri inguruko aziendek Deustun zeharkatzen zuten Ibaizabal Basurtuko azokarako bidean. Hondoan, Olabeagako San Nikolas eliza. **Argazkia:** T. Luzuriaga.

eta Deustua eta *Norvegia* bata bestearengandik urruntzen zituen. *Norvegia*? Bai, *Norvegia*, Olabeagak ezizen hori baitauka aspalditik. Batzuek diote Eskandinaviatik bakailaoz zamatuta heltzen ziren ontziek eman ziotela izen hori; beste batzuek, aldiz, bertako mikroklimari egozten diote izengoitia: itsasadarraren lubakia baliatuta sartzen den ipar haizeak zuzen-zuzen jotzen du auzoa; hori gutxi balitz, ospelean daude hango etxe guztiak; hau da, eguzki urriko parajea dugula.

Hirurogeiko hamarkadan berrikuntzak heldu ziren garraiobide guztietara, eta ibai zabala gurutzatzen zuten batelak ez ziren salbuespena izan. Motorra erantsi zieten txalupei eta orduan hasi zen jendea *gasolino* deitzen txalupa horiei. Bolarik ez zen gehiegi luzatu baina. Laurogeiko hamarkadako krisi ekonomiko-

ak Deustuibarreko lantegi askori erreka joarazi zien; ondorioz, bezerorik eza zela eta, *gasolino*-en zerbitzua desagertzen hasi zen. Baina beste upel bateko sagardo da hori...

Hezkuntzaren gaineko eztabaida

Joseba Altuna Abandoko Tablas baserrian²⁰ jaio zen arren, bizitzako urte gehienak Zazpikaleetan eman zituen. Hala ere, Altuna, Ines Okamika emaztea eta sei seme-alabak tarte batez Deustuibarrean bizi izan ziren. Hogeita hamarreko hamarkadaren hasierara arte egon ziren bertan; sasoi hartan alaba nagusiak, Libek, Maistra Eskolan eman zuen izena eta, eskola hori Zabalgunean zegoenez, neska gazteak egunero-egunero hartu behar izan zuen txalupa lehenengo ikasurtean.

Espainian Errepublika indarrean ezarri zuten urtean, hau da, 1931an, Altunatarak Zazpikaleetara bueltatu ziren; Posta kalera, hain zuen ere. Liberen neba-arreba gazteek zorte handia izan zuten: hurrengo urteko irailaren 14an Bilboko lehenengo ikastolak ateak zabaldu zituen Belostikaleko 1. zenbakian, hau da, euren etxetik minutu gutxi batzuetara. Hilabete batzuk geroago, 1933ko urtarrilean, aurreko urtean sortutako Euzko Ikastola Batzak bere proiekturik kuttunena jarri zuen martxan Kale Nagusiaren azken muturrean, Jesusen Bihotzetik oso hur: Errotatxueta ikastola. Halere, ikastetxe hauetako xehetasunak eza-gutu aurretik, euren sorrera posible egin zuten giroa eta gertakizunak aztertu beharrean gaude. Murgil gaitetzen bada historiaren zurrumbilo kilikagarrian.

1930eko urtarrilean Primo de Rivera diktadorea ez zegoen bere boladarik onenean. Gaixorik eta politikoki gero eta bakartuago, militar buruengana jo zuen ea zenbateraino sostengatzen zuten jakiteko. Dirudien ez zuen nahi adina aldeko jarrera aurkitu eta, kargua utzita, erbesterako bidea hartu zuen. Diabetesak jota, handik gutxira hil zen Parisen. Alfontso XIII erregeak Berenguer jenerala izendatu zuen Espainiako gobernu-buru eta hurrengo hilabeteetan oposizioko talde politiko, sozial zein kulturalen presio gutxiagorekin antolatu zituzten euren jarduerak.

Gurean, behinik behin, berehala piztu zen giro euskaltzalea; egia esan, urtebete lehenagotik ere bazeuden hainbat ekimen martxan. Euzko Gaztedijakoek, adibidez, Pizkundia kultura elkarteak sortu zuten; mezu politikoak debekatuta zeuden arren, gero eta askatasun handiagoa zegoen antzerki-lanak, dantzak eta antzeko ikuskizunak antolatzeke. Izan ere, Pizkundiaren lorpenik handiena antzerkiaren munduan gauzatu zen. Manu Sotak, aktore talde ona sortzeaz gain, hainbat musikari (Jesus Guridi, Antonio Garate, Juan Orue) eta pintore (Anto-

²⁰ Gaur egun Atxukarro kalea dagoen inguruan (Indautxun) Tablas, Porru eta beste baserri batzuk zeuden.



Oldargi antzerki taldeko lau partaide: ezkerretik hasita, Jesus Garamendi, Carmen Larrañaga, Karmele Iriondo eta Emilio Otamendi. **Argazkia:** *Juventud y nacionalismo vasco: Bilbao (1901-1937)*.

nio Gezala, Jose Mari Uzelai, Manuel Losada) elkarlanean jarri zituen Oldargi antzerki taldearekin. Oldargik jarrera berritzaile eta modernoa agertu zuen hasieratik: koreografia eta kantuekin batera, elkarriketa sartu zuen obretan eta Kepa Enbeita *Urretxindorra* aurkezle lanetan jarri zuen. Muxikarrak, zelan bestela, bertsoen laguntzaz kokatzen zuen hastear zegoen ikuskizuna. Oldargiren aurkezpena 1930eko martxoaren 8an izan zen Campos Eliseos Antzokian. Ondoz ondoko lau egunetan *Oztin*, *Seaska Abestia*, *Donibane Gaua*, *Kaxarranka* eta *Bilbo gure asaben aldian* antzerki-lanak jokatu zituzten. Jendea erruz bildu zen bertara eta antzokia lepo bete zen lau egunetan.

Prentsari dagokionez, *Euzkadi* berriro hasi zen euskaraz idatzitako orria argitaratzen eta Pizkundia (argitaletxea ere bazen) *Euzkerea* hilabetekari elebiduna hasi zen kaleratzen 1929ko urtarrilean. Gipuzkoan ere martxan zeuden hainbat ekimen; garrantzitsuenetako bat, zalantza barik, Jose Ariztimuño *Aitzol*-ek bulzatutako *Euskaltzaleak* elkartearen zen. Horiek guztiak aurrerago jorratuko ditugu; entzun dezagun orain eskoletako patioetatik datorren zaparrada...

Eskola hizkuntzaren berreskurapenerako funtsezko tresna zela, gauza jakina zen XIX. mendearen amaieratik. Aranak, adibidez, honako hau idatzi zuen 1899an: “No hay vascongado que no esté convencido de que la base de nuestra regeneración social, política y aún moral, es la implantación de la escuela netamente vascongada”; hori bai, beste behin ere, hizkuntzarekiko kezka bestelako kezka moralekin nahastuta ageri zaigu. Pare bat urte lehenago, Azkue ez zen mugatu ideia plazaratzera eta, gorago ikusi dugun legez, gauzatu egin zuen eskola euskaldunaren asmoa Jardines kaleko ikastetxean. Lekeitiarra, baina, mila saltsatan zebilen eta ez zion eskola hari behar besteko denborarik eskaini. Badirudi eskola hau zarratu egin zutela 1899 urte aldera.

Mende berriarekin ekimen berriak heldu ziren. 1908an zenbait bilbotarrek Plaza Barriko Euskal Eskola sortu zuten; eskola honi geroago Itziarko Ama ize-na jarri zioten. 1914an, berriz, ildo bereko eskola bat zabaldu zuten Abandon, Colon de Larreategin hain zuzen ere. Arantzazuko Ama deitzen zen ikastetxe hori eta Plaza Barrian irakasle aritutako Rosario Arribi jarri zuten zuzendari. Urte horretarako, Itziarko Amak ehun eta berrogei eta hamar ikasle eta hiru maistra zeuzkan. Eskola orduen zati handi bat gaztelaniak hartzen zuen arren, euskara ezinbestekoa zen: batetik, txikienean geure hizkuntzan ikasten zituzten lehenengo berbak idazten eta irakurtzen; bestetik, Euskal Herriaren historia, geografia, kan-tu, ohitura eta abarrekin lotutako guztia ere euskaraz ematen zuten.

Eskola hauen bultzatzaile nagusiak Euzko Gaztedijaren inguruan zebiltzan lagunak izan ziren. Bultzatzaileak bultzatzaile, eskolok estu eta larri ibili ziren diru aldetik Primoren diktadura hastearekin batera desagertu ziren arte. Baina, beti-ko moduan, ereindako hazia ez zen alferrikeri galdu, ezen berehala ikusiko dugu-nez, Errepublikara garaiako ikastoletako andereño asko bi eskola horietan ikasita-koak izan baitziren.

Pedagogia eta didaktika arloek ere interes handia pizten zuten Bilbo inguru-ko euskaltzale batzuen artean. Lehenengo lantalde finkoa 1917ko Aldundiak eratu zuen Erri Irakaskintzearen Bazkintzea sortu zuenean. Luis Eleizalde izen-datu zuten bertako buru eta Eduardo Landeta, Federiko Belaustegigoitia eta bes-te batzuekin batera makina bat lan egin zuten hezkuntza arloan. Landeta bilbo-tarra (1862-1957) ez zen inoiz ibili irakasle; halere, formazio pedagogiko sendoa zeukan eta sakon eta zabal ezagutzen zituen hezkuntzaren arlo guztiak. Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza arloko ardura ere urte luzez izan zuen; bere kideekin batera zehatz-mehatz aztertu zituzten hogeiko hamarkadan zehar Europan zeu-den eskola elebidunen ereduak: Belgikakoa, Txekiako *Matitse Skolska*, Gales-koa, etab. Arlo honetan zebiltzan euskaltzale guztiak ez zetozen bat; batzuen ustez eskola publikoa euskaldundu behar zen; beste batzuk, aldiz, eskola berria egitearen aldekoak ziren. Azkenean, aurreikusten ez zuten faktore politiko berri batek bizkortu zuen prozesu guztia.



Hezkuntzaren inguruko aferek gatazka biziak eragin zituzten Errepublika garaian.

Argazkia: *Del campo a la ciudad, II.*

Trantsizio hilabete batzuen ondoren, Espainiako gobernuak udal hauteskundeak deitu zituen 1931ko apirilaren 12rako. Zentro-ezkerreko alderdien koalizioa erraz nagusitu zen hiri handi guztietan; Katalunia eta Euskal Herrian, berriz, alderdi abertzaleen emaitzak onak izan ziren. Jendeak ezin izan zion eutsi aro berria hasteko irrikari. Lehengo txinparta apirilaren 14an piztu zen Eibarko Untzaga plazan; bertako udal agintari berriek errepublika aldarrikatu zuten beste inon baino lehenago. Errepublikazaleen garaipena ikusita, Alfontso XIII.a erbestera egin zen; horrela, gerezi denbora zirudiena zabaltzen zen. Hala ere, errejimena berriak bost urte pasatxo baino ez zuen iraun eta, eurak ere, giro nahasi samarrean.

Ekainean Gorte Konstituziogileetarako bozketak izan ziren. Sozialista eta errepublikazaleen koalizioa atera zen garaile eta ganbera horrek landu zuen konstituzio berria. Legeen legea abenduan jarri zuten indarrean eta, oro har, ez zuen muturreko neuririk ekarri. Bazegoen, halere, oso delikatu zen gai bat: Elizaren eta Estatuaren arteko bereizketa argia. Europako beste herrialde batzuetan gertatzen ari zen moduan, Espainian ere gobernu berriak Elizaren itzal luzea

muga jakin batzuen barrura murriztu nahi zuen. Zalantza barik, gatazka eremu argiena hezkuntzarena zen. Ez da, beraz, harritzekoa, Estatuko indar katoliko guztiak sutan jarri izana Gobernua eskola publikoa laikotasunerantz lerrarazten hasi zenean.

Hala ere, gurean, erlijioaren gaia, bere garrantzitsuan, ez zen erabakigarria izan, martxa bizian zetorren olatuari indar handiagoa eman zion faktorea baizik. Izan ere, Berenguerren agintaldian batzeko eta adierazteko askatasunak berriro ezartzean, berpiztu egin ziren ia zazpi urtez sasian edo erdi ezkutuan ibilitako hainbat elkarte eta talde. Oso tarte laburrean eskaera politiko, sozial eta kulturalek bat egin zuten eta mugimendu zabala eratu zen autonomiaren eta hezkuntza elebidunaren alde Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan. Errepublikako gobernuak Katalunian elebitasuna onartu izanak ere hauspotu egin zuen euskaltzaleen aldarria.

Lehenengo ikastolak

Ez zen geldirik egoteko unea, ez horixe. 1931ko ekainean Emakume Abertzale Batzako andre eta neskek sator-zuloetatik irten eta erakundea berrantolatzeari ekin zioten. Andrazkoen jardute-esparruak ohikoak ziren, hau da, bizitza pribatutik hurren zeudenak; hala ere, gauzak mugitzen ari ziren: 1931ko urriaren 1ean Espainiako Gorteek emakumezkoen boto eskubidea onartu zuten. Aurrerantzean politika ez zen eremu guztiz debekatua izango andrazkoentzat. EABkoak, beraz, gogotsu zebiltzan eta bazter guztietan sumatzen zen giro berezi hura baliatu zuten 1932ko otsailaren 4an proposamen bat plazaratzeko: euskal eskolak sortzeko pauso praktikoak ematen hastea, egun bakarra galdu barik. Beste askotan gertatu zen moduan, orduko hartan ere euskararen alde idatzi zuten... baina gaztelaniaz. Honela zioen *Euzkadi*-n agertutako manifestuak:

“¿Qué obra más esencialmente cultural, más profundamente popular y qué mejor encaje en las actividades de EAB (cuyo carácter femenino se aviene a maravilla con cuanto a los niños se refiere), que la obra de las escuelas vascas?

Las actuales circunstancias, creadas por las disposiciones oficiales sobre la enseñanza, y el apogeo del sentimiento nacional vasco que se deja sentir con energía e intensidad crecientes impulsan a EAB a abordar sin demora esta obra entrañable de importancia actual y futura.”

Eragina berehalakoa izan zen: EAJko buruek bilera batera deitu zituzten Bilboko EAB, Euzko Gaztedija, Abando eta Bilboko EAJko Buru Batzak, Bilboko Irakasle Euskaldunen Elkarte eta hezkuntza munduan ibilitako hainbat pertsona. Horiek guztiek osatu zuten hilabete geroago jaio zen Euzko Ikastola Batza (EIB). Hasiera batean bere eragin esparrua Bizkaira eta lehen hezkuntzara

mugatuko zela zehaztu arren, ez zuten ezkutatu muga geografiko zein akademiakoak gainditzeko asmoa.


Udan premiako lanak egin ondoren Portugalete,²¹ Sondika eta Belostikaleko eskolek irailaren 14an ekin zioten 1932-33 ikasturteari. Zazpikaleetakoari dagokionez, Arana Jauregia (Belostikale 1) eraikuntzako bi pisu alokatu zituzten eta ElBren bulegoa ere bertan jarri zuten. Irakaskuntza elebiduna eta katolikoa zen eta edukiek Euskal Herria zeukaten sorburu. Hiru adin-taldetan banatu zituzten ikasleak: 3 urtetik 5 urtera, 5etik 9ra eta 9tik 12ra. Ikasleek kuota bat ordaindu behar zuten eta gainerako diru-sarrerak bazkide babesleen kuotetatik, emarietatik eta emakumeen batzorde batek etxez etxe egindako diru-bilketetatik ateratzen ziren. Atzo balitz bezala gogoratzen ditu Ibone Altunak garai hartako eskola egunak:

“Miren, Keltze eta hirurok Belostikaleko ikastolara joan ginen gerrak bizimodua hondatu zigun arte. Hiruzpalau gela zeuden eta bakoitzean hogeita bost bat ume; denetara, ehundik gora ume genbiltzan bertan, asko eta asko Zazpikaleetako den-dari eta merkatarien seme-alabak. Maistren artean, gogoan ditut Herran ahizpak eta Encarna Ugalde.”

Joseba Altuna eta Ines Okamikaren alabak emandako datuak zuzenak dira; Belostikaleko lehenean kokaturiko ikastola 130 ikasle hartzera heldu zen. Maistra lanetan, berak aipatutakoez gain, beste hiru ibili ziren: Angeles Arriaga, M. Murgizu eta Francisca Subiñas. 1933tik aurrera ikastetxe honetan batxilergoa eta merkataritza ikasketak egin aurreko prestakuntza hasi ziren ematen eta baita frantses, ingeles, takigrafia eta mekanografia eskolak.

Errotatxuetako euskal eskola orduko baliabide material eta pedagogiko onenak baliatzen ahalegindu zen.

Argazkia: *La generacion del exilio.*



²¹ Zenbait iturriren arabera, ikastetxe honek uda baino lehenago zabaldu zituen ateak.

Urtebete eskasean EIBk zortzi eskola jarri zituen martxan Bizkaian eta beste bat Gipuzkoan.²² Hala ere, horietatik guztietatik bakarra kokatu zen eraikuntza berri batean; Errotatxueta, hain zuzen. Euskal eskolaren proiektuaren atzean zeudenek (beste batzuen artean Jose Vilallonga,²³ Elias Gallastegi, Pauline Ramos eta Felix Zubizarreta) argi zeukaten eredu bezala funtzionatuko zuen ikastetxe bat martxan jartzearen garrantzia. Horrela bada, ahalegin berezia egin zuten Abandoko eraikin berriak baldintza onenak izan zitzen. Luis Vallejo arkitekto ezaguna arduratu zen bi pabiloien (bata neskatoentzat eta bestea mutikoentzat) diseinuaz. Europa iparraldeko estiloari jarraituz, hormak eta behea egurrezkoak ziren; teilatua, ordea, uralitazkoa. Kale Nagusira begiratzen zuen aldean hesi bat zegoen; bi etxetxoeng inguruan, berriz, bazegoen berdegune nahiko jolastorduetan gura beste olgeta eta bihurrikeri egiteko. Barrualdea ere ondo egokituta zeukaten: ikasgela argitsuak, gas-berokuntza instalazioa, komun txukunak, etab.

Alde materialari eskainitako ardura berarekin jokatu zuten arlo didaktiko eta pedagogikoa zehazterakoan. Heldu zaizkigun agiri eta txosten bakanetan²⁴ ageri-agerikoa da ildo landu eta berritzailea jarraitzeko asmoa. Ildo horren oinarrietako bat intelektualismoa baztertzeari zetzan; hau da, edukiak buruz ikasi beharrean eta materia ikasgaia aurkeztu beharrean, irakasleek formazio ahalegin orokor bat hobesten zuten. Beraz, uko egin zioten lehen hezkuntzako eskolak gaia emateari; horren ordez, metodo globala bultzatu zuten. Maistrak gai bat aukeratzen zuen irakurri edo ahoz aurkezteko eta, ondoren, gai horren ingurura biltzen zituen egun edo aste horretarako prestatutako gainontzeko gaiak.

Euskal eskolek oso goian jarri zituzten helburuak, goregi agian. Ikasle bakoitzaren izaera eta zaletasunak oinarritzat harturik, garapen integrala bultzatu nahi zuten. Hezkuntza eredu berriak arlo guztien eraldaketa eskatzen zuen, ikasgelaren antolaketa barne. Askatasun eta mugikortasun giroa bermatzeko, kendu egin zituzten banakako mahaia eta euren ordez lau lagunentzako mahaia jarri. Maistrak, berriz, bere paperak gordetzeko baino ez zuen erabiltzen mahaia; izan ere, Vilallongak zioenez, “andereñoak ez dauka mahairik, bere lekua ikasgela osoa baita”.

²² Bilbon (Belostikale eta Errotatxueta), Portugaleten, Sondikan, Getxon beste bi (bata Algortan eta bestea Areetan), Barakaldon, Elorrioren eta Bergaran.

²³ 1892an Sevillan sortutako gizon honek agor egin zuen ikastolen alde. Konde titulua zuen gizon dotore hau kirolzalea ere bazen: 1922-1925 tartean Athleticen presidentea izan zen, *Excelsior* kirol egunkaria sortu zuen, Euskal Herriko txirrindulari itzulia antolatzen ere ibili zen... M^a Dolores Sotarekin ezkondu, zortzi seme-alaba izan zituzten. Umeak Ondarretako eskolara joan ziren (Areetan bizi ziren) gerra zela eta erbesteratu behar izan zuten arte.

²⁴ Luis Agirre abade gaztea euskal eskolen aholkulari lanetan ibili zen 1935-36 ikasturtean. Berak dioenez, bera aritu zen Belostikaleko artxiboak erretzen tropa frankistak Bilbon sartu aurretik, 1937ko ekainean.



Jose Vilallonga eta Dolores Sota bere emaztea. Vilallongak lan handia egin zuen euskal eskolen alde. **Argazkia:** *La generación del exilio*.

Lan egiteko era honek, bistan dago, prestakuntza eta eskarmentua eskatzen zituen. Zoritxarrez, ez dakigu zelan moldatu ziren bi ikastola hauetan hezkuntza bide moderno hau paperetik errealitate aldakor eta moldakaitzera eroaterakoan. Emaitzak, jakina, ez ziren izango aurreikusitakoak; bizitzaren martxak, hamaika oztopo jarriz eguneroko jardunean, euren lekuan jartzen ditu asmo eta plangintza guztiak. Halere, zer edo zer lortu zuten: 1935ean Batxilergorako Sarrera egitera aurkeztu ziren Bilboko bi euskal eskoletako ikasle guztiek gaingitu zuten azterketa.

Errotatxuetaiko bi pabiloiek 300 ume hartu ahal zituzten arren, ez ziren inoiz kopuru horretara heldu, besteak beste gerrak goranzko joera moztu zuelako; azken ikasturtean, hots, 1935-36ean, 204 ikasle matrikulatu ziren bertan. Irakasleei dagokienez, honako maistra hauek (beste batzuekin batera) aritu ziren bertan: Maria Luisa Arrillaga, Maria Arrien, Felisa Belasko, Koldobike Natxitube eta Rosario Olazabal.



Koldobike Natxitube andereñoa ikasle talde batekin Errotatxueta eskola aurrean.

Argazkia: *La generación del exilio.*

Udal eskoletako euskara klaseak eta euskara katedra

Agerian dagoen moduan, lan handia egin zen sare publikotik kanpo zeuden euskal eskolak antolatzen. Hala ere, Bilboko udalak urte luzeak zeramatzan ordurako euskara eskolak bultzatzen udal eskoletan: egin kontu 1918-19tik aurrera ikastetxe hauetako batzuetan bilbotarrek euskara ikasteko aukera zeukatela, baina, hori bai, behin eguneko eskola orduak amaitu ondoren. Ehunka ume eta gaztetxo pasatu ziren iluntzeko klase horietatik. Finen aritzen zirenek, gainera, bene-benetan merezi zuen sari eder bat zeukaten ikasturte akabuan. Albiste hau, barbarako, *Euzko-Deya*-n agertu zen 1923an:

“Bilbao’ko Udalak (Ayuntamiento) euzkeraz ikasteko daukazan irakastolaetan lengo ikastaroko azterketeak ixan dira.

Eurok ikusten erdu dira, joranez, ziñegotzi abertzale batzuk. Azterketaetara ikasle asko aurkeztu dira, bai mutiletan eta bai neskatiletan. Gustijok erakutsi dabe aurerakuntza aundija egin dabela euzkera-bidian.

Ikastaro onetan euzkeraz ikasteko egin daben alegiña sariztetako, orain lbarangelu’ra eruan dabez ogetabost neska eta beste orenbeste mutil, baseri euzkeldun eta txukun atan udaldija alai igaro eta euzkerea guztiz ikasteko. ¡An bauke, ba, orixe nun egin!

Euzkerea zabaltzeko Bilbao’ko Udalak egiten daun lana txalogarija da. Oretarako amabi irakasle daukaz: zortzi emakumezko ta lau gixonezkuak.”

Zortzi urte geroago ere, Udalak tinko eusten zion euskararen aldeko apustuari. Eskola orduetatik kanpo euskara eskolak ematen zituzten udal ikastetxeen artean ezagunena Mugikako Eskola edo Erriberako Eskola (izen honekin agertuko zaigu askotan) zen. Bertan ibili ziren euskara irakasle hainbat euskaltzale bilbotar; Joseba Altuna eta Mikel Arrutza, besteak beste.

Baina euskararen irakaskuntza ez zen eskola horietan amaitzen. Gorago aipatu dugun giro berriak abertzaletasunaren mugak gainditzen zituen; hau da, bazegoela, politikoki definitu ez arren, bertako hizkuntzaren aldeko jarrera zeukan sektore zabal bat. Horren isla zenbait ikastetxe pribatutan aurki dezakegu; izan ere, hainbatetan euskara ikasgai legeztartzen hasi ziren. Goi burgesiako sektore euskaltzaleak, berriz, nahiago zituen irakasle partikularrak; ez da harritzekoa, bada, hainbat burgeskume frantses, musika edota merkataritza eskolekin batera, euskara eskolak ere jasotzen hasi izana.

Egiten zena funtsezkoa zen, jakina; baina, gaur egun bezalaxe, egindakoa saltzeak eta lau haizetara zabaltzeak ere ez zeukan garrantzi txikiagoa, ezen euskarak gero eta aldeko gehiago bazeuzkan ere, aurkakoak oraindik askotxo zirelako aukeran. Aitzolek ederto zekien hori; ez litzateke harritzekoa, beraz, 1931n argitaratu zuen *La muerte del euskera* liburuxkan jaso zituen datuak apur bat puztuta egotea. Hona hemen datuok:

BILBAO

Juventud Vasca

Treinta clases diarias	1.500 alumnos.
Cátedra de la Diputación	
Tres profesores	200 alumnos.
Escuelas Municipales de Música	
Dos clases	400 alumnos.
Colegios de Indauchu (Jesuitas), Santiago Apóstol y Padres Escolapios	400 alumnos.
Doce profesores particulares.	
Clases privadas	200 alumnos.

Datu nahasgarriena Euzko Gaztedijari dagokiona da, aurrerago ikusiko dugun moduan, beste iturri batzuek kopuru apalagoak ematen baitituzte. Litekeena da, hortaz, Bilbo inguruko ikasleren batzuk edota auzoetako batzokietan ikasten zebiltzanak datu horietan sartuta egotea. Dena dela, argi dagoena da 1930eko hamarkadan indarrez piztu zela euskara ikasteko grina Bizkaiko hiriburuan. 1931ko urriaren 11n, berbarako, *Euzkadi* egunkariak era honetan eman zuen ikasturte hasieraren berri (bide batez *Kili-Kili*-ren biñetarekin Unamuno zirikatzeko ere baliatu zuten abagunea):

«Este año se darán clases de euskera en el instituto, Batzokis y principales centros de enseñanza de Bilbao, esperándose fundadamente que el número de alumnos inscritos ascienda a los dos mil»..

Iturria: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.



Bestelakoan, eta Aitzolengana bueltatuta, irakurle ernea jabetuko zen honez-kero: hiru irakasle aipatu zituen Aitzolek katedran; zuzen zebilen Tolosako apaiz euskaltzalea, hor ez dago inongo hanpadurarik. Ikus dezagun, bada, zelan sortu zen hirugarren katedra hori.

1930eko apirilean berrogeita hamar ikasle eta ikasle ohik gutun bat idatzi zioten Aldundiari:

“Los que suscriben, alumnos y ex-alumnos de las cátedras de Lengua Vasca de la Diputación de Vizcaya a V.E. con el debido respeto exponen:

Que habiéndose convencido de la insuficiencia de dos cursos para la adquisición de tan complejo y admirado idioma solicitan la creación de un 3º.”

Hemen zein Pekinen, jauregiko kontuek martxa motela: aldundiak hurrengo urteko urtarrilera arte ez zuen eskatu bi irakasleen iritzia. Hauek (Joseba Altuna eta Jose Gandariasbeitia) bat zetozen ikasleekin:

“La enseñanza del Euzkera debe hacerse en tres cursos, si se ha de conseguir que los alumnos que concurren a sus cátedras obtengan la máxima capacidad.

Actualmente sólo existen dos, primero y segundo, en los cuales los alumnos adquieren grandes conocimientos teóricos, tanto del verbo como del léxico, de la sintaxis euzkérica, etc. Pero al terminar el segundo curso se encuentran faltos de la disposición necesaria para leer textos euzkéricos, para escribir y para hablar. Nece-

sitan practicar los conocimientos del idioma adquiridos en los dos primeros años, en otro curso superior.”

Sasoi berean idatzi zuten txosten batean ikasleak hizkuntzaren erabilerara bideratzearen garrantziaz mintzo ziren: “En estas Cátedras no se trata de estudiar, como sobre un cadáver, sobre una reliquia filológica, sino de hacer que los alumnos que a ellas concurren hablen corrientemente, con la máxima naturalidad y con corrección, el idioma vasco.”

Hortaz, aburu guztiak aldekoak zirela ikusita, 1931ko urrian Aldundiko Erri Irakaskintzeak baiezkota eman zion eskaerari: “(...) establecer con carácter provisional y a reserva de estudiar sus resultados, una tercera Cátedra de vascuence práctico y popular, encomendando su desempeño a Miguel Arruza, que ha desempeñado funciones de Auxiliar de las actuales Cátedras.”

Hirugarren katedraren sorrerak bide eman zion garrantzi historikoa duen berrikuntza bati: Aldundiak lehenengo biderrez onartu zituen bere eskoletan euskaldun alfabetatu gabeak. Hau da, helduen alfabetizazioaren lehenengo pausotzat hartu ahal dugula hirugarren katedra hau. Bilbon makina bat ziren etxean euskaraz jardun arren idazteko edota irakurtzeko gauza ez zirenak. Ordura arte, alfabetatu nahi zuenak bere kabuz aritu behar zen, bateko artikulua edo besteko ipuintxoak irakurriz. Aldaketa hau onuragarri izan zuen, beraz, euskalduntze bidean zeudenentzat ere, eskola-kideengandik hamaikatxo berba eta esamolde jator ikasteko moduan izan baitziren.

Katedren inguruko gorabeherak ez ziren berrikuntza horrekin amaitu. 1934ko urtarrilean Jose Gandariasbeitiak bi urterako lanuztea eskatu zuen. Aldundiak lehiaketa publikora atera zuen plaza Tomas Agirre Barrensororen rentzat izan zen. Honela idatzi zuen Jokin Zaitegi arrasatearrak Barrensororen gainean erbestean ateratako *Euzko-Gogoa* aldizkariaren lehenengo zenbakian (1950):

«Barrensororen gezur-izenez deritza Agirre'tar Toma. Yayotzez errexildarra duzu, biotzez bilbotarra. Beso zaintsu-sendoak ta sorbalda eskergaren indarra baño gogorrago, altsuago ta onuratsuago, duzu bere adimen-indarra. Gaxte-gaxterik bere ikasketak asi zizun. Bere ikaskideak diotenez, etzan ikasle makala izan batez ere elerti gaitan. 1930 g. urtez-gero bere idazlanen zantzuan naukazu. Ao-sapaia ur biurtzen bai-zitzaidan. Ameriketako oyan itzaltsuetan barna pozik irakurtzen nizkizun bere irakurgai ariñak. “Euzkadi” izparringiaren euskal-atalean idazten zizun. Gero ere bai eskuarki.»



Tomas Agirre Barrensororen-k euskara katedrako irakasle, kazetari eta idazle lanetan jardun zuen Errepublika garaian. **Argazkia:** Bidegileak-Tomas Agirre.

Zer edo zer izan behar zuen *Barrenso*-k gainontzeko lehiakide guztiei aurrea hartzeko. Izan ere, ordurako Bilbo aldean bat eta bi baino gehiago ziren euskara idatzian oso ondo moldatzen zirenak. Lehiakideetako bat, esaterako, bera bezala *Euzkadi*-ko euskal atalean zebilen poeta gazte bizkaitar bat izan zen: Estepan Urkiaga *Lauaxeta*, hain zuzen.

Emakumeen eta gazteen bultzada osterara ere

Estepan Urkiaga *Lauaxetak* 1929an eman zuen izena Bilboko Euzko Gaztedijan. Elkartea egoitza barik zegoen arren, laukiztar gazteak (24 urte zituen garai hartan) ez zuen ezelako arazorik izan gazte haiekin harremanetan jartzeko. Zazpikaleetako hainbat kafetegitan (La Bombilla-n, Vizcaya-n edota Mendizabal sendiak Maria Muñoz kalean zeukan La Estrella hoteleko tabernan, esate baterako) giro euskaltzalea gero eta agerikoagoa zen; urte zail batzuen ondoren, Gaztedijakoek utzi egin zioten ahopeka berba egiteari. Egia esan, gero eta oilartuago zebiltzan. Ez ziren edozelako berriketak ostatu horietan entzun zirenak; beste gauza batzuen artean, hantxe hasi zen mamitzen 1930eko azaroan gauza-tuko zen jeltzaleen bi korronteen elkarketa, hortik atera kontuak. Baina errepara diezaiogun tartetxo batez bazkide berriari: nondik zetorren *Lauaxeta*? Zertan ibili zen ordura arte olerkari gaztea?

Lauaxetak, orduko beste gazte askoren antzera, abade ikasketak egin zituen. Gaztetxotan, bost urtez ikasi zuen Durangoko Jesuitetan; handik, 1921ean Loiolara pasatu zen. Talde aparta topatu zuen bertan: Andima Ibiñagabeitia, Iñaki Goenaga, Plazido Muxika, Jokin Zaitegi eta beste euskaltzale pilo bat. Hurrengo saltoa Burgosko Oñara. Han, ziurtasunen bat arrakalatu ei zen bere barruan: ezagutzen ez ditugun arrazoiak direla-eta, Jesusen Lagundia uztea erabaki zuen. Horrela bada, 1928an Garellanon zegoen soldadutza egiten. Bere lehenengo lana, “Begoñako amari” olerkia, *Jesusen Biotzaren Deia* jesuiten aldizkarian²⁵ argitaratu zuen 1925ean. Orixeren begi zorrotzei ez zitzaion oharkabea pasatu eta, Estepan Bilbon zegoela jakin zuenean, bere albora deitu zuen *Euzkadi*-ko euskal atalean lagun ziezaion.

Laukizkoa ez zen izan Euzko Gaztedijara bildu zen bakarra. 1930etik aurrera belaunaldi berri bat, 20 eta 30 urte bitartekoa, oldean sartu zen Bidebarrietakoen dinamikan. Horietako batzuek, Jose Mari Antzolak eta Jose Mari Garatek²⁶ esate baterako, umetan ezagutu zuten egoitza zabal hura. Diktadu-

²⁵ Aldizkari erlijioso hori Bilboko jesuitek ateratzen zuten 1917az geroztik.

²⁶ Jose Mari Garate Euzko Gaztediko lehendakariorde eta BBBko lehendakari izan zen II. Errepublikara garaietan. Horrez gain, aipatzeko modukoa da beste kontu bat: Aralar ingurura egindako irteera batean doinua entzun ondoren, berak idatzitako letra egokitu zion gerora hain famatua egin zen *Eusko Gudariak* abestiari.



Lauaxetak bultzada handia eman zion Euzkadi-ko euskal atalari.
Argazkia: Bidegileak-Lauaxeta.

ra aurreko urteetan, Bilboko beste ume askoren antzera, Plaza Barriko harlauzen gainean nekatu arte oltatu ondoren, bertara biltzen ziren askaria hartzera eta film barregarriak (Harold Lloyd, Charles Chaplin, etab.) ikustera. Beste hainbatek, ordea, 1930eko ekainean berriro ireki zenean ezagutu zuten lokala.

Umetatik ezagutu zutenen artean badago oso ospetsu egin zen bilbotar peto-peto bat: Jose Antonio Agirre Lekube. Lehendakari izango zen gizon hau Zazpikaleetan jaio zen Sabino hil eta handik ehun egunera, hots, 1904ko martxoan. Beraz, Agirrek ez zuen ezagutu abandoarra. Haren aitak, ordea, bai: Teodoro Agirrek eta Daniel Irujok (Lizarrakoa, Manuel Irujoren aita) defendatu zuten Arana harko izandako epaiketetako batean. Agirretarrak abertzaleak ziren; ez da harritzekoa, beraz, euren umeak Plaza Barriko ikastolara bidali izana. Bertan ikasi zuen Jose Antoniok *ingurraztian*²⁷ lehenengo zirriborroak egiten; gerora, baina, Urduñako Antiguako Amaren Ikastetxean eman zituen urteetan galdu egin zuen euskara. Galdu bai, baina ez betiko. 1920ko hamarkada hasieran, artean Athleticen jokatzeko zuela, berriro ikasi zuen gure hizkuntza. Politikari ere ez zion ukorik egin. EAJren banaketa garaian bi sektoreek bat egitearen alde jardun zuen beste gazte batzuekin batera. Talde horretatik atera zen Euzko Gaztedijako Zuzendaritza berria 1930eko maiatzean. Historiko bat aukeratu zuten zuzendaritza-buru, Keperin Xemein euskaltzalea. Agirre, berriz, batzordekideetako bat izan zen.

Bidebarrieta eta Txakur kaleen arteko izkinan kokatutako egoitza berehala hasi zen kea botatzen. Zuzendaritzak egin zuen lehenengo gauza batzordeak martxan jartzea izan zen. Horietako batzuk, euskara jorratzen zuena tartean,

²⁷ Sabindarrek berba hori erabiltzen zuten *koaderno* edo *kaier* esateko.

sasoi berrietara egokitu ziren. Egokitze-lanak zehazteko asmoz, 1931ko otsailaren 18an Euskeltzale Bazkunak bilera garrantzitsua egin zuen. Jende eta fronte berriak zeudenez, lantaldetan antolatzea erabaki zuten: antzerkia, hizlariak, folklorea, kantagintza, euskaren defentsa, euskal idazkiak, neologismo, patronimiko eta toponimoen berreskurapena, argitalpenak, harremanak herriekin, propaganda eta euskara eskolak. Egitura zabal hori ikusita, argi dago ez zitzaizela falta beharrera-ko adorerik.

Eginbehar guztien artean lehentasuna zeukaten euskara eskolek, eta ez bakarrik hizkuntzaren ezagutza jardun guztiaren abiapuntua zelako: horrez gain, ikasleen atzeraurrerek eta algarek ematen zuten bizitasunak oso erakargarri egiten zuen Gaztedijakoen giroa. Antolatzaileek bete-betean asmatu zuten: Errepublika garaian Bidebarrieta 14ko egoitza euskaltegi erraldoi bihurtu zen. Aurre-rago ikusiko dugunez, *euskaltegi* berba berrogeita hamar urte geroago asmatu zuten Bilbon bertan, baina Bidebarrietakoaren izana berbera zen funtsean: hizkuntza ikasteko lekua, adin eta tipologia desberdineko jendearen bilgunea, hainbat asmo eta harreman egosteko sukaldea...

Eskolok 1930eko urrian hasi ziren osterara ere. Goizeko bederatzietatik gaueko hamarretara, ordu oro zegoen talderen bat sintaxiarekin edo aditzekin borrokan. Kopuruei dagokienez, ez dago garbi zenbat ikasle pasatu ziren urte haietan Euzko Gaztediko ikasgeletatik. Badakigu ehunka izan zirela urtero; 1933-34 ikasturtean, esate baterako, talde guztiak ez ziren sartzen bertan eta, ondorioz, batzuek Emakume Abertzale Batzak Posta kalean zeukan lokalean jaso behar izan zituzten eskolak. Eskari handiak eragin zuen arazo bakarra ez zen izan espaziorik eza; une jakin batzuetan antolatzaileek irakasle premia larrian ere izan ziren. Hona hemen Jose Mari Garateri gertatutakoa:

“Keperin Xemein gizon berezia zen, maitagarria eta zorrotza, xehea aldi berean. Behin, euskara ikasten nenbilen garaian, etorri egin zitzaidan irakasleak behar zirela esanez. Orduan, beste gauza batzuen artean, musika batzordeko arduraduna nintzen; beraz, esan nion ikaslea baino ez nintzela eta zeharo lanpetuta nenbilela. Lan egiten duenak baino ez duela balio erantzun zidan. Ardura, jakina, neure gain hartu behar izan nuen.”



Keperin Xemein (Abando, 1887-Bilbo, 1965) Euzkeltzale Bazkunako bultzatzaile nagusienetako bat izan zen. Argazkia: SAKE-AA.

Non ikasi eta nork irakatsi funtsezkoak diren moduan, liburuak ere guztiz beharrezkoak dira hizkuntza bat ikasterakoan. Bazkunak 1933an *Metodo gradual para aprender el euzkera* lanaren hirugarren liburukia atera zuen. Handik gutxira, lan beraren lehenengo liburukiaren 5.000 aleko edizio berria Bilboko liburu-dendetara heldu zen. Gero eta aitzakia gutxiago zegoen euskararen erronkari ez ekiteko...

Orduan ere egongo ziren soroko alperra baino nagiagoak zirenak, dudarik ez. Bada, horietatik ere bazeukaten irtenbidea: Bidebarrietako areto nagusiko aulkietan goxo jesarrita, entzumena landu ahal zuten gero eta sarriago antolatzen ziren hitzaldietan. 1932an, adibidez, lau hitzaldiko ziklo bat antolatu zuten. Hizlariak, honako hauek: Juan Garmendia *Zeleta*, Donato Ugartetxea, Estepan Urkiaga eta Jesus Zabala. Jendearen harrera ona ikusita, ziklo gehiago egin ziren hurrengo urtean. Lauaxetarekin batera Alejandro Gallastegi, Tomas Agirre, Joseba Altuna, Luis Arbeloa, Sorne Untzueta, Miren Mendizabal, Bizente Biteri, Keperin Xemein, Libe Altuna, Bizente Etchezarraga *Zidorra* eta Antonio R. de Azua *Ogoñope* aritu ziren.



Gaztelaniazko *bilbainadekin* batera bilbotarrek beti abestu dituzte euskal kantak.

Iturria: Josefina Aldatz-en familia.

Bazkunakoek aspaldiko ideiak ere berreskuratu zituzten: 1931n *Euzkel Abes-tijak* liburuxkaren bigarren *irarkaldija* kaleratu zuten eta Aranek egindako *Egu-tegi Bizkaitarra* berrargitaratu zuten. Elizarengan zuten eragina, berriz, ez zen edozelakoa; eurek bideratutako eskaerei esker, 1932an Zazpikaleetako Done Joanen parrokian lehenengo biderrez egin zen euskaraz tradizio handia zeukan gabon gaueko errosarioa. Horrelako garaipen partzialek sekulako indarrez haus-potzen zituzten euskaltzaleen gogoak. Gainera, ez zebiltzan bakarrik; aldamene-ko kalean ere mugimendua bizi-bizi nabaritzen zen.

Kontua da kale bat harago, Posta kaleko 14.ean, Emakume Abertzale Ba-tzak egoitza estreinatu zuela 1932an. Karmen Errazti eta Teresa Azkueren gida-ritzapean, emakumeak ere dinamika bizi-bizian hasi ziren lanean. Jende faltan ez zebiltzan, ez horixe. Euzko Gaztediak jaso zuen bazkide berrien kopurua han-dia izan bazen (1932an 1.822, 1933an 1.996, 1936 hasieran 2.500 inguru), emakumeen erakundearen hazkundea are ikusgarriagoa izan zen: 1931 hasie-ran 520 bazkide ziren (gehienak diktadura aurretik ibilitakoak); abenduan, berriz, ia halako bi ziren, 962. Gorako joera ez zen hilabete gutxi batzuetako kon-tua izan: 1932ko apirilean 1.400 andrekin zuten izena emanda eta urte bi geroa-go, 1934ko maiatzean, 2.400ek.

Ezin jakin horien artean zenbat euskaldun zegoen; halere, asko izan behar ziren, 1931ko urriaren 9ko gertaera batetik ondoriozta daitekeenez. Bari-ku ilun-tze horretan EABko zuzendaritzak bilera batera deitu zituen elkarteko andre eus-



Julene Azpeitiak, *Euzkadi* egunkarian ehun eta berrogeita hamar artikulutik gora idazteaz gain, ikasleentzako liburuak ere ondu zituen.

Argazkia: Bidegileak-Julene Azpeitia.

kaldunak. Bilera horren helburua euren lan arlo garrantzitsuenetako bat eratzea zen, hau da, euskararen zabalkundea. Bada, 150 kide agertu ziren eta, antza, beste asko ez ziren bertaratu ezin izan zutelako. Sortu ziren ba-tzordeen artean, bat Gaztetxoena izan zen. Aurreko aldian landu barik utzi zuten 12-16 urte bitartekoen adin tarteak, eta ez zuten akats bera errepikatu nahi. Hortaz, Bilboko gaztetxoak kantu, jolas eta dantzen bitartez erakartzen ahalegindu ziren; gogotsuen agertzen zirenei eurentzako propio prestatutako euskara eta kristau doktrinaren eskolak eskaintzen zizkieten.

Kale bereko aurreko espaloian, Posta 17n, emakumeen presentzia handia zeukan beste erakunde bat biltzen zen, gorago aipatu dugun Bilboko Irakasle Euskaldunen Elkar-tea, alegia. ELA sindikatuaren egoitza erabil-tzen zuen elkarte horrek auzune eskoletako

eta udal eskoletako maisu-maistrak biltzen zituen. Buruzagien artean auzune eskoletako lehenengo promozioiko bi maistra zeuden: Gotasne Gallastegi eta Julene Azpeitia. Julene, maistra peto-pettoa izateaz aparte, idazle ere bazen. Beste gauza batzuen artean, “Irakurri maite” argitaratu zuen 1932an, umeengan irakurtzeko zaletasuna sustatu nahian. Prentsan ere idatzi zuen Zumaian jaio eta Bilbora ezkonduetako andereñoak: *Euzkadi* egunkariak 150 bat artikulu argitaratu zizkion *Euzkotar umien alde* izenburupean. Elkarteari dagokionez, ez daki-gu gauza handirik. Hala ere, hutsaren hurrengoa baino zer edo zer gehiago bazen; izan ere, 1934an 189 bazkide zeuzkan.

Tintontzi, luma eta errotatiba artean

Euzkeltzale Bazkunakoentzat ere, gatzetxoak etorkizuna ziren, enberrari bizi berria emango zioten adaxkak. Ikusiko dugunez, EABkoen bideari jarraituz, hauek ere kontuan hartu zituzten neska-mutikoak. Bazkunakoak 1932 erdialde-ra astekari bat kaleratzen hasi ziren: *Euzko*; hau ere, Kale Nagusiko 46.ean egiten zen, Errotatxueta eskolatik gertu. Puntuan aipatuko dugun beste kazeta bat, *Euzkerea*, bi hilabetetik behin ateratzen zen (hasieran hilabeteroko maiztasuna izan zuen arren) Pizkundia-koek bultzaturik. Ez zen berriemailea: bere eginkizuna kulturarekin eta, bereziki, hizkuntzarekin loturiko gauzak aztertzea zen. Bestalde, Gipuzkoa aldean Lizardi, Aitzol eta enparauek hasia zuten egunkari euskaldun baten aldeko kanpaina.²⁸ *Euzko* abian jarri zutenek ere norabide horretarantz begiratzen zuten; txarrean, *Argia* astekariak 1921etik Gipuzkoan betetzen zuen funtzio bera²⁹ beteko zuela espero zuten. Baina egin dezagun atzera apur batez eta ikus ditzagun, astekari honen berri jaso aurretik, *Euzkerea*-ren gaineko hainbat zertzelada.

Horago esan dugun legez, Pizkundiak *Euzkerea* izeneko hilabetekari elebidun bat atera zuen 1929ko urtariletik aurrera. Euskaltzaindiak, berriz, sortu zen une beretik kaleratzen zuen *Eusker*a aldizkaria. Ez dezala inork pentsa kasualitatea denik. Kale Nagusiko 46.ean egiten zen *Euzkerea*-k ortodoxia sabindarrari eusten zion ortografia zein lexiko kontuetan. Are gehiago, askoren ustez euskaltzale haiek *maisua* (horrela deitzen zuten Sabino) bera baino itxiagoak ziren eta, horregatik hain zuzen, behin eta berriro kateatu ziren eztabaidan hizkuntza kontuetan bestelako joerak zituztenekin.³⁰ Ika-mikei ez zieten ihes egiten, ez horixe;

²⁸ Ez bata ez besteak ez zuten ametsa egia bihurturik ikusiko: Lizardi 1933ko martxoan hil zen biriketako gaitzak jota. Aitzol, berriz, faxistek preso hartu zuten Lapurditik Bilbora itsasontziz zihoala. Heranin fusilatu zuten 1936ko irailean.

²⁹ *Argia* ederto finkatuta zegoen Gipuzkoa osoan: laguntzaile-sare zabala, salmenta-puntu ugari, 7.000 irakurle inguru sasoirik onenetan, etab. Kazeta horrek, bestalde, ez dauka ezelako zerikusirik gaur egungo *Argia*-rekin, gaur egungoa 1919an sorturiko *Zeruko Argia*-ren oinordeko baita.

³⁰ *Euzkerea* edo *Euzkadi* berben inguruan, adibidez, eztabaida luze-luzeak izan ziren.

hori dela eta, beste bide batzuk jorratzen zebiltzanei bidea mozteko atal berezi bat ireki zuten hirugarren zenbakitik aurrera: “Maisuaren kontraesaleak”. Ederto larrutu zituzten bertan Aranaren proposamenak zalantzan jartzen ausartu ziren guztiak.

Euzkerea-n hainbat izen ezagunen idatziak irakurri ahal ziren: Kirikiño (artikulu bakarra idatzi zuen, urtarrilaren 31n hil baitzen), Zabala Arana, Kepa Enbeitza, Seber Altube eta Bernardo Garro *Otxolua* ziren horietako batzuk. Literatura arloak ere bazuen lekua aldizkarian: Altunak itzulitako ipuinak, Lizardi, Lauaxeta, Pantzeska Astibia *Onintze* eta beste batzuen poesiak, etab. *Euzkerea*-ren bultzatzaile nagusiak zazpi urte lehenago *Euzko-Deya*-ren inguruan bildutako berberak ziren. Aldizkaria kaleratzea lehenengo pausoa baino ez zen haientzat. Beraz, hilabete batzuek motorrak berotu ondoren, buru-belarri lotu zitzaizkion euskararen aldeko beharrari.

Esan dugun moduan, *Euzko*-k aintzat hartu zituen irakurle gazteenak ere. Astekariarekin batera komiki-orri bat banatzen zen: *Gastetxu*. Orri bakar hori hiru koloretan egiten zen (gorriz, berdez eta beltzez) alde batetik eta zuri-beltzean bestetik. Asmoa, bistan dago, neskato-mutikoei irribarrea eragitea baino birlilagoa zen: etorkizuneko irakurle, erosle, eta boto-emaileak ere jokoan zeuden eta komeni zen jendea gaztetatik hurbiltzea bizi-ikuskera jeltzalera. Zeren eta *Euzko*, beste edozeren gainetik, astekari politikoa izan baitzen; jeltzaleen euskara hutsezko astekari politikoa, hain zuzen.

Hizkuntza kontuetan *Euzkerea* bezain sabindar agertu zen *Euzko*; ez da, inondik ere, harritzekoa, hainbat izen (Bernardo Garro *Otxolua* eta Lauaxeta, adibidez) batean zein bestean topatuko ditugu-eta. Tomas Agirre *Barrenso*, Belaus-tegigoitia, Inazio Eizmendi *Basarri*, Manu Ziarsolo *Abeletxe* eta beste askoren idatziak ere agertu ziren. *Abeletxe* izan zen, hain zuzen, astekariaren zuzendari harik eta 1934an desagertu zen arte.³¹

Euzko desagertu izanaren arrazoi nagusia ekonomikoa izan zen. Euskararen aldeko bolada bete-betean zegoen arren, erronka gogorra zen Bilbo aldean astero-ko erosle fidelak lortzea. Hona hemen, esate baterako, Elantxobetik *Euzko*-ra *izparrak* bidaltzen zituen *Ogoño*-k zioena: “¿Zenbat *Euzko* euzkal-izparringi-aberrtzale saltzen dira Bilbao’ko 30.000 euskaldun artian? Berreun (200) baño ez, eta au lotsagarrijetan-be lotsagarrija da (...)”. Bizkaian zehar ehunka batzuk gehiago saltzen ziren, baina ez, nonbait, astekariari eusteko lain.

Baina benetako saiakerek beti uzten dute arrastoa, eta *Euzko*-k ere utzi zuen berea. Izan ere, bidea ireki zion gerrarekin batera jaioko zen euskara hutsezko

³¹ *Euzko*-ren lehenengo hilabetei buruz dugun informazioa hutsaren hurrengoa da. Badirudi hasiera batean Jose Ituarte *Artibai* izan zela zuzendaria. Edozelan ere, Bizkai Buru Batzarraren konfiantza zeukan gizona behar zuen, datu guztien arabera erakunde horretako bilera batean erabaki baitzen, egunero-ko ezinezkotzat jo ondoren, euskara hutsezko astekaria ateratzea.

lehen egunkariari, *Eguna*-ri alegia. Bonbapean sartu aurretik, ordea, ikus dezagun zertan zen liburugintza urte bizi haietan.

Gerra aurreko urteetan idazle eta irakurleen kopuruak nabarmen egin zuen gora Euskal Herri osoan eta baita Bilbon ere. Luma hartzeak lau fraide zororen kontua izateari utzi zion. Horren erakusle dugu 1930ean Zumaian egin zuten bilera bat, ehun bat idazle batu baitziren orduko hartan. Gehiago idazten zen eta, ondorioz, gehiago argitaratzen zen. Liburu-dendetako apaletan euren lekutxoak egiten hasi ziren euskaraz idatzitako liburuak. Hona hemen Bilboko Verdes Atxirika etxeak hamar urteko tartean argitaratutako zenbait liburu:

- Zaparradak eta...* Pablo Zamarripa (1926)
Ipuñak. Oscar Wilde / Joseba Altunak euskaratua (1927)
Gora begira. Pablo Zamarripa (1927)
Ipuñak. Jakob eta Wilhem Grimm / Joseba Altunak euskaratua (1929)
Tormesko itsu-mutila. Orixek euskaratua (1929)
Mireio. Frederic Mistral / Orixek euskaratua (1930)
Bide barrijak. Lauaxeta (1931)
Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarrijak.
Giulio Cesare della Croce / Bernardo Maria Garrok euskaratua (1932)
Biotz begietan. Xabier Lizardi (1932)
Irakurri matte. Julene Azpeitia (1932)
Gazi-gozoak. Barrenso (1933)
Negarrez igaro zan atsua. Manu Sota (W.B. Yeats-en kondaira batean oinarritua) / Joseba Altunak euskaratua (1933)
Etxe-kalte. Antonio Trueba / Migel Arruzak euskaratua (1934)
Urretxindorra. Manu Sota / Joseba Altunak euskaratua (1934)
Buruzagijak. Manu Sota / Joseba Altunak euskaratua (1935)
Arrats-beran. Lauaxeta (1935)

Urte haietan ondu ziren liburuen artean denetarik zegoen: antzerki-lanak, ipuin laburren eta pasadizoen liburuak, olerki bildumak, etab. Hala ere, aipamen berezia merezi dutenak itzulpenak dira. Egia da erlijioak eta diskurtso abertzaleak sekulako eragina zeukatela orduko euskal idazleengan; egia da, era berean, irakurle formatuak gutxi zirela eta gure sistema literarioa, orokorrean, sortzear zegoela. Hemengo egoerak ez zuen zerikusik Katalunian zutenarekin, baina horrek ez du esan nahi gurea basamortu bat zenik. Bilbo inguruan (Euskal Herriko beste leku batzuetan moduan) bazegoen Europa aldera begiratzen zuen idazlerik.

Joseba Altuna Bilboko semea izan zen itzulpenei ekin zion lehenengotarikoa bat. 1921ean Esoporen alegiak hasi zen argitaratzen *Euzko-Deya*-n; urte batzuk geroago, 1927an, Oscar Wilden zenbait ipuin euskaratzeko lanari lotu



Verdes-Atxirikarena ez zen sasoi hartan Bilbon zegoen inprimategi bakarra.

Grijelmo etxeak, Elexpuru inprentak, J. Etxenagusaren irarkolak eta beste batzuek ere euskarazko liburuak inprimatu zituzten.

Argazkia: Verdes familia.

zitzaion. Urte berean Lauaxetak itzultitako poemak hasi ziren argitaratzen *Euzkadi*-n: Victor Hugoren *Extase*, Tennyson-en *Fly Away*, Verlaineren *Green* eta *Leuntasuna*, Baudelairearen *Izaya*, Francis Jamesen *Mingarria*, etab. Laukiz-tarrak Kataluniako Maragall ere estimatua zuen eta bere olerki batzuk ere agertu ziren egunkari jeltzalean.

Espainiar tradizioak ere izan zuen bere lekua gure idazleen artean: 1928an Iruñeko udalak antolaturiko literatur sariketaren lehenengo saria (lana *Kixote*-ren IX. atala euskaratzean zetzan) Orixek irabazi zuen. Gorago ikusi dugun moduan, Orexakoak *El Lazarillo de Tormes* itzuli zuen hurrengo urtean.

Harremanak ere bazituzten Ebrotik haratagoko idazleekin. Errepublikak jarraitu izan balu ez dakigu zein norabide hartuko zituzten Espainiako antolaketak politikoak zein gizarte eta kultur mugimenduek. Indar atzerakoien matxinadak errotik moztu zuen ernetzen ari zen gizarte berria. Matxinoentzat susmargarri zen kulturaren inguruan mugitzen zen oro. Unamunok berak ere une zailak pasatu zituen Salamancan Millan Astray jeneralaren aurrean tinko agertu

zenean³². Lauxetak, berriz, *Euzkadi*-ko euskal atala³³ irakurriz jakin zuen García Lorca lagun mina fusilaturik hil zutela (tarte hartan Barrensortok zuzentzen zuen atal hori). Hilabete batzuk geroago bere eskela izan zen askoren malkoak eragin zituen.

1936ko gerra: basakeria eta heriotza

1936ko Urteberri egunean Estazio kaleko tabako dendatik pasatu zen bilbotar euskaldun bat baino gehiago zalantzaren arrak harrapatuta geratu zen. Sal-mahaiaren osteko horman, Gabon giroko apaingarrien artean, bi egutegi zeuden dingilizka, zein baino zein dotoreagoa: *Argia*-rena bata eta Euzkeltzale Bazkuna-rena bestea. Urtebete geroago, ordea, bilbotarrek ez zuten eskaintza bakarra ere aurkitu. Donostia galtzearekin batera *Argia* desagertu egin zen eta Bazkunak, berriz, Kalamua, Intxorta edota Otxandioko lubakietan zeuden hotzak eta zorriek janda. Hori bai, Bilbon bizi ziren euskaldunek ezuste ederrarekin egin zuten topo 1937ko Urteberrian: egun horretan atera zen kalera historiako lehen egunkari euskalduna, *Eguna*.

Historiaren paradoxak: egunkariaren lorpena, ezkutatuago geratu diren beste batzuk bezalaxe,³⁴ gerra garai betean gauzatu zen. Adibiderik esanguratsue-

³² Ezagun samarra da gertaera, baina merezi du gogoratzea. Hara zelan geratu diren jasota kroniketan Unamunoren hitzaldia, Millan Astrayren errieta eta ondorengo guztia: “Pero ahora acabo de oír el necrófilo e insensato grito: “*Viva la muerte!*”. Y yo, que he pasado mi vida componiendo paradojas que excitaban la ira de algunos que no las comprendían, he de deciros, como experto en la materia, que esta ridícula paradoja me parece repelente. El general Millán Astray es un inválido. No es preciso que digamos esto con un tono más bajo. Es un inválido de guerra. También lo fue Cervantes. Pero, desgraciadamente, en España hay actualmente demasiados mutilados. Y, si Dios no nos ayuda, pronto habrá muchísimos más. Me atormenta pensar que el general Millán Astray pudiera dictar las normas de la psicología de la masa. Un mutilado que carezca de la grandeza espiritual de Cervantes, es de esperar que encuentre un terrible alivio viendo cómo se multiplican los mutilados a su alrededor”. Behin puntu honetara helduta, Millan Astrayk ezin izan zion amorruari eutsi: “¡Muera la inteligencia! ¡Viva la muerte!”, egin zuen oihu aho betean. Honela jarraitzen du kronikak: “Falangistas y militares echaron mano a sus pistolas y hasta el escolta del general apuntó su subfusil a la cabeza de Unamuno, lo que no impidió que éste terminara su intervención en tono desafiante: *Este es el templo de la inteligencia. Y yo soy su sumo sacerdote. Estáis profanando su sagrado recinto. Venceréis, porque tenéis sobrada fuerza bruta. Pero no venceréis porque hay algo que os falta: razón y derecho en la lucha. Me parece inútil el pedir que penséis en España*. Hizo una pausa y dejando caer, sin fuerza, los brazos, concluyó en tono resignado: *He dicho*. Se dice que la presencia de Carmen Polo le libró de ser asesinado allí mismo, y que cuando Franco se enteró de lo que había ocurrido lamentó que no hubiese sido así. Seguramente los nacionales no asesinaron a Unamuno por la fama internacional del filósofo y por la reacción que había causado y a en el exterior el asesinato de García Lorca. Pero Unamuno, destituido como rector y confinado en su domicilio, murió el día de fin de año consternado y tachado de *rojo* y traidor –aunque su funeral fuera manipulado por los falangistas– por aquellos a quienes él había creído amigos.”

³³ Granadako poeta Viznar herrian (Granada) hil zuten faxistek 1936ko abuztuan. Albistea euskal atalean baino ez zen agertu.

³⁴ Beste gauza askoren artean Jaurlaritzak *Euzkadiko Agintaritzaren Egunerokoa* ele bitan atera zuen hainbat hilabetez Telesforo Monzonen agindupean. Irratiz, berriz, euskaraz egindako berriak entzun ahal izan ziren Bilboko Irratian.

na euskaldunek hainbestetan eskatutako autonomia estatutuarena da, 1936ko urriaren 1ean jarri baitzen indarrean. Ordurako faxistek kontrolpean zituzten Araba, Gipuzkoa eta Nafarroa. Agirrek zuzentzen zuen Eusko Jaurlaritzaren eskumenak praktikan Bizkaira mugatu ziren eta herrialde horretan ere zortzi hilabetez baino ez.

Ezagun denez, 1936ko udaberrian indar abertzale eta errepublikarrak nagusitu ziren hauteskundeetan. Hori ikusirik, faxistek gerra prestatzeari ekin zioten. Baita ondo prestatu ere. Uztailaren 18an hasi zen guda eta hilabete geroago Euskal Herriko zein Espainiako lurralde zabalak euren menpe zeuden. Hasierako zalantzak uxatuz, jeltzaleak Errepublikako gobernuaren alde jarri ziren. Agirrek, egoerari aurre egiteko, kontzentrazio-gobernua eratu zuen: EAJ, sozialistak, errepublikarrak, EAE-ANV eta komunistak. Gobernuaren egoitza eta bulego guztiak Bilbon kokatu ziren.

Gerrak hankaz gora jarri zuen eguneroko bizitza. Ondorioz, euskaltzaleen ekimenak bertan behera geratu ziren. Udazkenetik aurrera gerra giroa gero eta ageriagokoa zen hirian: borrokara zihoazen zutabeak kaleetan zehar, Gipuzkoatik heldutako errefuxiatu oldea, lehenengo arazoak hornikuntzarekin, etab. Mugimendu euskaltzalera ere lurrikara itzela ekarri zuen gerrak: Euzko Gaztedijako ia



Tiro-hotsak Bilbo bertara heldu aurretik ere hiriko kaleetan ageri-agerikoa zen gerra giroa.

Argazkia: *Juventud y nacionalismo vasco: Bilbao (1901-1937).*

kide guztiak frontetara abiatu ziren Euzko Gudarostearekin; ikastetxeek eten egin behar izan zuten ohiko jarduera; gauza bera gertatu zen Aldundiko katedra- rekin. Hizkuntzaren iraupenarekin batera, hitzunen iraupena zegoen orain joko- an.

Eta hartan, euskarako hutsezko egunkaria behingoz ateratzea erabaki zuen Jaurilaritzak abenduan. Zuzendari posturako Manu Ziarsolo *Abeletxe* aukeratu zuten. Hau berehala hasi zen lanean eta Bizkaiko mendebaldeko hiru kazetari deitu zituen erredakzio taldea osatzeko: Augustin Zubikarai ondarrutarra, Jose Maria Arizmendiarieta markinarra eta Eusebio Erkiaga lekeitiarra. Laugarrena, gipuzkoarra baina aurrekoen auzokoa, Alejandro Mendizabal mutrikuarra. Hauek landutako eta itzulitako berriekin batera hainbat laguntzailereren kolabora- zioak jasotzen zituzten. Kolaboratzaileok batzuetan herrietatik idazten zuten, noiz edo noiz lehen lerrotik ere bai (Ogoñopek, esate baterako, kronika bat baino gehiago bidali zuen), baina askotan Bilbotik bertotik. Izan ere, kazetari gipuzko- ar asko Botxora bildu ziren gerran eta gehienek *Eguna*-n idatzi zuten.

EGUNA

Lgo. urtia 1.ºn. zenbakia Idazkolea ta banakolea: Correo, t

EMEN GARA!!

ZER-EZANAK

Geure idazliak

Egunon

Ezlin aztu

Euzkeltzale gartsu genduzanak

Horien artean sarrien aritu zirenak Txomin Arruti, Jesus Insausti *Uzturre* eta Ander Arzelus *Luzear* izan ziren. Horiez gain, betidani- ko bilbotar euskaltzaleek ere idatzi zuten *Eguna*-n; Mi- kel Arrutzak, adibidez, *Egu- non* izeneko zutabea idatzi zuen goizero lehenengo orri- aldean.

Eguna-k, gerra garaian euskara hutsean kaleratu zen egunkariak, sei hilabete eskas iraun zuen.

Argazkia: www.argia.com

Eguna jaiotzearekin batera *Euzkadi*-ko euskal atala desagertu egin zen. Beste batzuk sortu ziren baina. Alderdi Komunistak, adibidez, euskara sartu zuen *Erri* aldizkarian. *Euskadi Roja* egunkarian, berriz, neurri txikiagoan agertu zen: Jesus Mari Lopetegiren³⁵ bertsoren batzuk, herrietako albisteren bat eta gutxi gehiago. EAE-ANV³⁶ ere batzuetan euskara erabili zuen *Tierra Vasca* egunkarian; bertan idatzi zutenen ezizenak heldu zaizkigu: *Egondo*, *Otarbe*, *Zuzen-zale*, etab. Alderdi honen eskuetan zegoen Nekazaritza sailak, berriz, *Ereintza* aldizkaria atera zuen, baserritarrei zuzendua eta euskara hutsean. Gerrarekin batera desagertu zirenak ere izan ziren; 1932an sortu zen *Jagi-jagi* aldizkaria, adibidez. Aldizkari hori Eli Gallastegik eta bere hurbilekoek (lehenago *Aberri* astekariaren inguruan ibilitakoak) atera zuten. Talde hori aldentzen joan zen EAJtik eta gerra hasi zenean neutraltasunaren aldeko apustua egin zuen. Maiztasun aldakorrarekin atera zuten aldizkarian, berriz, euskararen ehunekoa %3 baino ez zen. Aipagarriena lehenengo orrialdeko *Astekua* zutabea zen, Ibon³⁷ delako batek idatzia.

1937ko martxoaren amaieran tropa faxistek azken oldarraldia hasi zuten alemanen eta italiarren laguntzarekin. Martxoaren 31n Durango bonbardatu zuten. Eraitza: 300 lagun inguru hilda. Apirilaren 26an, berriz, Gernika suntsitu zuten: ehunka lagun hilda (iturrien arabera 2.000ra hel daiteke kopurua). Hurrengo asteetan borroka latzak izan ziren Elorrio gaineko Intxortetan, Gorbeian, Sollubena, Bizkargin, Lemoako Haitzean eta beste hainbat tokitan. Ia gerra-hegazkinik gabe eta artilleria piezetan ere eskas, Euzko Gudarosteak atzerantz egin behar izan zuen. Ekainaren 14an, *Burdinazko Hesia* gainditu ondoren, Francoren armada Bilbo gainera heldu zen. Egun bat geroago Jaurlaritzak Bilbo hustea erabaki zuen. Ekainaren 19an, azkenik, faxistek Bilbo mendean hartu zuten.

Aste hartan bertan euskal eskoletako aholkulari lanetan ibili zen Luis Agirrek erreketen tertzio bat ikusi zuen Errotatxuetako pabiloiak desmuntatzen. Egun batzuk geroago, Basauriko Bidebietatik pasatzen ari zela, pabiloiak ikusi zituen berriro. Agintari berriek ez zituzten pabiloiok erre, ez horixe. Gerra garaian birziklapena nahitaezkoa dela ondo jakinda, funtzio berria aurkitu zieten: txatarra biltegi bezala erabili zituzten. Irudia ezin grafikoagoa zen: debekuaren eta izuaren zabaltzaileek euskara burdin hondakinen artean ito nahi zuten. Jarraian ikusiko dugunez, ordea, ez zuten lortu horrelakorik.

³⁵ Jesús Mari Lopetegi Irunen jaio zen 1875an. Kaletarra eta errepublikazalea, ez zetorren bat orduko bertsolariaren ereduarekin. Nafarroa Behereko Arruetan hil zen 1942an.

³⁶ EAE 1930eko San Andres egunean (azaroak 30) sortu zen Bilbon. Alderdi honetako sortzaileetako asko *Comunion*-etik zetozen eta ez zuten begi honez ikusi *Aberri*-ko katoliko eta sabindar sutsuekin elkartzeari. Izan ere, EAEn ezaugarrietako bat, justizia sozialaren aldeko jarrera tinkoarekin batera, laiotasuna izan zen.

³⁷ Oso litekeena da Imanol Enbeita izatea, Ibon eta Ibon Uribitarte ezizenak erabiltzen baitzituen.

VI. 1940, Kale Nagusia: trolebus berriak garai zaharretarako

“Bilbao, 6-II-1941

Sr. D. Julio de Urquijo:

Carísimo amigo: Tengo el placer de darte una noticia que sin duda es muy de tu agrado. Dos veces han estado en esta oficina tres miembros de la Junta de Cultura, de esta Diputación: Los Señores Areilza, Merino Urrutia e Igartua.

Me expusieron su proyecto de dar nueva vida a esta Academia. Y últimamente me visitó el segundo para decirme que ponían a nuestra disposición cinco mil pesetas anuales. ¿No podrías tú conseguir que tome igual acuerdo la Junta de Cultura, de esa Diputación?

Ahora voy a exponeros (a Intzagaray podrías darle cuenta de esto por teléfono) el plan que se me ocurre (...).”

(Resurreccion Maria Azkueren gutuna
Julio Urkixori, 1941eko otsailean)





Viejo sol de la Ribera. Ciriaco Párraga, 1946.

1940ko ekainaren 20an dotore apainduta zegoen hiriaren erdigunea. Izan ere, ekainaren 18az geroztik *Askapenaren Jaiak* ari ziren ospatzen hiriburuan. Hori zela kausa, ostegun hartan tapiz dotoreak ageri ziren Kale Nagusiko bal-koietatik zintzilik eta 50 metrotik 50 metrora zutabe zuriak ikus zitezkeen, eure-tariko bakoitzak hego-zabalik ageri zen arrano harro bana erakusten zuela gai-nean. Paisaia berezi haren erdian egin zuen lehen bidaia hirian barrena Bilboko estreinako trolebusak, barruan agintariak eta kanpoan miraz zeuden herritarrak begira zituela. Agintarien jantzi distiratsuez gain, gidaria zein kobratzailea ere, txapel ikusgarriak buruan, dotore ageri ziren euren uniforme berriekin.

Propagandak zioenaren arabera, tranbia zaharra baino erosoago, isilago, garbiago eta politagoa zen trolebusa; ez hori bakarrik: horrez gain, errazago mol-datuko ei zen hiriko zirkulaziora. Aurrerabidea zen hura, Bilbora ere iritsita. Eta, egia esan, ondo ematen zuen trolebusak, bere trole biekin (energia elektrikoa saretik motorrera eroateko baliaturiko gailua zen trolea; metalezko haga malgu bat zeukan horretarako, eta baita beronen goiko muturrean kokatutako gurpil edo kontaktu labainkor bat ere), autobus modernoen pareko gurpilekin (tran-bien linea elektrikoa aprobetxatzen zuten autobusak baitziren, funtsean) eta pin-tura urdin distiratsuarekin.

Behin hiriko kale-zokoetan gora eta behera hasi zirenean, trolebusek ere aje-ak zeuzkatela ikusi zen ordea: gidariak bihurguneak zabalegi edo estuegi hartzen bazituen, bi troleetako bat lekuz kanpo geratzen zen eta atzeko atearen aldame-nean jesarrita joan ohi zen kobratzailea garraiobide berritik jaitsi eta trolea bere lekuan jartzera joan behar izaten zen.

Urte batzuk geroago, berriz, hain berriak eta hain urdinak ez ziren beste tro-lebus batzuk ekarri zituzten; Londrestik zetozen haiek (han zahartzat joak zituz-tela-eta) eta pisu bakarraren ordeztu bi izatea eta gorriz margotuta egotea ziren euren nortasun-ikur nagusiak. Horiek, ordea, geroagoko gorabeherak dira. Kon-tua da 1940an ekarritakoak berriak zirela, berri-berriak. Beti jendez lepo joan ohi ziren tranbia zahar eta zaratatsuak izan ziren ordura arte hirian nagusi; aurreran-tzean ere hantxe jarraituko zuten, baina trolebusak izango zituzten lagun.



Arte Ederren museo egin berria ageri zaigu 1943ko erretratu honetan.

Argazkia: *Vida Vasca*.

Trolebusak... eta auto banakaren batzuk ere bai (bidaiari birentzako Fiat Topolino zegoen boladan garai hartan). Baina horixe, banakak baino ez ziren oraindik autoak: izan ere, gasolina eskasia itzela zegoen, horrenbestearainokoa non Madrilgo Gobernua gasogenoa (arrakastarik izan ez zuen orduko asmakari bat) sustatu guran zebilen horren urri zen gasolina ordezkatzeko aldera.

Trolebusekin ez ezik, beste kontu batzuekin ere aldatzen ari zen hiri-paisaia: gerra-aurreko Bilbo, 1936koa, 175.023 bizilaguneko hiri lasaia zen. Gerrak, bistan denez, bazterrak astindu zituen, baina aldaketa-prozesua lehenagotik zetorren: Zabalguneko etxalde eta jauregi zaharrak (mende hasieran altxatutakoak eurentariko gehienak) eraitsi egin zituzten eta euren lekuan etxebizitzak eraiki.³⁸

Hirigunea hedatzen ari zen etengabe, bai eraikuntza-lanak zirela tarteko (hamarkada honetan eraiki zituzten, adibidez, Arte Ederren Museoa edota San

³⁸ Hona garai hartako hiri-paisaia izaniko beste aldaketa esanguratsu bat: 1948ko apirilaren leheneko goizaldean haize-erauntsi batek Areatzako ezki ospetsua, San Nikolas elizaren aldameneko hura, eraitsi egin zuen. Harrezkero, *El Tilo* kafetegia geratu zaigu oroigarri modura.

Inazio auzoa), bai beste prozedura batzuen bitartez: 1940ko urtarrilean, berbarako, Erandio irentsi zuen Bilbok (*agregación voluntaria* zen garaiko prentsak zerabilen kontzeptua), aurretiaz Abando, Begoña eta Deustu bereganatu zituen moduan.³⁹ Horrenbestez, 1935eko erroldaren arabera hiriak 173.417 biztanle zeuzkan arren, 1940koan 196.872 lagun ageri ziren. 1940ko hamarraldi amaierarako, berriz, ia 230.000 bilbotar zeuden...

Hiriko kale-zokoei erreparatzen segita, bestalde, ez zegoen Artxandako lubaki eta bunkerretaraino joan beharrik (gudari eta milizianoen manta, hondakin eta enparauak begi-bistan zeuden han) guda osteko paisaia bistartzeko: Zazpikaleetan ere ihesi joanikoek utzitako arropa eta agiriak ageri ziren han-hemenka, bala eta bala-zorroak nongura, granadak ere bai lantzean behin...

Eskasia eta errazionamendu sasoiak izan ziren haiek. Jendeak nahikoa zeregin zeukan jana eta oinarri-oinarrizko artikuluak eskuratzen. Gari gutxi zegoez, esate baterako, ogi-anoa murriztu egin zuten (bilbotar kalekume askok orduan egin zuen topo estreinakoz, derrigorrean, taloarekin eta morokilarekin); eskasia, baina, ez zen elikagai eta erregaietara mugatzen: paperik ere ez zegoen ia eta egunkariak lau orri baino ez zeuzkaten. Haatik, ia gauza guztietarako zegoen sasiordezkoren bat: txikoria kafearen lekuan, sakarina azukrea beharrean, eta horrela *ad infinitum*. Gainera, gauzak ontziratuta barik, soltean saltzen zirenez, sasiordezkoak ez ziren produktuetako asko aizundutakoak ziren: pisuan, adibidez, amarruak egiten ei ziren maiz (olioarena omen zen kasurik argiena, hozten uzten baitzitzaion astun zedin, horrela gero kopuru txikiagoa saltzeko).

Gisa honetako egoeretan ohikoa denez, bestalde, orduan ere kontrabandoa eta merkatu beltza loratu ziren hirian: horri esker, egon, denetik zegoen, edozein izkinatan topatuko zenituen estraperlistak, baina dena zegoen garesti.

Merkatu beltzetik kanpo nagusi zen eskasia, gainera, are nabarmenagoa zen produktu batzuetan: argindarrari, konparazio batean, nekez aurki ziezaiokeen inork ganorazko ordezkorik (eta ez zegoen gasolina nahikorik elektrogenoak martxan jartzeko). 1940ko uztaillean, bestalde, tabakoa ere murriztu egin zuten. Horrek larrimin itzela eragin zuen asko eta askorengan: errazionamendu-liburuxkak hamar egunetarako pakete bi eskuratzeko baimena ematen zuen; gutxiegi, aukeran, erretzaile gogorrenzat.

Horiek denak nahikoa ez nonbait eta hotz latza eta elurra izan zituzten lagun Bilbon 1940ko urtarrilean, eta tuberkulosia eta tifusa ere erruz hedatu ziren. Azken gaixotasun horren izurrite batek gogor jo zuen hiria 1941ean, eta baita hildako dezente eragin ere.

³⁹ 1924an Deustu eta Begoñako elizateak eta 1940an Erandio irentsi eta gero, urte gutxiren buruan itzelean hazi zen Zazpikaleetan sortutako legoa erdi eskaseko hirixka hura, horrenbestearaino non jada 50 kilometro koadro pasatxoko azalera baitzeukan.



Erregimenaren ospakizunak gorabehera, latza zen gerra osteko giroa. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

Ez ziren hor amaitzen arazoak ordea. 1942rako 2 milioi lagun baino gehiago pasea zen Francoren Espainiako kartzela eta kontzentrazio-esparruetatik. Urte horretan bertan, 241.000 lagun zeuden Erregimenaren ziegetan preso. Milaka lagunek lanpostua galdu zuten. Arestian aipatu ditugun zifren artean bilbotar asko eta asko zegoen. Lanpostua galdu zuenetako bat, esate baterako, Xabier Gereñoren aita zen. Xabierrek berak ondo gogoan dauka hori guztia:

“Gauza jakina da Araba lehenengo mementotik Francoren aldekoekin lerratu zela. Mugimendu hark hantxe harrapatu gintuen [Gereñotarrak hango senideengana joanak ziren oporretan]. Bilbora bueltatu ahal izan genuenerako Bilbo frankisten menpe zegoen eta ordurako poliziak zerrendak egiten hasiak ziren, gorrien aldekoak nortzuk ziren apuntatzen eta hori guztia. Jende mordoak espetxeratu zuten, aita ere bai tartean. Gero, lanetik bota zuten. (...) Kanarietara joan behar izan zuen [lana topatu baitzuen bertan], halabeharrez, eta geu ere bai berarekin. (...) Gu hona [Bilbora] etorri ginen pentsatuz gauzak aldatua izango zirela ordurako, baina ez zen horrela izan, aitari ez zioten lanik ematen eta berriro alde egin behar izan genuen hemendik.”

Egoera benetan zaila izan arren, bazen, hala ere, burua atera guran zebilenik: 1944an, barbarako, EAJk eta gudari izandakoek Euzko Naia erakundea sortu zuten klandestinitatean. Haatik, erresistentzia ahul zegoenez, beste aukera bat izan zen oro har hobetsitakoa: nazien eta faxisten aurka borrokan ari ziren aliatuei laguntzea, gero haiek mesedea itzuliko zutelakoan. Jaurlaritzak, adibidez, informazio-sarea eratu eta aliatuen esku jarri zuen. Xabier Gereñok ondo gomutatu du zelan ibili zen bere aita ingelesez aldeko espioi-lanak egiten II. Mundu Gerran:

“Ingalaterrako kontsulatuaren bitartez egin zuen kontaktua. Bere burua aurkeztu zuen kontsuletxean (Bilboko Kale Nagusian zegoen, gogoan dut) nazien aurka lan egin gura zuela esanez. Franco II. Mundu Gerran sartu ala ez zalantzan zegoen, baina 1936ko gerraren ondoren Espainia oso egoera okerrean zegoela ikusirik, Hitlerri esan zion Espainiak ez zeukala indar nahikorik berriro beste gerra batean sartzeko. Hala ere, beste modu batera lagunduko ziola esan zion. Hain zuzen ere, aleman urpekoentzako baseak eskaintzen. Hartara, Kanariak eta Ekuatore Ginea eskaini zizkion, besteak beste. Eta zelan nire aitak Kanarietara joateko asmoa zuen, ingelesek han zeuden itsaspeko alemanen datuak lortzeko agindua eman zioten.”

Esan dugun moduan, garai hartako oposizio-mugimenduek itxaropen handiak zituzten aliatuengan (nahiz eta 1942an Rooseveltek Francori zera agindu: aliatuek ez zutela Espainia inbadituko baldin eta diktadoreak neutraltasunari eusten bazion). Itxaropenok, gainera, areagotu egin ziren AEB, Frantzia, Ingalaterra, Errusia eta enparauak II. Mundu Gerran gailentzean: 1946 eta 1949 artean Espainiako mugak zarratu egin ziren, esportazioak nabarmen jaitsi, 1946ko abenduan NBEren Batzar Orokorrak Madrilen zeuden enbaxadoreak euren herrialdeetara bueltarazteko aholkatu zien estatu kideei...

Itsasgorak hondar-gaztelua nola, ordea, halaxe zapuztu zituzten hurrengo urteetako gertaerek aipatu itxaropenok: 1948ko maiatzean Frantziak eta Erresuma Batuak merkataritza-hitzarmenak sinatu zituzten Espainiarekin, 1950ean Frantziako epaitegiek Espainiako Gobernuari eman zioten Jaurlaritzak Parisen zeukan egoitza, eta, azkenik, Espainia 1952an UNESCOn eta 1954an NBE-n onartu zuten.

Esfera publikotik kanpo

Kontuak kontu, bizi-beharraren pareko indarrik ez dagoela-eta, eguneroko bizimoduak bere bidetik segitzen zuen Bilbon. Hiritar arruntari dagozkion kontuei erreparatzen hasita, 1942ko abenduan berrikuntza garrantzitsu bi ezarri zituen Erregimenak, biak ere egun gutxiren buruan: batetik, Gaixoardietarako Derrigorrezko Asegurua; bestetik, gerora hain ospetsu bihurtu zen NO-DOa, filmak baino lehen bota ohi zuten albistegi zinematografikoa. Egin kontu ordurako zinema



New Yorkera ere iritsi ziren *Los Bocheros* talde arrakastatsuko lagunak.

Argazkia: *Vida Vasca*.

sano hedatua zegoela Bilbon (1929rako zazpi areto zeuden eta Arriaga eta Campos Eliseos antzokietan ere programatu ohi zituzten filmak).

Garaiko soinu-banda, berriz, honako hau zen nagusiki: Espainia aldeko folklorika eta kupletistak batetik, eta Los Bocheros eta Los Chimberosen *bilbainadak* bestetik. Jaiegunetan, dantzaldiak Etxetxuan (hor sarri izaten ei ziren borroka, berauetan errekaldearrak zirela nagusi) eta Gazte-Lekun (udaletxe osteko lorategietan; orkestra bik pasodoble, bolero, tango, baltse, foxtrot eta rumbak jotzen zituzten bertan), eta baita (zaharragoentzat hau) Campos Eliseosen ere (hemen ere orkestra bi aritzen ziren, baina hau apur bat garestiagoa zen). Ezin ahaztu, era berean, Gorte kaleko lokal askotan izaten ziren zuzeneko musika-emanaldiak, Bilboko Orkestra Sinfonikoko irakasle asko tartean zirela.

Horiez gain, soldadu asko ere egoten ei zen dantzaldietan; aipa dezagun eurekin zerikusia daukan bitxikeria bat: garai hartan Bilbon *zortzis* deitzen omen zitzairen soldaduei; kontua da Garellanoko kuartela San Frantzisko kalean egon zela sasoi batean eta bertako soldaduen erregimentua zortzigarrena zela. Horre-

gatik, soldaduek zenbaki hori zeramaten euren uniformetan. Hara hor, beraz, izenaren jatorria.

Beste militar baten kontuekin jarraitu behar dugu, 1946an Areatzan zegoen Mola jeneralaren monumentua zartarazi zutelako. Garaiko agintariei min egin zien ekintza horrek, ez baitzegoen gertaturikoa ezkutatzetik. Hurrengo urtean izaniko greba orokorrak (gerra osteko estreinako greba politikoa), ordea, are min handiagoa egin zien. Xabier Gereñok, hala ere, zera dio:

“(…) ezin ditut oso ondo oroitu orduko pasadizoak, datuak falta zaizkidalako, ez daukat orduko agiririk, ezta paperik ere. Izan ere, Francoren garaian, egun gogoan-garriren bat hurreratzen zen bakoitzean (Maiatzaren Lehena zela, edo Aberri Eguna zela...) sekulako sarekadak burutzen zituzten, 200 laguneko zerrenda zuten eta haiek atxilotzen zituzten, eta zerrenda hartan neu ere banengoen. Horregatik, badaezpada, ez nuen gutunik ez bestelako paperik gordetzen etxean, poliziakoak sarritan etortzen zitzaizkidalako etxera bazterrak arakatzera. Oso miaketa zehatzak izaten ziren gainera: lau edo bost morroi etortzen ziren eta etxe guztia hankaz gora jartzen zuten. Hasieran, gainera, paperak-eta eraman izan zizkidaten. Aurrerantzean, beraz, ezelako paper ez agiririk ez gordetzea erabaki nuen, badaezpada, beste inor ez nahasteko.”

Bada beste arrazoi bat orduko kontuez ez oroitzeko: gorabehera horietako asko ez ziren agertzen hedabide ofizialetan. Bai ordea tankera honakoak: 1947ko uztaillean (greba izan eta gutxira) Ondorengotza Legea onartzeko erreferenduma egin zen. Eraitza, honako hau: monarkia ezarri zuten Espainian, Franco biziarteko gobernatzaile zela.

Giro mediatikoa, argi dago, itogarria zen. 1936ko uztailaren 28ko militarren bando batek edozein inprimakiren gainean aurretiko zentsura ezarria zuen. Geroago, 1938an, Serrano Suñer-en prentsa-legeak are gehiago zorrotzu zuen panorama: Barne-arazoetarako ministroak izendatu behar zituen egunkarietako zuzendariak (proposamena enpresak berak egiten zuen), kazetarien errolda ofiziala osatu zuten (Erregimenaren aurka egon zitezkeenak bazter utzita), kazetaria “Espainiaren zerbitzuko behargin duin” eta “Nazioaren pentsamendu eta fedearen apostolu” zela aldarrikatu...

Bilbon, bertan eginiko hiru egunkari zeuden 1940ko hamarraldian (gerra baino lehen zortzi egon ziren): *Hierro* (Euzkadi-ri konfiskaturiko tresneriarekin egiten zuten), *La Gaceta del Norte* eta *El Correo Español-El Pueblo Vasco*. Hiru egunkari, beraz, baina funtsezko kontuei zegokienez, ahots bakarra: 1940ko urtarri-laren 2an, barbarako, hirurek Francoren urte-hondarreko hitzaldia eman zuten azal betean (izara formatuko egunkariak ziren ordukoak), eta barruan beste orrialde bat eskaintzen zioten kontuari.

Zentsura nabarmena zen prentsan (egin kontu argazki-moldatzaileen figura ere sortu zutela, artean *photoshop*-ik ez zegoenean), baina baita irratian ere. 1939ko urriko agindu batek aurretiko zentsurapean ezarri zituen irratia-emanki-



Goian, Areatzako ezki ospetsua, 1946an; behean, San Nikolas eliza ezkia jausi eta gero, 1948an. **Argazkiak:** *Vida Vasca*.



zunak oro. Ez zen hor amaitzen kontua: irrati-kate guztiek derrigorrez eman behar zuten Radio Nacional-en 14:30 eta 22:00etako *parte*-a. Jose Manuel Sanchez Tirado Radio Bilbao-Cadena Ser irrati (gera ostean, urte askoan, Bilbo-ko irrati bakarra) esatariak diotenaren arabera, zentsurak ez ziren uzten euskal izenik aipatzen, denak itzuli egin behar izaten zituzten. Den-dena ei zegoen zentsorearen begiradapean: irratsaioak, gidoiak, publizitatea...

Sanchez Tiradok gogoratzen du, halaber, zelan berak soldadutza egin zuenean, Bilbon eman zituen zenbait hilabete. Euren aldamenean ingeniari-talde bat ei zegoen, eta zeregin bakarra omen zeukaten: irrati-igorgailu batzuk jartzen omen zituzten martxan iluntzero, Radio Pirenáica, Radio París, BBC edota Radio Moscú-ren uhinak trabatzeko. Autonomia kaleko egoitza batetik burutzen ei zuten zeregin hori. Dena dela, irrati-aparatuak ez ziren oraindik iritsi ere egin bazter-auzoetako etxe gehienetara. Garai hartako lekukotzek diotenez, Errekalde batean, adibidez, etxe banaka batzuetan baino ez zeuden (bai, ordea, tabernetan). Irratirik ez zegoen etxeetan, *galena* baliatzen zuten.

Zentsura dela-eta, gogoan izan behar da, bestalde, hedabideak ez zirela salbuespena: antzezlanak, liburuak, komikiak, filmak, hizlariak, iragarkiak, argazki eta ilustrazioak... Guztia galbahe estu horretatik pasa beharra zegoen. Gainera, Erregimenak ezarritako zentsura nahikoa ez eta Elizarena ere jasan beharra zegoen (non eta biak bat eta bakarra ez ziren). Hara zelan oroitzen duen orduko Eliza Xabier Gereñok:

“Badakizu zer gertatzen zen orduan? Oso erlijio estua zegoela indarrean. Euskal Herriko ohiturak erlijioak erabat markaturik zeuden. Eliza Katolikoak *Índice* izeneko zerrenda zeukan, eta hor autore eta liburu arriskugarriak ageri ziren. Zerrenda horretan idazle batzuen produkzio osoa sartzen zuten, debekatua zegoen haiek irakurtzea. Beste kasu batzuetan, idazlea *zalantzazkoa* bazen, orduan idazle horren obra zehatz batzuk sartzen zituzten, ez guztiak. Adibidez: Victor Hugo, Dumas edota Roussearen lan guztiak zeuden debekatuta. Beste autore batzuen kasuan, haien obra bat edo bi baino ez. Orduan, zein joera zegoen hemen kristau familien artean? Ahal zela ezer ez irakurri, eta irakurtzekotan, apaiz katolikoek idatzitako obrak. Adibidez, Padre Colina jesuitaren obrak.”

Eta, bistan denez, garai hartan Bilbon kristau familiak nagusi zirenez... Esan beharrik ez, bestalde, euskal idazleak eta haien obrak erabat debekatuta zeudela, hizkuntzari dagokionez ere hamarraldia ez baitzen dena zuzen hasi: 1940an, esate baterako, Espainiako Industria Ministerioak gaztelania ez beste hizkuntzak erabiltzea debekatu zuen. Aurrerantzean ezingo zen izen komertzialik ipini euskaraz, ezta marka, idazkun eta inskripziorik ere. Geroago etorritako legeek ildo horiek berretsi baino ez zituzten egin. 1944an, adibidez, eskritura publikoak erdaraz egitera derrigortu zuten. Hezkuntza lege berriak, berriz, zera zioen zazpi-garren artikuluan: “Oinarrizko hezkuntza nazional guztian espainiar hizkuntza,



Bizitza publikotik erabat desagertuta, azoketan (1947koa da goiko irudia) eta gune oso jakin batzuetan baino ez zen entzuten euskara apurren bat hirian. **Argazkia:** *Vida Vasca.*

hispaniar komunitatearen funtsezko lokarria, derrigorrezkoa ez ezik bereziki gurtu beharrekoa ere izango da, pertsonen heziketa eta adierazpiderako ezinbesteko tresna baita.” Gainerako hizkuntzak debekatzeaz gain, udal zein diputazioen ikastetxe guztiak ere Estatuak bereganatu zituen, gerra aurreko loraldi laburra errotik moztuta.

Ondorio nabarmenak eragin zituen horrek guztiak. Agurtzane Elorduik bere doktorego-tesian jasotako lekukotzak esanguratsuak dira. Hona horietako batzuk, Basauriko bizilagunei jasoak denak ere:

b. “(...) todo por la represión, todo era muy amenazador, entonces los padres tenían tanto miedo que nunca te hablaban (...) Les metían a la cárcel, les cortaban el pelo, no, no, la gente tenía mucho miedo y en la calle en euskera ni palabra.

(...)

a. “(...) berriz joan nintzen eskolara baina orduan euskalduneri egiten euskuen burle, esaten euskuen *aaa aldi*nas eta eukin gendun maistra bat oso frankista, oso okerra (...) berak ez euskun itxiten euskaraz uzenak esaten, danak erdera (...)”.

Eskolan ez ezik, kalean euskaraz jardutea ere galarazita zegoen, Elorduik Basaurin jasotako lekukotzek argi erakusten duten moduan:

a. “(...) txikerra izen ordun amari entzunde que gerra ostijen nire izeko bat jau-si zan kerajatik eta ospitalera eran enduen eta klaro nire aitite ez euan jakin

erdera eta tranbien joan ezker ospitalerantz ba guardiazibilek esan eutsien que erdera egiteko, ez berak ezin dau egin erdera eta eran enduen komisaria ez jakitearren erdera.”

- b. “Incluso por hablar euskera aquí unos cuantos que eran falangistas te decían: oye ya sabes donde está Larrinaga, ¿eh?, allí te llevaban a la cárcel (...) y aite y amuma no te hablaban por miedo, todo era por miedo (...)”
- c. “(...) eta esaten euskuen: lotsarik ez dekozue euskeraz jendiaren aurrean egiten, jendiaren aurrin egiteko lotsarik ez dekozue, jendiaren aurrin egin bida español, erdera (...)”

Eta horrek guztiak, noski, euskararen transmisioan etena ekarri zuen ondorio modura. SIADECOKoek urte dezente geroago Bilbon eginiko inkestan ziotena da esanikoaren erakusgarri:

“Euskararen transmisio prozesuaren atzerakada nabarmenki isladatu da inkestaren pertsonalean. Inkestatuen %17ren bi gurasoek euskara zekiten bitartean, berauen aiton-amonen ezagupena laurdena ingurura igotzen bait zen. Bi belaunaldi horien artean bakarrik, 3 euskaldunetatik 1 galdu egin da.”

Baziren indarrean zen joerari aurre egiten saiatu zirenak ere. Segidan aipatuko dugun lekukotzan (Elorduik Basaurin jasotakoa hau ere), adibidez, etxekoen aldetik erresistentzia-jarrerara suma daiteke galeraren aurrean:

“(...) etorri zan zazpi urtegaz kolegijora sartzeko. Baskoniako kolegijora. (...) eta kolegijora sartu zanian handik iru lau ilabete pasau zanian erdera egiten asi zan eta neuri be direktamente erdera eginostan eta esanotsen: *Alberto, zu ume bat zara bai, ba zuk neu bizi naizen artien niri euskara egin beti, ze zu ume bat zarela parkatute zauz, parkatu egingo deusue eta zuk euskeraz beti umie (...).*”

Alabaina, erresistentzia-jarrera hori ez zen jarrerarik ohikoena, are gehiago euskara debekatuta ez ezik esfera publikotik desagerrarazia zegoela kontuan izanez gero. Bilbon garai hartan euskararen ageriko ikur ziren pertsonak ere, edo hilda zeutzan edo atzerrira ihesi joanak ziren (gaur egun kale eta plaza bana dituen Kepa Enbeita *Urretxindorra* bertsolari muxikarra,⁴⁰ adibidez, 1942an zendu zen). Baziren salbuespen bakanak ordea, eta euren artean Resurreccion Maria Azkue zen adibiderik garbiena.

Pragmatismoaren bideak: barrutik eragiten

Resurreccion Maria Azkue ez zen sabindar abertzalea eta, gainera, lagun dezente zeukan *ondo kokaturiko* jendearen artean (berak asmatu zuen, adibidez, *Neguri* izena, Bilboko aberatsen eskariz asmatu ere). Horri esker, 1942an

⁴⁰ Haren seme Balendin, berriz, hiri-paisaiaren parte da bere eskultura Areatzan jarri zutenez geroztik.

Euskalerriaren Yakintza eman zuen argitara. Haatik, bere lan partikularrei ez ezik lan kolektiboagoei ere heldu guran zebilen; Euskaltzaindia gerra osteko lozorrotik ateratzea izan zuen zeregin horietan lehena.

Zeregin horretan lagun izan zuen Federico Krutwig getxoztar gaztea. 1941ean ezagutu zuten elkar eta gogoz heldu zioten arestian aipaturiko lanari. Azkuek, adibidez, Bizkaiko Diputazioko zenbait kiderekin harremanak izan eta gero, *Euskera* aldizkaria ateratzen jarraitzeko eta hiztegegintzan jarduteko baime-nak eta Euskaltzaindiarentzako diru laguntzak lortu zituen; horrez gain, hurren-go urteetarako lan-dinamika zehazten hasi beharra zegoela ere bazekusan. Horrenbestez, ekintza-egitarau bat burutzeko agindu zion Krutwigi, Euskaltzain-dia biziberritu eta euskararen aldeko kanpo-ekintza suspertu guran.



Azkue, Plaza Barrian.
Urteak geroago, bertara
eroan zuen egoitza
nagusia Euskaltzaindiak.
Argazkia:
Euskaltzaindiaren Azkue
Biblioteka.

Krutwig, gazte-gaztea izan arren, euskaltzain oso zen ordurako. Izan ere, euskaltzain batzuk hil zirelako eta beste batzuk erbestean zeudelako, 1941ean eta 1942an Krutwig bera ez ezik Ignazio Maria Etxaide, Nazario Oleaga eta Aingeru Irigarai ere bihurtu baitziren Akademiako kide.

Xabier Kintanaren arabera, Azkuek eta Krutwigek zuhur jokatu zuten garai hartan:

“Euskaltzaindia lau diputazioek sortutako erakundea zen, baina Francok atze-ranzko eragina zeukaten lege batzuk emanak zituen, Errepublika garaiko beste ba-tzuk baliogabetuta. Lege berriok zirela bide, eta inolako separatismorik egon ez

zedin, ezin zitekeen egon probintzien eta estatuen artean zegoen elkarterik; beraz, ez zen posible probintziarteko erakunde bat existitzea, eta Euskaltzaindia, lau diputazioek sortua eta diruz hornitua zenez gero, legez kanpo geratu zen. Hala ere, Estatua ez zen ausartu inoiz *‘Ez dago Euskaltzaindirik’* esatera; katakonbetan bizi zen, beste barik, bilerarik ere ez zen egiten. Euskaltzain batzuk erbestean bizi ziren. Egoerari buelta emateko eta euskararen eta euskal literaturaren ikerketan aurrera egin ahal izateko, Erregimenaren konfiantzakoren batzuk euskaltzain oso izendatzea otu zitzairen. Arrue izan zen aukeratutako lehena, *Asteasuko beltza*, faxista... baina euskaltzalea. Bileretara etortzen hasi zen eta parte politikoa pasatzen zion gero Erregimenari, baina Arrueren presentzia Euskaltzaindian, erakundearen iraupenerako bermea izan zen.”

Euskaltzaindiaren lanek gizartean oihartzun handiagoa izan zezaten, berriz, euskaltzain berrien sarrerak handikiro eta, ahal izanez gero, diputazioen jauregietan ospatzea erabaki zuten. Bilbon egin zen era honetako lehen batzarra, 1949ko ekainaren 25ean eta Diputazioaren jauregian, Juan Miguel Seminario de Rojas euskaltzain osoaren sarrera-ekitaldia zela kausa. Hona Nazario Oleaga Euskaltzaindiko idazkariak jasotako aktaren pasarte batzuk:

“Krutwig jaunak dino bere eritziz Euskaltzaindia zelanbaiten barriztu bear litakela, orain dagoan ta dabilen lez jarraitu ezkerro, euskerearentzat onura gitxi datorela-ta. (...) Aintzakotzat artu da Krutwigen asmo ori ta urrengo batzarrerako gai onezaz txosten bat ekarri dagiala erabagi da.

(...) batzarrari amaiera emon ondoren, ospatzen da andikiro Joane Migel Seminario de Rojas euskaltzain barriaren arrerea.

Gelako ateak zabaldurik, agertzen dira jai onetara deitutariko ainbat lagun, euren artean Bizkaiko Jaurlaria, Bizkaiko Ekauta-Burua, Bilboko Endorea ta beste agintari ta andiki batzuk dirala. (...)

Seminario de Rojas jaunak “Itz-barri sortea izkuntzetan eta batezbere euskerean” gaitzat artu-ta, itzaldi eder eta sakona irakurri eban.

Krutwig jaunak gai orrezaz ekinik, erantzun-itzaldi txalogarria irakurri eban.

Txalo ugari ta sutsuak egin ebezan entzuleak itzaldiok amaitu ziranean. (...)”

Pragmatismoaren bideak urratuta, beraz, euskarari kanpo-proiektzioa ematen saiatu ziren Euskaltzainditik. Beste maila batean izan arren, gauza bera egiten saiatu zen garai hartan Xabier Gereño ere. 1948an, barbarako, Bilbon euskara-akademia bat sortu guran ibili zen, eta hori zela kausa 15 egunez atxiki zuten espetxean. Hara zelan gogoratzen duen hori berak:

“Concha Jeneralaren kalean saiatu nintzen akademia zabaltzen. Larrinagako kartzelara eraman ninduten orduan. Bilbon ez zegoen garai hartan euskara irakasteko ikastetxerik; kale horretan, berriz, hizkuntzak irakasteko akademia zegoen eta hura euskara irakasteko leku aproposa izan zitekeela begitandu zitzaidan. Bertako nagusiarekin berba egin nuen (falangista zen), adiskidea bainuen, eta zera esan nion: *‘Hemengo gela batean euskarazko eskolak ere eman ditzakezu. Zer deritzozu?’* Ea nork emango zituen bota zidan berak, eta nik Xabier Peña aipatu nion, ezaguna



Areatzaraino sartzen ziren ontziak, zamaz gainezka sartu ere. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

bainuen (Seguros Bilbaotik ezagutzen nuen, hantxe ari baitzen beharrean). Peñarekin berba egiteko esan zidan. Elkartu ginen hirurok eta bat etorri ginen asmoarekin. Gero, ni kartzelatu egin ninduten hori zela-eta; akademia, aldiz, errespetatu egin zuten.”

Euskaltzaindiaren salbuespena kenduta, hortaz, lan izugarri nekeza zen garai hartan euskarari kanpo-proiektzioa ematea. Euskaldunak mikroklimara, esfera pribatuetan pribatuenera bizitzera kondenatuta zeuden; alegia, hutsaren hurrengo zirela hiri-paisaian. Baina... zelakoa zen orduko hiri-paisaia?

Herri usaineko Bilbo

Gaur egungo Bilbok zerikusi gutxi dauka ordukoarekin. 1940ko hamarraldian hasiberri zegoen oraindik industrializazioaren bigarren labealdi handia. Areatzako lorategietan, kioskotik gertu, hareaz betetako gunek bat zegoen eta umeak olgetan ibiltzen ziren bertan; aldameneko kaietan, berriz, itzela zen ontzien sartu-irtena: belaontziak, edo tximiniadunak, denetariko produktuak lehorrera-



Era guztietako produktuak lehorreratzen zituzten garabiek. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

tzen tamaina guztietako garabien laguntzaz, eta gabarra hutsak, edo ikatzez lepo zamatuak, gabarrak nonahi.

Xabier Gereñok gogoratzen duenez, adibidez, “nire haurtzaro eta gaztaroan itsasontziak Areatzaraino sartzen ziren; Pinillos konpainiaren ontziak Kanarietatik-eta etortzen ziren bananekin, Mediterraneotik ere bazetozen ontziak eta hantxe husten zituzten. Industria ere bete-betean ari zen, orain Euskalduna jauregia dagoen tokian ontziolak zeuden...”

Industria bete-betean ari zen... baina benetako eztanda oraindik iristear zegoen. Bilbotar adintsu askok ondo gogoratzen du, esate baterako, zelan garai hartan Bilboko itsasadarrean igeri egin zitekeen. Itsasadarra ez ezik, lehor-partea ere erabat desberdina zen. Iñaki Irigoienek zera gomutatzen du: “Zabalgunea amaitu barik zegoen oraindik. Oroitzen dut baserri bat Kale Nagusian (egun Eusko Jaurlaritza dagoen inguruan), Urkixo Zumarkalearen amaieran beste bat... Banakak ziren baina, Abando aldean jada kaleak eginda zeuden-eta (beste gauza bat da Deustun eta Errekalden-eta zelan zeuden bazterrak).”

Laster ikusiko dugu Errekalden zelan zeuden bazterrak. Hori baino lehen, ordea, beste kontu bat ekarriko dugu gogora: egun harrigarria dirudien arren, garai hartan txakolindegia eta baserri dezente zegoen hirian. Egundak Otxarkoaga eta Txurdinagako etxe-blokeak dauden lekuetan, barbarako, soroak ziren orduan nagusi, hasi Santo Domingon eta Santa Marinara arte: Artxanda, Santutxu, Begoña eta Ollerietagoiena, dena txakolindegiz, landaz eta baratzek beteta. Eta egungo Uriortun, bada, hori: ortuak nongura.

Eta, apur bat urrunduta, antzeko paisaia zegoen Deustun: etxeak, banaka batzuk, eta udaletxea eta eliza. Tomate-sailak bai ugari, baita ganadua ere, oraindik normala baitzen behiak hirian atzera eta aurrera ikustea, normala zen moduan baserritarra idi parearekin zerbait garraitzen ikustea, edo astoarekin, ortuariak eta esnea partitzen.

Hiri horretan, txakolindegia ez ziren exotikoak, txakolindegietan euskara arrotz ez zen moduan (bertsolariak ere tarteko izaten zirelako, besteak beste; Mahatserrian, adibidez, gogoan dituzte oraindik Beheko Etxeko Agirre familia-koak, elkar zirikatzen, bertsoak lagun elkarri adar-joka).

Euskara, beraz, ez zen arrotz hiri hartan, baina non zeuden euskaldun-gune handienak? Iñaki Gamindek urteak eman ditu bilbotar euskaldunen euskara aztertzen. Berak dioenez, hiru ingurune dira bereziki azpimarratu beharrekoak:

“Jasotzen ditugun materialak hiru zonalde nagusitan bilduak izan dira; batetik, Buia aldean, zonalde honetan jatorrizko euskaldunak Buian, Buiagoitin, Seberetxen eta Irustan aurki daitezke. (...)

Begoñako antzinako elizatearen lurraldean Otxarkoaga, Arbolantxan, Santo Domingon eta Azkarain aurki ditzakegu jatorrizko euskaldunak, inguru honetan geratzen diren baserri batzuetan gazteek ere bertako euskara dakite (...).

Azkenik, Abando elizatearen eremuan, Larraskitun, San Juston, Bentabarrin eta San Roken ezagutu ditugu bertako jatorrizko euskaldunak.”

Ander Manterola 1957 inguruan abade bidali zuten Cortes aldamenera. Hara zelan oroitzen dituen garaioak:

“Jende ona ikusi nuen inguru hartan. Baita lehenengo euskaldunak ere, bertan jaiotakoak! ‘Eta zu nongoa zara bada?’, galdetzen nienean, ‘Hemengoa’ erantzuten zidaten. ‘Eta ama?’, ‘Hemen bertokoa.’ Larraskitu ondoan zegoen, eta hor baziren euskaldunak. Behin Manu Robles Arangizekin egon nintzen eta esan zidan, Larraskituren gainean: ‘Nire gazte denboran auzune hori dena euskaldunez josita zegoen!’. Uste dut orain atzera bere senera etorriko dela hori. Uste dut.”

Iñaki Gaminde Larraskitu azpian jaioa da, Errekalden, eta berak dio betidanik entzun izan duela han euskara. Zera ere gaineratzen du:

“(...) geroago hain herritar egin den Olentzeroa baino lehen, Bizkaiko herri askotan lege, Larraskitun ere, Urtebarritan eskean urteten zuten umeek; hemen kantatzen zen kantuan erdera eta euskera biak nahasten ziren; hona hemen Santa

Larizgoitiaren bertsinoa: *Agilando retxilendo / con la muerte San Miguel / San Miguel está en la puerta / con su monterita puesta // Emen gatos lau / kanpana joten bi / emoixu limosnie / jangoikoeiti.*”

Garai hartan ez zegoen ezelako garraiobide publikorik bazter haietara heltzeko. Urteak geroago, 1961eko abenduan, Errekaldeko plazara arte iristen zen trolebus linea bat jarri zuten (laugarrena, hain zuzen; geroago, Gordoniz kale amaierara arte ere heldu zen, eta, urteen buruan, baita Peñascalera ere). 1940 inguruan etxe-talde txiki batzuek osatzen zuten auzoa (Uretamendi eta Peñascal geroago jaio ziren, txabolak loratzearekin batera), eta 7.000 lagun inguru bizi ziren bertan. Ia inork ez zeukan bizikletarik, eta etxeetan ez zegoen dutxarik: jendea ezkaratzeko harrian bertan garbitu ohi zen, edo balderen bat baliatuta bes-tela. Dutzatu gura izanez gero, Errekakoetxe kalera arte joan beharra zegoen, han, La Concha ikastetxean, bainugela publikoak zeudelako.

Euskarari dagokionez, hara zer dioen 1932an jaiotako Carlos Palacios Errekaldeko semeak:

“El euskera, el que lo conocía, no lo hablaba ni en casa. ¿Habría en todo el barrio unas 30 personas que lo conocían en el año 40? Lo dudo. (...) En el aspecto lingüístico esto era catastrófico. Terminó la guerra y en la escuela no había nin-



Donibane plazatxoa, 1949: hiria burua altxatzen hasia zen hamarkada amaitzearekin batera.

Argazkia: *Vida Vasca.*

gún profesor que hablara euskera. Todos eran gallegos o castellanos. En el barrio los que hablaban euskera no lo hacían. Había temor a las consecuencias. También es verdad que lo hablaban muy pocas personas naturales del barrio. Jóvenes nacidos en mi época, sabiendo los padres la lengua los hijos no lo hacían. Había terror a las consecuencias.”

Errekaldeko beste seme batek, Iñaki Gamindek, zera dio Errekalde/Larras-kitu eremu horri buruz: “Alderdi honetan gerragaz batera euskararen transmisioa eten zela esan dezakegu, dagozen euskaldun horiek denak gerra aurrekoak dira; bestalde, familia berean, neba-arreben artean, gerran edo beronen ostean jaio-koak guztiz erdaldunak dira.”

Lehen ikusi dugu zelan Gamindek Bilboko beste inguru bi ere euskaldun zaharren habiatzat jotzen dituen: Begoña aldea (Mahatserria), batetik, eta Buia aldea, bestetik. Errekaldeko hizkuntzalariak zera dio euskaldun horien soslai soziologikoaz: “Nik topatzen izan ditudan euskaldun guztiak nekazari eta base-rritar girokoak izan dira, atzen urteokin gehienak pisuetan bizi badira ere. Giro horretan, euskarak iraun duen artean, beronek familia eta baserri barruko funtzioetarako baino ez die balio izan.” Eta noski, baserri-giro hori desagertzen joan zen heinean, euskarak berak ere atzeraka egin zuen... Arbolantxako Karmelo Elorriagaren lekukotza honek ondo ilustratzen du esan berri duguna:

“Inguru hau guztia beti izan da oso euskalduna. Nahiz eta orain dena oso nahas-tuta egon, baserri hauetan beti egin izan da berba euskaraz. Beste baserri batzue-tan, Lozoño baino beherago, gerra ostean Santander aldeko jendea etorri zen eta hori zela-eta ez zen horrenbeste euskara egiten. Jakin bazekiten, baina gutxitan egi-ten zuten. Bai Txurdinagan bai Otxarkoagan baserri on-onak galdu dira.”

Ikusitakoak ikusita, arestian esanikoa errepikatzea besterik ez zaigu gera-tzen: baserri-guneak baziren euskararen Bilboko azken gotorlekuak, berauek galtzearekin batera euskara ere hiritik desagertuz zihoan.

Eskola, euskaldunen autoestimua-ren etsai

Mikroklimatik, esfera pribatutik kanpo, Bilboko euskaldunek erdi lotsatuta (non eta ez guztiz lotsatuta) bizi behar izan zuten euren euskalduntasuna. Garai hartan beldurra zela nagusi aipatu digu gerra aurrean jaiotako Iñaki Irigoien bil-botarrak:

“Gerra amaitu eta segidan ni eskolan hasi nintzen. Gure eskola-giroan euskara guztiz galarazita zegoen. Beldurra zen nagusi. Ezagutu dut nik jendea (eta ez orduan, geroago baino, 1960ko hamarkadan jada) etxean gordetako *Txistulari* aldizkariaren gerra aurreko zenbakiak erakusteko ere beldur zena... Eskolak erdal-dun hutsak, frankista hutsak ziren... Nik izan nituen maisuak, eskola publikoan, pentsa zelakoak ziren... Ezagutu nituen senar-emazte batzuk, abertzaleak, baina

kanpo utzi zituzten. Pentsa zelakoak ziren geratzen zirenak. Gero, batxilergoa zegoen; Bilbon, Bertendona kalean baino ez. Hara joaten ziren bai fraileetakoak, bai mojetan ikasitakoak, jesuitetakoak, publikokoak...

Euskara-kontuan, niretzako, lehenengo beharra izan da beldurra kentzea. San Nikolas parrokian abade bat hasi zen lehenengo gauzak egiten, umeentzako eskolak ematen, legeztatu barik. Lehenengo legeztatu zena Elkano kaleko ikastola izan zen. Beste guztia legetik kanpo egin zen, ahal ziren zirrikitu guztiak baliatzen. Nire ustez garrantzi gehien horrek eduki du: ez inork emandako legeak, geuk sortutako legeak baino.”

Zirkuitu ofizialetatik kanpo geratzeak, bistan denez, baliagarritasuna kentzen dio hizkuntzari, eta hiztunak bizkor asko jabetzen dira horretaz. Prozesu horren hurrengo kate-mailak hizkuntzaren atzerakada eta euskaldunen autoestimugalera dira. Agurtzane Elorduik jakinarazi digunez, barbarako, Pantxike Urruti-koetxea bere amamak (Loiuko alaba bera) Erriberako Azokara bendeja saltzera joatearen poderioz ikasi zuen zekien erdara apurra (XX. mende amaieran hil zen, 96 urterekin).⁴¹ Bere semea, oster (Agurtzaneren aita), euskara ikasgeletan



Moyua plazaren ikuspegia, 1945. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

⁴¹ Agurtzaneren amamarena ez zen kasu bakarra; zera irakurri diogu, adibidez, Iñaki Gaminderi: “Badakigu, kasu baterako, Basurtun egiten izan den ganadu azokan, edo Erriberako plazan, batez ere, Txorierriko bendejerek oraintsura arte euskara baino ez dutena egiten izan.” Alfonso Irigoienek ere zera utzi zigun idatzirik: “Basurtuko feriak ere fama handia zuen bazterretan eta euskaldun asko agertzen zen bertara.”

eta mundu modernoan balia zitekeela ezin sinetsita zebilen alaba unibertsitate-an eskolak ematen hasi zitzaionean...

Iñaki Irigoienek arabera, dena den, azoketan ere ez zen euskara lar entzuten:

“Ni Basurtun jaioa naiz, eta han *la vasca* esaten zioten emakume bati, euskalduna zelako. Euskaraz egiten genuenak lauzpabost baino ez ginen auzo guztian, eta geuk ere ez genuen gehiegi erabiltzen kalean... Nik euskara gehiago ikasi dut aita eta amaren baserrietan. Egia da Begoñan, Larraskitun, Arbolantxan eta inguru horietan bazeudela euskaldunak, bilbotar azken euskaldunak, baina hor ere (orduan behintzat) erdara zen nagusi. Euskaldunak eurak ere euskaraz egiteko... kontuz.”

Basilikak ez ezik, Moyua plazatik zetorren tranbiak, mahastiek eta mailuki-sailek famatu zuten orduko Begoña aldea, baina baita han egiten zen erromeriak ere. Bertako seme Manolo Leginak makina bat urte egin ditu eskusoinuarekin inguruak alaitzen, erromeriak Begoñan ez ezik Artxandan, Deustun (bertako San Jose jaietakoa zen askorentzat inguruko handiena) eta beste hainbat bazterretan ere izaten baitziren.

Iñaki Irigoienek ustez, dena den, erromeria-kontua dezente bajatu zen gerra ostean:

“Erromeria arloan ez zegoen gehiegirik. Nik ezagutu dudana denboran musika-banda eta txistulariak sekula ez dira falta izan. Hori izaten zen orduko erromeria. Beharbada auzoren batean gehiago... Orduan auzo bakoitzak bere jaiak izaten zituen: Santimamik, Basurtuk, Indautxuk... Jai-batzorde horiek antolatuta, aurreku eta fandango txapelketak egiten hasi ziren, 1950eko hamarkadan jada eta beti ere legearen zirrikituak baliatuta.”

Izan ere, euskarari eta identitateari zelan edo halan eutsi guran zebiltzanak, zerbaiti heldu behar eta, folklorean aterpetu ziren garai hartan. Irigoienek arabera, gerra ostean Bilboko Dindirri taldea aitzindari izan zen alor hori jorratzen:

“Folklore mailan ez zen etenik izan, beti jarraitu zuen kontuak. Beste gauza bat da sortzea Euskal Herriko dantza guztiak dantzatzen dituen talde bat. Gerra aurrean Elai-Alai eta Eresoinka-eta folklore arloko ikuskizunak egiten hasi ziren. Dindirri Bilbon hasi zen ildo hori lantzen. 1944 edo 45ean izan zen bere lehen agerraldia. Bilboko gaztedi taldeetan ibilitako jende bat hasi zen berotzen, baina orduan taldea legeztatzea arazo zen. Horretarako bide desberdinak zeuden; baziren parrokiak, eta beste bide batzuk ere bai: kasu honetan, Bilbon abesbatza bi zeuden (Zabalgunekoa Abesbatza eta Bilboko Abesbatza), eta eurentako baten aterpean legeztatu zen Dindirri (Zabalgunekoaaren aterpean, hain zuzen). Bere dinamika propioa zeukan, ez zen abesbatzarekin ibiltzen, baina legeztatzeko ordua heldu zenean eurengana jo zen. Gero, handik Bilboko Abesbatzaren aldamenera pasatu ziren, eta gero, bata eta bestea utzi eta geure kasa ibili ginen (neu ere tar-tean nintzen-eta) urte askoan. Inork ez zigun ezer esaten, baina geroago Polizia gutariko bakoitza nor zen eta zertan zebilen pertsonalki aztertzen hasi zen. Gutariko biri debekatu egin zieten taldean jarraitzea. Lokal bat erosi genuen handik

gutxira eta, taldearen azken denboretan jada, San Juaneko parrokiaren aterpean legeztatu ginen.”

Dindirrikoek-eta euskal kultur ondaretik edaten zutela, ez dago horren dudarik, baina... zein hizkuntzatan egiten zuten berba? Irigoien argi mintzo zaigu: “Euskaldun gutxi ginen taldean, banakak, %10 inguru. Gero ni Txinpartak-era pasatu nintzen, eta han desberdina zen kontua.” Txinpartak-i buruz hurrengo atalean egingo dugu berba; oraingoz, argi dagoena da 1940ko hamarraldian, mikroklimak mikroklima eta gainerako ahaleginak gorabehera, euskara gainbehera nabarmenean murgilduta zegoela hirian, transmisioa etenda, erabilera-eremu barik eta hutsaren hurrengo prestigioa zeukala. Eta Agurtzane Elorduik bere doktorego tesian dioenez:

“Hizkuntza meneratuen prestigiorik eta erabilgarritasunik ezak hainbat ondorio soziolinguistiko eragin ditu. Lau ezaugarri dira ondorio soziolinguistiko aipagarrienak: gizartearen hizkuntza txikiak jasaten duen ordezkatzeko gradualak sortarazitako hiztun talde moeta ezberdinak, jokaera garbizalerik eza, hizkuntzaren erabileraren murrizketa eta transmisio linguistikorik eza. Gure ustez, (...) bereziki azken bi hauek, alegia, hizkuntzaren erabilerarik eza eta transmisio linguistikorik eza dira hizkuntza baten erabateko hiltzearen erakuskari aipagarrienak.”

Hizkuntza behea jotzear zegoela, azken batean. Hamarraldiak aurrera egin ahala, ordea, baserri-inguruetako esfera hiperpribatuetan ez ezik esfera publiko-ago eta jasoagoetan ere agertu zen euskara; horri dagokionez, erabakigarria izan zen Euskaltzaindiaren jarduna, dela Erribera kalean zeukan egoitzak bilgune-funtzioa bete zuelako, dela Akademiak euskarari bere prestigioa itzultzeko dezenteko lana egin zuelako. Hona adibide esanguratsu bat: euskaltzain oso izendatua izan eta urteetara, 1950ean, Federiko Krutwigek, orduan harrigarria bazen ere, euskaraz irakurri zuen bere sarrera-hitzaldia. Gaia ere ez zen edozelakoa: kultura-hitzak euskaraz zelan eman (ez baserririk ez folklorerik, beraz). Euskaltzaindiaren berpizte-dinamikaren atariko urteak ziren. Berpizte hori 1950eko hamarraldian gauzatu zen bete-betea eta eragin zuzena izan zuen Bilboko euskal giroan.

VII. 1949, Cantalojas zubia: Talgo = hazkundera

“Illero-illero 600 bat sartzen dirala Bilbo’ra (...). Extremadura, Andaluzi, Jaen... geiena ematen dituztenak. Lengo urtean, 1957’an, 4.089 sartu omen ziran.

Meategiak beraka ta erreka bazterrak goraka. Orixe ber-bera zan gertatzen ari zana. Bereala Bilbo’ko erreka ertz guztia lantegiz bete zan. Bizkai’ko industri geiena antxe dago bildua. Ango burni otsa ta kea. Eta, jakiña, gose dan gizonak norabaitera jo bear.”

*(Illunbe, 1959ko urtarrilean,
Zeruko Argia-ren 61-62 zenbaki bikoitzean)*





Vista de Bilbao, 1950eko hamarkada. Saturnino Canales.

1949ko abenduaren hirugarrenean, larunbatarekin, jende-aldra itzela bildu zen Cantalojas zubian goizeko zortzietarako. Zubia ez ezik, Garcia Salazar eta San Frantzisko kaleetako balkoiak ere gainezka zeuden. Proba-bidaian Pasaia eraan behar zuten Talgo tren ospetsua ikustea zen han bildutako guztien xedea. Renferen Olabeagako lantegietan zeuden hiru makinetatik probatuko zuten lehenena zen. Abandoko geltokitik atera eta, agindutako moduan, zortzi eta erdiak aldera pasa zen Cantalojastik.

Itzel famatu zuten garai hartan Talgoa: batetik, berau asmatu zuen Alejandro Goikoetxea ingeniaria (gerra garaian Bilboko defentsaren planoak frankistei pasa zizkien berbera) Erregimenaren aldeko gizona zelako; eta, bestetik, tren



Cantalojas zubia, 1950eko hamarkada. Jende ugari bildu zen bertan 1949ko abenduaren hirugarrenean, tren berria ikusteko asmoz denak ere. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

berriak burua altxatzen hasia zen Espainia irudikatzen zuelako. Ezen II. Mundu Gerran neutraltasunari eutsi izanari esker, industriak dezenteko gorakada nozitu baitzuen; baiki, eskasia-garaiak atzean geratzen hasiak ziren, hamarraldi hasieran errazionamendu-liburuxkak artean indarrean zirauen arren.

Neutraltasuna aipatu dugu lehen faktore erabakigarri modura, baina bada horrekin batera aipatu beharreko beste bat ere: Gerra Hotza, egoera geopolitiko berriak Francoren diktadura komunismoari aurre egiteko bidelagun ezinbesteko bihurtu baitzuen Mendebaldeko potentzientzat. Aurreko atalean ikusi dugu zelan Espainia 1952an UNESCOn eta 1954an NBE-n onartu zuten; 1959an, berriz, Franco eta Eisenhower elkarrekin paseoan zebiltzan Madrilén.

Horrek guztiak, bistan denez, mesede handia egin zion Madrilgo gobernuaren egonkortasunari; oposizioko indarrak egonkortasun hori hankaz gora jartzen saiatu ziren 1951ko apirilaren 23 eta 24an Bizkaian eta Gipuzkoan izaniko greben bitartez, baina saio horrek errepresio gogorra ekarri zuen erantzun modura, 2.000 lagunetik gora atxilotu zituzten-eta.

Nazioarteko aldeko haizeak lagun, beraz, gorako bideari ekin zion ekonomiak ere. Garai hartan eraikitako azpiegiturak esanikoaren froga argi dira: Deustuko ubidea edo Erakustazoka bera, esate baterako. Eta hazkundeak, azpiegitura horiez gain, komunikabide berriak ere eskatzen zituen: horregatik hain zuzen, portuan ontzien sartu-irtenak itzela izaten jarraitzen zuen arren, Talgoa ekarri eta aireportua ere orduantxe eraiki zuten (egin kontu 1950eko urtarrian terminala altxatzen zebiltzala Sondikan).

Abiada hartuta aireratzen hasia zen hiriburu baten ikurrak ziren horiek guztiak. Horrek isla zuzena zeukan demografian (udal erroldaren arabera, 229.334 biztanle 1950ean eta 297.942 1960an), baina kontu xumeagoetan ere nabaritzen zen aldaketa: hamarraldi erdian zinemascopea eta soinu estereofonikoa



Sondikako aireportua, 1955. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

heldu ziren zinema-aretoetara (Ayala Antzokira lehenengo, Coliseo Albiara gero, Ideal Cinemara hurrena); etxeetara, berriz, butanoa, estreinako ikuzmakinak, presio-lapikoak...

Aldaketa horiek industrializazioak hartutako indar berriari zor zitzaizkion; berau zen, halaber, itsasadarraren narriadura etenbakoaren eta Bilbora iristen ari ziren etorkin-oldeen erantzule nagusi ere. Nonbait kokatu behar eta, oldeok ahal zuten moduan barreiatu ziren: Artxandako aldapak, Abandoibarra, Errekalde... Azken auzo horretan, adibidez, 7.000 lagun bizi ziren 1946an; 1965ean, berriz, 60.000 ziren. Iturrigorri-Peñascal, Uretamendi eta Betolatza txabolaz bete ziren; dena zegoen hankaz gora, ez baitzen ezelako plangintzarik tartean. Eta Errekalde behintzat gaitz erdi, beste auzo batzuetan ez bezala bertako auzokideek, asko borrokatu ostean, Administrazioa oinarritzko zerbitzuak jartzera behartu zutelako.

Etorkin-oldeek hirigintzan ez ezik hizkuntzaren egoeran ere eragin zuten, euskararen gainbehera-prozesua areagotu egin baitzen kinka berriarekin. Eta noski, kezkatu egin zen euskaldun-jendea. Iñaki Irigoienek bertatik bertara bizi izan zuen memento hura. Bere ustez, aldaketa garrantzitsua gertatu zen orduan:

“Horren eraginez batzuk hasi ziren etorri berriei zeharka begira, *coreano* deika... Eztabaida handiak izan ziren, nor zen euskal herritar eta nor ez zehaztu guran. Gerra ostean nik ezagutu nituen batzuk esaten Valentziako laranjarik ez zutela jango eta horrelako pitokeriak. Diskurtso aldaketa etorri zenean, esanez hemen lan egiten zuten guztiak euskal herritar zirela, hori eztabaida hori gainditu egin zen, gazteen eraginez batik bat. Sabindar ideiak atzean utzi genituen, herri moderno eta normal baterako jauzia emanda.”

Edozelan ere, kinka berriak are gehiago sakabanatu zituen lehendik ere nahi-ko atomizaturik zeuden Bilboko euskaldunak. Gainera, lantegi berrietan jarduteko ezinbestean gaztelania jakin beharra zegoen. Agurtzane Elorduik Basaurin jasotako lekukotza, konparazio batean, argigarria da: “(...) eta biar egiteko erdera egin biar, jende erdaldunagaz berba egiteko, ze gu geuriegaz ezin zen (...) baina obligau, obligau, biarrak obligau euskun erderaz egiten (...)”

Baserriko bizimoduaren gainbeheraren ondorioz, bestalde, ordura arte nukleo euskaldunetan bizi ziren askok Bilbo edota bere aldiri erdaldunduetara alde egin behar izan zuten, han eurak ere erabat erdaldunduta (euskarak ez zien ia ezertarako balio euren bizileku berrian). Agurtzane Elorduren aburuz

“Bizkaiko hegomendebaldearen kasuan oso argi ikus daiteke fenomeno hau. Izan ere, hiztunekin izandako elkarrizketek erakusten digute garai hartako euskaldun jendeak ez zuela ikusten bere amahizkuntza bizimodu berri, moderno horretan erabilkor izan zezakeenik. Industrian nahiz etxagintzan sortu ziren lanpostu gehienak lortzeko ez zegoen euskararen inolako beharrik. Aitzitik, gaztelera beharrezkoa zen industria munduan lana lortu ahal izateko.

Industrializatzeak, beraz, beheko eta goiko hizkuntzen arteko bereizketa sendotu zuen eta euskarak berez zituen ezaugarri deskalifikatzaileak areagotu zituen. (...) euskara gizartearen iritzi orokorrean boteregabeko, prestigiorik gabeko eta bizitza modernorako baliogabeko hizkuntza bihurtu zen. Gaztelera, berriz, hizkuntza bote-redun eta prestigidun gisa ezarri zen.”

Haatik, aurki orok ifrentzua berezko ei duela-eta, euskararen inguruko lilura erromantikoa areagotu zuen bere egoera kaskarrak. Erregimena askatasunaren etsai bazen, askatasun-ikur bihurtu zen euskara jende ideologizatuenarentzat; alabaina, gainerako hiritarren artean (eta hauek osatzen zuten gehiengoa) hizkuntza horrek ez zeukan ez prestigio ez praktikotasun izpirik. Are: Bilboaldeko euskaldun asko euskaraz jakiteaz lotsatzen zen. Esanguratsua da, adibidez, Elorduik Basaurin jasotako lekukotza hau: “(...) eta zure amak eta zure tiak ez iban ikasi euskararik ze guri ez euskule izten euskararik egiten, galazo egiten euskuen eta lotsatu egiten ginen eta beti erdera (...)”

Hori guztiori, dena den, intrahistoriari dagokio. Letra larriz idatzitako Historian euskarak zeukan lekuari gagozkiola, hara zelan deskribatu zuten garai hartako politika ofizialaren bilakaera ELA-Berri-koek:

“La *tolerancia* oficial hacia el euskera, en la escuela privada, la radio o el teatro, los bertsolaris, la creación de cátedras y escuelas de Declamación Vasca, la autorización para la impresión de libros y revistas, la famosa orden Ministerial de Marzo de 1951, tratan de camuflar posiciones intransigentes. Entre 1940 y 1955, el euskera pasó, de criminal adversario de la lengua del *Imperio* a *ese tesoro precioso que debemos conservar*.”

Egia da: laster ikusiko dugu zelan ugaltu ziren apurka-apurka hamarkada honetan euskarazko antzerkiak, kazetak, liburuak, ikastaroak, bertso-saio eta abarrak. Hala ere, politika malguago hori ez zen nahikoa asko eta askorentzat. Hori zela-eta, Bilboko ikasle-talde batek Ekin ezkutuko talde abertzalea sortu zuen 1952an. Denok ezagutzen dugu, gutxi-asko, haren ondorengo bilakaera. Askoz gutxiago dakigu, ordea, euskarak garai hartan Bilbon izaniko piztualdiari buruz.

Heriotzak, ihesak eta susperraldiak

Resurreccion Maria Azkueren bizkarrezurra ez zen nabarmen okertzen hasi lekeitiar bilbotartuak (63 urte eman zituen Bilbon) 80 urteak pasa zituen arte. Hala eta guztiz ere, gizon tematia izaki, domeka arratsaldero Campo Volantin pasealekuan zehar Indautxu aldera joaten zen, han bizi zen beste abade zahar batekin berriketan jardun eta musean jokatzera. Gustuko zuen Ibaizabal aldamentetik ibiltzea, ibai ertz-ertzetik. 1951ko urrian, ordea, gau lehenean Euskaltzainditik etxerantz zihoala, Arriaga antzokiaren alboan ibaira jausi, hango ur zikinak



Azkue, Hanburgorako ontzia hartuta.
Argazkia: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

irentsi eta horrek eragindako beherako itzelak jota hil zen handik aste batzuetara, 87 urte zituela.

87 urte, urte asko dira. Alfonso Irigoienek gogoratzen du zelan ordurako “burua pixka bat galduxea zuenez gero bere urte luze haietan, lehenago galdeturikako gauza berbera galdetzen zuen handik laster eta gazte denborako gauzak kontatzen zituen.” Irigoien bera, ordea, sasoi betean zen orduan eta makina bat saltsatan sartuta zebilen. Arestian aipatu dugun Ekin-en edota Azkuek gerra ostean Krutwigekin batera susperturiko Euskaltzaindian, esate baterako.

Akademiarik dagokionez, 1952ko maiatzaren 23an Luis Villasantek euskaltzain oso modura zegokion sarrera-hitzaldia egin zuen Bilbon, Aldundiaren jauzian, eta Federiko Krutwig izan zuen erantzun-emaile. Krutwigek erantzunean esanak ez ziren denen gustuko izan, elizaren eta orduko agintarien jokamoldea gogor salatu baitzituen; hori zela-eta, ihes egin beharrean izan zen. Ozta-ozta egin zuen hanka, irailean bera kartzelatzeko autoa eman baitzuten argitara.

Krutwig ihes eginda, Azkue eta Urkixo hilda (deustuar euskaltzale handia ere 1951n zendu zen)... Bada, paradoxikoa dirudien arren, orduantxe suspertu zen erabat Euskaltzaindia, eta horretan zerikusi zuzena izan zuen Alfonso Irigoienek egindako beharrak. Esana dugu, baina, saltsa askotan zebilela Alfonso. Haren anaia Iñakik kontatu digunez, barbarako, 1950ean euskara-eskolak ematen zebilen, akademia batean. Akademia horretan eginiko saiakeran, 1948an Gereñok izanikoa baino zori hobea izan zuten:

“Gerra ostean Bilbon eman ziren lehenengo euskara-eskolak akademia batean eman ziren, Ibañez de Bilbao kalean, Itsas Komandantziaren parean, aurreratxoago, Xabier Peña irakasle eta Alfonso laguntzaile zirela. Ni eskola haietara joan nintzen. Akademia hartan euskaraz gain beste irakasgai asko ematen zituzten. Gereño ere hantxe zebilen. 1950ean zen, nik hamabost urte nituen-eta. Hiruzpalau klase izango ziren, gutxi gorabehera 60-70 lagun guztira. Badakizu, bestalde, frankismoan euskal erakunde guztiak kendu zituztela (Jaurilaritza, Eusko Ikaskuntza...) bat izan ezik: Euskaltzaindia. Arrazoia: bai Donostian bai Bilbon buru zeuden euskaltzainak karlistak zirela, eta gainera Esteban Bilbao ministro frankistaren lagunak. Euskaltzainburua bera ere, Azkue, ez zen aberzale sabindarra izan. Kontua da Euskaltzaindia ez zutela itxi, eta Erribera kalean pisutxu bat geratu zen bere esku. Hantxe geratu zen Azkue, liburutegiaren kargu, ondare hura zaintzen. Hil zenean, euskara-akademia haraxe pasatu genuen, Euskaltzaindiaren babespean, eta Xabier Peñak hantxe jarraitu zuen bere euskara-eskolekin.”



Federiko Krutwig.

Argazkia: Euskomedia fundazioa.

Orduko beste eragile handi batekin egin dugu topo honenbestez: Xabier Peña tolosar bilbotartuarekin, alegia. Gerra zela-eta erbestean izan ostean, 1946an heldu zen Bilbora eta Seguros Bilbao-n hasi zen beharrean, bere anaia Xeberekin batera. Handik gutxira euskara-eskolak emateari ekin zion. Hara zelan kontatzen zuen berak hori:

“Aldi aietan, esan bearrik ez, estutasun larritan aurkitzen zan gure izkuntza, leize-zulo ilun batean sarturik zegoen. Utsune negargarria nabaitzen genduan euskaltzaleok... Laister ezagutu nituan gazte batzuk, euskera ikas-nairik egarriak erreta. Aien zintzotasuna ikusirik, nola ukatu nere laguntasuna? Ez zan, ez, erreza izan asiera ematea. Adiskide batzuen ustez, arrisku handiko arazoetan sartzen nintzan; beste zenbaiten ustez, berriz, alper-alperreko zeregina zan... Baiña asi giñan, asi, ta ondo asmatu ere. Orduko sei-zortzi ikasle aiek, orra orain millaka biurtu, bai ume bai nagusi...”



Behin 1936ko gerra amaituta, egoitza honetan ekin zion Azkuek Euskaltzaindia biziberritzeari. **Argazkia:** Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka

Peñak hainbat tokitan jardun zuen eskola-ematen. Hasierako akademia hartatik Erribera kaleko egoitzara igaro ziren 1952an, eta urte asko eman zituzten bertan. 1954ko irailean, bestalde, ikasturte hartatik aurrera ikastaro hari *R. M. Azkue katedra* izena ematea onetsi zuen Euskaltzaindiak. Hortik aurrera, Eusebio Erkiaga ere batu zitzairen Peña eta Irigoieni; hauek, klaseak emateaz gain, hitzaldiak ere eskaintzen zituzten lantzean behin.

Gerra osteko Bilboko lehen ikastolako estreinako andereñoak, Maria Angelles Garaik, ondo gogoratzen ditu ikastaro haiek:

“1954an hasi nintzen alfabetatzen; arratsaldeko orduetara helduz, astean hiru orduz ikasten neban, Xabierren eskolara astelehen, eguazten eta bariku arratsaldeetan joanda.

Uda sasoiari, Erribera 6an Euskaltzaindiak eukazan lokaletan, ikastaro beteagoak emoten ziran. Egia esateko, udaldian egindako ikastaldiak bestelakoak izaten ziran, ezbardinak, bai ikasleon ahaleginagatik eta baita egiten zan ariketa kopuruegatik be.

Oraitxe gogoratzen nazanez, adibidez, Orixeren *Euskaldunak* izan zan uda baten irakurteko eta irazkinak egiteko erabili genduan liburua; guretzat ez zan bat be erreza material hori. Peñak dana errezten eban; gatx eta ezinezkoa zirudiena, azkenerako atsegin egiten jakun.”

Peñak, horrez gain, *Euskal irakasbide laburra* euskara ikasteko eskuliburua ere argitaratu zuen 1958an. Harrera bikaina izan zuen eta milaka ale saldu ziren. Eskolek eurek ere jarraitzaile ugari zituzten (100 lagun inguru urtero). Urriko lehen igandean Urbiara joaten ziren beti ikasle eta irakasleak. Ikastaro amaieran, berriz, txango bat egiten zuten, euskaraz ikasten ari ziren beste bazter batzuetako lagunekin biltze aldera.

Liburu hasieran Azkuerekin berbetan ezagutu dugun Mikel Arrutza ere, bestalde, ondo koskorturik jada, euskara-irakasle zebilen ordurako: 1950ean ekin zien euskara-eskolei Bilbon, Poza Lizentziatuaren kaleko 4.ean zeukan etxean (aldikada batean Gerrikogin kaleko pisu batean ere aritu zen eskolak ematen; Oteiza ere handik ibiltzen ei zen, Krutwig ateneo bat osatu guran baitzebilen bertan). Bere taldeak ez ziren, ordea, Peñarenak bezain handiak.⁴²

Erribera kaleko egoitzan, bestalde, Txinpartak antzerki-taldeak ere egin zuen habia. Hara zer idatzi zuen horretaz Alfonso Irigoienek:

“Haiek haseran Deustuko Unibersitatean profesore zegoen eta oraindik dagoen Aita Jose Urrutia jesuitarekin harreman hestua zituzten, eta denok bat egin genduen. Herririk herri teatro erraz eta arin bat egiten zuten euskal kantekin batean eta orduan besterik ez zegoenez gero arrakasta handia izan zuten eta bultzada sendoa eman zuten. Ni ere sarri joaten nintzen haiekin.

Talde haretan Ziarsolo anaieak (...), Robles Arangiz neba-arrebak, ene anaie biak, Arrate neba-arrebak, Jeronimo Zaldunbide (...), Lide Torrontegi (...), Uzkanga ahizpak, Gabilondo ahizpak, Garai ahizpak, Ajuria ahizpak, eta abar zeuden. Manuel Ziarsolo aitak ere izkribu bat edo beste prestatua zuen. Geroago Gallastegi anaieak ere Irlandatik etorririk bertan sartu ziren eta, hainbat urte iragan ondoren gorabehera batzuk gertatu ziren batzuen eta besteen artean eta azkenean taldea Euskaltzaindiaren etxetik atera zen. Batzuk atzerriratu beharrean ere aurkitu ziren.”

Lagun askok, 30 inguruk osatzen zuten taldea, baina bertako kide izaniko Iñaki Irigoienek esan digunez, hura “ez zen euskarazko antzerki hutsa”, zerbait gehiago egiteko asmoa baitzeukaten: “Abesbatza, dantzak eta euskarazko pasartetxo batzuk uztartzen zituen ikuskizuna zen gurea.” Irigoienek esandako moduan, Manu Ziarsolo *Abeletxe*-k idazten zizkien pasarte horiek, bizkaieraz

⁴² Mikel Arrutza 1966an hil zen, 66 urte zituela, hainbat egunkari eta aldizkaritan lan mordoa idatzi ostean (1936ko gerra baino lehen, gainera, euskara ikasteko eskuliburu bi ere argitaratu zituen).

idatzi ere. Taldearekin dezenteko harremana zeukan Gabriel Arestik, aldiz, artean egiteke zegoen baturantz lerratzeke esaten ei zien.⁴³

Garairik onenetan 40 emanalditik gora egiten zituzten urtean; 1956an *Anaitasuna*-n ziotenez, “guk pozik estudiantuko geunke obra oso bat Bilbon edo erri aundi batean emon al izan ezker. Orainarte errietatik zear ibili gara eta gauza laburrak egin izan doguz, kantu ta dantzak nasturik, erritar askok oiturarik eztauelako goragokoak entzuten”.

Herrietan ez ezik, Bilbon ere ibili ziren ordea, *Anaitasuna*-ren 1956ko martxo-apiril-maiatzeko kronika hau lekuko:

“Birritan izan dira Txinpartako gazteak Luistarrenean. Lenengokoan saloia guztiz bete zan ezker ta gente asko ikusi barik gelditu, garizumea igaro ostean barriro prestau dabe beste agerraldi bat, gauza bera zala atxakia, diru bilketea. Oraingoan mutu agertu jakuz Txinpartakoak, mimika zala festearen nagusi. Bilbo uri erdalduna izanik ausartu ez zuzentzailleak, bear bada, euskeraz emoten gaia.”

Kronikaria ez zegoen, ordea, jokamolde horrekin ados...

“(…) ni enaiz eritzi orretakoa oso osoan. Bilbon erdi euskaldun asko dago, uste dan baiño geiago, eta talde polita batuko litzake gogo onez olako bat ikusten. Ausartagoak bear dogu izan, ausartagoak; bestela ezteutsagu sekula emongo gure euskera oneri abiadarik (...). Gaiñera euskaldun motzak garean bilbotarriori zer jan emoten ezpadauskue, geroago ta motzago egingo gara, ikasi ta sendotu bearrean aitzu, baztatu ta zokoratu egingo jaku dakiguntzua.”

Kontuak kontu, balantze ona egiten du Iñaki Irigoienek: “Jendeak ondo hartu gintuen. 1967an amaitu zen taldearen ibilbidea; batzuk ezkondu egin ginen, beste batzuk nekatu...”

Folkloretik modernitatera

Ikusi dugu zelan Arestiren ustez Txinpartaken emanaldietan alde folklorikoak pisu larregi zeukan, antzerkiaren beraren kaltetan. Honi loturik, ordea, sumoan ez zegoen kultur-ekintza posible bakarra hura zela dio Joseba Arrietak: “Folklorea zen gera zitekeen kultur ekintza bakarra; folklorea alde guztietan sartzen zen. Ia dena egiten zen parroikia eta komentu inguruan, poliziak ere begira men gehiago baitzien erakunde hauei.” Iralabarri eta Karmeloko komentuak aipatzen ditu Arrietak adibide modura. Izan ere, Arrieta berak, Xanton Goiria

⁴³ Anjel Zelaiek esan digunez, Arestiren lehen neskalaguna talde horretakoa zen, edo hurbilekoa. Zelaiek berak, bestalde Arestik *Hierro*-n idatzitakoak pasatu dizkigu; 1966ko artikulua batean zera dio Gabrielekek Txinpartaki buruz: “(...) grupo que, dicho sea en honor de la verdad y de la precisión, más se dedicó y se dedica a la espectacularización del folklore, que a una verdadera actividad teatral.”



1950ean sortu zen Gaztedi dantza taldea.
Ikur hau, bistan denez, geroagokoa da.

karmeldarrarekin batera, Gaztedi taldea Santutxuko karmeldarren komentuaren inguruan sortu zuen, 1950ean.

Folklorearen biziberritze horretan txistulariek ere izan zuten zerikusirik: *Txistulari* aldizkaria 1955eko urtarrilean berragertu zen eta 1956an Euskal Herriko Txistularien Elkarteak gerra osteko lehen agerraldia egin zuen (elkartea bera 1927an sortua zen). Aldizkariari dagokionez, hara zer dioen Xabier Gereñok:

“Aldizkariaren egoitza hiriz aldatzen genuen bi urtean behin, txandaka egiten genuen hori. Egoitza Bilbori zegokionean neu izaten nintzen kazetaren arduradun (...). Jendeak, gainera, pozik hartzen zuen gure lana. Apur bat geroago *Dantzari* aldizkaria ere sortu nuen, baina porrot egin zuen, ez nuelako babesik aurkitu. Nire diruarekin sortu nuen, eta baita sos dezente galdu ere. Egia esan, egiten nuen guztia neure diruarekin egiten nuen.”⁴⁴

Aldizkari batak zein besteak, bestalde, zentsurarekin gorabehera ugari izan ohi zituztela dio Gereñok:

“Zentsurakoengana *Txistulari* kazeta argitaratzeko baimen-eske joan behar izaten nuen. Espainia guztian Informazio eta Turismo ordezkariak zeuden orduan. Bilbokoa

⁴⁴ *Dantzari*-ri dagokionez, bestalde, bitxitasun bat aipatu digu Iñaki Irigoienek: “Legez frantsesa zen (Iparraldean eskatu zituen eskatu beharreko baimenak), nahiz eta Bilboko Misericordian egin eta hemen zabaldu.”

Kale Nagusian zegoen, orain Banco Popular dagoen eraikin horretan. Jatorrizko agiriekin joaten nintzen eta ordezkarietakoek orriak hartzen zituzten eta han ibiltzen ziren gauzak ezabatu eta ezabatu. *País Vasco* izena, adibidez, birritan baino ezin zitekeen agertu aldizkari guztian, gainerakoetan *aquí* edo *en nuestra tierra* edo horrelakoak idatzi behar zenituen.”

Bilerak San Antonen egiten zituzten, parrokia horretako lokaletan hainbat kultur talde aterpetu baitzen sasoi hartan, Klaudio Gallastegi bikarioaren gerizpean denak ere (hurrengo atalean egingo dugu berba On Klaudiori buruz). Iñaki Irigoienek, adibidez, zera diosku: “Mendi-kontuetan San Antongo parrokiako taldea zen garrantzizkoena. Txistulariak, dantzariak, mendi-irteerak... Jende beretsua ibiltzen ginen saltsa horietan, giro bera zen.” Xabier Gereñok ere Iñaki Irigoien berbok berresten ditu:



Xabier Gereño.

Argazkia: *Euskal idazleak gaur.*

“(…) artean *Chapas Finas*-en nenbilela, han Manuel Landaluze ari zen beharrean, bilbotar txistularia. Berak bazekien solfeoa eta pianoa ikasten ari nintzela, eta ea txistuari zergatik ez nion ekiten esan zidan. Eta horrela, taldetxo bateko kideoi txistua irakasten hasi zitzaigun. Hor adiskide-taldea sortu zen; mendira joaten-eta hasi ginen, eta erromerietara... Animazioa sortzen genuenez, jende asko hurrerazten zitzaigun. Horrela hasi nintzen ni euskal giroan murgiltzen.”

Hurrengo urratsa agerraldi txiki horietatik formatu handiagoko emanaldietara igarotzea izan zen. Iñaki Irigoienek dioskunez, gerra ostean Bilbon euskaraz ziharduten artistekin eginiko estreinako jaialdiak Euskaltzaindiari esker egin ziren:

“Euskaltzaindiari esker ikuskizun pare bat ere egin ziren. Behin lortu zen ikuskizun bat egitea Coliseo Albian eta han izan ginen Dindirri-koak, Txinpartak-ekoak... Alfonso ibili zen bitartekari, eta Bilboko eskuindarrekin negoziatuta lortu zen hori egitea.⁴⁵ Ikuskizun amaieran ama euskarari buruzko pasarte nire ustez (garai hartarako behintzat) ausarta eskaini zen, amaieran Gernikako Arbola abestuta.

⁴⁵ Esana dugun moduan, Euskaltzaindian Erregimenak begi onez ikusten zuen jendea ere bazegoen, Arrue buru zela. Pragmatismoaren hautua eginga baitzuen Euskaltzaindiak, bizirik eta lanean jarraitu ahal izateko. Alfonso Irigoienek zioenez, “horrela posible zen hizkuntzaren inguruan eremu zabal baten barrenean bide bat baino gehiagotik zebilen jendea urreratzea edo gutxienez kontra ez izatea eta klan-destinitatearen ezinak eta arriskuak ez zigun gehiegi lotzen.” Arrueri buruz, bestalde, zera aipatu digu

Eskuindarrek esan ziguten baietz, Gernikako Arbola abesteko gura bagenuen, baina Espainiako ereserkia entzun beharra zegoela ondoren. Ereserki hori entzuten hasi zenean, jende guztiak alde egin zuen...”

Alfonsok berak emango dizkigu antolaketa-lanei buruzko xehetasun gehiago:

“[1956ko] Uztailaren 10ean, Bilboko Arriaga Teatroan jaialdi bat prestatu genduen dantza, kantu ta teatrozkoa eta hitzaldi bi ere egin ziren, geroago R. M^a Azkue-ri gorazarre handi bat egiteko asmotan. Horretarako, diruzko galtzerik gertatzen bazen ordaintzeko prest zeuden laguntzaile batzuk ere agertu ziren, baina ez zen behar izan. Lehen hau proba bezala egin zen, garai haretan euskal jai bat egitea ametsetan ere ezin pentsa baitzitekeen. Hitzaldi bat Antonio Arrue-k egin zuen eta bestea Luis Mitxelena-k, lehena euskaraz eta bigarrena erdaraz. Nik erradiotik hitz batzuk esan nituen gero Mitxelena-k bere hitzaldian aipatu zituenak.”

Jaialdi hark izaniko arrakastak animatuta, berau urtero antolatzeari ekin zioten, Gabon-bueltan eta Euskaltzaindiaren izenean betiere. Zeregin horretan Xabier Gereño ere bide-lagun izan zuten. Gereñoren izena Poliziaren zerrendetan ageri zen ordurako:

“Polizien zerrendan nengoen, bestalde, ez politikan sartzen nintzelako, euskal kultur-giroan nenbilelako baino: txistuarekin hasi nintzen, gero San

Ordura artekoak ez bezalako kantuak eman zituzten euskaraz *Soroak* laukoteko lagunek.

Argazkia: Euskomedia fundazioa.



Xabier Kintanak: “Nik ez neukan pasaporterik; beti ukatzen zidaten, nire polizia-fitxa zela-eta. Soldadutza egin nuenean, adibidez, ez zidaten inoiz baimenik eman etxera etortzeko, ama alargunduta aita bigarrenez ezkondu zenean ere ez zidaten etortzen utzi. Iparraldera joateko *pase de favor* delakoaz baliatu behar izaten nintzen beti. Egun baterako joan-etorria egiteko baimenak ziren horiek, eta niri Arruek lortzen zizkidan beti. Papera egin baino lehen, txantxetan, honelakoak esaten zizkidan: ‘Zer, Xabier: oraingotan metrailetak, bonbak edo zertzuk ekarriko dituzue?’ Txantxak egin bai, baina beti lortzen zidan baime-na (gainera, bazekien gazteok ez ginela EAJkoak, bera pozarren).”

Anton orfeoia eratu genuen, ni jaialdiak antolatzen ere hasia nintzen ordurako... Teatro Santiago Apostolen, hain justu, orain espainiar irrati-telebista nazionalak dauden eraikinean. Hor fraide-ikastetxe handia zegoen. Beheko solairuan antzoki ederra zeukaten, eta han zinema-eta ematen zuten. Jaialdietarako ere alokatzen zuten. Adiskide batzuk egin nituen han eta arazo barik alokatzen zidaten aretoa. Hartara, urtero Gabonetan bertara antzerki-talderen bat eramaten hasi nintzen (Iñaki Beobiderena, adibidez), eta pailazoak ere bai, Kixki, Mixki eta Kaxkamelon, txistu-kontzertuak ere bai... Zortzi edo hamar urte ibiliko nintzen horretan. Gabonetan, beti, eta gero, urtean zehar zerbait interesgarria lortuz gero, bada, orduan ere bai.”

Gainera, aretoa betetzea lortzen zuen oro har. Eta hartan, orfeoi, txistulari eta dantzarien panorama hura astindu zuen gertakari bat jazo zen: *Soroak* laukotearen sorrera. Laukotea hau aitzindari izan zen hainbat arlotan, ez euskal munduan soilik, Bilboko musika-mundu guztian baizik. Laukotea Robles Arangiz anaiek (Iker, Ugutz eta Irkus) eta gitarra elektrikoa (artean erabat berria bazter hauetan) jotzen zuen Txabi Villaverdek osatzen zuten. Zuberoako abestiak eta kantu modernoak (Hollywoodeko filmetakoak, godspella...) uztartzen zituzten euren kantutegian. Hura iraultza txikia izan zen folklore andaluziarra, abesbatzak, Los Bocheros, Los Chimberos eta Los Panchos nagusi ziren hiriburuan. Hiru anaietako batek, Irkusek, laukotearen asmoen berri damaigu:

“*Soroak* laukotean euskara jendeari hurreratu gura genion, hizkuntza arindu nahi genuen, giro gehiagotan entzungarri egin, ez zedila elizetan edota Buenos Aires edo Arriaga antzokietan urtean behin eginiko kontzertuetara muga. Sinpletu egin behar zen euskara, edozein jaitan mikrofono baten aurrean jarri eta euskaraz erritmo modernoak abestu ahal izatea ahalbidetzeko.”

Horregatik hain zuzen, garbizaleen asko kritikatu zituzten, euskara modu horretan kutsatzerik ez zegoela argudiatuta.⁴⁶

1958ko urrian eskaini zuten lehen kontzertua, Bilbon, rock-and-rolla, twista, bossa nova eta beste erritmo berri asko iristen hasi berriak zirenean. Arrakasta handia izan zuten, eta laster ziren Radio Bilbaon zuzenean jotzen. Madrilen egiten zuten orduko irratsaio arrakastatsuenetako batetik ere (“Cabalgata fin de semana”) behin baino gehiagotan deitu zituzten. Ibilbide bizkor hura, ordea, errotik moztu zen Ikerrek eta Ugutzek, arrazoi politikoak tarteko, Iparraldera ihes egin zutenean.⁴⁷

⁴⁶ Gabriel Arestik ere kritikatu zituen *Hierro* egunkarian, 1962an, baina bere kritika positiboa izan zen: “Los *Soroak* demuestran cómo se puede tocar la guitarra electrónica, cantar melodías de jazz o negro *spirituals*, vestir chaqueta verde de *chansonnier* y, a pesar de ello, seguir siendo vasco. (...) El cuarteto *Soroak* pretende llevar lo vasco a lo que es herencia común de todos los hombres, cantar boleros en el idioma de Axular o interpretar zortzikos al ritmo de jazz. No gran cosa: ya sabemos que no es empresa de muy altos vuelos; pero sí un intento loable, una aspiración sincera. (...) A los *Soroak* les adinamos y deseamos grandes éxitos.”

⁴⁷ 1963an, izena aldatu eta *Crazys* bihurtuta, jazza besarkatu zuten; makina bat emanaldi eskaini zituzten Bilbon izaniko lehen jazz klubean (zeina, bide batez esanda, Pio Lindegaard eta Txabi Villaverdek berak sustatu zuten).

Euskara gizarteratzen: bertsolari txapelketak

Soroak laukotearen asmoa euskara arindu eta ghetotik ateratzea zen; asmo beretsuak zerabiltzan buruan Alfonso Irigoienek ere, eta, asmoak bideratzeko, bertsolaritza sustatzeari ekin zion Euskaltzainditik. Bere anaia Iñakiren arabera, ahalegin horrek emaitza onak eman zituen:

“Puritanismoa, garbizalekeria, herritarrengandik urrun zegoen euskara-mota gainditzin lagundu zuen horrek, garrantzitsua izan zen erdibideko eredu hori (mordolokeriaren eta garbizalekeriaren artekoa) berotzeko, gizarteratzeko. Garrantzitsua, lorturiko arrakasta eta oihartzun itzelak izan zirelako. Euskara sabindar puritanoa gainditzeko (eta, beraz, euskara normalizatzeko) hurrengo urrats handia Arestik eman zuen (eta berak ere asko edan zuen bertsolarien iturritik).”

Horrela, bada, 1958an, Bizkaiko bertsolarien lehen txapelketa antolatu zuen Alfonsok. Abuztuaren 24an jokatu zen, Areatza puntatik puntara beterik zegoela. Balendin Enbeitak irabazi zuen txapela, baina datu benetan garrantzitsua beste hau zen: jendaurreko ekitaldi batean euskaraz egin zela Bizkaiko hiriburuan, jendetza itzela begira zegoela.

Hurrengo urteko txapelketa ere leku berean izan zen, irailaren 6an (astebete lehenago jokatzekoa zen, baina atzeratu egin behar izan zuten bozgorailuekin izaniko arazoak tarteko), eta Enbeitak gailendu zen berriro. Orduan ere mundua bildu zen Areatzan eta aurkezle lanetan zebilen Alfonso Irigoienek ez zuen aukera alferrik galdu. Hara zelan mintzatu zen saio hasieran:

“Laster emongo deusagu asiorea txapelketeari. Baiña lenago esan bear deusuet zelan Bizkaiko errietatik zear ibili garean bertsoak zabalduten, eta zelan aibat bertso-liburu zabaldu doguzan *Euskal kantak* izenagaz.⁴⁸ Orregaz gure gogoa da Euskalerrri osoan, eta orain Bizkaian, bertsoak zabaldutea, al dala gazte-jenteak ikasi, buruz ikasi, eta bertsolariak ugaritu daitezcan. Ain zuzen be, bertsook ikasten dabekan Bizkaiko neska mutil gazteak, datorren urtean Euskaltzaindiak egiten dauen esamina batera etorri leitekez. Esamina orretan itaunduko jakiez: bertsook buruz ikasita, kristiñau dotriñea, eta beste gauzatxu batzuk, eta sari ederrak emongo jakiez ondo ikasten badabek. Alegiñak egin jente gazteak ikasi daien. Orain emen eztaukaguz liburuak, baiña iñok gura baditu, gero, au amaituta gero, joan daitela Euskaltzaindira, orra Erribera kalera, ortxe bertan dago, eta antxe emongo deusaguz. (...)”

⁴⁸ Alfonsok berak emango digu horri buruzko argibide gehiago: “*Euskal kantak* titulua duen liburuxka bat argitaratzen saiatu nintzen eta geroago beste bat mardulagoa atera nuen titulu berarekin, Euskaltzaindiaren ardurapean ipinirik biak. Bilbon egin ziren 1959 eta 1960-garren urtean. Milaka inprimatu nituen eta bertsolari saioetan, mikrofonotik adierazirik, oso prezio merke batean saltzen zen nahi zuenak eros zezan.”

Hurrengo urteko txapelketa ere leku berean izan zen, irailaren 6an (astebete lehenago jokatzekoa zen, baina atzeratu egin behar izan zuten bozgorailuekin izaniko arazoak tarteko), eta Enbeita gailendu zen berriro. Orduan ere mundua bildu zen Areatzan eta aurkezle lanetan zebilen Alfonso Irigoienek ez zuen aukera alferrik galdu. Hara zelan mintzatu zen saio hasieran:

“Laster emongo deutsalgu asierea txapelketeari. Baiña lenago esan bear deutsaluet zelan Bizkaiko errietatik zear ibili garean bertsoak zabalduten, eta zelan ainbat bertso-liburu zabaldu doguzan *Euskal kantak* izenagaz.⁴⁹ Orregaz gure gogoa da Euskalerrri osoan, eta orain Bizkaian, bertsoak zabaldutea, al dala gazte-jenteak ikasi, buruz ikasi, eta bertsolariak ugaritu daitezatzen. Ain zuzen be, bertsook ikasten dabezan Bizkaiko neska mutil gazteak, datorren urtean Euskaltzaindiak egiten dauen esamina batera etorri leitezke. Esamina orretan itaunduko jakiez: bertsook buruz ikasita, kristiñau dotriñea, eta beste gauzatxu batzuk, eta sari ederrak emongo jakiez ondo ikasten badabez. Alegiñak egin jente gazteak ikasi daien. Orain emen eztaukaguz liburuak, baiña iñok gura baditu, gero, au amaituta gero, joan daiteela Euskaltzaindira, orra Erribera kalera, ortxe bertan dago, eta antxe emongo deutsalgu. (...)”



Irigoien, Basarri eta Uztapiderekin.

Argazkia: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

Erribera kaleko egoitza zen, hain zuzen, Alfonso Irigoienaren operazio-zentroa. Bertan, txapelketak antolatzeaz gain, Euskaltzaindia ere guztiz biziberritu zuen Bilboko seme honek (*Eusker*a agerkaria, adibidez, bere ekimenez hasi zen berriro kaleratzen). Bere anaia Iñakik ondo gogoratzen ditu ordukoak: “Alfonso hura dinamizatzen hasi zen, kobratu barik hasieran, gero bertako idazkari moduan jarraitu zuen beharrean... Eta, hura dinamizatzen hasteaz batera, euskaltzaleen-

⁴⁹ Alfonsok berak emongo digu horri buruzko argibide gehiago: “*Euskal kantak* titulua duen liburuxka bat argitaratzen saiatu nintzen eta geroago beste bat mardulagoa atera nuen titulu berarekin, Euskaltzaindiaren ardura pean ipinirik biak. Bilbon egin ziren 1959 eta 1960-garren urtean. Milaka inprimatu nituen eta bertsolari saioetan, mikrofonotik adierazirik, oso prezio merke batean saltzen zen nahi zuenak eros zezan.”



Euskaltzaindiak Erribera
kaleko seigarrenean zeukan
egoitza euskaltzaleen bilgune
dinamiko bihurtu zen 1960ko
hamarkadan. **Argazkia:**
Euskaltzaindiaren Azkue
Biblioteka.

tzako topagune berezi bihurtu zen Erriberako lokala. Txillardegi, Krutwig, Aresti, San Martin eta beste hainbat han ezagutu nituen nik.”

Alfonsok ere Aresti Euskaltzaindian begiz joa zuen, baina ezagutu, beste modu batez ezagutu zuen. Josu Arenaza, Xabier Gereño eta beste bilbotar euskaltzale batzuekin tratuan zebilen ordurako:

“Orduan ezagutu nuen Gabriel Aresti, oraindik soldadutza egiteko zuela, Antonio Maria Labayen gipuzkoarraren bidez. Berak eman zidan haren bizilekuaren berri eta etxera joan nintzaion. Bere estudioak egin eta lanean hasi gabea zegoen eta Euskaltzaindira etortzen zitzaidan sarri. Euskaraz ikasi berria zen eta oraindik landu gabea. Berriketa luzeak izaten genituen orduan. Horrela apurka-apurka euskal munduan sartzen hasi zen. 1954-garren urteko azaroan, ezagutu ta laster, Labayen, Aresti eta hirurok Orixe-ri itxaroten joan ginen Santurtze aldera Ameriketatik baitzetorren itxasoz.

(...) Josu Arenaza, Gereñotarrak eta beste zenbait soldadutzara joan baino lehenago [1951ko martxoa baino lehenago, beraz] ezagutzen nituen, ordea, San Antongo orfeoiares inguruan, txistu ta danbolina eramanik jai egunetan norabait joateko aukera prestatzen baitzuten. Inoiz edo behin joaten nintzen ni ere.”

Aresti, Irigoien eta Gereño: garai hura ulertzeko funtsezko diren hiru abizen atera zaizkigu. Izan ere, sasoi hari buruz ari garela, mugimendu kolektibo egituratuez baino pertsona jakin batzuen jardunaz berba egin beharra dago, ezinbestean. Pertsona horiek (Xabier Peñarekin batera) giltzarri dira, garai hartako Bilboko giro batzuetan behinik behin ildo jakinak markatu baitzituzten. Euskaltzaindian bertan ere bai, ezen Zelaietak dioenez, “Euskaltzaindian, eta antzeko erakunde euskaldunetan, gaztelaraz mintzatu ohi zen orduan. Badirudi Gabriel Arestik eta Federiko Krutwigek gogor eginda ekin ziotela euskaraz iharduteari (...)”.⁵⁰ Dena, dela, gaur egungo perspektibatik harrigarri dirudien arren, orduko egoera total desberdina zela diosku lñaki Irigoienek:

“Batzarretan bai, euskaraz egitea lortu zuten, baina bestela... Erribera 6an zegoen Azkueren liburutegia ere, eta Aresti hango liburuak arakatzeraz joaten zen. Han ezagutu nuen nik, ni baino urte bi nagusiago zen eta lagun handi egin ginen; erdaraz egiten genuen elkarrekin.⁵¹ Ezin da gaurko parametroetatik ulertu, dena den, ez da egoera berdina; aldakuntza itzela egon da, hura beste mundu bat zen. Purismoa, garbizalekeria gainditzea oso lagungarri izan zen horretarako.”

Laster hobeto ezagutuko dugun *Anaitasuna*-k ere lan dezente egin zuen garbizalekeria gainditzeko. Hara zer zioen, barbarako, Villasantek *Anaitasuna*-n 1958ko abenduan: “Euskeraz idazten dabenen artean be danak ez dabiz beti bide bardiñetik; batzuk garbizaleago dira beste batzuk erri-zaleago. Eta guk au ikasi dogu: *Anaitasuna* orritxuak erriko bidetik ibili bear dabela, erriatik urtean. Gure erriarentzat egiten dogu orri ori, eta ak aituteko moduan esan behar ditugu esaten ditugunak.”

Hori lortzeko, ordea, Bilbon (Diputazioaren jauregian) 1958ko abenduaren 13 eta 14an egin zen Euskaltzaindiaren batzarra izan zen benetan erabakigarria. Euskal Herri guztitik joandako jendea bildu zen bertan; han eztabaidatutakoaren ondorioz, zera ebatzi zuen Euskaltzaindiak hurrengo urtean: euskararen baitan sustraituriko hitzak euskal berbatzat jo behar zirela, nahiz eta jatorriz erdaratik etorritakoak izan: *pekatu*, *eliza*, *politika*... Sabindar garbizaletasuna gainditu eta batasunean aurrera egiteko funtsezko pausoa izan zen hura (ezen Alfonso Irigoienek zioenez, batasunaren auzia planteatu baino lehen, hitzen afera konpondu beharra baitzegoen).

⁵⁰ Arestik berak, Norbert Tauer euskaltzale txekiarrari idatzitako gutunean “bilbotarrak eta Arantzazuko fraileki batzuk” jotzen zituen, besteak beste, akademiaren gaztelanierako joeraren erruduntzat. Bestelakoan, garai hartan euskal kultur munduko eragile askoren arteko gutun-elkartrukeak erdara izan ohi zuen oinarri maiz (Aresti eta Mitxelenaren arteko eskutitz askori erreparatzea baino ez dago esanikoa egiaztatzeko).

⁵¹ Xabier Kintanak, berriz, Arestik berari beti euskaraz egin ziola esan digu, motel samar aritzen zela gaineratuta. Joseba Zulaikari, aldiz, zera irakurri diogu. “Fue entonces cuando conocí a Aresti en persona. Nos reunimos en algún bar de Deusto. Eran sus últimos meses de vida. Le noté dificultad hablando euskera y pasamos a conversar en castellano. (...)”

Alfonso eta Gabrielekin batera, bestalde, Xabier Gereño aipatu dugu funtsezko pertsonaia modura. Haren alderdi bat nabarmentzen du batik bat Iñaki Irigoienek:

“Gerra batetik gentozen, eta beldur handia zegoen. Beldurra kentzea zen lehen lana, eta horretarako legea eroan behar zen norberari komeni zitzaion lekura. Horregatik, nire ustez Gereñok zerbait egin badu garrantzitsua hori izan da: beti eroan du legea toperaino. Legea noraino eroan: hor zegoen gakoa. Herria atzetik bazegoen, baina beldurra handia... Legeek eta agintariek leku jakin batera arte baino ez bazioten uzten, berak apur bat harago jarriko zuen langa, ea nora arte irits zitekeen jakin guran. Kartzelan egon zenetan ere, horrela jokatzeari espetxeratu zuten beti. Bera izan da, duda barik, gerra osteko eragile aktiboena Bilboko euskalgintzan.”

Hori, pertsonen dagokienez; toki fisikoez ari garela, berriz, Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitza aipatu dugu garai hartako Bilboko euskalgintzaren tenplu nagusi modura; haatik, beste gune txikiago batzuk ere baziren han-hemenka. Xabier Kintanak, adibidez, bere ikastetxea aipatu digu:

“Eskolapioetan baziren irakasle euskaltzale batzuk (Justo Mari Mokoroa frantses irakaslea, adibidez), eta noizean behinean (euren lanpostua arriskutan jarrita) zehar-aipua egiten zizkiguten, erreferentzia jakin batzuk izendatuta... Mokoroak bere *Genio y Lengua* ere utzi zigun irakurtzeko, eta, nik neuk behintzat, liburu horri mamia ateratzen nion. Gainerakoan, ikastetxean zenbait eskolapio abertzale zeuden; aita Orkoien nafarra, esate baterako. Gero, familia abertzaleetako ikasle asko ere bazegoen bertan, abandotarrak-eta, eta giro bat sortu zuten: errebeldia giro bat, abertzaletasunera lerratua (sozialistek eta komunistek ez zeukaten presentziarik ia).”

Giro horren ondorioz, bilbotar zenbaitek (ale banaka batzuek, dena esaten hasita) euskara ikasteari ekin zioten. Kintana bera izan zen horietako bat:

“Behin, eskolan (zortzi urte edo izango nituen) *las concordancias vizcaínas* aipatu zizkigun maisuak, irriz: *la hombre, el casa* eta horrelakoak, euskara dialektoa zela gaineratuta. Nik ez nekien nire aitonak euskara zekienik ere, ez nuen inoiz euskararik entzun txikitan Bilbon. Nire familiari dagokionez, amaren aldekoak (Urtiagatarrak) oso abertzaleak ziren, baina erdalduinak (aitonak euskaraz bazekien arren). Aita, berriz, Kintana Armendariz da, jatorriz Soba haranekoa (Bizkaia amaitu eta hurrengo harana, Kantabrian; hamabi urterekin etorri zen Bilbora). Etxean anti-



Xabier Kintana.
Argazkia: Euskal idazleak gaur.

frankistak ziren. Gogoan dut, hala ere, maisuaren esana errepikatu zuela amaren parteko osaba batek, hari arrazoia emanda. Ez hori bakarrik: euskararekin urrunera joaterik ez zegoela ere iritzi zion. Aitak, aldiz, euskararen alde egin zuen, euskara jakin nahiko lukeela gaineratuta; izan ere, bera harakina zen, eta ikusten zuen, baserritarrekin-eta tratuan, euskara bizirik zegoela eta tratuetarako eta komeni zitzaiola hizkuntza hura jakitea.

Eta hartan, Eskolapioetan, 14 urterekin, euskarazko hitz-zerrenda bat eman zidaten. Nik ordurako banekien frantsesa. Zerrendari begira, euskarak gaztelania eta frantsesarekin zerikusi gutxi zeukala egiaztatu nuen. Haserretu egin nintzen: nola zen posible hain gutxi jakitea bertako hizkuntzari buruz? Modu autodidaktan ekin nion ikasketari, *Método gradual para aprender el euskara* esku-liburu hipergarbizalea eskuratuta. Horrez gain, Manuel Reguero eta Tomas Trifol lagun euskaltzaileekin praktikatzen hasi nintzen (hirurak euskaldun berriak ginen eta elkarren artean euskaraz mintzatzeko erabakia hartu genuen); Xabier Peñak Euskaltzaindian ematen zituen eskoletara joateari ekin nion gero. Gainera, udak Orozkon ematen nituen, neska-laguna ere euskalduna neukan, eta horrek guztiak mintzapraktikarako aukerak erraztu zizkidan.”

Kristau ikasbidetik ikastoletara

Iñaki Irigoienek aipatu digunez, Bilboko gerra osteko estreinako ikastola sortu baino lehen, katekesia euskaraz ematen hasiak ziren. Karmele Goñi antropologoa izan zen zeregin horietan aritu zenetako bat. Honela oroitu zituen orduko ibilerak *Berria* egunkarian:

“Hasieran eskolan irakasten genuen, baina gero elizbarrutiak lege berria zabaldu zuen esanez ume bakoitzak bere parrokiaren egin beharko zuela jaunartzea. Orduan arte, San Bizenten egiten zuten gure ume guztiek. Eliza guztietara joan ginen banan-banan. Abade batzuek barre egin ziguten, baina gu moldatu ginen. Frantziatik ekarri genuen dotrina euskaraz. 70 katekista izan ginen. Irakasleak eta ordezkioak. Don Jose Maria Rementeriak lagundu zigun asko. Erroman ikasi zuen zelatan dotrina irakatsi, eta hark guri irakasten zigun, guk umeei irakasteko.”



Maria Angeles Garai,
San Nikolas ikastolako lehen
andereñoa. **Argazkia:** Bizkaiko
ikastolak, 1957-1972

Irigoienek arabera, esperientzia hark berotuta ekin zioten hurrengo pausoa emateari. Egitasmo hark (beste egitasmo askok bezala) Xabier Peña izan zuen sustatzaile nagusi. Kontua da Peñak ezagutzen zuela Elvira Zipitriaren Donostiako etxe-eskola; antzeko egitasmoa gauzatu gura zuen berak Bilbon, baina, Donostian ez bezala, berak etxebizitzetatik kanpo egin nahi zuen Bilbokoa, ikastola bat eratuta. Horretarako, gainera, dozena bat gurasoren babesa zeukan, euren



Ixaka Lopez Mendizabalen
Xabiartxo, ezinbesteko erreferentzia
hasiera garai haietan.

seme-alabak ikastolara bidaliko zituztela agindu baitzioten (ezelako diru-arazorik ez zeukan jendea zen).

Lehen urratsa andereño bat bilatzea izan zen. Peñaren ikasle izaniko Maria Angeles Garai hautatu zuten; ikastola abian jarri baino lehen, hilabete eman zuen Zipitriaren etxean, haren metodo pedagogikoak ezagutzeko. Lekua bilatzea izan zen hurrengo pausoa. Hainbat lokal ikusi zituzten, baina ez zuten habia egokirik topatzen. Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitzan hastea ere otu zitzaien; azkenean, ordea, San Nikolas elizako laugarren solairuan katekesirako lokaletan leku aproposa topatu zuten (Itxaropen kaletik sartu behar zen bertara). Jesus Gonzalez abadeak utzi zien lokal hura. Gela handi-handi eta eder bi ziren.

1957ko urriaren 9an abiatu zuen ikasturtea San Nikolaseko ikastolak. Euskal Herriko gerra osteko estreinako ikastola zen hura. Guztira hamalau umek ekin zioten ibilbideari, hiru eta bost urte bitartekoak denak ere. Ikasturteak aurrera egin ahala, ordea, ume-kopurua hazten joan zen; hori zela kausa, 1958ko otsailean Agurtzane Alberdi ere andereño modura kontratatu behar izan zuten. Haren taldean beste 13-14 ume batu ziren.

Hasiera garai haietan, ikas-materiala ere urria zen: 1936ko gerra aurreko *Xabiartxo* testu-liburua, zotzak, puxtarriak... Hori arazo nahikoa ez eta, beste eragozpen bat izan zuten puntuan: ordura arte erdi-ezkutuan aritu zen ikastolaren berririk izan ez zuen Pablo Gulpide Bilboko apezpikua lokal hori katekesia ez zen beste ekintza baterako erabiltzearen aurka agertu zen; ez hori bakarrik: ikastolak katekesiarekin zerikusirik ez zeukala argudiatuta, hura zarratzea agindu zuen. Hori da behinik behin bertsio ofiziala.⁵²

Gurpideren ezagutza gorabehera, hortaz, itxi egin zuten ikastola. Kinka horretan, gurasoek, lehen uneko noraeza gaindituta eta amore eman barik, berehala ekin zioten beste lokal bat bilatzeari. Iralabarriko frantziskotarrek euren

⁵² Bestelakoa da Anjel Zelaietaren ustea: "Elizaren patroia izan eta jakin ez zer ari zen gertatzen? Derrigorrez jakin behar zuen! Besterik da, noski, ezikusiarena egin ote zuen... Gulpide oso tradiziozalea zen, tradiziozalea zentzu guztietan... Niri ere aitak zera esan zidan bere garaian: '*tradiziño danak onartu bijuek, eh?*' Hau da, baietz, euskara ere tradizioa zela baina beste tradizio batzuk ere bazeudela..."

komentuko behe solairuko lokalak eskaini zizkieten (auzoko beste hainbat taldek ere baliatzen zituzten lokalok). Horri esker, ikasgela bi eskura zeuzkaten, biak ere San Nikolasekoak baino handiagoak.

Aretoak egokitzeko egin beharreko lanak zirela medio (Banco Guipuzcoano-k orduko 50.000 pezetako mailegua eman zien eta diru horrekin, besteak beste, umeak lralara eroateko furgoneta erosi eta gidaria kontratatu zuten) 1958-59 ikasturtea atzerapen handiz hasi zen (1959ko urtarrilaren 8an, hain justu). Ikasturteak aurrera egin ahala, dena dela, ikasle kopuruak hazten segitu zuen harik eta 3 eta 8 urte bitarteko 48 ume eskolatu zituzten arte.

Lau andereño aritu ziren ikastola horretan: Agurtzane Alberdi eta Seberi Mar-daraz 3 eta 6 urte bitarteko umeekin, eta Mari Carmen Gangoiti eta Maria Estibaliz Gereño 6tik 8 urtera artekoekin. Bigarren ikasturtea hasi eta gutxira, 1959ko azaroan, hura ixteko agindua jaso zuten, lehen hezkuntzako ikuskatzaile batek jarritako salaketa zela-eta (ikuskatzailearen jokabide zakarraren lekuko izan zen



Xabier Peña eta Agurtzane Alberdi.
Argazkia: Bizkaiko ikastolak, 1957-1972.

Jon Bilbaok, bestalde, salaketa aurkeztu zuen AEBetako kontsuletxean)⁵³. Ez hori bakarrik: ikuskatzailearen bisitaren ondorioz, andereño bi atxilotu zituzten eta Maria Muñoz kalean zegoen polizia-etxean eman behar izan zuten gau bat; hurrengo egunean, beste bi andereñoak eta Sabin Zubiri ikastolako batzarreko arduraduna (Josune Zearra ikastola-sustatzailearen senarra eta bilbotar dendari ezaguna) galdekatu zituzten. Ikastola, berriz, zarratu egin zuten, eta isun garestia ezarri zieten arduradunei.

Hauek helegitea jarri zuten esanez hura ez zela ikastola, katekesia baino; helegitean, gainera, Gurgide gotzaina jakinaren gainean jarri zutela eta hark baimena eman ziela ere bazioten. Madrildik, ordea, ez zioten jaramonik egin helegiteari eta zigorrei eutsi zieten. Gurgidek, berriz, eskutitza bidali ei zuen Madrilerara berak katekesi hori sortzeko baimenik ez zuela eman eta haren berririk ez zeukala esanez. Anjel Zelaietak dioskunez, horren berri izatean, ikastolaren sustatzaileak kontu-eske joan zitzaizkion Gurgideri:

“Frantziskotarren eraikina itxi zuenean, kontu-eske joan zitzaion jendea, bere berba emana zuela gogoraraziz. Josune Zearrak zera ziotan horri buruz: *‘Teatro batean balego moduan agertu zitzaigun, eskuak altxatuta-eta, txarto-ulertze bat izan zela esanez. Hark gurekin eta Erregimenarekin, alde biekiko ondo geratu gura zuen, baina hori ezin da, ezta?’*”

Azkenean, dena den, gotzainak agiri bat idatzi zien eskola horiek zabaltzeko baimena berak eman zuela esanez. Ez dakigu agiri horrek zerikusirik izan zuen, baina kontua da azkenean isunak eta gainerako auzi guztia bertan behera geratu zirela. Ikastolak, hori bai, itxita jarraitu zuen. Andereñoak, berriz, zigortu egin zituzten: pasaportea kendu eta eskola ofizialetan irakastea galarazi zieten. Jon Bilbao, azkenik, atzerrirako bidea hartzera behartu zuten (abertzale arriskutsua izatea egotzi zioten).

Hedabideen aroa abian

1951n Informazio eta Turismo Ministerioa sortu zen Madrilen. 1956an, berriz, Televisión Española inauguratu zuten (dezente geroago heldu zen Bilbora aska-kizun berria). Hamarraldi honetan hasi ziren, halaber, euskal kazetak berragertzen: *Euzko Gogo*a izan zen aitzindari, 1950ean, eta haren atzetik etorri ziren *Zeruko Argia*, *Anaitasuna* eta enparauak.

Anaitasuna garrantzitsua izan zen Bilboko euskal giroan. Izan ere, 1953ko ekainaz geroztik, Bizkaiko edizio autonomoa ere kaleratzen hasi baitziren, azale-

⁵³ Jon Bilbao Kalifornia eta New Yorken unibertsitate-irakasle modura jarduna zen. Horrez gain, garai hartan AEBetako Gobernua ordezkatzen zuen herrialde horretan ikasketak egin gura zituzten espainiar hiritarrei bekak ematen zizkien epaimahaian.

an “Suplemento a la hoja *Anaitasuna* de Guipúzcoa” oharra jarrita. Lau orritxo baino ez ziren. Alfonso Irigoien ere tartean zebilen:

“(…) *Anaitasuna*-ren bigarren epeko zuzendaritza, ardura ekonomiko ta guzti, neraman 1955-garren urteko uztailetik hasirik⁵⁴ eta han Bizkaiko euskaraz egiten genduen, herri xeheari susperraldi bat emango geniolakoan, hitz egiten zenari balioa eta indarra eskainirik gerra ondo bildurraren orde. Urte pare batean saiatu nintzen horretan. (...) Aita Berriatua-k bidaltzen zituen lanez gainera, beste batzuen artean, Andoni Totorika, Eusebio Erkiaga, Sabin Berasaluze, Mikel Arrutza, Gabriel Aresti eta neuk izkribatu genduen.”

Zeri buruz idazten zuten baina? Frantziskotarren kazeta izaki, erlijio-gaiak ziren nagusi: errosarioa euskaraz topatuko zenuen zenbaki batean, bertso-kontuak beste batean, *bilbainadak* euskaraz hurrengoan, moralari eta Elizari buruzko idazkiak denetan. Haatik, kultur susperralditxoari hauspoa eman zion *Anaitasuna*-k, bere xumean idazle berriak trebatzeko lagungarri izan baitzen. Horieta-ko baten poema-bildumak *Loramendi* saria jaso zuen 1959an. Idazlea Gabriel Aresti zen; idazlanaren izena, *Maldan behera*.

Euskaltzaindian ez ezik, Aresti sarri izaten zen Posta kaleko Verdes liburu-dendan ere. Verdes zen garai hartan Bilbon euskal liburuez arduratzen zen ia denda bakarra. *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* ere izaten zituzten bertan, horrelako gune oso jakinetan baino ez baitziren zabaltzen. *Euzko Gogoia*, *Egan* eta gainerakoak, berriz, Euskaltzaindian-edo baino ezin ziren topatu.

Hori kazetei dagokienez. Telebista Bilbora iristeke zegoen oraindik, eta, irratia gagozkiola, Alfonso Irigoien honela mintzo zen *Zeruko Argia*-n 1958ko uztailean: “Bilbon ezta [euskaraz] ezer egiten erradiotik. Ain zuzen be orretan daukagu gogoia eta pausu batzuk emonda dagoz. Ikusiko dogu zelan datozen gauzak.” Handik gutxira, 1959an, Bilboko Herri Irratia jaio zen. Egia esan, irati horrek ez zion hasi berritan leku lar egin euskarari. Xabier Peñak egunero-egunero zuzenean irakurtzen zuen errosarioa zen salbuespena (orduko ingurumarian balio sinboliko handia zeukan horrek).

Edozelan ere, hamarkada honetan ernaturiko fenomeno batzuek askoz uztajoriagoa eskaini zuten hurrengo hamarraldian. Aipatu berri dugun Bilboko Herri Irratiak, adibidez, Lehen Euskal Abesti Txapelketa antolatu zuen 1964an, Xabier Gereñok sortutako Cinsa etxearekin batera; 1965ean, berriz, euskara ikasteko saioa aireratzeari ekin zion Xabier Peñaren eskuliburuan oinarrituta.

⁵⁴ Ez alferrik, 1956an harpidetza-orria Erribera 6ra bidaltzeko eskatzen zuen *Anaitasuna*-k. Irigoien ardurapeko 1955-57 epe horretan Verdes-en inprimatu ohi zuten aldizkaria.


Peña, Gereño, Irigoien eta Arestiren zein *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan sorturiko dinamikek ere, bestalde, zeresan dezente ematen jarraitu zuten hurrengo hamarraldian. Honek denonek, ordea, aparteko atala merezi du, fenomeno-
ok goitik behera markatu zutelako 1960ko hamarkadako Bilboko euska-
gintza.

VIII. 1964, Atxuri: tranbiak ez du bizitza modernorako balio

“Bilbaoko kaleak, / gora eta behera, / errekatik mendira, / batzuk artezak, / gehienak zeiharrek, / lurra estali da / etxez eta gizez, / gizonak leku batetik bestera / eramateko / makinez, / bizioz eta bekatuz, / karitatez eta kriminez, / plaza biribilak, / zumardi zabalak, / zuek / niri / gogora / ekartzen didazue / nire asmo zaharra, / behin egin nahi ukan nuen / eta / inoiz egin ez dudana, / Autonomia, / Adiskidetasuna, / Bakea, / Libertatea, / Foruak, / maitatu ditudan gauzak, / Urkijo ministroa, / Gardoki kardinala, / Mazarredo almirantea, / Egia jenerala, / Arrikibar ekonomista, / higuindu ditudan gizonak, / kaleak, / kale motzak, / kaleak hemendik, hortik, / handik, / edonundik, / Gorbealara joateko gutizia sortzen zait barrenean, / bertan organizatzeko euskeraren salbazioa, / baina hemen geratzen naiz, / kale arte honetan, / milagro baten zai, / egunero bizarra kenteari uzteko / nahikoa kurajerik / ez baitut.”

(Gabriel Aresti, “Bilbaoko kaleak”, 1967).





Bilbao desde Miribilla, 1965. Iñaki Garcia.

1964ko abenduaren lehenean Lemoatik bueltan zetorren trenak ohi baino jende-talde handiagoa ekarri zuen Atxuriko geltokira; aldra hartako kide denek ere garraiobide berbera zuten berbagai: Bizkaiko azken tranbiari agur esatetik zetozen, Lemoatik Zeanurirainoko azken bidaia jai giroan egin ostean. Akabo, horrenbestez, Arratiako tranbia, Arriaga aldamenetik atera ohi zen hura. Bizitza luze baten amaiera zen, 1902an egin baitzuen estreinako bidaia. Garai berriek, ordea, ez zuten tranbia zaharkiturik behar. Azkenak Lemoako *tranbien hilerrian* geratuko ziren; horiek bazter utzita, Bilbotik Plentziara zihoan trenean bide bikoitza jartzeaz mintzo ziren orain teknikariak.



Makina bat bidaia egin zuten Bilboko tranbia zaharrek... **Argazkia:** *Vida Vasca*.

Hiriko auzoak lotzeko ez ezik (Begoñatik Jesusen Bihotzera artekoa egiten zuen ibilbide ezin luzeagodun hura, adibidez) Bilbo aldiriekin konektatzeko ere balio izan zuen tranbiak: Santurtzi, Arratia, Durango, Areeta... horiek denak hurreratu zizkion tranbiak bilbotarrari.

Garraiobide horrek, beraz, Bilboaldean bilbatzen lagundu zuen. Egitasmo handiak zeuden inguru horretarako, batez ere 1963an Javier Ibarra Berge alkate izendatu zutenetik. Bere agintaldian *El Gran Bilbao y la Unidad de Destino* ideologiaz zamaturiko esamoldea baliatzen hasi ziren makroegitasmoaz aritzean; metropolia osatzea, zabalgunez zabalgunek Bilbo itsasora arte hedatzea, hara lbararren ametsa.

Egoera politiko liskartsuak, ordea, ez zion mesede handirik egiten: 1960an, esate baterako, lau euskal elizbarrutietako 339 apaizek gutun bana bidali zieten elizbarrutietako gotzainei; gutun horietan, gogor salatu zuten Francoren erregimenak Hego Euskal Herrian ezarritako zapalkuntza, euskararen aldeko aldarrikapenak egiteaz batera. ETA, berriz, lehen sabotaje-ekintzak egiten hasia zen, geroz eta preso politiko gehiago zegoen eta 1962an Francoren gobernuak salbuespen egoera ezarri zuen Bizkaian eta Gipuzkoan hiru hilabetez, Bilboaldeko industria gunetean izaniko borroka gogorrei aurre egin guran. Alferrik ordea, inguru horretako beharginen protestak areagotu baino ez baitziren egin: lanuzteak 1963an, 1966ko azarotik 67ko maiatzera greba luzea Etxebarriko *Laminaciones de Bandas en Frío* enpresan (grebalarien batzarretan Arestik eurentzat propio idatzitako euskarazko eta erdarazko testuak irakurri ei zituzten), istiluak Labe Garaietan...

Dena dela, protestak zebilen Bilbo situaren aldamenean bizi zen Bilbo alai eta axolagabea ere. 1962an, barbarako, Niagara jazz kluba sortu zuten bolatoki izaniko lekuan. Jendeak laket zuen, halaber, Kale Nagusiko Aeroclub aretoan edota Santiago Apostol ikastetxeko goizetako saioetan erritmo berriak dantzatzea edota Garden eta Holiday-ra joatea modako artistak ikustera. Zaletasun itzela zegoen; egin kontu 1966an 30 musika-talde inguru zeudela hirian.

Opus-eko teknokratak Espainiako Gobernura heldzearekin batera, bestalde, ekonomiaren liberalizazio-prozesua abiatu zen, mugak zabaldua eta hazkunde ekonomikoari ateak parez pare irekita. Ondorioak berehala hasi ziren igartzen: 1960an hamar auto zeuden 1.000 biztanleko, eta 1974an hamar bider gehiago; 1960an 56 telefono 1.000 biztanleko, eta 1974an 195. Garapen ekonomiko horren isla, 1969an Banco de Vizcaya-ren etxe-orratza eraiki zuten Plaza Biribilean.⁵⁵

⁵⁵ Sabino Aranak, bere garaian, mesfidantzaz (non eta ez erdeinuz) erreparatu zion garapen ekonomiko abiatu berriari (azken urteetan ikuspegia aldatu zuen arren), euskara beheja jotzera kondenatzen zuelakoan; joera hori (guztiz bestelako osagai batzuk erantsita, bistan denez) Gabriel Arestirengan ere konstantea da, gisa honetan mintzo baita bera: "(...) Horregatik euskera etsaia bakar bat dago, Bilboko kapitalismoa, eta gañera klaro Madrileko zer hori, izenik eukiteko eskubidea eztaukana". Arestik, gainera,



Otxarkoaga, 1963.
Agintariek arrapaladan
eraiki zuten auzoa.

Argazkia:
Vida Vasca.

Masa gizartearen hasiera zen hura. Urrun zen jada denek elkar ezagutzen zuten Bilbo txiki, herri-girokoa; are urrunago, 1966an lau herri (Loiu, Sondika, Derio eta Zamudio) irentsi ostean, eta urrunago oraindik etorkinak oldeka heltzen hasi zirenetik. Honek denonek populazio-hazkunde itzela eragin zuen: 1960ko erroldan 297.942 biztanle ageri ziren; 1967koan, aldiz, 393.988. Ia 100.000 lagun gehiago denbora gutxian (erdia inguru Espainia aldetik, beste erdia Euskal Herriko beste leku batzuetatik).

koxxa bat gehiago estututa, kapitalismoaren zein lukurreriaren ikur modura izendatzen zuen Bilbo. 1965ean, konparazio batean, zera idatzi zuen bere sorlekuari buruz: “Bilbaogatik kexatzeaz ez naiz inoiz kantzatzen. (...) Hemen bakarrik baloratzen da dirutan pertsona baten balioa. (...)” Horregatik ziurrenik (hipotesi psikologikoagoak ere badiren arren: ikus adibidez Zelaietak Arestiren biografian iradokitakoa), honela mintzatu zen, urte batzuk geroago, *Euskal Harria*-ko “Kale artea” poeman: “askaotik sendejara / bilbaon / esperantza / oso mehar, ilun eta laburra / da.” Gabriel hil hurran zela ezagutu zuen Joseba Zulaikak, berriz, zera dio: “Se quejaba de no haberse exiliado de Bilbao, el Bilbao que –y era muy consciente de ello- literalmente le había matado.” Kexu-joera horrek, ordea, sustrai zaharrak ditu. Hara, adibidez, zer irakurri diogun Unamunori: “(...) siempre que podíamos nos íbamos al monte, aunque sólo fuese a Archanda, a execrar de aquel presente miserable, a buscar algo de la libertad de los primitivos euscaldunes que morían en la cruz maldiciendo a sus verdugos y a echar la culpa a Bilbao, al pobre Bilbao, de mucho de aquello (...)”

Etorritakoek non edo non kokatu beharra zeukatenez, txabolak erruz ugaldtu ziren bazterretan; batez ere, Elorriaga-Banderas mendiaren magalean, Kañu pasealekuan, Ollarganen, Irustan eta Abandoibarran. Ez saiatu, ordea, azken horien argazkirik topatzen: zentsurak galarazi egin zuen txabolok kazetetan bistaratzea.⁵⁶ Haatik, lan gaitza zen haiek ezkutatzea. Azkenean, nork ikusiko eta, Francok berak begiztatu zituen.

Kontua da Santimami osteko 60.000 metro koadroko lur sail batez jabetu eta gero, Merkataritza Ganberak, Bilboko Udalak eta Aldundiak bertara eroan zutelako Erakustazoka. 1956an inauguratu zuten; 1958ko abuztuaren 28an, berriz, Franco bertara joana zen, bisitan. Erakustazokaz gain, ordea, Deustuko Ubideko lanak ere erakutsi zizkieten diktadoreari, eta hark lanez gain txabolak ere bistaratu. Hura Erregimenarentzat propaganda txarra zela iritzita, Francok Etxebizitza ministroari hara joateko agindu zion. Azken horren bisitaren ondorioz, Otxarkoaga eraiki zuten urte eta erdian, 1960tik 1961era: 3.676 etxebizitza (50 metro koadrokoak gehienak) prestatu zituzten 15.725 lagunentzat. Etxeok arrapaladan, plangintza barik eta material txarrekin egin zituzten ordea, eta hori igarri-igarrian geratu zen hurrengo urteetan.⁵⁷

Otxarkoagan ez ezik, sortzen edota itzel handitzen zebiltzan beste auzo batzuetan ere agerian geratu ziren hirigintza kaosa eta oinarritzko azpiegituren gabezia: Santutxun, Begoñan, Altamiran, Masustegin, Mintegixuetan, Uretamendin, Iralabarrin, San Adrianen, Larraskitun... Eta, bistan denez, horietan denetan (hiri guztian, oro har) erdara zen jaun eta jabe. Haatik, orduko hiri erdaldunduaren azpian, egon bazegoen burua jaso guran zebilen Bilbo euskaldun bat. Ikastolak eratu guran zebiltzan lagunak dira esanikoaren erakusgarririk arginetakoa.

Etxez etxe Elkano kalera arte

Aurreko atalean ikusi dugu zelan 50eko hamarraldian guraso batzuk Bilbon ikastola eratzen ahalegindu ziren, San Nikolasen lehenengo eta Iralabarrin gero.

⁵⁶ Abandoibarrako txabolak ez ziren hedabideetan ageri, baina Arestiren luma zoliak begiz jo zituen 1963an “Souvenir d’Espagne pour mesdemoiselles Solanje et Helena Gereziaga” olerkian: “*Hau da Bilbo*, esan zuen gizonak. / Kapela zuria zeraman gizonak, eta / *Hau da Bilbo*, esan zuen. *Hau da / Pinturaren Museoa*, esan zenuten. / (...) *Zer da hori?* Seinalatu zenuten leihotik. / *Deustuko Eskola, Jesuitena. / Ez, hangoa. Egurrezko etxe haiek. / Ijitoak*, esan nuen lotsaturik. / *Urrutian entzuten zen trumoiak. / Grekoa. Goia.*”

⁵⁷ Hara zer dioen Gabriel Arestiren 1962ko “Jainkoa jaio da Otxarkoagan” ipuineko pertsonaia batek: “Lehen esaten nuena, bada. Infernua bertan gaudela. Hemen ezta Jaunaren sobera parabola aditu. Neskatxaren ama, neskatxa bera bezala, senarrak gabe dago, ezta inoiz esposatu. Orain hamar urte edo, ijito batekin juntatu zen, eta etxola bat zedukaten Ollarganen. Etxolak suntsitu zituztenean, bizi-leku hau eman zieten, baina han baino hijiene eta osasun bide guttiagorekin bizi dira, edo hiltzen dira, hemen. Huntzak beti basora. Dutxan perrezila landatu dute, eta eskeratzean zerri bat gizentzen dute. Gezurra dirudi, baina hala da.”

Saiook huts eginda, guraso askok etsi egin zuen; ama batzuek, ordea, aurrera egiteko kemena izan zuten. 1996an zendutako Julia Berrojalbiz nabarmendu zen euren artean:

“Iralabarri zarratu eta laster baten, etxerik etxe abiatu ginan: ezin ziran itxi umeak kalean luzaro eskola barik. Amok, horretarako, alkartu eta jarraitzea erabaki genduan. Edozein lekutan alkartzen ginan: kalean bertan, etxeren baten edo elei-zan bertan be bardin.

Gizonok orduko proiektua etxia eben eta ha guztia amaitutzat gelditu zan.

Ume asko Bilbon mutilen eta nesken ikastetxeetara eroan ebezan orduan: danok gura gendun gure umeentzat batxileratoa eta sarrerako adinik egokientzat 8 urte erizten zan mutikoentzat eta zertxobat aurretik neskentzat.

Oraindino adin hori ez eben umeei begira, esan dodan lez, jarraitzea erabagi genduan. Proiektuaren geroari begira gauzak ez geunkazan argi, baina gure boron-datea eragozpen guztiak baino handiagoa zan.

Gogoratzen dot ume gitxi batzuek eta aurreko etapatik ezagutzen genduzan andereñoak laster baten zelan hasi ginan. Iriondoren eta Gereñoren etxeak izan ziran etapa honetan ikastolea hartu ebenak.”

1960an, beraz, Abando, Zabaltzuri eta Indautxu etxebizitza batzuetako egongela eta ezkaratzak ikasgela bihurtu ziren.⁵⁸ Urteek aurrera egin ahala etxeskolen kopurua ugalduz joan zen. Horietako batzuk egoitza finkoak ziren (Madariaga-Markoartutarra, Elgezabal-Iturritarra eta Agirre-Garaitarra); besteak, berriz, aldikako egoitzak izan ohi ziren (gutxi gorabehera hilero aldatzen zen eskola leku batetik bestera).⁵⁹

Sei urte inguru etxez etxe eman eta gero, 1965ean okertu egin zen egoera, irakaskuntza-erreforma bat tarteko: ordura arte ez bezala, Estatua eskola-ziurtagiriak eskatzen eta ikasketen gaineko kontrolak zorrozten hasi zen. Hori horrela, legezaturiko ikastola bat sortzea pentsatu zuten gurasoek. Alfonso Irigoienek kontatuko digu zelan izan zen ikastola hori eratzekeo prozesua:

⁵⁸ Hona aitzindarien izenak: 1960ko lehen hileetan hasita, Agurtzane Alberdik Madariaga-Markoartutarren etxean irakasteari ekin zion (Areatzan bertan, Zingira kaleko 6.ean); Seberri Mardarazek, Markoartu-Rotaetxetarranean (Campo Volantinek 30.ean –gaur egungo 26.a); Maria Estibaliz Gereñok, azkenik, bere etxean, Espartero kaleko (egungo Juan Ajuriagerra) 20.ean.

⁵⁹ Arestian aipaturiko etxez gain, beste familia hauek ere eurenak utzi zituzten: Elgezabal-Zelaieta, Andia-Berrojalbiz, Abasolo-Aranguren, Zubiri-Ganboa, Ganboa-Sanz, Ganboa-Ganboa, Díaz-Letamendi, Zubiaur-Zarate, Retolaza-Ereño, Palacios-Bilbao, Agirrezabal-Bilbao, Viar-Etxebarria, Zaldegi-Viar, Zabala-Egiluz, Fuldain-Iturri, Muñoyerro-Ajuriagoxeaskoa, Gabiña-Iturriaga, Fuldain-Artetxe, Madariaga-Ibarrara, Sarasola-Manich, Belaustegigoitia-Zubizarreta, Mesanza-Aranzabal, Ocio-Endaya, Mendizabal-Ibarrondo, Artetxe-Arana, eta, azkenik, Iriondotarrak. Etxez etxe irakasle ibilitakoak, berriz, hauek dira, lehen aipaturikoez gain: Miren Ormaetxe, Begoña Foruria (Txinpartak eta laster ezagutuko dugun Kriseluko kidea), Alicia Intxausti, Itziar Zarraonaindia, Maria Angeles Lejarza, Charo Ansorregi eta Pilar Muniategi. Eurokin harremanetan jarri zena, bestalde, Julia Berrojalbiz izan zen. Denek zeuzkaten maiстра-ikasketak eginak, baina, hala ere, beste ikastarotxo bi egin behar izan zituzten irakasten hasi baino lehen: bata, pedagogiari buruzkoa, Julia Berrojalbiz edota Maria Angeles Garairenean. Bestea, Xabier Peñak eskainitako oinarritzko alfabetatze-ikastaroa.



Itziar Zarraonaindia andereñoa Palacios-Bilbaotarren etxean, ikasleekin.

Argazkia: Bizkaiko ikastolak, 1957-1972.

“Orduan Juliana Berrojalbiz arduratzen zen hortaz eta halako batean ea nola konpon zitekeen ikastola kontua esan zidan, beti iheska ibili beharrean ez saiatzeko moduan eta Euskaltzaindiko bezala izpeziara joan nintzen ikastetxe bat zabaltzeko zer egin behar zen galde egitera.

(...) Sanchez zen izpezioko buru [Iralabarriko ikastola zarratuarazi zuen berbera], euskalduna bera amaren partetik. Euskara erabilirik ere irakatsi nahi genduela esan nion Euskal Akademia batek defenditzen duenari dagokionez eta Diputazioan egingo nituela ahaleginak gure alde joka zezan eta egiteko esan zidan. Baita egin ere.

Luzaro ibili nintzen joan etorrietan pazientzia harturik. Ezezkorik ez nuen hartzen, baina luzatu egiten zen. Diputazioko buru Fernando Ibarra, Arriluzeko Markesa zen. Hain zuzen ere buru izan baino lehen ezagutu nuen Berrizen berak deiturik egin genduen bazkari batean. (...) Halako batean ikastetxea zabaltzearen arazoaz mintzatzeko izpezioko burua ta hirurok bildu behar genduela Diputazioan esan zidan eta hala egin genduen. (...) ikastetxea zabaltzekotan gelditu ginen. Diputazioak Euskaltzaindiari ofizio bat bidali zion eta behar ziren paper guztiekin batera aurkeztatu zen 1966-garren urteko maiatzaren 25-ean zabaltzea eskaturik.

Urrengo ilaren 2-an martxan zegoen eta kanpora begira ikastolari indar emateko Bilboko apezpiku jaun Gulpide zenari deitu zitzaion bedeinkazioa ematera joan zedin.”



Julia Berrojalbiz, Azkueren erretratua eskuetan daukala. Ondoan, garai hartan Estatuak indarrean jarri zuen eskola-ziurtagiria. **Argazkia:** Bizkaiko ikastolak, 1957-1972.

Gurpideren bedeinkazio-ekitaldia ekainaren 8an izan zen eta bertan euskaraz eta gaztelaniaz egin zuen berba gotzainak. Elkano kaleko seigarrenean kokatu zuten ikastola, Tere Rotaetxeren senarrak bertan alokairuan zeukan etxea hutsik geratu zela baliatuta. *Resurreccion Maria Azkue* izena jarri zioten. Esandako moduan, 1966an zabaldu zituen ateak, baina Madrilgo baimen ofiziala ez zen iristen eta horrek zenbait arazo sortu zituen. Hori konpondu guran, 1968ko apirilean Madrilera joan ziren Irigoien bera, Tere Rotaetxe eta Julia Berrojalbiz, Lehen Irakaskuntzako zuzendari orokorrarekin berba egitera. Irigoienek arabera, Madrildik bueltan etorri zirenean, “estaziora atera zitzaigun horren zain zegoen jende mordo bat.” Bost egun geroago telegrama hau ailegatu zitzaion: ‘*Fecha hoy firmóse Orden autorizando funcionamiento Colegio no estatal enseñanza primaria Resurrección María Azcue esa capital*’. Maiatzaren 7an, azkenik, Estatuko Buletin Ofizialean agertu zen berria. Hura zen Euskal Herriko lehen ikastola ofiziala, eta 50 ume inguru zeuzkan ordurako.

Karmele Goñi izan zen Azkue ikastolaren beste sustatzaileetako bat. Berak dioenez, hasiera guztiak bezala, eurena ere hasiera gaitza izan zen, dena baitzuten eskas: dirua, liburuak...



1969: Azkue ikastolan eskola ematen.

Argazkia: *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972.*

“Lan gogorra izan zen. Denetarik egiten genuen: diruzaintza, andereñoak bilatu, liburuak bilatu... Bakoitza astean egun bitan joaten ginen eskola irekitzera. Gauera arte egoten ginen bertan. Gaixotzen ginenerako ordezkua geneukan. Xabier Peñak lagundu zigun asko liburuekin. Gerra aurreko geografia liburuak, *Xabiartxo*... berreskuratu genituen. Lehenengo udan ezin izan genien ordaindu irakasleei. Ez zen, beraz, gure abertzaletasuna bakarrik, andereñoena ere bai. (...)

Ardura handia zen, eta denok geneukan gure ordezkua. Izan ere, amak ginen guztiok, eta, gaixotu edo beste ezer gertatuta ere, ardurak bete egin behar ziren. (...) Ezer erosi behar genuenean, poltsa pasatzen genuen. Lan handia geneukan ikastolan, eta etxearen ardura ere bai. Lan handia izateak taldea batu egin zuen. Ondo antolatuta geunden.”

Azkue ikastolarekin ofizialtasunaren borroka irabazten hasi ziren ikastolak, baina Azkuek ateak zabaltu baino lehenago ere beste ikastola batzuk sortzen hasiak ziren Bilboaldean: Deustukoa 1963an, Karmelo 1964an, Artxandape 1965ean... Mendian behera datorren elurroldearen traza hartzen hasia zen hura.

Lehiak, jaialdiak eta San Antongo gotorlekua

Irakaskuntzan, beraz, Peñaren eskolek eta ikastolek zabaltu zuten bidea; beste arlo batzuetan, aldiz, txapelketena izan zen euskarazko kultur adierazpenak sustatzeko hobetsitako bidea. Bertsolaritzan, adibidez, 1960ko irailaren 11n Bizkaiko hirugarren bertsolari txapelketa jokatu zen Bilboko Vista Alegre zezen-plazan, berau bete jende begira zela. Mugartegik irabazi zuen txapela. 1961ekoa (Coliseo Albion), berriz, Azpillagak; 1962koa, Lopategik. 1963an (irailaren lehe-

nean) txapelketaren ordeztu Bertsolarien Eguna ospatu zuten: Uztapide, Basarri, Arozamena, Enbeita, Mugartegi, Azpillaga eta Lopategik jardun zuten kantuan. Lopategi izan zen, hain zuzen, hurrengo urteko txapelketan gailendu zena.

Bertso-munduan ez ezik beste arlo batzuetan ere jorratu zuten txapelketen bidea; Euskal Herriko Txistularien Elkarteak nabarmendu zen batez ere arlo horretan: Luis Urteaga Sariketa sortu zuen 1961ean, Txisturako Piezen Lehen Lehiaketa 1965ean, Euskal Dantza Berrien Txapelketa 1967an... Ekitaldiok sekulako arrakasta izan zuten (1964ko otsailaren 23an Santiago Apostol aretoan izaniko txistu kontzertu batera, barbarako, 1.500 lagun hurreratu ziren); euron atzean Xabier Gereño ibili ohi zen eragile nagusi. Ez ziren hor amaitzen bere ardurak, beste lagun batzuekin batera *Txistulari* kazetari hats berria eman guran ere bazebilen-eta. 1965ean, adibidez, Gereño gain Gabriel Aresti, Jose Luis Bengoa, Juan Manuel Idoiaga eta Andoni Amutxategi zeuden kazeta horren erredakzio-kontseiluan.

1965 horretan erreformak izan ziren Elizan Vaticano II Kontzilioaren eraginez; ondorioz, urtarilaren 1etik aurrera latinak tokian tokiko hizkuntzei leku gehiago utzi zien. Dena den, ordurako euskarazko mezak ematen hasiak ziren Bilboko zenbait parrokiatan: Indautxuako jesuitetan, Iralabarriko frantziskotarretan edota San Antonen, esate baterako. San Anton, gainera, hainbat kultur talderen habia zen (bertan batzartu ohi ziren *Txistulari*-koak ere); Xabier Kintanak adierazi digunez

“euskarazko mezarik inportanteena garai hartan On Klaudio Gallastegik San Antonen ematen zuena da. Politika-ukitua ere izaten zuten haren sermoiek, beti egiten zuen kritikaxoren bat orduko zirrikituak baliatuta. Garai hartako euskaltzale guztiak (Aresti bera barne, nahiz eta fededuna ez izan) hara biltzen ziren, meza ondoren kontu-kontari aritzeko. Topagunea zen hura.”

Gallastegirekin batera, Jose Antonio Retolaza ere bazebilen garai hartan San Antongo parrokiari.⁶⁰ Retolaza *Kili-Kili* umeentzako kazeta ezaguna argitaratzen hasi zen 1966an, aldizkariari izena eman zion *Kili-Kili* pertsonaia asmatu ostean (Lander Gallastegik egin zuen pertsonaiaren irudia). Retolazaren beraren arabera, pertsonaiak ezaugarri jakinak zituen: “Ume euskalduna, euskerazalea, jainkozalea, abertzalea, baikorra, euskeraz ez ezik beste izkuntza batzuk be jakinaren euskaldunakaz beti euskeraz egiten ebana.”

⁶⁰ Anjel Zelaietak hirugarren pertsona baten berri ere eman digu: “Retolaza eta Gallastegiz gain, beste figura garrantzitsu bat ere izan zen San Antonen; fraidea zen, eta meza emateko ahalmenik ez zeukan arren asko esku hartu zuen euskarazko elizkizunak laguntzen-eta: Juan Anjel Etxebarria. Latinista handia zen. Plauto, Catulo eta beste hainbat itzuli zituen euskarara. Berak bere poltsikotik, eta On Klaudiok lagunduta, koaderno batzuk botatzen zituen; euskal gramatika antzeko bat eta euskara-euskara hiztegitxo bat ere ateratzen zituen.”

Hainbat kultur talderi eman zieten aterpea San Anton elizaren lokale-tan. **Argazkia:** *Vida Vasca*.



Lehenengo zenbakiaren 80 bat ale baino ez zituen atera, baina handik laster-
rera 2.000 inguru ari zen zabaltzen Bizkai guztian. Zelan moldatu zen horren-
beste ume euskaldun topatzeko? Retolazak berak erantzungo digu:

“Eskoletan sartzea, euskeraren alde zerbait esateko, eziña zan orduan. Eskola aurrean-edo itxaroten neutsen nik umeei. Autoari begira jarten nintzan, ibilli eziñik egoala itxura egiñaz. Umeak, jakiña, urreratu ta ingurutu egiten ninduen. Orduan, euskeraz egiñik, neskato edo mutiko bizkorren baten izena ta zuzenbideak gogoan artzen nebazan... eta laster kartatxo bat egiten neutsan. Aren poza! Beraren izene-an karta bat eldu! Nor ete zan beragaz gogoratzen zan Kili-Kili izeneko ori!

Urrengo batean, lagun batzuen izen-zuzenbideak eskatzen neutsazan, aldizka-
ria bialtzeko asmoz. Beste guztiak bere beingoan eskatuko eusten... Eta alantxe egiten nebazan arpidedunak.”

Aldizkaria atera eta harpideei bidaltzeak, baina, kostu handiak zeuzkan. Retolazak hasieran bere poltsikotik jartzen zuen dirua; handik gutxira Bilboko euskaltzaleen diru laguntzak heltzen hasi zitzaizkion. Horrekin ere nahikoa ez ordea, eta estu eta larri ibili zen hasierako urte haietan.

Kazetaren jabe modura Bilboko San Anton parrokiako Euskal Katekesia ageri zen; dena dela, *Kili-Kili* ez zegoen lege barruan eta Retolaza baimen-eske hasteko beldur zen. Hamar urte geroago, 1976an, honela gogoratzen zuen ordu-
koa:



Ezkerrean, Klaudio Gallastegi. Eskuman, Jose Antonio Retolaza.

Argazkiak: Auñamendi argitaldaria eta *Euskal idazleak* gaur.

“Bilbo’n orduan sortu-barria zan *Euskerazaleak* alkartera jo neban,⁶¹ babespe billa. *Euskerazaleak* ondo hartu ninduan, obeto ezin, eta aren bidez Madrid’eko Ministerio de Información y Turismo’ra jo neban baimen eske... Baiña, gaur arte! Galerazo, ez; baiña baimenik emon bere ez. Gero be sarritan jo dogu bertara, baiña dana alperrik.”

Aldizkariaren bosgarren zenbakian, berriz, ohean gaixo ageri zen *Kili-Kili*. Arra-zoia: euskaldunek erdaraz egiten zutela. Baina zera zioen puntuan: “Kartatxo bat egingo ba’zeuste, aurrerantzean beti euskeraz egingo dozuela esanaz, beingoan osatuko nintzake.” Gutun-meta itzela heldu zitzaion, denak akatsez josita:

“Karta orreik irakurriez ainbat gauzaz konturatu nintzan. Banenkian jakin, umeak ez ekiela irakurten eta idazten euskeraz, baiña ez nenkian zertan eta zergaitik egiten eben ainbeste uts. Sakondu barik neukan beintzat arazo ori. Benetako agerpen bat izan zan niretzat. Eta umeen euskeraren egoera tristea konpontzea premi-

⁶¹ Bilbon sortu zen elkarte hori (Colon Larreategi 14an zeukan egoitza) 1967an, euskara suspertze-ko asmoz. Zerabilten euskara-eredua, dena dela, garai hartan indartzen ari zen batutik urrun zegoen. Hauek izan ziren sortzaileak: Jesus Oleaga, Jose Mari Olaizola, Carlos M. Gonzalez, Jose Antonio Montiano, Castor Uriarte, Jose Ezpeleta, Adrian Zelaia, Juan Ramon Urkixo, Fernando Zubizarreta, Julia Berrojalbiz, Miguel Angel Astiz, Eusebio Erkiaga, Jesus Atxa, Leopoldo Zugaza, Jose Luis Bengoa eta Jose Maria Martin Retana. Gerora, Tere Rotaetxe edota Xabier Peña moduko euskaltzale ezagunak ere batu zitzaizkien.

ñazkoa zala-ta, *Sariketa Nagusia* izenaz alfabetatze kanpaina bat asmatu, eratu, iragarri ta aurrera eroan neban. Ta olan, aldizkaria (baimena ezagaitik) argitaratu eziñean, alfabetatze arazoan sartu nintzan buru-belarri.”

Horrela da, bai: 1968an zenbaki bat atera eta gero aldizkaria ateratzea debekatatu ziotenez, *Sariketa Nagusia*-ri ekin zion Retolazak. Horretarako, irizpide argi batzuk zeuzkan: batetik, “Kili-Kili-ren egitekoa ez da umeai euskera irakastea, umeak dakien euskeraz alfabetatzea baiño”; eta, bigarrenik, helburu hori betetzeko “ezagunaren bidez ez-ezagunera” jotzea (*Euskerazaleak*-en eta hurrengo hamarraldian sortu ziren *Agur*, Labayru eta enparauen funtsezko oinarria berau). Zutabe horien gainean kanpaina entzutetsua burutu zuen *Kili-Kili*-k 1970eko hamarraldian, aldizkaria biziberritzeaz batera.

CINSA: diskoak, liburuak eta jaialdiak

Umeen alfabetatzean *Kili-Kili* garrantzitsua izan zen moduan, ez dago orduko Bilboko euskal kultur mundua ondo ulertzerik CINSA etxea aintzat hartu barik. Argi dezagun lehenbailehen zer dagoen siglon atzean: Coordinación de Iniciativas Sociedad Anónima; hots, Xabier Gereñok eta beste lagun batzuek ekitaldiak antolatu eta disko eta liburuak argitara emateko eraturiko enpresa. Enpresa, bai, eta ez elkarte edota kultur taldea. Hara zelan azaltzen dituen CINSARI buruzkoak Xabier Gereñok berak:

“Denbora aurrera zihoan eta nik ikusten nuen ekintzak hobeto antolatzeko babes bat bilatu beharra zegoela, modu horretan gauza handiagoak egin ahal izateko. Babes hori ezin zitekeen egin elkarte bat sortuz, mundu horretan genbiltzanak ez ginelako Erregimenaren aldekoak, eta elkarte bat sortzea ezinezkoa zen baldin eta bertako buruak frankistak ez baziren. Hortaz, sei lagun bildu ginen, beste zer-bait egin guran: bat, Joseba Gereño, nire anaia; gero, Jose Mari eta Luis Benito Del Valle (bata ETAKoa zen, besteak enpresa bat zeukan Indautxun eta ostalaritza-negozioetarako makinak saltzen zituen), Jose Manuel Nicolas, Luis Varela eta sei-garrena ni neu. Luis Varela ipini genuen presidente bezala; bera salbu, beste bostak abertzale bezala kontsideratuta geunden. Ez genuen, beraz, elkarte bat sortu, hori egiten saiatuz gero ezetza segurua baitzen. Sortu genuena merkataritza arloko enpresa izan zen (...): CINSA. Enpresaren helburua –eskriturak eta dena notarioaren aurrean eginda- jaialdiak antolatu, argitalpenak egin eta antzeko ekintzak burutzea zen (...). Babes horrekin jada, *Festivales de la Canción* haiek egiten hasi ginen, eta diskoak argitaratzen...”

Bermeoko orfeoiaarena izan zen eurek ateratako lehen diskoa, eta zerrenda luzea etorri zen atzetik:

“(...) lehengoan mutil bat etorri zitzaidan elkarrizketa egitera eta esan zidan berak CINSAREN 53 disko topatu zituela Interneten. Euskaraz abestutako diskoak ziren gehienak; ez denak, beste lagun batzuk ere –fraideak-eta- etorri ohi baitzi-



Txistulariak San Anton atarian, 1961. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

tzaizkigun *Misa criolla*-k grabatzeko eskatzen edota antzeko mandatuekin. Lehenengo grabatu genuen diskoa *Bermeo kanta* izan zen, Bermeoko orfeoiari eskainitako diskoa; Ximun Haranek egin zuen grabazioa. Ximun Haran, badakizu, pilotari izanikoa, gero *Enbata*-n-eta ibili zen... Bera etorri zen grabazio-tresnekin eta Bermeon bertan egin genuen grabazioa. Gero, Robles-Arangiz familiak bazeukan talde bat, *Soroak*, eta haiei ere diskoa grabatu genien, hura izan zen gure bigarrena [1962an]. Gero etorriko ziren San Anton orfeoiarena, Benito Lertxundiri grabaturiko biak, Ondarroako Argoitia anaiena, Bergarako *Urretxindorrak* taldearena... Liburuei dagokienez, berriz, abesteko liburuak ziren, euskal kantu-liburuak. Guztira lau atera genituen, eta uste dut garai hartako bost pezetatan jarri genituela salgai.”

CINSArekin produktuek botaldi txikiak zeuzkaten oro har. Disko batzuek, adibidez, 200 kopia inguru baino ez zituzten izaten (botaldiak amaitu ahala berrargitaratu egiten zituzten). Baziren botaldi handiagoak ere; horien artean, *Urretxindorrak*-en lan baten 2.000 kopia inguru saldu zituztela gogoratzen du Xabierrek. Esana dugu, bestalde, enpresa zela Cinsa. Garai hartan gisa honetako beste enpresa bat ere bazen Bilbon, Xabier Kintanak azaldu digun moduan:

“EDILI Bilbon Castor Uriarte arkitektoaren inguruan eginiko editoriala izan zen; Jesus Atxa eta beste batzuk ere ibili ziren tartean. Garai hartan oso gauza apalak baino ezin zitezkeen egin; liburutxoak-eta bultzatu zituen EDILik. Ni hor sartu nintzen laguntzaile moduan, ideiak eta hitzalditxoak ematen, soldatarik gabe. Euskal liburuak banatzeko saio bat ere egin zuten, baina garai hartan oso azpiegitura eskasa zegoen; horrez gain, ez zen batere erraza joera desberdinetako taldeak elkartzea, elkar ezagutzea, eta EDILI lagungarri izan zen horretarako. Diputazio kalean jarri zuen bere bulegoa, eta bulego hori erdibanaturik zegoen *Ama Lur* filma bultzatzen ari zirenekin.⁶² EDILiren arrimuan halaber, euskarazko alfabetatze-kanpaina bat ere egin zen (neuk ere eskola batzuk eman nituen). Giro bat sortzen lagundu zuen EDILik, ekimen nahiko amateurra izan arren.”

EDILI zein Cinsa, hortaz, baliabide gutxiko enpresak ziren. Cinsa, konparazio baterako, Gereño bera arduratzen zen produktuak banatzeaz. Baliabide gutxi izatea nahikoa oztopo ez nonbait eta bestelako trabak ere bazituzten. Xabier Gereño bera, adibidez, Basaurin espetxeratu zuten 1968an Julen Lekunaren *Ez dut nai* kantua zekarren diskoagatik. Honela gogoratzen du berak gertakaria: “Edizioa kendu ziguten. Etxera etorri ziren; 200 bat disko genituen etxean eta guztiak eraman zituzten. Gero, dendarik denda ere ibili ziren disko hura erretiratzen. Hamabost egun eduki ninduten kartzelan, baina orduan ez zidaten prozesurik zabaldu eta ez zen epaiketarik ez ezelako zigorrik izan. Eskarmentu modura baino ez zen izan hura.”

EDILik ez bezala, bestalde, Cinsak jaialdiak ere antolatzen zituen. 1964an, adibidez, Lehen Euskal Abesti Txapelketa antolatu zuten Bilboko Herri Irratiarekin batera. Lehen saria Jose Olaizolak eskuratu zuen *Mendietan* obrari esker eta bigarrena Joxe Mari Gonzalez Bastidak, *Elurra teillatuan* abestia zela medio. Gereñok gisa honetan azaltzen du zelan antolatzen zituzten jaialdiok:

“(…) ez zeukaten ezer nire kontra [agintariak], zerbait egin behar nuen bakoitzean beti joaten bainintzen *Información y Turismo*-ra eta hango ordezkariak

⁶² 1964an *Ama Lur* film dokumentala errodatzeari ekin zioten Nestor Basterretxeak eta Fernando Larrukertek (1968an estreinatu zuten); 1965eko abenduaren 15ean, berriz, Gotzon Elortza bilbotarraren euskarazko lau dokumental erakutsi zituzten Baionako Eskual Idazkaritzan. Lehenak, gainera, Bilbo eta inguruak erakusten zituen (komeni da gogoratzea 1965ean jo zuela goia zinemak Bilbon: urte horretan 42 areto zeuden hirian eta 42.744 jesarleku zeuzkaten denen artean). *Ama Lur* filmari dagokionez, Xabier Kintanak adierazi digunez, “film hori egiteko diru-bilketa egin zen; herriz herri ibili ziren hitzaldiak ematen (neu ere izan nintzen Gernikan eta Mungian filmaren esangura euskaraz azaltzen). Film horren aita ponteko estetikoak Oteiza zen. Oteiza Bilbora etortzen zen eta gazteok berarekin izaten ginen. Garrantzi handia eman zitzaion orduan euskal artisten mugimenduari: *Hemen, Orain, Gaur* eta *Baita* taldeak sortu ziren... Oteiza oso pertsona atsegina zen gazteekin, beti zebilen bere fantasia estetikoekin, baina guztiok liluratuta uzten gintuen. Gu ohituta geunden euskal kultura gauza apal modura ikusten, sakristia-usainekoa gainera, eta Oteiza, aldiz, Sao Pauloko biurtekoa irabazitakoa zen, nazioarteko proiektzioa zeukan, erabat laikoa zen... Panorama zabaldu egiten zigun.”

harreman onak nituen, jakin bazekiten-eta ni ez nintzela ari inor engainatzen. Egia da batzuetan jaialdian abestu beharreko letra bat aurkeztzen zela eta gero zerbait aldatzen zela azken mementoan, baina abeslarien artean hori normala da, letra ahaztu egiten baitzaizu; egia da baita ere beste batzuetan hori nahita egiten zutela... Kontuak kontu, beraiek ikusten zuten nik garbi jokatzeko nuela eurekin. Nik ere banekien zer zegoen beste moduz jokatzeko gero, *Agur Ben Hur*. Zerbait egin nahi bazenuen luzarotan, ondo portatu behar zinen, bestela berehala mozten zizuten kontua.

(...) Baimenak lortzeko, berriz, normalean ez nuen arazorik izaten. Gogoan ditut oraindik garai hartako agintari batzuk: Jose Antonio Zarzalejos (Charo Zarzalejos ena), barbarako, nirekin gizon portatu zen beti, ez daukat bere kontrako kezarik. (...) Pilar Kareagarekin berarekin ere, normal antzean; txistu bat ere erosi zuen, jozten ikasteko. Tira, nirekin behintzat normal portatu zen.”

Jaialdion antolaketa-lanei esker, orduko kantaririk onenen ezagutzak egiteko moduan izan zen bilbotar idazle joria:

“Nik Durangon ezagutu nuen Lurdes Iriondo, Durangoko Azokaren lehen ekitaldian [1965]. (...) oholtza jarri zuten hantxe bertan, kontua apur bat animatzeko; oholtza gainean, berriz, neska bat, hamabost-hamasei urtekoa, zisne-lepodun jertse gorria soinean eta gitarra eskuetan. Orduantxe aurkeztu zidaten. Moja-ikastetxe batean ari zen ikasten. Nik zera agindu nion: Gabonetan Bilbora eramango nuela abestera. Esan eta egin: Santiago Apostoleko jaialdian abestu zuen. Uste dut Xabier Lete, Benito Lertxundi eta Mikel Laboa ere orduan ezagutu nituela. Gerora ezagutuko nituen Artze, Lekuona eta gainerakoak.”




Ez Dok Amairu taldeko kideak. **Argazkia**: Añamendi argitaldaria.

Urtebete geroago, 1966ko azaroaren 6an, beste lagun batzuekin batera *Ez dok amairu* taldea osatzen zuten artista horiek aurkezpen-jaialdia izan zuten Bilbon, Nemesio Etxanizi egin zitzaion omenaldia baliatuta (egin kontu *Ez Dok Amairu*-ko kide batzuek -Julen Lekuona, Lurdes Iriondo edo Benito Lertxundik, besteak beste- CINSArekin atera zituztela hasierako lanak eta oihartzun handia izan zutela Bilboko giro jakin batzuetan).

Jaialdi horiek famatu zuten Cinsa neurri handi batean, eta jaialdi batek eka-
rri zion gainbehera ere. Xabier Gereñok azalduko digu zelan izan zen hori:

“Guk egin genuen azken gauza *Festival de la Canción Vasca* antolatzea izan zen. San Remoko jaialdietan oinarritu nintzen euskal abesti berriak sor zitezen plaza bat eratu nahian. Izan ere, ordura arte dendetan saltzen ziren euskarazko disko gehienak orfeioenak baitziren; haatik, ez zegoen euskarazko abesti modernorik, ez ziren existitu ere egiten. (...) Lehenengoa Bilboko Capitolen egin genuen [1965ean]. Areto erdia-edo bete genuen: 900 lagunentzako tokia zegoen, eta 500 bat sarrera saldu genituen. Hurrengo urtean Bilbon eta Donostian egin genuen jaialdia; Bilbon, berriro Capitolen, eta bete egin genuen aretoa. (...) Hurrengo urteko jaialdia, berriz, are leku gehiagotan egin genuen: Victoria Eugenia, (...) Gasteizko Guridi antzokian (...), Gernikako frontoian (...), Iruñeko Gaiarren (...); azkenik, Bilboko Coliseo Alban izan zen finala, hor ere aretoa jendez mukurru zela. Agintariek hori ikusi zutenean, finala jokatu eta bi egunera-edo Bilboko Gobernu Zibilera deitu ninduten eta zera esan zidaten: *‘A partir de ahora a usted se le prohíbe totalmente organizar nada.’* Orduan hasi nintzen idazten. Badakizu gainera zergatik izan zen Coliseo Albiakoaren ondorengo debekua? Gutariko batek hanka sartu zuelako. (...) Nik esaten nien gainerako lagunei: *‘Isilik ibili beharra dago, hemen badakigu zertan ari garen eta zer egin behar dugun: euskara sustatu behar dugu abestien bidez. Gainerako guztiak hemen ez du lekurik.’* Kontua da, baita, Coliseo Albiako jaialdiko aurkezle lanetan Patxi Garcia zebilela (...). Aurkezle ona zen, kategoriakoa; baina bazegoen kantu egile bat (...) burua berotuta zekarrena,



Irudi bitxi bat: Pilar Kareaga, 1929an.
1969-1975 bitartean Bilboko alkate izan zena
espainiar Estatuko lehen emakume ingeniari
eta makinista ere izan zen.

Argazkiak: *Vía libre* aldizkaria.



eta haren obra bat aurkeztu behar zuten. Eta hark esan omen zion Patxi Garciari bere obrari buruzko hitz batzuk esan gura zituela; nik esana nion Patxiri mikrofonoa kontrolpean izateko eta beste inori ez uzteko, baina lagun hari utzi egin zion (...) eta mikrofonoa eskuetan hartu bezain laster hasi zen hanka sartzen, bando abertzalea lau haizetara zabaltzen, eta gainera gaztelaniaz. Palkoetako batean, gainera, Bilbo-ko alkatea zegoen, Pilar Kareaga. Sutan jarri zen alkatea, eta besteak aldarrika jarraitzen zuen bitartean hau zutundu egin zen eta *¡Viva España!* egin zuen garrasi. Patxi Garcia berehala konturatu zen, eta besteari mikrofonoa kendu zion, kontua baretu nahian, baina badakizu, handik bi egunera Gobernu Zibilera deitu ninduten eta akabo jaialdiak. Gobernadorearen idazkariak zera esan zidan: *‘Fuera el pasaporte y nada de festivales de ninguna clase. Usted no va a tener permiso ni para organizar una novena.’* Giro hartan ezer egiterik ez zegoela ikusita, eta ni ezer egin barik ezin naitekeenez egon, idazten hasi nintzen.”

Kriselu: Bilbon argia egin guran

Debeku hori heldu baino lehen CINSAk antolaturiko jaialdietako batean, 1964an, Donostiako Jarrai antzerki-taldeak *Ertzaina etxean* lana antzeztu zuen Bilbon. 1966an bigarrenez bisitatu zuten hiria, Euskaltzaindiaren ekimenez (Ayala antzokian izan ziren, *Historia triste bat* obrarekin), eta, orduan ere, aurrekoan bezala, Gabriel Aresti begira izan zuten. Ez alferrik, lehenagotik ere ezagutzen zituen, ordurako bere obra bat antzeztua baitzeukaten.

Kontua da Txinpartak-en ibilitako gazte batzuk Jarrai-koengana joan zirela. Hor hasi zen guztia, Arestik berak 1966ko ekainean *Hierro*-n kontatu zuen moduan:

“(...) algunos de ellos anteriormente pertenecientes al arriba indicado *Txinpartak*, quienes cansados de su falta de ambición intelectual, decidieron formar un nuevo grupo, para lo cual pusieron en contacto con el bravo grupo de teatro donostiarra *Jarrai* quien un poco los acogió bajo su más entusiasta protección.

Por el *Jarrai*, me puse en comunicación con los estudiantes bilbaenses.”

Bilbotar poetak buruan zerabilen ordurako euskal antzerkia gaiei zein formei zegokienez eraberritzeko asmoa. Gosea eta jateko gogoa elkartuta, beraz, Kriselu antzerki-taldea antolatu zuten 1965ean. Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitzan egiten zituzten entseguak. Horri dagokionez, hau da Arestik *Hierro*-n Euskaltzaindia eta Kriseluren arteko harremanari buruz idatzitakoa: “Funcionamos bajo su protección oficial y hasta en algún momento nos ha brindado su ayuda económica.” Artikulu horretan, bestalde, agerian geratzen da bere izaera probokatzailerak; denek ez zuten gustuko nonbait Kriselu-ren moderno-usaina eta hori dela-eta zera zioen berak: “Nos han atacado; nos atacarán. Lo sabemos y lo deseamos.” Taldeari, bestalde, Gabrielekek berak jarri zion izena, berak aukeratu zituen antzezlanak, berak egin zituen itzulpenak eta berak zuzendu zuen lehen obra (hurrengo bietan Xabier Elorriaga aritu zen zeregin horretan).

Ikasle euskaldun talde batek osatzen zuen, funtsean, Kriselu. Jerardo Elortzak ondo gogoratzen ditu kide guztiak:

“1966-67 ikasturteko Kriselu-kideak honako hauek ginela uste dut: bilbotarrak Begoña eta Itziar Foruria, ahizpak, Espe Kristobal, Tere Astorki eta Xabier Perez Urraza; gainerako bizkaitarrak Migel Anjel Etxearte aulestiarra eta Leopoldo Legarreta Errigoitikoak; eta gipuzkoarrak Esteban Arana, Jokin eta Patxi Barrutia, anaiak, Arrasatekoak, Jose Luis Arrieta Bergarakoa, Bittor Galdos eta Jerardo Elortza oñatiarrak, Ixio Garmendia Zaldibiakoa eta Anjel Uresberueta donostiarra.

Hauetaz gain Aresti bera, jakina, eta Xabier G. Elorriaga, Hego-Ameriketatik etorria izan arren, bilbotartzat har dezakeguna.”

Ugo Betti italiarraren *Ahuntz herriko bidegabeak* izan zen euren lehen obra. 1966ko udaberri-udan jokatu zuten: ekainaren 5ean Bilboko Ayala antzokian estreinatuta, Bermeon, Durangon eta Bergaran izan ziren gero. 1967an, berriz, Bilboko Ayala antzokian antolatutako Euskal Antzerki Astean lan bi antzeztu zituzten: “Sistema zoriontsu bat” eta “Ez du ardura nun jaio zaran”.

Gorabehera politikoek, ordea, gogor eragin zuten taldearengan: batzuk ETA Zaharraren alde lerratu ziren, beste batzuk ETA Berriarekin zeuden... Elortzaren arabera, Aresti batzuekin eta besteekin berba eginez batasunari eusten saiatu zen arren, 1968ko udazkenean bertan behera geratu zen ahalegin berritzaile hura, kide batzuk ihes egin beharrean izan baitziren. Arestiren ahaleginak, ordea, ez ziren hor amaitu.

Aresti, dohakabe guztien habian

Gabriel Aresti Segurola 1933an jaio zen Bilbon; Alban, hain zuzen, berak 1972ko hitzaldi batean honela deskribatu zuen bazterrean: : “(...) gure Albia Zaharrean jaiotakoa (ai Albia, Albia, dohakabe guztion kabia, bertan jaio ginen Sabino eta Txabi [Etxebarrieta], eta ni ere, guztirik dohakabeena) (...)” Aita,

Gabino Aresti bilbotarra, euskaldun izan zen gaztetan, gerora euskara erabat ahaztu zuen arren. Hara zer zioen Gabrielen anaia Juan Marik euren aitari buruz: “Mi padre, entre otras cosas, fue secretario del Círculo Maurista y concejal del Ayuntamiento de Bilbao. Estuvo perseguido durante el período rojo-separatista. A la entrada de los nacionales no sacó provecho porque era de carácter apocado.” Aitaren arreba nagusiak euskaldunak ziren, eta baita euren seme-alabak ere. Berak, berriz, 12 urterekin ekin zion euskara bere kabuz ikasteari.

Estereotipoak apurtzen zituen gizona zen Gabriel: bilbotar kaletarra, euskaldun berria, gorbata duna, fedebakoa... Euskara ordura arteko ghettoetatik ateratzen eta hiritartzen tematu zen, zinez tematu ere (atalburuan paratu dugun *Bilbaoko kaleak* poema esanikoaren frogarria da; bertan, beste behin, Bilboz kexu da olerkaria, baina Bilbo euskaraz madarikatzen duen ber-paradoxaren gozoa- hiria euskararentzat irabazten ari da).

1959an eman zuen lehen pauso sendoa norabide horretan, *Maldan behera* olerki-bilduma sarituarekin (urtebete geroago Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian argitaratu zioten lan hori).⁶³ 1962an, berriz, Orixe saria irabazi zuen *Harri eta Herri* lanagatik. Izen bereko liburua ez zen 1964ra arte argitaratu. Eta argitaratzeaz batera, hautsak harrotu zituen, handik gutxira E'tar J.A.-k *Zeruko Argia*-n sinaturiko artikulua frogatzen duen moduan:

“*Harri eta Herri* izeneko poema argitaratu barriak egundoko zalaparta itzala atara dau uri onetako euskaltzaleen artean. Txoko guztietan euskaltzaleen iruzkiñak etengabeak dira. Kritikak, bai aldekoak bai aurkakoak, ez dira falta. (...) Eguneroko esamesak egillearen inguruan dabilz. Giro ederra dago gure uri nagusian. Bere elermenez *eskola* egin ei dau idazleak. Laster agertuko dau beste gazte batek poema barri bat, izen onegaz: *Arro ta Ero...* ta biraorik gabe.”

Arestik, argi dago, amodio bezainbat gorroto ernarazten zuen bere inguruan. Baina hori bai, Zelaia dion dioskunez, batzuek zein besteek irakurri egiten zuten: “Gure denborako jendearentzat Aresti irakurgarria zen (beste asko ez bezala). Are: Arestiren artikuluek irakurtzeko gogo pizten zuten. Derion, esate baterako, *Zeruko Argia* noiz etorriko zain egoten ginen, Arestiren artikulurik ote zekarren ikusteko, *nire luma madarikatua* eta horrelakoak irakurtzeko desiatzen...”

Madarikatua berba sarritan ageri da Arestiren obran. Xabier Kintanak aitortu digunez, “Arestik maiz aipatzen zuen poeta madarikatuarena. Bera ezagututa, nik esango nuke gustatu egiten zitzaizkion eskandalu publiko izate hori; gainera,

⁶³ Mitxelenak izaera aitzindaria aitortzen zion *Maldan behera*-ri: “Hor dago alde-aldean Arantzazuko batua osorik, puntu eta komatxo, baita Arantzazuz gerozkoa ere, aditz eta guzti. Arestik hor darabilena baita, hain zuzen, Arestik kontra egin arren, Euskaltzaindiak ontzat hartu zuena. Eta hori, ikus dezakezuenez, Arantzazuko bilera baino bederatzi urtez lehenagoko kontua duzue.”



Arestiren garaiko Albia, *dohakabe guztion kabia*.

Argazkia: *Bilbao y los pueblos de su ría en la tarjeta postal.*

inoiz bere poema batean esana zuen bera gerra ekartzera zetorrela, azken batean bakeak (Francoren *25 bake urteak* zeuden garai hartan boladan) euskarari kalte egiten ziolako, euskarak mugimendua behar zuelako.”

Iñaki Irigoienek, dena den, *Harri eta herri*-ren arrakasta erlatibizatu digu: “Badakizu zein zen egoera; orduan Aresti eta horrelako jendea beti giro estu batean mugitzen ziren, oso pertsona gutxiren artean. Arestiri orduko Bilbon izen gehiago eman zion saria irabazi izanak obrak berak baino.”

Kontuak kontu, garai hartan euskarak Bilbon ez ezik Euskal Herri guztian izan zuen suspertzailerik handienetakoa izan zen Gabriel. Koldo Mitxelenak berak, esate baterako, zera aitortu zion gutun bidez Anjel Zelaietari: “Euskeraren batasunari buruz bera izan da, segur aski, eragilerik gogorrena. Luzaroko bizirik ez zuela jakin izan balu bezala, beti presaka zebilen, beti zirika, nagiak nola akui-latuko. Zenbait aldiz, batasun zaleak ere aspertuxe zeuzkan ezinegon hori zela medio. Hari eskerrak, ordea, heldu gara heldu garen punturaiño.” Eta, hala ere, hamarraldi erdian euskaraz idazteari uztekotan izan ei zen, 1964an *Zeruko Argia*-n aitortu zuenez:



Gabriel Aresti, zenbait euskaltzain mahaikide dituela.
Argazkia: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

“Azken aspaldi honetan, uda luze eta bero hau akabatu zenetik honera, fedekrisi bat sufritu dut, espantagarria, eta nire mintzaera prontoarekin iraindu ditudan euskaltzale leial guztiei mesede bat eskatu diet, barka dezaidatela (...). Etsai gaiztoak gogorrik tentatzen ninduen: Zertarako euskeraz? Hik euskeraz ez dakik. Hala esaten diate. Ama-hizkuntza erdera duk, hire aiton-hizkuntza euskera baldin bada ere. Gainera ez aute estimatuko. Jentarte horretan gorrotatua izanen haiz.”

Antza denez, *Harri eta Herri* kaleratu eta gero zerabilen euskara zela-eta jasotako kritika batzuek zerikusi zuzena izan zuten zaputzaldi horretan. Bere *mintzaera pronto*a du hizpide, bestalde, Gabrielelek. Ez zen nonbait aiurri gozoko gizona, zera idatzi baitzion Mitxelenak Zelaietari haren izaeraz: “Zedorrek badakizu sobe-ra eta gehiegi kontra aritzea gustatzen zitzaiola Gabrieli (...) etsaiak bilatzen saiatu baitzen maizegi, lagunak bildu beharrean.” Xabier Kintanak, berriz, zera erantsi digu:

“Gustatu egiten zitzaion polemika, gaizki ulertua izatea... Bere izaera halakoxea zen. Egungo perspektibatik barre edo irri egin dezakezu, baina garai hartan... Berak

esaten zuenean poeta madarikatua, baztertua zela, nik esango nuke berak (probo-katzailea zen aldetik) hori bilatzen zuela. Gustatu egiten zitzaion egoera horretan egotea.”

Xabier Gereño ere gisa honetan mintzo da bilbotar poetaz: “(...) haren izaera gogorra zen. Kontu handia eduki behar zen Gabriel Aresti tratatzerakoan, zakar samarra baitzen. (...) Beti kontu handiz ibili behar zen harekin, erraz su-tzen zelako, jenio benetan bizia zeukan.”

Edozelan ere, bere nortasun gogorra gorabehera,⁶⁴ garai hartako kultur giro-an ondo txertaturiko gizona zen Aresti... Horri dagokionez, sasoi hartako intelektualak kafe-etxeetako tertulietara bildu ohi ziren, eta La Concordia-koa (orain izen bereko bingoa dago bertan, J. M. Olabarri kalean) zen denetan entzutetsue-na, partaideen izen-zerrendak egiaztatzen duenez: Blas Otero, Vidal de Nicolas, Agustin Ibarrola, Alfonso Irigoien, Gabriel Celaya, Jose Antonio Etxebarrieta, Patxo Unzueta, Aresti bera... Solasaldiak erdaraz izan ohi ziren, baina Irigoien eta Arestik sator-lana egin ohi zuten, Irigoienek berak idatzi zuenez:

“Gora beherak ere izan ziren, kolore guztietakoak baitzeuden eta arrainak hi-tzarekin erdaratik euskarara itzultzen den izen horietakoak ere bai. Ni inorekin ez nintzen aserratu eta taldetara makurtu gabeko postura hartzen nuen, Euskal Herria-ren alde beti, hori bai, eta funtsean Aresti ere bide beretik zebilen, sarri bestela bazi-rudien ere (...). Kontuan izan behar dugu hango giroa ez zela euskaldun arrunten artekoa bezalakoa.”

Zenbaterainokoa zen baina euren iritzien eragina? Rafael Castroren aipu bat ekarriko dugu orriotara kontu hau argitzeko:

“(...) a personas como yo, que no sabían absolutamente nada del problema nacional vasco ni del euskera, nos hacía interesarnos, pero vivamente. A mí me recitaba poemas continuamente en euskera, unos me los traducía y otros no; me hablaba de una problemática que no sabía que existiera siquiera, y consiguió que yo me interesara por todo eso, aun sin entenderlo del todo en ese tiempo.”

Xabier Kintanak ere Arestik orduko intelektual erdaldun batzuegan izaniko eraginari buruzko argibideak eman dizkigu:

“Arestik egin zuen ahalegina euskaldun eta ezkerreko izan zitekeen proiektua aurkezteko. Horren inguruan beste batzuk ere egon ginen. Vidal de Nicolas eta

⁶⁴ Profeta-izaera oso barneratua zeukan gizonak; 1968an, barbarako, zera idatzi zuen *Zeruko Argia*-n: “Niri gaizki portatuaren ofizioa jokatzeko tokatzen zait beti. Horregatik asko gorrotatzen naute, edo ez naute maitatzen, behintzat. Beste batzuek ‘amen, jauna’ diotsate guztiari, eta honela ez dute inundikan ere etsaitasunik irabazten, edonun diardue ongi maitatuak eta preziatuak. Baina norbaitek kontatu behar ditu egiak, eta ofizio atsekabe hori, euskaltzaletasunaren antzertokian ofizioak partitu ziranean, niri toka-tu zitzaidan.”

horiek inoiz ez dira euskaldunegi agertu, baina bai izan zuela eragin handia Ibarrola eta beste batzuren; Ibarrolaren tematika, haren koadroak... Ez dugu ahaztu behar Arestik poema-liburu bat Ibarrolaren marrazkiekin atera zuela; ez da kasualitatea, halaber, Ibarrolaren bigarren semea Irrintzi deitzea... Zenbait euskaltzaleren artean, berriz, fama txarra hartu zuen, Espainiako komunista eta sozialistekin ibiltzen zelako.”

Haiengana ez ezik beste esparru batzuetara heltzeko asmoz, euskal kulturari buruzko artikulu-sorta idatzi zuen Gabrielelek erdaraz Bilboko *Hierro* egunkarian, bi aldikadatan: 1962an lehenik, eta 1966an ondoren (Anjel Zelaietaren arabera, “Gabrielek Tauerri gutuna igorri zion esanez: ‘*Hemen falangist periodiko batean idazten dut gure arteko pentsamendu meharra irekitzeko.*’ Pentsamendu mehar hori agintariena da batetik, eta jelkideena bestetik.”).

Ez hori bakarrik: ahoan legar barik berba egitearen aldeko izaki, hamarraldi hondarrean eskainitako hitzaldi batean “*vasquía sin vascuence*” delakoa arbuia-tu zuen. Hil hurran zela ere, argi eta garbi hitz egin zuen auzi honi buruz: “*Escritor vasco es el escritor que escribe en euskara; por lo tanto, no creo que el nombre de escritor vasco convenga a un Pío Baroja, por ejemplo. Blas de Otero y Gabriel Celaya son dos grandes poetas, pero no son poetas vascos, son poetas castellanos hasta las últimas consecuencias.*”

Dena dela, erdal munduan ez ezik, euskal munduan ere piztu ohi zuen polemikarik Arestik, sarritan gainera. Adibide bi aipatuko ditugu atal hau amaitzeko. Lehena “Bilbaoko erdal herritik” artikulua da, 1967an *Zeruko Argia*-n argitaratu ostean hainbat eztabaida eragin zituen (egin kontu urte horretan agertu zela –zentsoreek agindutako aldaketa denak egin eta gero- *Euskal Harria* ere, Arestiren hirugarren poema-liburua):

“Orain auzo popular batean bizi naiz, hemen Basurtun. Nire portalean hogezortzi familia bizi gara. Hiru euskal deitura daude bakarrik, aurreko transportista txorierritarra, beheko erlojeru donostiarra, eta ni. Hau ez da euskal herria. Hau erdal herria da... Gaur egunean Bilbao, Etxebarri, Barakaldo erdal herriak dira. Hemen euskaldun batzuk bizi gara: gure haurrentzat euskal eskolak eskatu behar ditugu (ez hortik ikusten diren ikastola burjesak), hori izanen baita gure libertatea. Ukatzen dizkigutenek izen erreza dute. Baina kale arte honetan dauden erdaldunentzat euskal eskolak zabaltzea, eta bertara erdaldun umeak bortxatu eta behartzea, hori faszismoa da. Hemen batzutan entzuten dudana soinu ez da txistuarena, gallego gaitarena baizik. Egun batean euskaldun mutil batzuk gaita apurtu zioten gallegoari, inolako makilaldia eman ondoren... Ermuan hamar milla gallego bizi omen dira, eta bakarrik bi mila euskaldun... Askok maitatzen dut euskera; asko maitatzen dut nire sorterria; baina are gehiago gizonaren dignitatea... Nire burua ez nuen jarriko gallegoari gaita apurtu ziotenen lerroen artean; nik gallegoa defendituko nuen... Arrazoi berorrenatik Ermuko gallegoen haurrentzat eskola gallegoak zabalduko nituzke. Arrazoi berberorrenatik, ez nituzke Barakaldoko eta Etxebarriko haur erdaldunak euskal eskoletara obligatuko (...).”

Bigarren adibideari dagokionez, Gabrieleke orduan ernatu guran zebiltzan ikastolekiko zeukan jarrera aipatu behar. Zelaietaren pasarte hau argigarria da:

“Garai hauetan edo, Julita Berrojalbizekin ere egona zen, beronen haurrak hark zuzentzen zuen ikastolan sartzeko. “*Baina ezin dut hainbeste diru ordaindu... eta gainera PNVaren eskola batean ene haurrak edukatzeko!*”, esaten omen zion.

Berrojalbizek, diruagatik bazen, konponduko zutela omen ziotson... Baina, kuestioa da ez zituela eraman. Karmele Rotaetxek esaten digunez, “*harroegia*” zen inoren diruarekin bere alaben estudioak pagatzeko. Diruarena, ordea, aitzakia baino ezin zen izan, Arestiren soldata ez baitzen ikastoletako haurren gurasorik gehienena baino kaxkarragoa.”



Makina bat eztabaida sortu zuen Gabriel Arestik bere garaian. **Argazkia:** Argia aldizkaria.

Harrizko herri hau-n (1971) ageri zen eskaintzak ez zuen auzia asko baretzen lagundu:

“Liburu hau (eta orain arteko neure gainerako neke guztiak) euskaldun dirudunek izerdia eta bizimodua zurrupatzen dieten euskaldun langileei eskaintzen diet; bereziki *ikastola* izeneko euskal eskoletan lan-kontraturik gabe eta lan-segurantzarik gabe gizonaren eskubideak euskera noble batez euskaldun hurrei irakasteagatik bere jornal merkeak arriskuan jartzen dituzten maistrei; hauen artean, Bilbaoko bi kolejo ezagunegitan arbuio eta humiliazio penagarri hau sufritzen dutenei...”

Jarrera horiek zirela kausa, etsai bat baino gehiago sortu zitzaion bazterretan. Karmele Rotaetxek 1968ko martxoan antolaturiko Bilboko Euskal Jakintza Asteaz jazoetakoa da esandakoaren frogak. Aste horren baitan hilaren 12an Arestik egin behar zuen berba; Santiago Apostol aretoa jendez beteta zegoela Gabriel aurkezten hasi zirenean, goialdean zegoen taldetxo bat (ELA-Berri ingurukoak)

‘fuera, fuera’ deadarka hasi zen; behealdekoek, ordea, Arestiren aldeko txaloe-kin erantzun zieten. Esanikoa, beraz: bilbotar poetak ez zuen inor axolagabe uzten.

Anaitasuna, garai berrien atarian

1962an Fraga Iribarne Espainiako Informazio eta Turismo ministro izendatu zuten, eta beronen agintaldian aldaketak izan ziren hedabide-munduan. 1966an, adibidez, prentsa-lege berriak, aurretiko zentsura ezabatzeaz gain, kazeta berrien sorrera baimendu eta berauen zuzendariaren izendapen askea bermatu zituen. Hala ere, kontrolak zorrotz-zorrotza izaten segi zuen, ezarritako zigor-kopuru altua lekuko.

Apur bat lehenago, 1960ko abuztuan, TVE-ren seinalea Bilbora iritsi zen, baina, bistan denez, hor guzti-guztia zen gaztelaniaz. Hirian nagusi ziren *Hierro*, *Correo* eta *Gaceta*-n ere berdin (Mikel Arrutzak oso lantzean behin idatzitako artikuluren bat izan ohi zen salbuespena). Ezinbestean aipatu beharra dago, hala ere, Muñoyerro, Garcia eta Astiz modukoek erdal medioetan eginiko lana, frankismoak ezarritako blokeoa hausten lagundu zuelako. Posta kalean bizi zen Astiz nafarra benetako erreferentzia bihurtu zen urte haietan, euskal kulturari buruzko



Erdara hutsean bizi zirenei euskararen berri ematen saiatu zen Miguel Angel Astiz nafarra.

Argazkia: Bizkaiko ikastolak, 1957-1972.

albiste guztiak ematen baitzituen argitara *La Gaceta*-n. Horrez gain, *Kili-kili*-n eta *Euskerazaleak*-en ere parte hartu zuen. Gabriel Arestik “Aurreku eta atzesku” olerkia eskaini zion *Euskal Harria*-n.

Irratiari dagokionez, 1965ean Xabier Peñaren gramatika-liburuari jarraiki, Bilboko Herri Irratia euskara ikasteko saioa emititzen hasi zen. Ikastaroa hasi eta bigarren egunean, Peñaren lana erosi nahi zutenek ilarak sortu zituzten irratiaren atarian eta hirugarren egunerako 2.000 aleko botaldia zeukan gramatika-liburua agortu egin zen. Bi hilabeteren buruan Jon Oñatibiak *Método de euskera radiofónico / Euskera irrati bidez. Primer curso* plazaratu zuen.

1964an, berriz, euskaraz ziharduen kazeta bat indarra hartzen hasi zen Bilboaldean. Izan ere, urte horretan frantziskotarren *Anaitasuna* aldizkaria autonomo egin zen eta hilean behin kaleratzeari ekin zion (Gipuzkoako izen bereko aldizkariarekiko beregaintasun osoa, dena den, ez zuen 1967ra arte lortu, hamaboskari bihurtzeaz batera; ordura arte, legearen aurrean aldizkari biek zuzendari berbera zeukaten). Xabier Gereño ere tartean zebilen:

“Imanol Berriatuak horren ardura hartu eta Bilbora eraman zuen. Ez hori bakarrik: beste giro bat ere eman zion; erlijio-aldizkaria egiten tematu beharrean, aldizkari irekia, zabala egin gura izan zuen. Hor hasi nintzen ni idazten.⁶⁵ *Anaitasuna*-k aparteko garrantzia izan zuen, gainera, euskara batuaren bultzatzaile nagusietakoa izan zelako. Hori ere aintzat hartu beharra dago, euskara batua abiatu berritan jende asko baitzegoen haren aurka.”

Iñaki Irigoienek ustez, “*Anaitasuna* garrantzitsua izan zen, lehenengo eta behin garbizalekeria gainditzeko (eredu sabindar ulergaitza baino euskara herrikoia erabiltzen hasi ziren), eta gero, behin batua gauzatutakoan, berau gizarteratzeko. Dena dela, ez zen lar zabaltzen.”

Zeruko Argia gipuzkoarrak baino botaldi txikiagoa zeukan *Anaitasuna*-k, bai, baina Anjel Zelaiek dioskunez, “Bilbon harpide dezente zeukan, beste edozein herritan baino gehiago.” Berak 1968an izan zuen estreinako harremana aldizkariarekin. *Anaitasuna* larri zebilen garai hartan, diru arazoak zirela-eta:

“Hori dela-eta, 1968an *Anaitasuna*-ren ardura zeukatenek deitu egin gintuzten orduan gazte, kultu eta borrokalaria-edo ginenak. Zazpikaleetako Dorre kaleko hirugarrenean egin genuen bilera; hamar bat lagun egon ginen gehien jota. Jende berria behar zela esan ziguten, aldizkaria bizkortzeko. *Anaitasuna*-ren arduradun modura Josu Arenaza agertu zitzaigun. Hau esan egin nahi dut, horrela beste gauza batzuk ere ulertzen baitira. Zuzendari berria behar zen, eta nire izena bota zuten mahai gainera. Nik ordurako *Zeruko Argia*-n idazten nuen, eta horregatik hautatu nindutela

⁶⁵ Anjel Zelaiek aitortu digunez, idazteaz gain, beste behar batzuk ere egiten zituen: “Arlo komertzialean eta kontabilitatean lan handia egin zuen; ez hori bakarrik: mezetara ere joaten zen, aldizkariaren zabalkundea egitera. Horri esker, aldizkaria asko igo zen derrepentean eta belaunaldi berri bat hasi zen bertan idazten.”

pentsatzen dut (Josu Naberan eta Anjel Ugarteburuk bota zuten nire izena). Hasi ginen lanean, baina egin kontu herria bor-borka zegoela: Etxebarrieta hil berri, mezak, manifestazioak... Derion itxialdia ere egin genuen... Beste dinamika batean geunden. Hori dela-eta, Jose Luis Lizundia euskaltzainak behin gelditu eta zera esan zidan: “Eh, errebista ere atera egin behar da, eh?”. Azkenean hasi ginen, beraz, aldizkaria botatzen, Galdakaoko inprentatxo batean. Marxismoak indar handia zeukan gure artean, eta baita euskara batuak ere. Josu Arenaza-eta, ordea, ez zetozen bat ez marxismoarekin ez euskara batuarekin, eta talka egin genuen. Talka horren ondorioz Arenazak-eta *Agur* sortu zuten 1970ean.”




Euskararen batasunaren aldeko apustu garbia egin zuen *Anaitasuna*-k. **Iturria:** Anjel Zelaieta.

Hurrengo atalean aztertuko dugu talka hori. Oraingoz, esan dezagun isilune luze samar baten ostean 1969ko irailaren 15ean atera zela lantalde berriaren estreinako *Anaitasuna* (Irigoienen aroaren ostean, 1957-66 bitartean *Jakin* taldekoek zuzendu zuten Arantzazutik, eta 1967-69 bitartean Juan Azurmendi frantziskotarrak Bermeotik). DIN-A4 formatuko 12 orrialde ziren, zuri-beltzean eta argazkiz hornituta. Zelaieta zuzendariatz gain, Xabier Gereño, Imanol Berriatua, Karmele Rotatetxe, Xabier Kintana eta Joxe Azurmendiren izenak ere ikus zitezkeen, besteak beste.



Atal honekin berba berri eta jasoei bide ematen saiatu zen Imanol Berriatua. **Iturria:** Anjel Zelaieta.

Editorialean, batetik, aldizkariaren ezkertartasuna ageri zen: “Nahi dogu jen-deagaz nahaztatuta izan, gizonak esnatu, bihotzak zabaldu eta gatzaren egonezina ezarri; buruetan ideia ernegarri batzuek sortu, ta oihu ta zarata egin (...)”.



Bizkaieratik baturako zubi-lana egin zuen
Anaitasuna-k. **Iturria:** Anjel Zelaieta.

Nahi genduke erritar jende humilari entzun (...) errebista hau erriagandik jasotako mila ta mila zeresanekin bete.”

Horrez gain, euskararen batasunaren aldeko apustu argia egin zuten: “(...) gura genduke batez bere alfabetatze taldeekin oso bat eginda ibili. (...) Era berean ikastolekin (...) euskeraren batasuna il edo bizikoa dogun ezkeror, gure aldetik, guri tokatzen jakuzan pausoak emotea gura genduke (...)” Pausoetan lehenena, euren ustez, bizkaieraren batasuna erdiestea zen. “Bizkaierazko batasun hori”, zioten, “euskeraren batasun osoari begira egingo da beti be.”

Hor aipatutako alfabetatze-taldeek,⁶⁶ euskara batuak, ikastolek eta *Anaitasuna*-k berak hurrengo hamarraldian bizi izan zuten benetako loraldia. Atal hau amaitzeko garaia dugu, beraz.

⁶⁶ Jose Luis Lizundiak gogoratzen duenez, Rikardo Arregi, Iñaki Beobide, Mikel Lasa, Juan San Martin eta Patxi Altunarekin osatu zen lehen Alfabetatze Batzordea. “1967an”, jarraitzen du Lizundiak, “gure etxera etorri zen [batzordea] Bizkaian Alfabetatzeko Kanpainei hasiera emateko gogoz eta, handik lasterrera, Bilbon hitzordua jarri genuen, Xabier Kintanarekin, Udaletxe ondoko ostatu batean, honek hiriburuan eta nik eskualdeetan kanpainok atontzeko.” Zera esan digu Kintanak berak horren harira: “Soldadutzara joan baino lehen Rikardo arregi etorri zitzaidan bisita egiten. Alfabetatze-kanpainaren bultzatzaile zen bera, argi baikeneukan nekez bultzatuko genuela euskal literatura euskal jendea euskaraz analfabetoa zen bitartean. Behar-beharrezkotzat ikusten genuen erdaldunei euskara irakasteaz gain euskaldunak eurak ere euskaraz alfabetatzea. Euskaltzaindiak lan horri ekin zion (Rikardo eta biok euskaltzain urgazle ginen ordurako).”

IX. 1971, Artunduaga: bilbotar mikrobusak aldirietan



“Herdoilaren tristeziarekin batera, / ziutate honen
soinekoa udazkenetan lanbroa da; / eta bere sabaia
laino baso bat, / non bizi den ilargiaren badaezpada-
ko agonia. / Eta kalatxorien habi eskaleen sakelak, /
eta sukalde proletarioaren argi urdinskak / murraila
erraldoiaren begi gauero. / Zubi zaharrenetatik / ibaia-
ri so berripaper saltzailea / hitz ezezagunen hiztegi bati
bezala; / bus txofer batzu bozeolari hilaz mintzatzen, /
apatridak bailiren trenak / memoria karrilen fatalitate-
an galduz; / denboraren oihal xinglea arratsezkoa soi-
lik; / arrabita baldarren nostalgia kantoietan, / eta
harantzago mozkorrak, / kalegarbitzailearen beilegi
bizia, / beste zubi bat, prostitutak.”

(Bernardo Atxaga, “Herdoilarena”, 1978)



Paisaje industrial, 1974. Agustin Ibarrola.

Artunduagako soroak Basaurikoak izan arren, Bilboko mikrobusak bertara iristen hasi ziren 1970eko hamarraldian. Zergatik ordea? Kontua taxuz azaltzeko, atzera egin behar da denboran. 1960ko hamarraldian itzel handitu zen auto-kopurua hiriburuan; zirkulazio-arazoak bereziki latzak ziren Erriberako merkatuaren parean, bertan zamalanean aritu ohi ziren ibilgailuek traba nabarmenak eragiten zituztelako. Arazo horri irtenbidea eman guran, hiritik at legokeen hornidura-zentroa eraiki nahi izan zuten garaiko agintariek; zentro hori, gainera, ondo komunikatutako leku batean kokatu beharra zegoen.

Artunduagako soroetan gauzatu zen azkenean *Mercabilbao* bataiatutako egitasmoa, eraikitzen ari ziren autobide berriaren aldamenen. 1971ko maiatzean zabaldu zituzten Arrain, Fruta eta Ortuarien Merkatu Zentraleko ateak. Esandako moduan, mikrobusak ere laster hasi ziren bertara heltzen. Mercabilbaokoak mikrobus gorriak ziren, baina bazeuden txikiago batzuk ere, urdinak. Orduko bilbotarrek *zerutxoak* deitu ohi zieten horiei, berauetan *justuak* baino ez zirelako sartzen.


Bilboko mikrobusena garraio-sistema berritzailea izan zen bere sasoian; hiri-ra ailegatutako lehenak, berbarako, espainiar Estatuan ezarri zituzten lehenbizi-koak ere izan ziren. Taxien erosotasuna eta autobusen ekonomikotasuna uztartzen zituztela esan ohi zen. Bizkor hedatu zen garraio-sistema berria, hain bizkor non 1972an trolebusak ordezkatzeko hasi baitziren (1978ko urrian desagertu ziren azken trolebus biak, Atxuri eta Museoa eta Atxuri eta Indautxu lotzen zituztenak), garraio-sistema zaharrak krisian zeuden seinale.

Horiez gain, ordea, beste gauza asko ere krisian zegoen Bilboaldean. Hori igarri-igarrian zegoen ekonomian: bateko pezetaren debaluazioa, besteko soldaten izoztea... 1978an ordainketak eten zituen Babcock Wilcox-ek. AHV-Labe Garaietan ere gauzak okertzen hasita zeuden 1974az geroztik. 1970ekoa hamarraldi benetan txarra izan zen bilbotar siderurgiarentzat. 1973ko petrolioaren krisiak atzerakada ekonomikoa ekarri zuen lagun, eta inflazioa, eta langabezia...

Krisiak gogor jo zuen Bilbo, eta Basurtuko La Cervecera del Norte-k, Deustuibarrako Elorriaga Industrias Electricas-ek, Elexabarriko Talleres Elejabarri-k,

Zorrotzako Sociedad Española de Construcciones Metalicas-ek eta beste hainbat eta hainbat lantegik eta auzo jakin batzuek ederto igarri zioten (biztanlerian ere gainbehera sumatzen hasi zen 1977tik aurrera; kontuan izan behar da, hala ere, inoizko bizilagun-kopururik altuena urte horretan erdietsi zuela Bilbok: 450.000 biztanletik gora); San Frantziskok, Bilbo Zaharrak eta Zabalak, berbarako.

Auzo horiek ez ezik, hiriak berak ere mudatzen jarraitu zuen: 1972ko urtarrian Salbeko Zubia inauguratu zuten, eta batek baino gehiagok aipatu zuen Artxandako tunelaren aukera. Horrez gain, Txurdinagako poligonoak eta Begoñako zabaltze-lanak ere hizpide ziren; esaten zutenez, 10.000 etxebizitzatik gora eta 50.000 biztanle hartuko ei zituzten.



1969an zabaldu zituen bere Bilboko egoitzaren ateak *El Corte Inglés*-ek.

Argazkia: *Vida Vasca*.

Ordukoak dira, halaber, Arestiren “Bizkaiko aberatsak” koplak ere; Gabrielelek, Goienkale-Somera, Artekale eta Dendarikale-Tenderia aipatu ostean, zera zioen koplotan: ‘*Madrildik etorri den Corte Ingelesa / bertan sartuko balitz / euskaldun baldresa / dirua gastatzeko manera erreza...*’ Ez alferrik, 1968ko abuztu hasieran lanei ekin eta gero, hamar hileren buruan inauguratu zituzten galeria ospetsuak...

Bilbotarrak hiztegitintzan

1970 amaieran kaleratzekoa zen, baina 1971n plazaratu zen azkenik Gabriel Arestiren *Harrizko Herri Hau*. Berandutzea zentsurari zor zitzaion. 1972 hasieran, berriz, zera irakur zitekeen *Anaitasuna*-n: “Orden Publikoaren aginduz, tribuna-lek prozesatu egin dute Gabriel Aresti, orain urte bete inguru argitaratu zuen *Harrizko Herri Hau* liburuagatik. Akusazioa: separatismoa bultzatzen duela eta hemen bizi diren erdaldunak atzeritar bezala tratatzen dituela”. Lau hilabete geroago, ordea, zera argitaratu zuen *Anaitasuna*-k berak:

“Jakin berri dugunez, eta horretaz galdetu daukuten guztiei erantzun nahirik, Gabriel Aresti bilbotar poeta ezagunari, ihaz Lur-en publikatu zuen *Harrizko Herri Hau* liburuagatik egin nahi zitzaion judizioa ez da aurrera eramanez, liburu horretan legearen kontrakorik balego ere, haik ihazko indultoaren barnean gelditzen liratekeelako. Beraz, alde horretatik behintzat, ez du kargurik, ez eta etxeko egunero-ko ogia eta ikustea oraingoz galtzeko perilik.”

Madrildik dezenteko propaganda egin zioten arren, beraz, liburu berriak ez zuen izan (ezta hurrik eman ere) aurreko lanen sonarik. Aresti euskal kulturaren bozgorailu nagusienekin etsaiturik zegoen ordurako; 1973an, adibidez, *Lau Teatro Arestiar* argitaratu zion Lur-ek, eta zera dio lan horren aurkezpen testuak: “Gabriel Arestik itxiak zituen *Zeruko Argia*, eta nola ez, *Agur*-eko ateak, orain *Anaitasuna*-koak ere itxi bide zaizkio (...).”⁶⁷

Anaitasuna-koek kazetaren orrietatik salaketa hori ukatu zuten arren, 1973ko apirilean gisa honetan mintzo zen bilbotar poeta aldizkari horretan bertan: “Zuen errebista horretan egin zaidana bezalako zentsurarik ez baitu orain artean egundo neure lumaren zorrotasunak ezagutu. Artikulo ongi landuak, poesia kuadratuak, atzera bota zaizkit: eta, gainera, ez zait batere arrazoi funtsezkorik eman, zergatik ez ziren argitaratzen. (...)”

Harrizko Herri Hau argitaratu baino apur bat lehenago, bestalde, 1970ean, Mikel Zarateren *Bizkaiko Euskal Idazleak* kaleratu zen. Zelaietak zera kontatzen du lan horri buruz:

⁶⁷ Garai hartako *Anaitasuna*-ren zuzendaritza-aldaketari eginiko zeharkako aipu modura uler daiteke hori. Dena dela, aurreko zuzendaritzak ere izan zuen gorabeheraren bat Arestiren artikuluekin. Anjel Zelaietak, adibidez, zera esan digu: “Egoten ziren zentsurak orduan ere. Gogoan dut behin Arestiri zelan artikulua bat ez genion argitaratu. Artikulu gogorra zen, Pilar Kareaga alkateari kontra eginez.”

“(...) Aresti eta Natxo de Felipe joan zitzaizkion, liburua amaitu antzean zeukanen, 1968an, Lur-en publikatzeko ofrezimenduak eginez. Zaratek, baina, liburua bizkaieraz egin zuen eta ez zitzaion egoki iruditu. Gabriel Arestik ez zuen liburu horretan agertzeko zortetik izan –ez literatur arrazoiengatik, guk uste, orduan boterean zen kleroaren antiarestismoagatik baino–. Edozelan ere, Barrutia estudiatzerakoan, Mikel Zaratek Arestiri zor zaiona ematen dio.”

Egin kontu Aresti izan zela erdi ahazturik zegoen Barrutiaren defendatzailerik sutsuenetarik bat. Idazle horren *Gabonetako ikuskizuna*, bestalde, Bilboko San Anton elizan jokatu zen 1971ko Gabon egunean. Gabriel Aresti, zelan ez, bertan zegoen, eta 1972ko urtarrilean lan horri buruzko iruzkina eman zuen argitara *Anaitasuna*-n.

Hala ere, sorkuntza-lanak apur bat bazter utzi eta hiztegi gintzari erabat emana zegoen Gabriel ordurako. 1970ean, konparazio baterako, euskara batuari bulkada sendoa eman gura zion *Batasunaren Kutxa* kaleratu zen, eta bera tartean zebilen. *Kutxa* hark *Lehen euskal hiztegi bateratua* zekarren barruan. 0 edizioan 2.000 berba hartu zituen; 0 bis-ean, aldiz, 6.000. Bazuen garrantzirik, bere xumean, euskaratik euskararako lehen hiztegia zelako. Anjel Zelaietak dioenez, “1970eko maiatzean, *Batasunaren Kutxa*-n etorriko den berboaren primezia bat publikatzen du *Anaitasuna*-k, eta abenduan *Batasunaren Kutxa* argitaratzen du (...). Urte honetan, argitara ematen duen libururik eraginkorrena eta arrakastarik handiena izan zuena *Batasunaren Kutxa* izan genuen: atoan agortu zen.”

Zelan egin zuten, baina, *Kutxa*-ren baitan zetorren *Lehen euskal hiztegi bateratua*? Xabier Kintanak horren berri eman digu:

“Garrantzi handia zeukan eredu literario bat osatzeak. Arestiren obsesioa zen hori. Arestik nahi zuen (oso formalista baitzen) batasunarekiko konpromisoa, baina ez ahozkoa, idatzia baino (zin-egiteak eta gustuko zituen), gero, sinatzen zue-nari, hori betetzen ez bazuen, aurpegiratu ahal izateko. Haatik, Arestik ikusten zuen batasunaren aldeko zin hutsa egiteak ez zeukala oinarri sendorik batasun hori osatzen ez zen bitartean. Osatze-bide horretan pauso garrantzitsu bat hiztegi bat egitea zela pentsatu zen, eta hortik atera zen *Batasunaren kutxa*-ko hiztegia



Jose Antonio Arana Martixak Gabriel Arestiri eginiko erretratua.
Iturria: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka

(*Lehen euskal hiztegi bateratua*). Euskaltzaindiaren zerrendari hitz batzuk eta euren definizioa gehitu zitzaizkien. Aresti lehenbiziko letrekin hasi zen (ez dakit C edo D-raino heldu zen) eta gero neuri pasa zidan lana. *Batasunaren Kutxa*-ko hiztegi definizio gehienak, beraz, nireak dira, onerako zein txarrerako (Arestik gero eskua sartzen zuen hitz klabe batzuetan: kapitalismoa, komunismoa, sozialismoa...). Hiztegi horri, gero, aditz-sistema ere erantsi zitzaion (oraindik eztabaidatzen ari zen zein sistema onartuko zen: gipuzkera-nafarreran oinarritua (moderno-agoa) ala lapurterakoa (klasikoagoa); bi proposamen zeuden Euskaltzaindian eta biak daude jasota *Kutxa*-n.”

Lehen euskal hiztegi bateratua-k, ordea, ez zuen Aresti guztiz ase. Horrenbestez, *Anaitasuna*-k Gabrielen beste egitasmo baten berri eman zuen 1971ko azaroan: “Gabriel Aresti (...) lehen euskal enziklopedia prestatzen ari da. Enziklopedia honek 60.000 bat hitz izango ditu, eta, lehendabizikoz historian, euskara hutsean etorriko da.” Entziklopedia baino, hiztegia izan zen ahalegin horren emaitza: 1973an argitaraturiko *Hiztegi Tipia*. Lehen saio hark A-B-C-D letrak bildu zituen, baina ez zuen jarraipenik izan. Xabier Kintanak azaldu digu horren zergatia:

“Kontua da Arestik *Kutxa*-n ageri zen hiztegia handitu nahi izan zuela. Handitzeko, printzipioz hiru pertsona geunden: bera gidari, Ibon Sarasola eta ni. Arazoa zen lehenbiziko momentutik txarto konpontzen hasi ginela. Sarasola eta biok nahi-ko bat gentozen irizpideetan, euskal hitzak zeintzuk ziren zehazterakoan. Alegia, *kutxillo*, *obrero* eta horrelako erdarakadak sartzearen aurka geundela. Aresti horretan populistegia zen; guk nahiago genuen literatur tradizioan oinarritu; hau da, hizkuntza mintzatua bai, baina tradizioa hobetsita. Ibon Bartzelonara joan zen eta Aresti eta biok gelditu ginen. Aresti eta bion artean desadostasunak gero eta handiagoak ziren hitz kontuetan. Nik esan nion erdarakadaz beteriko hiztegi bat egiten bagenuen, berak garai hartan zeukan *españolista* ospea edukita, batzuek salatuko zutela euskara espainoldu nahian genbiltzala eta obra gutxietsiko zutela. Kontuan hartu behar da garai hartan indarrean zegoela garbizalekeria (egun beharbada beste muturrera jo dugu). Edonola ere, Gabriele bota egin ninduen egitasmotik. Lehenengo liburukia atera zenean ez zuen arrakasta handirik izan eta editorialak berak ere, dirua galdu zuela ikusita, aurrera ez egitea erabaki zuen. Nik uste dut hor Arestiren prozedura bera ez zela oso egokia izan, gauza pertsonalegia egin zuen.

Gero, handik urte batzuetara, Aresti gaixotu egin zen eta bakeak egin genituen, Imanol Berriatua tarteko. Hil baino lehenago elkarrekin afaltzen ere izan ginen. Baldintza bat jarri zuen: haren gainean ez hitz egitea.”

Josu Landak Arestiren aurkako boikotari egozten dio hiztegiaren arrakastarik eza:

“(...) datu interesgarri bezala esan dezagun [Arestik] 1972rako iadanik itxiak zituela *Zeruko Argia*-ko orrialdeak, eta *españolista* zelakoan edo, azpijokuen bidez boikota eskatu zen behin eta berriz haren idazlanetarako. Aipatutako *Hiztegi tipia* horrekin kontsumatu zen boikota, eta tamainako lan inportante bezain interesgarria

isiltasunik isilenera kondenatua izan zen: ez zen inon aipamen xume batere atera.”⁶⁸

Kontuak kontu, egitasmo hartatik kanpo geratu zen Kintanak beste hiztegi bat osatzeko mandatua jaso zuen Bizkaiko Alfabetatze Taldetik 1973ko udazkenean. *Euskal Hiztegi Modernoa*, ordea, elebiduna izan behar zen: *euskara-gaztelania / gaztelania-euskara*. Alfabetatze taldekoek, gainera, beste asmo bat ere bazerabilten gogoan: jendeari euskara irakasteko balioko zuen *Euskalduntzen* metodoa prestatzea. Kintanak Bilbon eta bilbotar jendearen bultzadaz gauzaturiko bi egitasmo horiei buruzko argibideak eman dizkigu:

“Lehenengo eta behin *Euskalduntzen* liburua egin zen (CINSAk atera zuen). Nola sortu zen hori egiteko ideia? Garai hartan, Bilboko Hizkuntza Eskolan katalan bi zeuden, senar-emazteak; emakumeak Irakasle-eskolan ingelesa ematen zuen, oso modu dinamikoan gainera, glotodidaktikaren azken teoriei jarraituta. Garai hartara arte gure artean gramatika eta irakasteko metodoa gauza bera balira bezala ulertzen ziren. Gramatikak, ordea, hizkuntza nolakoa den jakiteko balio dizu, baina mintzatzeko metodo bat behar duzu. Kontua da emakume horrek euskara ikasi nahi zuela. Klase batzuk eman zizkigun eta baita begiak irekiarazi ere: metodotxo bat egin genuen (baimen-eske Madrileraino joan eta gero, hori bai) eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Milaka ale saldu ziren. Horren irabaziekin pentsatu zen hiztegi moderno bat egitea osagarri moduan, eta niri proposatu zidaten. Ni zuzendari eta zuzentzaile modura ibili nintzen eta Joseba Tobar fitxak egiten. Orduan ez zegoen ordenagailurik eta eskuz egiten genuen dena; lan handia eta monotonia zenez, azken orduan Sabin Egileor eta Koldo Zuazo ere etorri ziren fitxekin laguntzera. Oso harrera ona izan zuen hiztegi horrek ere.”

Bai horixe: 1977an jarri zuten salgai eta sekulako arrakasta izan zuen.⁶⁹

⁶⁸ Amatiñok hiru urte zeramatzan *Zeruko Argia*-n kultur kronika idazten. *Anaitasuna*-koa, berriz, Xabier Kintanak egiten zuen garai hartan. Aresti ez zegoen pozik batak zein besteak *Hiztegi Tipia*-ri emarikotratuarekin: “Ene hiztegia lehen euskal-hiztegi luzea da, argitaratzen den lehenbizia. Lehenagokoa bakarrik da *Batasunaren Kutzakoa*, Quintana adiskideak eta biok egina. Baina hau hiztegi partzial bat izan zen... Eta herri bati bere historian behin bakarrik gertatzen zaio hau. Onerako ala txarrerako, baina behin bakarrik. Eta momentu historiko hau isildu egiten da. Amatiñok hilobi mutuaren moduan isiltzen da; berdin Quintana (berri-emaleen artean).”

⁶⁹ Egungo perspektibatik erreparatuta, hiztegiari argi-ilunak ikusten dizkiola esan digu Koldo Zuazok: “Gauza bi iruditzen zaizkit aipatu eta goraiatu beharrekoak. Alde batetik, eskolak ematetik sortzen ziren irabaziak irakaskuntza hobetzeko erabiltzen zirela eta, bestetik, euskara batuaren hiztegi osoa eta zabala egitea egundoko asmakizuna izan zela. Baziren zenbait hiztegi txiki orduko: *Batasunaren kutxa*, Arestiren *Hiztegi tipia*... baina ez ziren nahikoa. Gainera, euskara-gaztelania eta gaztelania-euskara tankeko hiztegia behar zen. Kontuan eduki behar da, gainera, euskara batua egin berritan, bakoitzak bere erara idazten zuela. Denok jokatzeko genuen borondate onez, baina sekulako anabasa zegoen. Jakina, hiztegi bat izateak eredu bat eta bakarra izatea zekarren. Alderdi on horiek aipatuta, alderdi txarrak ere aitortu egin behar. Bi ziren nabarmenenak, nire iritzian. Alde batetik, latinetik eta grekotik hartutako hitzetan jatorrizko grafiak erabiltzea erabaki zen (*asphyxiatu*, *katarrho*, *labyrinth*, *pyskhopatha*, *rythmo*, *sympathia*...), eta horrek, jakina, euskararen tradizioan erabateko etena egitea zekarren. Ez Hegoaldean ez Iparraldean ez da sekula horrela idatzi, salbuespen bat kenduta: XVI. mendeko Joanes Leizarraga

Gabriel Arestiren oskorria

Gabriel Arestik Eduardo de Felipe-ren bitartez ezagutu zuen honen anaia Natxo (Eduardo Arestiren laguna zen poetak 1966an Bartzelonan emaniko hitzaldiaz geroztik). Ordurako Natxo, gitarra eskuan, Arestiren poema batzuei musika jartzen hasia zen; ez hori bakarrik: mediku-ikasketak utzi eta beste zenbait lagunekin batera Oskorri sortu zuen 1971 hasieran. Taldeak aurkezpen entzutetsua izan zuen urte horretako martxoan Deustuko Unibertsitatean.

De Felipe euskaldun berria zen. Honela kontatzen zuen bere ikaskuntza-prozesua 1975ean:



Natxo de Felipe-ren bultzadaz
sortu zen Oskorri.

Argazkia: Elkar disko etxea.

“(...) fakultatean, lagun batzuen artean, euskarazko klaseak eratu genituen; bai eta jende asko etorri ere. Ez genekien nora jo eta *Euskerazaleak*⁷⁰ erakundera joan ginen; hoiek bi irakasle bidali zizkiguten: andre bat eta gizon mantxu bat. Zorionez gizonaren taldean sartu nintzen; honek besteak baino askozaz hobeto erabiltzen zuen euskara. *Coca-Cola*-ren liburutxo madarikatu hoiekin egon ginen hilabete hoietan,⁷¹ baina Goikok –Derioko *Txapela*-ren aitak- oso ongi eramaten zituen klaseak (...).

Gero etorri zitzaigun Altuna'tar Patxiren metodoaren bizkaierazko edizioa eta Santiagoko gazteok, Loteria kalean genituen lokaletan, beste klase batzuk eratu

lapurterra. Atzizki eta aurrizki mordoa senik eta premiarik gabe indartu ziren. Esate baterako, -aia (plumaje: *lumaia*), bir- (reventa: *birsaltzapen*), des- (deshuesar: *desezurtu*), -eiu (sabotaje: *saboteiu*), ez- (inhumano: *ezgizakor*), -gailu (refuerzo: *berretgailu*), -garri (exigible: *eskagarri*), -go (ministerio: *minis-tralgo*), -keta (levantamiento de piedra: *harrijasoketa*), -pen (insolación: *eguzkitzapen*)... Kontua da gaur egun ere oraindik hitz eratorri horietako zenbait bizi-bizi daudela: *birpasatu* 'reparar', *ez-erretzaileak* 'no fumadores', *jangarri* 'comestible', *zalego* 'afición', *lanketa* 'elaboración', *trasnkribapen* 'transcripción'... Zalantzarik gabe, *Euskal Hiztegi Modernoak* zerikusi zuzena izan zuen "arrakasta" horretan. Hainbat hitz desegoki ere zabaldu ziren hiztegi horretan, eta horietako batzuk ere barra-barra erabiltzen ditugu gaur egungo jardunean: *ahalbidetu* 'ekarri, eragin', *asanblada* 'batzarra, elkarte', *beherapenak* 'merkealdiak'..."

⁷⁰ Aurreko atalean ezagutu dugu *Euskerazaleak* elkarteak egituratu eta indartu guran zebilen garai hartan. 1970ean 2.000 kideetik gora ei zeukan; urte horretako otsailaren lehenean egin zuen estreinako batzar orokorra Bilboko Santiago Apostol aretoan.

⁷¹ Euskara batu ofizialaren aurka zegoen *Euskerazaleak* elkarteak izan zen *Coca-Cola*-k babestutako metodo horren egile eta eragile.

genituen, apezgai izandako batzuk irakasletzat hartu (haien izenez ez dut gogoratu nahi) eta propaganda izugarria egin, jendetza ederra apuntatu eta handik guttira desapuntatu ere; irakasleak esperientzia eta kondiziorik gabekoak izanik, kurso hura desastre hutsa izan zen.

Uda horretan hilabete batetan eta leku berean, Xabier Kintanarekin ihardun genuen lagun batzuek. Xabierrek euskaldun berriaren bidea ezagutzen zuen eta ondo ikasiak zituen haren problemak, horregatik oso onak izan ziren beraren klaseak.

Baina izan dudan irakaslerik onena, Kepa Mallea izan da dudarik gabe; berak eragiten gintuen, ongi nahiz gaizki, euskaraz hitz egitera. Gero, alfabetatzearen bi ikastarotan egona naiz, bata Kintanarekin eta bestea Mendigurenekin eta ordutik hona ene profesore nagusiak herria eta eskritoreak izan dira.”

Eskritore horien artean, bistan denez, Aresti zuen inspirazio-iturri nagusi. Hura bezala, euskara ikasteko senperrenak egina zen De Felipe, baina, hari bezala, *españolista* etiketa ezarri zioten berehala; eta, ondorioz, baita Oskorri ere, Koldo Zuazok ondo gogoratzen duen moduan:

“Oskorri taldea zela eta, bazen eztabaida eta zalaparta, *españolistak* zirela eta ez zirela. Gauzak zuzen ulertuko badira, gogoan eduki behar da ETaren barruan zatiketa izan zela 1970 aldera, eta ETA VI sortu zela. Euskal burjesiak euskaraz egiten zuela zioten eta, beraz, euskara hizkuntza burjesa zela. Gaztelania, berriz, langile euskaldunak, extremeñoak, andaluziarrak... batzeko bitarteko egokitzen jotzen zuten eta, *internazionalismo proletarioaren* izenean, euskara eta katalana baztertu eta gaztelania erabili behar zela zioten. Bestalde, Francoren diktadura militarra ere gogoan eduki behar da: debekuak eta zigorrak tarteko, euskara desagertzeko zorian jarri zuen. Giro zail eta gogor hartan, euskaltasunari eusteak esangura berezia hartu zuen. Joera horrekin bat egin zuten *Ez Dok Amairu* taldean bildu ziren musikariek, eta beste bide batetik ibili zen Bilboko Oskorri.

Kontuak kontu, eragin handia izan zuen Oskorri taldeak. Francoren diktadurapeko gizarte hiritar eta industrialeko kezkak eta hausnarketak harrotu eta zabaltu zituen, eta *españolista* izan edo ez, beti jardun zuen euskara hutsez eta duintasunez.”

Oskorriren kantaldiek, beraz, ez zuten ia inor axolagabe utzi; 1973 hasieran Deustuko Unibertsitatean eskainitakoaren ostean, *Anaitasuna* eta *Zeruko Argia*-n izaniko polemikari erreparatzea baino ez dago esanikoa egiaztatzeko. Zelaietak zera idatzi du horri buruz:

“Oskorrik, edozelan ere, aurrera egiten du, boikotak, esku-kolpeak eta multak gorabehera.

Beharbada, Natxo de Feliperen uste manikeo samarrak –garai haietan belau-naldi kasik osoa egin ginen derrepente marxista sutsu-, Arestiren kreaio lana muga hertsietara makurtu zuen. Badakigu haserrealdiak ere izan zituztela eta Arestik mediku garbatuaren joera *peccata iuventutis* bezala ikusten zuena. Baina honen ondradutasuna eta ausardiagatik, aitzak semea bezala maite zuen.”

Arestiri dagokionez, 1973 hondarrean medikuak gaixo-agiria emana zion; 1974an, berriz, Ean erositako etxera lekualdatu zen familia osoarekin. Hala eta guztiz, aldian behin Botxora etortzen jarraitzen zuen: medikuarenera batik bat... baina baita hitzaldiren bat ematera ere: 1975eko martxoan, adibidez, Deustuko Unibertsitatean euskal literaturari buruz jardun zuen.

Azken hilabete horietan Gabrielelek hainbat kantu idatzi zituen Oskorrirentzat: lehen aipaturiko "Bizkaiko aberatsak", "Gora ta gora beti", "Guretzat berdin dira", "Oinaz eta Ganboaren errierta handia", "Oskorri", "Zeren esperoan dago?", "Adela Ibabe, Mondragoek hila", "Agur jaunik", "Anaitasuna", "Astoarena", "Atzo tun-tun", "Bertolt Brecht-en gorazarrez", "Emazurtz", "Irrintzi bat", "Kristau prestu bat", "Maite dugu mundua", "Ogi lurrari"...

Haatik, ez zitzaion beste ezertarako astirik geratu, 1975eko ekainaren 5ean zendu baitzen Basurtuko ospitalean, hil ala biziko ebakuntza baten ostean. Berrogeita bi urte eskasekin baina Bilbon eta euskararen arrasto sakona utzita eta euskal literaturan (bai behintzat askoren ustez) aro berria abiatuta joan zen.⁷² Urtebete geroago kaleratu zen Oskorriren lehenengo diskoan (ezin bestela



Gabriel Arestiren oroigarria.
Iturria: www.blancamaria.com



Oskorrik Arestiren omenez ateratako diskoa.
Iturria: Elkar disko etxea.

⁷² Hil ostean agertu zen, 1976an, bere azken lana: *Azken Harria*. Hara zer dioen horri buruz Jon Juaristik: "Arestik niri esan zidan (1974.ean edo) beste liburu bat egin nahi zuela eta izenburua ere eman zidan: *Azken Harria*. Poema guztien edizioa prestatu nuelarik, uste nuen bere desioa bete behar nuela eta batasun argirik gabeko poema multzo bat bildu nuen beste liburu batean eta *Azken Harria* deitu nion." Koldo Zuazok, bestalde, zera esan digu Arestiri buruz: "Nire iritzian eta euskararen leihotik begiratuta, Gabriel Aresti izan zen Bilbon garai hartan eraginik handieneko laguna. Oso oihartzun zabala izan zuten haren lanek; *Harri eta Herri* poema liburuak, gehienbat. Egiten zituen hitzaldiek eta aldizkarietan idazten zituen artikuluek ere arrakasta handia izaten zuten. Gizon jeniala zen, gauza berriak eta benetako egiak zuzen eta ozen esaten zekiena. Gizakia zenez, ez zuen beti asmatzen, baina, behinik behin, euskal literatura duina zela, euskara batua ezinbestekoa zela, euskaldun izateko harrotasuna behar zela... erakutsi eta aldarrikatu zituen Bilbo erdaldunean. Nik neuk, hil baino aste gutxi batzuk aurretik ezagutu nuen bertatik bertara eta, hiltorian zela, gogoan daukat RH negatiboko odola behar zela eta, Basurtuko ospitalera joateko deitu zigutela, harendako odola ematera."

izan) nonahi ageri zen bilbotar poeta. Diskoaren izena ere halakoxea zen: *Gabriel Arestiren omenez*.

Bilbo, ikasle-hiri

Oskorrik 1973an Deustuko Unibertsitatean emaniko kantaldia edota Arestik 1975ean leku berean eskainitako hitzaldia aipatu ditugu oraintsu. Bi ekitaldi horiek unibertsitate horretako Euskal Kultur Mintegiak antolatu zituen. Koldo Zuazok gogoratzen duenez, euskaldunen bilgune zen kultur mintegi hura:


“Gehienbat 1973-1976 garaian izan nuen mintegi horrekin hartu-emana. EKM deitzen genion, eta uharte euskalduna zen Deustuko Unibertsitateko itsaso erdaldun-
nean. Alde batetik, jende euskalduna ezagutzeko aukera ematen zuen eta, bestetik, euskara eta euskalduntasuna kanpora ateratzeko bidea ere bazen: hitzaldiak, kultu-
ra asteak, kantaldiak, bertso saioak eta, batez ere, euskalduntzeko eta alfabetatze-
ko ikastaroak antolatzen zituen. Hantxe egin nuen neuk ere alfabetatzeko ikastaroa
1973-1974 ikasturtean, eta Patxi Goenaga eta Andolin Eguzkitza izan nituen irakas-
le. Nire iritzian, oso jende jatorra, argia eta langilea zebilen EKM inguruan, ekintza
asko eta zentzuzkoak egiten zituena. Hantxe ezagutu nituen, besteak beste, Gasteiz-
ko Iñaki Ruiz de Pinedo, Aretxabaletako Jose Ramon Aiestui, Arrasateko Iñaki
Azkoaga, Oñatiko Ruper Ordorika, Elgoibarko Pello Arrieta eta Edu Iriondo, Azkoi-
tiko Josetxo Larrañaga, Zumaiaiko Lopez Atxurra anaiak, Lekeitioko Eukene Enzion-
do, Iurretako Joseba Sarrionandia, Bilboko Joseba Agirreazkuenaga... Beste ba-
tzuk ere baziren, baina ez datozkit euren izenak burura.

Gogoan daukat, gainera, Deustuko EKMren eredura, beste fakultate batzuetan
ere berehala sortu zirela antzeko taldeak: Sarrikon, Ingeniari Eskolan, Medikun-
tzan...”

Horiek ez ezik, beste lagun batzuk ere sator-lanean ari ziren inguruko uniber-
sitateetan: esate baterako, Alfonso Irigoien Deustun edota Jose Ramon Etxeba-
rria Bilboko Unibertsitate Publikoan (Leioako campusa 1971-72 ikasturtean
inauguratu zuten arren, 1981era arte ez zen EHU-UPV ofizialki sortu). Lan horren
fruituak, ordea, hurrengo hamarraldian ikusiko ziren gehienbat.⁷³

Deustuko Unibertsitateari dagokionez, unibertsitate horrek 1976an abiarazi
zituen Euskal Filologia ikasketak. Hastea beti zail samarra izan ohi bada ere, are
zailagoak izan ziren ikasketa hauen lehen urratsak. Hara zelan gogoratzen duen
guztia Gotzon Garate bertako irakasleak:

⁷³ Unibertsitatetik kanpo ere (ikastolen salbuespenarekin, bistan denez), hamarraldi amaiera ingu-
rura arte euskarak ia ez zuen sarbiderik izan ikasketa-sisteman. Baziren, hala ere, salbuespen txiki bai-
na esanguratsu batzuk. Xabier Kintanak, adibidez, zera kontatu digu: “Nik Santiago Apostol-en klase bat-
zuk eman nituen euskaraz. 40 ikasle inguru nituen. Izan ere, 1972 inguruan Santiago Apostolen *Euskal
kultura* ikasgaia jarri zuten lehen pauso modura. *Totum revolutum* bat irakasten zen: euskararen tradi-
zioa, literatura...”



1970eko hamarkadan euskaltzale asko bildu ziren Deustuko Unibertsitateko Euskal Filologian zein Euskal Kultur Mintegian. **Argazkia:** *Vida Vasca*.

“Nik ikusten nuen Unibertsitatean bazegoela zulo bat. Espainiar Filologia, Ingles Filologia eta Frantses Filologia bazeuden, baina gure Euskal Herrian zergatik ez zegoen Euskal Filologiarik? (...) Egunkari guztietara artikulu bat bidali nuen, eta bertan esaten nuen hurrengo ikasturtean Euskal Filologia ikasketak eskainiko zituztela Deustuko Unibertsitatean.”

Kontua da Garatek ez zeukala Unibertsitateko agintarien baimenik hori egiteko. Hori zela eta, ika-mika galanta piztu zen; Alberto Dou orduko errektoreak, barbarako, “xantaiagile hutsa” izatea egotzi zion, baina Garate ere ez zen isilik geratu: “Nik erantzun nion beti genbiltzala esaten zerbait egin behar zela, baina inork ez zuela ezer egiten, eta azkenean nik eman behar izan nuela bultzada-txoa.” Eta hartan, Alfonso Irigoien, Patxi Altuna, Mikel Zarate eta beste irakasle batzuen laguntzarekin (eta Koldo Mitxelenaren oniritzia jasota) ikasketa plana diseinatu zuen. Horrenbestez, gutuna bidali eta hilabete batzuetara 27 ikasle Euskal Filologia ikasten ari ziren Deustun.

1976a baino lehenagotik ere, ordea, unibertsitate-ikasle euskaldun asko eta asko joan ohi zen Bilbora ikastera. Ikasle-kolonia horien presentzia hirian nabarmentzen zela diosku orduko *kolono* haietako batek, Eibartik Bilbora joaniko Koldo Zuazok:



Gotzon Garatek abiarazi zuen Euskal Filologia Deustun.
Argazkia: Durangoko Azoka (Txelu Angoitiaren argazkia).

“Horixe igartzen zela! Egin kontu orduan ez zela autobusetako eguneroko joan-etorririk. Bilbora ikastera etortzen ginenok bertan gelditzen ginen bizitzen, eta gazteriak berezkoa duen indarra eta kemena ematen zion Bilboko bizimoduari. Uste izatekoa denez, gau eskoletan euskaraz irakasten zuten asko herrietatik etorritakoak ziren, euskara eta kultura elkarteetako eragile eta partaide asko ere herrietatik etorritakoak ziren eta, jakina, kalean, dendetan eta tabernetan euskaraz egiten zuten asko ere herrietatik etorritakoak ziren.”

Bariku-zapatuetako irudi tipikoa zen orduan Arriaga atzean bildutako herri-tar ikasle andanarena, denak ere etxera eroango zituen autobusaren zain. Gero, batzuen ikasle-aldia amaitu egingo zen eta herrira bueltatuko ziren. Beste batzuk, aldiz, hiriari gustua hartuta, bertako egonaldia luzatzeko moduak asmatzen hasiko ziren. Bernardo Atxaga, barbarako, kinka horretan zegoen Gabriel Aresti hil zenean. Atxaga 24 urteen bueltan zebilen orduan eta maite zituen bai Aresti bai hiria bera. Erreparatu bestela segidan kontatzen duenari:

“(...) ez nuen agian liburu bakar argitaratuko baldin eta, Bilbora joan eta unibertsitatean nenbilela, Anjel Zelaietak eta Gabriel Arestik nire antzerki lan ttiki bat –*Borobila eta puntua*– aintzat hartu izan ez balute. Baina, zorionez –suerte oneko gizona naiz- ezuste hura gertatu egin zen. Areago: Gabriel Arestik gutun bat idatzi zidan nire idazteko modua goretsiz eta ‘*Euskal Herriko seigarren idazlea denboran*’

izango nintzela aginduz. Gaztea nintzen oso, hemeretzi edo hogeituro, eta *Harri eta Herri*-ren egile ospetsuak ematen zidan haize hura nireganatu eta idazle bihurtzea erabaki nuen. Orduantxe jaio zen *Bernardo Atxaga* ezizena, eta orduantxe argitaratu nituen nire lehen lanak. Horregatik esan izan dut, zentzurik onenean esan ere, idazle bezala aberri bat dudala guztien artean maiteena, eta aberri hori Bilbo dela. (...)”

Hor aipatzen duen antzezlan hori Verdes-en utzi zion Atxagak liburu-denda hartan beharrean zebilen Anjel Zelaietari, honek Arestiri eman ziezaion.⁷⁴ Zelaie-tak hango lana utzi eta gero (1973an), bestalde, eta laster aipatuko dugun Pepe Verdesek zeukan eritasuna tarteko, Verdestarrek lokala alokatzea erabaki zuten: Javier Escudero eta Asun Zuloaga egin ziren liburu-dendaren kargu. Garai har-tan ikastoletan beharrezkoak zituzten euskarazko eskola-liburuak lortu eta gura-soei ezkutuan saltzen zizkietela gogoratzen dute. Denek ez zuten gogoko, non-bait, euren jokabidea, 1977an Batallón Vasco-Español taldeak dezenteko kalte materialak eragin zituen bonba zartarazi baitzuen liburu-denda.

Alabaina, Verdesen historia ez zen hor amaitu; etorri ere, dezente lehenago-tik zetorren, gerra aurreko atalak ikertzean esana dugun moduan. Joseba Ver-desek adierazi digunez, bere aitona Emeterio Verdes (liburu-dendaren sortzailea) 1936ko gerra hasieran hil zen, bihotzekoak jota. Haren seme Jose Felixek (Josebaren aita, *Pepe* izengoitiz ezagunagoa) hartu zuen lekukoa; gerraostean, ordea, kartzelan sartu zuten Pepe eta gainera heriotza zigorra ezarri zioten. Zorionez, ez zuten zigorra bete eta 1942an utzi zuten aske.

Hala ere, aske utzi bai, baina ez zioten bakerik eman: inprimatze-tresneria berritu gura izan zuen, baina behin eta berriro ukatu zizkieten baimenak. Hori zela eta, enpresaren jarduera moteltzen joan zen apurka-apurka. 1957an, adibi-dez, Gurutze kalean zeukaten lokala saldu zuten. 1970ean, azkenik, Posta kale-ko lokala (300 metro koadroko lokal puska, 1930eko hamarraldia jorratzen duen ataleko argazkian ikus daitekeen modura) zatitu egin zuten; zati bat saldu-ta (gaur egun General Óptica den zatia, hain zuzen), inprimategia desagertu egin zen. Liburu-denda eta koadernaketa-lantegia baino ez ziren geratu.

Esana dugu liburu-denda hartara erruz hurreratu ohi zela idazle-jendea. Ber-nardo Atxaga zen bertara bildu ohi zenetako bat,⁷⁵ baina Joseba Sarrionandia,

⁷⁴ Zelaie-tak dioskunez, “hori zen beste zentro bat, euskarazko liburuen erosleak hara joaten ziren. Ni han lanean nengoela, berbarako, Aresti dezentetan agertzen zen handik. Eman nion, beraz, Atxagaren antzezlan; Arestiri ez zitzaion gustatu lehen inpresioan, baina bai konturatzen zen, Jon Miranderekin bezala, bere estilokoa ez izan arren ona zela.”

⁷⁵ “Bilbografia” narrazioan Atxagak kontatzen du zelan hamarraldi amaieran, Bilbon estu eta larri zebi-len une batean (gogoz makal eta poltsikoan txanpon barik), Javier izeneko batek laguntza estimagarria eskaini zion. Javier hori, Verdesko arduradun berri (Asun Zuloagarekin batera) Javier Escudero izan zen. Atxagak, bestalde, beti azpimarratu du Bilbok berarentzako daukan garrantzia. Hara, adibidez, esanikoa egiaztatzen duen asteasuarraren aipu bat: “Beti esan dut Bilbo izan zela nire bigarren jaiolekua. Halako erre-akzio kimiko bat jasan banu bezala sentitu nintzen hara iritsi nintzenean. Orduan konturatu nintzen atzean utzitakoa, itzultzerakoan, ez nuela aurkituko, nik bizi izandakoa zela mundu baten azken izpia.”



Bernardo Atxaga.
Argazkia: Durangoko Azoka
(Txelu Angoitaren argazkia).

Jon Juaristi, Ruper Ordorika, Joxemari Iturralde eta Manu Erzilla ere joan ohi ziren Verdesera liburuak miatzera. Lagun hauek guztiek *Pott banda* izeneko literatur taldea sortu zuten hirian 1978an. Atxaga, Iturralde eta Juaristi (adinkideak hirurak) ziren taldeko nagusienak, 1958an jaioako Sarrionandia gazteena.⁷⁶ Juaristi baino ez zen bilbotarra; besteak Botxora ikastera etorritakoak ziren. Beste hainbat desberdintasun ere bazituzten euren artean, baina gauza batek elkartzen zituen: ekintza autonomo moduan ulertzen zuten literatura, eta ez ideologia politikoen menpeko jardura bezala.⁷⁷ Gaur egun guztiz normalizat hartzen da jarrera hori, baina ez ordea duela mende laurdeneko Euskal Herri hiperpolitizatuan.

Eguen iluntzeetan elkartzen ziren, Arriaga antzokian zegoen kafetegi dotore hartan. Gero, Zazpikaleetako *Cantabrico*-ra joan ohi ziren maiz, afaltzera (egun *Kronos* taberna

dago haren ordez; *Cantabrico* zaharraren ugazaba, berriz, geroagoko *Īnakiren Taberna*-ko Īnaki Eguskiza zena zen). Goizeko ordu txikienetara arte luzatzen zituzten literatur solasaldiak. Dena dela, berba egitera mugatu beharrean, euren asmo, ideia eta sorkuntza-lanak gorpuzten ere saiatu ziren: Bernardo Atxagaren *Etiopia* lana argitaratu zuten 1978an (hura izan zen atera zuten liburu bakarra)⁷⁸ eta, horrez gain, literatur aldizkariaren sei zenbaki ere atera zituzten 1978tik 1980ra: *Pott bandaren berriemailea*, *Pott bandaren blaga*, *Pott bandaren braga*, *Pott bandaren praka*, *Pott bandaren plaga* eta *Pott tropikala*. 1980ko ekainean kaleratutako azken zenbaki horretan ahalegin berezia egin (lehiaketa bitan ira-

⁷⁶ *Bildotsa* (horrela deitzen zioten *Pott*-eko kideek orduan Sarrionandiari, beronen ilajea zela kausa) Deustuko Unibertsitatetik begiz jota zeukan Ruper Ordorikak, baina *Anaitasuna*-n eta *Zeruko Argia*-n idatzi ohi zituen lanak zirela-eta deitu zioten *Pott*-eko bileretan parte hartzera Atxaga eta Ordorikak. Sarrionandiak, berriz, Manu Erzilla eroan zuen berarekin bandara.

⁷⁷ Esanikoaren erakusgarri, honelako gauzak idatzi zituzten euren aldizkarian: “Ez gaude inori serbitzeko, geure buruak argitzeko baino”; “Eskubikoek zein ezkerrekoek ez digute hazkurerik ere egiten”; “Politika subnormalitatearen formatzat hartzen dugunez gero, boikota egiten digute herri honetako iraultzaileek (eta dakizuenetz, herri honetan ia denak dira iraultzaile)”.

⁷⁸ Atxagak beste poema-liburu bat ere kalean zeukan ordurako: 1976ko *Ziutateaz*. Batean zein beste nabarmena da Bilboren eragina; atalburuan jarri dugun *Herdollarena* poema esanikoaren froga argia dugu. Poema horri eta Atxagaren beste hainbati musika jarri zien Ruper Ordorikak 1980ko *Hautsi da anphora* bere lehen lanean (disko horretan, gainera, Bilboko argazkiak ageri ziren hitzen lagungarri).

bazitako sos guztiak xahutu zituzten bertan, aldizkaria inoiz baino potoloago eta txukunago plazaratzeko) eta pentsatutakoa baino erantzun kaskarragoa jaso zutela ikusirik, amaitutzat eman zituzten bandaren ibilerak. Bizitzak, gainera, Bilbotik at eroan zituen euretako gehienak (oraindik sarri samar bueltatzen diren arren).

Anaitasuna, eskuz esku

Euskarak hiriko sorkuntza-giroan izaniko presentzia ez zen *Pott*-ekoekin amaitu, dena den. 1979an, adibidez, Juanba Berasategiren *Fernando Amezketarra* film laburrak irabazi zuen Bilboko Dokumental eta Film Laburren lehiaketa (marrazki bizidunen euskarazko lehen lana zen). *Ikuska* euskarazko dokumentalen saila ere urte horretan aurkeztu zuten, eta dokumentaletako batek (Antton Merikaetxebarriak zuzendutako 12 minutuko *Bilbo*-k) Botxoko espekulazio urbanistikoa zuen hizpide...

Maila apalagoetara etorrira, Xabier Gereñok bere inurri-lan pragmatikoarekin jarraitzen zuen. 1971n Bilbon *Centro Regional de TVE en el Norte* zabaldu zutela ikusirik, laster lotu zitzaion lanari: bi urte eman zituen irrati eta telebistarako propio prestaturiko euskara-eskolen gidoiak idazten. Bilboko Herri Irratiaren euskara irakasteko saioan estreinatu zituen gidoiok, eta urte batzuk geroago, Trantsizioan, berriro baliatu zituen, espainiar telebista publikoak eskaini ohi zuen *La clase de euskara* saiorako.

Euskalduntze-alfabetatze oldea indartsu zetorrela ikusita, berriz, hiru metodo hauek argitaratu zituen 1976an: *Método de Euskara* (gaztelania-hiztunek euskara ikasteko), *A new method for learning Basque* (ingeles-hiztunei zuzenduta) eta *Nouvelle methode de Basque* (frantses-hiztunentzat). Gereño, bestalde, *Anaitasuna*-n ere bazezilen (hamarraldi honetan kazetatik aldendu zen arren). Bere kontuen arabera, 1969 amaieran 3.531 harpide zeuzkan *Anaitasuna*-k, euretako 717 Bilbon. Diru-kontuekin, hala ere, estu zebilen, Anjel Zelaietak argitu digunez:

“Gogoan daukat Imanol Berriatuak bidalitako gutun bat, 1970 ingurukoa, bere iritzian *Anaitasuna*-rekin zer egin behar zen esanez. Bertan esan zidan diru-kontuekin argi ibili behar genuela eta horretaz arduratuko zen pertsona bat ere lortu behar genuela, berak esperientzia garrantza zeukala gaineratuta. Gu deitu gintuztenean, zorrak omen zeuzkaten ez dakit zenbat. Zuzendari edo jabe modura Juan Azurmendi agertzen zen orduan; egin kontu fraide hori Alemaniara joan zela lanera, zorrak kitzatzeko dirua irabazte aldera.”

Zelaietaren arabera, dena den, euren garaian asko igo zen aldizkaria, harpide berri ugari egin zituzten. Berak abadetza uztean, Galdakaotik Bilbora ekarri zuen *Anaitasuna*, Jardintxikerra kaleko lehenengora. 1970ean izan zen hori.



Anaitasuna hamaikatxo bider aldatu zen egoitzaz. **Iturria:** Anjel Zelaieta.

Garai hartan aldizkaria zuen bizibide Zelaietak. Berak dioskunez, “diru-sarrera ez zen handia, baina egon bazegoen”.

1970eko hamarraldia, bestalde, izugarri gorabeheratsua izan zen kazeta honentzat. Eztabaida asko izan zituzten barruan, eta, ondorioz, zuzendaritza-taldeak ere bata bestearen atzetik aldatuz joan ziren. Zelaietak argitu digu pixka bat hau guztia:

“Nire ondoren,⁷⁹ tarte batean, Josu Torre egon zen arduradun, 1972ko urrian hasita. Garai hura, Torrek berak dioen moduan, Buñuelen filmen parekoa da. Frantziakotarrak ziren jabeak, eta haiek kontrola berreskuratu gura izan zuten: Intxausti jarri zuten berriro zuzendari 1974an, eta Torreal dai haren ostean... Torrek kontatzen du behin, Jardintxikerrako egoitza utzi eta txikiago batera joan ostean (Atxuriko

⁷⁹ Zelaietaren garaian, unada batean Jose Luis Lizundiak egin zituen zuzendari-lanak, Zelaieta bera ezkutatu beharrean izan zelako.

Enkarnazio kaleko 19.era lekualdatu ziren), giltza sartu zuela egoitza berriko atean eta ezin izan zuela ireki. Torrealdaik sarraila aldatu zion.”

Imanol Alvarezek dioskunez, *Anaitasuna* Atxuri-Ollerietan inguruan zegoela hasi zen bera han laguntzen, aldizkaria tolesten-eta: “Oraindik euskalduntzen ari nintzen, Karmelon. Josu Torre zen orduan zuzendaria. Euskaldundu eta gero, jada Tomas Trifol zuzendari zela, idazten hastea proposatu zidan hark, gai oso astun eta serioak jorratzen zituztela eta kontu arinagoak ere behar zirela argudiatuta. Horrela hasi nintzen.” Bai asmatu ere, haize berriak ekartzen:

“Gogoratzen dut zelan egin nuen behin (1980ko hamarraldi hasieran) Gorte kaleko kabaret bati buruzko erreportajea (“Bilboko azken kabareta”); bertako artistak-eta elkarriketatu nituen, eta haien artean *Colorines* ospetsua zegoen, kapa eta *lentejuela* eta guzti maritxuarenak egiten... Horiei guztiei argazkiak eta elkarriketak egin nizkien eta *Anaitasuna*-k argitaratu egin zituen.”



Anjel Zelaietak jakinarazi digunez, Xabier Gereñok eginiko azal honegatik 25.000 pezetako isuna jaso zuen aldizkariak. **Iturria:** Anjel Zelaieta.

Horiek geroagoko kontuak dira ordea. Hori baino lehen, Enkarnazio kaletik Pilota kalera eroan zuten aldizkaria frantziskotarrek. Intxausti, Torreal dai eta enparauekin Xabier Kintana ere ibili zen orduan *Anaitasuna*-n. Berak esan digunez, “lekukoa hartu genuen, bai, beste idearium batekin: ezkerrekoa bai, baina ez espainolista. Hori zen arazoa.” Orduko *Anaitasuna*-ren eraginaz itaunduta, berriz, zera erantzun digu Koldo Zuazok:

“Esparru bateko jendearen artean baietz esango nuke, bazeukala eragina. *Anaitasuna*-k hasieratik onartu zuen euskara batua, eta hura ikasi nahi zutenek eta euskal gaiez arduratuta zeudenek erabiltzen eta irakurtzen zuten.

Euskarari dagokionez, oster, Leizarraga eta Axular zaleak ziren nagusi. Meretziko luke erabiltzen zuten euskara sakon aztertzea, baina, niri neuri, guztiz desegokia begitantzen zitzaidan. Guretako oso euskara arrotza zen hangoa eta, jakina, euskara molde hura ikasiko bagenuen, arretaz irakurri behar. Imanol Berriatua fraide frantziskotarrak goitik behera zuzentzen eta berridazten zuen ale bakoitza, eta hiztegitxo bat osatzen zuen azken orrialdean, irakurleari laguntze alde.

Esango nuke, beraz, hizkuntza arrazoiek pisu handia zutela *Anaitasuna* irakurtzeko orduan. Bestela, kazetaritzako ikuspegitik begiratuta, ez zait iruditzen aldizkari onegia: gaiak beti ziren antzekoak, eta gaiak erabiltzeko modua ere apal samarra zen. Jakina, 1970eko hamarkadako *Anaitasunaz* mintzo naiz, oso gorabehera handiak izan zituelako bere ibilbidean zehar.”

Izan zituen, bai, gorabeherak, eskuz esku ibili baitzen: frantziskotarren garaiaren ostean, barbarako, 1977 aldera, Iker taldekoek hartu zuten kazetaren ardura, eta Jose Ramon Etxebarria izan zen koordinatzaile. Etxebarriak berak eman digu eskualdatze horren berri:

“Une batean frantziskotarrek utzi egin zuten ardura eta Iker taldearen eskuetara pasatu zen *Anaitasuna*; politikoki EHAS talde politikoaren eskuetan zegoen Iker, eta gu han genbiltzan. Nik etxe alboan neukan Iker, Santutxun, eta han nengoen *Anaitasuna*-n nenbilelako, *Saioka* testu guztiak egin nituelako (hasi zenetik amaitu arte ibili nintzen *Saioka*-n) eta EHASekoa nintzelako. Kontua da hortik etorri zela eguneratze eta modernotzerako beharra, ikuspegi politikoa tartean sartuta.

Lana erabat militantea zen. Astean behin edo hamabostean behin biltzen ginen, eta gutariko bakoitzak zenbait orri betetzeko ardura hartzen genuen, edo guk geuk idatziz edo beste norbaiti eskatuz. Lanik finkoena Imanol Berriatuarena zen: goitik behera zuzentzen zituen testuak eta inprentako gorabehera guztiez arduratzen zen; baina fraidea zenez –frantziskotar pobrea, benetan-⁸⁰ hark ez zuen ezer kobratzen... eta aurrera.”

⁸⁰ Zelaietak anekdota polita kontatzen du: “Behinola (...) Baiona aldera bidaia egin genuen, euskararen batasunagatik, G. Arestik, I. Berriatua eta beste batzuek. Bueltan, hor hamaikak inguruan, Berriatua frantziskotarren komenturantz eramatean, Arestik, lapurren beldurrik gabe zetorrenak, esan zion Berriatuari: ‘*Gaur Txirrita naiz... komentuko ateak itxita badauzkazu ere, ez beldurtu, Imanol, Ankorara* (neskatxak zeuden Iralako komentu aurreko kafetegia) *sartuko gara eta handik hots egingo diogu telefonoz Guardianari*’. Berriatua, etxetik kanpora bide seguruetatik baino ibiltzen ez zenak, nigana hurbil durik, otoi egiten zidan: ‘*Ez, e, Txikito, ez e...*’ Ez ginen sartu.”




Beste gai batzuk jorratzen hasia zen *Anaitasuna*...
Iturria: Anjel Zelaieta.

Etxebarriak dioenez, eguneratze eta modernotzearekin batera (ordura arteko formatu handia aldatu, *newsmagazine* formatua hobetsi eta diseinu berria sartu zuten, adibidez), kazeta profesionalizatzeko saioa ere etorri zen:

“EHASek profesionalizazioaren inguruko arazoa planteatu zuen. Horrela, *Iker* taldearen inguruan antolatu nahi izan zuen *Anaitasuna*, beste zenbait lan-talderekin batera. Garai hartan *Anaitasuna*-ren erredakzio-taldea Santutxura pasatu zen (...), eta EHASen propaganda-materialak egiteaz gain, liburuen banaketa eta salmentarako taldea muntatu zen bertan, eta ikasmaterialak prestatzeko talde bat ere bai, *Saioka* izenekoa hain zuzen.⁸¹ Talde horien azpiegitura modura, fotografo eta maketatzaile profesionalak

⁸¹ 1974an plazaratu ziren *Saioka* sortako lehen liburuak; hurrengo urtean Durangoko Azokako Sari Nagusia eskuratu zuten ikasliburu horiek. Jose Ramon Etxebarriaren arabera, gaitasun handiko jendea ibili zen liburuok prestatzen: “Xabier Kintana, Natxo Arregi, Kepa Martinez de Lagos, Iñaki Zarraoa (gerora ETBko buru eta Getxoko alkate) eta haren emazte Arantxa Garmendia (Elixabete eta Mari Karmenen ahizpa), Imanol Añon, Xabier Mendiguren Bereziartu, Joxe Juan Gonzalez Txabarri, Josune Ariztondo, Jaxinto Iturbe eta Antton Olariaga, besteak beste.”



Saioka sortako liburuetakoren azala. **Argazkia:** www.erabili.com

kontratatu ziren, eta bertan egiten hasi zen bai liburuen eta bai aldizkariaren maketazioa eta muntaketa. Inprenta-lanak bertan egiten hasi ziren, eta hortik etorri zen bai euskal prentsaren aldeko kanpaina eta baita *newsmagazine* eran ateratzeko ideia ere. Aldizkariaren estetika eta diseinuari ere garrantzia ematen hasi ginen. Teknikariez gain, *Anaitasuna*-ren administrazioak (abonatuen ardura zutenak eta banatzaileak, besteak beste), zuzentzaileak (...) eta zenbait idazle ere *Iker* taldetik *finantziatzen* ziren.”

Profesionalizazio-saio horren eraginez, Jose Llerandi lekeitiarra soldatapean hasi zen beharrean *Anaitasuna*-n; Llerandik gomutan ditu oraindik orduko kontuak:

“1978an hasi nintzen ni *Anaitasuna*-n soldatapeko modura; kolaboratzen, aldiz, askoz lehenagotik. Egoitza oraindik Pilota kalean zegoen. 1974 inguruan ekin nion hara joateari, arratsaldeetan, laguntzeko asmoz (asko joaten ziren lehen horrela, kazeta tolestean laguntzera-eta). Administrazioaz eta harpidetzez Imanol Camara lezamarra arduratzen zen, orduko Bilboko euskaltzaleen taldetxoko kideetako bat, eta nik ahal nuen neurrian laguntzen nion. Gero soldadutzara joan nintzen.”

Soldadutzatik bueltan, ordea, gauzak aldatuta topatu zituen:

“Franco hil ostean aldaketa handiak gertatu ziren *Anaitasuna*-n, frantziskotarrek aldizkaria utzi zuten-eta. Aldikada batean Torrealdaik jarraitu zuen zuzendari ofizial modura, baina EHAS alderdi sortu berrikoak zebiltzan hor jo eta ke: Joseba Agirreazkuenaga, Santi Brouard... Ni neu ere EHASekoa nintzenez, soldadutzan nengoela *Anaitasuna*-koek deitu zidaten kazetaren zuzendari izatea proposatzen. Oso soldata txikia zen; lker taldearekin eta porrot egin zuen liburuak banatzeko enpresa batekin batera taldea osatu gura zuten. Alderdiaren konfiantzako jendea topatu behar zenez, Iparraldetik etorritako Jon Idigoras ere hantxe sartu zuten, administrazioaz arduratzeko, eta Asen Uria zena berarekin batera. Erredakzioan, berriz, Tomas Trifol zegoen nirekin batera (hura ere lan barik zegoen Iparraldetik etorri berritan eta hantxe sartu zuten, euskal prentsa ospitale-trazakoa baitzen orduan; hori, noski, oztopoa zen aurrera egiterakoan). Memento hartan idazle eta harpidedun asko geneuzkan, baina boluntarismo hutsa zen hura: ez ginen kazetariak, baina euskaraz zer edo zer idazten genuenez, bada, itsuen herrialdean begibakarra errege.”

EHASek aldizkaria bereganatzearekin batera, bestalde, kokalekuz aldatu zuela diosku Llerandik:

“Zabalbide kaleko lokal batera eroan zuten. EHASek eratutako *Jaundegi* elkarre anonimoa zen jabea; lker ere berea zen, eta baita Zabalbide 69ko pisu biak ere (justu orain metroaren irteera dagoen lekuan). Han egiten ziren *Saioka* liburuak, han zegoen halaber lker liburu-banatzaileria (euskarazko *Círculo de lectores* modukoa egin nahi izan zuten eta porrot egin zuen) eta hantxe *Anaitasuna* ere.

Soldatapekoek gain, han ibiltzen ziren Jon Aurre, Joseba Agirreazkuenaga, Joseba Sarrionandia eta beste batzuk. Han zebilen Imanol Berriatua ere, aldizkaria EHASena izan arren (eta, EHAS desagertzean, HASIkoa) berak egiten baitzituen zuzenketa denak (hamarraldi amaieran, nekatuta zegoela-eta, neuri pasa zidan ardura hori; pentsatzen dudanean Atxaga eta Sarrionandiaren testuak-eta zuzentzen nituela... Gazteak ginen eta, eta haiek ere bai... Ez ziren kexatzen, dena den). Saiatu ginen gauza plural samarra egiten. Euskadiko Ezkerraren sorrera, adibidez, ordukoa da; lker-eko askok EEra jo zuen, baina gu saiatu ginen aldizkarian haustura hori saihesten, eta lortu ere lortu genuen. HASIkoa ez zen jendea ere bazebilen gurekin: Joseba Agirreazkuenaga etortzen zen, Sarrionandia ere bai... Izan zen tentsio-une bat edo beste, baina oro har ondo moldatzen ginen elkarrekin.”

Orduko ezer nabarmentzekotan, batuaren alde eginiko lana azpimarratzen du Llerandik: “Euskara batuaren alde egin genuen, oso sutsu gainera. Behar bada mutur batera joan ginen (halakoa zen giroa ere), baina behar zen estandar bat. Uste dut bai *Anaitasuna*-k bai bizkaitarrok asko egin genuela batuaren alde. Hemen (eta ez Gipuzkoan) zegoen batez ere euskara batuaren aldeko gune gogor hori: Aresti, Kintana, Berriatua...” Batuaren aldeko lana eta profesionalizazio-saioak gorabehera, ordea, *Anaitasuna*-k ezin izan zuen bururik jaso hurrengo urteetan. Hori, ordea, 1980ko gorabeherak jorratzean kontatuko dugu.

Azter ditzagun orain batuaren aldeko apustu horren ondorioz sorturiko ikamikak.

Bizkaiera eta batuaren ahari-topeka

Anaitasuna-k artean eratze-bidean zen euskara batuaren aldeko apustu garbia egin zuela esan dugu. Alabaina, batuak aurkariak ere bazeuzkan, eta ez bat edo bi. Euretako batzuek *Agur* aldizkaria sortu zuten Bilbon 1970ean (hilero plazaratu zen hasieran, eta hamabostero 1971ko maiatzaz geroztik). Maiatzaren 30eko datarekin kaleratu zuten lehen zenbakia, egunkari formatuduna eta zortzi orrialdekoa, zuri-beltzean. La Gran Enciclopedia Vasca argitaletxearen babespean (*Euskerazaleak*-eko Martin Retana zen bertako buru) plazaratu ziren. Belau-naldi zaharreko jendea zen gehienbat (J. Arenaza, A. Zubikarai, K. Gallastegi, J. A. A. Etxebarria; horiek baino gazteago zen Mikel Zarate ere bazegoen idazleen artean), ideologia sabindar kontserbadorekoa oro har. Zera zioten, adibidez, lehen zenbakiko azalean:

“Gaur, zoritxarrez, uiola baltzak datoz gure kultura ibaietara, euskal erriaren iza-kera atzerritarren oitura, abesti, bizimodu, elerti eta abarrek urtu ta ezereztuteko arrizkoan jartzen dabenak; baña ez da olakorik gertatuko danok alegintzen bagara.” Gauza bat eskatu eta beste bat egiten zutenen moral bikoitza ere maiz salatu zuen *Piper-Ziri*-k *Agur*-en orrietan. 2. zenbakian, adibidez: “Laizter Bilboko jayak datoz. Euskal kutsuzkorik bai? Bai zera! (...) Aspaldiko urteetan Bilbon euskal mezak eskatzen, naiko zarata egin dogu. Orain lortu doguz ordu geienetan baña bi edo iru ezik erdi utzik ikusten dira eleizak. Egizkoa ete da gure euskera zaletasuna? Gure Unibersidade barrian bere, beste orrenbeste pasatzen da. Ikastaroa asi zanean euskerazko klaseak beterik egozan. Gero, egunak joan, egunak etorri, ikasleak gitxitu dira. Ba gara ala ez gara?”

Bizkaieraz idazten zuten, hori hasiera-hasieratik utzi gura izan zuten argi: “Zoriona, Bilbo-ko neure 40.000 euskaldunok. (...) Zoriona, euskaldun guztiok. Bizkaiera indartuaz euskera indartuko dalako. Onen bidez elduko ain maite dogun batasunera.” Ideia hori behin eta berriro azpimarratu zuten. Bigarren zenbakiko editorialean, adibidez:

“Gipuzkoako anai diran idazle batzuk bere eskeñi dauskue euren laguntasuna. Bizkaieraz geiena egitea gure asmoa izan bazan bere, orain, noizik behin beste euskalkietako lanak argitaratzea erabaki dogu. Ori izango da, gure uztez, batasunerako biderik egokiena. Lelengo al doguzanik irakurlerik geienak lortu ta alfabetatu; urren-go mallan beste euskalkietako euskera ulertu erazi; urrengoa barriz, euskalki osotuen ezbardintasunak moztu: orrela joko dogu euskera batasunezko izkuntza bizi batera.”

Bide hori hobesten zuten, beraz, euskara batu ofiziala *euskeranto* zuztarbatkotzat zeukatelako. Zelaietak dioskunez, Elizaren iritziak zeresan handia izan zuen jarrera horretan:



1968ko Arantzazuko bilera ospetsuan ezarri zituzten euskara batuaren oinarriak. Irudi hau urte batzuk geroago (1972an) Arantzazun bertan hartutakoa da, aditz batuari buruzko bilera batean. **Argazkia:** Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka

“Garai hartan Eliza ere oso guardian jarri zen. Orduan pentsatzen zen pixka bat Eliza guardian zegoela katolikotasunagatik, edo pentsatzen zelako batuaren aldekoak marxistak zirela. Hori ere egongo zen, baina orain badakit, beste paper batzuk begiratuta, Elizak arazo pedagogikoak ere bazeuzkala. Ezin zuten Lezamara joan eta ‘*esan genien*’ esaten hasi bat-batean. Hala ere, Mikel Zaratek, adibidez, oso posizio diskrettoa hartu zuen auzi honetan, Karmelo Etxenagusia eta beste batzuek ez bezala. Interesgarria da Santi Onaindiak argitara emaniko eskutitzak irakurtzea. Karmelo Etxenagusia honakoak botatzen ditu: ‘*Zer uste dabe Aresti eta oraingo yeyeista auek...*’ Gainerakoan, Agur-ekin tratu gaiztoa eduki genuen guk, *Anaitasuna*-kook. Aitortu behar dut egin genien jarraipena ez zela gizalegezkoa izan, euren gurekiko jarrera ere ona izan ez zen moduan. Dena dela, haiekin baino talka handiagoak izan genituen gurera artikulua bidaltzen zituzten beste lagun batzuekin. Lehengo legean idatzita bidaltzen zituzten; Imanolek zuzendu egiten zituen idatziok eta haserretu egiten ziren.”

Era askotako arrazoiak tarteko, beraz, Elizak bizkaieraren aldeko hautua egin zuen. Hautu horren indargarri, Derioko apaizgaitegiak Udako Euskal Ikastaroa antolatu zuen 1970ean, Mikel Zarate sustatzaile nagusi zela. Ikastaroaren inguruan eratutako dinamika bideratzeko Labayru Ikastegia sortu zuten Derio-



LABAYRU IKASTEGIA

Iturria: Labayru Ikastegia.

Ordukoa da (1978koa, hain zuzen), hala-ber, *Euskerazaleak* elkartekoek sortutako *Euskerazaintza* akademiaren sorrera. Bertako kideak ez zetozen bat Euskaltzaindiak jorratutako ildoekin; *erri-euskerak* edo euskalkiak sendotzea zuten helburu nagusi. Horretarako, besteak beste, *Zer* hilabetekaria sortu zuten 1977ko uztailan *bizkaitarrai bizkaieraz* lelopean, eta euskara-eskolak ere ematen zituzten.⁸² Ez hori bakarrik: *Euskerazaleak* elkartearen *Kili-Kili* aldizkariaren oinarri nagusia ere. *Kili-Kili* 1977an berragertu zen (oraingo honetan Goienkale kaleko helbidea zeukan), ia hamarraldi bateko eten luzearen ondoren; ordura arte, ordea, ez zen besoak antxumatuta egon, alfabetatze-kanpaina garrantzitsua (*Kili-Kili Sariketa Nagusia*) burutu baitzuen Mikel Zarateren *dakigunetik ez dakigunera* filosofia ospetsuan oinarrituta.

koek, Bilboko elizbarrutiaren babespean eta bizkaiera lantzeko eta zabaltzeko asmoz. Ikastegia 1970ean hasi zen lanean, baina 1977an eskuratu zuen legezko nortasuna. Labayruk hainbat sail Derion utzi zituen bitartean, Bilboko Aretxabaleta kaleko lehenera eroan zituen egoitza eta hizkuntza arloa (azken honek Mikel Zarate Literaturarako Iker Mintegia, euskara eskolak eta Itzulpen Zerbitzua hartzen ditu bere baitan).



Mikel Zarate.

Argazkia: *Euskal idazleak gaur*.

⁸² “Bazkun onen etxea”, zioten *Zer*-en lehen zenbakian, bide batez begiko zituzten elkarte eta ideien berri emanez, “*Kirikiño* euzkal-gaiezko idaztegitik, San Bixente’ren eleizatik, Erri-Irrati eta Arana Goiri’tarren sorlekutik beso luzetu batean dago, Abando’n, Kolon de Larreategi kalean.” *Zer*-en tonua, dena den, *Agur*-ena baino bigunagoa zen. Euren helburua bizkaiera (bizkaiera batua, zehatzago esanda) hauspotzea zela argituta, barbarako, zera erantsi zuten lehenengo zenbakian: “Ba dakigu euskera batu bat bearrezkoa dana eta egingo dalakoan gagoz, baiña ori ez da *Zer* onen elburua. Zalantza barik, bizkaierera ondo batuaz eta landuaz baturako lan egiten gabiltz. *Zer* ez doa inoren aurka, ez dabil eztabaida-billa. (...) Ez dogu nai ba, bego argi, berbeteari edo izkuntzeari buruz, gitxiago politika-gaetan, ez eta erelijiño gauzetan be, ezelako eztabaida garratzik. Bakotxak bere eritxiaz eta bere bidetik aurrera egin dagigun, garraztasun bako alkar-izketa anaikorra bide dala.” Euskara eskolei dagokienez, bestalde, *Zer*-en lehen zenbakiak zioenaren arabera “Gabon-ondorengo ikastaroan” (1977 hasieran, hortaz) euren egoitza “bos-teun eta geiago ikaslez plin-plin bete zan ok egiteraiño.”



Sarean jarraitzen du gaur egun *Kili-Kili-k*. Iturria: www.kili-kili.net

Jose Antonio Retolazaren arabera, kanpaina hori “ikasketa” bat zen, “joko aundi baten barruan asmatua”. *Ikasketa* hori, berriz, hainbat maila eta ikastaro-rekin eratuta zegoen. Euskalduna izanez gero, edonor sar zitekeen ikastaro horretan, eta baita bere burua alfabetatuz saria irabazi ere (txango bat, gehien-gehienetan).

1970eko hamarraldiko lehen erdian 18.000 ume inguruk ziharduten urtero sariketan, honela bananduta: 7.000 inguru Bizkaian, 6.000 Gipuzkoan, 4.000 Nafarroan 500 Araban eta 200 bat atzerrian.⁸³ *Kili-Kili*-ren errotze-mailaren berri ematen digute, halaber, 1977an Bilbon izaniko *Kili-Kili Egun*-ean bildutako 12.000 umeek.

Bizkaierazaleek, beraz, ikastegi eta hedabideak sortu eta euren dinamika garatu zuten. Gauza bera egin zuten *Anaitasuna*-n, ikastoletan edota gau-eskoletan euskara batua zabaldu guran zebiltzanek. Batzuek zera egozten zieten bes-

⁸³ Ipar Euskal Herrian zabaldu ez izanaren arrazoia Retolazak berak damaigu: “Ipar-Euskalerrian, Lapurdi’n ain zuzen be, Seaska Elkartekoak asi ziran zerbaite egiten, baiña nik pasaportetik ez-eta ara joan eziñean bertan bera geratu zan.”

teei: batua indarrez ezarri nahia, bizkaiera zokoratzea eta hizkuntzan ahozkoak lehentasuna daukala ahaztu izana; besteez, berriz, izaera atzerakoia eta nazio-ikuspegiarik eza leporatzen zieten bizkaierazaleei, puntuan konparazio hau egin-da: ba ote luke zentzurik Andaluzian jendea alfabetatzerakoan ‘*primero en anda-luz*’ esaten hasteak? Koldo Zuazok honela azaldu digu orduko giroa:

“1973an etorri nintzen Eibartik Bilbora bizitzera eta, Eibarren aldean, oso bero —eta oso ero— aurkitu nuen Bilbon batuaren auzia: batuaren aldekoak eta euska-ra bizkaitarraren aldekoak zeuden han, bando bitan, bata bestearengandik ondo bereizita eta guztiz aldentuta. Bakoitzak bere gau eskolak eta bere ikastolak zituen. Aldizkari bi ere baziren, *Agur* eta *Anaitasuna*, eta ikasliburuak ere batuan eta biz-kaitarrean egiten ziren. Ez zegoen erdibiderik, ez eta batua eta euskalkia uztartzeko egitasmorik. Gogoan daukat Bilboko Hizkuntza Eskolan euskara irakastea erabaki zenean ere, batua edo bizkaitarra zein eredu aukeratu, eztabaida bizia eta beroa izan zela. Baina hori ere ez zen gauza txar bakarra. Batuaren aldeko bilbotar askok Lapurdiko XVI-XVII. mendeetako idazleak zituzten gogoko: Leizarraga, Axular, Etxeberriarrak... Haiek zituzten eredu, eta ez zuten aintzakotzat hartzen XX. men-de amaieran egiten zen euskara; are gutxiago Bizkaikoa. Jokabide hori, jakina, guz-tiz zoroa eta zentzugabea zen.

Euskara bizkaitarraren aldekoek, berriz, kaltegarritzat jotzen zuten batua, *artifi-ziala* zela zioten, eta euskalkiak itoko eta galduko zituela esaten zuten. 1978an, Mikel Zaratek Euskaltzaindiaren Bergarako Biltzarrean aurkeztutako txostena iraku-rri arte, ez nuen euskalkien aldeko ganorazko arrazoirik entzun. Oso erromantikoa iruditzen zitzaidan euskalkien gainean zeukaten ikuspegia: euskalkiak euskararen *altxorra* eta euskara *naturala* zirela zioten, eta arbasoen euskara hori bere horretan gorde beharra eta nonahi erabili beharra aldarrikatzen zuten. Aldiz, ez ziren jabetzen euskara batuaren eginkizunaz, eta hizkuntzaren etorkizunari begira, arriskutsua eta desegokia zen itsukeria hori. Ni neu askozaz geroago ohartu nintzen, XX. mende amaiera aldera, euskalkiak zaintzeko eta lantzeko sakoneko arrazoiez: transmisioa ziurtatzea, sena sendotzea, euskara zuzenagoa egitea, hizkuntza komunikatibo-a-goa, biziagoa eta aberatsagoa lortzea... eta arrazoi horiek ez zizkidaten Bilboko biz-kaierazaleek erakutsi. Bai zera! Euskalkien edo herri hizkeren aldeko arrazoiak ematea eta batua eta euskalkiak modu orekatuan uztartzea barik, batuaren aurka egitea zen haien lehentasuna.”

Kontuak kontu, gauza bat argi samar dago: euskara batua geroz eta gehia-go zabaldu zen idazleen artean eta baita ikastetxe, hedabide, gau-eskola eta enparaueetan.⁸⁴ 1975eko azaroaren 15eko *Goiz-Argi* gipuzkoar astekarian (eus-

⁸⁴ Horren onurak begi-bistakoak dira. Dena dela, batzuen ustez, prozesu horrek eragindako zehar-kalteez ere berba egin beharko litzateke. Jose Joakin Gallastegiri, adibidez, zera irakurri diogu: “AEK-k Bilbo inguruan milaka ikasle zuen bitartean, Labayrukoen ikastarora seirehun-zazpirehun ikasle hurbil-duko ziren gehien jota Bizkai guztitik. Ez noa batzuen eta besteen lana batutako ikasleen numerotan kon-paratzera, oso ekimen diferenteak baitira bata eta bestea. Baina zifrak argigarriak dira euskaldunengan, Bilboko euskaldunengan zehazkiago, aldeko giro harek zein gutxi eragin zuen ikusteko. AEKn eta gaine-rako euskaltegieta alfabetatzera jotzen zuten euskaldunak, hain gutxi izanik, gehienetan eskolatu gabe geratzen ziren talderik ezean, edo okerreko taldean akonplejatuta. (...) Bilbo aldean gailendu zen filoso-fia espansionistan ez ziren integratu bertoko euskaldun gehienak; euskera berria arrotz zitzaielako edo

kara batuaren aurkakoa hau ere), berriz, *Agur*-eko batzordearen gutun bat zeto-rran, zera esanez: “Bai, zuengana, *Agur*’eko idazle, irakurle ta arpidedun zareen-gana, *Goiz-Argi* anaiak onen bidez gatozkizue. (...) *Agur*, asteroko bezela ez argitaratzea erabaki dogu. (...) apur baten ixildu egingo gara. Ona emen, baiña, gure eskaria: *Goiz-Argi*’ri lagundu!”.

Apur baterako ez, betiko amatatu zen *Agur*-en argia (1975eko ekainaren 21ekoa da azken zenbakia; *Goiz-Argi*, berriz, hurrengo hamarraldi hasieran desagertu zen); Mikel Zarate bera ere hamarraldiarekin batera joan zitzaigun, 1979an, *Euskarazaleak* ahulduz joan zen, *Kili-Kili* indarra galduz... Labayru ikas-teria, *Zer* aldizkaria eta zenbait ikastetxe (Begoñazpi eta Kirikiño nagusiki) gera-tu ziren Bilbon bizkaieraren gotorleku modura.

Aro politiko berriaren eragina

Frankismoaren amaierarekin batera, aldaketa politiko garrantzitsuak heldu ziren eta aukera eta arrisku berriak agertu zitzaizkion euskarari. Espainiar Konstituzioak eta EAEko Autonomia Estatutuak hizkuntzari ezarritako joko-arauekin ados ez zen euskaltzale-talde batek *Euskal Herrian Euskaraz* mugimendua sor-tu zuen 1979an (Bilbon ere eratu zuten talde horren adar bat).

Garai berriekin, bestalde, ikastoletan ez ezik, Botxoko ikastetxe publiko eta pribatu batzuetan ere hasi ziren euskaraz irakasten. Azken horietan, ordea, hurrengo hamarraldira arte ez zen zinez indartu euskarazko irakaskuntza. Ikas-tolei dagokienez, Elkano kaleko zentro aitzindaria Lauro ikastola bihurtu zen hamarraldi hartan; horrez gain, Begoñazpi ikastola ere hamarraldi hasieran sor-tu zen. Anjel Zelaiaetak eman dizkigu batari zein besteari buruzko argibideak:

“Hor funtsezko emakume bi egon ziren: Julita Berrojalbiz eta Josune Zearra. Ikastolak handi egin zirenean, Villar Palasi-ren legea etorri zen [1970ean]; haren pentsamendu nagusia zen eskolak duina behar zuela izan. Ikastolei ere, beraz, taxuzko lokalak eskatu zizkien. Baina hor, Kale Nagusian, pisuetan-eta...”⁸⁵ Horre-

dinamika berriaren estetikarekin identifikatu ez zirelako, edo dena delakoagatik, kontua da bertoko eus-kaldungoa abia bizian uste genuen prozesu hartatik aparte lotu zela neurri handiz; eta horrela oso zaila da hizkuntz komunitatea osatzea.” Agurtzane Elorduik, berriz, lekukotza esanguratsuak bildu ditu Basau-ri eta Arrankudiagan. Hona adibide bat: “Oraingo euskera da politago gurie baino (...) gurie da berba asko erdi erdera erdi euskara, oraingo euskara konpletuagoa da.” Iñaki Gamindek ere euskara batuak Bilboaldeko euskaldun zahar askorengan konplexu ugari eragin zuela iradoki du, euskara moderno horren ondoan euren baliobakoa zela pentsarazteraino. Belaunaldi batek derrigorrez ordaindu beharre-ko bidesaria izan ote zen edo gauza batzuk hobeto egin ote zitezkeen, hori geroak esango du.

⁸⁵ Iñaki Irigoienek azaldu digunez, “Elkanon hasi bai, baina egoitza hura txiki geratu zitzaigun eta Kale Nagusira pasa ginen.” Denbora-tarte honetan, Xabier Peñaren euskara-eskolak ere batetik bestera ibili ziren, harekin 17 urtez klaseak ematen ibilitako Emille Garaik gogoratzen duenez: “Erribera kaleko akademian erakutsi neban euskara Xabierren ondoan; Jaime Goenagak ere erakusten eban. 1968-69rantza, Kale Nagusiko 33ra aldatu ginan danok. Beste laguntzaile batzuk gehitu jakuzan hor: Garbiñe Fernandez de Pinedo eta urte gitxi batzuetan baino erakutsi ez eben beste batzuk: Andoni Zorrilla eta

gatik, kooperatiba osatu eta ikastola berria egitea pentsatzen dute, eta Julita Berrojalbiz Loiura doa, han lurrak erostera. Horrela sortu zen Lauro ikastola. Josune Zearra, berriz, katolikoa zen, eta bazuen kezka: *“Honek umeok aitaren egiten ere ez dakite-eta, eta erlijioa...”* Abadeengana joan eta Begoñazpi sortu zuen.⁸⁶ Berak esan zidan: *“Gu Elizakoak ginen, eta andre gaztetxoak ere bai, bagenekien guri eman egingo zigutela...”* Horrela izan zen: Elizak eraikina eman zien (orain berria egin dute), zuzendaria ere gotzaindegiak izendatzen zuen, jaunartzeak euskaraz egiteko arazorik ez... *Por todo lo alto.”*

Elizak, beraz, bere babespeko ikastolen elkarte sortu zuen, erlijioa eta bizkaieraren aldeko jarrera zituela ikur nagusi (elkarte horretan sartu ziren, esate baterako, Begoñazpi, Lauro eta Artxandape ikastolak). Herrialdeko gainerako ikastolek, aldiz, Bizkaiko Ikastolen Elkarte sortu zuten 1977an. Zatiketa geroz eta nabarmenagoa zen Bizkai guztian. Bizkaiera eta erlijioarekiko eztabaida horrek, besteak beste, Ikastolen Elkartearen baitako Bilboko ikastetxe bat erdibitzea ere eragin zuen, 1978an Karmelo ikastola utzi eta Kirikiño ikastola sortu baitzuen guraso-talde batek.



Elizaren babespean sortu zuten Begoñazpi ikastola. **Argazkia:**
<http://www.begonazpi.net/ikastola1.jpg>

Asun Ibarra, esaterako. Peña hilda gero be Elkano ikastolan klaseak emoten jarraitu genduan, erakunde hau galdu zan arte. Gogoratzen dodanez, ikasturtea urrian hasten zan beti; irakaskuntzea lau talde edo mailatan banatzen zan; ikasten hasten ziran askok laugarrenera heldu orduko itxi egiten eben. Horrela ba, lehenengo ikasturtekoak 30 izan eitekezan; eta laugarrena 10-15 ikaslegaz amaitzen zan.”

⁸⁶ *Agur*-en lehen zenbakiak (1970eko maiatza) honela eman zuen berria: “Bizkai’ko erri askok lez Bilbao’ko ikastolak, legepean jarri ondoren, artu ezin aiña ume daukeez; (...) Eleiza babesean dagozan ikastolen alkarte sortzea erabaki da. (...) Asmoak? Apurka, apurka asi, al badogu parroki bakoitzean edo geienetan parbulario bana sortu ume txikitxuentzat. Begoñazpiko parrokian ikastola *bide erakustaille* bat izango dogu; etxe ederra, aize-begian, leio zabalduna, andereño arduratsuekaz, ta jolaserako baratz ederragaz. Ikastola au Urrillean zabalduko da ta zenbat ikastaro izango dituan gurasoen eskariak esango dauskue.”

Zatiketaren erakusgarri da beste kontu hau ere: bost urtez jarraian Euban batzarrak egiten jardun ostean, 1972ko irailean pasiotarrek bertan batzartzen jarraitzea debekatu zieten Bizkaiko ikastolei. Hori zela-eta, Euskaltzaindiaren Erribera kaleko egoitzara aldatu behar izan zituzten euren bilerak. Laster, ordea, handik ere alde egin behar, leku falta zela kausa, Xabier Gereñok Zazpikaleetan zeukan etxebizitza batera. Han, *Anaitasuna* aldizkariko arduradunekin eta Bizkaiko Alfabetatze Batzordeko kideekin partekatu zuten lekua.

Egia esan, Gereñok alokatutako etxebizitza hura gauza gehiagotarako ere erabili zen. Gereño bera, adibidez, Euskaltzaindian hasi zen beharrean hamarraldi amaieran, kontulari modura, baina aurretik Akademiaren 1978ko *Bai Euskarari* kanpaina antolatzen ibili zen etxebizitza horretan. Berak azalduko digu zelan izan zen hori:

“Euskaltzaindiak niri hori antolatzea iradoki zidan, eta nik onartu. Orduan, nik Bilboko Pilota kalean alokatuta neukan etxebizitza hartan (*Anaitasuna*-ren aldi bateko egoitza izan zen hartan)⁸⁷ jarri genuen *kuartel* nagusia. Pilota kalean biltegi bat ere alokatu genuen, kalearen beste aldean, eta epe baterako soldatapeko hiruzpalau behargin ere hartu ziren, eta ni neu aritu nintzen guztia koordinatzen. Elastikoak, poltsak eta beste hainbat gauza egin genituen, eta gero San Mamesen jaialdi handia ospatu zen (...). Itxura ederra izan zuen egun hartan: dantzariak, abeslariak, orfeoiak, bertsolariak... Horiek guztiak eraman genituen bertara. Polito atera zen.”

Jose Joakin Gallastegik ere ondo gogoratzen du Telesforo Monzonen hitzek (uso zuria eta uso gorria aipatzen zituzten haiek) girotu zuten kanpaina hura: “Herri eta auzoetan (...) burutu ziren Akademiaren aldeko kolekta domunianoek motorra berotuta, San Mamesen 40.000 euskaltzale euskaldun zein erdaldun batu ginen ekainaren 17an euskeraren aldeko gol paregabea bibaka eta goraka ospatzera.” Edurne Brouarden arabera, berriz, “hura itzela izan zen, hunkigarria. Ni orduan joan nintzen lehenengo biderrez San Mamesera eta jendez gainezka zegoen. Garai hartan Euskal Herrian zeuden artista guztiak etorri ziren: Pantxoa eta Peio, Oskorri...”

Euskaltzaindia apur bat sendotzen hasia zen ordurako (egin kontu 1973an sosak lortzeko beste kanpaina bat egin behar izan zuela diruz larri zebilelako): 1978ko abenduan, esaterako, Arbieta kaleko hirugarrenera aldatu zituen egoitza eta bulegoak, Bizkaiko Foru Aldundiak utzitako etxebizitza batera.⁸⁸ Hala ere, aka-

⁸⁷ Zera ere badio horri buruz: “(...) nik neuk alokatu nuen egoitza berria Zazpikaleetan, Pilota kaleko etxebizitza bat. Nik neuk ordaintzen nuen alokairua.” Puntuan, eransten duenez, berriz, geroago “egoitza hori Ricardo Badiola eta Juanjo Zearretak hartu zuten, euren hiztegia egiteko (etxebizitza hartan gordetzen zituzten fitxak-eta). Haren ondoren etorriko ziren gero *Hiztegia 80*, *Hiztegia 2000* eta enparauak.”

⁸⁸ Liburutegiak Erribera kalean jarraitu zuen. 1978an Jose Antonio Arana Martixari eman zioten beronen ardura. Akademiak garai hartan Azkue biblioteca zeukan, eta, horrez gain, liburu bakan batzuk gehiago. Aranaren agindupean, aldiz, urteen poderioz euskarazko kultur ekoizpena biltzen duen liburutegirik zabal eta garrantzitsuenetakoa eratu zen.



Jendez gainezka zegoen San Mames *Bai Euskarari* jaialdian.

Argazkia: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka

demia normalizatu batek bere gain hartzen ez dituen lanez arduratzera behartuta zegoen oraindik. 1975ean, adibidez, euskara-irakasle izateko eskubidea ematen zuten tituluak banatzeari ekin zion, horretarako azterketak prestatuta.

1977ko irailean seigarren promozioakoei tituluak banatzeko ekitaldia egin zen Bilbon. Ordurako Euskal Herri guztiko 1.172 lagunek eskuratua zuten euskara-irakasle agiria. Xabier Kintanak gogoratzen du zelan bera ere batzorde horretan ibili zen jendea etsaminatzen: “Euskaltzaindiak, inork titulurik ematen ez zuenez gero, diploma batzuk (B eta D) ematen zituen. Jaurlaritzak irakaskuntza bere gain hartu zuenean utzi zion ardura horri EAEn Euskaltzaindiak.” Edurne Brouard diploma horiek eskuratu zituenetako bat izan zen:

“Ni Errekalden hasi nintzen gau-eskoletan, Iñaki Gaminderekin. D titulua ateratzera joan nintzen, eta eskolak jasotzen hasteaz batera eskolak emateari ere ekin nion. Jende mordoia zebilen orduan Errekaldeko gau-eskolan, ehunka lagun. Lana amaitutakoan joaten ziren euskara ikastera, hortik *gau-eskola* izena. D titulua, bestalde, Euskaltzaindiak garai hartan ematen zuen euskara-irakasle izateko titulu ofiziala zen; euskaraz gain, euskal geografia, historia eta literatura ere irakasten ziren titulua lortzeko.”

Behin titulua lortuta, euskara-eskolak ematen hastea izan ohi zen hurrengo urrats logikoa. Horrek, ordea, aparteko azalpena merezi du.

Gau-eskoletatik euskaltegietara

Bizkaiko Alfabetatze Taldeak koordinatuta, hainbat bazterretan sortu ziren gau-eskolak hamarraldi hasieran. Xabier Monasterioren arabera, ez da ahaztu behar “artean ezkutuko jarduera zenez, gehienetan sakristia, lonja eta horrelako tokietan kokatuta egoten zirela eta baliabideak guztiz urriak zirela, batzuetan arbelik ere ez baitzen izaten.” Irakasleek borondate hutsez egiten zutela lan eta euretako asko halamoduz alfabetatuta zeudela ere badiosku Monasteriok:

“Sasoi hartan aski zen norbait euskalduna zela jakitea beste errequisito barik hango edo hemengo gau eskolan irakasle lanetan hasteko. Gernika, Arratia, Durango eta Lea-Artibai aldeko makina bat euskaldun ezagutu ditugu Bilbon, hizkuntza idatzia menderatu ez arren, maitasun eta kemen handiz herritarrek euskalduntze-ari ekin ziotenak. Izan ere, ezin da ahaztu euskara batuaren lehenbiziko arauak eman berriak zirela (1968an) eta artean inor gutxik ezagutzen zituela. Beraz, irakasle jator kementsu haiek, ezinbestean, euskara irakastearen poderioz alfabetatu behar izan zituzten beren buruak.”

Koldo Zuazoren iritziz, bestalde, euskalduntzeko eskolak abian jarri eta egituratzeko “lan itzela” egin zen Bilbon. “Oker ez banago”, diosku Zuazok, “Deustun eta, batez ere, Santutxun egin ziren urratsik bizkorrenak. Ondo gogoan dauzkat, esate baterako, Santutxun lanean ziharduten Basterra anaiak. Baita Eibartik ezagutzen nuen Jose Ramon Etxebarria irakaslea ere.” Ahalegin itzelak, bai, besteak beste ia irakas-materialik ere ez zeukatelako. Horri aterabidea eman guran, Bizkaiko irakasle-talde batek *Euskalduntzen* eta *Alfabetatzen* metodoak argitaratu zituen Cinsa etxearen bitartez.

Iker taldekoen *Saioka* liburu-sorta ospetsua kaleratzeko ere Cinsaren egitura baliatu zen hasieran. Haatik, aro politiko berriaren ailegaerarekin batera iraungi zen behin betiko Cinsa. Ez zen hori izan, ordea, etxe hori desagertzeko arrazoi bakarra. Hara zelan azaltzen duen kontua Xabier Gereñok:

“Franco hil ostean, autonomia estatutua eman zigutenean-eta, pentsatu nuen modu amateur batean diskoak ateratzen jarraitzeak ez zeukala zentzurik. Gobernua geneukan Gasteizen, bada, antola zezala berak ikus-entzunezkoen arloa. Guk han jada zereginik ez geneukala pentsatu nuen. Hori baino lehen, ordea, Franco artean hilzorian zegoela, Columbia eta beste zenbait disko-etxe indartsu gurean sartzen hasi ziren. Haiekin ezin ginela lehiatu ere argi genuen.”

Euskalduntzen-era itzulita, Xabier Kintanak azaldu dizkigu lehenago metodoaren sorrerari buruzkoak. Jose Ramon Etxebarriaren arabera, batez ere Santutxuko gau-eskoletan erabaki zen metodo hori argitaratzea:

“Ordura arte Patxi Altunaren *Euskara hire laguna* erabiltzen zuten; bizkaieraz ematen zituzten eskolak. Baina edizio hori agortu egin zen, eta euskara batuaren problema ere hor zegoen. Metodoa egiteko gizarte-premia zegoen. Santutxun hain-beste irakasle geunden (fraidekiak gehien-gehienak, Gipuzkoatik etorritakoak eure-tako asko); Dimako Indiabeti baserrian gau-eskoletako 30 irakasle inguru bilduta (Ricardo Badiola, Jon Aurre, Juan Luis Goikoetxea... gogoan daukat neu nintzela fraidekia ez zen bakarra), metodo hori egitea erabaki genuen. Metodoko irudiak komiki modura egitea pentsatu genuen; lehenengo liburuaren komikia Jon Juaris-tik prestatu zuen.”

Euskalduntzen sail hori (3 liburu guztira) 1972an hasi zen argitaratzen eta gogoz eskuratu zuten ikasle eta irakasleek, besteak beste ordura arteko jardun erdi-ezkutua bistaratzeko, taldeak eta mailak hobeto antolatzeke eta jende gehiago erakartzeko balio izan zuelako. *Euskalduntzen*-en ondoren *Alfabetatzen* saila etorri zen (beste liburu bi). Jose Joakin Gallastegik dioenez, Imanol Berria-tua ardatz zuen talde batek burutu zuen lan hura:

“Imanolen ingurura batutako taldea Urira ikastera etorritako bizkaitar gazteek osatzen zuten; askok izango dituzue gogoan oraindik *Euskalduntzen* deitutako hiru liburu haien azalak, non kolore desberdinetan Imanol bera ikus zitekeen, ikasleak begira zituela, arbelean idatzitakoa seinalatuz. Sabin Egileor Bilboko euskarazko irakaslerik beterranoena, Juanjo Zearreta, Juan Luis Goikoetxea, Xabier Kintana, Ricardo Badiola, Koldo Zuazo,⁸⁹ Jon Aurre, Xabier Oleaga, Joseba Tobar, Jose Ramon Etxebarria, Munduate, Iñaxio Intxaurrea, Albaro Legarreta, Elgezabal.”

Berriatuak, dena den, bestemoduzko materiala ere prestatu zuen: Iberduerok argitaratu zion *Hitz Egin* metodoa, adibidez. 1978an plazaratu zen, *Jalgi Hadi* metodoa plazaratu zen urte berean. Xabier Monasterioren arabera, bata zein bes-tea oso garrantzitsuak izan ziren:

“Lehenak [*Jalgi Hadi*] enbataren adinako oldartzea eta iraultza sortarazi zituen irakasleen artean, ohiko liburuaz gain, audioa, hormirudiak eta irakaslearentzako gidaliburua ere bazekartzalako. (...) Bigarrenaz, esan behar Euskaltzaindiak sortu berria zuen Oinarrizko Euskararako Batzordeak prestatu zuela, Imanol Berriatua Bilboko bulegoan buru zela eta ingelesezko Alexander metodoa ardatz harturik. Anekdotak legez, aipa dezagun Iberdrola enpresak Lemoizen egindako triskantzaga-tik bere burua zuritze aldera euskararen faboretan eman zituen diruei esker argita-ratu zela metodoa.”

⁸⁹ Zuazok, dena dela, akats zenbait ere ikusten dizkio *Euskalduntzen* metodoari. Hara bestela zer esan digun: “Ikasbide bezala, aurrerakuntza galanta ekarri zuen. Hizkuntzaren aldetik, berriz, ez zuen hain egoki jokatu. Haren egileak ere Lapurdiko euskara zaharrak liluratuta zeuzkan. Adibide bat aipatuko dut horren erakusgarri: hitzaurrean *h*-ak ahoskatzeko aholkua egiten zitzairen irakasleei. Ikaragarria! Aldiz, azentuaren gainean, esate baterako, ez zegoen inolako oharrik, eta bilbotarrendako onuragarriagoa izan-go zen hori. Azken batean, Euskal Herrian eta, batez ere, Bizkaian egiten zen euskararekin lotura gutxie-gi zeukan eredia erakusten zen eta, jakina, euskaldun berriei gehiegi kostatzen zitzairen herri euskaldun horrekin bat egitea.”



Euskalduntzen saileko bigarren liburukia, Imanol Berriatua bera azalean ageri dela.
Iturria: Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka

Metodoon eta irakasle gero eta trebatuagoen laguntzaz, gero eta lagun gehiago ari zen Bilbon euskara ikasten. 1977-78 ikasturtean, konparazio baterako, 4.560 ikasle ei zebiltzan hirian euskalduntze-eskoletan, eta beste 337 alfabetatze-klaseetan.⁹⁰ Ez dugu kasualitatez aipatu urte hori, 1977an AEK sortu baitzen. Mugimendu hark izaera autonomoa eskuratu zuen, horrenbestez, legebabesa ematen zion Euskaltzaindiaren Jagon Sailaren magaletik irtenda.

⁹⁰ Zifrok, argi dago, euskalduntzearen eta alfabetatzearen arteko desoreka erakusten digute. Koldo Zuazoren iritziz, “alfabetatzeari, oro har, jaramon gutxiegi egin zitzaion, eta kontuan eduki behar da herri euskaldunetarik etorritako jende ugari zegoela Bilbon, eta herri euskaldunak daudela Bilbo inguruan. Nire iritzian, Labayru elkarteak izan zen horretan zuzenen jokatu zuena. Mikel Zarateren goiburuan oinarri hartuta, *dakigunetik ez dakigunera*, hau da, euskalkitik abiatuta batura jotzea zen euren bidea. Batuaaren aldekoak, berriz, batutik hasi ohi ziren, gehienbat, eta Lapurdiko euskara zaharra izan ohi zen batu horren ardatza komeni baino gehiagotan.”

Haatik, boluntarioen lan hutsarekin gau-eskolek urrunegi iristerik ez zeukatela ondorioztatu zuten askok; hau da, ikasketa-prozesua bizkortzeko eta egiturak sendotzeko premia ikusita, profesionalizazioaren aldeko apustua egin zutela. Apustu horren ondorioz sortu ziren Euskal Herriko estreinako euskaltegiak (talde antolatu profesionalak) hiriaren erdigunean: Posta kaleko *Bilbo Zaharra* lehenik, Kale Nagusiko *Gabriel Aresti* gero, eta ondoren Urkixo zumarkaleko *Ulibarri*, Deustuko *Zubibarri*, Gordoniz kaleko *Juan Mateo Zabala*...

Euskaltegiak, beraz, Botxoko produktua dira, bertoko labela daukate. Egitura berriok enpresa-eraketa ekarri zuten batetik (kooperatiben bidetik jo zuten gehienek), eta egun osoko jarduna bestetik (zentro gehienak, beraz, apurka-apurka *gau-eskola* izena galduz joan ziren; AEK-n koordinatutakoek 1980 hasieran eman zuten pauso hori, laster ikusiko dugun moduan).

Euskaltegi izena bera, bestalde, Imanol Berriatuari zor diote, Jose Joakin Gallastegik kontatzen duenez: “Imanolek, egun batean, ikasleen erritmoa bizkortuko zukeen metodoari bueltaka, bere energia inbidiagarriaz holantxe bota zuen: ‘*zuek diozuen horri euskaltegia deitu beharko zaio.*’ Eta holantxe izan zen.”

Berriatuak Israelgo *ulpan*-ak –juduei hebreera irakasteko akademiak– izan zituen inspirazio-iturri. Izan ere, maiz bisitatu zituen zentro horiek, zenbait euskaltzalek lagunduta. Jose Ramon Etxebarriak esan digunez, adibidez, hamarkada amaiera aldera Berriatuak Euskaltzaindiaren laguntzaz antolatutako bidaian joan zen bera Israelera, eta bidaia hartan Juan San Martin, Xabier Kintana, Iñaki Antiguiedad eta gerora Eusko Jaurlaritza izango zeneko kide batzuk izan zituen bidaide (Amatiño, adibidez; EITB eratzekeo ideia bila joan ei ziren). Etxebarriaren arabera, Berriatuak Israelgo frantziskotarren komentuetan egotalditxoak egin zituen hango metodoak aztertzen; handik bueltan, israeldar metodook Ulibarri euskaltegian aplikatzen saiatu zen.⁹¹

Euskararen irakaskuntza, beraz, bide berrietatik abiatua zen Bilbon. Bideok are gehiago zabaldu ziren hurrengo hamarraldian, puntuan ikusiko dugun moduan.

⁹¹ Anjel Zelaietak dioskunez, Anton Artiñanok sortu zuen Ulibarri euskaltegia: “Jendea erakartzeko abilezia zeukan; Krutwigen adiskidea zen (hain zen horrela non azken urteetan Krutwig haren etxera erretiratu baitzen).” Jose Ramon Etxebarriaren arabera, berriz, mezenas modura jokatu zuen Artiñanok.

X. 1983, Matiko: gabarra eta funikularraren itzulera

“(…)
arenala
erroak historia proletariadoaren heriotza
santo tomasbertsolariak eta argala
chiquito de arrigorri omenaldiak
semana grande y semana santa uholdeak
lokatza eta madriles
“hermano, me prestas 10 centavos”

cada vez hay más robos
berandu da etxera noa gosaldu egin behar dut eta

bilbao gure negarra
bihar ze ordutan”

(Kepa Fernandez de Larrinoa, “Bilbao gomutan 2”, 1991)





Calle que va a Mazarredo, 1986. Mari Puri Herrero.

1983ko maiatzaren hirugarrenean, arrastiko seiak aldera, ikuskizun bitxia bistaratu zuten Artxandako funikularrera igo ziren lagunek. Txorierri eta Bilbo hurreratzen dituen funikularra bera pare bat egun lehenago berrinauguratu zuten (aurreko atal batean ikusi dugu zelan 1915ean hasi zen lehen osterak egiten), urte asko geldirik eman ostean. Horrelakoetan jazo ohi denez, jende-andana bildu zen domekako ekitaldira, Castaños alkatea eta Leizaola lehendakaria buru zirela. Haatik, askoz ugariagoa zen egun bi geroago bildutako jendetza; bai, behin Salbe zubia behean utzita aldatsa geroz eta erripagoa den leku hartatik, inoizko aldrarik handiena begiztatu zuten funikularrera igotakoek, inoizko aldrarik handiena bertatik ikus daitekeen udaletxearen eta Arriagaren arteko lur zatian: jendetza han, jendetza itsasadarraren albo banatan... eta jendetza ibaian bertan, handik begiz jo zitezkeen dozenaka eta dozenaka gabarra, potin eta txalupetan (biharamuneko egunkariak esan zutenez, 250.000 lagun elkartu ei ziren udaletxe inguruan).

Zer ari zen gertatzen baina? Zerk eragin zuen jende-mugimendu itzel hori? Hiria ikur nagusienetakoa bat zen horren guztiaren erantzule: funikularra berrinauguratu zuten domekan bertan, Athleticen Espainiako Liga irabazi zuen, Las Palmas taldeari 1-5 gailendu eta Valencia-k Real Madril-i 1-0 irabazi eta gero. Horrek Bilbon eragin zuen poz-eztanda, aipatutako moduan, ikaragarria izan zen.

Revival garaia genituen, beraz: aspalditxoan hautsak hartzen egona zen gabarra berriz martxan, Artxandako funikularra osteraren aldapan gora, abuztutik aurrera Lezamatik Bilborako trena berriro Zazpikaleetan sartuko ei zen... eta, ororen buru, Athletic berriz txapeldun.

Dena dela, orduko euforia hura ilusio optikoa zen neurri handi batean, haiek ez baitziren izan garairik onenak Bilborentzat. Zergatik ordea? Zertan zen garai hartan Botxoa? 1981eko eroldaren arabera, 433.030 bizilagunekin ekin zion hamarraldiari, baina egin kontu 1977an 450.000tik gora zeuzkala. 1980an Erandio burujabe bihurtu izanak eragin zuen biztanleriaren jaitsiera hori hein batean; biztanle-kopurua are gehiago apaldu zen 1983an, Loiu, Sondika, Derio eta Zamudiok ere Erandioren eredia jarraitu baitzuten.

1983ko maiatzaren lehenean
berrinauguratu zuten gisa honetako
ikusmirak eskaintzen dituen
Artxandako funikularra.

Argazkia:

[http://www.norbiton.com/ukdave/
bilbao/11funicular.htm](http://www.norbiton.com/ukdave/bilbao/11funicular.htm)



Ezin ahaztu, era berean, garai hartan ibaiertzean erruz ugaltu zirela pabiloi zahar erabili bakoak eta bertan behera utzitako lantegien eraikin ilunak. Krisia aurreko hamarralditik zetorren, baina 1980koaren erdialdean ezagutu zituen unerik latzenak, industriaren birmoldatzeak gogor astindu zituelako sektore estrategiko batzuk, hala nola burdingintza, altzairugintza, etxetresna elektrikoak edota ontzigintza.

Ontzigintza hizpidera ekarrita, ezin Euskalduna aipatu barik utzi: mendearekin batera sorturiko ontziola 1988an zarratu zuten; hori baino lehen, ordea (1984ko udagoienera batik bat), Deustuko zubia bertako beharginen eta polizien arteko borroka luze bezain latzen lekuko izan zen.

Horiek nahiko zoritxar ez nonbait eta 1983ko uholdeek hankaz gora jarri zuten hiriburua. Abusu, Iturrigorri-Peñascal, Atxuri, Bilbo Zaharra eta Zazpikaleak izan ziren gunerik kaltetuenetarikoak. Verdestarren Posta kaleko dendan, adibidez, kalteak nabarmenak izan ziren, horrenbestearainokoak non liburuak josteko lantegia itxi egin behar izan zuten (1906an sortutako etxe ezagun hartan, beraz, liburu-denda baino ez zen zabalik geratu).

Atalburuan paratu dugun Kepa Fernandez de Larrinoaren “Bilbao gomutan 2” olerkian ageri diren erreferentziak ez dira, hortaz, debaldekoak: uholdeak, beharginak kopetilun, eskean dabilen jendea, lapurretak, heroinaren gorakada, tristura... Egin kontu 1980an Aste Nagusia bera ere bertan behera geratu zela, Udalaren eta konpartsen arteko konponezina zela kausa.

Alabaina, 1980ko eten hori salbuespen modura ulertu beharra dago. Izan ere, bilbotarrak berezko du bizi-gogoa, berezko halaber adar-jotzerako eta parrandarako joera; horregatik hain zuzen, urte hartako arazoak gaundituta, Aste Nagusiak zintzo eutsi zion abuztueroko hitzorduari, ekonomiaren gainbehera gorabehera.

1978an abiatu zen Aste Nagusia egun ezagutzen dugun formatu arrakastatsuekin. Ordura arteko jai eredua (boxeo, *Sección Femenina*-koen dantza

erakustaldiak, zezenketak eta Espainia aldeko antzerki-konpainien emanaldiak) bazter utzita, beste tankera bateko jaiak antolatzeko gogo zegoen hirian. Ideia-lehiaketa deitu zuten asmo hori gauzatzeko eta Txomin Barullo taldea gailendu zen bertan (euren ideietako batek *konpartsa* izeneko animazio-taldean sorrera proposatu zuen, besteak beste). Saria jasota, egitasmo irabazleko ideiak praktikan jarri behar zirela aldarrikatu zuten talde horretako kideek, auzo-elkarteak lagun zituztela.

Euren presioaren ondorioz Jai Batzorde Herrikoia eratu zen estreinakoz. Eta hartan, konpartsen koordinakundeak bere webgunean dioen moduan, 1978ko udan “bi hilabete eskasean eta aurrekontu barregarri batekin” gauza handia lortu zuten: “eromenik ederrena” antolatzea. Arrakasta erabatekoa izan zen. Bilbok abuztuko egun horietan basamortu izateari utzi zion eta milaka eta milaka lagun bildu ziren Areatza eta Zazpikaleetara. Jaiaren arima eta motor ziren konpartsek, gainera, aratustek ere berreskuratu zituzten.



Aste Nagusiaren eragile nagusi dira konpartsak euren sorreraz geroztik.
Argazkia: Bilboko Konpartsak.

Hurrengo urtean, behin udal bozketen ostean udalbatza berriak eratuta, bigarren Jai Batzorde Herrikoia sortu zen. Batzorde horretan, konpartsen sei ordezkari eta gizarte taldeetako hainbat lagunez gain, zinegotzi bi egon ziren: Pedro Lopez Merino (PSOE) eta Santi Brouard (HB), hurrenez hurren. Brouard zenaren alaba Edurnek dioskunez, Aste Nagusiak euskararen gizarteratze-prozesua lagundu zuen:

“Gure aita jai batzordeko lehendakaria zen eta gogoan daukat zelan, Txomin Barullokoen proiektuak lehiaketa irabazi zuenean, epaimahaikoek besteak beste asko baloratu zuten hori, hizkuntzari ematen zitzaion garrantzia, kartelak eurak ere hizkuntza bietan zeuden (orain gauza normala da, baina ez orduan)... Argi dago Aste Nagusian eta konpartsen jardunean euskara oso presente egon dela, euskara zabaltzeko, gizarteratzeko, baliagarri izan direla jaiak, urte batzuk geroago, Athleticek Ligak irabaztean, ereserki berriaren hitzak euskaraz izatea ere oso baliagarri izan zen moduan.”

Gauza jakina da handia dela sinboloen indarra; Bilboko sinbolo nagusienetako batzuk sasoiko zeuden garai hartan (hamarraldi erdialdean, barbarako, berriro zabaldu zituen ateak Arriaga antzoki eraberrituak, burua jaso nahian zebilen hiria irudikatu gura balu modura); beste batzuk, ordea, kandela-argiaren modura, amatatuz zihoazen: hirian urte askotan euskal irakaskuntzaren ikur izan ziren Xabier Peña (1980an hil zen) eta Imanol Berriatua (1981ean zendua), besteak beste.⁹²

Alabaina, Edurne Brouardek esaniko moduan, hiriaren beste sinbolo nagusienetarik biren ikurrak euskararentzat irabazi ziren sasoi hartan: 1983an, Karmelo Bernaola zenak Antxon Zubikarainen berbei musika jarrita sortu zen *Altza gaztiak*, Athleticeen ere-



Hamarraldi hasierarekin batera zendu zen Xabier Peña, Bilbon euskararen alde makina bat behar egin eta gero.

Argazkia: AEK.

⁹² Hirian hainbat kale berri loratzen ari diren honetan, euretako pare batek mereziko lituzkete Xabier Peña eta Imanol Berriatuaren izenak, haiek egindako lan itzela eskertzeko baino ez bada ere. Egin kontu garairik zailenetan Peñak hiru hamarkada luze (1949an hasita ia-ia hil zen arte) eman zituela Bizkaiko hiriburuan helduei euskara irakasten. Horrez gain, Herri Irratira ere eroan zuen euskara, *Euskerazaleak* eta *Kili-Kili*-ko kide izan zen, lehen ikastolen sustatzaile... Imanol Berriatua, berriz, *Anaitasuna*-ren *alma mater*, euskaltegien ideia sortzaile eta alfabetatze-euskalduntzearen sustatzaile eraginkor izan zen.

serki berria,⁹³ gaur egun ere zaleek ezarriak urratu arte abesten duten berbera; 1977an, bestalde, Mari Puri Herrero bilbotar pintore eta grabatzaileak euskal izendun pertsonaia sortu zuen Aste Nagusiarentzat: *Marijaia*, Bilboko jaietako erregina (urte batzuk geroago, beste bilbotar batek, Kepa Junkerak, Edorta Jimenezen berbei musika jartzean, jaien ikur den abestia ere euskararentzat irabazi zen).

Sinboloetatik kanpainetara, kanpainetatik errealitatera

Sinboloak baliagarri dira errealitateak sortu edota sendotzeko, baina berez ez dira nahiko, ez behintzat bestelako dinamikarik ezean. Horregatik hain zuzen, dinamika berezi horiek sortu guran, euskara sustatzeko hamaika kanpaina egin zen hamarraldi horretan. 1980an, adibidez, Korrika antolatu zuen estreinakoz AEK-k, *Zuk ere esan bai euskarari* lelopean. Jose Joakin Gallastegiren arabera, ekimen horrek Bilbo izan zuen alfa eta omega:



Ramon Labaien garai hartako Jaurilaritzako Kultura sailburua 1980an Bilbon, lekukoa aldean daroala. **Argazkia:** AEK.

⁹³ Hara zer aitortu zion Zubikaraik *Deia* egunkariari: “(...) nos reunimos en Vitoria con el gerente y el relaciones públicas del club, que nos dijeron cómo tenía que ser el himno. Debía ser un entronque del equipo con el pueblo y que fuera en euskera.” *Deia*-koen arabera, “se barajaron varias alternativas, como la combinación de euskera y castellano.” Zubikaraik argitu zuen zergatik egin zen azkenean euskara hutsen: “Fue Carmelo quien precisamente puso todo el empeño para que fuera en euskera.”

“Ezin alde batera utzi, Bilbo inguruko jendeak asmatua izan zelako gainera, 1980an AEK-k martxan jarri zuen Korrika-ren lehen edizioa. Koordinakundearen garaia pasata eta funtzionamenduko aparatu homogeneoa bihurtuta, euskeraren izenean, AEKrentzat dirua batu eta propaganda egiteko tresna eraginkorra suertatu zen. (...) Hunkigarria izan zen euskeraren troparen burrunba Gran Viatik gora zetorrela entzutea, Bilbo eta Euskalherri osoa euskalduna izatearen ametsa errealtate bihurtuta, domeka eguerdi hartan sikira.”

Bilboaldekoen buruetatik sortu zen ideia eta Bilbon amaitu zen, beraz, ekimena bera ere: Oñatitik azaroaren 29an abiatuta, 1.820 kilometro egin eta gero abenduaren 7an iritsi ziren Botxora. 1981eko eta 1988ko Ibilaldia-ren ekitaldiak ere bertan egin ziren. Edurne Brouardek horiek ez ezik beste batzuk ere baditu akorduan:

“Kanpaina arrakastatsu samarrak egin ziren 1980ko hamarraldian Bilbon; adibidez, *Bateginik* hura (Euskal Herri guztian egin zen)...⁹⁴ Kanpaina eraginkorrak izan zirela deritzot. Aurrekari oso garrantzitsua zeukaten: 1979an San Mamesen eginiko *Bai Euskarari* jaialdi erraldoi eta hunkigarria. Itzela izan zen, halaber, 1980an Bilbon amaitutako Korrika: guk ez genekien zehatz zelan erantzungo zuen



Euskararen aldeko kanpaina eta jai handi ugari egin ziren Bilbon 1980ko hamarraldian.
Argazkia: AEK

⁹⁴ 1988ko martxoan hasi eta maiatzean amaitu zen *Bateginik* kanpaina, EKBk eta Ikastolen Federazioak antolatuta. Hiru ardatz nagusi zeuzkan: dirua biltzea, inguru erdaldunetan euskararen aldeko kontzientzia sortzea eta sektore euskaldunen batasuna lortzea.

jendeak, baina jakin genuenean hainbat herritan Korrikarekin batera elizetako kanpaiak jotzen zebiltzala, kostaldean ontzien sirenak zarataka... Bilbora helduera ere apoteosikoa izan zen. Nik Traukon egin nuen kilometroa, eta jendez gainezka zeto-rren tropela... Oso hunkigarria izan zen. *Bateginik* ere aipatu beharra dago. Hor geu ere ibili ginen, ikastolekin, EKBrekin eta beste batzuekin.”

Gisa horretako kanpainak egunerokotasunean eragiteko egin ohi dira. Zein zen, baina, orduko Bilboren egunerokotasuna? Zein bere argazkia? Arestian aipatu dugun 1981eko erroldak zioenez, 433.030 bizilagun zeuzkan hiriak, eta horietarik 142.576 (hiriko biztanleriaren %34) EAE eta Nafarroaz kanpo jaioak ziren.

Eta, zelakoa zen euskararen egoera orduko Bilbon? Azterketa osatuago bat aipatuko dugu geroago (Siadeco-rena), baina, hasteko, errepara diezaiogun Maitena Etxebarriak garai hartan eginiko ikerketari. Bere ikerlanaren lagina 54 informatzailek osatzen zuten; 18 Bilbo erdikoak ziren (*Abando, Diputación* eta *San Vicente* izendapenak erabili zituen berak), 24 periferiakoak (*Santiago, Atxuri, Begoña, Deusto, Estación* eta *Bilbao La Vieja*) eta gainerako 12ak *Gran Bilbao* kategorian sartu zituen (*Erandio, Zorroza, Hospital* eta *Valle de Asua*).

Tira, kontua da 54 pertsonako unibertso horretatik 18 baino ez zirela euskaldunak. Oso aintzat hartzeko beste datu bat: euretatik 6 periferiakoak ziren eta beste 12ak *Gran Bilbao*-koak (hiriko gune neuralgiko nagusi zen erdialdean elkarriketaturikoen artean ez zen euskaldunik). Horrez gain, maila sozioekonomiko ertaina/apala (9 lagun) edo ertaina (6) zeukaten euskaldun gehienek (3k baino ez maila ekonomiko altua). Azken datu esanguratsu bat: 18 lagun horiek, denak ziren euskaldun zaharrak (euretako 14, gainera, 40 urtez gorakoak).

Jose Llerandi garai hartan *Anaitasuna*-n eta gero EHEn ibilitako lagunari 1970eko hamarraldiko kale-giroa eta 1980koa alderatzeko eskatu diogu:

“Giroa oso bestelakoa zen, imajinatu ere ezin duzu egin. Gaur egun euskararen inguruan Bilbon dinamika ikusten duzu, euskaltzale asko dago, euskara entzuten da kalean... 1970eko hamarraldian, ordea, euskara Bilbon mohikanoen kontua zen (Camara zaharra, Berriatua, Irigoien, Aresti... horiek benetako estralurtarrak ziren hirian), gauza ezerosoa zen gainera. Gaur egun, aldiz, euskara diru-bidea da, hainbat lagunek euskarari esker dihardugu beharrean, baina orduan euskara problema baino ez zen, errepresio-iturri ez zenean (edozer gauza antolatzeke alkatearen, Poliziaren, *Información y Turismo*-koen eta Gobernazioko baimenak behar zenituen; Eliza zegoen hor, babesa ematen, eta ez zegoen besterik). Orduko Bilboko giro aurrerakoi eta moderno ez zen batere euskaltzalea. Gau-giroan eta ia ez zen euskararik entzun ere egiten. Lekeitiarrek eta bermeotarrek-eta, herrietakoek, egiten zuten, baina hortik aurrera... 1980ko hamarraldian, aldiz, ofizialtasunarekin, gauzak asko aldatu ziren, euskara diru-bide bihurtu zelako asko eta askorentzat, orduan euskaltzaletu ziren asko: zabaltze handia egon zen, hainbat idazle, itzultzaile, irakasle... agertu ziren bat-batean. Askok aurreratu da: gero eta gune euskaldun gehiago dago eta gaur egun Bilbon euskaldun izatea ez da mohikano izatearen pareko. Erabilera aldetik oraindik asko falta da, baina...”

Anaitasuna-ren nahi eta ezina

Jose Llerandi *Anaitasuna*-ko idazkuntza kontseiluan ageri zen 1980an, M. Aldana, J. Agirreazkuenaga, A. Eguzkitza, M. Izagirre, J. Sarrionandia, T. Trifol, I. Urtasun eta I. Zabaletarekin batera. Koordinatzaile modura, berriz, Jose Ramon Etxebarriaren izena zetorren (berak esan digunez, beste hainbat sinadura ere erabiltzen zituen; gehienek egiten ei zuten hori, batik bat Xabier Kintanak 1970eko hamarraldian); publizitatearen eta harpidetzen ardurapean, azkenik, Jon Idigoras zebilen oraindik. Zabalbide 69an jarraitzen zuen hamaboskariak.

Kolaboratzaileen zerrendan, bestalde, X. Kintana, J. Azurmendi, Paulo Agirrebaltzategi, J.J. Bakedano, J. R. Bilbao eta Txillardegiren izenak ikus zitezkeen (ohar bedi irakurlea 1979ko kolaboratzaile batzuk ez direla ageri 80ko zerrendan: Bernardo Atxaga, Ruper Ordorika, Natxo de Felipe edota Xabier Gereño, besteak beste).

Idazkuntza kontseiluan agertu arren, Jose Llerandik ere 1980an utzi zuen kazeta, “hura bideragarria ez zela” ikusita: “Eta ez zen bideragarria, ez harpidedunik ez zegoelako, ganora handirik ez zegoelako baino. Barne-eraketa ez zen batere egokia, eta etsigarria zen hura ikustea eta beti Sisifo harriarekin modura ibili behar izatea.”

1980 amaieran, harpidedun bakoitzari beste harpidedun bat lortzeko deia egin zion aldizkariak, hori eginez gero diru-arazoak konponduko liratekeela argudiatuta. Urte hondarrean (Tomas Trifol ageri zen ordurako koordinatzaile modura) *Prentsa euskaraz* kanpaina burutu zuen, *Argia*, *Saski-Naski*, *Herria* eta *Jakin*-ekin batera, *Euskal prentsa barik ezta Euskal Herririk* lelopean. Garai hartako ia milioi bat pezeta bildu zituzten Bilbon; *Anaitasuna*-k, horrez gain, 300 harpidedun inguru lortu zituen.

Ez ziren nahiko izan, ordea, lehendik zetozen arazoak konpontzeko. 1981 hasieran aldizkaria hilabetekari bihurtuko zutela iragarri zuten editorialean (ordurako *de facto* hala zen jada). Urte hondarrerako, lan taldea aldatu zuten.⁹⁵ Jende gaztea sartu zen, haize berria ekarri guran. Azken erredakzio-kontseilua lagun hauek osatu zuten: I. Antiguada, J. I. Basterretxea, J. R. Bilbao, J. R. Egiluz, J. R. Etxebarria, J. M. Pastor eta I. Saez (handik lasterrera K. Landa eta L. Mintegi ere sartu ziren lan taldean).

⁹⁵ Orduan hil zen Imanol Berriatua ere. Dena dela, hura ordurako kazetatik erretiratuta zegoela diosku Jose Ramon Etxebarriak: “Iker taldeak aldizkaria bere gain hartu zuenerako Imanol Berriatua erretiratuta zegoen *Anaitasuna*-tik. Berak ardura hori utzi eta gero, Kintana eta Llerandi-eta ibili ziren zuzentzaile. Hala ere, gogoratzen dut zelán orduan ni zezen-plazaren aldamenean bizi nintzen eta, Berriatuaren komentua lralabarrin zegoenez, artikulua idatzi eta bisitan joaten nintzaion; akordioa lortu nuen berarekin: artikulua nire aurrean zuzentzen zituen, eta modu horretan nik ikasi egiten nuen. Elkano kalean zegoen Mocedades kafetegira joaten ginen; berari ikaragarri gustatzen zitzaion kafea, eta baita purua erretzea ere. Kafe-kopak neure kontura izaten ziren, beraz, eta purua ere eroaten nion. Berak, berriz, artikulua irakurri eta bere oharra egiten zizkidan. Elkarrekin kafea hartzeko aitzakia bihurtu zen hori.”

Gogoa bai handia gazte haiena, baina, zorra zorraren gainean, astuna zen jaso zuten ondarea: 1982an hiru zenbaki baino ezin izan zituzten atera: otsailekoa, martxokoa eta apirilekoa. Azken horren ostean (419.a) ez zen *Anaitasuna*-ren zenbaki gehiagorik kaleratu. Jose Ramon Etxebarriari galdetu diogu ea zerk eragin zuen kazetaren heriotza:

“Arrazoi txiki asko batu ziren: bai *Argia*, bai *Anaitasuna*, harpidedunek eusten zuten, baina hor aldaketa soziala egon zen: lehengo abonatuak euskaltzaleak ziren eta ez zioten horrenbesteko garrantzirik ematen kazetari-ikuspegiari eta lehiari. Gu geu ere, erredakzio-kontseiluko asko, ez ginen kazetariak, euskaltzaleak baizik. Garai berriekin, aldiz... Harpidedun zahar askok aldizkaria jasotzen segitzen zuen ordaindu ez arren, kobrantzak egiteko arazo handiak egon ziren... Gero, politika ere tartean sartu zen eta aldizkari bakoitza ideia politiko batzuekin identifikatzen hasi ziren. Kazeta elebidunen eztaidak ere ez zigun batere lagundu (gutaz aparte beste ezer ez izatetik beste aukera batzuk izatera pasa zen gizartea). Horrez gain, ez dut esango geuk ere errurik izan ez genuenik: beharbada ez genuen kazeta behar zen bezala kudeatu. Faktore horien batura tarteko, egoera oso txarra etorri zen: zulo ekonomikoa gero eta handiagoa zen. Ezin zen horrela ibili eta azkenean bertan behera utzi genuen ordura arteko ibilbidea. Dena dela, Laura Mintegi, Antton Azkargorta, Karmelo Landa eta beste batzuek *Argia*-koekin harreman ona zeukatenez, Bilbotik haientzat lanean segi zuten.”

Batzuk joan... eta besteak etorri, ezen *Anaitasuna* hiltzorian zela jaio baitzen Bilbon *Aizu!*, 1981eko abenduan. Oinarrizko euskarazko aldizkaria zen hura,



Bilbon sortu zuten *Aizu!* kazeta AEKren aldizkari bihurtu zen gerora. **Iturria:** *Aizu!*

hizkuntza ikasten edota alfabetatzen ari zirenei begira eginikoa. Comandante Velarde kaleko (egungo Mitxel Labegerie, Plaza Barriaren sarreretako bat) bigarrenean zeukaten egoitza eta zinez talde zabala osatzen zuten: Alberto Ugarte, Idoia Santurtun, Tito Mardones, Arantza Etxebarrieta, Miren Marcos, Alberto Angoitia, Sara Barandiaran, Esther Zarandona, Ibernalo Otsoa, Jabi Ubierna, Erramun Landa, Amaia Montorio, Jule Garmendia eta Amaia Fuldain (horiez gain, Maite Zarandona eta Angel Martinez ere ageri ziren zerrendan, kolaboratzaile modura).⁹⁶

Ikasle-jendea zen hura (esan dezagun, bide batez, 1981az geroztik Bilboko Unibertsitate Publikoa egungo EHUn antzaldatu zela) eta modu erabat amateurrean kudeatzen zuen aldizkaria. 1983ko azaroko zenbakian, dena dela, AEKrekin bat egin zutela iragarri zuten, *Aizu!* aurrerantzean Koordinakundeak aterako zuela argituta.

Nola *Aizu!*-ren hala AEK-ren adierazpide nagusia euskara batua zen. Haatik, bizkaieraren aldekoen garrak artean bizi-bizirik zirauen: horren lekuko, *Aizu!* jaio zen 1981 hartan bertan Labayru-koek *Idatz&Mintz* literatur aldizkaria plazaratu izana (1987an, berri, *Euskerazaintza* hiruhilabetekaria ateratzeari ekin zion izen bereko erakundeak).

Labayru ikastetxeak eta Derioko irakasle eskolak, gainera, mailakako irakaskuntza proposatu zuten 1985eko liburuxka batean. Zein zen horren oinarria? Umeak dakienetik abiatzea irakaskuntza-prozesua. Haien ustez, bakoitzaren hizkera garatu ondoren, hizkera horrek beste bateranzko zubi lanak egingo lituzke. Horrek etxeko edo herri hizkerari behar duen garrantzia emango lioke eta beste hizkerak (batua, adibidez) ikasteko biderik ere bai. Bilbon Kirikiño eta Begoñazpi ikastolak izan ziren 1980ko hamarraldian irizpide horien jarraitzaile nagusiak.



1981ean jaiota, bide luzea eginga du egoitza Bilbon daukan *Idatz&Mintz*-ek.

Maskarada: euskara hutsaren profesionalak

Maskarada antzerki taldekoak, hasieran behinik behin, ez ziren ez batuaz ez bizkaieraz mintzo, gaztelaniaz baizik. Eta, hala ere, Bilbon 1980an sortutako talde horrek helburu argia zeukan: euskaraz egindako antzerkia duindu eta profesionalizatzea. Ordurako beste erreferentzia nagusi bik arrasto sakona utzia zuten Bilboko antzerki independentean (taldeotako partaideak nagusiki erdaldunak ziren): Cómicos de la Legua eta Akelarre-k, hain zuzen. “Azken horiek”, diosku Imanol Agirrek, “erdaldunak ziren (Luis Iturri zen buruetako bat), baina argi zeu-

⁹⁶ Eurretako batzuk Arte Ederrak ikasitakoak ziren, eta, Jose Llerandik esan digunez, hainbat azal eta lan egin zituzten *Anaitasuna*-rako.

katen euskarari lekua egin behar ziotela”; eta, Agirrek esan digunaren arabera, sartu, sartu zuten euskara euren obretan, baina modu sinboliko samarrean baino ez:

“Euskal antzerkia aldarrikatzen zuten, euskal estetika propio batekin eginikoa (1970eko hamarraldi amaierako *Irrintzi* edo *Gerra ez*⁹⁷ obrak dira esanikoaren adierazgarri). Cómicos de la Legua-koak, aldiz, koherenteagoak izan ziren. Gaztelaniaz hasi ziren eta apurka-apurka euskarak gero eta presentzia nabarmenagoa bereganatu zuen euren antzezlanetan.”

2 Cómicos de la Legua-Kilikilariak taldea 1970eko hamarraldi hasieran sortu zen Bilbon. Talde handia zen, antzerki eskola eta guzti. Hasieran denak erdaldunak ziren, baina garrantzi handia ematen zieten nola euskararu hala euskal gaiei. Hirian Bernardo Atxagarekin topo egin zuten eta hark hainbat lanetan lagundu zien. Aktore gehienak erdaldunak izanik, zelan moldatzen ziren obra elebidunak antzezteko? Agirrek dioskunez, “testuak, edo grabatuta ematen zituzten, edo buruz ikasten zituzten; kontua da euskarak geroz eta presentzia nabarmenagoa zeukala euren lanetan.”



Maskaradan ibilitako lagunak, sagardotegian. **Argazkia:** Maskarada.

⁹⁷ *Irrintzi* izan zen, Agirreren arabera, lanik aipagarriena; bertan, bere ustez, “euskal antzerkiaren estetikaren bila abiatu ziren, baina euskarak obran zeukan presentzia sinbolikoa zen, testimoniala. Euskal esentziaren bila ibili arren, euren sormena erdal mundutik zetorren; *Gerra ez*-en ere erabili zuten euskara, oso modu kaskarrean.”

Hori zela eta, aktore euskaldunak bilatzeari ekin zioten, eta Iñaki Basabe, Marife Berrojalbiz eta Loli Astorekarekin egin zuten topo Durangaldean (hirurak antzerki munduan sartzeko prest, baina hirurak alfabetatu bakoak). Behin lagun horiek taldean sartuta, azken antzezlan handia (*Prakaman*) euskara hutsez eman zuten. Obra horren ostean, oso testu gutxi zeukan beste lan bat ere prestatu zuten (*Makina beltza*), kalean antzeztekoa, baina ondoren sekulako eztabaida piztu zen taldearen baitan. Bat bitan beharrean (bazterrotan hain ohikoa den moduan), hirutan zatitu zen taldea. Imanol Agirrek azaldu digunaren arabera,

“Nekearen eraginez hiru lerro sortu ziren:

1. Maskarada taldea. Iñaki Basabe, Karlos Panera eta Marife Berrojalbiz; xedea: euskara hutsez eginiko antzerki profesionala burutzea.

2. Karraka taldea: Ramon Barea, Alex Angulo eta beste asko (Comicos-en zegoen antzerki eskola barne); xedea: antzerkia egitea; konpromiso bakarra: artearekin (denborarekin aldatu egin ziren, eta baita konpromiso politikoei heldu ere).

3. Txomin Barullo konpartsarekin loturik (Bilboko jaien hasiera garaiak ziren) Santiago Burutxaga eta EMK Zirkus (talde politiko horrekin konprometituta zegoen)⁹⁸ esperientzia parateatrala.”

Maskaradan, beraz, hiru lagun izan ziren hasieran (1980an); Imanol Agirrek esan digunez, Karlos Panera izan zen benetako motorra: “Bera zen Maskaradaren burua, suspertzailea eta ildo artistikoaren zuzendaria (orain arteko antzezlan guztiak, adibidez, berak zuzendu ditu). Hasierako kideek, bestalde, Santiago Burutxagaren laguntza ere izan zuten aurreneko pauso horietan,

“Eta noiz sartu zen Agirre bera taldean? Ondo gogoan dauka hori Imanolek: “Maskarada sendotzeko asmoz, 1980ko udazkenean antzerki ikastaroa antolatu zuten Iturrubideko eskoletan (Panera eta Berrojalbiz izan ziren irakasleak); bide horretatik hainbat antzerkizale sartu ginen taldean.” Udagoienera ikastaroa eginda, beraz, buru-belarri sartu zen taldean. Umeentzako obra bi izan ziren Maskaradaren lehen lanak (*Jimmy Pottolo eta zapataria* eta *Logalea zeukan ekilibristaren kasua*), Biak eskaini zituzten aldi berean (ekilibristarenak arrakasta handiagoa izan zuen), eta biek zeukaten egile berbera: Bernardo Atxaga. Agirrek dioskunez, “Maskaradaren lehenengo sei urteetan ere argi eta garbi ikusten da Atxagaren eskua: dela bere testuak moldatu genituelako, dela erdarazko testua bidaltzen geniolako berak itzul ziezagun.”

Laster aipatuko ditugu Atxagaren itzulpen horien fruituetako batzuk. Esan dezagun, oraingoz, Atxagarekin ez ezik euskal kulturgintzan eragin nabarmena izan duten beste sortzaile batzuekin ere harremanetan zeudela Maskaradakoak. *Jimmy Pottolo*-rako musika, barbarako, Juan Carlos Perezek sortu zuen; era

⁹⁸ Egin kontu Burutxaga Bilboko alkatetzara aurkeztu zela alderdi horrekin, *Burdinezko Gizona* izenpean.



Euskal inauterien estetika zeukan oinarrian *Pantzart* obrak. **Argazkia:** Maskarada.

berean, furgoneta bat behar zutela eta, Ruper Ordorikari erosi zioten (hark *Nire furgoi beltza* kantua eskaini zion gero saldutako ibilgailuari).

Garai hartakoa da, bestalde, *Pantzart* obra ere. Hara zelan oroitzen duen Agirrek:

“Aurreko udazkeneko ikastaroaren ostean, 1981eko udan kale antzerkia egiten ari nintzen Maskaradarekin. *Pantzart* izeneko obran euskal inauterien estetika landu genuen: txatxoak, joaldunak, perratzaileak, Miel Otxin, txirula... Euskaldun askorentzako berria zen magia handiko mundu hori. Euskal antzerkiaren aldeko apustu itzela izan zen hura, eta sekulako arrakasta izan genuen Sitgesen (Katalunia).”

Nola *Logalea* zeukan *ekilibristaren kasua* eta *Jimmy Pottolo eta zapataria* hala *Pantzart* kalejira Bilboko hainbat bazterretan antzeztu zituzten, eta baita 1982ko *Danbor magikoa* ere:

“Lehenengo lanak umeentzako ziren eta ez genuen oihartzun handirik izan. Hala ere, Bilbon bertan emanaldi pila eman genuen. *Danbor magikoa*, adibidez, Bilboko I. Nazioarteko Txotxongilo jaialdian estreinatu genuen, eta gero Indautxuko El Carmen-en, Boluetan, Txurdinagan, Basurtun, Deustun eta beste hainbat bazterretan ere izan ginen.”

Boluetan egiten zituzten entseguak, Paneraren anaia bati alokatutako lokal batean. 1983an *Tira jira bira* kalejira egin eta gero, urte horretan bertan nagusientzako antzerkia egiten hastea deliberatu zuten. Dario Foren aldeko apustua egin zuten, modako autorea zelako eta gustuko zutelako haren testuen gizarte kritika. Panerak *Pistolaren begi zuri-beltzak* obra Bartzelonan ikusia zeukan. Testua eta Foren baimena eskuratu eta gero (italiarrari ilusio handia egin ei zion bere lan bat euskaraz antzeztuko zela jakiteak), erabaki potoloa hartu zuten: hura izango zen Euskal Herrian modu profesionalean euskara hutsez egingo zen lehenengo obra. Hasiera garai hartan lau ziren taldeko kide profesionalak: Carlos Panera, Marife Berrojalbiz, Kepa Parra (hau ere Iturribideko antzerki ikastarotik heldutakoa) eta Imanol Agirre bera. Azken honek ondo gomutan ditu sasoi haiek:

“Boluetan entseatu genuen (eta ez baldintzarik egokienetan, ez horixe). Lan hori egiten laguntzeko adiskide batzuk ekarri nituen taldera: Patxo Telleria txikitako laguna (Pedagogia ikasten ari zen baina ez zuen pedagogo izan gura) eta Mikel Martinez (Irakasle Eskolako maisua zen, eta ni bertako ikaslea), adibidez; Aitor Mazo ere gurekin zebilen ordurako.⁹⁹ Beste lagun batek Pello Gutierrez eta Pepelu Fernandez ekarri zituen Errekaldeko mugidatik.¹⁰⁰ 8-10 pertsona elkartu ginen denetara, denak euskaldun berriak¹⁰¹ eta antzerkian ia esperientziarik ez geneukanak.¹⁰² Batez ere aktoreak ginen, baina denetarik egin behar genuen: eszenografia diseinatu, zamalanak egin... Foren lanaren itzulpena Jon Aurrek egin zuen (euskara irakaslea zen eta ez zeukan ezelako loturarik antzerkiarekin guk deitu genion arte). Justu-justuan heldu ginen estreinaldira, azken orduan gau-pasa batzuk egin da. Estreinaldia Campos Eliseosen izan zen, 1984an. Antzokia goraino zegoen, sekulako arrakasta izan zen. Itzelezko oihartzuna izan zuen euskal munduan, euskaraz ez baitzegoen beste proposamenik helduentzat. Bilbon ere euskaldunok gisa horretako jakien gose ginen.”

Arrakasta hark animatuta, beste egitasmo batzuei ekin zieten:

⁹⁹ Aitor Mazo Santutxuko Iluna irrati librean ezagutu zuten. Izan ere, Maskaradako batzuek (Pello Gutierrez, Mikel Martinez, Imanol Agirre bera...) euskal kulturari buruzko irratsaioa egiten baitzuten bertan, euskaraz. Gainera, Boluetako lokala ez zegoen irratitik urrun (Santutxun, Basarrate ondoan).

¹⁰⁰ Gutierrez eta Fernandez HABEren Hondarribiko barnetegi batean ezagutu zituen Panerak, 1981ean bertara joan baitzen bere euskara maila hobetzeko asmoz. Orotara sei hilabete eman zituen bertan (baina hori bai, taldeak emanaldiren bat zeukan bakoitzean bera ere joaten zen antzeztera).

¹⁰¹ Agirrek dioskunez, hasiera batean gaztelania zuten komunikazio-hizkuntza: “Bitxia zen: antzerki profesionala euskaraz egiteko erabakia hartua geneukan eta barruan erdaraz egiten genuen. Ni orduan ari nintzen ikasten, prozesuan nengoen; bilbotarrak ginen ia denak, eta ia denak euskaldun berriak (Carlos, Santiago, Kepa, Mikel, Patxo, Peio, Pepelu eta ni). Gure euskara halamoduzkoa zen, batzuk justu-justu ziren berba egiteko gauza.” Horregatik hain zuzen, meritu bikoitza dauka egin zuten lanak.

¹⁰² Emakumezko aktoreak behar zituztela eta, Aitzpea Goenaga eta Marta Galparsoro fitxatu zituzten Gipuzkoan (Bizkaian alferrik bila ibili eta gero). Horrez gain, Marian Arruti ere Oiartzundik Bilbora joan zen bizitzera; emakume hori arduratu zen hurrengo hamarkada luzean taldearen administrazioaz eta produkzioaz.



Pistolaren begi zuri-beltzak obran parte hartu zuen aktore-taldea. Argazkia: Maskarada

“Oso pobreak ginen, ez geneukan diru laguntzarik eta baliabiderik ere ez ia, nahiz eta Euskal Herriko euskarazko antzerki profesional bakarra gurea izan (horrela azpimarratzen genuen gainera). Oso ondo gogoratzen dut zelan Bilbon, Goienkaleko kafetegi batean, Panerak itaundu zuen: “Ausartzen gara *Gastibeltzaren karabinak* egiten?” Eta baietz erantzun genion, nahiz eta ez geneukan ez dirurik ez ezer.

Hala ere, proiektu handi hura gauzatzen ausartu ginen: hamar akt ore (lan honetarako aktore gehiago behar genuenez, berriro ere Gipuzkoara begira jarri ginen, handik ekarri baikenituen Inaxio Tolosa, Mitxel Gorrotxategi eta Lurdes Yarzaga), eszenografia handia, aparatu mordoa... *Gastibeltzaren karabinak* 1985eko abuztuan estreinatu genuen Lekeition eta sekulakoa izan zen arrakasta. Handik gutxira Bilbon eskaini genuen, apur bat moldatuta. Hemen ere sekulako arrakasta.”

Lan horren estreinako testuak (Marc Legasseren nobelatik moldaturik) erdaraz sortu ziren (Santiago Burutxaga arduratu zen horretaz). Bernardo Atxaga izan zen hasierako lana euskaratu eta txukundu zuena. Musika eta kantuek, berriz, Oskorrirenak ziren. Anekdota modura, zera aipatu digu Agirrek:

“Lan honi begira, euskarazko gure ahoskera hobetzea erabaki genuen (ordura arte hainbat kritika jaso baikenuen, Gipuzkoan batez ere). Horretarako, Mikel An-



Gastibeltzaren karabinak lanean parte hartu zutenei ez zitzaien umorerik falta.
Argazkia: Maskarada.

tza kontratatu genuen (garai horretan Susa bandan zebilen, antzerkiarekin eta literaturarekin buru-belarri), gure ahoskera zuzentzeko. Bilbora etorri behar zuen lehenengo egunean Martutenera joan zen, Sarri eta Pikabearekin ihes egiteko.”

Datu bat, lan honen garrantziaz jabetze aldera: *Gastibeltzaren Karabinak* da Euskal Herriko zazpi herrialdeetan antzezturiko aurreneko lan profesionala. Arrakasta, esandako moduan, handia izan zen. Hala ere, Hala ere, Agirrek oroitzen duenez, ez zuten Jaurlaritzaren diru laguntzarik jaso eta Bilboko Udalak ere ez zien jaramonik egin. Kinka horretan, bistan denez, ez zen erraza aurrera egi-tea. Eta hartan, 1986an eztabaida sortu talde barruan:

“*Harrizko Aresti hau* ere egina genuen ordurako (hura izan zen nire ustez gure gailurra: Oskorrikoen eta Atxagaren laguntza, muntaketa itzela...).¹⁰³ Ez geneukan

¹⁰³ Obra hori 1986an estreinatu zuten Bilboko Ayala antzokian. Patxo Telleria (Mikel Martinezen laguntzarekin) arduratu zen Arestiren testuak moldatzeaz. Agirrek kontatu digunez, garai horretan Bolue-tako lokala utzi eta Zurbarango zinema zahar bat alokatu zuten: “Tamalez, taldearen ekonomiak porrot egin zuen eta eliza kristau batek erosi zuen Zurbarango zinema zaharra. Maskarada, beraz, kalean gera-tu zen eta Bilboko suhiltzaileen egoitza zahar abandonatua *okupatu* zuen (eskuraturiko baimena halamo-duzkoa zen), Bilbo erdian, Albiatik oso hurbil.”

laguntzarik, erakundeek ez ziguten jaramonik egiten kristoren muntaketak egin arren, dirutzak inbertitzen genituen eta ahal genuen moduan bizi ginen. Hasieran, umeentzako antzerkia egiten, hobeto ibiltzen ginen, soldata geneukan... Euskarazko antzerkia duintzea izan zen gure asmoa, eta lortu genuen. Obra txikien garaira bueltatzea hobe zela begitantzen zitzaidan eta hala planteatu nuen, bestela ez zegelako egitura profesionalari eusterik. Besteek, ordea, beste obra handi bat egitea hobetsi zuten (*Gernika 16:30 BSO*). Orduan utzi nuen nik taldea. Oso obra on eta handia egin zuten, pilotalekuetan-eta antzeztekoa, Edorta Jimenezek idatzi zituen testuak, Kataluniatik argizatzaile bat ekarri zuten, jantziak Alemaniatik... 1987an estreinatu zuten, Gernikan. Horren ostean, ordea, krisia etorri zen: zorrak, taldea ia desegin egin zen... Ezin izan zioten egitura profesionalari eutsi. Hurrengo obrak hiru aktorekoak-eta izan ziren, muntaketa txikiagoak,¹⁰⁴ eta, geroago (1990eko hamarraldian), hurrengo pausoa etorri zen: obrak erdaraz ere ekoizten hastea (*Ernesto izatearen garrantzia*-rekin eman zuten urrats hori, 1994an). Ordura arteko espiritu guztia apurtu zen orduan, euskara izan baitzen ordura arte taldearen nortasun-ikur nagusia, eta euskarazko antzerki profesionala egitea helburua.”



Agirreren arabera, *Gernika 16:30 BSO* lana mugarri izan zen taldearen ibilbidean.
Argazkia: Maskarada.

¹⁰⁴ Horietako bat, Mikel Martinezek antzezturiko *Kontrabajua*, euskaraz gehien antzezturiko obra da (350 emanaldi). 1989an estreinatu zuten, Txomin Barullo tabernan.

Santutxuko bertsolari fabrika

Ez da antzerki hutsa, argi dago, baina bertsolaritzak ere badu antzerkitik zer edo zer. Garai hartan Santutxun susperraldi handia izan zuen adierazpide horrek. Jose Ramon Etxebarriak zerikusi handia izan zuen susperraldi horretan:

“Santutxun bizi nintzenez, urtero ikastaro bat ematen nuen gau-eskoletan: alfa-betatzea hasieran, eta Euskaltzaindiaren B eta D tituluak ateratzekoa gero (oso jende gutxi zeukan B titulua). Bazegoen ordea Santutxun jende-klase bat euskara ondo zekiena, titulurik behar ez zuena edo bazeukana, eta hala ere ikasten segi nahi zuena. Zer egin horiekin? Idazten, kanta zaharrak ikasten eta horrela hasi ginen. Beti gauza berriren bat asmatzen ibili behar izaten nuen haiekin. Lekuona, Valverde eta Letek-eta garai hartan oso disko politak atera zituzten antzinako bertso zaharrek: Txiritarenak, Xenpelarrenak, Bilintxenak... Erosi egiten nituen eta klasera erori; han, entzun eta aztertu egiten genituen.”

Etxebarria ikasleak bertsoazletzen zebilela, Euskaltzaindiak Bertsolari Txapelketa antolatu zuen (1980ko Errege egunean jokatu zen finala):

“Hamasei bertsolari famatu gonbidatu zituzten, Amuriza tartean zela, eta bera-ekin batera *Big Bang*-a etorri zen, hankaz gora jarri baitzuen ordura arteko guztia. Askok hura onartu ez zuen arren, gu liluratu egin gintuen Amurizaren bideak. Santutxun hilean behin afari bat antolatzeari ekin genion garai hartan. Lehen afaria La Gernikesa-n izan zen, Atxurin, Amuriza eta Lopategirekin. Ikastaroa ematea proposatu genion Amurizari. Lortu genituen hamar lagun inguru (Jon Aurre, Koldo Tapia, Iñaki Lasa Garin, Jose Ramon Bilbao, Iñaki Antiguedad eta ni neu, besteak beste) eta gaur egun Euskal Museoa dagoen lokalaren txoko batean (uste dut Euskaltzaindiaren bidez lortu genuela) ikastaroa eman zigun Amurizak. Gero, gure ikastarorako erabilitako oharra txukunduta, *Hitzaren kirol nazionala* liburua atera zuen. Hori eta errima hiztegia-eta, hori guztia gurekin esperimentatu zuen Amurizak. Berak eginda zeuzkan, baina guri eman zigun ikastaroa. Hantxe ikasi genuen zer den neurria, zer etena, zer errima... Urtebete eman genuen horretan. Eta zelan ni Santutxun euskara-eskolak ematen nenbilen, gauzak nahastu egin nituen eta bertso-eskolak ematen hasi nintzen Amurizari ikasitakoan oinarrituta. Aurten [2005] betetzen dira 25 urte Santutxuko bertso-eskola sortu zela. Ikastola lokal modura hartuta hasi ginen. Hasieran, ehun bat doinu edo sailkatu genituen (zortziko nagusiak, zortziko txikiak, klase guztietakoak) eta buruz ikasi; teknika ikasi genuen gero, eta ondoren kantuan hastea etorri zen.”

Ez hori bakarrik: 1982an koska bat gehiago estutu eta Euskal Herriko txapelketara aurkeztu ziren:

“Astean behin biltzen ginen, ostegunetan, hamar lagun inguru beti. Santutxuko ikastolan batu eta klasea amaituta Etxaniz tabernara (Menendez y Pelayo aldapa erdian) joaten ginen. Pintxoak eta ardoa eskatu eta han ibiltzen ginen berbetan eta kantuan. Lehenengo urtea oso esperimentalak izan zen; 1982ko Euskal Herriko bertsolari txapelketarako, ordea, bertso eskolakook ikastaro bat osorik emana geneu-



1980ko hamarraldi hasieran Xabier Amurizak hankaz gora jarri zuen bertso mundua. **Argazkia:** Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka.

kan. Eztabaida handia zegoen orduan, bertsolaria jaio ala egin egiten ote den; guk esaten genuen jaio bai, jaiotzen dela, baina batez ere egin egiten dela. Hori frogatzeko, 1982ko txapelketara Santutxuko eskolako hamar lagun aurkeztu ginen. 50 lagunetik gora aurkeztuko ginen guztira. Santutxuko eskolako hiru lagunek lehen kanporaketa gainditu genuen: Koldo Tapiak, Iñaki Lasa Garinek eta nik neuk. Itzela izan zen. Gero saltsa etorri zen: Euskaltzaindiak hasiera batean 12 sailkatuko zirela esan zuen, baina gero, bigarren kanporaketan sei baino ez zituzten aukeratu (gero bertsolariak haserretu egin ziren eta Euskaltzaindiak ez zuen txapelketa gehiagorik antolatu): Lizaso, Murua... Goi mailako jendea. Hasieran esandako moduan 12 pasatu izan balira, beharbada gutariko bat ere finalerdietara sailkatzeko moduan egongo zatekeen. Zalantza hori geratu zaigu. Hala ere, poz-pozik geratu ginen, maila itzela eman genuelako; eta hori, bertso eskolan pare bat urte eman da.”

Esperientzia hark are gehiago animatuta, osteguneroko klaseekin segitu zuten: “Iturriaga kalean Herriko Taberna sortu zutenean, hara hasi ginen joaten klase ostean; han egiten genuen askari-afaria eta kantuan ibiltzen ginen.” 1986ko Txapelketa Nagusira ere aurkeztu ziren; hura herrialdeka egin zen, eta Etxebarria Bizkaiko ordezkari modura sailkatu zen: “Gure taldeak oso paper ona egin zuen eta azken-azkenean, finalerdietan bota gintuzten atzera.”

Hala ere, urtebete geroago bertso eskola utzi zuen berak, HBko Mahai Nazionalerako hautatu zutelako. “Gehiegi zen,” diosku, “ezin nituen egin bi gauza batera.” Izan ere, ordura arte berak jardun zuen beti irakasle modura: “Jose Ramon Bilbao hartu zuen nire lekukoa. Gure helburua, dena dela, ez zen bertsolariak sortzea, bertsozaleatasuna sustatzea baino. Hori dela-eta, bertso-ekitaldiak antolatzen

ere hasi ginen bigarren fase batean, Udalarekin eta BBKrekin elkarlanean.” Bertso eskolak, bistan denez, Santutxun sustraiak eginda zeuzkan ordurako.

Xabier Gereño eta euskaldunen afariak

Xabier Gereño ez da geldirik egoteko jaioa. CINSArekin ibilbidea amaitu zenean ere, ikusi dugu zelan ibili zen *Bai Euskarari* jaialdia koordinatzen. Ez zuen bere jarduna horretara mugatu ordea, Bilboko euskaldunen afariak antolatzeari ere ekin baitzion. Xabier Kintanak ondo gogoan ditu afariok. Berak oroitzen duenez, “Albia eraikinean egin ziren batzuk; ekimen polita zen, baina ghetto usaina ere bazeukan apur bat. Euskaldun berri asko joan ohi zen afariotara, han euskaraz praktikatzeko modua zeukaten-eta (orduko Bilbon ez zen gauza erraza). Lagun askotxo bildu ohi ginen.” Jose Joakin Gallastegik, berriz, Gereñok afariok antolatzen eginiko lan eskerga azpimarratzen du:

“Bilbon 80ko hamarkadan barna euskerarako guneak irabazi nahian Euskaldunen Afariak bataiatu zituen hilean behineko haiek ditut gogoan. Hilabetero liburu denda, egunkari eta irratietatik banan-banan propaganda banatzen; hilabetero aktualitateko hizlari diferentea bilatzen, hilabetero jatetxekoekin tratua egiten, hilabetero hara eta hona. Ia 50 afari antolatu zituen, bost urte guztira; denok zoriontzen genuen ideiatatik baina lehen afarian bezala azkenean ere Xabier izan zen antolamenduaren kontu guztietaz arduratu zen militante bakartia. Etsi behar izan zuen azkenean, Udalak ematen zituen subentzioen desorekaren biktima, urterik urte dirua galtzen zuelako.”

Hara zelan azaltzen dituen Gereñok berak ekimen horri buruzko kontuak:

“(…) Bilboko euskaldunok, asko izanik, ez dugu elkarren berririk, esparru zabal batean sakabanaturik bizi garelako. Beraz, ekintza berezi bat asmatu behar zela pentsatu nuen, ahal ziren euskaldun gehienak bildu eta elkar ezagutzeko. Eta gogoan izanik euskaldunok mahai baten inguruan bildu eta han jan eta edateko zaleak garelako, afariak egitea bururatu zitzaidan, afari merkeak, dirua oztupo izan ez zedin jendea elkartzeko. Restauranteetako jabeek, zen ekintza zelako, prezio bereziak jarri zizkiguten, inoiz ere ez mila pezetatik gorakoak. Afalostean beti eskaintzen zen zerbait kulturala: pertsona ezagunen baten hitzaldia batzuetan, bertsolariak besteetan, musika inoiz ere bai. Hiru urtetan zehar egin genituen afariak, hilero behin, eta momenturik hoberenetan berrehun bat lagun biltzera heldu ginen. Gehienak afaltzera etortzen ziren, eta beste batzu kafea hartu eta afalosteko ekintzetan parte hartzera.”

Jite eta pentsaera oso desberdinetako jendea elkartzen ei zen afariotan; izan ere, ahalegin berezia egin zuen Gereñok hori hala izan zedin eta politika-kontuak bazter gera zitezen. Akatsa, beraz, ez zegoen hor, beste leku batean baizik:

“Diru laguntzak eskatu nizkien erakunde publikoei afalosteko ekintzak ordaintzeko, afarien aldeko publizitatea egin ahal izateko eta euskararen aldeko giroa Bilbon zabaltzeko. Azken honetaz bi hitz esango dizuet.

Mahai baten inguruan euskaldunak biltzeaz gain, euskararen erabileraren aldeko publizitatea egitea pentsatu nuen. Slogan inpaktagarri batzu aukeratu nituen, eta inprimatu ondoren tira moduan, semeekin ibili nintzen kalez kale hormetan pegatzen. *Dendetan erosketak euskaraz, Bulegoetan jestioak euskaraz*, eta tankera horretakoak ziren slogan horiek, esan bezala tira luzetan idatziak. Bestalde, pegatina batzu egin genituen euskara zekiten tokietan agerian jartzeko, eta beste era askotako materiala, nortzu ziren euskaldunak ezagutu erazteko.

Tamalez, erakunde ofizialetatik hartutako diru laguntza oso eskasa izan zen. Euskal gobernutik ezer ez, Bizkaiko diputaziotik gutxi, eta Bilboko udaletxetik 200.000 pezeta urtero. Lana dohainik egitetik aparte, nire dirua jarri izaten nuen, eta hirugarren urtea horrela burutu ondoren, uztea erabaki nuen, diru laguntzarik gabe ezinezkoa zelako afaloste interesgarririk antolatzea. Jende kopurua jaisten ari zen eta desmoralizatu egin nintzen. (...) afariak ez zituen inork debekatu. Diru laguntzaren faltaz ito ziren.”

Udalaren hizkuntza politika eta euskaltegiak

Euskaldunen afariak diru laguntzen faltagatik amaitu zirela esan berri digu Gereñok. Dena dela, aro politiko berriarekin batera (gogora dezagun 1979ko apirilean Jon Castañares hautagai jeltzalea gailendu zela Francoren osteko estreinako udal hauteskundeetan), Bilboko Udalaren euskararekiko jarrera ere aldatu egin zen, ordura arte ez bezala euskararen aldeko neurri herabeti batzuk hartzen hasi baitziren. Jose Joakin Gallastegik izendatuko dizkigu neurriok:

“Geurean, itzultzaile bat sartu zen larogeiko hamarkadaren hasieran; udal administrazioak sortzen zuen dokumentazioa euskaratzea zen bere lana.

Geroztik (...) udal zereginen izaera nahikotxo aldatu da urte gutxitan, gehitu egin dira kuantitatiboki eta kualitatiboki eskaintzen dituen zerbitzuak eta honek bereislada izan du euskararen alorrean ere: itzultzaileaz gain, teknikaria ere kontratatatu zen. Inork ez zekien oso garbi zertarako, baina gehienek nahiko argi ikusten zuten euskararen berreskurapenean bazela betegabeko udal esparrua. Eta horrela sortu zen Euskara Sekzioa, gaur egun [1992] zortzi lagunek osatua: bi teknikari, hiru itzultzaile eta beste hiru administrari.”

Bilboko Udalaren Euskara Zerbitzua 1985ean sortu zen, eta, Gallastegik berak dioenez, “urte bi geroago hasitako legealdian hartu zituen bere lan molde-rako oinarriak, Koldo Celestino zinegotziaren eskutik. Hasieran Euskera Batzorde zabalean batu nahi izan zituen Bilboko euskaltzaleak eta azkenean Bilbo Berreuskalduntzeko Koordinakundeari eman zion Urrian euskera bultzatzeko protagonismo handiena.” Zein zen, baina, lantalde horren zeregina? Gallastegiren arabera, lan-ildo nagusi bi zeuzkan:

“a) Batetik, udal administrazioaren beraren euskalduntzea (...).

b) Bestetik, udalerrian zehar euskararen normalkuntzarako antolatu eta lagundu daitezkeen programak eta iharduerak (...) hiritarrei zuzenki eskeiniak.

Makina bat bezero izan
zuten euskaltegiek
Bilbon 1980ko
hamarraldian.
Argazkia: AEK.



Zeregin nagusi bi hauetatik lehendabizikoak du, nire ustez, lehentasuna une honetan. Gaur egun Bilboko udal administrazioa ez da gai, orokorki, hiritar euskaldunari bere hizkuntza ofizial eta propioan erantzuteko, eta horixe da bilbotarrekiko duen erantzukizun nagusia. Azpimarratzen dut Administrazioaren barruko euskalduntzearen lehentasuna, baliabide aldetik gure Udala nahiko pobre dabilen garai honetan ez bait zaigu komeni zereginen hierarkizazioaren ikuspegia galtzea. Bestela, azkenean ez bata ez bestea.”

Udalak 1980ko hamarkadaren bigarren erdialdean iragarki, publizitate, esku-orri eta enparau elebidunak ateratzeari ekin ziola ere nabarmentzen du Gallastegik. Horrez gain, euskararen alde harturiko beste neurri batzuk ere gogoratzen ditu: B eta D ereduen aldeko propaganda, euskaraz ikasten ari ziren ikasleei herri euskaldunetan egonaldiak modu onean eskaintzea, B eta D ereduak ikasleentzat propio antolatutako taldeak (euskara ikasteko), A ereduak ikasleentzat laguntza-klaseak diruz babestea, OHOk ikasleentzako Mikoleta ipuin-lehiaketa atontzea, ikastolen federazioak antolaturiko jaialdi-tarako bidaia merkeak prestatzea, euskarazko kazetak, euskararen alde diharduten taldeak eta Bizkaiko Bertsolarien Elkartea diruz laguntzea eta euskalduntzen ari diren ikasle gazte eta langabetuei laguntzak eskaintzea, besteak beste.

Alfabetatze-euskalduntzeari dagokionez, dena den, garai hartan hutsune bat sumatzen zuen berak: udal euskaltegirik ez izatea, hain zuzen. Gallastegiren aburuz, hiru arrazoi zeuden Bilbon udal euskaltegirik ez izateko:

1. Eskari handiari (7.000 bilbotar ikasle inguru) taxuz ezin erantzutea.

2. Eskariaren gorabehera handiek balizko erakundearen egonkortasunik ez bermatzea.
3. Euskaltegien arteko oreka haustea, lehendik zeuden euskaltegiei itzala eginda eta haietako batzuk desagerrarazteko puntuan jarrita.

Edozelan ere, euskaltegi publikorik ez izateak ondorio batzuk zeuzkan, Udaleko euskara teknikariak aitortzen zuen moduan: “Kaltetuena ikaslea da; eguneroko bi ordutako klase baten truke bilbotar batek hogeita hamasei mila pezeta ordaindu behar du, bataz beste ikasturteko, urritik ekainera. Udal euskaltegia duten herrietakoek, ordea, hara joanez gero hogeita mila pezeta; ia ia erdia.” Hara zer zioen, horren harira, Josu Muniozguren Bilbo Zaharra euskaltegiko zuzendariak:

“Ez dugu defendatzen euskara ikasteko dohaintasuna, baina gaur egun baino merkeago izatea bai. Gainera, Bilboko HABEren zentro pilotua (oso ikasle gutxi ari baitira bertan Administrazioako langileak eta maisu-maistrak izan ezean) alde batera utziz, Bilboko ikasle batek udal euskaltegidun edozein herritakoak ordaintzen duenaren ia bikoitza ordaindu behar du. Eta hau ez da ahuntzaren gaurdiko ezutla, administrazioek konpondu beharrekoa baino.”

HABEren zentro pilotuaz aurrerago ere egingo dugu berba. Bilbo Zaharra euskaltegiari dagokionez, esan dezagun zentro hori Elkarlanean erakundeko kide zela (eta dela). Muniozguren berak emango digu erakunde horren berri:

“Duela zortzi urte [1984an] sortu zen Elkarlan, Bilboko euskaltegi homologatuen erakundea, Bilbo Zaharra, G. Aresti, J.M. Zabala, Ulibarri eta gaur egun desagertu den Zubizarri euskaltegiak partaide zirela. Hasiera batean, diru-kostuak merkeagotzeko (propaganda, erakunde ofizialekiko harremanak...) sortu baldin bazen ere, urteak joan urteak etorri, beste lan batzuk aurrera eramateko ere baliagarri suertatu zaigu (nolabaiteko didaktika-batasuna, eskaintza bateratuak eta abar).

Ibilitakoaren balantzea ez da harrigarria, baina ezta eskasa ere. Euskaltegietan dugun lan burokratiko itzelak denbora jan digu planteaturik geneuzkan Bilbo euskalduntzeko zenbait alternatiba aurrera eramateko. Geroari begira hor ditugu planak eta asmoak, baina gauzatzeko baliabide ekonomikoak ez zaizkigu heltzen.”

Aurreko atalean aztertu ditugu Bilboko estreinako euskaltegi horien gorabeherak. Edurne Brouardek azaldu digunez, hamarraldi honetan AEK-n koordinatutako zentroek ere eman zuten gau-eskola izatetik euskaltegi bihurtzerako jauzia:

“Bilboko gau-eskola gehienak AEK-n koordinatzen ziren. Auzo bakoitzean zentro bat zegoen eta zentroen filosofia zen, euskara irakasteaz gain, euskara auzora ateratzea. Horretarako, kultur ekintzen bidez euskara kalera ateratzeaz gain, auzoko saltsa guztietan parte hartzen genuen. 1980ko hamarkada hasieran 14 zentro geneuzkan Bilbon. Euretarik batzuk irakasleenak ziren, batzuek pauso hori eman beharra ikusi zutelako, horretarako kooperatibak edo bestelako elkarteak sortuta;

Gabriel Aresti, Ulibarri eta Bilbo Zaharra ziren euskaltegi horietako batzuk. Hori horrela, Bilboko AEK-k Bilbo erdian, Areatzan bertan, eraikin bat erosi eta han Azkue euskaltegia sortzea erabaki zuen, modu horretan zentro propio bat izateko (zentro batzuk AEK-tik alde egiteko arriskua ikusten baikenuen, gerora gertatu zen modura). Hori izan zen Bilboko AEK-ren lehen euskaltegi propioa, 1981ean sortua. Hurrengoa Lizardi euskaltegia izan zen, urte batzuk geroago. Hala ere, zentro batzuek (Indautxukoak, adibidez) oraindik urte askoan eutsi zioten gau-eskola izenari, nahiz eta ordurako egun osoko klaseak ematen zituzten.”

Gau-eskoletatik euskaltegietara igarotzea ez zen izan aldaketa politikoak ahalbideturiko fenomeno soil; ikasle-kopuruaren gorakada etengabeak ere pauso hori ematea eskatzen zuela diosku Brouardek:

“1980ko hamarraldian sekulako *boom*-a izan zen matrikulazioetan; egin kontu garairik onenetan, hamarkada erdialdean, 5.000 ikasle geneuzkela Bilbon (gaur egun Bizkai guztian ere ez daukagu horrenbeste ikasle). Hori igarri egin da gero kalean. Duela 20-25 urte buelta ematen zenuen Bilbon inor kalean euskaraz berbertan entzunez gero, eta gaur egun hori nahiko normala da.”



1980ko hamarraldi erdialdean
5.000 ikasle zeuzkan AEK-k Bilbon.
Argazkia: AEK

Haatik, gailurrera heltzeak ondorengo jaitsi beharra ere berezko duela-eta, dezenteko beherakada antzeman zuten hamarraldi amaierako matrikulazio-kanpainetan. Beherakada logikoa, Edurneren aburuz:

“*Boom* hura apur bat fiktizioa ere bazen: asko ziren hiruhileko baterako izena eman eta gero bueltatzen ez zirenak, edo moda hutsagatik apuntatu eta laster nekatzen zirenak... Hamarkada amaieran egoera egonkortu egin zen, eta, argazkia errealeko bihurtzeaz batera, matrikuletan beherakada handi samarra izan genuen:¹⁰⁵ euskara ikastera zetorrena horretara baino ez zetorren jada, ez beste ezertara. Gogoan dut, horren harira, zelan Errekaldeko garaietan batzuk beti *Egin* besapean zekartela etortzen ziren, nahiz eta eskolak gauez izan; euskara ikastea mugimendu orokor baten parte bat gehiago zen orduan askorentzat. Gaur egun gauzak asko aldatu dira. Gogoratzen dut, adibidez, zelan etxean *Euskera* aldizkaria jasotzen genuen, nahiz eta inork irakurri ez: lagundu beharra zegoelako eta kitto. Orain, aldiz, *Argia* jasotzen dugu eta astero irakurtzen dugu. Ikasleekin ere antzeko zerbait gertatu da, oraingo egoera errealekoa da.”

Laster zabalago aipatuko dugun Siadeco-koen ikerketan ere islatu ziren kontu horiek (matrikulazio-kopuruetan izaniko beherakada eta ikasleen motibazio-aldaketa, nagusiki). Hara zer zioten ikerketa-elkarte horretako lagunek, 1990era arteko datuak oinarri hartuta:

“Bilbon azken urteotan 15.000 lagun matrikulatu dira urtero euskara ikastera. Ikasleen kopurua beraz, jaitsi egin da azken urteotan aurreko urteen aldean (lehen 25 milatik gora izaten bait ziren).

Bestalde, gero eta gehiago dira alfabetatze eta EGA ikastaroetan dabiltzanak eta proportzionalki gutxiago euskalduntze-ikastaroetan dabiltzanak: 3 bat urtetan erdira jaitsi dira.

Ikasle gehienak (...) 30 urtez behekoak, ikasketa maila altukoak eta proportziorik nagusienetan langabetuak edo ikasleak dira.”

Josu Muniozguren Bilbo Zaharra euskaltegiko zuzendaria ere, azkenik, horri buruz mintzo zaigu segidan:

“(...) ikaslearen erradiografia ere aldatu egin da. Euskaltegietako ikasle asko institutuko euskara aprobatera datoz, eta ez euskaraz mintzatzen. Euskaltegiko erregelan euskaraz entzutea ere ez da erraza izaten. Egia ere bada euskara urbanoaren argot-hizkuntzaren beharrean gaudela. Baserriko euskararen hainbat eta hainbat esakerak ez dute zentzu handirik Bilbo hirian. Era berean, euskara ikastea lasterketa bilakatu da, titulitis ospetsuaren erruz. EGA lortu edota halako hizkuntz eskakizuna ateratzea dute askok eta askok helburu.”

¹⁰⁵ Erramun Osak, esate baterako, zera idatzi zuen horri buruz urte batzuk geroago: “(...) 1986-87 ikasturtean inoiz lortu gabeko ikasle eta matrikula gehien eskuratu zuten langintza honetan ari ziren elkarte eta erakunde desberdinek, harez gero, urtez urtekoa delarik gainbehera.”

Polo bien dinamika

Hamarkada honetako euskalgintzaren ezaugarri nagusia izendatzeko eskatuko baligute, *bikoiztasuna* erantzungo genuke beharbada: izan ere, sektore ofizialen eta herri mugimenduen artean ia ez baitzen elkarlanik izan, ez behintzat hamarkadaren azken urteak arte. 1980an, adibidez, Gernikako Estatutua onartu ondoren Eusko Legebiltzarra eta Jaurlaritzak sortu zirenean, EHEk ezabaketa kanpainari ekin zion Euskal Herri guztian, errepide seinaleak behingoz euskaldun zitzaten eskatzeko; Jaurlaritzak Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia eta Euskararen Aholku Batzordea eratu eta Euskararen Normalizazio Legea prestatu (1982) eta gutxira (1983), hainbat gizarte taldek Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) sortu zuten; batzuek *Euskaldunon Egunkaria* sortzeko kanpainari abiarazita, Gobernuak *Egunero* egitasmoari ekin zion; eta horrela, *ad infinitum*...



3. Korrika ere, 1983koa, Bilbon amaitu zen. Azken aurreko kilometroan ETBn gaztelaniarik ez sartzeko eskatu zuten EKBko kideek. **Argazkia:** AEK.

Bikoiztasun nabarmenena, dena dela, helduen euskalduntze-alfabetatzearen alorrean gorpuztu zen: AEK lehenagotik zetorren, baina 1981ean irakaskuntza-eskumen ia guztiak Jaurlaritzaren esku geratu ziren (horren ondorioz sortu ziren, besteak beste, A, B eta D ereduak). Horrela, 1983an (ETB eta Euskadi Irratia lanean hasi ziren urte berean) Jaurlaritzak HABESEA edo Helduen Alfabetatze

eta Berreuskalduntzeko Erakundea Sortarazteko eta Euskaltegiak Arautzeko legea ezarri zuen indarrean EAEn.

Laster etorri zen erantzuna ere. 1984an lege horren kontrako ekintza ugari burutu zituen AEK-k. Maiatzean, adibidez, Bilboko AEK-ko partaideek HABEren lokalak okupatu zituzten. Ertzaintzak ke-poteak erabiliz eta pilotakadaka atera zituen handik. Jaurlaritzak, berriz, ordura arteko ildoetara eutsi eta IRALE (Irakaslegoaren Alfabetatze Euskalduntzea) programa aurkeztu zuen.

Zein zen baina AEK-koen haserrearen jatorria? Zer esan gura zuen HABEren sorrerak? Hara zer uste duen horri buruz Xabier Monasteriok:

“HABEren aurreneko lana ordura arte halamoduz eta bakoitzaren iritzira funtzionatzen zuen euskalduntze mugimendua ofizialtasun batera eta molde eta arau jakin batzuetara ekartzea izan zen. Euskararen irakaskuntza maila zehatz batzuetan finkatu zuen eta glotodidaktika arloko irizpideak ezarri zituen (lau trebetasunak). Gainera, teoriarik aldarrikatzen zuena praktikarekin uztartu nahian, bere euskaltegi pilotuak sortu zituen hiru herrialdeetan, horretarako oposizio bidez hainbat irakasle kontratatu zituela. Hortaz, HABErenak izan ziren euskalduntze arloko lehen irakasle funtzionarioak. Bilboko euskaltegi pilotua Carlton hotelaren atzealdean zegoen.¹⁰⁶

Bestalde, EGA agiria ipini zuen indarrean (...). Haren helburua, nahiz eta oso gaizki planteatuta egon, zera zen: garai hartan administrazioetan sortzen ari ziren lanpostuetan jardun ahal izateko, euskararen nolabaiteko gaitasun maila bermatzea. Denborak erakutsi duenez, EGA tituluak horretarako ere ez du balio.¹⁰⁷

HABEren planteamendu arauemaileen aurrean, Bilboko euskaltegi gehienek –AEKrenak alde batera utzita— haren eskakizunetara makurtzea beste erremediorik ez zuten izan, diru laguntzak jaso ahal izateko. Kontuan hartu behar da ordurako Bilboko euskaltegiak Euskal Herriko handienak zirela ikasle kopuruari zegokioenez, eta baita garestienak ere, pertsonal eta azpiegitura gastuei zegokienez. Beraz, Bilboko euskaltegiak homologatuak izatera pasatu ziren. Eta homologazioarekin batera, neurri batean bederen, euskalduntzearen hasierako urteetan agertu zuten iniziatiba ere galdu zuten. Egia esan, gizartea bera ere bestelakutzen ari zen, eta balio instrumentala euskararen balio sinbolikoa ordezkatzen hasita zegoen.”

¹⁰⁶ Edurne Brouardek dioskunez, “HABEk ere bere zentro pilotua zabaltu zuen Bilbon, baina oso denbora gutxi iraun zuen, hiruzpalau urte baino ez [hamarraldi amaieran zarratu zuten].”

¹⁰⁷ Askok dira EGArekin oso kritiko diren irakasleak. Josu Muniozgurenak, adibidez, zera uste du: “Hemeretzi urte daramatzadala Bilbon helduen euskalduntzean, askotan egiten diot galdera hau neure buruari: oraingo ikasleak lehengoak baino leloagoak ote dira? Harritzekoa baita duela hamar urte [1982] euskalduntzeko bost maila egonda, orain hamabi maila egotea. Duela hamar urte bost maila egin eta gero D maila ateratzeko ikastaroa egiten zenuen. Eta orain, hamabi maila egiten dituzu eta askotan hamabigarren maila hori errepikatu eta errepikatu zorioneko EGA titulua lortzeko.”

Gizarteak, euskara-ikasleek eta euskaltegiek eurek sasoi hartan izaniko bila-kaeraz Edurne Brouardek ere egin digu berba lehentxoago. Edozelan ere, euskaltegiak ez ezik gizarte mugimendu batzuk ere saiatu ziren garai hartan Bilbo-aldea euskalduntzen; salaketa- eta kontzientziazte-kanpainak baliatu zituzten batik bat xede hori gauzatzeko. Artean ia sortu berria zen Euskal Herrian Euskaraz (EHE) zen horrelako kontuetan jardun zuen taldeetako bat. Arestian *Anaitasuna*-n beharrean ezagutu dugun Jose Llerandi orduko EHEren Bilboko taldeko kide izan zen sasoi batean. Hara zelan oroitzen dituen iraganiko urte haiek:

“Talde txikia ginen: Eneko Etxebarrieta, ni neu... Dinamikatxoa ere bagenuen: kartelak jarri, protesta ekintzak burutu, eraikinak okupatu... Gogoan daukat behin Bilbo osorako manifestazioa deitu genuela, Etxetxua plazatik abiatua, eta ia 4.000 lagun bildu ginen... Ez geneukan lokal propiorik, AEKren lokalak baliatzen genituen batzuetan. Hiru urte inguru ibili nintzen saltsa horretan, sorrera-garaian, eta gero utzi egin nion bai horri eta baita politika kontuari ere (azken batean dena zen kontu bera).”

EHE eta euskalgintzako beste hainbat talderen artean elkarlana bideratu eta Euskal Herri osorako hizkuntza- eta kultura-politikak sustatze aldera, bestalde, Euskal Kulturaren Batzarrea (EKB) jaio zen 1983an. Edurne Brouarden iritziz, elkarte horrek ez zuen oihartzun handirik izan Botxoan: “Langileak zeuzkan Bilbon, kanpainak egiten zituzten, kartelak jarri, baina arazoa zen (nire ustez behinik behin) jendeak ez zuela bilbotar erakundetzat hartzen: ez zen behetik gora sorturiko talde bat, egitura handiago baten adarra baino, eta jendeak horrela sentitzen zuen, ez zegoen toki bakoitzean erroturik.”



HABEren sorreraz geroztik hamaika bider egon ziren aurrez aurre Jaurlaritzako Kultura Saileko arduradunak eta AEK-ko ordezkariak.
Argazkia: AEK.

Kontuak kontu, Euskal Herriko administrazio nagusien eta herri mugimendu batzuen arteko liskarrak ez ziren hamarraldi amaieran ere baretu; hona pare bat adibide, esanikoaren erakusgarri: 1989ko udaberrian AEK-k Hego Euskal Herriko hiriburuetako udaletxeetan itxialdiak burutu eta kale-agerraldiak deitu zituen, *AEKri erasorik ez* lelopean, Eusko Jaurlaritzaren zein Nafarroako Gobernuaren jarrera salatzeke; urte bereko azaroan, berriz, Egunkaria Sortzen jaio zen, kultur munduko hainbat eragileren bultzadari esker (Bilbon ere bazeukan adar bat), baina handik gutxira Jaurlaritzak, Joseba Arregi Kultura sailburuaren ekimenez, bere egunkari-egitasmo propioa aurkeztu zuen.

Bazirudien, beraz, polo bien artean ez zegoela zubi-lan posiblerik. Haatik, makropolitikak baldintzaturiko polo horiez (ahal zen neurrian) ahazturik, beste mintzo bat ere hedatzen hasia zen bazterretan: mintzo bat jarri gura zuena hizkuntza-komunitatea erdigunean eta oinarritzen zena *sinergia*, *elkarlana*, *trinkotzea* eta antzeko berbetan. Haren oihartzunak Bilbora ere berandu barik iritsi ziren, laster ikusiko dugun moduan.

Siadeco-ren ikerketa

1980koa soziolinguistikaren hamarraldia izan zen Euskal Herrian: jakintzarlo horri buruzko jakin-mina asko hazi zen, mintegiak eratu ziren, ikerketak kaleratu... Ikerketei dagokienez, Siadeco-k Bilbon eginikoa izan zen azpimarregarrienetako bat.

Eustat-en datuen arabera, 1981ean 23.981 bilbotar ziren euskaraz ondo berba egiteko gai; bost urte geroago, aldiz, 33.956ra igoa zen kopuru hori (2,9 puntuko hazkundea, 1981ean baino ia 10.000 lagun gehiago; populazioaren %9,1 orotara). Euskaldun horietako gehienak (%6,6, 24.718 lagun), gainera, euskaraz alfabetatuta zeuden. Euskaraz zer edo zer esateko/ulertzeko gai zirenak, berriz, 58.420 ziren 1981ean, eta 17.622 lagun gehiago (76.042, biztanleriaren %20,3) bost urteren buruan (5,1 puntuko hazkundea). Datuon argitan, gogoeta hauek egin zituzten Siadecoko Iñaki Larrañaga eta Kike Amonarrirek:

“Bost urteko epean bilbotarren hizkuntz ezagupenaren egoera hobetu egin da. Esan daiteke, euskarak irabazi dituen lagun gehienak erdaratik etorri direla.
(...)

Bilbotarren hamarretatik zazpi erdaldunak direla, hau da, gehiengo nagusia.

Bostetik bat ia-euskalduna da, euskara ikasten (gehiengoa) edo galtzen ari den jendea. Hauetatik erdiak baino gehiago ia-euskaldun alfabetatuak dira: guztiz euskaldun izateko gutxi falta zaie eta epe laburrera euskaldun oso bihur daitezke.

Azkenik, ia hamarretik batera iristen da euskaldunen multzoa. Ia erabat euskaldun osoak direla esan daiteke, gehien-gehienak euskaraz ulertu, hitzegin, irakurri eta idatzi ongi egiten dutela aitortu bait dute. Hala ere, gure zalantzak ditugu irakurtzeari eta idazteari dagozkien datuei buruz, errealitatea idealizatu egin dela bait dirudi.”

Baziren, dena dela, aintzat hartu beharreko beste datu batzuk ere Siadeco-koen azterketan (hamarraldi osoaren ikuspegi osatua eskaintzen digu ikerlan horrek):

a) Bilboko jatorrizko euskaldunen artean topa zitezkeen euskara guztiz galdutakoen tasarik altuenak (Donostia eta Gasteizen baino proportzio askoz altuagoan gainera). Honek, besteak beste, Botxoak iraganean izaniko erdalduntze-eraginaren berri ematen digu, etorkizunean justu kontrako norabidean ere (bazterrak euskalduntzen, alegia) katalizatzaile funtzioa bete dezakeela iragartzeaz batera.

b) Euskal hiztun kopuruaren joera gorakakoa zen (euskara galdua zutenen kopurua 7-8 milakoa zen; erdaratik euskarara hurbildutakoena, aldiz 16-18 milakoa).

c) B eta D ereduak urtez urte haziz zihoazen. Jose Joakin Gallastegiren arabera, adibidez, 1987-88 ikasturtean eskolatutako 52.212 lagunetako 8.384k D eta B ereduaren aldeko hautua egin zuten (%16,05, hots, ia-ia hiriko euskalduntasa halako bi). Inkestaturiko bilbotarren %40,7k, gainera, D ereduaren alde egingo lukeela zioen; %36, berriz, B ereduaren alde ageri zen (hurrengo urteetan izaniko bilakaerak erakusten duenez, batzuk zein besteak ez ziren gezurretan ari).¹⁰⁸ Ereduon gorakadarekin batera, bilbotar gehienek euskara batua eredu estandar modura onartzen zutela ageri zen ikerketan.

d) Geroz eta euskaldun alfabetatu gehiago zegoen hirian (1981etik 1986ra kopurua ia bikoiztu egin zen). Erabilerak, hala ere, gorakako joera izan arren, tatarrez jarraitzen zuen oraindik:

“Entzundako 39.247 pertsonetatik 1.065 ari ziren euskaraz (%2,7). Kopuru hau ordea, ez da berdin banatzen adin eta auzo guztietan.

Adinari dagokionez itxaropengarria da ikustea haurrak eta gazteak direla (orden honetan) euskara gehien darabiltenak. Auzokako banaketaren arabera, auzo zaharrak (euskaldunenak) dira gehien darabiltenak, periferikoetan euskara entzutea erabat bitxia suertatzen delarik: 39 auzoetatik 10etan INORI EZ zitzaion euskaraz egiten entzun (auzootan 3.509 pertsona entzun ondoren).”

¹⁰⁸ Josu Sierrak, dena dela, bete-betean asmatu zuen ereduon ekarpena erlatibizatzean: “Hasteko, A ereduak, urte askotan oraindik, fuertea izango da Bilbon. Baina, bestaldetik, B eta D gorantza joango dira, dirudienez, ikastetxe publiko eta ikastoletan batez ere. Eredu elebidunen hazkundeak zein ondorio ekarriko duen pentsatzean, badira gauza garbiak eta beste batzuk ez hain seguruak. Euskara maila konkretu bat, euskararen *ezagupen eskolar* bat izango duten gazteak gero eta ugariagoak izango dira, dudarik gabe, eta beraz, honek suposatzen duen etorkizunerako itxaropena eta ahalmena begibistikoa da. Hala ere (...) ez da batere seguru euskararen ezagupen hori erabilpen sozialean loratuko denik ez eta gazte horiek euskara funtzionalki aberatsa eta jatorra izango dutenik. Esan beharrik ez dago, eredu elebidunek ez dutela, bere eragin hutsez, euskara gaztelaniaren parean jarriko Bilboko gizartean. Eredu elebidunen emaitzen ondorioz beraz, ezin dugu ametsezko Bilbo euskaldunik espero, momentuz behintzat.”

e) Itzalgune gehiago ere aipatu zituzten Siadecokoek: gizarte zerbitzuetan¹⁰⁹ zein hiriburuko hedabideetan eta zerbitzu ofizialetan¹¹⁰ euskarak zeukan presentzia urria, besteak beste. Hala ere, itzalgune horiek guztiak baino indartsuagoa zen aldeko faktore bat ere izendatu zuten: bilbotarren euren borondatea. Ezen eurek ziotenez, “[Bilboko] euskaldunak ia erabat ados daude normalizazio prozesuarekin. (...) Erdaldunen gehiengoa bat dator normalizazio prozesuarekin, gutxiengo bati axola ez zaion arren (%12,3).”



Euskararen alde gogor ziharduten mugimenduetako lagunez gain, Siadecokoek arabera erdaldun gehienak ere normalizazio prozesuaren alde zeuden. **Argazkia:** AEK.

¹⁰⁹ Erljio zerbitzuak ziren salbuespena, ezen Siadecokoek iritziz, “Bilboko euskaldunen proportzioa kontutan harturik, kontatu diren 35 parroketan (auzo bakoitzean bat) apaiz euskaldunen proportzioa oso altua da; erdiak inguru.”

¹¹⁰ Hara zer zioten azken horiei buruz Siadecokoek: “Zerbitzu hauetan, bai enplegatuen eta bai kargu politikoen euskararen ezagupena, Bilboko batezbestekoa baino altuagoa da. Hala ere, gutxi dira euskaraz laneko harremanetan edo herritarrekin darabiltenak.” Euskararen egoerak hobera egin duen seinale, gaur egun normal samarra da liburutegi, udal barrutietako zentro eta enparauetako beharginekin euskaraz komunikatzea.

Behin puntu honetara helduta, zabal dezagun parentesi txiki bat hizkuntzaren aldeko balizko jarrera hori erlatibizatzeke. Izan ere, Maria Angeles Argüesok garai hartan egindako ikerketak (ehunka lagunei eginiko inkesta barne) dioenez, bilbotarren gehiengo zabala zegoen orduan euskara sustatzearen alde eta ia denek mundu modernorako hizkuntza baliagarritzat zeukaten. Haatik, letra txikiari erreparatzen hasita, inkestatu gehienek kasu bakarrean baino ez zuen hobesten euskara gaztelaniaren aurretik: folklore eta herri-musikan, hain zuzen. Hori horrela, euskara zertarako erabiltzen zuten galdetuta, inkestatu gehienek honela erantzun zuten: %26k, umeei berba egiteko, eta %24k, lagun eta eza-gunak kalean agurtzeko; gutxi ziren (%17) egunerokotasunean gaztelania beharrean euskara hobesten zutenak. Hizkuntzaren aldeko jarrera gorabehera, fosiliazio-arriskua bizi-bizi zegoela, berba batean.¹¹¹

Txepetx-en diagnostika

Siadecoren datuak gogoan, egoera soziolinguistikoaren diagnostika egin zuen Jose Maria Sanchez Carrion *Txepetx*-ek (Bilboko Udalak batzuen ikerketa eta bestearren diagnostika, biak batera eman zituen argitara). Luze joko liguke diagnosi hori xehe-xehe aztertzen hasteak. Aipa ditzagun, hala ere, bertako punturik azpimarragarrienak:

– Paradoxa baten berri emanez ekin zion Txepetxek analisiari: Bilbon inoiz ez bezalako euskaldun kopurua zegoen (34.000 lagun; eurretako asko, gainera, euskaraz alfabetatuak), baina, aldi berean, euskara sekula baino bakartuago zegoen, ezelako erdigune barik (horren erakusgarri, datu hau: kopuruz inoiz baino gehiago izan arren, ehunekotan *-ia euskaldun*-ak kontuan hartu barik— inoiz baino gutxiago ziren: %9).

– Haatik, puntu garrantzitsu bat azpimarratu zuen segidan: erdaldunena eta euskaldunena ez ziren elkarrengandik erabat bereizitako hizkuntza-komunitateak, talde batetik besterako joan-etorria etengabea zen eta. Euskararen ikuspegi-

¹¹¹ Argüesok berak ondorio hauek atera zituen bere azterketatik: “La situación lingüística del euskara en Bilbao se muestra según el presente estudio ambigua y conflictiva. Hay ambigüedad porque aunque las actitudes hacia el euskara son positivas no implican necesariamente que la población muestre un deseo por abandonar el castellano. Hay conflicto porque la población aparece dividida doblemente. Primero, hay dos grupos de población claramente diferenciados en cuanto a su consideración del euskara. Para unos es un símbolo de la cultura vasca que desean que se extienda; para otros es un instrumento de avance profesional, sin que ello implique un deseo de integración en la sociedad. Dentro del primer grupo, existe también conflicto porque, si bien las actitudes son positivas, no siempre van acompañadas de un uso real de la lengua. (...) La supervivencia del euskara aparece ligada a los grupos más identificados como vascos tanto por procedencia familiar como por lazos subjetivos. Sin embargo, el éxito último del euskara como lengua de comunicación y como factor de unión, y por lo tanto, de pacificación de la sociedad, depende de la aceptación por parte de todos los habitantes del actual proceso en favor del euskara.”

tik begiratuta, zioen Txepetxek, hirian une hartan zeuden 75.780 *ia euskaldun*-ek (euskara erdi ahaztua zutenak edo ikasten ari zirenak) funtsezko garrantzia zeukaten, hizkuntzarako sarbide-ate ala ihesbide izan zitezkeelako. Lagun horiek zinez euskararekiko sarbide-ate bihurtzea lortuz gero, ate horretatik hiriko gainerako hiztunak ere hurreratuko lirateke euskarara.

– Horra ailegatuta, ordea, gauza bat argi utzi gura izan zuen: euskararen bakartzearen errudun nagusia ez zen erabilera-tasa apala, are gutxiago hizkuntza bera (bere ustezko barne-ezgaitasuna zela bide) edo hiztunen utzikeria; ez, beste hau zen arazoa:

“Es, por el contrario, un problema inducido desde fuera por unas trabas sociológicas (bilingüismo social unilateral, déficit funcional provocado, y discriminación legal) que acaba interiorizándose cuando, al carecer de la diagnosis correcta de la situación, el sujeto lo atribuye a faltas del idioma o a faltas en sí mismo (traba psicológica).”

Hots: gaztelaniaz mintzo zirenek euren egunerokotasuna hizkuntza horretan bizitzeko ezelako arazorik ez zeukaten bitartean, hirian euskaraz bizi gura zuten euskaldunentzat ahalegin hori oztopo-lasterketa amaiezina zela.

– Diagnostikoa eginda eta gauzak garbi utzita, beraz, hiztun-proportzio apa-larena ere erlatibizatu egin zuen puntuan, esanez ezen hiriko euskaldunak euskaraz biziko balira epe motzean proportzio hori itzel haziko litzatekeela, euren erabilerak besteen ikaskuntza-prozesua bizkortuko lukeelako. Arazoa ez zen, beraz, gutxiengo izatea (komunitatea bilbatuz gero arazo hori gaindi zitekeela irizten baitzion), euskarak hizkuntza gutxituaren estatusa izatea baino.

– Estatus horrek ezarritako trabei aurre egiteko, konpaktazioa proposatu zuen; hau da, erabat atomizaturik zegoen hizkuntza-komunitatea trinkotzea. Bere ustez, hori eginez gero, gizarte-funtzio guztiak bere baitan hartuko lituzkeen zirkuitu osoa bermatu ahal izango litzaioke hizkuntzari. Horrez gain, horri esker hiztunen eta ikasten ari zirenen motibazioa ere handitu egingo litzateke, hizkuntzaren beraren sormen- eta transmisio bideak bizkortzeaz batera.

Txepetxen diskurtsoa Bilbon hedatzen hasi zenerako, aldaketak sumatzen hasiak ziren euskalgintzan, hirian bertan bezala (orduan abiatu ziren Bilbo guztiz itxuraldatuko zuten estreinako herri-lanak): euren dinamika salaketa eta aldarrikapenetan oinarritzen zuten taldeen alboan, bestelako praxia zeukaten elkar-teak sortzen hasi ziren: hizkuntza-komunitatea trinkotu eta harentzako zerbitzu propioak eratzea zuten xede, komunitate horrentzako hedabideak eta elkartzeko guneak sortzea, erakundeekin elkarlanean jardutea, erdaldunen jakin-mina piztea, hiztunak eta hiztun-gaiak motibatzea...

Kezkokin batera, euskararentzat esparru fisikoak irabazi beharra ere berba-gai bihurtu zen. Hara bestela zer zioen Josu Muniozgurenek:

“Duela hamaika edo hamabi urteko ikaslea euskara erabiltzen saiatu egiten zen, horretarako guneak aurkituz, nahiz eta irakasleei kriston pelmada eman (haiek ziren haiek gau-eskolaren ondorengo poteoak!). Gaur egungo ikasleek euskaldun gune horiek topatzeko premia gorria dute. Klasetik irten eta ez dute euskara erabiltzerik. (...)

Euskaldun guneak behar ditugu nahitaez Bilbon. Duela zenbait urte nire ikasleak izandakoak aurkitzen ditudanean (EGAdunak gehienak), malkoak ere badarizkit. Asko maisu-maistrak dira eta umeen artean landutako euskara erabiltzen dute: erderismoz betea, pobrea... Hortik irtengo diren umeek ez dute oso euskara garbia erabiliko (duela ez asko, barre eragiten ziguten euskaldunberriek beraien azentuazioa zela eta; zer eragingo digute eskoletatik sortuko direnek?).

Kalean erabili behar da euskara, bestela eskoletatik euskaldunek berehalaxe galduko dute euskara.”

Kezka eta haize berri horiek lagun, Bilbo Euskalduntzen taldea eta Irala, Zorrotza eta Otxarkoagako euskal txokoak sortu ziren 1990ean, eta egitasmo handiagoak (Euskaltzaindia Plaza Barrira pasatzea, Kafe Antzokia, Kalderapeko...) etorri ziren ondoren. Honek guztiak, argi dago, aparteko atala merezi du.

XI. 1995, Zazpikaleak: munduko euskaldun berri zaharrenak metroan dabiltza

Asfaltuan barrena
entzun da hasperena,
arnas eske ari zaigun
euskaltasunarena.

Euskara dela bide
semaforoak berde,
dabilena dabilela
ikastolaren alde.

Bilbon badabil,
bada, Bilbon zer dabil?
Ibilaldian zerbait badabil,
Bilbon badabil,
bada, Bilbon zer dabil?
Bilbok euskara hegan darabil

(Iñaki Aurrekoetxea, 1994)





Río Sena. Bilbao. Rafael Ortiz Alfau, 1992.

Iluntzeko zortzi eta erdietara doa, asteazkena, udaberri hasiera. Gurutze kaleko giza trafiko bizia moteltzen hasia da. Arropa edota zapata berrien bila azken minuturaino aritu direnak ere, dagoeneko etxerantz doaz. Ipar finak gorri-gorri jartzen ditu poltsetara lotutako eskuak. Gehienek afaria eta etxe barruko epela daukate gogoan. Halere, oraindik ez da erabat itzali eguna eta ingurua ez da guztiz bizigabe geratu. Alboko Banco España kaletik, adibidez, bateren baten deia-darrak entzuten dira.

Gizon gazte bat dago gaztetxe aurrean. Ispilu handi bat dauka bere aldamean eta, itxura guztien arabera, kirioak airean dituela dabil euskaraz mintzo den gizaseme bitxi hura:

- Jakin leike zeri begira zaudeten?
- Bi azaletako kopeta daukat ala?
- Begiraiozue zeuen zilborrari, lerdo halakook!!

Apurka-apurka gero eta jende gehiago ari da hurbiltzen. Inork ez du oso ondo ulertzen zer gertatzen den burutik eginda dirudien sudur-handi harekin, baina, denbora-pasa hobeago baten faltan, ez da aukera txarra berari begira geratzea. Badago hunkitzen denik ere. Auzoko etxekoandre batek benetan sinetsi du aktorea estu eta larri dabilela eta, malkoak begi ertzetan, ea zer jazotzen zaion galdetu dio. Ikusle gazteek orduantxe egin dute lehenengo algara. Mikel Martinezek berak ere atximurkatu egin behar izan du besoa barreari eutsi ahal izateko.

Pasadizo hau 1990an gertatu zen. Aste batzuk lehenago Bilboko gaztetxe-ko kide batek Maskaradako Mikel Martinezi bota zion proposamena: ea prest egongo litzatekeen Pirandello-ren “Ni eta neure sudurra” antzerki-lana Banco Españako etxe okupatuan jokatzeko. Aktoreak baiezkoa eman zion eta esandako egunean eta orduan han agertu zen ispilu handi eta guzti. Barruan, orde, iluna eta isiltasuna ziren nagusi. Han ez zegoen ezta berarekin berba egin zuena ere. Minutuak aurrera zihoazen eta noraezean zebilen gangarren bat edo beste izan ezik, ez zen inor azaldu. Mikel ez zegoen etxerako baina. Kanean bertan egitea erabaki zuen eta, bertatik pasatu ziren gehienak jabetu ez baziren ere, iluntze hartan kalitate handiko obra eman zuen kale gorrian.

Eta euskara hutsean. Hori bai, begira geratu zirenek eztenkadaren bat edo beste jaso behar izan zuten:

– Aizak, egia al duk irribarre bakoitzean ezpainak alde baterantz jasotzen ditudana?

– Eta hik, ba al dakik belarri bata bestea baino handiagoa daukakena?

Emanaldia bukatu ondoren Mikel etxerantz abiatu zen Iturribide kalean gora. Tipi-tapa, tipi-tapa, muinoaren goiko alde gero eta hurbilago zegoen. Tarteka lur azpian zebiltzan makinen marmar amatatua ailegatzen zitzaion. Kale amaieran dauden eskailerak igo ondoren gelditu egin zen une batez eta, arnasestu batean, “hemendik urte batzuetara metroz mugituko gara hiri aldapatsu honetan, bai horixe” bota zuen bere kolkorako.

Horrelaxe izan zen. 1995eko azaroaren 11n, goizeko 11etan Bilboko metroak bere lehenengo kilometroak egin zituen barruan bidaiariak zituela. Lehenengo adar hark Zazpikaleetatik Plentziarainoko tartea egiten zuen eta 23 geltoki zeuzkan, eurretatik zortzi hirian bertan. Erandiotik aurrera gutxi gorabehera Algortako trenaren bide berberetik pasatzen zen: Lutxana, Erandio, Astrabudua, etab. Metroak hasieratik izan zuen arrakasta: lehenengo hilabeteen, adibidez, 100.000 bidaiari eroan zituen. Hurrengo urteetan goranzko joerari eutsi zion eta bilbotar eszeptikoenak ere Fosterrek diseinatutako geltokietan barrena ausartu ziren.

1997ko uztaillean metroa Santutxu eta Boluetako behargin-auzo populatuetara heldu zen. Hiru geltoki berriek are jende-kopuru handiagoa erakarri zuten lur azpira. Bistan zegoen hiriak mende berriari aurre egiteko beharrezkoa zuela azpiegitura berria; hala ere, ordurako beste egia bat ere ukaezin agertzen zen: nahiz eta milaka lagun mugitu egunero metroz, Bilboko sarrera-irteerak eta hiri barruko etorbide eta kaleak leporaino zeuden ibilgailuz. Bizimoduak hartu duen abiadurak eraginda, urteek aurrera egin ahala bi joera hauek areagotu egin dira.

Joerok ez ziren izan indartu ziren bakarrak. Euskalgintzari dagokionez, aurretik zetozen proiektuez gain (euskaltegiak, ikastolak, etab.), 90eko hamarkadan zehar hamaika ekimen berri jarri ziren abian Botxoan. Ñabardurak ñabardura, gehienek oinarri berbera zeukaten: Txepetxen teoria, bereziki *Un futuro para nuestro pasado* liburuan azaldutako gakoak. Azter dezagun, bada, ezer baino lehen, nor den gizon hau, zein den bere irakaspena eta nola heldu zen gure artera.

Txepetxen ekarpena

Hamarkada hasieran liburu honen egileak Deustuko Blas de Otero kalean bizi ginen. Ikasturte hasierako ostiral batean goiko aldeko kaleetara jo genuen basoerdi batzuk hartzeko asmoz. Garai hartan giro aparta zegoen eliza bueltako

tabernen inguruan. Gazte eta ez hain gazteak erruz biltzen ziren topaleku hartara lagun eta ezagunekin bat egiteko. Berriketaldi gehienak gaztelaniaz ziren, jakina, baina bazeuden euskararekin tematzen ziren egoskor batzuk. Horietako baten ezpainetatik entzun genuen lehenengo biderrez *diglosia* berbatzarra. Laguna sutsuki ari zitzaigun hizkuntzen funtzioez eta antzeko kontuez. Bistakoa zen guk ezagutzen ez genuen iturri batetik jaso zuela informazioa. Ez zen bakarra izan; hurrengo urteotan guztiok ohitu ginen *trinkotzea*, *haustura puntua* edo *ontzien eskema* bezalako terminoak erabiltzera. Erruduna Levante aldetik zetorren gizon txiki bat ei zen, hizkuntzen bizitzaren ikerlari handi bat. Izan ere, ordurako Txepetxen teoria zirimiria balitz bezala ari zen ureztatzen Euskal Herriko bazterrak.

Jose Mari Sanchez Carrion Cartagenan jaio zen 1951n. Ez zuen denbora askorik eman kantonalismoaren habian, aita Ceutara lekualdatu baitzuten. Han askotariko gizarte eta eskolarekin egin zuen topo: Penintsulako bazter guztietakoak, arabiarak, indiarak, juduak, bereberek. Gaztetxo izan arren, ez zitzaion oharkabea pasatu kultura eta hizkuntza horiek guztiak ez zeudela plano berean. Etxean neskame bereba zeukaten eta, herri horren bazterketa ulertu nahian, hizkuntza irakasteko eskatu zion. Egiaztatu nahi zuen errua ez zegoela hizkuntzan edota kulturaren baitan, arrazoi politiko, ekonomiko edo sozialetan baizik. Zalantzarekin geratu zen baina. Ordurako emakumeak erdi galduta zeukan hizkuntza eta etengabe nahasten zuen arabiararekin.

Inuitei buruzko testuak irakurtzeari ekin zion orduan. Horiekin ere arazoak: gauza interesgarri guztiak ingelesez edo danieraz zeuden. Eta, bat-batean, bizitzaren paradoxak, euskararen lehenengo berria izan zuen Unamunoren *La cuestión del vascuence* entsegua aurkitu zuenean. Idazkiak euskararen aurkako iritzia agertzen zuen arren, Txepetxek gauza bakarrari erreparatu zion, hots, Penintsulan bertan bazegoela bereba edo inuita bezain zaharra zen hizkuntza bat. Beraz, hamalau urterekin euskara ikastea erabaki zuen. Horra hor On Miguelen ekarpen paregabea euskararen iraupenaren alde.

Gurasoek ikasmateriala ekarrarazi zuten Madrildik eta, mintzapraktikari dagokionez, igandero hasi zen joaten Ceutan bizi zen Pello Azkoitia azpeitiarrarengana. Hau *Basarri* bertsolariaren laguna zen eta ez zen egunik hura aipatzen ez zuenik. Hurrengo udan, gurasoak Europarantz zihoazela baliatuz, Txepetx




Txepetxek Inazio Eizmendi *Basarri* bertsolariarekin hobetu zuen bere kabuz ikasitako euskara. **Argazkia:** Jose Maria Sanchez Carrion

Zarautzen plantatu zen Pelloren gutuna besapean zuela. Ez dakigu bertsotan ikasi ote zuen, baina euskaraz berbetan behinik behin bai.

Hemezortzi urterekin, berriz, Filosofia eta Letrak ikasten hasi zen Granadan. Lehenengo urtean Linguistikako katedradunari Nafarroan euskarak zituen mugei buruzko lan bat egiteko asmoa zuela azaldu zion. Katedradunaren babesak Diputazioko ateak ireki zizkion eta uda hartan hiru hilabete eman zituen datuak bildu eta bildu. Ondoren, urtebete eman zuen material guztia antolatzen. Lan horren emaitza bere lehen liburua izan zen, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*. Uda nafar hartan egindako inimizazio-bidaia azken zalan-tzak ezabatu zituen: bere bizitza hizkuntzen bizitzaren inguruan antolatuko zuen. Granada utzi eta Salamancara joan zen Filologia anglo-germaniarra ikastera. Ondo pentsatutako pausoa, inondik ere: hizkuntzei buruzko bibliografia irakurtzeko beharrezko zituen bi hizkuntza horiek eta, gainera, bazekien Koldo Mitxelena bertan zela.

Ikasketak amaituta, bi urte eman zituen ama gaixoa zaintzen. Hura hil zenean, aitari galdetu zion ea bere alboan behar zuen, horrela izan ezean Nafarroan hasitako zeregina amaitzera joango baitzen. Aitak, Euskal Herriarekin ezelako



Hizkuntza umetan ikasten duenak ibilbide naturala jarraitzen du; bere hizkuntzarekiko motibazioa hizkuntza ez dakiten helduenganako motibazio bihurtzen da. Horrela aktibatzen da, hain zuzen, ibilbide kulturala. **Iturria:** Jose Maria Sanchez Carrion.

loturarik izan ez arren, bere bidea egiteko esan zion. Handik egun batzuetara iparralderako bidea hartu zuen Barbara emaztearekin batera.

Nafarroako Diputazioko Euskara Zerbitzu sortu berrian lan egiten zuen Sole Erbitik lanpostua lortu zion Malerrekako Saldiasen. Urtebete eman zuen bertan eskola maisu lanetan. Garai horretan euskaltzale askorekin hasi zen harremanean: Aingeru Irigarai eta haren seme Jose Angel, J.C. Etxegoien *Xamar*, Iñaki Larrañaga, Txema Larrea, Marga Ezkieta eta beste asko eta asko.

Ondorengo urteetan hara eta hona ibili zen: Burlata, Arrasate, Donostia. Nomada bizitza egin behar justu ume bi izan zituzten garai berean. Ordurako lortua zuen aintzat hartzeko moduko itzala. Horrela gogoratzen ditu Txepetxek urte haiek:

“Trantsizio garaia zen, lehen Eusko Jaurlaritza eta Euskararen Aholku Kontseilua eratu ziren. Pedro Migel Etxenike Kultur Sailburuak deitu ninduen. Euskararen Kontseiluan sartzeko eskaintza egin zidan (...). Hiru aldiz egon nintzen Etxenikerekin eta behin Garaikoetxearekin. Haiei entzun ondoren galdetu nien gauza kontsultibo bat bakarrik ote zen Kontseilua, gero beraiek nahi zuten politika egiteko. Hala bazen ez nuela inongo interesik. Nire erantzukizuna ez zela hizkuntza politika bat legitimatzea, baizik eta lege eta klabe batzuk aurkitzea (...). Haiek ulertu zuten planteamendua, eta nire autonomia errespetatuz Kontseiluan sartu ninduten. Garaikoetxea Jaurlaritzatik bota eta laster kanporatu ninduten.

Baina, aldi berean, gauzatzen ari zen minimoen prozesua sumatzen nuen. Ez bakarrik Jaurlaritzan eta EAJn, bai HB eta beste alderdi guztietan ere. Sentitzen nuen hori ez zela nahi eta espero nuen irtenbidea euskararentzako. Baina beste alde batetik banekien une horretan ez nituela klabe guztiak esateko zergatik bide hori ez zen euskararen iraunbizitzeari zegokiona. Gauzak horrela Londresera joatea erabaki genuen“.

Londresen buru-belarri sartu zen euskararen garaikide ziren Australiako eta Ameriketako hizkuntzen ikerketan. Hizkuntzak bere barnean, bere corpusean daramatzan arrastoak atzeman nahi zituen. Bilaketa ez zen alferrikakoa izan: “Hor gauza batzuk aurkitu nituen, inoiz argitaratu ez ditudanak”, esan zuen hamabost urte geroago. Une hartan gutun bat heldu zitzaion Nafarroako Doneztebetik.

“Doneztebetik idatzi zidaten, esanez euskarazko lerro eskolarra martxan jarri behar zutela, argibide batzuen eske (...). Laguntza eskatu zidatenak lagunak ziren. Lan linguistikoa utziz, beste horretan pentsatzen jarri nintzen. Une horretan etorri zitzaidan burura ikasketa prozesuaren klabea. Flax eta intuizio modura etorri zitzaidan. Esan nuen: hau oso garrantzitsua da. Orduan ez nuen denborarik, baina nire buruari esan nion: hau garatu behar dut, hemen dago falta zaidan beste klabe bat. Banuen klabe bat lehendik, esparruen teoria, baina hor bazegoen beste giltza bat: ikasbide prozesuaren argibidea ematen duena, hiru ontzien uztarduraren klabea.

(...) Udako oporrak sakrifikatzea erabaki nuen. Ahalegin izugarria zen: buru-nekeaz gain, fisikoki nire gorputzarentzat oso gogorra zen Londresko aroa. Familia

penintsulara joan zen eta bakarrik geratu nintzen: han nituen bitarteko guztiak (British Library, besteak beste) eta lan hori izango nuen helburu bakarra. 1982ko uda zen. Berrogei egun bakarti horietan marraztu nituen tesiaren ardatz nagusi guztiak (...). Baina hori egia zen ikusteko frogatu beharra neukan hori dela munduko edozein hizkuntzatan funtzionatzen duen prozesua. Horretarako lau urte behar izan nituen. Lau urte horietan munduko 5 kontinenteetako 100 hizkuntzaren egoerak aztertu nituen. Eta aztertu ondoren ohartu nintzen eredia baliozkoa dela hizkuntzen bizitzaren prozesua esprikatzeko eta, esprikatzeaz gain, bideratzeko.

Fisikoki gero eta okerrago nengoen, eta gainera oso lan xurgatzailea zen. Ohartzen nintzen oso arlo berria zela, arlo kognositibo berri batean nengoela. Eta beste aldetik sentitzen nuen ez zela nire behar pertsonala bakarrik, pentsatzen nuen nire atzetik bazegoela herri askoren eta bereziki une horretan herri oso baten beharra, euskaldunen beharra. Euskaldunen beharrene izenean makina bortxatu nuen. Udako beste lau oporraldi sakrifikatu nituen. Eta lau urteren ondoren, klase bat ematen ari nintzela, ziplo erori nintzen lurrera. Erregaia bukatu zitzaidan. Etxera eramane behar izan ninduten, eta hiltzorian egon nintzen bi hilabetez.”

Zorionez Txepetx onik atera zen, nahiz eta urte eta erdi behar izan zituen suspertzeko. Kanaria uharteetan zegoela Siadeco-ko jendearekin hasi zen harremanetan. Euskal Herrira bueltatzea proposatu zioten; beraien ustez teoria jendarteratzeko premia zegoen. Hainbat lekutan euskara elkarteak ari ziren sortzen eta jende nahikotxok ziharduen lanean antzeko intuizioek bultzatuta. Era berean, bide berrirako teoria eta markoa falta zitzaizkiela sumatzen zuten lagun horiek. Horietako asko Bilbon ari ziren jo eta su, zarata larregi atera barik. Teoria berriak egin beharreko bidea argitu zuenean, esperientzia interesgarriak sortu ziren. Euretako bat Udalaren eta herri mugimenduen arteko elkarlanean oinarritu zen, eta, bere laburrean, hainbat emaitza lortu zituen. Ikus dezagun, honenbestez, zer izan zen Bilbo Euskalduntzen.

Udaleko Euskara Zerbitzua eta Bilbo Euskalduntzen

1987ko udal hauteskundeene ondoren EAJko Jose Mari Gorordo Bilboko alkate izendatu zuten. Gorordok hasiera-hasieratik erakutsi zuen bere jarrera euskaltzalea ekintza zehatzetan gauatzeko asmoa zeukala. Horrela, bi urte lehenago sortutako Euskara Zerbitzua sendotzeari ekin zion. HBko Koldo Celestino zinegotzi abandoarrak hartu zuen zerbitzuaren ardura eta berehala hasi zen beharrean. Celestinok oso ondo gogoratzen ditu hasierako bileretan zehatzu zituztenildoak:

“Hiru bide jorratu nahi genituen. Batetik, udaletxe barruan egin beharrekoak: lehenengo eta behin Lakuatik heldu berriak ziren hizkuntza-eskakizunak gurean ezartzeko plangintza egiten hasi ginen. Udal enpresei zegokienez (Arriaga, kiroldegia, etab.) megafonia, kartel eta abarretan elebitasuna zorrotz betetzeko pausoak eman genituen. Horrez gain, euskararen udal arautegia onartzeko eta Euskararen Normalkuntzarako Batzorde Aholkularia eratzeke lanetan ere ibili ginen.

Bigarren ildo, Udalak berak kanpora begira egin beharrekoa zen. Lehenengotariko neurria oso ondo hartu zuen jendeak: euskara ikasten ari ziren ikasle eta lan-gabetuei diru laguntzak ematea hitzartu genuen. Gurasoentzako, berriz, euskara eskolak antolatu ziren arratsaldeetan hainbat ikastetxetan; ingurune euskaldunetan egiten ziren egonaldiez ere gozatu izan ahal zuten guraso eta seme-alabek. Eskoletako kultur giroa sustatzeko bertsopaper eta ipuin lehiaketak egin genituen. Horiek guztiak egin beharrekoak ziren, baina bagenekien hezkuntzatik haratago joan behar ginela eta euskara auzoetako eguneroko bizitzan txertatu. Sasoi hartan Udala deszentralizazio prozesuan sartuta zegoen, barruti-zentro gehienak orduantxe zabaldu ziren. Testuinguru horretan, euskal txokoak sortzeari ekin genion. Lehenengoak sortzeko auzo oso erdaldunduak aukeratu genituen berariaz: Irala, Otxarkoaga eta Zorrotza. Udaleko kultur eskaintza ere egon zen, jakina: Kukubiltxo, Maskarada eta abarrekin Arriagan eta Camposen egindako zikloa, kontzertuak, eta abar.

Hirugarren ildo, berriz, herri taldeekin elkarlana finkatzea izan zen. Horretarako, diru laguntza politika bat zehaztu genuen, elkarte eta talde bakoitzak bere lana egin ahal izateko behar zituen baliabideak eduki zitzaizkion. Baina bagenekien hori ez zela nahiko, benetako gune komunak sortu beharra zegoela. Beraz, gogoeta eta kontaktuak egin ondoren, 1990eko urtarrilean Bilbo Berreuskalduntzeko Koordinakundea (aurrerago Bilbo Euskalduntzen izena hartu zuena) jarri genuen abian. Hiru bat urtez hilero bildu ginen Mugikako eskoletan hainbat lagun: ni neu, zinegotzia nintzen aldetik, Josejoa Gallastegi teknikaria, eta AEK-ko eta Elkarlaneko euskaltegietatik, *Kili-kili* aldizkaritik, Santutxuko Bertso Eskolatik, Artez enpresatik, PAT zentroetatik¹¹² eta beste zenbait elkartetatik etorritako ordezkariak. Elkarlan horren emaitza izan ziren motibazioaren alde egindako hainbat lan. Esate baterako, *Asfaltoan ere bai* kanpaina; kasu horretan, asmatu egin genuen ikurrarekin eta hiriarren irudi plastiko indartsua euskararekin lotu genuen. Urte asko pasatu diren arren, jende askok gogoratzen du Bilbon kanpaina hura.

Eskolei dagokienez, Udalak D eta B ereduaren aldeko kanpaina egitea lortu genuen. Gauzak asko aldatu dira hogeitaz urteotan; atera kontuak, 1987an D ereduaren Txurdinagako eskolan baino ez zegoen. Bigarrena San Adrianekoa izan zen. Bada, kanpaina hain arrakastatsua izan zen non plaza arazoak sortu baitziren. Azkenik, hitzarmenen bidea ere hasi ginen lantzen. Bilerak izan genituen sindikatuekin, tabernariekin, Merkataritza Elkartearekin, etab. Zorritzarrez, pauso gehiago eman ahal izan aurretik 1991n bertan behera geratu zen hori guztia”.

Gauza bera gertatu zen martxan jarritako egitasmo askorekin. Udalbatzako talde politiko gehienek babesa zeukaten udal arauak, adibidez, ez ziren onartu. Izan ere, agintaldia amaitzeko hilabete batzuk falta zirela, bere alderdi barruan zeuzkan hainbat arazo zirela medio, Gorordok kargua utzi egin zuen. Maiatza bitartean Beti Duñabeitia izan zen behin-behineko alkatea. Hauteskundearen ostean Josu Ortuondo heldu zen Udaleko agintera. Deustuko semeak ez zituen begi onez ikusi bere aurrekoek jorratutako hainbat bide eta, ondorioz, haiek abian jarritako lan-ildo gehienak indarra galtzen joan ziren bera alkatetzan egon zen bi agintaldietan zehar. Halere, hazi batzuk jarrita zeuden eta erne egin ziren hurrengo urteetan.

¹¹² Ikastetxeei aholkularitza eta formazioa eskaintzen zieten Pedagogi Aholkularitza Teknikorako zentroek (PAT). Gaur egun *Berritzegune* deitzen dira.

Aldaketa hori gertatu aurretik Bilbo Euskalduntzeneko koordinatzaile lanetan ibili zen Ibon Arbuluk plataformaren helburu orokorrak jaso zituen idazki batean. Han idatzitakoaren arabera honako hauek ziren xede nagusiak:

“Hiri bizitzako esparru berriak irabazi euskararentzat; euskararekiko motibazioa eta bere ezagupena eta erabilera bultzatu; erdaldunak euskararekiko jarrera positiboetara eta ezagupenera erakarri; eta mota, pentsaera eta adin guztietako euskaltzaleak bildu euskararen aldeko jardunean bat eginez.

Helburuok betetzeko hiru dira landu beharreko aspektuak:

1. Bilboko euskal hiztunak trinkotu, konpaktatu. Asmo honen muina hiztun osoak biltzea litzateke, hau da, gune sinbolikoa¹¹³ nuklearizatzea eta artikulatzea (...). Trinkotzea ez da parametro ideologikoetan kokatu behar besterik gabe, herri mailako sektore desberdinetako jendea inplikatu behar da.

2. Bilboko erdaldunengana zuzendutako irradiazio lana. Euskararen presentzia sentiarazi behar zaie eta euskal komunitatean integratu nahi dutenei bideak jarri behar zaizkie.

3. Erakunde publikoekin elkarlana, bereziki Udalarekin. Udalak erabilera area-gotzeko asmoz sortutako erakundeei laguntza eta babesa eskaini behar die. Ahal dela, Udalak talde horiekin batera garatu behar ditu bere egitasmoak. Beraz, Udalaren eta herritarren arteko elkarlana eta osagarritasuna lortzera jo behar da.”

Gorago esan dugun moduan, elkarlana eta osagarritasuna ez ziren erabat galdu, baina sendotu zirenik ere ezin dugu esan. 1991ko udaberrian EAJko Ana Rekak hartu zuen Euskara zinegotzi kargua. Reka lau urtez egon zen ardura hori betetzen; 1995ean, berriz, Euskara Zerbitzua Kultura zinegotziaren menpe geratu zen eta horrela jarraitu zuen 2003an udal agintariekin berriro bereiztea erabaki zuten arte. Honela gogoratzen ditu Rekak lau urte haietan zehar egindakoak:

“Lanari ekin genionean gure asmoa ez zen izan, inondik inora, aurrekoek egin-dako guztia geldiaraztea. Izan ere, eutsi egin genion hainbat ekimeni, adibidez, ipuin lehiaketari. Euskal Txokoen kasuak argi erakusten du gure borandatea: Irala, Otxarkoaga eta Zorrotzarekin hitzarmen bana sinatu genuen eta hitzarmen horiek izan ziren Txokoen iraupena bermatu zutenak.

Udalari dagokion suspertze-lana dela eta, Barrainkuako Udal Kultur Etxean 1992tik 1994ra antolatu genituen hiru jardunaldiak aipatuko nituzke. Hirurak izan ziren maiatzean eta gai bakar bat ardatz harturik atondu genituen. Lehenengoetan soziolinguistika kontuak aztertu ziren; bigarrenetan, berriz, Bizkaiko euskararenak; 1994an, azkenik, *Iturritik* izenburupean gure herri zahar honen dantza, kanta eta ñabardura lexikoei hurreratzeko ahalegina egin zuten “*betiko iturri zaharreko ur berria dastatu duten gutxi horietako batzuk*” lagun harturik.

Beste alde batetik, ni zinegotzi egon nintzen denboran bi jaialdi handi ospatu ziren Bilbon: 1994an Abusun egin zen Ibilaldia eta 1995ean, berriz, Euskal Eskola

¹¹³ Txepetxen teoriaren arabera, AB eta BA multzoetako hiztunek osatzen dute gune sinbolikoa. Lehenengoan daude etxean jasotako hizkuntza kulturalen murgilduz osatu dutenak; bigarrenetan, eskolan edo euskaltegian ikasitakoari erabileratik abiatuz bigarren buelta bat eman diotenak. Beste era batera esanda, bi zirkuituak (naturala eta kulturala) burututa, euskaraz bizi diren hiztunen multzoak.

Publikoaren lehenengo jaia Etxebarria parkean. Batean zein bestean harreman estuak izan genituen antolatzaileekin eta ahal izan genuen neurrian lagundu egin genien jaiegunak arrakasta osoz ospa zitezen. Uste dut ederto atera zirela; Udale-
tik, behinik behin, era positiboan baloratu genituen.”



Bilboko Udalak antolatutako
III. Jardunaldietan koloreak, kantak,
dantzak eta beste kontu asko izan
zituzten berbabide.

Iturria: Bilboko Udala.

Dena dela, kanpoko eragileekin lan egitera baino, indarrik gehienak barruko lanak antolatzen bideratu zituzten. Egia esan, bazegoen zeregina. Hizkuntza eskakizunak indarrean jartzen hastea egokitu zitzaion Ana Rekak zuzentzen zuen lan taldeari. Honelaxe kontatu digu Rekak orduan egindakoa:

“Zinegotzi aritu nintzen lau urtekoan udal funtzionarioen euskalduntzeari ekin genion. Ziurrenik, bi muturretako jendea ez zen pozik geratu: batzuentzat gehiegizkoa zena, beste batzuentzat oso geldoa zen. Guk pauso batzuk eman genituen eta sail batzuetan ez bazen gehiegi nabaritu, beste batzuetan, ordea, nabarmen aurreratu genuen. Azken horien artean Gazteria eta Kirol Saila eta Udaltzaingoa aipatuko nituzke. Beste alde batetik, ukaezina da itzalak ere egon zirela. Oraingo perspektibarekin begiratuta, adibidez, begitantzen zait motz geratu ginela udal enpresen kasuan, ez baikenituen plangintza horretan sartu.

Badago azpimarratu beharreko beste kontu bat. Lanpostuak hizkuntza eskakizuna izan ala ez, beharginak euskaldundu nahi izan duenean Udalak erraztasunak

eman dizkio. Asko dira neurri horri esker euskaldundu diren langileak, goizez zein arratsaldez (beti lan orduen barruan) Udalak berak ordaindutako eskolak jasoz.”

Hiriaren pasaia linguistikoa egindako aldaketa bat aipatuz amaitu du Rekak atzerako begirada:

“Garai hartan hiriaren birmoldaketa ari ginen taxutzen. Gune eta auzo berriak sortzeaz gain, betiko batzuetan ere berrikuntzak izan ziren. Otxarkoagan, esate baterako, etxe multzoak zenbakien bitartez izendatzen ziren; sistema horri desegoki iritzirik, Udalak batzorde bat eratu zuen kaleei izena emateko. Lan polita egin genuelakoan nago, inguru hartako baserri eta leku-izenak hautatu baikenituen. Era honetan, batetik, auzoari kolore euskaldunagoa eman genion eta, bestetik, geure historiaren zatitxo bat berreskuratu genuen.”

Atal honekin amaitzeko, 1992ko Soziolinguistika Jardunaldietara bueltatuko gara. Izan ere, orduantxe izan zuten bilbotar askok hizkuntzaren gorabeheraz apur bat gehiago ikasteko aukera. Bidebarrietako liburutegira bildu ziren entzu-leen artean hiriko auzo urrunenetatik iritsitako hainbat euskaltzale zeuden, tartean aurreko urtean sortutako Euskal Txokoetako kideak. Goazen, bada, egitasmo horiek ezagutzera.

Irala, Otxarkoaga eta Zorrotzako Euskal Txokoak

Gorago esan dugun moduan, 1990ean hiru euskal txoko sortu ziren Bilbon. Bakoitzak bere ezaugarri propioak eduki zituen arren, handiagoak izan ziren antzekotasunak: hirurak jaio ziren Koldo Celestino zinegotziaren ekimenez eta, ondorioz, diru publikoa erabili ahal izan zuten ikastaroak eta jarduerak antolatzeko; hirurek zeukaten harreman estua AEKko euskaltegiekin eta, azkenik, hirurak kokatzen ziren hiriko zentrotik urrun eta auzune oso erdaldunduetan. Bitor Rueda zorrotzarrak honela gogoratzen ditu hasierako urte haiek:

“ Sasoi hartan hogeitaz bat lagun biltzen ginen auzoan ikasi berri genuen euskara erabiltzeko asmoz. Izen Barik Mintzataldea deitu genion taldeari, ez genuen burua apurtu horrekin; izenak baino izanak kezkatzen gintuen gehiago, hau da, Bilbo erdaldunean euskaraz bizitzeko gogoak. Orduan proposamen interesgarri bat heldu zitzaigun Udaletik. Celestinorekin bildu ginen eta, dirua eta hitzarmen bat agintzen zizkigula ikusirik, Euskal Txokoa egitea erabaki genuen. Lehenengo urtean jaso genituen 100.000 pezetekin hainbeste gauza antolatu genituen, besteak beste, Maskaradaren emanaldi arrakastatsua. Bigarren urtean bi milioi eta erdira igo zen diru laguntza. Ordurako egun erdiz ziharduena dinamizatzailerik ez zekukan Txokoak, ni neu alegia, eta diru horren zati handi bat soldatari zegokion.

Beste alde batetik, formatu beharra geneukala sentitzen genuen. Beste askoren antzera intuizioak eta senak ematen zizkiguten gakoei jarraituz ari ginen jokatzeko. Asmatu egin genuen hainbat gauzatan, baina, sarritan, galdu samar ibiltzen ginen. Ez genekien oso ondo zertan genbiltzan. Beraz, mugitzen hasi ginen. 1991n Txe-



Kulturaren eta erabileraren sustapenak eta euskararekiko axolagabekeriaren salaketak zedarritu dute zorrotzarren jarduna. **Iturria:** Zorrotzako Euskal Txokoa.



petx auzora ekarri genuen hitzaldi bat ematera. Horrez gain, gutariko batzuk Arrasatera joan ginen jardunaldi batzuetara; izan ere, Arrasate Euskaldun Dezagun euskara elkarteko jendea aitzindari izan zen hizkuntzaren berreskurapena bide berrietatik eroateko orduan.”

Hasierako gogo biziak eta asmo handiak higatuz joan ahala lagun kopurua ere murrizten hasi zen. Bittorrek bera eta beste pare bat lagun baino ez zeuden garairik ere gogoratzen du. Hala ere, inoiz ez zuten amore eman eta urtero-urtero euskara erabiltzeko aukera politak eskaini zizkieten zorrotzarrei. Bittorren berbek egindako lana irudikatzen lagunduko digute:

“Ikastaro asko egin genituen, asko benetan: masajea I eta II, gitarra (Gontzal Mendibilekin), bizkaiera I eta II, txalaparta, argazkigintza (laborategi eta guzti), sukaldaritza, bertsolaritza, eta abar. Irteerak antolatzen ere ez ginen makalak. Inor joaten ez zen garaian maskaradak eta pastoralak ikustera joan ginen; mendiko

botak ere askotan jantzi genituen eta hainbatetan Lizardiko Mintza Taldearekin batera izan ziren mendi irteerok. Hori ere esan beharra dago: gure lan esparrua auzoa zen, baina guretzat garrantzitsua zen beste bi txokoekin elkarlanean aritzea Bilbo osoko ikuspegia lantzeko. Ikastaro eta irteeren kartelak, beraz, *Bilboko Euskal Txokoak* izenburupean atera genituen hainbatetan.”

Bazekiten, era berean, hizkuntza kontuetan hiri paisaia ez dela neutroa:

“Komertzioaren izen generiko euskalduna (okindegia, taberna, zapata-denda, etab.) eskaini genien Zorrotzako denda eta taberna guzti-guztiei. Berrehun batek baietz erantzun ziguten, kontu honekin bete-betea asmatu genuen. Fin ari ginen lanean eta auzokide gehienek aurrean erreferentzia bihurtu ginen era batera edo bestera. Horren isla da Batzokiak edota Casa del Pueblak aipatutako kartel horiek jarri izana. Hamabost urte eta gero oraindik geratzen dira batzuk”.

Hiriaren beste muturrean ere antzera batean zebiltzan iralarrak eta otxarkoagarak. Autopistarako irteeratik gertu zeukan egoitza Iralako txokoak, auzo etxean. Amaia Andonegi mutrikuarra aldameneko auzoan bizi zen, Errekalden. Honela gogoratu du bere lehen harremana Iralako Euskal Txokoarekin:

“Laurogeiko hamarkadan Errekaldeko AEKren euskaltegian aritu nintzen Josu Muguruza, Iñaki Gaminde eta beste batzuekin batera. AEKren hasierak ziren eta euskaltegiaren inguruko batzuek taldetxo bat osatu genuen euskarari bultzada emateko. Hezkuntzan ere hasiera sasoiak egokitu zitzaizkidan; elebitasun dekretua zela eta hizkuntza-ereduak ezarri ziren. Errekaldeko eskoletan egon ondoren maistra plaza eskuratu nuen Txurdinagan eta gure eskola izan zen D ereduak ezarri zuen lehenengo. Urte batzuen buruan, lan utzialdia eskatu nuen. 1991-92 ikasturtea zen.

Aldi horretan egin nuen Aretxabaletako soziolinguistika ikastaroa. Bertan bilbotar hauekin egin nuen topo: Joserra Garai, Alvaro Libano eta Josu Delgado. Orduan Delgado zegoen Iralako euskal txokoan eta 1993an ardura



Iralako Euskal Txokoak eta Errekaldeko Urbegi euskara taldeak 1995ean ateratako egutegia.

Iturria: Iralako Euskal Txokoa.


hartzea proposatu zidan. Zalantza beteta egon arren baietz esan nuen. Azken batean, beti sentitu izan dut grina hori, euskararen alde neure ekarpena egiteko gogo hori, eta txokoa horretarako leku aproposa begitandu zitzaidan. Zailtasunak zailtasun, dinamika polita sortu genuen. Bolada batean Zorrotza, Otxarkoaga, Santutxu, Deustu, Errekalde eta Irala koordinatzera iritsi ginen.

Urte haietatik gauza bat azpimarratzekotan, hainbat etorkinen seme-alabengan ikusi nuen gogoia izan ahal da. Zorrotzako Bittor Rueda, Otxarkoagako Cristina Sanchez eta beste askok erakusten zuten euskaltzaletasuna biziki estimatzeko modukoa zen.”

Amaia bost urtez egon zen Iralan. Kementsu ekin zion arren, ez zen lan erraza izan:

“AEK-koekin hainbat gauza egin bagenituen ere, askotan bakartze sentipena zen nagusi. Ez neukan lan guztiari zentzu gehiago emango zion elkarte edo lantalde bat inguruan; horrez gain, txokoe-tatik bideratzen genituen egitasmoetatik at ez zegoen Bilbo osorako dinamikarik. Zulo hori bete nahian hiriko lau bazterretako hogei bat lagun hasi ginen biltzen: batzuk Aretxabaletan ezagututakoak, beste batzuk txokoen ingurukoak, handik eta hemendik batu zitzaizkigunak... Hiriko euskara elkarteak sortu nahi genuen eta izena behintzat jarri genion: Ibaizabal-Bilbo Berbetan. Askoz gehiago egitera ez ginen ailegatu ordea. Neurri batean noraezean genbiltzala sentitzen genuen, ez genekien nondik heldu lanari era eraginkor batean. Apurka-apurka taldea mehetuz joan zen. Elkartek aurrera ez egitearen arrazoiak asko dira, baina funtsezkoena honako hau zela esango nuke: ez geunden behar beste prestatutarik halako helburu handiari behar den moduan heltzeko, ez planteamenduetan, ezta bitartekoetan ere.

Ni, hala ere, ez nengoen amore emateko eta agenda bat egin ahal genuela otu zitzaidan. Horrela, 1995eko maiatzean *Bilbo Berbetan* agendaren lehenengo zenbakia atera genuen. Hirian euskararen



Ibaizabal agendaren lehenengo zenbakia.
Iturria: Ibaizabal-Bilbo berbetan.

inguruan egiten ziren guztiak jasotzen ahalegintzen ginen; ez zen samurra, norma-lean jendearen atzetik ibili behar izaten bainuen.”

Agenda 1999ko ekainean kaleratu zen azkenekoz. Lehenengo zenbakiari erreparatzen badiogu, ordea, lurrikara txiki bat eragingo zuen elkarte baten berri izango dugu. Izan ere, 1995eko maiatzean Zenbat Gara elkarte goraldi ikusgarri bati ekiteko zorian baitzegoen: agendako sei ekitaldi elkarte horrek antolatu zituen (bertso afaria Amuriza eta Mañukortarekin Cafe Boulevard-en; Hiru Truku-ren kontzertua Indautxuko El Carmen aretoan; Fermin Muguruzaren bideo emanaldia eta hitzaldia Burtsa auzo etxean; Beñat Axiari-ren kantaldia Deustuko Hizkuntza Eskolan; Tomas San Miguelen kontzertua Peritu Eskolan eta bertso afaria Lizaso eta Sorozabalekin Cafe Boulevarden). Ez dira kontu gutxi hila-bete baterako, ez horixe. Duda barik, zer edo zer ari zen egosten Bilboko Kale Nagusiko Gabriel Aresti euskaltegian...

Bilbon ez dela euskararik entzuten? Zenbat Gara elkarte eta Bilboko Kafe Antzokia

Udaberri hartan Arestiko arduradunen buruei kea zerien. Ez da harritzekoa: Gabonetarako Albiako Done Bikendi elizaren alboko eraikina guztiz eraldatu nahi zuten kafe antzoki bat sortzeko. Ehun eta hogeitaz lehenago Abandoko baserritarren bilgune izandakoa Bilboko euskaldun hiritar eta kosmopoliten topaleku bihurtu gura zuten. Jauzi hori emateko indarrak, bistan dago, ez dira biltzen egun batetik bestera. Teo Etxaburuk laburtu digu proiektu hori bultzatu zutenen ibilbidea:

“1982an Algortako AEK-ren ardura hartu genuen Jabi Lauzurikak, Joseba Campok, Andoni Feijook eta laurok. Hasieratik ikusi genuen kale dinamika piztearen garrantzia; euskara eguneroko bizitzarekin, funtzio errealekin lotzea zen gure asmoa eta horri ekin genion. Bertso ikastaroarekin, afariekin, irteera eta abarrekin, sekulako martxa atera genuen eta, ondorioz, jendea pozarren hurreratzen zen euskaltegira. Bi urtetan 160 ikasle izatetik 500 ikasle izatera pasatu ginen. Gutako batzuek, bestelako esperientzietan ibili ondoren, eraikuntzarako bideak frogatu nahi genituen. Estatua suntsitzeko iraganeko urgentzia harekin ez gindoazen inora, hori behintzat ulertu genuen ordurako. Pare bat urteren buruan, aldaketa batzuk zirela eta, utzi egin genuen Algorta. Esperientzia oso aberasgarria izan zen, intuitiboki genekiena frogatu ahal izan baikenuen: batetik, autoeraikuntzaren balioa, hau da, ametsetan ibili barik dauzkazun indar errealekin eraikitzearen garrantzia; bestetik, lehen esandakoa, euskara gune funtzionalekin lotu behar zela (ile-apaindegia, jate-txea, autoeskola, etab).

Bilbo erdian zegoen Gabriel Aresti euskaltegian sartu ginen Lauzurika eta biok. AEK-ren filosofiarekin gentozen, eta nahiz eta Aresti ez izan koordinakundeko partaide, Algortan egindako bide beretik egin genuen. Berrogei bat irakasle izango ginen han eta guztiok ez ginen iritzi berekoak. Hamaika kontu eta gero 1988-89 ikasturtean geuk ikusten genuen ildotik jarri ginen lanean guztiok. Emaizak asma-



Kafe Antzokiaren proiektuarekin jende askoren asmoek bat egin zuten.

Iturria: Zenbat Gara Elkartea.

tu genuela erakutsi zigun: ikasturte horren hasieran 320.000 ikasle-ordu izatetik, sei urtetan 950.000 ikasle-ordu (2.600-2.700 ikasle inguru) izatera pasatu ginen.”

Albiako eraikina hogeita bost urterako alokairuan hartu ondoren, garai horretan hasi ziren itxuratzen egitasmo asko:

“Txangoak eta irteerak ere garrantzitsuak ziren. Euskal Herria zer den erakutsi nahi genien ikasleei, errealitatea bera erabiliz: ez paperean irakurriz edota mitinak entzunaraziz, baizik eta barnetegiak Saran edo Donibane-Lohizunen antolatuz. Bakaikuko etxea ere sasoi horretan erosi genuen, 1992-93 ikasturtean. Horri esker ehunka dira Sakana sakona eta Gipuzkoarik gordeena (Ataungo sagardotegia hurrerean dago) ezagutu duten hiriburu-kumeak. Bestalde, bagenekien zer ez genuen nahi: adibidez, ikasleak beheko tabako dendara edo beste nonbaitera bidali ariketa bat baliatuz euskaraz egin behar dela predikatzera. Hainbat euskaltegitan horrela-koak ere ikusten ziren eta!

Beste alde batetik, hainbeste ikasle izanik, tresnak behar genituen elkar ezagutza errazteko: barne-aldizkaria atera genuen, euskaltegirako irratia ere atondu genuen, Piolet literatura saria, etab. Hori guztia gauzatzeko, jakina, irakas-

leen inplikazioa ezinbestekoa zen. Baina hori, giro ona dagoenean, ez da izaten arazoa.”

Gabriel Aresti euskaltegian gero eta gehiago ziren jauzi bat ematearen aldekoak. Herri txiki eredugarri bat egitea zen ametsa, non eta Bilbo erdian. Oinarri teorikoaren faltan ez zeuden arren, hamarkadaren erdialde hartan are gehiago landu zituzten egitasmoaren nondik norakoak. Prestatze eta gogoeta lan haue-tan, beste askoren artean, Txepetx bera eta Siadecoko Iñaki Larrañaga ere buru-belarri ibili ziren.

1994an begiz jo zuten Albiako etxe bat; *Albia, donde guztien habia*, Aban-doko bihotza, Sabino Arana, Txabi Etxebarrieta eta Gabriel Arestiren sorterrria. Nekez aurkituko zuten kokapen egokiagorik euskarak jasaten zuen baztertz-e goerari aurre egiteko. Eraikinak baldintza guztiak betetzen zituen: beheko solai-ruan taberna eta kontzertu aretoa moldatzeko modua; goiko bost solairuetan, berriz, behar ziren ikasgelak ateratzeko adina leku. Ikasgelak, eta baita ikasgela ez zirenak ere: frontoi txiki bat eta sauna bat egiteko ere eman zuen, hortik ate-ra kontuak. Eta zazpigarren pisuko ganbaran, *ziutate*-ko teilatuei begira, Bilbo Hiria Irratia atondu zuten.

Aurrez ikusten zituzten lan guztiei eusteko jendea behar zen ordea. Aukeran jende fin, euskaltzale eta eskuzabala. Beraz, 1995eko udazkenean euskaldunen

100 Lanpostu Berritarako Deialdia
"ZENBAT GARA" kultur elkarteak partaideek eta "G. ARESTI" euskaltegiko ikasleek lehentasuna izango dute

1995ean lanean hasteko	
KAFE ANTZOKIA • Musika eta argiaren teknikaria (1) • Zerbitzariak (24) • Garbitzaileak (2) • Sukaldariak (8)	SAN VICENTE AKADEMIA • Irakasleak: • "D" ereduari ari diren ikasleel asgnaturak euskaraz emateko (7) • "A" ereduakof euskara irakasteko (4) • Ingelesa, alemana, informatika, txistu... (5)

1996rako aurreikusten direnak	
• Ordenadore teknikariak (2) • Eskatzen da: diseinu grafiko eta autopedizioan espezialista (Freahand, Quark, Photoshop eta MAC ingurua manperatzen dituzten) • Monitorea (16)	• Liburu eta abarretarako alimazentista-bulagaria (1) • Lantzen hirulabelakari eta lmatirako (5) • Komertzialeterako eta propagandarako (8)

Deiak Urriaren 9tik aurrera jasoko dira. Tfnoa: 423 75 91

Iragarki honi esker jakin zuten bilbotar askok zertan zebilen Zenbat Gara elkarteak.
Iturria: Zenbat Gara Elkarteak.

arten bolo-bolo zabaldu zen lan-eskaintza iragarri zuten *Euskaldunon Egunkaria*-n. Iragarkiak irakurle axolagabeena ere erakartzeko moduko osagaiak zituen: batetik, lanpostuen kopuru (100 inguru) eta izaeragatik (denetarik, hasi sukaldariekin eta diskojartzaileekin amaitu); bestetik, proiektuak berak sortzen zuen ikusminagatik (“kafe antzoki euskalduna Abando erdian!”); eta, azkenik, merezimendutzat hartzen zelako intsumiso izatea. Gogoratu beharra dago urte haietan ehunka zirela armada espainolean zerbitzatzeari uko egiten zioten gazte euskaldunak, tartean Zenbat Garako hainbat kide. Ez kasualitatez; izan ere, borroka antimilitarista (ez soldadutzaren aurkako borroka hutsa) elkartearen filosofiarekin bat zetorren, eta, adostasun hori adierazi nahian, Zenbat Garakoek gazte zigortua izatea merezimendutzat hartzea erabaki zuten.

Jendea erruz aurkeztu zen eta urte amaierarako dena zegoen prest. Abendu hartan haize berri batek hartu zuen Albia ingurua eta bilbotar askoren buruan sustraituta zegoen ustea arrakalatzen hasi zen; hau da barneratzen hasi zirela [euskara = Zazpikaleetako taberna *pegataz* josia-iluna-ghetto kutsuduna], edota [euskara = bertsolari astunak, patxarana eta txapela] ekuazioak okerrak zirela. 1995eko Gabonetan Kafe Antzokira hurreratu zen orori mezuak begietatik (este-



Pellot itsaslapurrak ondo jasotzen ditu Zenbat Gara elkarteak zabaldu nahi dituen irudia eta mezua. Iturria: Zenbat Gara Elkartea.

tika zainduan egindako kartelak) zein belarrietatik (arretaz aukeratutako musika) sartzen zitzaizkion. Euskara mezu eraikitzaile eta aldi berean alai eta festagirokoekin uztartzea zuten helburu. Testuinguru horretan ulertu behar da garai berean sortu zuten Algara konpartsaren ikurra (Pellot itsaslapur lapurtarra, alegia) eta bere garrasi jostalaria: *I'm Pellot, biba festa!*.

Antzokira hurbiltzen zirenek barneratzen zituzten gauza bakarrak ez ziren mezuak, ezta hurrik eman ere. Gauez ibili nahi zuenak bazeukan non eskatu edatekoa eta baita norekin berba egin, dantzatu edota mutiletan edo neskatan egin; egunez, berriz, beheko solairua berriketan egoteko edo bazkaltzeko leku aproposa bihurtzen zen. Jatetxe horri esker ikasi zuten bilbotar askok eta askok, hain zuzen ere, lekak urdaiazpikoarekin, oilasko paparra gaztarekin, sagar tarta hutsa eta beste jaki asko euskaraz eskatzen. Hortaz, euskara, ondo pasatzea eta Bilboko erdigunea ez ziren antagonikoak. Are gehiago: goiko solairuetan euskara ikasten hasi zirenek bakoitzaren zaletasunetan sakontzeko aukera harrigarriki zabala aurkitu zuten. Ordura arte eskainitako ikastaro klasiko guztiez gain, hainbat eta hainbat lantegi berri jarri zituzten martxan Done Bikendiko eraikuntzan (eta baita Kale Nagusian ere, hango euskaltegiari ere eutsi egin baitzioten). Gainera, Internet, sexologia, serigrafia, yoga eta abarrak ikastorduen barruan txertatu ziren, hau da, gramatika albo batera utziz, euskararen ikas-prozesuan sakontzen zuten bizitzaren alor zehatzak landuz. Beraz, bizitza eta hizkuntza, hizkuntza eta bizitza, koktel berean sartu gura izan zituzten.

Horiek guztiak ikasleentzat ziren, hau da, barrura begirakoak. Horrez gain, jende guztiari irekitako bi ekitaldi arrakastatsu hasi ziren antolatzen hilean behin: bata, *Urbeltzen dantza ganbara*; bestea, *Lagunartean kantari*, hau da, betiko kantuei ekiteko aukera, Anje Duhalderen gitarra eta ahotsa lagun zirela.

Lapurtarra ez zen izan Antzokian hasieratik aritu zen musikari edo artista bakarra. Proiektua mamitzen zihardutela, Ruper Ordorikak edota Josu Zabalak euren ekarpenak egin zituzten. Behin Antzokia martxan jarrita, Zabala bertan geratu zen beharrean, programazio musikalaren ardurarekin. Areto handi batean funtsezkoa den musika jartzeko ardura, berriz, Cancer Moon taldean ibilitako Josetxo Anituari egokitu zitzaion.

Jose Angel Irigarai poeta ere hasiera hasieratik murgildu zen hiria eta euskara, iragana eta etorkizuna uztartu nahi zituen asmoan. Geroago, beste artista eta sortzaile batzuek ere harreman estua izan dute Done Bikendiko etxearekin: Gari, *Xamar*, Txuma Murugarren, Kirmen Uribe, Rafa Rueda, Amuriza, etab. Teok dioskunez:

“Hasieratik izan dugu kultura munduko jendeari aterpe bat, bilgune bat eskaintzeko borondatea. Gure lana hor bukatzen da: gero teilatu beraren pean elkartze horrek bestelako fruiturik ematen badu, ondo dago; izan ere, emaitza zehatzik ere ez dugu behar, bai ordea artistek elkarri eragitea eta elkar aberastea. Alde horretatik zer edo zer lortu dugulakoan gaude.



Zenbat Gara elkarteak arreta bereziz zaintzen du umeen arloa. Iturria: Zenbat Gara Elkarte.

Kultura dela eta, Gara argitaletxea sortu genuela ere esan beharra dago. Garak, besteak beste, Hizkuntzaren Biziak argitaratu zuen, Jon Sarasuak Txepetxi eginda-ko elkarrizketa-liburua. Tarte batez gehienbat soziolinguistika gaiak jorratzen zituen Zenbat Gara bihilabetekaria ere atera genuen”.

Txepetx bera ere mugildu egin zen dinamika sortu berrian. Hala ere, hainbat desadostasun zirela medio, bi urteren buruan utzi egin zuen Zenbat Garakoek eskaini zioten aholkulari postua eta aldendu egin zen egitasmotik.

Atal honekin bukatzeko Bilbo Hiria Irratian ibili ziren bi kideren berbak jaso-ko ditugu. Fermin Etxegoienek zazpi bat urte eman zituen zazpigarren solairuko arrano-habiko mikroaren aurrean:

“1995ean nire neskalaguna Gabriel Arestin zebilen euskara ikasten. Bere irakas-le Iñaki Larrañagak eman zidan Antzokiko proiektuaren berri eta bertan parte hartze-ra animatu ninduen. Telebistako lanak amaituta langabezia geratu nintzen eta baiez-koa eman nion. Beste batzuek ere erantzun bera eman zuten. Bat aipatzekotan, Jose Angel Irigarai aipatuko nuke, nire ustez ekarpen garrantzitsua egin baitzuen. Irigarai ez da edozelako gizona: gu denok baino zaharragoa bada ere, euskalduna eta moder-noa da muineraino; esate baterako, guk Gasteiz ezagutu ahal duguna baino hobeto ezagutzen du Jose Angelek Paris. Niri dagokidanez, Irratian *Ziutateaz* magazina egin nuen hainbat urtez, gehienbat kulturaren inguruko gaiak jorratu nituen.

Orain, perspektibarekin begiratuta, etapa interesgarria izan zela esango nuke. Antzokia bera dela eta, apunte bat: Euskal Herrian ez dago beste areto handirik non entzun ahal dituzun gau berean Kuraia edo Rupert eta udako abestia. Zaila izaten da oreka horri eustea ageriko kuotak ezarri barik, baina uste dut musika jartzen ibiltzen direnek lan handia egiten dutela. Badago beste kontu bat ere: eskaeren kudeaketarena, hain zuzen. Pentsa, asteburuko gau batean ehun lagun joan ahal zaizkio disko-jartzaileari abesti hau edo disko hura eskatzera.”

Txus Arrieta Bilbo Hiria irratian ez ezik Gabriel Aresti euskaltegian ere ibili zen. Berak ere kanpotik begiratzen ditu orain bai antzokia bai euskaltegia:

“Bere garaian Antzokiak klixek asko apurtzen lagundu zuen. Klixek horiek bi multzotan banatuko nituzke: batetik, erdaldunek gutaz zituztenak, eurak ia konturatu barik zerekin lotzen zuten euskara eta euskaldunak; bestetik, geuk geure buruarekiko genituenak. Zenbat Gara erruki barik sartu zen aurreiritziz beteriko eremuan eta bere bidea egin zuen: enpresa izaera sendoa eta euskara bateragarriak zirela erakutsi zuen, pop eta rock musika (hasi funketik eta segi azpiestilo guztietan zehar post-punkeraino) eta euskara estuki uztartu zituen; berba batean, hirian bizitzeko eta mugitzeko estilo berria erakutsi zuen. Estilo hori berori ere denboraren poderioz klixek edo estereotipo bihurtu da neurri batean, baina une hartan tipologia berri bat osatzen zuen euskara ikaslea hurbilarazi zuen euskaltegira. Kontzertuei dagokienez,



Musikari bilbotar(tu) ugariren bilgune da Kafe Antzokia. Argazkian, Francis Diez, Rafa Rueda eta Aiora Renteria. **Argazkia:** Zenbat Gara Elkarte.

berriz, zer esan! Ikaragarri luzea da Antzokitik pasatu diren bertoko eta atzerriko taldeen zerrenda. Zalantza barik, erreferentzia bihurtu da bai taldeentzat bai kontzertuzaleentzat.”

Mila eta bostehun ikasle inguru, ehundik gora lanpostu, berrehun bat bazkari egunero, mila pertsona baino gehiago Lagun Txartelarekin... Antzokiko eta Zenbat Garako zenbakiek txiki uzten dituzte gainontzeko bazterretan egin direnak. Bistan dago solas hutsetik haratagoko errealitate bat gauzatzea lortu zutela. Baina datu hotzak ezin dira izan neurgailu bakarra. Askoz ere modu xumeagoan izan arren, euskaltzaleek lan handia egin dute hiriko beste hainbat auzotan, bereziki Deustualdean, Begoñako lurretan eta Zazpikaleetan. Ikus ditzagun, bada, egindakoak.

Deustuari Euskara Dariola eta *Hitza Hartu* aldizkaria

Laurogeiko hamarkada amaieran, hiriko beste leku askotan moduan, Deustu aldean ere jende askok dinamika berrien premia sumatzen zuen. Gainera, Elorriaga mendiaren magalean bizirik zeuden bai herri izaera, bai iragan euskaldunarekiko lotura. Honela gogoratzen ditu Karlos Gonzalezek orduko garaiak:

“Hogeita hiru urte nituela, Euskal Filologia amaitu berritan, euskararen alde egiteko gogo bizia sentitzen nuen. Giro politikoa ere gori-gori zegoen urte haietan; ez nion beldurrik ardurak hartzeari eta 1988an HBren herri-batzordean sartu nintzen. Orduan gaztelania zen nagusi herri batzarretan, gutxi batzuk baino ez genion eusten euskarari. Hurrengo urtean Juanxu Hidalgo sartu zen batzordean eta aliatu ezin hobea topatu nuen berarengan, berak ere beti egiten baitzuen berba euskaraz. Askotan esan dena frogatu genuen orduan, hau da, pertsona jakin batzuen jarrerak multzoa norabide jakin batean jarri ahal duela; pentsa, asanblea batean ondoz ondoko hamahiru partehartze euskaraz zenbatu genituen! Kopuru harrigarria zen orduan, *castellano*-aren aldeko inertziak orain baino askoz indar handiagoa baitzeukan”.

Herriko tabernen inguruan arazoa, neurri batean, erabilerarik eza zen. Baze goen berba egiteko gauza zen jende kopuru garrantzitsu bat, baina askok euskara kontu sinbolikoetarako baino ez zuten erabiltzen (agurrak, eslogan politikoak, etab.). Baina bazeuden bilgune euskaldunagoak; Deustuko Ikastolan eta Intxixu Ikastolan ikasitakoak, adibidez, asko ziren, eta gazteak elkartzen hasi zirenean agerian geratu zen ikastetxe horiek egindako lana. Gonzalez mintzo zaiagu berriro ere:

“1988ko udaberrian Done Petriko Villota apaizak bilera batera deitu zituen antzinako elizateko elkarte eta alderdi guztiak. Bere proposamena honako hau zen: arloka antolatzea eta Udalaren aurrean ahots bakar baten bitartez agertzea gure auzuneetako gabezia eta premiak. Gazteok, beraz, dinamika interesgarri bati ekin genion eta, leku desberdinetatik gentozen arren, ia bi urtez bildu ginen. Bilera haie-

tan sortu zen gazte asanblada eta baita gaztetxearen aldeko eskaera. Gorordo zegoen alkate eta prest agertu zen negoziatzeko; horrela, Udalak bere gain hartu zuen merkatu zaharreko etxetxea berrizatzeko lanen ardura. Gure artean, berriz, hamai-ka izan ziren eztabaida piztu zuten gaiak; eztabaidok, euskaraz izaten ziren %80an edo. Datu hau oso kontuan hartzekoa da, erabilera erreala, kalean, hutsaren hurrengoa baitzen urte haietan.”

Giltza eskuratzekotan zeudela, aldaketak izan ziren Udalean. Lokala prest zegoen arren, alkate berriak ez zuen presarik giltza gazteei emateko. Azkenean okupatu egin zuten azoka zaharra. Garai hartan Karlos eta beste batzuek lekukoa belaunaldi berriaren eskuetan utzi zuten. Giroan, berriz, euskara atzeraka sumatzen zuten. Beste zer edo zer eratu behar zutela sentitzen zuten, baina ez zekiten oso ondo zer eta zelan. Erantzun bila hasi ziren eta, hurbilen zeukaten euskara elkarte Durangokoa zenez, bertara joan ziren Berbaroko-koen ibilbidea ezagutzera.

Gazte-bilera haietara bildutako beste gazte bat Aitor Romeo izan zen. Romeo beste ingurune batetik zetorren, Done Petri parrokia inguruan sortutako Gure Nahia aisialdi taldetik hain zuzen. Berak dioskunez, 1990eko urrian euskaltzale talde bat biltzen hasi zen Deustuko Ikastolan. Hor kokatuko luke berak Deustuari Euskara Dariola euskara taldearen hasiera:

“Urte hartako Olentzerorako orritxo bat prestatu genuen geure asmoen berri jende gehiagori emateko. Ondoren, lanari ekin genion. Aniztasunaren garrantzia hasieratik sentitu genuen guztiok; une hartan bi multzo nagusi geunden: batetik, ezker abertzale ingurutik zetorren jendea eta, bestetik, ikastolan edota parrokiako giroan elkar ezagutu genuenon taldetxoa. Ia guztiok ezagutzen genuen elkar gazte asanbladatik. Esparru gehiagotara heldu behar ginela begitantzen zitzaigun eta kontaktuak egiten hasi ginen hainbat girotako jendearekin: Batzoki ingurukoekin, San Felisimo-ko parrokiako taldeekin, Alkartetxearekin, Herriko Tabernan eta Done Petrin berriro ere... Beste sei-zortzi lagun hurreratu ziren. Bagenuen gorputza, baginen zer edo zer, eta, garrantzitsuena, sekulako ilusioa eta kemena genituen”.

Hasiera kementsuei jarraipen ez hain kementsuak dagozkie maiz eta Dario-lakoentzat ere gauzak horrelaxe joan ziren. Romeo mintzo zaigu berriro:

“Dena zen berria, ia dena baitzegoen egiteko: bertso-afariak, sagardotegira irteerak, kultur ekitaldiak, salaketak, etab. Hasierako bi urteetan denok bildu ginen astero Deustuko Ikastolan; funtzionamenduaren oinarria batzarra zen. Dinamika hori, baina, gogorra zen. Dariolan genbiltzan gehienok multimilitanteak ginen: ni neu, adibidez, elkartean jarduteaz gain, Gure Nahia aisialdi taldean, Gazte Asanbladan eta Ez Naiz Joango antimili taldean nenbilen. Beste militantziek amaigabeko interferentziak eragiten zituzten eta oso zaila egiten zitzaigun abian jartzea; orduko sentipena zen beti geundela aireratzeko zorian baina hainbat akatsek oztopatu egiten zigutela sendotze hori.

Hori dela eta, metodologiarekin lotutako pauso praktikoak zabaltzen ahalegin-
du ginen batzuk. Oraingo begiekin begiratuta bitxia begitandu ahal zaigu, baina
orduan *helburu zehatzak* edo *balorazioa* bezalako kontzeptuekin lan egitea ez zen
batere ohikoa. Atera kontuak, akta jaso eta gordetzearen ohitura errotzea ere ez zen
izan ikasturte bateko lorpena!”.

Gonzalezek ere antzera gogoratzen ditu 1990eko lehenengo urteak:

“Aktibismoak izugarrizko indarra zeukan, jendeak ez zuen denborarik eman
nahi zergatiak eta zertarakoak aztertzen. Urgentzia giroa sumatzen zen, momento-
an egin behar ziren gauzak eta kalean egin behar ziren. Aitorrek aipatu duen lehe-
nengo etapa asanbleario hura atzean utzita, lantaldeetan antolatu ginen. Hauen ize-
nak nahiko adierazgarriak dira: Kontzientziazioa, Salaketa, Ekintzak, Propaganda
eta Harremanak.

Premiaz ekin behar hura apur bat moteltzeko, plangintzen bitarteko lana finka-
tzea ezinbestekoa zen. Beraz, pausoak ematen hasi ginen; garrantzitsuenetako bat
mintegia izan zen. Irailero kanpora ateratzen ginen asteburu batez, ikasturtean
zehar landu beharreko ildoak zehazteko. Berehala ikusi genuen asmatu egin genuela;
izan ere, ederto pasatzeaz gain, ideia politikak atera izan dira egin ditugun minte-
gi guztietan.

Beste alde batetik, deigarria da ikustea zelán aldatu den komunikazioaren mun-
dua hamar urte hauetan. Menditarrak elkartearen egoitzan gelatxo bat hartu genuen
alokairuan eta handik gutxira ordenagailua eta faxa jarri genituen. Geu izan ginen
lehenak Deustuko taldeen artean eta jende askok baliatu zuen ordutan puntako tek-
nologia zen hura. Deialdiak eta enparauak egiteko, berriz, telefono deien kateak
egiten genituen. Sakelekoak guretzat filmetako kontuak ziren; Interneti dagokionez,
ezta zer zenik ere!”.

Lau metro koadroko gela hark telefonoa ere bazeukan, baina, bistan denez,
telefonoak ez zeukan zentzurik baldin eta deiak erantzungo zituen inor ez baze-
goen. 1995 aldera egunero Dariolako lanei lotuko zitzaien pertsona bat behar
zutela ikusi zuten. Ordutik aurrera beti egon da baten bat egunero lau orduz
dinamizazio eta kudeaketa lanetan murgilduta. Ordaindutakoak lau ordu ziren,
beraz; borondatezko euskaltzaletasunari zegokion ordu kopurua, aldiz, zenba-
kaitza. Hala ere, dinamizatzaile eta guzti, zaila zen oso gero eta handiagoa zen
lanari aurre egitea. Romeok orduko zailtasunak gogoratu dizkigu:

“Hamarkadaren erdi aldera jende berria heldu zen ikastolatik, bi edo hiru lagun-
arte zabal. Gaztetxo haiek beste belaunaldi baten ezaugarriak zekartzaten; prest zeuden
gauza puntualen inguruan lan egiteko baina nekeza egiten zitzaien dinamika jarraitu
bati lotzea. Bestalde, giro politikoa itogarria zen. Etengabe heltzen ziren atxikimendu
eskaerak mahai gainera eta gaitza zen benetan sentiera guztien arteko oreka lortzea.
Hala ere, uste dut gehienetan geure ahots propioarekin agertzea lortu genuela, hau da,
zatiketen gainetik euskarak batzen gintuela adieraztea lortu genuela.

Aurrerapausoak ere izan ziren. 1996an Kazetaritza ikasketak zituzten lau gazte
aldizkari bat ateratzen hasi ziren Dariolaren laguntzarekin. Olatz Arregik, Aitziber
Madrazok, Nerea Olaziregik eta Borja Sarrionandia-Ibarrak *Hitza Hartu* aldizkaria-

ren bitartez jauzi handia eginarazi zioten euskarari Deustun. Aurrekari bakarra Zorrotzako Zorrotz-Morrotz zen, baina *Hitza Hartu* sendoagoa zen bai hedapen aldetik (1.000 ale, 800 etxetara eta beste 200 denda, taberna eta abarren artean banatzeko) bai maiztasun aldetik. Aipagarria da erredakzio lanak zein maketazio eta komertzial behar guztiak borondatezko lanaren bitartez egin genituela.”

Borondatez jardute horrek epeak betetzea zailtzen zuen; izan ere, horrelakotan hiru hilabete uste baino askoz bizkorrago pasatzen dira. Itomen sentipena handituz joan zitzairen deustuar gazteei eta, horrenbestez, 1999ko udaberrian *Hitza Hartu*-ren azken zenbakia kaleratu zuten. Krisia ez zen aldizkarira mugatu; orokorrean Dariolako kideek etapa bat amaitu zelako sentipena zeukaten. Hizkuntza-komunitatea egituratzeko euskara taldea baino tresna eraginkorrago bat behar zutela ikusi zuten. Beraz, Deustuari Euskara Dariolako kideek, taldea desegin ondoren, barne-lanari eta gogoetari lotu zitzaizkion Matxintxu euskaltegi ingurutik heldutako jende berriarekin batera. Helburua argi zeukaten: bazkideen oinarria eta babesa izango zituen elkarte sendoa sortu. Bitarteko pauso guztiak diseinatzen ia urtebete eman zuten. Baina utz dezagun Deustualdea eta jarrai dezagun Ibaizabalen alde beretik barrurantz...



Deustuari Euskara Dariolako kide batzuk San Jose jaiak ospatzen.

Argazkia: Berbaizu Euskara Elkarte.

Begoñako errepublika

Mahatserrian, hau da, Begoñako elizateko lurretan, euskaraz bizi nahi zuten askok berehala ikusi zuten euskaltegiko eguneroko ordubetea motz geratzen zela. Aspaldiko kontuez ari gara, 1982ko kontuez, hain zuzen. Sasoi hartan eskolak hirurogei minutukoak ziren eta oso gutxi ziren euskara irakastetik bizi ziren irakasleak. Joseba Basterra santutxuarra, adibidez, eguna aduanako agentzia batean eman ondoren biltzen zen bere ikasleekin. Honela gogoratzen du Santutxuko Mintza Taldearen sorrera:

“Goi mailetako bost taldetan (12-15 lagun talde bakoitzean) honako galdera hau erne zitzaion hainbati: hemendik irten ondoren, non eta norekin egingo dugu berba euskaraz? Euskaltegira zetozenek gogo handia zeukaten ikasteko eta bazekiten ez dagoela berba egitea bezalakorik. Beraz, gehienek ez zuten mintzapraktikarako aukerarik, geure artean zer edo zer antolatzea erabaki genuen. Ez genuen bururik apurtu, errazena eta egingarriena egitea otu zitzaigun: txikiteorako hitzordua jarri genuen. Ekintza horrekin jaio zen Santutxuko Mintza Taldea.

Hasieran bi talde egin genituen, denok elkarrekin ibiltzeko talde handiegia baikinen; kopurua aldakorra zen arren, hogeita hamarretik gora izaten ginen. Baina, lehenengo garai hura pasatuta, taldea mehetzen joan zen, eta jarraitu genuenok beste zerbait behar genuela pentsatu genuen. Ordurako AEK antolatuta zegoen eta didaktikako arduradunekin bildu ginen. Aholku ona eman ziguten: astero-ko hitzordua zaletasun baten inguruan egitea. Ostegunetan biltzen ginenetako asko mendizaleak ginenez, mendia aukeratu genuen. Egia esan, gaiak joko asko ematen zuen: joan aurretik irakurri irteerari buruz zegoen guztia, gero mendian bertan baserritarrekin berba egin eta astelehenetan euskaltegian batu eta fitxa teknikoa idatzi. Gutako bat topografoa zen eta beste bat oso marrazkilari trebea. Horrela, ia konturatu barik material txukuna hasi ginen sortzen. Orriak pilatu zirenean liburu batean biltzea komeni zela eta, artisauen gisan izan bazen ere, liburua egin genuen. Haren ondoren beste hiru etorri ziren, denak Hegoaldeko mendiei buruzkoak.

1990ean, laugarrena egin ondoren, aldaketa bat behar genuela pentsatu genuen. Begoñako historia ikertzea proposatu zuen batek eta aho batez onartu genuen ideia. Lau edo bost urtetan material asko jaso genuen handik eta hemendik; geratzen ziren baserri guztiak ere bisitatu genituen eta, kontuari amaiera emateko, liburu bat egin genuen. 30 ale baino ez ziren izan, guretzako bana eta gainontzekoak ikastetxe eta liburutegietarako.

Hori bai, bitartean ostegunetako txikiteoarekin jarraitu dugu. Datorren urtean hogeita bost urte beteko dira elkartzen hasi ginenetik, denbora hegan joan da benera... Aipatzekoa da taldean pentsaera politiko desberdineko jendea bildu garena eta urterik gogorrenetan ere eutsi egin diogula batzen gaituenari, euskarari alegia.”

Santutxuarrek intuizio hutsaren laguntzaz soziolinguistek *gune sinbolikoa* deitzen dutena osatu zuten; hau da, auzoko hainbat lagunentzat erreferentzia bihurtu zirela. Ez guztientzat ordea. Batetik, 1990eko hamarkadarako, Mintza Taldeko gehienak hogeita hamabost urtetik gorakoak ziren eta galdua zeukaten harremana auzokide gazteagoekin; bestetik, euren jarduna ekintza jakin batzue-

tara mugatzen zen. Ez da harritzekoa, hortaz, 1993an Santutxuko beste hainbat euskaltzale mugitzen hasi izana.

Urte horretan auzoko EHE eta EKBk jardunaldi batzuk antolatu zituzten euskararen egoera aztertzeko. Azken egunean Basterra eta gainontzekoei urte batzuk lehenago sortu zitzaien galdera bera atera zitzaien haiei ere: “Zer egin ahal dugu guk hemen?” Eta, orduan ere, erantzuna AEK-ko ikasle eta irakasle batzuegandik atera zen. Honela kontatu dizkigu Benito Fiz-ek ordukoak:

“EGA talde bateko irakasle nenbilen jardunaldiak egin zirenean. Taldean zer edo zer egiteko gogoa zegoen eta mintzatalde bezala biltzen hasi ginen. Hasieran jardunaldietan egondako beste batzuk ere gurekin hasi ziren biltzen, egin ahal genituenak aztertzeko. Baina uda eta gero aldendu egin ziren eta AEK-koak baino ez ginen geratu. Berehala hasi ginen ekitaldiak antolatzen, bertso-afariak eta antzeko kontuak. Horiek antolatzeko dirua behar zen eta, horrenbestez, taldea legeztatzea pentsatu genuen. Lehenengo diru laguntza 1994an jaso genuen, 100.000 pezeta. inguru. Horrez gain, Santutxuko jaiei kolore euskaldunagoa emateko asmoarekin, Jai Batzordean ere sartu ginen.

Urte haietan Santutxuko Euskal Txokoa izenarekin aritu ginen, eta baita gainontzeko txokoekin koordinatzen hasi ere. Beste taldeen antzera, geuk ere ikastaroak eskaini genizkien auzoko euskaldunei: autodefentsa ikastaroa, talogintza, areto-dantza, etab. Udaberririo *Santuskaratxu* kultur astea ere antolatu genuen. Aste hau EHE hasi zen egiten 1994an eta handik bi urtera geuk hartu genuen lekukoa. Hiriko gainontzeko auzoetan legez, gutxi ginen egiteko zegoen lan handirako; ondorioz, gure eragina mugatua zen. Entzuten genuen zertan zebiltzan Arrasaten AED-koak edo Durangon Berbarokoak eta beste galaxia batean ikusten genituen. Baina, neurri apal batean bazen ere, erreferentzia bihurtzen hasi ginen.”

Elkar ezagutzarik eza arazo kronikoa izan da beti Bilboko euskaldunontzat. Horri buelta emateko tresnetako bat aldizkaria izan daiteke; horrela begitantzen zitzaion behinik behin Koldo Urrutikoetxea euskaltzale mahatsorriari. Fiz mintzo zaigu berriro ere:

“1997an edo Koldo etorri zitzaidan aldizkaria egin behar genuela esanez. Neu ere aldekoa nintzen eta lanean hasi ginen: kazetariak eta maketatzailea bilatu, kontuak egin eta abar. Aldizkariaren kudeaketaz arduratzeko Batana Batu elkarteak sortu genuen eta horrela 1998an *Berton* hilabetekaria plazaratzen hasi ginen. Zenbaki batzuk ateratzea eta aldizkaria hilero-hilero egiteak zekarren lan eta diru zama handiaz jabetzea bat izan ziren; era berean, konturatu ginen beste aldizkari eta elkarte asko era koordinatuan ari zirela beharrean Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren inguruan. Geuk ere bide finkatuago bati ekin behar geniola hasi ginen pentsatzen. Egia esan, bi gauza batu ziren: batetik, aldizkaria profesionalizatu beharra, hau da, soldatapean jarri beharra lagun pare bat; bestetik, euskara taldeak bazkideen babesa eta ekarpena behar-beharrezkoak zituela ikusi izana.

Eztabaida batzuen buruan, Santutxuko Euskal Txokoa Asapala Kultur Elkarteak bihurtzea erabaki genuen; era berean, erredakzio-buru baten bila hasi ginen eta baita aurkitu ere: 2000an San Inazio-Tellaetxeko Hektor Ortegak hartu zuen aldizkariaren ardura.”



Asapalakoek
Santutxuko Bertso
eskolako bertsolarien
laguntzarekin egiten
dute urteroko
santa-eskea.

Argazkia: Asapala
Kultur Elkartea.

Urte berean Asapalan ere egun erdiz aritzen zen koordinatzaile bat hasi zen beharrean. Bestalde, Santutxuko Familia Elkartek Iturriaga kalean zeukan pisuko gela bat utzi zien; horrela, Pernet kaleko AEKren euskaltegitik atera ahal izan ziren bai elkartea bai aldizkaria. Pausoz pauso Asapala gorputza hartzen hasi zen, eta, ondorioz, egitasmo berriak lantzeari ekin zion. Horietako batzuk elkarteak bakarrik bultzatu zituen; beste batzuk, ordea, beste talde edo erakundeekin elkarlanean. Horien artean koka dezakegu, adibidez, Mahatserriko azken baserrietan zehar egiten den Agate Deuna eguneko santa-eskea. Izan ere, aipatutako egun horretan Arbolantxa eta Otxarkoaga inguruan, ohiko abestiaz eta makila-hotsez gain, Santutxuko Bertso Eskolako bertsuak ere entzuten dira. Baina abestearena zabaldu samar dago Bilbo aldean; jarraian ikusiko dugunez, duela ehun bat urte moduan, orain ere itsasadar ertzetik hurren otsailero kantuan ateratako lagunak ahotsak aditzen dira.

Lizardi euskaltegia: Zazpikaleetan euskara barra-barra

Kapelagile kaleko euskaltegia AEK-k Bilbon izan duen garrantzitsuenetako bat izan da historikoki. Bere sasoian Eusko Gaztedijako ikasgeletatik ehunka bilbotar pasatu ziren legez, Franco hil ondorengo hamarkadetan ere asko eta asko izan dira Lizardi euskaltegian euskaldundu diren hiritarrak. Euskaldundu eta euskal giroan txertatu, hau da, geure hizkuntza erabiliz sozializatu. Joseba Irazabal bertan zebilen irakasle 1980ko hamarkada amaieran:

“1989a mugarria izan zen euskaltegian. Aurretik ere jendea bildu izan zen hau edo beste egiteko, baina inoiz ez zaletasun zehatz baten inguruan. Urte hartako

otsailean, aldiz, bi ekimen antolatu genituen, biak ere nahiko definituak: bata kantuzaleei zuzendua, Agate Deuna eguneko santa-eskea; bestea, berriz, mendizale-entzat, Belaguarako busa jarri baikenuen. Biak atera ziren ondo eta jarraian Barde-etara egin genuen beste txango bat ere primeran joan zen. Argi zegoen jendeak aisia eta euskara lotuko zituen proposamenen bat nahi zuela. Nahi horri forma eman behar zitzaion eta asmo horrekin joan ginen asteburu-pasan Gorbeira doze-na eta erdi lagun, denok Lizardiko ikasle eta irakasle. Handik Lizardi Mintza Talde-aren oinarriekin jaitsi ginen.”

Zer zehaztu zuten, bada, Arrabako landa ederretan?

“Helburua oso argi genuen: gure bi zaletasun handienak, kantua eta mendia, euskaldundu nahi genituen, hau da, abestu gura genuen eta mendira joan gura genuen euskara erabiliz. Beraz, lanari lotu gintzaizkion: euskaltegiko gelatxo bat lokal bihurtu genuen eta urteko plangintza bat prestatzen hasi ginen. Kantuari dagokionez, kantugintza talde bat sortu genuen; gitarra baten laguntzarekin aste-ahor- behin geratzen hasi ginen betiko kanta abesteko. Mendiari ere gogotsu ekin genion: zubi bakoitzean irteera bat eta, horrez gain, egun bateko zenbait txango. Irteera hauek finantzatzeko zozketa bat antolatzen genuen astero euskaltegian, *zoro-bola*, eta barikuero ematen genuen zenbaki sariduna erdi antzezpen bat eginez. Gunea Lizardi zen arren, apurka-apurka euskaltegikoa ez zen jendea ere hurrera- tzen hasi zitzaigun.”



Lizardi Mintza Taldekoak mendian gora bezain fin ibiltzen dira hirian bertan ere.

Argazkia: Lizardi Mintza Taldea.

Euskaltegia ez zen jendea hurbiltzeaz gain, euskaltegia izan arren beste zaletasun batzuk zeuzkan jendea ere bildu zitzairen. Horietako bat Lutxo Egia izan zen. Egiak oso ondo gogoratzen ditu 1990ko hasierako urte haiek:

“Euskarari gogotsu ekin nion urte haietan. Hizkuntza ondo ikasteaz gain, zer edo zer egin nahi nuen kultur arloan. Norbaitek abisua pasatu zidan: Burtsan euskaltzale multzo bat hasi da biltzen elkarte bat sortzeko asmoarekin. Haiengana hurbildu nintzen eta bertan ezagutu nituen Josu Delgado, Amaia Andonegi, Luigi Anselmi, Unai Dorronsoro eta beste batzuk. Bilera haiek indarra galtzen joan ziren eta azkenean nork bere aldetik egin zuen. Beste alde batetik, egun haietan Mintza Taldea Euskal Txokoa sortzearen abantailak ari zen aztertzen eta Unai Dorronsoro eta Alazne Olaizola Lizardiko irakasleak eta euskaltzale talde bat (Txarli Ruiz, Irune Requero, ni neu, etab.) txokoaren kultura eskaintza lantzen hasi ginen. Hori bai, hasieratik izan genituen argi bi gauza: bata, ez zegokigula guri euskara salbatzea, gurea ekarpen xumea eta mugatua zela; bestea, ez gurea sufritu nahi antolatze lan horiek geure gain hartuz eta, beraz, lan banaketa eta eginbeharrak ahalik eta bilera gutxienekin lotu behar genituela, eta ahal izanez gero mahai baten inguruan afaltzen. Horiexek finkatuta sartu ginen Euskal Txokoko saltsan.

Asmoa auzo osoan eragitea zen eta, beraz, hainbat gune desberdin erabili genituen hitzaldiak eta ikastaroak egiteko: Likiniano liburu-denda eta topagunea, Euskaltzaindia, Hika Ateneoa, Mugika eskolak, Herriko Taberna, Lizardi euskaltegia, etab. Denetarik egin genuen: panderoa, txalaparta, argazkigintza (errebelatzeko gela eta guzti atondu genuen Kapelagilen), euskal dantzak, literatur lantegia eta beste asko. Gero, 1996 edo 1997an AEK-k Txakur kaleko eraikina erosi ondoren (bertan kokatu zen Lizardi berria) beheko solairuko Kalderapeko tabernara eroan genituen jardura guztiak. Bitxia da oso: Txakur kalera lekualdatu eta handik oso gutxira Burtsa arrotz egin zitzaigun. Geure bilerak eta jardura batzuk han egitetik hura guztiz baztertzera pasatu ginen eta horretan ez gurea asmatu begitantzen zait. Izan ere, Burtsa leku publikoa da eta, guk geuk bizitasuna eman ezean, sobe-ra daude horrelako zentroak.”

Alde positiboari erreparatuz gero, jardueren metaketa horrek izan zuen ondorio onik: bost urtez Kalderapeko leku erreferentziala bihurtu zen Bilbon. Euskal Txokoak antolatzen zituen hilean behineko literatur-jazzari eta beste ekitaldi batzuei, Juankar Fernandez eta Jose Mari Ugaldea AEK-ko kideek prestatutako egitarau oparoa gehitu zitzairen: hitzaldi zikloak, domeketako kontzertuak, erakusketak eta beste makina bat kontu. Bertatik pasatu ziren, batzuk aipatzearen, Ander Lipus, Ruper Ordorika edota Koldo Izagirre, eta behin baino gehiagotan jendea kalean geratu behar izan zen, sartu ezinik, ikuskizunaz gozatu barik. Bitartean, Mintza Taldeak bere ohiko mendi-irteera eta kantu-hitzorduekin jarraitu zuen. Hori bai, mendiari zegokionez, ez ziren mugatu irteera hutsak egitera, ikastaroe-kin ere hasi baitziren: eskia, orientazioa, eskalada, etab. XXI. mendean sartuta, ordea, aldaketa garaia heldu zitzairen guztiei. Egiak kontatu digu zer gertatu zen:

“2003an AEK-k Kalderapeko kudeatzeari utzi zion eta taberna esku pribatueta-ra pasatu zen. Horrek eragina izan zuen gure motibazioan, arduradun berriek euren

asmoak baitzeuzkaten; beste alde batetik, gutariko batzuk beste proiektu batzuetan sartu ginen eta, ondorioz, Euskal Txokoaren etapa amaitutzat ematea erabaki genuen. Harrezkero Lizardi Mintza Taldeak hartu du bere gain kultur eskaintzaren arloa”.

Ia ahaztu zaigu: Lizardi Mintza Taldeak, izen bereko Santutxuko taldearen lorratzei segiz, sortzearekin batera osteguneroko hitzordua jarri zuen basoerdi batzuk hartzeko. Ia hogeitaz geroago hauek ere ohiturari eusten diote; izan ere, bilbotarrari betidanik gustatu izan zaio kale-giroan ibiltzea. Are gehiago kaleko giro hori abuztu aldera festa kolorez janzten denean.

Hau Pittu Hau eta Hor dago! konpartsak

1987an Bilboko Aste Nagusiak hamar urte bete zituen. Lehenengo bi urteetako eztanda liluragarriaren ondoren, jaiak erritmo patxadatsuagoan sartu ziren; euskarari dagokionez, hainbat bilbotarren ustez erritmo patxadatsuegian. Kartel elebiduna eta ekintza sinboliko batzuetatik haratago, ez zegoen ia ezer. Hori dela eta, urte haren hasieran euskararen aldeko giroetan zebilen jende multzo batek konpartsa euskaldun bat sortzea erabaki zuen. Honela kontatu dizkigu Igor Quincoces *Pittu*-k hastapenetako pauso haiek:

“Konpartsa sortzeko behar ziren 50 lagunak elkartzeko asmoz afari bat antolatu zuten, baina kopuru haren erdia ere ez zen joan. Edonola ere, erabakia hartuta zegoen eta inauterietarako han zegoen konpartsa berria. Lehenengo agerraldi hura biribil atera ez bazen ere, pausorik zailena emanda zegoen. Gainera, etekin ekonomikoa ere lortu zuten, EHEk diru hura baliatu ahal izan zuen egoitza bat erosteko. Ondoren egin ziren bileretan izena finkatu zen, Hau Pittu Hau alegia. Zuberoko maskaradetako Pittu-ren irudia egokia zen, jaia adierazten baitzuen. Hasierako urte haiek gogorrak izan ziren: erronka (bezeroekiko eta hornitzaileekiko harremanak ahal zen neurrian euskara hutsez bideratzea) ez zen txantxetako eta taldea txikia zen. Konpartsen koordinakundean bertan ere erresistentzia handiak azaldu ziren euskara hutsean arituko ginela edo aktak euskaraz ere jaso behar zirela proposatu genuenean.

1991n kartelak jarri genituen jende berria erakartzeko. Gazte batzuk hurbildu ziren arren, oraindik ez ginen berrogeita hamarreko mugara heltzen. Etorri berrietako bati egokitu zitzaion txupinera izatea eta bera izan zen ekitaldi guztietan euskara hutsez jardun zuen lehena. Halere, konpartsak burua jaso ezinik jarraitzen zuen. Testuinguru horretan euskaldunez osatutako bigarren konpartsa jaio zen, Hor dago! alegia. Asko ziren eta ideiak argi zituztela zetozen. Bazirudien denok sartuko ginela bertan; egin kontu, 1994ko inauterietako jaitsiera eurekin batera egin genuela, oso gutxi baikinen geure kabuz ateratzeko. Uda hartan berriro egin genuen jendea erakartzeko saiakera eta bat-batean miraria gauzatu zen: hogeita hamar lagun sartu ziren, gehienak santutxuarrak. Aldi berean, bigarren urteaz geroztik konpartsen ardura zeramatenek utzi egin zuten. Beraz, harrobia bai baina aritutakoen esperientziarik ez.”

Jende berriarekin freskotasuna eta bat-batekotasuna nagusitu ziren:

“1995ean bost egun eman genituen Dimako Indiabeti baserrian. Indiabeti basoan galduta dago eta ez dauka argindarrik; beraz, leku ezin hobea sormenari eta irudimenari bide emateko.¹¹⁴ Egun gogoangarri haietan sortu ziren gerora konpartsa-
ren ezaugarri bihurtu diren hainbeste kontu; adibidez, kamiseta morea eta geure ikurra, hau da, Indiabeti barraskiloa. Gogotsu jaitsi ginen menditik, argi baikenuen zelan edo halan bizirik irautea ez zela nahiko eta bageneukala indar nahikorik dinamikak sortzeko eta jaiari euskararen kolorea emateko. Ehun kide inguru izango ginen une hartan eta sekulako giroan pasatu genituen jaiak. Urte hartan ere hasi ginen erabiltzen Hor Dago!-ik utzi zigun elefantea, gerora famatua egingo zen berbera.

Indiabetiko bultzadak ihauteriak arte iraun zuen: behingoz, epaitegietako egoera gaitzat hartuz, jaitciera duin bat egitea lortu genuen. Udan, berriz, txosna berritzeko garaia iritsi zitzaigun. Urteik urtera nabarmenagoa zen egitura handiagoak jartzeko joera (neurri batean Udalak berak ere bultzatuta) eta geuk ere mekanotuboa alde egin genuen. Hurrengo urteetan gorabeherak egon ziren arren, konpartsa guztiz finkatuta dagoela esan dezakegu.”



Hau Pittu Hau bere hamabosgarren urtebetetzea ospatzen 2002ko jaietan.

Argazkia: Hau Pittu Hau.

¹¹⁴ Gogoratu 1970eko hamarkada hasieran ere baserri horretan bertan bildu zirela Santutxuko gau-eskolako hainbat irakasle eta bertan erabaki zutela *Euskalduntzen* metodoa prestatzea.

Ondo pasatzeaz gain, Hau Pittu Hau-ren helburua beti izan da beste konpartsengan zein jai egitarauan eragitea. Lan hori bakarrik egitetik lagunduta egitera tarte handia dago. Bada, Hau Pittu-ri bere alter ego den konpartsak, hots, Hor Dago!-k lagundu dio eginbehar horietan. Goazen, bada, egunkari bat dantzari ageri duen kamiseta berdea zeramatanen konpartsa zelan sortu zen ikustera.

Gorago ere aipatu ditugu kasualitateak eta, orain, berriro erreparatuko diogu horietako bati. 1990ean, *Euskaldunon Egunkaria* sortu aurretikoan, Bilboko erredakzioa kokatzeko leku bila hasi ziren bertan arituko zirenak. Eta non aurkituko eta Barroeta Aldamar kalean, hau da, Bilbok eman duen euskaldunik modernoenetako bat (Gabriel Aresti) hazi zen kale berean. *Egunkaria* ere modernoa izateko bokazioarekin jaio zen, gure historia txikian hainbestetan gertatu izan den legez. Ezen kasualitateen ondo-ondoan maiz paradoxak aurkitu ohi baitira, eta kasu honetan ere agerikoa da paradoxa: albokoak baino zaharragoa den hizkuntzak, garai berrietara egokitzeko gazte-indar harrigarria erakutsi du sarritan. Esan dugu izpiritu berritzailearekin jaio zela *Egunkaria*, baina baita diru gutxirekin ere. Estutasun horiek eta babes soziala zabaltzeko nahia izan ziren, hain zuzen, Hor Dago! konpartsaren sorrera bultzatu zuten motorrak. Jakin deza-gun zelan gertatu zen hori Arantza Uriberen gomutei bide emanda:

“Iñaki Uriarte neure senarra zena aspalditik zebilen ideiarekin eta behin, K-2 tabernan taldetxoan geundela, mahai gainera bota zuen ideia. Berehala bildu zen jende andana: Fernando Otxoa, Idoia Lorenzo, Ibon Arbulu, Xabi Aretxaga, Karmele Rementeria, Mikel Galartza, Koldo Cayado, Nerea Iza, J.A. Azpitarte *Luxie* eta beste asko. Konpartsa jaiotzearekin batera euskal gunea sortu genuen Hau Pittu Hau eta Eguzkizaleak-ekin batera: eszenatoki bat jarri eta kontzertuak eta bestelako ikuskizunak hasi ginen programatzen. Izan ere, sorreran zehaztutako bi helburretako bat horixe zen, Bilboko jaietan euskararen lekua nabarmen zabaldu, arnasa berria eman. Bigarrena, berriz, egunkariari babes ekonomiko eta soziala ematea zen. Lehenengo helburu hori lortzeko, beraz, gu geu hasi ginen gauzak antolatzen baina baita Konpartsen Koordinakundeak berak ekitaldi berriak bultzatu zitzaizkion ere. Barruko lan horretarako, jakina, Hau Pittu Hau-rekin batera jokatu genuen eta baita emaitzak lortu ere: hamarkadaren hasiera hartan finkatu ziren bai astelehenetako bertsotrikikalea, bai asteazkenetako bertso bazkaria. Bi kontu horiek, zalantza barik, euskaldunentzat erreferentzia bihurtu dira aspalditik. Horrez gain, Done Jakue plazatorako eguneroko egitarau ofiziala bermatzea lortu genuen: eguerdiz bertsolariak eta arratsaldean dantzak eta erromeria. Koordinakundearen barne-funtzionamenduari dagokionez, Hau Pittu-k hasitako bideari sostengua eman genion; hau da, hasieratik egin dugula indar bileretako hizkuntza euskara izan dadin. Bide luzea dugu aurretik baina argi dago hemendik urte batzuetara horrela izango dela.”

Horiez aparte, artista berriak ezagutarazteko ere arte berezia izan dute konpartsa honetako kideek:



Aste Nagusiko bertso-bazkaria Done Jakue elizpean egin zen lehenengo urteetan.
Iturria: Hor dago!-Abante konpartsa.

“Ez dira bat edo bi gurera ia guztiz ezezagun zirela etorri eta handik gutxira erabat ospetsu bihurtu direnak. Lehenengo urte hartan, esate baterako, Maixa eta Itziar izan ziren. Bada, hurrengo urterako beteta zeukaten udako agenda maiatzetik! Gauza bera esan ahal dugu Exkixu edo beste talde batzuei buruz ere. Aipatzeko moduko beste kontu bat gure txandena da: badugu txanda arrosa bat, EHGAMEkoena hain zuzen, eta baita kazetari eta artistez osatutakoa. Azken txanda horri dagokionez, urtero-urtero sortzen da ikusmina Martxelo Otamendi, Julio Ibarra, Loli Astoreka, Maddalen Uriarte edo Asier Odriozola bezalakoak zerbitzatzen ikustean.

Beste alde batetik, une gogorak ere izaten dira. 1997an hogeitaz urteren bueltan zegoen jendea sartu zen konpartsan baina aritutako asko ere nekatzen doaz denborarekin eta lan handiko une askori egin behar zaio aurre. Baina tira, umorea lagun dugula aurrerantzean ere egingo diegu aurre, bai horixe!”

Hau Pittu Hau urratzen hasi zen bidexka zabaldu egin zen 1993an Hor Dago!-ren sorrerarekin. Hurrengo urtean, berri, hirugarren konpartsa euskalduna jaio zen, Zenbat Gara elkartekoen Algara alegia, eta gainontzekoetan euskaldun *errealen* kopurua gorantz hasi zen poliki-poliki. Azken datu horren atzean aztertu beharreko beste errealitate bat dago: Bilbon bertan ikasketak euskaraz giten

zituztenen ehunekoetan izandako igoera, hain justu. Goazen, horrenbestez, beste gai horri erreparatzera.

Hezkuntza ereduaren datuak eta Uztarri Kultur Taldea

Hau Pittu Hau jaio zen urtean, hau da, 1987an, D eredu Txurdinagako eskolan baino ez zegoen. Egoera hau, dena dela, aldatu egin zen urte gutxiren buruan. Izan ere, Udalak eta hainbat taldek egindako kanpainei esker eredu horren aldeko eskaera erritmo bizian hazi zen 1990eko hamarkadan. Hona hemen datuak, Jaurlaritzaren Hezkuntza Saitetik hartuta:

		1989/1990	1990/1991	1991/1992	1992/1993	1993/1994	1994/1995	1995/1996	1996/1997	1997/1998	1998/1999	1999/2000
A eredu	Ikasleak	65036	62000	58136	55612	52363	48164	44327	40976	36544	32582	30076
B eredu	Ikasleak	5031	5618	6220	6692	6943	7278	7674	7691	8434	9185	9622
D eredu	Ikasleak	5666	5984	6243	6617	7055	7253	7840	8857	9513	10026	10642
X eredu	Ikasleak	864	883	949	956	1224	1190	1182	1157	1099	1066	1017

Askok nahiko luketena baino dezente motelago bazen ere, ukaezina da hamarkadek aurrera egin ahala ezagutzaren mailak gorantz egin zuela Bilboko gaztetxoaren artean. Egia da, era berean, B eta D ereduaren ikasitako neska-mutiko askok ez zutela maila txukunik lortzen, ez berbetan ezta idatzian ere. A ereduaren zebiltzanen emaitzak, berriz, are kezkagarriagoak ziren. Egoera horrek euskaltzale askoren kezka pizten zuen (esan dezagun, bide batez, kezka horrek, urteak geroago, bizirik dirauela). Txomin Aurrekoetxea zen horietako bat.

1980ko hamarkadan Aurrekoetxea hezkuntza munduan zebilen: batetik, Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiko irakasle zen; bestetik, Labayruren udako ikastaroetan ere maisu ibiltzen zen. 1984an politikaren bidean murgildu zen, EAJren legebiltzarkide aukeratu baitzuten. Hurrengo urtean Zulaibar Ikastegia utzi zuen eta eguneko ordurik gehienak Bilbon ematen hasi zen. Ez zuen espero hiriburuan Arratiako euskara entzuterik, baina ezta hain euskara batu baldarrik ere hainbat eta hainbat neska-mutikoren ahotan. Belarriko min horrek akuilatutik, gaztetxoentzako euskaltegien sare bat sortzea otu zitzaion. Otu, eta baita eratu ere. Orduko kontuak Aurrekoetxeak berak kontatuko dizkigu beste inork baino hobeto:

“1985ean gaztetxoentzako euskara eskolak antolatzea erabaki gendun EAJren inguruan genbiltzan euskaltzale batzuk. Asmo hori bideratzeko, Gotzon Lobera, Ana Castro eta beste batzuekin batera, Uztarri Kultur Taldea sortu gendun. Helburua argia zan: A eta B ereduaren ikasten eben neska-mutikoei euren euskara hobetzen lagunduko eutsen errefortzu-eskolak emotea. Zortzi eta hamabost urte bitarteko ikasleak hartu genduzan Bilboko hainbat auzotan eratutako euskaltegie-tan. Eskolok, askotan, batzokietan emoten ziren, baina ez beti; izan ere, eskola

publiko zein pribatuetakoa gelak be erabili izan doguz (Santutxuko Berriotxoa, esate baterako).

Uztarriko taldeak euren bidea egiten joan ziren, eta 1990eko hamarkadan, batez beste, 2.000 gaztetxo inguru ibiliko ziren euskara hobetzen urtean zehar. Irakasle lanetan, berriz, irakaskuntza arautuan jarduten eben maistrak ibili dira hasieratik. Baina, eskolak emoteaz gain, ibilian-ibilian materiala ere sortu dogu. Ikusgarria izan ez arren, uste dot Uztarrik bere aletxoa jarri dabela Bilbo euskaldunago bihurtzeko eginbehar erraldoian.”

Urtean zehar ikasitakoa, baina, hegan joaten da udako oporraldian. Are gehiago nerabezaroan. Oso kontuan zeukaten arazo hori Uztarrikoek eta, irtenbidea emateko asmoz, berehala antolatu zituzten udako ikastarobarnetegiak. Froga bat egin ondoren, neska-mutikoek Arratiako bihotzean, Artean hain zuzen, ematen zituzten hamabost egun. Aurrekoetxearen ustez garrantzitsuak dira udako egonaldiak:

“Urtean zehar izaten dira ekintza osagarriak: Olentzero, ekaineko ekitaldi bateratua, etab. Baina ikasturtea benetan biribiltzen dabena udako hamabostaldia izaten da. Udarako, gainera, 16 eta 20 gazte bitarteko talde bat ere osatu izan dogu. Azken talde honen lan-erritmoa gaztetxoena baino biziago da, jakina; halandabe, inor ez da ito liburu artean, beti eskaini izan dogu eta beste ekintza ludikoago batzuk egiteko aukera. Eta ikastaroa amaitzeko, Gorbeiako gurutzeraino igo izan gara denok elkarrekin. Niri, arratiarra naizen aldetik, izugarri gustatzen jatan kontua da azken hori.”



8 eta 15 urte bitarteko gaztetxoek bost maila lantzen dituzte Uztarriko eskoletan.

Iturria: Uztarri Kultur Taldea.

Uztarriren jarduna ez da mugatzen gaztetxoen eskoletara. Badauzkate helduentzako bi euskalategi (Matiko eta Troka; azken hau, Santutxun), eta, horrez gain, etorkinentzako ikas-materiala prestatzeari ere ekin diote. Baina, ikasteko eta hobetzeko grina ez dagokie bakarrik nerabeei edota etorri berriei; sarritan, helduagoek ere zer edo zer nahi izaten dute... Ikus dezagun, bada, zeintzuk eskaintza zeukaten Bilbon ohiko euskalategietara joan nahi ez zutenek.

Labayru Ikastegia eta Deustuko Euskal Irakaslegoa

Irudika ezazue, une batez, ikastetxe handi baten barrualdea udako egun sargori eta erre batean. Fokatu hobeto burmuineko kamerak eskaintzen dizuen plano eta antzeman ezazue Karmelo Etxenagusia abade euskaltzalea Lapurdiko literaturari buruzko eskola ematen. Jarraian, jarezazue audioa Etxenagusiaren berbak entzun ahal izateko: Pedro Agerre *Axular*-en hitzak darabiltza aurrean dituen dozenaka ikasleen arreta bereganatzeko:

“Amorantea zen nabusi: no zen tho; emaztea gizon, oilloa oillar. Erran behar da esku handia hartzen duela emazteak amurus itsutuaren gainean”.

Bai eta lortu ere. Bitxia da kontua: lau mende atzerago lapurtar batek botatakoak amu ezin hobea bihurturik bizkaitar gazteen gogoia erakartzeko. Bada, irakurle, horrelakoak eta antzerako beste bitxikeria asko ikusi eta bizi ahal izan dituzte Derioko Udako Euskal Ikastarora hurreratu direnek.

Labayru Ikastegia Derion sortu zen 1970ean, hau da, Txorierriko udalerriri hori Bilbo barruan zegoen garaian. Lehenengo urte hartan abadeei zuzendutako ikastaro izan zenak ateak zabaltzen zituen eta apurka-apurka indarra hartuz joan zen. Urtaileko lehen hamabostaldian egiten den Udako Euskal Ikastaroak 1980ko hamarkadaren erdialdean bizi izan zuen bere urrezko garaia (1985ean jo zuen goia 753 ikaslerekin). Ondoren ikasle kopuruak beherantz egin zuen, bizkor antzean egin ere, harik eta 1993an hondoa jo zuen arte; egin kontu, urte hartan 98 ikasle baino ez zutela eman izena. Jaitsiera, era leunagoan izan bazen ere, ikasturtean zehar Bilbon bertan (Indautxuko egoitzan) ematen ziren ikastaroetan ere igarri zen. Jendea gero eta gehiago eskolatzen zen euskaraz eta, ondorioz, Labayruren eskaintzak beste bide batzuk hartu behar izan zituen. Jarraian Labayruko arduradunek 1998-2000 urteetako memorian egin zuten gogoeta dakargu orriotara:

“Milurtekoaren azken belaunaldiko alfabetatzeko ikasleak epelago agiri dira euskereagazko; gazteriaren kezkak beste eremu batzuetara doaz, lanbideak halan eskaturik (egoera normalizatuaren seinale-edo). Dana dala, beste ikasle-mota bat etorri da Ikastarora, euskeraren profesional eta euskera-irakasle ugari hurreratu da gurerara, arlo bereziak eta goi mailako ikasgaiak lantzerara, batez be itzulpengintza.”

Memoriak datuek ziotena jaso, besterik ez zuen egin: Ikastaroko bost mailak baino erakargarriago egiten zitzaion hainbati ikastaro berezien eskaintza, bereziki itzulpengintzarena. Urtean zehar Indautxuko egoitzan ematen ziren ikastaroen artean ere joera bera antzematen zen. Hala eta guztiz ere, espezializazio garai berrietara heldu aurretik, ehunka izan ziren euskararekin eta euskal kulturarekin harremanak estutu zituzten bilbotarrak. 1994an Udako Euskal Ikastaroaren 25. urteurrena bete zenerako 8.608 ziren bertatik pasatutakoak; eurretatik 1.518 hiri-burukoak ziren, kontuan hartzeko moduko datua, inondik ere. Ardura karguetan

ere ia hasieratik izan dira bilbotarrak edo bilbotartuak. Horietako bat Adolfo Arejita dugu:

“Mikel Zarate eta Karmelo Etxenagusia ditugu lehen irakasleak, Ander Mante-rola zuzendariagaz batera. Lorentzo Zugazaga izango da oste-ostetxoan taldeko egingo dana (...). Bigarren belaunaldia, gurea dala esango neuke. Jesus Eguzkitza eta ni hasieran laguntzaile legez sartu ginduzan ikastaroan 1973an zuzendariak, eta ondoko urte bietan sartu ziran Jesus Mari Agirre eta Jesus A. Etxezarraga. Eta handik lasterrera, ikasle izanikoak hasiko ziran irakasle bihurtzen.”

Azken aipu horrek Ikastaroaren ezaugarrietako bat erakusten digu: ikasle ibili-tako asko eta asko irakasle bihurtu zirela, alegia. Hasierako pasadizoa (bizkaitar gazteen lilura Axular entzutean), adibidez, Andres Urrutiarengandik jaso dugu. Urteen joan-etorriak ez du ezabatu Urrutiak urte haietaz gomutatzen duena:

“Gomutetan dot, ondo be ondo, Derioko Udako Ikastaroaren lehenengo barria nork emon eustan. Koadrilakoa neban, lagun mina, eta aurreko udan egona zan Ikastaroan. Lehenengo maila egin, hango giroan bizi eta Mikel Zarate ezagutu. Nire eskura ekarritako orri eta propagandaren artean, bat-batean bereganatu ninduan ikurra: *Dakigunetik ez dakigunera* (bizkaieratik batura). Hortxe egoan filosofia oso bat, hortxe aspalditik euskeraren munduan bila nenbilen jokabide argia (...). Jo eta ke, hemendik hartu, handik irakurri, hortik eskuko apunte batzuk atara... dana zan preminazkoa sasoi haretan, euskeraren inguruan barru-barrutik zirikatzen ginduan



Derioko Udako Euskal Ikastaroak Piarres Xarritoni omenaldia eskaini zionekoa.
Argazkia: Labayru Ikastegia.

gosea asetu guran (...). Urte hareetan, alabaina, euskera non ondu eta zelan hobetu ez genkian askotan. Kalea eta liburuak falta genduzan eta honek ez euskun gure saioetan lar laguntzen.”

Testuinguru horretan heldu zitzaion Derioko Udako Ikastaroaren berria:

“Esan lege, banator Deriora. Uda partea da. Ikastaroaren lehenengo eguna, lehenengo lagun eta irakasleak (...). Nori otu, Karmelo Etxenagusia irakasle jasekoari baino, Iparraldeko Euskal Literatura bertsoen bidez azaltzea? Non aurkitu, Adolfo Arejitaren eskutik ezpada, gure testu zaharrak? (...) Hortxe doguz guk, batxilergo urte luzeetan azertu, ikertu eta asperturiko erdal idazleen pareko euskaldunak. Hortxe dago, egon be, erdal heziketak emon ez euskun euskal ikuspegia.

(...) *Dakigunetik ez dakigunera*, horra hor filosofia. Eta filosofia horren eraginez, hona hemen ikasle izana irakasle bihurtuta. Gipuzkoako eta Iparraldeko literatura izango dot, hiru urtez jarraian, erakus eta irakasgai.”

Urrutiak aipatutakoa, behinena izan arren, ez da Labayruren lema bakarra. Badira horren osagarri diren beste bi: *Bizkaieratik batura* eta *Hizketa bizitik hizkuntza idatzira*. Bietatik lehenak honako hau erakusten digu: euskalkiak vs. batua eztabaidak bere onenak eman dituela. Labayru Ikastegiaren inguruan elkartutakoek *bizkai-euskera* biziki maite duten arren, ez dute euskalki hori batuaren kontrakotzat jotzen, bertara heltzeko bide edo zubitzat baizik. Bigarren leloak, berriz, berriketaren adierazkortasuna eta testuaren doitasuna eta dotorezia uztartu ahal (behar) direla diosku. Leloari sormena erantsiz, Labayrun ikasle edota behargin izandako batek baino gehiagok literatura lan aipagarriak (edo literaturari buruzkoak) ondu ditu: Unai Elorriaga, Julen Gabiria edota Alvaro Rabellik, konparazio baterako, harreman estua izan dute Labayrurekin.

Badirudi hizki artean dabilena, lehenago edo geroago, zaletu egiten dela literaturarekin edo kazetaritzarekin. Ia lege matematiko bat ere formula daiteke: x euskara irakasleko = y idazle edo kazetari. Aurreraxeago ikusiko dugun moduan, Deustuko Euskal Irakaslegoan ere bete egiten da ekuazio hori. Ikastegi hau Deustuko Unibertsitatearen barruan sortu zen 1970eko hamarkada amaieran Euskal Kultur Mintegiak (EKM) euskalduntze lanaren ardura Unibertsitatearen esku utzi ondoren. Mertxe Luzuriaga dugu bertako arduraduna:

“Dionisio Aranzadi errektoreak Pello Salabururi eskatu zion zentroaren zuzendaritzaz arduratzeko eta zuzendaritza talde bat sortzeko. Salaburuz gain, Jesus Uranga, Sabin Egileor, Jon Otaegi eta Iñaki Ugarteburu arduratu ziren zentroa martxan jartzeaz. Hasiera hartako helburua Unibertsitateko ikasleei euskara irakastea zen. Edozelan ere, euskalduntze lanetan egindako ahaleginaz gain, alfabetatzeko taldeek ere garrantzi handia hartu zuten lehenengo urte haietan. Euskaldun unibertsitari, asko eta asko Euskal Irakaslegoaren eskutik hasi ziren euskara idatzira hurbiltzen, batua ere ezagutzen.

Hasieran, euskalduntzeko bost maila zeuden eta alfabetatzeko, oster, bi. Ikas-
taroak, berriz, ordubetekoak izaten ziren. Urteek aurrera egin ahala, ikaste proze-
sua datozen ikasleen ezaugarri eta beharretara egokituz joan da, eta mailaketak,
ikasteko erak eta ikastaro motek ere aldaketa dezente izan dituzte.”

Gizartea aldatu egin da, eta Labayrun antzera, Euskal Irakaslegoan ere azken
urteotan beste era bateko ikasleak ugaritu egin direla igarri dute:

“Ikasle mota ere aldatuz joan zaigu ikastaro mota berriak sortu ahala. Hastape-
netan gure xede ziren Unibertsitateko ikasleez gain, beste asko agertu zaizkigu: ira-
kasleak, erakundeetako funtzionarioak eta, batez ere, Unibertsitatearen inguruan
bizi diren hainbat eta hainbat bilbotar... Eta, jakina, aldaketa horretan zeresan han-
dia izan dute, batetik, gizartearen eskakizunak eta, bestetik, eskaini ditugun ikasta-
ro motek ere. Adibidez, badira urte dezente sei ordu eta erdiko edota lau orduko
ikastaroak eskaintzen hasi ginela.”

Azken hogeita bost urteotan 25.000 ikasle inguru pasatu dira Euskal Irakas-
legotik. Horietako gehienak ohiko ikastaroetan ibili dira (Azkarra, Lasterra, Trin-
koa, etab.); hala ere, badago aipatzea merezi duen beste egitasmo bat:

“1998an *El Correo* proposamen batekin etorri zitzaigun: egunero aterako zuten
Egun on! atala (orri erdikoa) euskara ikasten hasi nahi zutenentzat. Ekainean, nahi
zuten irakurle-ikasleek frogar bat egin ahal izango zuten egunez egun ikasitakoari
neurria hartzeko. Eraitza onenak lortzen zituztenek udan ikastaroa egiteko aukera
izango zuten. Kontua polito atera zen eta 1999an jarraipena eman zioten *Eguerdia*
on! atalarekin. Gero, etentxo baten ondoren, *Arratsalde on!* ateratu zuten 2001ean.
Oso balorazio ona egin genuen, gehienbat normalean euskalduntzera hurreratzen ez
den jendearengana iritsi ginelako.

EGUN ON!

Curso  de iniciación al Euskera



1998an *Egun on!* atala
egunero ateratu zen *El*
Correo-ko orrietan.
Iturria: Deustuko
Euskal
Irakaslegoa.

Euskal irakaslegoak Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari egin dion ekarpen handiena irakasleak eurak dira. 200 baino gehiago dira Euskal Filologiako ikasketak egin bitartean edo egindakoan Irakaslegoan ofizioa ikasi dutenak. Teoria eta praktika ondo uztartuta ateratzen dira Unibertsitateetik eta han eta hemen dabilta euskalgintza lanetan: irakaskuntza arautuan, administrazioan, euskaltegi publiko zein pribatuetan.

Kontu gehiago ere badaude. Unibertsitatean egoteak berak aurrera bultzatzen gaitu ikasleek dituzten beharrei behar bezala erantzun diezaiegun, Unibertsitateko Normalizazio Planak aurrera doaz eta, langileek kasurako, Irakaslegoan jasotzen dituzte eskolak; Unibertsitateko Euskara Zerbitzua berton dago; txandaka dabilta ikasleek, berriz, multimedia gelako tresneria baliatu ahal dute atzean ez geratzeko, eta abar.”

Amaitzeko, hona hemen gorago agindu dizuegun idazle, kazetari eta musikarien zerrendatxoak; hauek guztiek jardun dute irakasle lanetan Deustun, gutxienez urtebetez: Jon Arretxe, Igone Etxebarria, Sonia Gonzalez, Jabi Kaltzakorta, Juanra Madariaga, Txuma Murugarren, Ruper Ordorika, Pello Urzelai, Imanol Zaldua, Bingen Zupiria, etab.

XXI. mendeari begira

Hamarkada hastearekin batera, Euskaltzaindiak egoitza berria estreinatu zuen Plaza Barrian. Aldaketa ez zen apeta zoro bat, ez horixe. Franco diktadorea hil ondoren, erakundea nabarmen hazi zen eta Erribera kaleko pisuan ez ziren sartzen ez eskaini nahi zituzten zerbitzu guztiak ezta metatzen ari ziren liburu eta idazkiak ere. Iraganean euskaltzain izendapena jasotzeak halako ohorezko kutsua izan bazuen, orain beste moduz bizi ziren gauzak. Izan ere, orain, izenda-

Euskaltzaindiko
kideak Plaza Barriko
egoitzaren
inaugurazio
egunean.
Argazkia:
Euskaltzaindia.
Azkueren Biblioteka



tuak, zera sentitzen zuen ohorea bera baino nabarmenago: lan-karga handitu egingo zitzaiola.

Euskaltzainak, beraz, egoitza berriaren inaugurazioa egin ostean, buru-belarri hasi ziren beharrear; harrezkero gune hori ezinbesteko erreferentzia da euskaltzale guztientzat. Handik kale gutxi batzuk harago, berriz, Artekalen, beste batzuek ere ekin zioten beharrari, lan mundua euskalduntzeko asmoarekin ekin ere: 1990eko irailean, Patxi eta Koldo Alaña anaiek Artez Euskara Zerbitzua enpresa jarri zuten abian. Deustuko anaiek argi ikusten zuten eurek bete ezean inork ez zuela beteko lanaren munduan zegoen hutsunea. Hortaz, *do it yourself* filosofiari jarraituz, biderik artezena aukeratu zuten eta euren asmoak gauzatzeari ekin zioten. Lehenengo eginbeharra Euskal Herri osoko profesional eta merkatarikari euskaldunen gida osatzea izan zen. Emaiza uste zutena baino hobea izan zen, *Euskaldunon Gida*-n sei mila izen inguru bildu baitzituzten. Hona Patxiren gogoeta: “Euskaldunok egunero erabiltzen ditugu zerbitzu ugari baina gehienetan erdaraz, askotan jakin ere ez dakigulako nork eskainiko ligukeen zerbitzu hori euskaraz”.



Artez-ek eskaintzen dituen hiru zerbitzu nagusiak (Plangintza, Itzulpengintza eta Papergintza) euren logoko hiru giltzetan islatzen dira. **Iturria:** Artez Euskara Zerbitzua.

Gida amaitu eta gero, enpresak euskalduntzeko plangintzak lantzen hasi ziren. Horrez gain, hutsuneak azalarazteko tresnarik onena eguneroko jarduna zela egiaztatu ahal izan zuten:

“Artez-eko oinarritzko inprimaki batzuk behar izan genituenez (fakturak, etab.) eta inork ez zituenez euskaraz eskaintzen, geu hasi ginen horiek inprimatzen eta banatzen. Honela, euskal papergintzako atalaren oinarria jarri genuen eta inprimakiez gain, agendak, zoriontzeko krismak eta beste gauza asko hasi ginen sortzen”.

Alañatarrek, ordea, garbi zeukaten euren lana tanta bat zela erdal itsasoan. Egoerari buelta emateko gizarteko eragile guztiak batuko zituen sinergia bizia beharko zela sumatzen zuten. Iritzi berekoak ziren 1990eko hamarkadaren erdialdera Euskal Herrian biltzen hasi ziren hainbat eta hainbat euskaltzale. Bilerok fruitua eman zuten: 1997ko martxoan *Euskararen Unibertsoa* jardunaldiak egin ziren Donostian; Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua sortzeko agindua jaso zuen bertan behin-behineko talde eragileak. Baita agindua bete ere, urte bereko abenduan Durangon jaio baitzen aipatutako erakundea.

Kontseiluak hartu zuen lehenengotariko lana *Bai Euskarari* kanpaina antolatzeari izan zen. Kanpainaren helburu orokorra euskarari bultzada indartsu eta koordinatua ematea zen; horretarako, Kontseiluan bildutakoek ahalik eta eragile gehien inplikazioa lortu nahi zuten. Asmoa konpromiso neurgarriak eta egingarriak lortzea zen; hori bermatzeko, *Bai Euskarari Akordioa* prestatu zuten. Horren arabera, sinatzen zuten eragileek beraiek finkatuko zituzten eman beharreko pausoak. Ondorengo hilabeteetan akordiora bilduko zirenen bidea errazteko, Kontseiluak hogeita bi eragile handirengana jo zuen. Aitzindari lanetan aritu ziren eragile horien artean zeuden Athletic Club, Deustuko Unibertsitatea eta egoitza nagusia Bilbon daukan ELA sindikatua.

Bestalde, Akordioari babes soziala erakusteko eta *Bai Euskarari* kanpaina amaitzeko, 1998ko abenduaren 26an milaka euskaltzalek Euskal Herriko bost futbol zelai bete zituzten. Iluntze hartan San Mamesen 40.000 lagunetik gora elkartu ziren. Gorago aipatu ez ditugun talde eta pertsona asko ere hantxe zeuden; izan ere, makina bat dira azken urteotan Botxoan euskararen alde jo eta su



Bai Euskarari kanpainaren amaiera ekitaldian San Mameseko harmailak bete egin ziren.

Iturria: *Euskaldunon Egunkaria*.

aritu diren arren, leku faltagatik orriotara ekarri ez ditugunak. Ziur han izan zirela, barbarako, San Frantzisko eta Bilbo Zaharra euskaldundu nahian dabiltzan Palanka Euskara Taldeko kideak, Juan Mateo Zabala, Ulibarri eta Bilbo Zaharra euskaltegietao beharginak, EHEko auzoetako taldeetakoak, Administrazioa behargin, teknikari eta agintariak, AEK-ko euskaltegietao langileak, etab. Eta, zelan ez bada, euskara ikasteko eta erabiltzeko pausoa emana zuten milaka eta milaka herritar ezezagun ere bai. Azken batean, horiek gabe kanpaina eta eskola guztiak soberan egongo bailirateke.

Modu agerikoago edo ezkutuagoan mende osoan zehar bilbotarrek euskara-ri erakutsitako atxikimendua, hortaz, igarri-igarrian geratu zen berriro. Urtebete falta zen oraindik milurtekoa amaitzeko, baina hark mende zaharra agurtzeko ekitaldia zirudien. Eta izan zen, ez dezagun ahaztu, egun horretan etxean gertzea hobetsi zuen euskaltzalerik ere, lantzean behineko kanpainen zaparradak eguneroko inkoherentziak ezkuta zitzakeela pentsaturik. Kontuak kontu, batzuen zein besteen usteek eta iritziek aberasturik, 100 urte lehenago ezin amestuzkoa zen sasoiarekin amaitu zuen euskarak bere mende bilbotarra.

XII. Azken berbak. Edo geuk edo inork ez

2004ko abenduan, liburu honen idazketari ekin genion garaian, irratiak belarriak tente jarri zizkigun albistea bota zuen goiz batean: Andres Urrutia abokatu bilbotarra Euskaltzainburu izendatu zuten. Une hartan bertan erabaki genuen izendatze horrekin hasiko genuela liburuaren epilogo. Izan ere, albistea ezin hobeto zetorkigun gero eta argiago antzematen genuen ideiari forma emateko. Eta zein da ideia edo intuizio hori? Bada, beste leku batzuetan egingo dena gutxietsi barik, Bilbo euskalduntzeak Euskal Herri osoaren euskalduntzea ekarriko duela.

Bateren batzuek ezagutuko zuten Urrutia Euskaltzaindian egindako lanengatik; Bilboko beste euskaldun askok, ordea, etxea erosterakoan izan zuten bere berri, hirian bera baita eskriturak euskaraz egiten dituen bakarra. Deustuko Unibertsitate-tik ezagutzen duenik ere izango da; bertan, eskolak emateaz gain, Euskara Juridikoa Mintegia sortu zuen eta. Bestalde, UZEI elkartearen hainbat lan terminologiko prestatu ditu (*Zuzenbide Hiztegia*, *Administrazio Hiztegia*, etab.) eta, itzulpenei dagokienez, berriz, Espainiako Kode Zibilaren euskarazko bertsioa ere berari zor diogu.

Hala ere, lan horiek guztiek ez dute nekatu gizona. 2005eko urtarrilean ardurari berriari ekin zionean agerian utzi zuen, komunikabideei emandako zenbait elkarrizketatan, ez zebilela asmo eta ideia berrien faltan. Hona hemen bere hitzaldiaren zatitxo bat:

“Barne antolakuntzari buruzko arautegiak ere behar ditu gaurkotu eta eguneratu Euskaltzaindiak. Malguago jokatu, euskaltzain urgazleak berbizitu, aktibatu, euskaltzain osoengandik gertuago jarri. Datozen urteetan, andrazko zein gizonezko, euskalgintzaren hamaikatxo aditu, jakitun, sortzaile, eragile... bertaratu beharko dira, euskaltzain oso zein urgazle izateko. Horretarako, bistan da, Euskaltzaindiak euskalgintzaren gune erkide behar du izan, bertara biltzen baitira bateko eta beste-ko euskaldunak, mugaz, ideologiaz, pentsaeraz... bereiz direnak, baina euskara lokarri dutenak.”

Berba batean, Euskaltzaindiaren jarduna gizartean sakonago txertatu nahi zuela, Akademiara hizkuntzalariez gain hainbat arlotako profesionalak erakarritz. Liburua osatzen ari ginela, berriz, 2006ko maiatzean, Mikel Zalbide donostiarra euskaltzain oso izendatu zuten. Bere berbak ere oso interesgarriak begitandu zitzaizkigun:

“Gure hizkuntzaren salbamena goi-mailako zabalkunde horretatik datorrela uste izaten dugu sarri. Bistan da, jakina, kalterako ez direla saio horiek. Eguneroko bizibide arruntean geure arnasmune segurtaturik (euskaldunok egunez egun osaturik eta erdal munduak kontsentsualki onarturik) ez dugun artean, ordea, nekez ekar dezake gorabide horrek, euskararentzat, probetxu handirik. Espazio soziofuntzionalen garrantzia ez da gutxiestekoa. Irakaskuntzaren alorreko saioa, hainbat aldetatik ezinbestekoa, motz gelditzen da hizkuntzaren espazio soziofuntzional barrenkoi-intimo hori segurtatzeko orduan, eta oso motz bere eragina (etxetik erdaldun diren umeein ari delarik) hartara zabaldu nahi duenean. Irakasle-jendeak daki, inork baino hobeto agian, egia horren berri.”

Diagnosiaren ondoren, Zalbidek aurrerabiderako lorratzak ere zehaztu zituen:

“Orain, azkeneko 30 urtean baino ondotoz atentzio handiagoa eskaini behar diogu gure bizileku inguruari; bai etxeari, bai auzoari, bai herri bizitzari. Neurri batean, euskalgintzak herrigintza edo auzogintza bihurtu behar du. Pentsatzea umeak eskoletara bidali eta han euskara ikastearekin horiek hazten direnean euskaldun peto izango direla eta euskarazko gizarte bat osatuko dutela, lehen agian posible zen, proba egin gabe geundelako. Orain proba egin dugu. Orain ez dugu eskubiderik horretan pentsatzen jarraitzeko. (...). Eskola eta horren inguruko bestelako liburugintzak, literatura eta prentsa euskaraz izatea mesederako dira, dudarik ez dago. Horiek beharrezkoak dira, baina horiek ez dira aski. Eta beste era bateko formulazioetara pasa beharra dago, eta neurri batean gure bizilekuak, ingurune hurbil horiek eta gure lan-esparruko harreman minimo batzuk euskaraz nola taxutzen diren edo nola segurtatzen diren edota galduta dauden lekuetan nola berreskuratzen diren planteatu beharra dago.”

Haize berriak, beraz, Plaza Barriko egoitzan. Haize berriak baita trenbide sarean, itsasadarrean edota Artxandako maldetan gora. Mende berriarekin batera, La Roblako trena berriro hasi zen aspaldiko bide malkartsuan gora eta behera. Hori bai, etena eta gero, bagoiei tiraka doan makinak garai zaharretakoak baino indar handiagoa dauka. Tranbia kulunkaria ere galdu zen Arratiako laino artean, baina orain suge berde batek zeharkatzen ditu Atxuritik Basurturainoko kaleak. Funikularrak di-da batean plantatzen gaitu Artxanda gainean; lur azpitik, berriz, metroak jendetza mugitzen du ordu oro.

Bistan da hiri biziak etengabeko berriztatzea eskatzen diela garraiobideei; hizkuntza ere, mezuen, ideien eta sentimenduen garraiobide den aldetik, derrihortuta dago egokitzen. Bilboko euskaldunek ederto dakite hori eta ez daude besoak bilduta, ezta hurrik eman ere. Udalak bere beharginak euskalduntzeko



Euskalgintzako hainbat eragilek du egoitza Euskararen Etxean. Irudian, etxearen kanpoaldea. **Argazkia:** Bizkaiko Foru Aldundia.

planari eusten dio eta, horrez gain, Euskara Biziberritzeko Plana ezartzekotan dago. Aldundiak, berriz, Euskararen Etxea zabaldu zuen 2004an Aoiz plazan.

Errepublika zaharretan, berriz, gogor jarraitzen dute: Deustualdean Euskara Dariola eta *Hitza Hartu* desagertu egin ziren baina Berbaizu Euskara Elkarateak eta *Prest!* aldizkariak hartu dute lekukoa. San Inazio-Tellaetxek ere ekarri du bere alea: Kabia taberna eta kulturgunea martxan dago 2005eko abendutik. Begoña eta Santutxuri dagokionez, gogoz eusten diete aspaldiko erronkei baina haize berriei atea itxi barik: duela mende laurden Santutxuko Mintza Taldean ezagutu genuen Joseba Basterra gaur egun Berbalagun egitasmo arrakastatsuko partaide dugu eta Asapalak eta Bertso Eskolak ere euren martxa jarraitzen dute.

Hiriko beste muturrera egingo dugu salto orain, Zorrotza ez aipatzea barkaezina litzateke eta; izan ere, Euskal Txokoak Zorrotzako Euskararen Kontseilua bultzatu du auzoko elkarte, ikastetxe eta talde asko elkarlanean jarritz. Zazpikaletan, berriz, Bilbo Zaharra euskaltegiak kalitate handiko hitzaldiak antolatu ditu azken urteotan Bilbo Zaharra Forum proiektuaren barruan (Euskaltzaindiarekin 2001ean egindako hitzarmenari esker sortua). Hiriko foroetara ez ezik, uhi-

netara ere heldu da euskara: Bizkaia Irratiak Mendebaldeko euskaran dihardu 1990eko hamarkadaz geroztik; Tas-Tas eta Irola irrati libreek gero eta gehiago emititzen dute euskaraz, eta badira urte batzuk Jabi Zabala eta Patxi Gaztelumendik Euskal Herriko lehenengo irrati digitala jarria dutela martxan: Irratia.com. Horrez gain, biek ala biek Kafe Antzokiaren euskara hutsezko irrastian, Bilbo Hiria Irratian ere badihardute.

Irrati horiek entzuten aritzen dira batzuetan Artez-eko hamalau beharginak edota AEK-k sortutako AHIZE enpresakoak. Izan ere, euskaltegi txikienak desagertu diren arren, AEK-k lan esparru berriak landu ditu, hala enpresei zuzendutako erabilera planak (horixe da hain zuzen AHIZEren eginbearra) nola etorkinentzako egitasmoak.

Hezkuntza publikoari dagokionez, barruti batzuetan D eredua baino ez da eskaintzen (Deustualdean), eta guzti-guztietan beheranzko joera nabarmena ageri du A ereduak. Eta irakaskuntzaz gain, beste hainbat esparru ere blaitu ditu olatu horrek; Interneten unibertsoan, esate baterako, Bilbon sorturiko uharte euskaldun txiki geroz eta ugariagoak hasi dira agertzen: www.nontzeberri.com, www.bizkaie.biz eta Begoñako errepublika zaharreko blog komunitatea, adibidez.

Bistan da dozena bat urte besterik ez daukan plaza birtualean euskara indarra hartzen hasi dela; baina arte eszeniko zaharrear ere eutsi egin dio, bai horixe. Gerra aurreko Oldargiren, eta, bereziki, XX. mendeko bigarren zatian bide berriak urratu zituzten Kriselu eta Maskaradaren ondotik, Gaitzerdi, “Ez dok hiru” Bikoteatroa, Gilkitxaro edota Ander Lipus etorri dira. Bakoitza bere modu eta erregistroekin, guztiak ari (izan) dira lan aparta egiten Botxoko antzeztoki eta aretoetan.

Aspaldi iragarri zuen Ebaristo Bustintza *Kirikiño*-k: *edo geuk edo inok ez*. Aspaldi, bai, eta aspaldiko lotsa, konplexu, inertzia eta enparauak astinduta, geroz eta bilbotar gehiago ari dira lelo hori barneratzen. La Roblako tren zahararren antzera, bidean aurrera jarraitzen du gure garraiobideak ere, baina, hori bai, duela ehun urte baino motor indartsuagoak bultzatuta eta inoizko bidaiari kopuru handiena daroala. Behin puntu honetara helduta, beraz, abestiak dioena gogoratzea baino ez zaigu geratzen: *bidea eta bidaia, luzeak izan daitezela...*

XIII. Bibliografia

- AGIRREAZKUENAGA, J. "Bilboko Lore Jokoen mendeurrena gogoratuz eta garaiko eztabaidak gaurkotuz. Ciudad y nuevos imaginarios culturales". *Bidebarrieta*, XI-2002.
- AITZOL (ARIZTIMUÑO, J.). *La muerte del euskera*. Donostia: Euskaltzaleak, 1931.
- ALBERDI, P. *Satorrak baino lurperago*. Irun: Alberdania, 2000.
- ALBERDI, P. *Kafka Bilbon*. Irun: Alberdania, 2002.
- AMEZAGA, A. "Para ir a grillos", *Bilbao*, 141. zenbakia, 2000ko abuztua.
- ARANA MARTIXA, J.A. "Resurreccion Maria Azkue. Herri jakintzatik euskara modernora". *Bidebarrieta*, IV-1999.
- ARANBARRI, I. *Gure mendea. Ehun urte euskal kulturaren*. Lasarte-Oria: Komunikazio Bizia-
goa, 1999.
- ARESTI, G. "Jainkoa jaio da Otxarkoagan". *Egan*, 4-6, 1962.
- ARESTI, G. *Azken harria*. Donostia: Luis Haranburu, 1979.
- ARESTI, G. *Harri eta herri*. Lasarte-Oria: Susa, 1986.
- ARESTI, G. *Euskal harria*. Lasarte-Oria: Susa, 1986.
- ARESTI, G. *Harrizko herri hau*. Lasarte-Oria: Susa, 1986.
- ARRIEN, G. *La generación del exilio. Génesis de las escuelas vascas*. Bilbao: Onura, 1983.
- ARRIEN, G. *Bizkaiko ikastolak, 1957-1972. Beren hasiera eta antolaketa. Las ikastolas de Bizkaia, 1957-1972. Sus orígenes y organización* (Ramon Etxebarriaren itzulpena). Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1992.
- ARGÜESO, M.A. *El euskara en Bilbao (situación y perspectivas)*. Bilbao: Gabriel Aresti SAL, 1991.
- ARRIAGA, E. *Lexicón etimológico, naturalista y popular del bilbaino neto*. Bilbao: Bilboko Udala, Udal Liburutegi Klasikoa, 2001.
- ATXAGA, B. (IRAZU, J.). "Bilbografia", in ATXAGA, B. (IRAZU, J.). *Lekuak*. Iruñea: Pamiela, 2005.
- ATXAGA, M. *Gerra aurreko eta ondoko euskalgintza*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1998.
- ATXAGA M. *EAJ eta euskara*. Bilbo: Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1996.
- AZKUJEREN OMENEZ. *Lekeitioko Sustraia* aldizkariaren zenbaki monografikoa. Lekeitio: Sus-
traia, 1984.

- BATXI (BILBAO, J. B.) *Hau mundu arrano hau*. Zarautz: Susa, 1997.
- BILBOREN 700. URTEURRENA. HIZKUNTZA GUINEA. SINPOSIOA. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 2002.
- BLASCO, R. "Historia de la canción moderna en el Bilbao Metropolitano". *Bidebarrieta*, III-1998.
- BRANCAS, M. *Bilboko emakumeen gida. 700 urteko historia*. Bilbo: Bilboko Udala, 1998.
- CAMINO, I.; GUEZALA, L. *Juventud y nacionalismo vasco: Bilbao (1901-1937)*. Bilbao: Sabino Arana Fundazioa, 1991.
- DEL VIGO, J.; EGIRAUIN, J. *Recaldeberri. Historia y conflicto*. Bilbao: Ediciones Beta, 2002.
- DIAZ, B. *Y así nos entendemos. Lenguas y comunicación en la emigración*. Bilbao-Madrid: Likiniano-Traficantes de Sueños, 2004.
- DIAZ NOCI, J. *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1995.
- ENBEITA, O. "Neurea gehiago maitatzen lagundu dit kanpoko ezagutzeak" [Karmele Goñiri elkarrizketa], *Berria*, IG gehigarria, 2005-2-27, 6-7 orr.
- ELUSTONDO, M. A. "Atzo da gaur" [Segundo Jauregizuriari elkarrizketa], *Berria*, Udako tartea gehigarria, 2005-9-15, 6-7 orr.
- ERRAZKIN, Telesforo de. *Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin. Argazkiak. Fotografías. Photos*. Bilbao: Bilboko Euskal Museoa, 2000.
- ETXEBARRIA, M. *Sociolingüística urbana: el habla de Bilbao*. Salamanca: Universidad de Salamanca, 1985.
- GAMINDE, I. *Bilbotarron euskararen zuzuan*. Bilbo: Asapala Kultur Elkartea, 2004.
- GARITAONAINDIA, C. "Prensa, radio, cine y televisión en la historia de Bilbao". *Bidebarrieta*, I-1996.
- GOIOAGA, B. *Album de unos locos*. Bilbao: Udal Liburutegi Klasikoa, 2002.
- GRANJA PASCUAL, J.J. "Creación y evolución de las cátedras de euskera en Bizkaia hasta 1936". San Sebastián: Eusko Ikaskuntza, Cuadernos de sección, Educación 7, 1994.
- HURTADO, M. *Historia de la Villa de Bilbao* (III. eta IV. liburukiak). Bilbao: Amigos del Libro Vasco, 2000.
- I. JARDUNALDIK SOZIOLOGIAZ. Bilbo: Bilboko Udala, 1993.
- INGO NIEBEL, M. A. "Der Bilbao Song. Visiones de la villa escritas en alemán". *Bidebarrieta*, XIV-2003.
- IRIGOIEN, A. "Bilbo eta euskara". *Euskera*, XXII, 1977.
- IRIGOIEN, A.. "Carta en lengua vasca dirigida en 1683 desde Bilbao por F. Basauiuso a Joanes de Callo a San Juan de Luz". *Euskera*, VII, 1962.
- ITURRIAGAETXEBARRIA, A. "Ekinez egina. Gotzon garateri omenaldia. Orain 30 urte Euskal Filologia sortzeko bultzada eman zuen irakasleari omenaldia egin diote". *Berria*, 2006-05-03, 15. or.
- ITURRIOTZ, A. "Sorne Untzueta", *Zabalik*. 2002-5-24.
- IZAGIRRE, K. *Euskararen Historia txikia Donostian, 1800-1998*. Donostia: Susa, 1998.
- IZARZELAIA, A. *Los barrios altos de Bilbao. Documentos sobre la historia de Bilbao la Vieja, San Francisco y las Cortes*. Bilbao: Aldauri Fundazioa, 2001.
- IZTUETA, P. *Orixeta eta bere garaia*. Donostia: Etor, 1991.

- JIMENEZ, E. "Hemingway eta Bilbao". *Bidebarrieta*, XIV-2003.
- KINTANA, X. "Hendaian... zabal zabalik begiak", in KINTANA, X. *Nazioarteko ipuinak*. Donostia: Hordago, 1980.
- KINTANA, X. "Unamuno eta euskara". *Jakin*, 121. zenbakia, 2000.
- KINTANA, X. "La agonía del euskara en Bilbao. Diagnósis socio lingüística: 1901-2001". *Bidebarrieta*, XI-2002.
- KINTANA GOIRIENA, J. *Vizcaytik Bizkaira? R. M. Azkue (1888-1919)*. Bilbo: BBK Fundazioa eta Euskaltzaindia. 2002.
- KIRIKIÑO (BUSTINTZA, Ebaristo). *Egunekoa*. Bilbo: Sutondoan, 1981.
- KLAUDIO HARLUXET FUNDAZIOA. *Euskal Hiztegi Entziklopedikoa*. Donostia: Claudio Harluxet Fundazioa, 1995.
- LABAYRU IKASTEGIA. *Derioko Udako Euskal Ikastaroa. 25 urtean (1970-1994)*. Bilbo: Labayru Ikastegia, 1996.
- LANDA, J. *Gerraondoko poesiaren historia*. Donostia: Elkar-AEK, 1983.
- LIZUNDIA, J.L. "Euskal kulturgintza 60ko hamarkadan". *Euskera*, II, 2004.
- MENDIZABAL, G. "El movimiento de mujeres en Bilbao". *Bidebarrieta*, X-2001.
- MONTERO, M. (1996). "Bilbao: estudios e investigaciones sobre el siglo XX: futuras líneas de trabajo". *Bidebarrieta*, I-1996.
- MONTERO, M. *Cronicas de Bilbao y de Vizcaya* (I., II., III. eta IV. liburukiak). San Sebastián: Txertoa, 1997.
- OLAZIREGI, M.J. *Bernardo Atxagaren irakurlea*. Bilbo: Bibliotex, *Deia* bilduma, 2002.
- ONAINDIA, S. *Euskal Literatura (I)*. XVI, XVII eta XVIII mendeak. Bilbo: Etor, 1972.
- ONAINDIA, S. *Euskal Literatura (II)*. XIX mendea. Bilbo: Etor, 1973.
- ONAINDIA, S. *Euskal Literatura (III)*. Bi menderen artean, 1896-1920. Bilbo: Etor, 1974.
- ONAINDIA, S. *Euskal Literatura (IV)*. 20 garren mendea. Bilbo: Etor, 1975.
- ORTEGA, H. "Behin batean", *Prest.* 6, 10 eta 31 zenbakiak.
- PEREZ DE LA PEÑA, G. *Bilbo. Zabalguneak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2001.
- SAIZ VALDIVIELSO, A. C. *Bilbao en la memoria. Imágenes de anteayer*. Bilbao: Laga-BBK, 1992.
- SANCHEZ TIRADO, J. M. *Adiós al Bilbao que se nos fue*. 2. argit. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 2000.
- SARRIONANDIA, J. *Hau da ene ondasun guztia*. Tafalla: Txalaparta-Esan Ozenki, 1999.
- SIADeco. *Euskara Bilbon*. Bilbo: Bilboko Udala, 1991.
- SARASUA, J. *Biziaren hizkuntzaz: Txepetxekin solasean*. Bilbo: Gara, 1997.
- TALASAC, R. "La Sociedad el Sitio y la organización de los Juegos Florales de 1901: El certamen de 1895 como germen de los mismos". *Bidebarrieta*, XI-2002.
- TOLEDANO, R. *Del campo a la ciudad II*. Madrid: El País, 2006.
- TORREALDAI, J. M. *El libro negro del euskera*. San Sebastián: Ttarttalo, 1998.
- TXEPETX (SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M.). *Un futuro para nuestro pasado*. San Sebastián: Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo – Adorez eta Atseginez Mintegia, 1991.
- TXEPETX (SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M.). *Aplicación sociolingüística de la territorialidad: márgenes de encuentro, Bilbao y el euskara: sistemas modélicos de interpretación, modelos sistémicos de actuación*. Bilbao: Bilboko Udala, 1999.

- UGALDE, M. *Mujeres y nacionalismo vasco. Emakume Abertzaleen Batza*. Bilbao: EHU, 1993.
- UGALDE, M.; ARANA MARTIXA, J.A. *Euskaltzaindiaren historia laburra*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1984.
- UGALDE, M. "Kazetari euskaldun baten kronika". *Euskera*, XXXII, 1987.
- UGARTE, P. *Historia de Bilbao. De los orígenes a nuestros días*. San Sebastián: Txertoa, 1999.
- UNAMUNO, M. *Recuerdos de niñez y de mocedad*. Bilbao: Bibliotex, *Deia* bilduma, 2002.
- UNAMUNO, M. *Paz en la guerra*. Madrid: Cátedra, 1999.
- VIAR, J. *Bilbao en el arte*. (II. eta III. liburukiak). Bilbao: BBK, 2000.
- ZELAIETA, A. *Gabriel Aresti. Biografía*. Zarautz: Susa, 2000.
- ZELAIETA, A. "Bilboaldeko euskarazko prentsa idatzia: 1940-1980". Bilbo: *Bidebarrieta*, XVI-2005.
- ZUBEROGOITIA, A. "Xabier Gereñori elkarrizketa", *Jakin*, 138. zenbakia, 2003.
- ZURIMENDI, M. M. *El automóvil en Bizkaia*. Bilbao: BBK fundazioa, 1996.

MIATUTAKO KAZETAK

Agur.
Anaitasuna.
Berria.
Berton.
Bidebarrieta. Bilboko giza eta gizarte zientzien aldizkaria.
Bilbao.
Deia.
Egan.
Egin.
El Correo.
Euskaldunon Egunkaria.
Euskalzale.
Euskera.
Euzkadi.
Euzko-Deya.
Ibaizabal.
Jakin.
La Gaceta del Norte.
Pott.
Prest.
Vida Vasca.
Zabalik.
Zenbat Gara.
Zeruko Argia.

XIV. Webgune interesgarrien zerrenda

<http://ehe.euskalerria.org>
www.aeknet.net
www.agiriak.net
www.armiarma.com
www.artez.net
www.artxandape.net
www.asapala.org
www.athletic-club.net
www.begonazpi.net
www.berbaizu.org
www.bilbao.net
www.bilbozaharra.com
www.bizkaia.net
www.bizkaiairratia.com
www.bizkaie.com
www.dantzak.com
www.deusto.es
www.ehu.es
www.elurnet.net
www.euskal-museoa.org
www.euskaltzaindia.net
www.euskerazaleak.biz
www.gabrielaresti.com
www.gaztedi.net
www.goiena.net/blogak/euskara.agoan
www.haupittuhau.org

www.habe.org
www.jmzabala.com
www.kafeantzokia.com
www.karmeloikastola.com
http://karrajua.org
www.kili-kili.net
www.kirikino.com
www.labayru.com
www.lauro.org
www.lizardimt.com
www.maskarada.net
www.mendebalde.com
www.nontzeberri.com
www.tas-tas.org
www.topagunea.org
www.txistulari.com
www.ulibarri.org
www.urretxindorraikastola.com
www.zenbatgara.org
www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak

XV. Elkarriketatutako pertsonen zerrenda

1930

Ibone Altuna (Joseba Altunaren alaba).
Itziar Arrutza (Mikel Arrutzaren alaba).

1940

Agurtzane Elordui (hizkuntzalaria; EHUKo irakaslea).
Iñaki Irigoien (Dindirri eta Txinpartak taldeetako kide ohia; Alfonso Irigoien-en anaia).
Xabier Kintana (euskaltzaina).

1950

Iñaki Irigoien (Dindirri eta Txinpartak taldeetako kide ohia; Alfonso Irigoien-en anaia).
Xabier Kintana (euskaltzaina).

1960

Xabier Kintana (euskaltzaina).
Anjel Zelaieta (*Anaitasuna*-ko zuzendari ohia).

1970

Imanol Alvarez (*Anaitasuna*-ko laguntzaile ohia).
Edurne Brouard (AEK-ko kidea).
Jose Ramon Etxebarria (Iker taldeko eta Santutxuko bertso eskolako kide ohia).
Xabier Kintana (euskaltzaina).

Jose Llerandi (Iker taldeko eta EHEko kide ohia).
Anjel Zelaieta (*Anaitasuna*-ko zuzendari ohia).
Koldo Zuazo (hizkuntzalaria; EHUKo irakaslea).

1980

Imanol Agirre (Maskarada taldeko kide ohia).
Edurne Brouard (AEK-ko kidea).
Jose Ramon Etxebarria (Iker taldeko eta Santutxuko bertso eskolako kide ohia).
Jose Llerandi (*Anaitasuna*-ko eta EHEko kide ohia).

1990

Amaia Andonegi (Iralako Euskal Txokoko dinamizatzailea 1993-1998 bitartean).
Txomin Aurrekoetxea (Uztarri Kultur Taldearen sortzaileetakoa).
Joseba Basterra (Santutxuko Mintza Taldeko kidea).
Koldo Celestino (HBko Euskara zinegotzia Bilboko Udalean 1987-1991 bitartean).
Lutxo Egia (Euskal Txokoko kidea)
Teo Etxaburu (Zenbat Gara elkarteko kidea).
Benito Fiz (Santutxuko Asapala euskara elkarteko kidea; AEK-ko kidea).
Karlos Gonzalez (Deustuari Euskara Dariola-ko eta Berbaizu Euskara Elkarteko kidea).
Joseba Irazabal (Lizardi Mintza Taldeko sortzaileetako bat; AEK-ko kidea)
Mertxe Luzuriaga (Deustuko Euskal Irakaslegoko zuzendaria).
Ander Manterola (Labayru Ikastegiko sortzaileetakoa).
Ana Reka (Bilboko Udaleko Euskara zinegotzia 1991 eta 1995 bitartean).
Aitor Romeo (Deustuari Euskara Dariola-ko eta Berbaizu Euskara Elkarteko kidea).
Bittor Rueda (Zorrotzako Euskal Txokoko kidea).
Arantza Uribe (Hor Dago! konpartsako kidea).

XVI. Aurkibide onomastikoa

- Abasolo-Aranguren (familia) 183
Abaunza (anderea) 77
Abbadia, Antoine 38
Abeletxe (Ziarsolo, Manu) 67
Agirre Lekube, Jose Antonio 115
Agirre, Imanol 254-261
Agirre, Jesus Maria 317
Agirre, Luis 108,126
Agirre, Teodoro 115
Agirre, Txomin 72
Agirreazkuenaga, Joseba 218, 229, 252
Agirrebaltzategi, Paulo 252
Agirre-Garai (familia) 183
Agirrezabal-Bilbao (familia) 183
Aiaitui, Jose Ramon 218
Aitzol (Ariztimuño, Jose) 103,111,112,119
Ajuria (ahizpak) 160
Alaña, Koldo 321
Alaña, Patxi 321
Alberdi, Agurtzane 172,173
Aldana, M. 252
Aldatz, Josefina 117
Alfonso XIII, 87
Altuarana, Martin 86
Altube, Seber 120
Altuna, Ibone 107
Altuna, Joseba 71, 84, 85, 102, 107, 111, 117, 121
Altuna, Libe 117
Altuna, Patxi 219
Alvarez, Imanol 225
Alzola, Pablo 32
Amatiño (Aranberri, Luis Alberto) 242
Amonarriz, Kike 273
Amuriza, Xabier 262, 294, 298
Amutxategi, Andoni 187
Andia-Berrojalbiz (familia) 183
Andonegi, Amaia 292,309
Angoitia, Alberto 254
Angulo, Alex 256
Anitua, Josetxu 298
Añon, Imanol 227
Anselmi, Luigi 309
Ansoregi, Charo 183
Antiguedad, Iñaki 242,262
Antza, Mikel (Albisu, Mikel) 259, 260
Antzola, Jose Mari 114
Apraiz, Angel 71
Arana Martixa, Jose Antonio 212,237
Arana, Esteban 196
Arana, Luis 59
Arana, Sabino 36, 37, 40, 41, 42, 59, 64, 107, 115, 296
Araneder, Joan 28

- Aranzadi, Dionisio 318
Aranzadi, Engrazio (Kizkitza) 45, 59
Aranzadi, Felix 43
Aranzadi, Telesforo 40, 72
Arbeloa, Koldobika 86, 117
Arbulu, Ibon 312
Arejita, Adolfo 317
Arenaza, Josu 168, 204, 205, 230
Aresti, Gabino 32, 197
Aresti, Gabriel 15, 21, 168, 175, 177, 187, 195, 196, 199, 200, 211-213, 217, 220
Aresti, Juan Mari 197
Aretxabaleta, Alike 90
Aretxaga, Xabi 312
Argoitia (anaiak) 191
Argüeso, Maria Angeles 276
Arizmendiarrreta, Jose Mari 125
Ariztondo, Josune 227
Arozamena, Migel 187
Arrate (neba-arrebak) 160
Arregi, Joseba 273
Arregi, Natxo 227
Arregi, Olatz 303
Arregi, Rikardo 206
Arrese Beitia, Felipe 38, 40
Arretxe, Jon 320
Arriaga, Angeles 107
Arriaga, Emiliano 18, 20, 22, 29, 39
Arribi, Rosario 104
Arrien, Gregorio 14
Arrien, Maria 109
Arrieta, Jose Luis 196
Arrieta, Joseba 161
Arrieta, Pello 218
Arrieta, Txus 300
Arrillaga, Maria Luisa 109
Arrizabalaga, Juliana 100
Arrue, Alberto 43, 76, 99
Arrue, Antonio 164
Arruti, Marian 258
Arruti, Txomin 125
Arrutza, Miren 88
Arrutza, Mikel 21, 27, 56, 79, 84, 85, 87, 88, 111, 125, 160, 175, 203
Arteaga, Carmelo 100
Arteaga, Teresa 100
Artetxe-Arana (familia) 183
Artibai (Ituarte, Jose) 120
Artiñano, Anton 242
Artze, Joxean 193
Astibia, Pantzeska (Onintze) 120
Astiz, Miguel Angel 189, 203
Astoreka, Loli 256, 313
Astorki, Tere 196
Astray, Millan (jenerala) 122, 123
Atxa, Jesus 189, 192
Atxaga, Bernardo (Irazu, Joseba) 207, 220-222, 229, 252, 255-260
Atxukarro, Severino 32
Aurre, Jon 229, 240, 258, 262
Aurrekoetxea, Iñaki 279
Aurrekoetxea, Txomin 314
Axular (Agerre, Pedro) 165, 226, 234, 316, 317
Azkargorta, Antton 253
Azkoaga, Iñaki 218
Azkoitia, Pello 283
Azkue, Resurreccion Maria 15, 19, 21, 22, 27, 36, 37, 39, 40-43, 46, 48, 49, 53-55, 59, 61, 62, 66, 72, 73, 78-83, 88, 93-95, 104, 127, 139, 140, 156-160, 164
Azkue, Teresa 118
Aznar, J. M. 68
Aznar, Manuel 68
Azpeitia, Julene 118, 119, 121
Azpillaga, Jon 186, 187
Azurmendi, Joxe 205
Azurmendi, Juan 205, 223, 252

- Badiola, Ricardo 237, 240
 Bakedano, Jose Julian 252
 Barandiaran, Sara 254
 Barea, Ramon 256
 Baroja, Pio 73,201
 Barrenso (Agirre, Tomas) 86, 113, 114, 117, 120, 121, 123
 Barrutia, Jokin 196
 Barrutia, Patxi 196
 Barrutia, Pedro Inazio 212
 Basabe, Iñaki 256
 Basarri (Eizmendi, Inazio) 120, 167, 187, 283
 Basautiluaso, Fermin 29
 Bastera (anaiak) 239
 Bastera, Joseba 305, 306, 327
 Basterretxea, Jose Inazio 252
 Basterretxea, Nestor 192
 Batxi (Bilbao, J.B) 51, 65
 Baudelaire, Charles 122
 Beazkoetxea, Arsenio 68
 Belasko, Felisa 109
 Belaustegigoitia, Federiko 104,120
 Belaustegigoitia-Zubizarreta (familia) 183
 Bengoa, Jose Luis 187,189
 Benito Del Valle, Jose Mari 190
 Benito Del Valle, Luis 190
 Beobide, Iñaki 165,206
 Berasaluze, Sabin 175
 Berasategi, Juanba 223
 Bereau, Pedro 28
 Bernaola, Karmelo 248
 Berriatua, Imanol 175, 204, 205, 213, 223, 226, 229, 240-242, 248, 251, 252
 Berrojalbiz, Julia 21, 183-185, 189, 202, 235, 236
 Berrojalbiz, Marife 256, 258
 Betti, Ugo 196
 Bidau, Petriko 28
 Bidaurreazaga, Josefa 34
 Bilbao, Jon 174
 Bilbao, Jose Ramon 262, 263
 Bilintx (Bizkarrondo, Indalezio) 263
 Bingen Aizkibel (Gonzalez Etxebarri, Luis) 71, 93, 57
 Biteri, Bizente 117
 Biziola, Juana Luis 86
 Brecht, Bertolt 217
 Brouard, Edurne 237, 238, 248, 250, 267, 268, 271, 272
 Brouard, Santi 229, 248
 Burutxaga, Santiago 256, 259
 Cadena y Eleta gotzaina 79
 Callo, Joanes 29
 Camara, Imanol 228, 251
 Campo, Joseba 294
 Canovas del Castillo, Antonio 42
 Carrere, Pantxo 237
 Castañares, Jon 245, 265
 Castro, Ana de 314
 Castro, Rafael 200
 Catulo (Caius Valerius Catullus) 187
 Cayado, Koldo 312
 Celaya, Gabriel (Mujika, Rafael) 201, 201
 Celestino, Koldo 265, 286, 290
 Cervantes, Miguel de 99,123
 Chaplin, Charles 115
 Chavarri, Victor 45
 Colina, Padre 137
 Colorines (Barredo de, Angelillo) 225
 Corcuera, Javier 19, 45
 Croce della, Giulio Cesare 121
 Delgado, Josu 292, 309
 Diaz-Letamendi (familia) 183
 Dorronsoro, Unai 309
 Duhalde, Anje 298
 Dumas, Alexandre 137

- Duñabeitia, Beti 287
Durrio, Francisco 43
Eduarda (Axpe-Martzanako baserri-
rra) 100
Egia, Eustanasia 27
Egia, Lutxo 309
Egileor, Sabin 214, 240, 318
Egileor; Manu 56
Egiluz, Jose Ramon 252
Egiluz, Nicomedes 30
Egiraun, Pilar 90
Eguskiza, Iñaki 222
Eguzkitza, Andolin 21, 218, 252
Eguzkitza, Jesus 317
Eguzkitza, Juan Bautista 93, 94
Eisenhower, Dwight David 154
Eizmendi, Inazio (Basarri) 120, 167,
187, 283
Eleizalde, Luis 72,83,104
Elgezabal, Patxi 240
Elgezabal-Iturri (familia) 183
Elgezabal-Zelaieta (familia) 183
Elordui, Agurtzane 138, 139, 147,
149, 155, 156, 235
Elorriaga, Karmelo 146
Elorriaga, Unai 318
Elorriaga, Xabier 196
Elortza, Gotzon 192
Elortza, Jerardo 196
Enbeita, Balendin 166, 167,187
Enbeita, Imanol (Ibon/ Urribitarte, Ibon)
126
Enbeita, Kepa (Urretxindorra) 56, 70,
81, 103, 120, 139
Enziondo, Eukén 218
Epalza, Tomas 19, 46, 48
Erkiaga, Eusebio 125, 159, 175, 189,
Erkinigo, Juan Bautista 34
Errazti, Jose 90
Errazti, Joxemari 58
Errazti, Karmele 75, 90, 91 118
Erzilla, Manu 222
Escauriaga, Benito 90
Escudero, Javier 221
Etxaburu, Teo 294
Etxaide, Ignazio Maria 140
Etxaniz, Nemesio 194
Etxearte, Migel Anjel 196
Etxebarria, Igone 320
Etxebarria, Jose Ramon 218, 226,
227, 230, 239, 240, 242, 252,
253, 262, 263
Etxebarria, Juan Anjel 187
Etxebarria, Maitena 20, 251
Etxebarrieta, Arantza 254
Etxebarrieta, Eneko 272
Etxebarrieta, Jose Antonio 200
Etxebarrieta, Txabi 196, 204, 296
Etxeberri, Joannes (Sarakoa) 234
Etxeberri, Joannes (Ziburukoa) 234
Etxegarai, Karmelo 72, 93
Etxegoien, Fermin 299
Etxeiña (bertsolaria) 81
Etxenagusia, J. 122
Etxenagusia, Karmelo 231, 316-318
Etxenike, Pedro Miguel 285
Etxepare, Joanes 28
Etxezarraga, Jesus A. 317
Ezkieta, Marga 285
Ezpeleta, Jose 189
Fabra, Pompeu 19
Feijoo, Andoni 294
Felipe, Eduardo de 215
Felipe, Natxo de 212, 215, 216, 252
Fernandez, Juankar 309
Fernandez, Pepelu 258
Fernandez de Larrinoa, Kepa 243,
246
Fernandez de Pinedo, Garbiñe 235
Fiz, Benito 306

- Fo, Dario 258
 Foruria, Begoña 183, 196
 Foruria, Itziar 196
 Foster, Norman 282
 Fraga, Manuel 203
 Franco, Francisco 123, 126, 132, 133, 135, 140, 154, 180, 182, 198, 216, 229, 239, 265, 307, 320
 Fresnedo, Jesusa 90
 Fuldain, Amaia 254
 Fuldain-Artetxe (familia) 183
 Fuldain-Iturri (familia) 183
 Gabilondo (ahizpak) 160
 Gabiña-Iturriaga (familia) 183
 Gabiria, Julen 318
 Galartza, Mikel 312
 Galdos, Bittor 196
 Gallastegi (anaiak) 160
 Gallastegi, Alejandro 117
 Gallastegi, Eli 57-59, 108, 126
 Gallastegi, Gotasne (Consuelo) 57, 119
 Gallastegi, Jose Joakin 234, 237, 240, 242, 249, 264, 265, 266, 274, 287
 Gallastegi, Klaudio 163, 187, 189, 230
 Gallastegi, Lander 187
 Galparsoro, Marta 258
 Gaminde, Iñaki 30, 144, 146, 147, 235, 238, 292
 Ganboa-Ganboa (familia) 183
 Ganboa-Sanz (familia) 183
 Gandarias, Petra 90
 Gandariasbeitia, Jose 86, 87, 112, 113
 Gangoiti, Mari Carmen 173
 Garai (ahizpak) 160
 Garai, Emille 235
 Garai, Joserra 292
 Garai, Maria Angeles 159, 171, 172, 183
 Garate, Antonio 102
 Garate, Jose Mari 114, 116
 Garcia Lorca, Federico 123
 Garcia, Patxi 194, 195
 Gari (Iñaki Garitaonaindia) 298
 Garmendia, Arantxa 227
 Garmendia, Elixabete 227
 Garmendia, Ixio 196
 Garmendia, Jule 254
 Garmendia, Mari Karmen 227
 Gaztelumendi, Patxi 328
 Gereño, Joseba 190
 Gereño, Maria Estibaliz 173, 183
 Gereño, Xabier 132, 133, 135, 141, 143, 158, 162-164, 168-170, 176, 183, 187, 190, 192, 194, 200, 204, 205, 223, 225, 237, 239, 252, 264, 265
 Gereziaga, Helena 182
 Gereziaga, Solanje 182
 Gezala, Antonio de 103
 Goenaga, Aitzpea 258
 Goenaga, Iñaki 114
 Goenaga, Jaime 235
 Goenaga, Patxi 218
 Goikoetxea, Alejandro 153
 Goikoetxea, Juan Luis 240
 Goioaga, Baldomero 44
 Goiri, Pascuala 37
 Goiria, Xanton 161
 Gomez Ugalde (familia) 34
 Gomeza Etxebarria, Nieves 92
 Goñi, Karmele 21, 171, 185
 Gonzalez Bastida, Joxe Mari 192
 Gonzalez Txabarri, Joxe Juan 227
 Gonzalez, Carlos M. 189
 Gonzalez, Jesus 172

- Gonzalez, Karlos 301, 303
Gonzalez, Sonia 320
Gorordo, Jose Mari 286, 287, 302
Gorosabel, Irene 70
Gorrotxategi, Mitxel 259
Grimm anaiak (Jacob eta Wilhem) 121
Guiard, Adolfo 43
Guinea, Anselmo 43
Guridi, Jesus 72, 102
Gurpide, Pablo 172, 174, 184, 185
Gutierrez, Pello 258
Haran, Ximun 191
Herran ahizpak 107
Herrero, Mari Puri 249
Hidalgo, Juan txu 301
Hoffmeyer, Ernesto 32
Hugo, Victor 122, 137
Ibabe, Adela 217
Ibarra, Asun 236
Ibarra, Fernando 184
Ibarra, Javier 180
Ibarra, Julio 313
Ibarra, Rafaela 40
Ibarretxe, Gregorio 55
Ibaseta, Maria Jesus 90
Ibinagabeitia, Andima 114
Idigoras, Jon 229, 252
Idoiaga, Juan Manuel 187
Igartua, Francisco 127
Intxaurreaga, Iñaxio 240
Intxausti, Alicia 183
Intxausti, Joseba 224, 226
Intza, Damaso 94
Iparragirre, Jose Mari 40
Iraola, Victoriano 70
Irazabal, Joseba 307
Irigarai, Aingeru 140, 285
Irigarai, Jose Angel 285, 298, 299
Irigoien, Alfonso 15, 21, 29, 147,
157-160, 166-169, 175, 176, 183,
185, 200, 205
Irigoien, Iñaki 143, 146, 148, 149,
155, 160-163, 169-171, 185, 198,
204
Irigoiti, Nikolas 28
Iriondo (familia) 183
Iriondo, Edu 218
Iriondo, Karmele 103
Iriondo, Lurdes 193, 195
Iriondo, Manuel 90
Irujo, Daniel 115
Irujo, Manuel 115
Iturbe, Jaxinto 227
Iturralde, Joxemari 222
Iturralde, Juan 37
Iturri, Luis 254
Iza, Nerea 312
Izagirre, Koldo 309
Izagirre, M. 252
James, Francis 122
Jauregizuria, Segundo 99
Jimenez, Edorta 249, 261
Juaristi, Jon 217, 222, 240
Jugo, Salome 42
Junkera, Kepa 249
Kaltzakorta, Jabier 19, 22, 320
Kampion, Arturo 37, 72, 73, 94
Kareaga, Pilar 193-195, 211
Kintana, Xabier 140, 164, 169, 170,
187, 191, 192, 197, 199, 200,
205, 206, 212-214, 216, 218,
226, 227, 229, 238-240, 242,
252, 264
Kirikiño, (Bustintza, Ebaristo) 35, 46,
54, 56, 57, 59, 62, 63, 65-68, 70,
82-85, 87, 94, 120, 328
Kizkitza (Arantzadi, Engrazio) 45, 59
Kristobal, Espe 196
Krutwig, Federiko 15, 140, 141, 149,
157, 158, 160, 168, 169, 242
Labaien, Antonio Maria 249

- Laboa, Mikel 193
 Landa, Erramun 254
 Landa, Josu 213
 Landa, Karmelo 252, 253
 Landaburu, Felix 40
 Landaluze, Manuel 163
 Landeta, Eduardo 104
 Larizgoitia Abaunza, Iñaki Eukeni 77, 78, 145
 Larrañaga, Carmen 103
 Larrañaga, Iñaki 273, 285, 296, 299
 Larrañaga, Josetxo 218
 Larrañaga, P. 39
 Larrea, Txema 285
 Larrukert, Fernando 192
 Lasa, Iñaki 262, 263
 Lasa, Mikel 206
 Lauaxeta (Urkiaga, Estepan) 114, 115, 117, 120, 121, 122
 Lauzurika, Jabi 294
 Legarreta, Albaro 240
 Legarreta, Leopoldo 196
 Legasse, Marc 259
 Legina, Manolo 148
 Leizaola, Jesus Maria 245
 Leizarraga, Joannes 214, 226, 234
 Lejarza, Maria Angeles 183
 Lekuona, Francisco 43
 Lekuona, Julen 192, 193, 194, 262
 Lertxundi, Benito 193
 Lete, Xabier 193, 262
 Libano, Alvaro 292
 Lipus, Ander 309, 328
 Lizardi, Xavier (Jose Mari Agirre) 70
 Lizaso, Sebastian 263, 294
 Lizundia, Jose Luis 205
 Llano, Teresa 34
 Llerandi, Jose 228, 251, 252, 272
 Lloyd, Harold 115
 Lobera, Gotzon 314
 Lopategi, Jon 187
 Lopetegi, Jesus Mari 126
 Lopez Atxurra (anaiak) 218
 Lopez Merino, Pedro 248
 Lopez, Ixaka 172
 Lorenzo, Idoia 312
 Losada, Manuel 103
 Luxie, (Azpitarte, Joxe Antonio) 312
 Luzear (Arzelus, Andres) 125
 Luzuriaga, Mertxe 318
 Madariaga-Ibarra (familia) 183
 Madariaga-Markoartu (familia) 183
 Madariaga, Juanra 320
 Madinabeitia, Jose 46, 80
 Madrazo, Aitziber 303
 Maeztu, Ramiro 39
 Mallea, Kepa 216
 Manterola, Ander 144, 317
 Mañukorta, (Larrañaga, Gregorio) 294
 Marcos, Miren 254
 Mardaraz, Seberi 173, 183
 Mardones, Tito 254
 Markoartu-Rotaetxe (familia) 183
 Martikorena, Angela 34
 Martin Retana, Jose Maria 189, 230
 Martin, Ambrose V. 88
 Martinez de Lagos, Kepa 227
 Martinez, Angel 254
 Martinez, Barbara 285
 Martinez, Domingo 34
 Martinez, Mikel 258, 260, 261, 281
 Mazo, Aitor 258
 Mendibil, Gontzal 291
 Mendiguren Bereziartu, Xabier 216, 227
 Mendizabal Sendia 114
 Mendizabal, Alejandro 125
 Mendizabal, Miren 117
 Mendizabal-Ibarrondo (familia) 183

- Merikaetxebarria, Antton 223
Merino Urrutia, Jose Joan Bautista 127
Mesanza-Aranzabal (familia) 183
Mikoleta, Rafael 16, 19
Millán Astray 123
Mintegi, Laura 252, 253
Mistral, Frederic 121
Mitxelena, Koldo 18, 19, 29, 164, 169, 197-199, 219, 284
Mogel, Bizenta 30
Mogel, Juan Antonio 19
Mokoroa, Justo Mari 170
Mola, Emilio 135
Monasterio, Xabier 239, 240, 271
Montiano, Jose Antonio 189
Montorio, Amaia 254
Monzon, Telesforo 123, 237
Mugarren, Txema 320
Mugartegi, Jon 186, 187
Muguruza, Fermín 294
Muguruza, Josu 292
Mujika, Robustene (Tene) 70, 93
Munduate, Jose Antonio 240
Muniategi, Pilar 183
Muniozguren, Josu 267, 269, 271, 277
Muñoyerro, Jose Luis 203
Muñoyerro-Ajuriagoxeaskoa (familia) 183
Murgizu, M. 107
Murua, Iñaki 263
Muxika, Plazido 114
Nabera, Dolores 92
Nabera, Josu 205
Natxitube, Koldobike 109, 110
Nicolas de, Vidal 200
Nicolas, Jose Manuel 190
Ocio-Endaya (familia) 183
Odriozola, Asier 313
Ogoñope (Ruiz de Azua, Antonio) 117, 120
Okamika, Ines 102
Olabaraz, Joanes 28
Olabide Aita 73, 93, 94
Olaizola, Alazne 309
Olaizola, Jose 189, 192
Olariaga, Antton 227
Olazabal, Rosario 109
Olaziregi, Nerea 303
Oleaga, Jesus 189
Oleaga, Nazario 79, 140, 141
Oleaga, Xabier 240
Onaindia, Santi 81, 231
Oñatibia, Jon 204
Ordorika, Ruper 320
Orixe (Ormaetxea, Nikolas) 93-95, 114, 121, 122, 151, 159, 168
Orkoien, Aita 170
Ormaetxe, Miren 183
Ortega, Hektor 306
Ortuondo, Josu 287
Ortuzar, Manuel 92
Orue, Juan 102
Osa, Erramun 269
Otamendi, Emilio 103
Otamendi, Martxelo 313
Otarbe 126
Oteiza, Jorge 160, 192
Otero, Blas 21, 200, 201
Otsoa, Ibernalo 254
Otxoa, Fernando 312
Otxolua (Garro, Bernardo) 120
Oxanguren, Antonia 90
Palacios, Aita 29
Palacios, Carlos 145
Palacios-Bilbao (familia) 183, 184
Panera, Karlos 256, 258, 259
Pastor, Jose Mari 252
Peña, Ramon 34

- Peña, Xabier 21, 141, 142, 158-160, 169, 171-173, 176, 183, 186, 189, 204, 235, 236, 248
- Perez, Juan Carlos 256
- Perez Urraza, Xabier 196
- Picaza, Samuel 90
- Pikabea, Iñaki 260
- Plauto (Titus Maccius Plautus) 87
- Polo, Carmen 123
- Quincoces, Igor 310
- Rabelli, Alvaro 318
- Ramos, Pauline 90, 108
- Regato del, Txomin 21
- Reguero, Manuel 171
- Reka, Ana 288-290
- Rementería, Jose Maria 171
- Rementería, Karmele 312
- Requero, Irune 309
- Retolaza, Jose Antonio 187-190, 233
- Retolaza-Ereño (familia) 183
- Robles Arangiz (neba-arrebak) 160, 165, 191
- Robles Arangiz, Manu 56, 144
- Romeo, Aitor 302, 303
- Roosevelt, Franklin Delano 133
- Ros Cubas, Ander 17
- Rotaetxe, Karmele 202
- Rotaetxe, Tere 185, 189
- Rousseau, Jean Jacques 137
- Rueda, Bittor 290, 293
- Rueda, Rafa 298, 300
- Ruiz de Pinedo, Iñaki 218
- Ruiz, Txarli 309
- Saez, Iñaki 252
- Sagarminaga, Fidel 37, 40
- Salaburu, Pello 318
- San Martin, Juan 168, 206, 242
- San Miguel, Tomas 294
- Sanchez (Pablo) 184
- Sanchez Tirado, Jose Manuel 137
- Sanchez, Cristina 293
- Santurtun, Idoia 254
- Sarasola, Ibon 213
- Sarasola-Manich (familia) 183
- Sarasua, Jon 299
- Sarria, Jesus 71
- Sarrionandia Ibarra, Borja 303
- Sarrionandia, Joseba 218, 221, 222, 229, 252
- Seminario de Rojas, Juan Miguel 141
- Serrano Suñer, Ramon 135
- Sierra, Josu 274
- Sorozabal, Jokin 294
- Sota, M^a Dolores 108, 109
- Sota, Manu 57, 71, 102, 121
- Sota, Ramon 39, 40, 42, 48, 57
- Subiñas, Francisca 107
- Tabar, Alfredo 81
- Tapia, Koldo 262, 263
- Tauer, Norbert 169, 201
- Tellería, Patxo 258, 260
- Telletxea, Josu 68
- Tennyson 122
- Tobar, Joseba 214, 240
- Tolosa, Inaxio 259
- Torre, Josu 224, 225
- Torrealdai, Joan Mari 224-226, 229
- Torrentegi, Lide 160
- Totorika, Andoni 175
- Trifol, Tomas 171, 225, 229, 252
- Trueba, Antonio 121
- Txapela (Goikoetxea, Mikel Andoni) 215
- Txepetx (Sanchez Carrion, Jose Maria) 23, 276, 277, 282, 283, 285, 286, 288, 296, 299
- Txillardegi (Alvarez, Jose Luis) 168
- Txirrita, (Lujanbio, Jose Manuel) 56, 226
- Ubierna, Jabi 254

- Ugalde, Encarna 107
Ugaldea, Joxe Mari 309
Ugarte, Alberto 254
Ugarte, Pedro 18, 21
Ugarteburu, Anjel 205
Ugarteburu, Iñaki 318
Ugartetxea, Donato 117
Unamuno, Felix 42
Unamuno, Miguel 18, 20, 21, 23, 24, 32, 36, 37, 39, 42-44, 73, 111, 122, 123, 181, 283
Unamuno, Valentina 43
Untzueta, Sorne (Utarsus) 57, 58, 91, 117
Unzueta, Patxo 200
Uranga, Jesus 318
Uresberueta, Anjel 196
Uria, Asen 229
Uriarte, Castor 189, 192
Uriarte, Iñaki 312
Uriarte, Maddalen 313
Uribe, Arantza 312
Uribe, Kirmen 298
Uriondo, Ignacio 34
Urkiola, Antonio Jose 35
Urkixo, Julio 40, 41, 72, 93, 94, 127, 158
Urkixo, Juan Ramon 189
Urresti, Manuela 34
Urrutia, Andres 317, 318, 325
Urrutia, Jose 160
Urrutikoetxea, Koldo 306
Urrutikoetxea, Pantiike 147
Urruzuno, Pedro Miguel 46
Urtasun, Itziar 252
Urteaga, Luis 187
Urzelai, Pello 320
Uzelai, Jose Mari 103
Uzkanga (ahizpak) 160
Uztapide (Olaizola, Manuel) 167, 187
Uzturre (Insausti, Jesus) 125
Vallejo, Luis 108
Valverde, Antton 262
Varela, Isidro 18
Varela, Luis 190
Verdes, Emeterio 221
Verdes, familia 122
Verdes, Jose Felix (Pepe) 221
Verdes, Joseba 221
Verlaine, Paul 122
Verne, Julio 32
Viar-Etxebarria (familia) 183
Vilallonga, Jose 108, 109
Villasante, Luis 157, 169
Villaverde, Txabi 165
Wilde, Oscar 121
Xamar (J.C. Etxegoien) 285
Xemein, Keperin 60-62, 90, 115, 116, 147
Xenpelar (Petrirrena, Joan Frantzisko) 262
Yarza, Lurdes 259
Yeats, W. B. 121
Zabala Arana, Jose 120
Zabala, Iñaki 39
Zabala, Jabi 328
Zabala, Jesus 117
Zabala, Josu 298
Zabala, Juan Mateo 25
Zabala-Egiluz (familia) 183
Zabaleta, Iñaki 252
Zaitegi, Jokin 113, 114
Zalbide, Mikel 326
Zaldegi-Viar (familia) 183
Zaldua, Imanol 320
Zaldunbide, Jeronimo 160
Zamarripa, Pablo 46, 92, 121
Zarandona, Esther 254
Zarandona, Maite 254
Zarate, Mikel 211, 212, 219, 230-232, 234, 235, 241, 317
Zarraoa, Iñaki 227

- Zarraonaindia, Itziar 183, 184
Zarzalejos, Charo 193
Zarzalejos, Jose Antonio 193
Zearra, Josune 174, 235, 236
Zearreta, Juanjo 237, 240
Zelaia, Adrian 189
Zelaieta, Anjel 161, 169, 172, 174,
175, 181, 187, 197-199, 201,
202, 204-206
Zeleta (Garmendia, Juan) 117
Ziarsolo (anaiak) 160
Ziarsolo, Manu (Abeletxe) 67, 120,
125
Zidorra (Etxezarraga, Bizente) 117
Zipitria, Elvira 171, 172
Zupiria, Bingen 320
Zorrilla, Andoni 235
Zuazo, Koldo 214, 240
Zubiaur-Zarate (familia) 183
Zubikarai, Antxon 248, 249
Zubikarai, Augustin 125, 230
Zubiri, Sabin 174
Zubiri-Ganboa (familia) 183
Zubizarreta, Felix 108
Zubizarreta, Fernando 189
Zugaza, Leopoldo 189
Zugazaga, Lorentzo 317
Zulaika, Joseba 169, 181
Zuloaga, Asun 221
Zuloaga, Isabel 88
Zuzen-zale 126

